

# LITTERAE VASCONICAE

Euskeraren  
Iker Atalak

8

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO  
2001

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

## LABAYRU IKASTEGIKO HIZKUNTZA ARLOAREN ALDIZKARIA

### Zuzendaria

ADOLFO AREJITA

### Idazkaritza burua

SEGUNDO OAR-ARTETA

### Idazkaritza

ASIER ASTIGARRAGA

ENEKO BARRUTIA

K. JOSU BIJUESCA

IGONE ETXEBARRIA

JABIER KALZAKORTA

JON KORTAZAR

ANDER MANTEROLA

### Edizio-Taiuketa

IKEDER, S. L.

LABAYRU IKASTEGIA

### Egoitza

Aretxabaleta, 1-1.a

48010 BILBAO

Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58

Posta elektronikoa: [labayru@labayru.org](mailto:labayru@labayru.org)

### Euskal Biblioteka

Larrauri 1-A, 5.a

48160 DERIO

Tel.: 94 406 01 71 - Fax: 94 406 01 73

Posta elektronikoa: [idazkaritza@labayru.org](mailto:idazkaritza@labayru.org)

Web-orria: [www.labayru.org](http://www.labayru.org)

© Artikuluena, autoreak eurak.

© Argitaraldi honena: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

ISSN: 1132-0702

Lege Gordailua: BI-847-94

Fotokonposaketa: Ikur, S. A.

Silutegia: Gestingraf, S. A. L.

Azala: Bilboko ikuspegia, san Antongo eleizea bertan dala. 1880.

## AURKIBIDEA

Aurkezpena .....	7
LITERATURA GAIAK	
Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak) .....	9
Barakaldo eta Enkartzioen historia linguistikoaz .....	47
Louis Hamacei Goure Erregue Hounaren Testamendia .....	119
“Arreba sabelkide Denuxi’ri”: Orixeren fantasia bat .....	145
Irudizko Lokuzioak Hiriart-Urrutiren kazetalanetan .....	161
GRAMATIKA GAIAK	
Aditz-izenen eta partizipioen formak bizkaieraz .....	225
Meñakako euskeraren soinu egituraz .....	241
VARIA	
Rafael de Mikoleta en querella criminal contra una mujer .....	259
Bitoriano Gandiaga eta Bilbo .....	279
Nere etikatik edertasun etikara igarotzen jakin zuen baserritar olerkaria .	297
<i>Irudien argibidea</i> .....	305



## AURKEZPENA

Euskal ikerkuntza-lanei eskainirik dagoen aldizkari honek urrats bat gehiago eman nahi du ale berri honekin, 2001. urteari dagokion 8gn honekin. Labayru Ikastegiak eta bere lankideek euskal hizkuntza eta literaturarekin zerikusia duten gaien ikerketak biltzen dira aldizkari honetara, eta aurkibideko gaien barietatea ikusirik, ikerkuntza-eremua bera ere hedatuz joan dela ohar daiteke.

Beñat Oyharçabal ikertzaile ifartarrak, euskarak letra-hizkuntza bezala XVII-XVIII. mendeetan izan duen eboluzioaz egiten digun gogoeta sakonak ematen dio sarrera aleari. Euskal letren agerpen gorena den literaturaren eremuan, hor dira gure literato handi batzuen gaineko azterketa edota gogoeta finak ere: Hiriart-Urruti kazetariaren irudizko lokuzioez (Xabier Altzibar), Bitoriano Gandiagaren poetikaz eta ideiez (Iñaki Sarriugarte eta Sebastian Garcia Trujillo) eta Orixez (K. Josu Bijjeska). Euskal hizkuntzaren historiara-ko ekarri jakingarria ematen zaigu, halaber, Enkarterrietako lurraldeaz, bertako dokumentazio zaharra eta berari-az onomastika zaharra abiapuntutzat harturik (Ander Ros & Esperanza Saiz), eta berdin garai zaharretako euskal testu bitxiez eta idazleez, nola diren Luis XVI.aren testamentua batetik eta Mikoleta bilbotarra bestetik.

Gramatikaren alderdiak ere bere tokia du ale honetan, Eneko Barrutiak adituzen eta partizipioez eta Iñaki Gamindek toki-euskararen soinu-egituraz egiten dituzten azterketekin.

Ale orekatsua eta betea gertatu zaigu, orohar, oraingoa: euskararen inguruko ikerketak lozorroan ez dauden erakusgarri argia. Horretara, orain arteko aleekin eta hurrengo datozkeenekin euskara-ikerkuntzaren erakustoki trinko bat eskaini nahi lioke Labayru Ikastegiak gure gizarteari eta ondoko belaunaldiei.

Gure eskerrona, ikerkuntza-lan hau aurrera erooten laguntzen diguten Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailei, eta aldizkaria argitaratzen lankide dugun BBK Fundazioari.

*Litterae Vasconicae*  
*Idazketa Batzordea*

ZENBAIT GOGOETA  
EUSKARAK LETRA HIZKUNTZA GISA  
IZAN DUEN BILAKAERAZ  
(XVII-XVIII. MENDEAK)

*Beñat Oyharçabal\**  
(CNRS, UMR5478, IKER)

---

\* *Euskaltzaina eta CNRS, Iker, Baiona.*

## LABURPENA

Idazlan honetan aztertzen da euskara 17 eta 18. mendeetan letra hizkuntza gisa izan zuen gizarte bilakabidea. Orain arte ikertzaileek faktore ekonomikoak aipatu izan dituzte bereziki, esplikatzeko zergatik euskararen tradizio idatzia 17. mendean Lapurdin finkatu zen, eta zergatik histu zen lapurterazko tradizio hori ondoko mendean. Aztermolde honen ahuleziak, datuen aldetikakoak oroz gainera, agerian ematen ditu artikulua eta beste aztermolde bat aitzinatzen. Erakustera ematen du euskarak liburugintzan izan zezakeen tokia eskola-mailetako eta kulturaremu desberdinetako partikatzeko poliglosikoari lotua izan dela ororen gainera, bai Iparraldean, bai eta halaber Hegoaldeko herrialdeetan ere.

## RESUMEN

En este artículo se analizan las condiciones sociales de desarrollo de la lengua vasca como lengua de comunicación escrita durante los siglos XVII y XVIII. Hasta ahora los investigadores habían aducido en especial factores económicos para explicar por qué se fijó la tradición literaria euskérica precisamente en Labourd en el s. XVII y por qué cayó en decadencia en el siglo posterior. La debilidad de esta argumentación queda patente en este trabajo sobre todo a partir de una nueva valoración de los mismos datos y tras la aplicación de un método de análisis novedoso. Según queda demostrado aquí, el lugar ocupado por la producción editorial en lengua vasca estaba íntimamente unido, sobre todo, a la división poliglósica establecida en los diferentes niveles escolares y a los diversos ámbitos culturales vinculados a la lengua, y ello tanto en localidades del País Vasco continental como peninsular.

## RÉSUMÉ

Cet article analyse les conditions sociales dans lesquelles la langue basque évolua durant les 17 et 18<sup>ème</sup> siècles en tant que langue de l'écrit, en particulier en Labourd. Le point de vue défendu jusqu'ici par la plupart des spécialistes, et qui voyaient dans les facteurs économiques les bases de cette évolution, est mis en doute, en particulier du fait de l'absence de données factuelles allant en ce sens. Une autre analyse est proposée dans laquelle la place du basque dans la production de livres en Pays Basque est principalement dépendante de la répartition polyglossique observable dans les différents degrés d'enseignement et dans les divers domaines de la vie culturelle concernés, tant dans les provinces du Nord que dans celle du Sud.

## SUMMARY

This paper presents a new analysis of the social conditions under which Basque as a written language evolved during the 17th and 18th centuries. Till now, most researchers invoked economic factors to explain why the written tradition in Basque developed in Labourd during the XVIIth century, and why this Labourdian tradition waned quite soon during the following century. The article shows this analysis, which has doubtful empirical grounds, should be abandoned. Instead, it is proposed that the major role in the evolution of Basque written traditions should be assigned to sociolinguistic factors linked to the organisation of polyglossia in the different levels of education and in cultural life, both in the Southern provinces and in the Northern part of the country.



17. mendearen lehen partean, Lapurdiko itsas hegian eta honen inguruetan, Sarako eta Donibane Ziburuko aldean oroz gainetik, euskarazko liburugintzak pitzaldi bat berezia izan zuen, lapurterak ematen ziela euskal letrei ordu arte ez zuten gizarte hedadura. Gerxeago, ordea, gizaldi horren bigarren partean ahultzen hasi ondoan, urritu bezala ziren bultzada haren ondorioak, arras obra berri guti baizik ez baitzen sortu lapurteraz 18. mendean, beregainki lehen erdian.

Arrazoi ekonomikoak aipatu baitira bereziki aldaketa horren esplikatzeko, azalpen hori auzitan eman nahi nuke hemengo solasetan, karia horretara zenbait gogoeta ere egin gogo nituzkeelarik garai hartan Lapurdik kultura gaitan izan zuen hizkuntza egoeraz, eta honen bilakaeraz. Ezen, hurbilagotik behatu-eta, ez du iduri 17 eta 18. mendeetan Lapurdiko ekonomian gertatu aldaketek oihartzun zuzenik izan zutela lapurterazko letra sorkuntzan. Beste nonbait xerkatu behar ditugu, beraz, lapurterazko idazkigintzaren denbora haietako gorabeheren eragileak. Non? Nire ustez, kultura bizitzaren antolamenduan, eta guztiz ere hizkuntzen arteko kultura eremuen partikamenean. Mota horretako baldintzei lotuak bide dira, oroz gainetik, euskarak mende haietan Lapurdin (eta beste herrialdeetan ere) letra hizkuntza gisa izan zituen goiti-beheitiak. Ez ekonomiari.

17. mendearen lehen partean, latina zen oraino erreferentziatzeko jakintza hizkuntza nagusia Iparraldeko gizartean, nahiz frantses mintzaira ere erro egiten eta indar hartzen hasia zen ordukotz goi mailako jendaldeetan, oroz gainetik beren ikasketak eta gogo janzketa kanpoan eta bereziki Erregearen inguruko jendarteetan egin ahal izan zituztenen artean. Mendeak urteak isuri arau frantsesak aitzinamendu nabarmenak egin zituen, bai jakintza hizkuntza gisa latinaren aitzinean, bai eta orohar kultura hizkuntza arrunt gisa ere. Materrek eta Axularrek aipatu zituzten irakurtzaile, *euskara baizik ez jakinik arras ezjakinak ez ziren* haiek, gizarteko erdi mailetakoak zirenak, gero eta gehiago frantsesaren bidez ase zuten orduan beren jakin-mina eta letrazko kulturari zihoazkion beharrak.

Denbora berean, haatik, 18. mendearen lehen erdian bereziki, Elizaren eskuetan zegoen oinarrizko eskolatzea —euskaraz egina baina franko maila apalekoa—

gero eta jende gehiagorengana hedatu zen. Aldaketa horren ondotik, euskarazko irakurgaien hartzaileak gero eta gehiago gizarte maila apaletako jendeak izan ziren, eta gero eta helburu xumeagoak izan zituzten euskarazko liburuak Iparraldean, ondorioz sorkuntza, erran-nahi zabalenean harturik ere, kasik itorik gelditu baitzen. Sinbolikoki adierazgarria da 18. mendearen lehen partean euskararentzat eta lapurterentzat hats goragoko esperantzak zituen Etcheberri baten asmoek karrika egin baitzuten.

Idea orokor honetarik abiatutik, soako bat emanen diet hemen garai haietako kontuei, han edo hemen jadanik agertuak bilduz edo osatuz. Berezi ki ikusatu nahi nituzkeen puntuak hauek izanen dira: zer lotura aurki dezakegun lapurterazko letren bilakaeraren eta Lapurdiko itsas ekonomiaren aldi handien artean (§1), norentzat idatzi ziren orduan euskarazko liburuak (§2) eta zein izan ziren euskal letren pitzaldi horrek zenbait elizagizonen artean sorrarazi zituzten kontrako joerak (§3), zer zitekeen garai hartan eta ondoren frantsesaren tokia Lapurdiko gizartean eta zer gisaz indartuz joan zen (§4), nola ondorioz euskal liburuak gero eta gehiago behe mailako jendaldee i begira egin ziren (§5). Azkenik, ikusiko dugu azterketa horrek zer bide ematen duen hegoaldeko euskal letren sortze berantiarren azaltzeko (§6), izan zituen muga bereziekin (§7).

## **1. Lapurterak letra hizkuntza gisa izan zituen gorabeherak eta Lapurdiko itsas jarduna**

Atariko aurkezpenean gogoratu bezala, euskal literaturaren historialariek ekonomian bilatu nahi izan dituzte oroz gainetik lapurterazko idazkigintzaren funtsezko eragileak. Gehienik lapurteraren ahultzearen esplikatzeko baliatu da argumentu hau, Lafittek (1941) lehen aldiz aitzinatu zuena:

*Le XVIII<sup>e</sup> siècle est un moment de décadence pour le Pays basque français. La région se trouve soudain dans la misère. Le traité d'Utrecht (1713) lui a fermé les portes du Nouveau Monde: plus de débouchés pour ses multiples industries locales naguère florissantes. Le malheur économique n'est pas favorable aux Muses.* (Lafitte 1941:43)

Geroztik, bide bera segitu dute euskal literaturaren historialari gehienek, Lafittek bezala, Utrecht-eko hitzarmenak Lapurdiko itsas jardunari ekarri ondorio txarrak berezi ki aipatzen zituztela: Mitxelena (1960:85), Sarasola (1976:51), Villasanté (1979:102), Sagarna (1984), Juaristi (1987:49), Urkizu & bes. (2000:233).

Lapurdiko ekonomiaren ahultzeak euskarazko liburugintzaren urritzea ekarria zuela baieztatuz, aditzera ematen da haren sendotasunaren bidez esplikai dai tekeela liburugintza horrek aitizineko garaietan izan zuen pixkortasuna. Molde berean, badirudi arrazoi ekonomikoek azaldu behar luketela zergatik Lapurdin

lapurterarekin gertatua ez zen egin garai beretan hegoaldeko herrialdeetan. Alderdi horretarik adierazgarria da, Mitxelenak, eta haren ondotik Juaristik (1987), gipuzkerazko liburugintzak 18. mendean hartuko duen garrantzia azaltzean, aipatzen baitute salerospenen haztea, *Real Compañía Guipuzcona de Caracas* delakoaren sortzeak adierazten duena:

*La literatura labortana no se mantuvo en el siglo XVIII en el nivel que había alcanzado en el anterior. P. Lafitte ve en ello un reflejo de las dificultades económicas que se siguieron para la costa vasco-francesa del tratado de Utrecht. Se podría añadir, sin establecer por ello una correlación estrecha entre fenómenos de orden muy distinto, que entre nosotros el primer florecimiento literario es posterior a la expansión comercial, de la que es buen índice la fundación de la Real Compañía Guipuzcona de Caracas. (Michelena 1960:85)*

Alta behin eta berriz errepikatu den ikusmolde hau zorrozkiago aztertzen denean, ez du iduri hain oinarri sendoa duela.<sup>1</sup>

Lehenbizikorik, Mitxelenak berak gatzigatu bezala, kontuan hartu beharra dugu arras alor desberdineko gertakariak elkarri lotzen zaizkiola aipatu aztermoldean. Ez da dudarik liburugintzak gizarte ekoizpen gisa eskatzen duela izan dadin gizartean egoera egokia mota horretako ekoizpenen sortzeko, baina deus guti ondoriozta daiteke ohar honetarik gure kasuan, ezen ezin ahantz daiteke diglosiak (edo, kasu horretan zuzenkiago erranez eta latina kontuan hartuz, triglosiak) Euskal Herriko liburu ekoizpenean izan zezakeen eragina. Hizkuntza lehiaketa izaten den gizarteetan, ez da segur ekonomiaren hobekuntzak hizkuntza ahulagoari ere baliatuko zaizkiola. Hain zuzen, Hegoaldean gertatuak ematen digu horren froga garbia: 16. mendearen bigarren partetik aitzina, oroz gainetik gartzeleraren probetxutan hazi baitzen hango liburugintza; arras guti euskararen fago-retan (ik. *infra* §6, eta 45. oh.).

Zer nahi ere den, lapurtera denaz bezainbatean, erran beharra da gorago aipatu eta Lafittek duela hirurogei urte aitzinatu arrazoinamenduaren datu-oinarria eztabaidagarri gertatzen dela historialariek geroztik egin dituzten ikerketen argian aztertzen delarik. Ezen ez dira batere garbiak lapurterazko liburugintzaren gorabeheren eta Lapurdiko itsas portuetako jardunaren artean ikusi nahi izan diren paralelismoak. Denbora mendeka banatzeko ohituragatik, lapurterazko idatziak aipatzen direnean, 17. eta 18. mendeak elkarren aurka jartzen dira euskal literaturaren historietan: oparoa izan zen lehenbizikoa, ez hala, haatik, alderantziz baizik, bigarrena. Baina mende erdikako banaketa eginez, ikusten dugu Utrecht-eko hitzarmena (1713) egin baino lehenago hasi zirela hats hantzen

<sup>1</sup> Lasagabasterrek (1986) ere zalantzak agertzen ditu aipatu ikusmolde sozioekonomiko horren egokitasunaz.

lapurtar idazleak, jadanik 17. mendearen bigarren partean agertu baitziren arnasa galtze horren seinale garbiak. Izan ere, lehen argitalpenen kopurua orduan hasten da apaltzen, aurreko menderdikoaren bi herenetara jaitsiz: sei izan ziren mendearen lehen partean, lau bigarrean (bat baizik ez da izanen 18. mendearen lehen partean, eta hiru bigarrean); cf. Sarasola (1976:182-3). Ez da horretan loturarik ikusten Lapurdiko itsas portuen jardunarekin. Honek, Turgeonek (1982) dioenaren arabera, lapurterazko letra tradizioa hasi baino puska bat lehenago jo zuen goia, 1580-90 urteetan, gorako hein hori atxiki baitzuen gero, zenbait gorabehera arteka gertaturik, mende eta erdi batez 1730-1740 arte:

*La reconstitution de l'armement montre, en effet, que les pêches basques plafonnèrent dès 1580-90 pour se maintenir à des niveaux élevés jusqu'en 1730-40.* (Turgeon 1982:08)

Urte honen (1740) ondotik, eta ez, behin eta berriz hala errepikatu den arren, mende laurden bat lehenago,<sup>2</sup> gertatu zen Lapurdiko itsas portuen gain-behera eta Donibaneko eta Ziburuko gizarte ahulaldia, aspaldi hasia zelarik lapurterazko sorkuntzaren urritzea. Ekonomiaren eta lapurterazko idazkigintzaren bilakaeren arteko paralelismo ezaren seinale da, halaber, 18. mendean zehar jazotzen dena: demografiari jarraikiz, gizarte egoera 1740tik aitzina itsuski gaizkitu zen (Darrobers 1994:86-91), itsas jardunean gertatu zen bezala. Euskarazko liburuen ekoizpenari dagokiolarik, aldiz, hobekitu zen egoera mendearen bigarren partean: argitalpenen kopurua doblatu zen (18 36),<sup>3</sup> Hibur berriena ere bai (6 12); joera bera aurkitzen dugu halaber sortze lanetan ere, oraino kopuru tikiagoekin izanik ere (1 3); cf. Sarasola (1976:182-3).

Badirudi beraz esplikabide orokorregiez, eta datuen aldetik eztabaidagarriez ere, baliatu garela garai hartako lapurterazko liburugintzaren gorabeheren aztertzeke. Anekdotikoa da, baina, hain zuzen, Materre-ren ondotik, lapurtera sendoki finkatu zen garaiaren (1627-1643) erdian, Lapurdiko itsas hegiak arras aldi gaiztoa izan zuen. Frantziaren eta Espainiaren arteko gerla zela-eta, Gipuzkoatik jinikako Espainiako erregearen soldadoek Ziburu kasik osoki suntsitu zuten. Nogaretek dioenaz (1925:138), 660 etxetarik, 477 erre edo lurreratu zituzten, haien artean 40 laborari etxe, bai eta 15 itsas ontzi handi, ehun bat txalupa eta 40 pinaza ere galarazi. Halaxe, bakalaua, balea olioia, arnoa, sagarnoa, ogia, oro kopuru handitan han zirenak, kendu omen zizkieten ziburutarrei. Donibane Lohizunen ere sartu ziren espainol tropak, Azkainen eta Urruñan bezala, eta

<sup>2</sup> Utrecht-eko hitzarmenaren (1713) ondoren Lapurdiko arrantzak ez zuen ahulaldi berezirik izan, zeren 1715-1730 urteetan gora egin baitzuen. Areago, demografiako beheratzea lehenago, gerlen denboran hasia zena, orduan gelditu zen, oroz gaintetik Donibane Lohizunen eta Ziburun: *la reprise des pêches de 1715 à 1730 freine ce reflux [demografian gertatzen hasia], on assiste même à une remontée des courbes.* (Turgeon 1982:250)

urtea han egon ziren. Gerla egoera gogorra jasan zuten orduan inguru haietako lapurtarrek.<sup>3</sup> Alta, garai haietan izan zuen lapurterak bere goraldia, Etcheberriren lehen liburuaren eta Axularren *Gero*-ren argitara-urteek mugatzen duten epe horretan, 1636an argitara ematen zuelarik bere hirugarren liburua Etcheberri Ziburukoak.

Hitz batean zuhurrago eta zentzuzkoago iruditzen zait, ekonomiaz beste alor batean xerkatzea lapurterazko tradizioaren sorrera zerbait argi dezaketen azalpenak.

## 2. Lapurterazko lehen idazleek norentzat idazten zuten.

Guti dakigu, arras guti, Lapurdin<sup>4</sup>, eta orohar Ipar Euskal Herrian, nola bizi zuten 17. mendearen hastapeneko herritarrek, bai eta herriko buruzagiek ere, hizkuntza egoera. Euskara zen dudarik batere gabe jendarteko hizkuntza arrunta, eta hain segur gehientzat bakarra, jakintza hizkuntzak, berriz, latina, bai eta joanago eta gehiago frantsesa ere. Administrazio eta lege hizkuntza frantsesa bide zen, gaskoiera ordukotz indargabetzen hasia baitzen zuzenbideko eta herri kudeantza sailtan.<sup>5</sup> Lege gizonen landa, armadako eta elizako buruzagi izan gogo zutenek ere ezin bestekoa zuten, latinaz gainera (neurri batean behintzat, hau baitzen kolegioetan ere irakaskintzako hizkuntza bakarra), frantsesaren behar bezala jakitea.<sup>6</sup> Herritar gehienek, ordea, bai laborari eta ofizialeek, bai merkatariek, aski zuten solastabide zituzten mintzairen jakitea.

De Lancrek (1612) ematen digu egoera horren oihartzun garbia, sorginen auzietako itzultzaileen arazoa aipatzen duelarik bereziki (6. lib., 1. dis.). Sorginak eta lekukoak euskaraz mintzaten baitziren apaiz batek bere burua aurkeztu omen zuen itzultzaile gisa aritzeko, baina, dio de Lancrek, ez zen nahi bezain trebe agertu frantsesez aritzerakoan: *encore qu'il fût bien versé en la langue basque, il n'était pas*

<sup>3</sup> Ondoko urteetan segitu zuen gerla egoerak, Lapurdin frantses eta espainol armadak hara hona zabiltzala. Apezpikuaren 1641eko idatzi batek herriaren egoera honela aurkezten du: *spolié et presque ruiné tant par les courses des ennemis que par le passage des gens de guerre lors du siège de Fontarrabie*. cf. Dupuy 1972

<sup>4</sup> Lapurdiko herrialdea aipatzean orduko herrialdeaz ari naiz artikuluan, Baiona hartarik kanpo izanik, beraz. Bestalde ez dira nahasi behar Lapurdiko herrialdea eta Lapurdiko diozesa, honek Lapurdiko herriez gain, Baiona, eta Nafarroa Beherearen parte gehiena ere hartzen baitzuen.

<sup>5</sup> Iparraldeko herrialdeetako foru bildumak gaskoieraz idatziak izan ziren. Lapurdikoak 1514an, Zuberokoak 1520an, eta Baxenabarrekoak, 1611n (Erregeak onetsi zituen urtea; 1645ean argitaratu ziren). Nafarroako legeen kasua guztiz adierazgarria da hizkuntza kontuei buruz: 1530 baino lehenagoko legeak nafar-aragoieraz idatziak dira; konkistaren ondotikakoak, 1530-1620 urteetakoak, haatik, ez frantsesez, baina biarnoeraz (Nafarroa Beherean).

<sup>6</sup> Goi mailako gizartearen, hizkuntzaz lekora ere frantses kultura ordukotz nagusitu bide zitzairen tokikoari eta ingurukoari, oroz gainetik Errege botereari aski hurbil ziren jendaldeetan. De Lancrek Lapurdiko jendeaz hitz eginez, dio:

*Le commerce qu'ils ont presque plus en Navarre et Espagne qu'en France produit quelque indifférence de mœurs, d'habits et d'affections, pour le moins dans le menu peuple. Car les gentilshommes fréquentant la cour ne sont pas de cette humeur, ayant été élevés à la française* (1612: 24).

*si suffisant en la langue française.* Hala ere, harekin gelditu behar izan zuen lege gizonak, trebeagorik ezin atxemanenez.


Egoera horretan elizak zer jokabide hartu zuen ikustea guztiz garrantzizkoa da, zeren haren esku baitzen irakaskintza, bai eta neurri handi batean lapurtarren gogo moldakuntza ere, goi mailako jendaldeetarik kanpo bederen.

Trentoko kontzilioaren ondotik, Elizak jokabide berri bat finkatu zuen, alde batetik, mintzaira bizen bidez hobeki zabaltzeko bere doktrina, eta beste aldetik jende ikasien moldakuntzaren hobeki antolatzeko. Bi helburu hauei ez zerraizkien ondorio berak orotan: lehen helburuak eskatzen zuen herritarren hizkuntzaz bereziki balia zedin erlijio azalpenak ematerakoan, bigarrenak, berriz, jakintza mintzaira erabil zedin, latina lehenik, baina gero eta gehiago denborarekin frantsesa ere Frantziako erresuman, non errege ingurumenak gero eta eragin handiago izan baitzuen 17. mendean kultura bizitzan.

Euskaldun berri batek, E. Materrek, egin zuen Iparraldean euskaraz idatzi lehenbiziko katixima katolikoa, 1617an argitara emana, Etxauz apezpiku zelarik Baionan. 1623an egin zen bigarren argitalpena, gelditu zaigun eta, beraz, ikus dezakegun bakarra. Claudius de Rueil zen orduko Baionako apezpiku berria; erdalduna izanagatik, begi onez ikusi zuen Materren lana.<sup>7</sup>

Zein ziren Materrek bere liburuaren bidez lagundu nahi zituen jendeak? Euskaraz irakur zezaketen herritarrak, alde batetik, bereziki euskara baidzik ez zekitenak, eta apaizak eta errejentak ere, hauen gain baitzegoen dotrina giristinoaren irakaskintza, eta horretarako egiten baitziren dotrina liburuak.<sup>8</sup>

Orduko apaizen eskola mailaz deus guti dakigu, salbu erretoreenaz, hauek beren karguaren hartzeko behar baitzuten gutieneko maila erakutsi. Apaiz batzuek eta bereziki erretoreek latina zerbait ikasia



<sup>7</sup> Materrek apezpiku berriaren gerizapean ezarri zuen bere liburua: *Vous ne rejettez pas ce mien ouvrage, lequel quoi que petit, et indigne de vous être présenté, vous avez néanmoins ci-devant avoué propre et utile pour l'avancement spirituel de ceux auxquels je le destine.*

<sup>8</sup> Belapeyrek argi eta garbi erran zuen apaizentzat eta errejententzat egin zuela bere katixima (Leizarragak egin zuen bezala). Materrek, berriz, *euskaldunei* egin abisuan, ez zuen holakorik zehaztatu; are gehiago aditzera eman zuen publiko zabalago bat gogoan zuela orduan: *hartu dut gogo liburutto hunen egiteko, eta jendartera atheratzeko, hunetan (bertze erakuslerik ezteanean) ikhus dadin laburzki cer ere sinhetsi, obratu eta eskatu behar baita. (Euskaldunei).* Axularrek ere liburuko onespenean dio merzei duela *ibil dadin jendartean eta guzien eskuetan.*

bazuten ere, ez bide zen erraza horietarik askorentzat hizkuntza arautu hartan erlijio gaiez ikasia, euskaraz, egokiro, idatzian ere balia zekiekeen modu batean, azaltzea, aurreko mendeko gorabeheren ondotik oraino kasik eredurik gabe eta araurik gabe zegoen euskara baitzuketen poxelu. Belapeyrek salatuerik, badakigu gaitasunari buruzko kezka hori ez zela funtsik gabekoa, 17. mendearen bigarren parte horretan apaiz gazte batek Zuberoako euskarara itzuli baitzuen katixima bat, Zuberoako apaiz gehienek ez baitzuten *hon ediren* eta baitziren *hartaz zerbütatu* nahi izan, itxura guztien arabera, hala doktrinan, nola euskararen berean ere, hutsez beterik baitzegoen.<sup>9</sup> Ondoko mendean Mendiburuk, Larramendik eta Cardaberazek emanen digute zailtasun horien berri Hegoaldean.

Materrek berak ere ez zuen gorde hizkuntzaren araurik eza (Larramendiren hitzetan mintzatuz) kendu beharreko traba zela euskaldunen artean doktrina katolikoaren zabaltzeko. Argiki erran zuen sinesteari zegozkion azalpenez gainera, erakutsi gogo ziela euskaldunei bere idazlanean *nola behar den euskara eskiribatu eta irakurtu (Euskaldunei)*.

*Dotrina christiana-ren* bigarren argitaraldian irakurtzaileari egin zion hizñoan, dotrinari berari eta haren azalpenari zegozkien bi parteak berriz antolatu zituela erran ondoan, Materrek xehetasun hau gaineratu zuen:

*eta zeren añhitz baita Euskal-herrian irakurtzen dakienik, baiña ez Euskara baizen bertze hitzkunzarik aditzen, halatan egin ditut halakoentzat Euskaraz debozinozko othoitz eta Orazino batzuk. (Materre, Iracurçailleari)*

Hots, hirugarren parte bat egin zuen Materrek, otoitzez osatua, irakurtzen jakinik euskara baizik ez zekiten jendeentzat idatzia. Bi gauza ditugu hemen kontuan hartzekoak: lehenik, letra hizkuntza gisa arautua ez izanik ere, edo guti, bazirela euskaraz baizik irakurtzen ez zekiten jendeak 17. mendearen hastapenean Lapurdin; bigarrenik, euskarazko irakurgaiak haientzat bereziki egin zituela Materrek.

Lehenbiziko puntua denaz bezainbatean, estonatu behar ote dugu Materrek erraten digunaz, eta pentsatu, adibidez, mamirik gabeko topos gisako zerbait badela hor? Badaiteke, baina ez dut uste. Ez du iduri hitzei diotenaz beste errannahirik eman behar diegun hemen. Funtsean Axularrek berak ere handik hogeit urte erranen zigun bere liburua egina zuela gogoan izanik euskaraz beste mintzairarik ez zekiten irakurleak, haren helburua izanik *liburu baten, euskaraz, guziz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea (Irakurtzailleari)*. Nor ziren irakurle horiek orduko Lapurdin?

<sup>9</sup> Hona Belapeyrenen hitzak: *nola ere haborek eçpaitüzie hon ediren herri hontako apaiz gazte batek güüz honat üskarala ützüli dian katexima, eta eçpaitüzieie hartaz zerbütatzen; segür ere baita ezagützen eçpagünü haren egiliak teolojian zian beno gehiago onsa egin nahi ziala, jüstizia garratzian ediren günükiala haren lanaren bai doktrinan bai üskaran hitz gogor, baita hüts uste gabian egin düüan hanüz. (Belapeyrenen abertimentutik)*

Otoitzak nolakoak diren ikusirik, ageri da Materrek ez dituela goi mailako jendeak gogoan; batzuk bederen mariñelak ere izan zitezkeen, ezen honela dio haren liburua nola erabil zitekeen azaltzean:

*Zeren baitakit jende añitz dela Euskal-herrian itsasoan dabilanik, behar derauet hei ere erakutsi nola behar derauzkaten bere orazinoak eta othoizak Jainkoari egin ... (Materre:325. o.).*

Otoitzen errateko moldea zehazten duenean, Materre zuzenean mintzo zaie mariñelei, aditzera emanez gauza arrunta zela itsas ontzietan irakurtzen zekiten jendeak izatea, eta haiek haren liburua eskuen artean izatea:

*Goizean demborak hala emaiten duenean, zuek itsasoan zabilzaten Marine-  
lok bil zaitzte elkargana, jar zaitzte behauriko, (...). Eta (...) erran beza zueta-  
rik batek aphurbat gora eta hagitz orai hemen ibeniko dudan othoizta: Eta bitar-  
tean eduki bezate bertzek ere hartan gogoa, enzun bezate, edo nork bere liburuetan  
ixilik irakur bezate, zeren estimatzen dut eztela izanen bat ere irakurtzen dakien  
marinelik liburu haur izanen eztuenik (Materre, 327-328. o.).*

Materrek, antza, ez zuen dudarik 17. mendearen hastapen hartan itsasoan zebiltzan lapurtar mariñelen artean irakurtzen zekiten jendeak ere izan zitezkeela<sup>10</sup>.

Axularren erranak ere alderdi berera zihoazen, alde batetik deitoratzen zuela euskaldunetan *ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur*, eta beste aldetik erraten baitzigun erdi-ikasientzat edo ari izan zela, erran nahi baitu, latina funski ikasi gabe, eta frantsesa ere arrotz izanik, herriko mintzairan irakur zezaketentzat.<sup>11</sup>

Nola interpreta garai hartan horrelako irakurleak Lapurdin izatea? Ez ote da halako kontraesan bat Materreren hitzetan, baitio, alde batetik, euskaldunei nola idatzi eta irakurri erakutsi nahi diela, eta, beste aldetik, idazten duela bereziki eus-kara baizik ez dakiten irakurleentzat? Ikus dezagun puntu hau hurbilagotik.

Iparraldeko herrialdeetan ez zen garai hartan kolegiarik,<sup>12</sup> eta oinarrizko alfa-

<sup>10</sup> Hala-hala Etcheberri Ziburukoak ere aipatuko ditu mariñel irakurtzaileak: *Manual debozionekoaren* 2. liburuan *Itsastu-ri irakurtzaileari abisua* idatzi zuen, itsasoko bialietako othoizten aitzinean.

<sup>11</sup> Gisa batez lapurtar horiek euskaraz idatzirik egiten zuten erromantzez idatzirik Juan Manuelek anitzez lehenago, eta beste garai-inguru batean egin zuena: *por esta razon, los que fazen o mandan fazer algunos libros, mayor mente en romance, que es sennal que se fazen para los legos que no son muy letrados* (cf. Montoya Martínez & Riquer 1998: 272). Axularrek dioelarik *Eztut liburutto haur letratu handientzat eguiten. Eta ez choil, deus etaquitenentzat ere*, errepikatzen du *El Conde Lucanor* obraren egileak bere anteprologoan adierazten zuena, bere idazkia egin baitzuen gogoan izanik *las gentes que non fuessen muy letrados ni muy sabidores*.

<sup>12</sup> Baionako kolegioa, ireki berria 17. mendearen haste hartan, ez zaie biziki baliatuko lapurtarrei. Lehenbizikorik hiriak hiriko gazteentzat egina izanik (luzaz harreman gogorrek izanen dira elizako buruzagiekin horregatik) ez baitzen barnetegi-rik hartan. Bigarrenekorik irakaskintza aski maila apalekoa baitzen hartan (Pontet 1980). 1722an ireki zen Baionako apaiz-gaitegia, baina jansenisten eraginpean zelakoan erdi baztertua egon zen, eta Daguerrek dotzena bat urte geroago Larresoro-ko apaizgaitegia sortu zuelarik gain hartu zion honek berehala. Baionak beraz ez du halako eraginik izan Lapurdiko gazteen moldakuntzan, mutikoen kasuan bereziki. Salbuespen bat egin behar da, menturaz, 1676ko inguruan Baionan sortu zuten hidrografia eskolarentzat (Pontet-Fourmigué 1990:542), nahiz ez dakigun zenbatetaraino baliatu zuten euskaldun mariñelek eskola hura. Hau ere, dena den, ez zatekeen maila gorenekoa, *d'une honnête médiocrité* zela baitio Pontet-ek (1991:165).



betatzea ororen eskoletan (oraindik aski guti ziratekeenak)<sup>13</sup> edo irakasle pribatu bidez egiten. Era horretan hartzen zituzten herritik kanpoan ikastera joan ez zitezkeen familietako semeek<sup>14</sup> letra erabilerari zihoazkion oinarriak, merkataritzako lanetan oroz gainetik balia zekizkiekeenak.<sup>15</sup> Liburuetan ez bazen<sup>16</sup>, eskuzko izkirioetan bederen, erran nahi baitu oinarritzko egiteko batzuetan (kontuak, gutunak, etab.), beretua zukeen euskara idatziak erabileremu bat. Gisa horretan herritik kanpoan gehiagoko ikasketarik egiteko xederik ez zuten gazte eskolan doi bat ibiliek arras guti ikasten zuten latina. Materrek dioena testuinguru horretan ulertu behar da: baziren lapurtar batzuk latinean letra ariketa zerbait landua zutenak, baina hiztun gisa euskara baizik menderatzen ez zutenak egiazki. Haiek gogotan zituela bereziki idatzi zuen bere liburua.

Materrearen ikuspegiaren erromantzeak bezalako mintzaira arrunta da euskara, eta frantsesek bezala euskaldunek ere, latina ez jakinik, euskarazko otoitz liburuak eta dotrinak behar dituzte. Haren helburua, beraz, latin-euskara diglosia gainditzean datza (erlijio irakaskintzari dagokionaz bederen), euskara ere beste hizkuntza arrunt batzuek jadanik beretu eremu ospedunetan sarraraziz. Halere ohartzekoa da, ikusmolde horretan, ezinbesteari darraiola euskararen erabilpena, hots euskararik gabe egoera diglosiko zaharra<sup>17</sup> gainditu ahal izanez gero, euskaraz idazteko beharrik ez dela. Jokaera horren ulertzea guttiz garrantzizkoa da zeren erran baitaiteke, salbuespen batzuk izanik ere, arras nagusituko dela Lapurdin eta orohar Iparraldean, ondoko mendean. Horrela, letra teknikaren berri

<sup>13</sup> Dubaratek dioenez (1901: CCCXLVII) 1533ko Lapurdiko apezpikute giko sinodo-estatutuek ez zuten ororen eskolarik aipatzen. Bai ordea 1666koek, mutikoen eskolatzeko behintzat: *Les statuts de 1666 ordonnent qu'il y ait dans chaque paroisse un régent ou instituteur pour instruire les garçons et leur apprendre le cathéchisme; les filles seront confiées aux sœurs appelées vulgairement benoistes*. Kontuan har bedi ororen eskolen orokortzeaz ari garela hor: lehenago ere baziratekeen horrelako eskolak, tokika bederen, herri gotorretan bereziki. *Ororen eskola* erratan zitzaion euskaraz Frantses Iraultza gertatu arte herrietan egiten zen oinarritzko irakaskintzari. Irakasteko lana, apezpikuak eta parropiako erretoreak onetsi behar zuten *errejent* baten kondu utzia zen, honen egitekoa baitzen haurrei elizako dotrinarekin batean, irakurtzen, bai eta doi bat idazten eta kondatzen ere erakustea. Euskal Herrian euskaraz egina zen oinarritzko eskolatzeko hori, biziki azkartu zena 18. mendean; ik. Oyharçabal 1999a.

<sup>14</sup> Nesken irakaskintza bereiz zen, eta anitzek gibelatuagoa 18. mendea arte, orduan hasiko baitira gauzak piska bat aldatzen. Etcheverry anderearen Hazparneko Erretreta Etxean (1738an irekia), adibidez, oinarritzko eskolatzeko eskaintzen zitzairen neska pobreci.

<sup>15</sup> Kontuan har bedi goi mailako estudioak eskatzen zituzten letren eta arteen mundua kontrajartzen zitzaiola merkataritzako giroari. Adibidez, hona zer zioen Lespès de Hureaux, Baionako Senaskal barrutiko Lotinente Jeneralak, Baionako irakaskintzako azpiegituren mugak azpimarratuz: *Cette ville n'étant presque composée que de négocians et gens de commerce il n'est pas surprenant que peu de personnes s'y adonnent aux lettres et aux belles sciences*. (*Mémoire sur Bayonne, Labourt et le Bourg St Esprit*, Baionako Bibliotekako eskuizkribua, 1718an edo).

<sup>16</sup> Zer liburu eskuzta eta balia zekazketen garai hartako lapurtarrek? Gehienez ere Leizarragarena, nahiz kontra-erreformaren giro hartan liburu haiek ez bide ziren biziki ikusten apaiz katolikoek eskuetan. Ez normahiretan hasteko. Halere, Salaberrik (2000) erakutsi berria du Axularrek Leizarragaren Testamentu Berriaren itzulpenak begiepean izan zituela *Gero* idazterakoan.

<sup>17</sup> *Egoera diglosiko zaharra* erratan diot hemen (erran-molde desegokia izanagatik) latina goi mailako hizkuntza zuen diglosiari. Hartan goi mailako hizkuntza ez da sortzetik ikasten den mintzaira, eta ez du zuzenean behe mailako hizkuntzaren iraupena irriskuan ematen; hots, diglosiaren gainditzea behe-mailako hizkuntzaren fagoretan baizik ez daiteke gerta. Erran gabe doa, diglosia gizarteko hizkuntza bizien artean gertatzen delarik, gauzak desberdin direla; orduan, gizartearen antolamendua aldaketek oreka diglosikoa haustean, behe mailako hizkuntzaren erabileremuak urri baitaitzaketek, osoki desagerrarazteraino.

zuten lapurtarrak frantsesaz jabetu arau, kontsideratuko da ez dutela gehiago euskal irakurgaien beharrik, eta ez da euskarazko idatzirik sortuko haientzat, arras guti baizik. Hegoaldean haste-hastetik, erran nahi baitu 16. mendearen hatsarretik, izan zen egoera aurkituko da orduan Iparraldean ere.

### 3. Lapurtar idazleen euskaragatikako gataskak (1627-1635)

Goiago marrazkitu dugun egoera horretan (kontuan harturik, bestalde, protestantismoak sortu ikara ez zela oraino osoki gelditua inguru horietan) ez zuke ten elizagizon katoliko guztiek begi onez ikusi gorago aipatu euskaren aldeko jokabidea, batzuk beldur izan baitzitezkeen oztopo edo irrisku zerbait izan zitekeela egin molde horretan.


Alde batetik pentsa zezaketen Trentoko kontzilioaren ondotik erlijio kontuetan hizkuntza arrunten baliatzea onarturik ere, horrek bere mugak zituela eta hizkuntza ongi finkatuetan obratzeko zela bereziki jokabide hori. Jainkoari berari laido garri ez ote zekioken gerta mintzaira basa, nahasi, araurik gabeko batean haren irakaspenen ezartzea?<sup>18</sup> Hain urrun joan gabe ere, hizkuntza landugabeetan ba ote zen jenderik erlijio gaiak behar bezala erabiltzeko gai zenik? Segurenaz ere baziren oraino 17. mendearen hastean euskaldunen gaitasuna edo bederen euskararen egokitasuna zalantzan ematen zutenak. Gogoan izan ditzakegu, adibidez, Leizarragaren itzulpena egin zela jakinik, Montaigne batek agertu zituen dudak, egoki ote zen Jainkoaren hitza euskara edo bretoiera bezalako hizkuntzeta itzultzea:

*Je croi aussi que la liberté à chacun de dissiper une parole si religieuse et importante à tant de sortes d'idiomes a beaucoup plus de danger que d'utilité. (...) Sçavons nous bien qu'en Basque et en Bretagne, il y ait des Juges assez pour établir cette traduction faite en leur langue? L'Eglise universelle n'a point de Jugement plus ardu à faire, et plus solenne.*

Ohar bedi izkiriozko erabilera zuela zalantzan ematen Montaignek, ez ahozkoa:<sup>19</sup>

<sup>18</sup> Ikuspegi hori ongi dokumentatua da Espāñan, bereziki Juan de Marianaren lanetan. Euskarari zahartasuna aitortzen zion, baina haren nolakotasunaren zehazteko erabiltzen zituen izenondoak *grosero y bárbaro* ziren, ez baitzitzaion batere gustatu Oihenarti (*Notitia* ..., 1. lib; 12. kap.).

<sup>19</sup> Montaignek idatziaren eta ahozkoaren artean egin bereizkuntza eginen da anitz tokitan aski luzaz. Adibidez, Suarès d'Aulan, 18. mendearen erdialdeko Akizeko apezpikuak zioen elizbarrutiko katixima frantsesez izanagatik elizagizonak eta errejentek gaskoinez irakatsi behar zutela; ik. Sérurier 1874. Oc mintzairako zenbait tokitan frantses egokituak egin zituzten katiximak tokiko mintzamoldera errazki itzultzeko gisan. Horrela 1764an Auch-eko apezpikuak gaskonismoak sarrazazi zituen frantsesez eginararazi zuen elizbarrutiko katiximan, azalpen hau emanez: *On nous a fait apercevoir que le Catéchisme devant être, presque partout, enseigné en Langue Vulgaire, il étoit à propos d'employer, autant qu'il seroit possible, dans le Français, un tour et des expressions qui puissent être rendus comme mot pour mot, dans l'idiome qui est en usage dans ce Diocèse, afin que par-là, la traduction fut partout la même*; ik. Eygun 1992.



Baionako katedrala. XIX. mendea.

*En preschant et parlant, l'interprétation est vague, libre, muable, et d'une parcelle; ainsi ce n'est pas de mesme. (Essais, 1. lib., 56. kap.)*

Beste aldetik, dotrina katolikoaren beraren zaintzea munta handiko kontua zen 17. mende hartan: Frantziako apezpiku gehienak (hirutarik biga edo) kanbiatuak izan ziren 1610 baino lehenagoko bi hamarkadetan (Baionako elizbarrutikoa ere bai), eta belaunaldi berriari zegokion, erlijio gerlak ematu ondoan, kontra-erreformaren obratzen hastea.<sup>20</sup> Euskal Herria bezalako herrialdeetan horrek elkarren aurka zihoazen bi eskakizun zekartzan: batetik, erlijio irakaspena jendeari egiazki eskaintzea, horretarako haien mintzaira erabiliz, bestetik, erlijio irakaspeneren batasun eta zuzentasunaren zaintzea, irakaspeneren horren gaineko kontrola izanez, ez hain egiteko erraza euskara bezalako hizkuntzetan egitekotan, euskararen gizarte egoera kontuan harturik, Zuberoan gertatuak erakusten duen bezala.<sup>21</sup>

<sup>20</sup> Ez bedi ahantz Baionako elizbarrutian sartzen zela Baxenabarre gehiena, non aski biziak izan baitziren aurreko hamarkadetan higenauten eta katolikoaren arteko guduak. Hain zuzen Etxauz apezpikuaren aita ibili zen katolikoaren alde, hala nola gogoratzen baitu Axularrek bere gomendiozko gutunean.

<sup>21</sup> Funtsean aski adierazgarria da ikustea noiz izan zuten euskaldunek Vulgataren euskarazko itzulpen Elizak ofizialki onartu bat. Testamentu Berrian gelditurik, Iparraldean 19. mendearen erditsuan izan zen lehena (Harrietek Haranederren lanaz baliatuz egina). Hegoaldean, Olabiderena izan zen lehenbizikoa, gerlaren ondoan argitara emana. Egia da Eliza katolikoa luzaz mesfidatu dela hizkuntza arruntetara egin itzulpen horietaz, baina ez zen ezin gaingiduzko debekurik, eta baziren frantsesez edo espainolez egin itzulpenak, onetsiak zirenak. Jakinik Aita Santuak 1782ko ediktu batean baimena eman zuela eskritura santuak elizetan hizkuntza arruntetan irakurriak izan zitezela (Abellan 1986:19), hain denbora luzean euskarazko itzulpen onarturik ez izatea, ene ustez, hizkuntzaren gizarte egoerak esplikatzen du, partez bederen.

Testuinguru berezi horretan ez da beharbada erran-nahirik gabekoa Baionako diozesan egin lehen dotrina katolikoa, euskara gizon adinean ikasi fraide jakintsu batek batek idatzi izana. Alabaina Materrek bazuen jadanik, Euskal Herrira etorri gabe, deboziozko liburu bat frantsesez argitaratua 1606an (cf. Vinson 1891), eta pentsa daiteke apezpikuarentzat garrantzizko kontua izan zela auzibiderik pizten ez zuen elizagizon bat<sup>22</sup> lotzea horrelako lanari.<sup>23</sup>

Zenbait urte lehenago lapurtar apaizen manerak garraski kritikatu zituen de Lancrek, amarrutsuki iharduki behar izan baitzion Etxauzek, epaileak apaiz batzuk sorgin gisa auzitegira eraman zituelarik.<sup>24</sup> Apezpikuari zegokion bere agente eremuan dotrinaren zuzentasunaren errespetaraztea eta ez zezakeen normahiren eskuetan utz dotrina baten idazteko kargua, are gutiago oraindik izkirioan guti usatu hizkuntza batean, Leizarragak erran zuen bezala. Egoera horrek esplikatzeko du, menturaz, zergatik izan zuten lapurterazko erlijio letrek orduan kanpotik jini-kako predikari baten laguntza, hizkuntzagatik P. de Lancre batek beharrezko bezain eskuragaitza ikusten zuena:

*Cette forte petite contrée de Labourd, laquelle pour le défaut et difficulté de la langue ne peut être fournie de bon prédicateurs, comme tout le reste de la France* (de Lancre, 6-2: 284).

Dena den, Materreren lana ongi hartua izan zen, eta arazorik gabe berriz argitaratua izan zen sei urteren buruan, Etxauzek ez bezala, euskararik ez zekien Claudius de Rueil apezpiku berriak baimena emanik. Iduriz ez zen horrela gertatu, handik laster, J. Etcheberri, teologian doktore zen ziburutar apaizak nahi izan zuen berak ere beste gisa horretako liburu bat atera, bertsuz egina hau.

Ez diegu kasu handirik egin duela guti arte (cf. Oyharçabal 1999b) Etcheberri Ziburukoaren liburuetakoa paratestuetan agertzen diren zenbait hitzi, edo interpretazio berezia, ene ustez zalantzazkoa, eman diete ikertzaileek. Ekar ditzagun hona lehenik, Etcheberri Ziburukoak *Manual devocionezcoan* (1627) Claudius de Rueil apezpikuari egin zion gomendio gutuneko bertsu zenbait:

<sup>22</sup> Neke da erratea euskararen kontuaz ere zenbatetaraino arrangura zitezkeen elizako buruzagiak. Dena den, Materreren kasuan ezaguna bide zen hizkuntzaz nola jabetu zen, eta berak ere ez du duda-mudarik erakusten bere gaitasunaz. Arrazoi osoarekin: lapurtera klasikoaren oinarri guztiak eskaintzen ditu haren lanak.

<sup>23</sup> Ez dakiguna da ea bere baitarik lotu ote zitzaion lan horri Materre, edo norbaitek –Etxauz apezpikuak?– galdegin ote zion. 1617ko argitalpena ikusi gabe neke da jakitea. 1623ko paratestuak ikusirik kontua ez da argitzen, Etxauzen aipamenik ez baitu egiten Materrek hartan.

<sup>24</sup> Hiru apaiz kondenarazi eta hilarazi zituen de Lancrek, Etxauz Baionan ez izanik eta Akizeko apezpikuari onartaraziz epaia eta zigorra. Baionara sartu zenean jakin zuen Etxauzek beste apaiz batzuk mehatxupean zeudela, eta berehala hartu zuen hitza, berak parte hartuz galdaketetan, eta gauzak halako gisaz bideratuz non azkenean salbatu ahal baitzituen apaiz horiek. De Lancrek bere liburuan (1612) ele minkorrek darabiltza Etxauzen jokabidea aipatzean. Halere ez da menturatzen haren zuzenean gaitz erratera, eta Ofiziala akusatzen du bereziki: *Toute l'officialité de Bayonne est suspecte et récusable* (1612: 6-4, 334).

*Ondra baizen eztukezu, Jaun prelata arrotzaz,  
 Entzutea mintzo dena beldurki aharantzaz.  
 Ezen erreñauak dio Erregeen ohorea  
 Dela, hañitz mihitako sujetak izatea  
 Errege baiño neuretzat, zaduzkat gehiago,  
 Eta ene baitan duzula eskua handiago  
 Arren estima ezazu zuk ere ohorea,  
 Aharantza arrotz batez sujeta mintzatzea.  
 Hartaracotz obra hunen, patroin zaitut hautetsi,  
 Gaiski erraileak zeren baititutzu gaitzetsi.  
 Zuri Eskaintzen darotzut, othoi guarda ezazun.  
 Inbidiosen mihiak lizun ezteiazun.  
 Erregeak behar ditu defendatu jendeak,  
 Hizkuntza batekoak hain ungi nola berzeak.*

Bertsu horiek ikusirik hor aipatzen diren *gaizki erraileak*, apezpikuak *gaitzetsi* behar izan zituenak, edo *inbidiosak*, Etcheberrik dioenez, haren lana *lizundu* gogo zutenak, nor dira ? Konbentzio literario batek sortu hitzezko mamuak ote dira, idazleak liburuaren gerizatzailearen bereganagotzeko sortu erretorikazko etsaiak, hots ? Ez dut uste. Mamirik gabeko topos baten aurrean bagina, haren berri bage-nuke hemen aipatzen dugun garai mugatutik kanpo (1627-1635) Iparraldean, ez baita horrela gertatzen. Ez aurretik, Etxeparek,<sup>25</sup> Leizarragak, edo Materrek, ez ondotik, Axularrek, Tartasek, Oihenartek, Harizmendik, Argaiñaratzek edo Gas-teluçarrek ez dute gisa horretako konturik ekartzen. Euskarazko testuetan gaizki erraile horien aipamena aurkitzen da, bai, Hegoaldean bereziki, ondoko mende-an, baina han ere ez dira erretorika hutsezko izakiak.

Pentsatu behar ote dugu, beraz, P. Altunarekin (1994, cf. halaber *Manual debo-cionezcoaren* lehen liburuaren edizio kritikoaren aitzin solasa), gaizki erraile haiek idazlan hartan erabili euskara mota edo bertsu antzea gustukoak ez zituztenak izan zirela, eta bereziki Oihenart? Ezen, dakigun bezala, honek bere *Art poétique basque* delakoan ongi jorratuko zituen Etcheberriren bertsuak (*Manuala* aipatuz bereziki). Ez zait iduritzen. Bizpahiru arrazoiengatik. Lehenik, datak: 1627koa da *Manuala*, eta 1665koa Oihenarten *Arte poetikoa*, hots, kasik berrogei urteko aldea bada bi idazlanen artean. Areago dena, deusek ez digu erakustera ematen Oihe-nartek Etcheberriren euskara eta bertsugintza ezagutzen zuela honek bere lehen-biziko liburua (*Manuala* hain zuzen) 1627an argitara eman baino lehenago. Ezen, gaizki erraileak bere gomendio bertsetan aipatzean, Etcheberri Oihenartez ari izan balitz, pentsatu behar genuke honek ziburutarraren lanak aitzinetik ezagutu

<sup>25</sup> Etxeparek ere aipatu zituen *euskara ezin eskriba zitekeela* uste zuten jendeak. Baina ez da arrazoirik haren erranaren funt-saren dudak emaitako.

izan zituela eta kritikatu, adibidez, izan zela beste argitalpen bat, 1627 baino lehenago egina. Bigarrenik, ez da ikusten Oihenarten kritika zorrotzean (arrazoinkatua eta ongi oinarritua, metrikari buruzko haren ikusmoldea onetsiz gero), Etcheberrik salatzen duen gaiztotasun pozointsu hori, Altunak dioen bezala, ele bortitzak erabiliz adierazia, bai euskaraz, bai latinez. Bestalde, bitxi litzateke Etcheberriren eta Oihenarten artean halako etsaitasuna izatea, baitakigu Oihenartek berak salaturik, biek gutun harremanak izan zituztela, eta ez zuela Zuberoako lege gizonak hain gaizki jujatzen apaizaren euskara, argiki aitortzen baitzuen 1665eko *Arte poetikoan* neurtitzetan ez bezala hitz laxoetan maisuki idazten zuela.

Gorago aipatu bi interpretazio horiek baztertzen baditugu, nola ulertu behar dira Etcheberriren hitzak? Aitzineko eta ondotikako bertsuei behatzen zaielarik, argi dela uste dut zer zen auzitan: euskara bera. Ez euskalkiak, ez bertsugileek balia zitzaizketen lizentzia poetikoak, baizik ere euskararen erabilera erlijio liburuetan.

Hizkuntza aniztasunaren aipamenarekin hasten dira gomendiozko bertsu horiek (*Jongoikoak nahi luen, Iauñ prelata, Eskara / ziñakien, nola Hebreu, Greka, Latin, Erdara, / Presentatzen darotzudan obraren aditzeko*) eta gai berarekin bururatzten dira hemen goraxeago kopiatu bertsuekin. Zer erraten zion haietan Etcheberrik apezpikuari? Hitz batean: onartu behar zuela apezpikuak, erregeak bezala, erran nahi baitu elizak estatuak bezala, *sujetak* mintzaira askotakoak zituenaz geroz, nor berean hitz egin zezan eta haien artean hizkuntzari zegokion bazterketarik ez zedin egin.

Testuinguru horretan ulerturik, aipatzen diren gaitz erraileak pentsa dezakegu euskara gutietsiz jokabide hori onesten ez zutenak zirela, hots batzuek Etcheberriren argitalpena belztu, kritikatu, eta beharbada debekarazi nahi izan zutela eta apezpikuak *gaitzetsi* zituela.

Ohargarri da Etcheberri euskaraz eta itzulpenik eskaini gabe mintzo zaiola liburua gomendiotan uzten dion baina euskararik ez dakien apezpikuari. Zenbait urte lehenago Materrek hari berari eskaini ziolarik bere *Dotrina*-ren bigarren argitalpena, frantsesez idatzi zituen gomendiozko hitzak, eta Leizarragak ere frantsezez egin zuen Joana Erreginarentzat idatzi eskaintza, euskarazko itzulpenarekin batean argitaraturik ere. Etcheberrik, ordea, ez, esplikatzeko ere duelarik zergatik: baldin ohore bazuen erregeak sujeta hizkuntza arrotz batean hari mintzatzea, berdin izan behar zen apezpiku batentzat. Erran gabe doa holako solasik ez zuela erabiliko Etcheberrik ez balu aitzinetik jakin puntu honetan ados zela apezpikua; haren hitzak jokabide hori onartzen ez zuten beste elizagizon batzuek entzuteko gisan erranak zirartekeen.

Ondoko urteetan ere agertu ziren auzi horren oihartzunak. Alabaina, handik hiruzpalau urteren buruan, *Noelac* argitara eman zituelarik Etcheberrik, berriz atera zen gaia S. Hirigoitiren laudoriozko kopletan:

*Nik behintzat aithortzen dut zure zordun garela,  
Gure ilhunbetik khentzeko zuzia zu zarella.  
Zaharturik zioana eskara erortzera,  
Etcheberrian sarthurik berriz doa sortzera.  
Erdaldunak ahal doazke zein bere herritara,  
Gogat eginik, galduko eztutela eskara.  
Aspaldion zegoena guzientzat azpiko  
Etcheberrik altxaturik gorena da iarriko.  
Eskaldunak hel bekizkit haren ohoratzera,  
Zeren eskara eman duen erdararen gañera.*

Bertsu horietan guri hemen bereziki begia jotzen digutenak erdikoak dira haie-tan aipatzen baitira Hirigoitiren arabera euskararen galtzeko xedea hartu zuten jendeak, Etcheberriren lana agertu ondoan etsitu behar izan zuten erdaldun gisa aurkeztuak (*Erdaldunak ahal doazke zein bere herritara / Gogat eginik, galduko eztutela eskara*). Euskara zaharrez ezindua bezala ikusten omen zuten: eroria eta *azpiko*. Jaki-na, hor aipatzen den euskararen galtze hori testuinguruan ulertzekoa da, erran nahi baita, euskararen erabileremuen finkatzeari zegozkion eztabaiden arabera. Informazio berria ematen digu Hirigoitik, euskararen ehorzleak bere herrietara hasandu nahi lituzkeen erdaldun gisa aurkezten dituelarik. Nor ote ziren? Montaigne bezala, hizkuntza arrunten nolana hieko erabilera haien ustez ezin kontrolatzeko beldur zirenak, eta euskararen orde frantsesa izkirioan bederen erabil zedin nahiagoko zutenak, piska bat Hirigoitik erraten digun bezala? Badaiteke.

Handik bost urteren buruan, Haranburuk ere, bere *Debozinezko eskuarra* argi-tara eman zuenean, segurenaz ere S. d'Iharce Tarbesko apezpikuaren manuz, horrelako zerbait erran zuen: *egiazki enzun dut eta badakit batzuek minzatzan mueta hau arbuiaitzen dutela* (irakurleari egin abisuan). Berriz ere agertzen zaizkigu, beraz, euskarak garai hartan izan zituen arerioak.

Zuzen bagabiltza interpretazio horretan ez dugu zeren uste izan behar osoki euskara elizan erabiltzearen aurka zirela jende horiek, baizik ere dotrina liburuak egitearen kontra, bereziki menturaz sobera egilearen gogoaren arabera egi-nak zirelarik. Alabaina zergatik sorrarazi zuen halako kalapita Etcheberriren *Manual* hark, haren ondoko bi liburuekin ez baitzen horrelakorik gertatu, ez eta Materrek aitzinetik eginarekin ere? Beha dezagun bada hurbilagotik zer izan zen egilearen asmoa. Etcheberrik aitzin solasean ematen digu horren berri:

*Giristiñoa, eman diat eskarazko bertsutan,  
Katoliko manuala neure asti ordutan  
Iklusirik nola bainaiz jaiotzez eskalduna,  
Gure nazioa dela kopla maite duena.  
Hartarakotz iakiara diat bersuz ezarri,  
Lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri. (Irakurtzaille debotari egilleak)*

Bertsu horiek ikusirik, haxe dio Mitxelenak (1981): *Bestela esan, letrarik eza-gutu gabe, irakurtzen jakin gabe, buruz ikas daitezke otoitzak, are errazago otoitz horiek bertsutan ezarriak daudenean*. Gisa berean, Oihenartek ere (1665) Etcheberriren helburu proselitiko horiek aipatu zizkigun.

17. mendean zenbait elizagizonek, dotrina idatzirik jende xumearen eskuetan ezin jarriz, asmatu zuten haren bertsutan ematea gogoz ikasazteko gisan. Asmo horren lekukotasuna ematen digu Etcheberrik, eta badakigu handik laster, 1641ean, horrelako zerbait eginen zuela Pierre Dupontek ere Tolosan argitara emanez *La douctrino Crestiano meso en rimos, per poude estre cantado sur dibérses ayres, è per atal ajuda la memoria del popple de Toulouso*; cf. Eygun (1992).

Dotrina gisa horretan azaltzea ez zuten beharbada orok begi onez ikusten 1627an, bereziki menturaz Etcheberrik bere *Manuala* nola moldatua zuen jakinik. Alabaina obra pertsonala egin zuen Etcheberrik, bere baitarikako otoitz eta gogo-eta gaiak eta irudiak sortuz, itxura guztien arabera ikasbide-eredu kanonikoei jarraiki gabe, eta doi bat ahantzirik menturaz agerian eman zituen asmo pedagogikoak. Neke da jakitea, haatik, aipatu zituen gaitz erraileak haren obraren berezitasunak asaldatu zituen, ala gehiago euskaraz egina izate hutsak Etcheberrik eta Hirigoityk aditzera ematen duten bezala.

Etcheberriren neurtitzak aski urrun ziren ohiko moldeetarik, eta zalantzan jar daiteke, autoreak horrelako asmoa agertu izanagatik, jende xumeei doktrinaren gogoz ikasazteko baliatuak izan zirela egiazki haren bertsuak.<sup>26</sup> Arras itxura berezia ematen zion batzuetan Etcheberrik dotrinari, bai hizkuntzaren aldetik, bai eta adierazpideen aldetik ere. Ez soilik neurtitzez idazten zuelako,<sup>27</sup> baina ziren bezalako neurtitzak egiten zituelako. Beha, adibidez, doktrinako oinarrizko puntu bat –eliza zer den– nola adierazi zuen Etcheberrik.<sup>28</sup>

<sup>26</sup> Alderdi horretarik konpara daiteke beharbada Etcheberriren *Manuala* d'Astrosek, 1645ean Tolosan egin *Petit Cathachisme gascoun héyt en rithme* delakoarekin. Eygunek (1992) azpimarratzen du bertsutan egina izateaz gainera usaiaz kanpoko dotrina zela hau, egilea bera ere nortasun handikoa izanik, eta liburua Lectoureko apezpikuak eskatu gabe eta haren onepenik gabe ere argitaratua izanik. Eskaintzako hitzean argiki erakutsi omen zituen egileak gaskoien eta gaskoieraren aldeko bere sentimenduak.

<sup>27</sup> Adibidez *Gure Aita* otoitza bertsutan eman zuelarik Etcheberrik ez zuen den mendrenik kolpatu otoitzaren mamia. Hona nola paratu zuen Etcheberrik *Gure aita* 8+7 neurriko bertsutetan:

*Gure Aita zeruetan glorioso zarena,  
Errespetuz aipha bedi lurrean zure izena,  
Egiguzu Zeruaren ardiasteko grazia  
Eta bethi konpli bedi zure saindu nahia,  
Egun oro behar gara, iguzu mantenua,  
Eta guk berzeri legez hutsen barkhamendua,  
Ezteazula permeti tenta gaiten borthitzki,  
Bañan gaitzatu kaltetik hastandauk iduki*

<sup>28</sup> Materrearen testua eskaintzen dugu hemen, Etcheberrirenetik zein urrun den ikusi ahal izateko:

**Galde.** *Nola aditzen duzu bederlatzi garrena erraiten denean, Eliza Katolika saindua?*

**Ihar.** *Sinhetsi behar dugula munduan dela egiazko Eliza bat, erran nahi da, Girstino fidelen biltzarre bat, konpaima bat, eta battasun bat, zeinetan sartzen baitira bathaiatu izan direnak, eta Jainkoaren fedea eta legea edukiten duten guziak.*



Lehenik, Kristo dotrinaren irakurleari zuzenean mintzaraziz (lehen pertsonan eta toka, ez baitu iduri gogoz ikasteko egina izan balitz testua, molde hori erabiliko zuela autoreak), eliza arbola batekin konparatu zuen:

*Elizaz.*

*(...). Oraño ene hitza  
Entzun ezak, jakiteko ea zer den Eliza.  
Eliza duk arbola bat izarrerañokoa  
Itzaltzen duela mundu guziaren kanpoa.  
Fruitua duk religione neronek ifinia  
Eta mami obra onak, azal zeremonia.  
Batere etezala azala meziprezia  
Zeren baita fruituaren leial begiraria.*

Gero, Kristo aitzina beti mintzarazirik, metaforikoki eliza ontzi baten itxuran aurkeztu zuen Etcheberrik, Hirutasuneko Aita, ontziaren jabea izanik (erran nahi baitu orduko lapurteraz *burgesa*), Semea, ontziko kapitaina, eta Espiritu santua, pilotua...

*Edo ezperen Eliza duk untzi berregindua  
Ifernuko uriz eta haizez tormentatua.  
Hara huna ziabillak haize kontraz luetan  
Eztuk ordean sekulan galduko uhiñetan.  
Hunetxek dik ardiasten belan Parabisua  
zeiña baita Kristau onen salbatzeko portua.  
Salbamendua duk hemen eta ez untzi berzetan  
Zeñak hondatzen baitire hunen inkuntruetan.  
Barkha hunen burgesa duk ene Aita eternoa  
Ni nauk gero buruzagi haren hurrenekoa.*

---

**Galde.** Nola diozu Eliza bat dela, munduan aihitiz Eliza denaz geroz?

**Ihar.** Eliza erraiten dudanean ez naiz minzo harriz eta zurez eginak diren Elizez, baiña minzo naiz Eliza material hetan biltzen diren iende bathaiatuaz, fede eta lege baten azpian bizitzen denaz, zeinek egiten baitu Eliza bizia, komunzki Eliza Katholika deitzen dena.

**Galde.** Egiatzko Eliza hunen ezagutzeko markak eta seiñaleak zein dira eta zenbat?

**Ihar.** Hirur: Battasuna, saindutasuna, eta jeneralitasuna: Erran nahi da, Eliza dela bat, saildu, eta guzietara hedatua.

**Galde.** Nola aditzen duzu Elizaren batasuna?

**Ihar.** Aditzen dut Gristino fidel guziek fede bat, doktrina bat, eta Sagaramenduen partaletasun bat baizen ezutela bere artean edukitzen: Eta batasun hartan bizi direla guziak buruzagi baten gobernuaren azpian, zein baita Erromako Aita saindua, lurtean Iainkoaren lekuaren edukizaillea, eta haren egiatzko Bikarioa.

**Galde.** Nola aditzen duzu Elizaren saindutasuna, erraiten denean Eliza dela saindua?

**Ihar.** Lehenbizikorik aditzen dut Eliza dela saindua, zeren haren buruzagi ikusten eztena, zein baita Iainkoa, Saindua baita; Bigarrena, zeren fede eta legea baititu sainduak; Hirugarrena, zeren edireiten baita bethiere elizan, erran nahi da Gristinoen artean, fedez eta lege bezala obraz ere saindu denik: Halako moldeez ezen Eliza hunetarik kanpoan Mairuen, Turkoen, eta bertze halako iendeen artean ezin dateke egiatzko saindutasunik.

**Galde.** Nola aditzen duzu Elizaren jeneralitasuna?

**Ihar.** Aditzen dut Gristinoez egiten den Eliza haur munduan banatua eta barriatua dela: baiña barriatua izanagatik nola guziek baitute fede bat, lege bat, eta buruzagi bat, hala guziek egiten dutela Eliza bat eta Gristinotasun bat.

*Spiritu Sakratua itsasoko pillotu  
 Zeñak tormentetan baitu bide onaz gidatu.  
 Ama duk gure ondoan lehenbizi parzuner  
 Apostoluak agintari, laiekoak pasaier,  
 Lagun aphez eta Fraide munduaz ukhatuak  
 Eta ene gatik bizi penosa hautatuak.  
 Soldaduak doktor eta predikari iakiñak  
 Garaituaz doazela hirur etsai gordiñak:  
 Heretiko thematsuak arauko presuner  
 Elizama sainduari zeñak baitzaizko aiher.*

Azkenik, dotrinako ohiko puntuetara itzultzen da Etcheberri:

*Hunelako Eliza duk jendez eskifatua  
 Onak eta gaiztoak ere badik bere lekhua,  
 Bañan komuniki Eliza duk aditzen duguna  
 Girstiño guzien duk Katholiko bilduma.  
 Aphez gobernatzaileen egia duk bilkhua  
 Deitzen dugula Eliza batzuetan Saindua,  
 Parte prinzipalenari guziaren izena  
 Ematen zaiola zeren den señalatuena.*

*Manualak*, ene ustez, adierazten du lapurterazko zenbait idazlanek 17. mendearen lehen partean izan zuten anbiguitate bat. Helburu pragmatikoak eta proselitikoak aitorturik, goragoko asmoak zituen obra bat egin zuen Etcheberri, dotrinako usaiako gaien ondoan erdal testuen erreferentzietarik libro ziren beste batzuk sartzen zituela: lapurtarren argitzeko xedea erakutsiz, euskarazko erlijio letretan zorigaitzez gutitan kausi daitekeen jatortasun bat bilatu zuen, katiximetan eta otoitzetan aurkitzen ohi ez den berezkotasun batekin onduz bere bertsuak.<sup>29</sup> Ez du iduri, haatik, halako arrakasta izan zuela haren entseiu horrek *Manualak* berrogeita bi urteren buruan baizik ez baitu izanen bigarren argitalpena.

#### 4. Frantsesaren indartzea 17 eta 18. mendeetan Iparraldean

17. mendearen lehen partean, boterearen eta auzibideen munduari zegokion oroz gaineratik frantsesa Iparraldeko hizkuntza banaketan. Aitzineko mendean jadanik, Scaligerrek oharra egin zuenean euskaldunek lau hizkuntza arrunt jakin behar zituztela, frantsesaren garrantzia zuzenbideko erabileretako bereziki aipatu zuen.<sup>30</sup> Horrela, Uztaritzeko auzitegiaren inguruan legegizon kasta gisako bat

<sup>29</sup> *Manuala*-ren lehen parteak doktrina edo katixima izan behar zuen, *erkhaimetan bat bederak jakin behar tuen* gauzeekin, eta bigarren parteak othoitzak irakatsi behar zituen.

<sup>30</sup> cf. Urkizu (1986). Halere, foru bilduma idazterakoan aski luzaz irauan zuen iraganeko gaskoieraren nagusigoa, 5. oharrean ikusi bezala.

sortu zen hizkuntza ospedunaren jakiteaz ere baliatzen zena bere boterearen bermatzeko. Euskara itzulpenen bidez ere ez zen beti agertzen auzitegi hartan, ezta auzi kriminaletan akusatuek frantsesa ez zekitelarik ere. Alabaina, Bordeleko parlamentuaren 1695eko delibero batek zuzendu behar izan zituen egoera horretarik sortu makur nabarienak, manaturik Lapurdiko auzitegiko krimen auzibideetan frantsesa ulertzen ez zuten akusatuek handik aitzina auzi denboran itzultzaile bat izan izan beharko zutela (1695/04/19ko arresta).<sup>31</sup> Guztiz adierazgarria da ikustea erabakia tokiko jujeeen kontra hartu zuela Bordeleko Parlamentuak.

Legearen eta administrazioaren mundutik kanpo, ordea, ez da argi zer hedadura zuen 17. mendearen hastean frantsesak erregistro idatzietako hizkuntza gisa Iparraldeko gizartean.<sup>32</sup> Latina zen oraino hots handieneko hizkuntza, eta adibidez 1636an latinez idatzi zuen Oihenartek bere historia liburua. Ez frantsesez, are gutiago euskaraz.<sup>33</sup> Berdin egin zuen bigarren argitalpenean 1656an. Bizkitartean, frantsesa baliatu zuen metahizkuntza gisa bere erretra bilduman eta olerkietan, eta, geroxeago, frantsesez moldatu zuen neurtitz antzeaz idatzi zuen lana ere.

Mendearen bigarren partean are gehiago indartuko da frantsesaren alderako joera, nahiz guti ziren hartaz osoki, izkirioan bereziki, jabe zitezkeenak, gaitasun horren biltzeko Euskal Herriatik atera behar baitzen. 1675eko urteen inguruan Bidegarayk bere hiztegiarentzat diru laguntzak eskatu zituelarik, Nafarroa Behereko parlamentuko eztabaidetan agertu zen orduko egoeraren eta ikusmoldeen irudi bat:

*Ce livre sera d'une grande utilité pour apprendre le latin et le françois, deux langues qui nous sont nécessaires, et les enfants par son moyen du dictionnaire réussiront et en un et en l'autre, sans sortir du pays, et sans s'exposer aux dépenses qu'on essaye d'ordinaire, en les faisant étudier dans les autres provinces* (1676ko uztailaren 14eko Nafarroako Estatuaren deliberoen aktak; cf. Dubarat 1914).

<sup>31</sup> Ikus Duvigean-Légasse (1993:1, 91). Honela dio delako arrestak: *la Cour a enjoint audit Baillif de Labourd de se servir d'interprète dans les procédures criminelles qu'il fera faire à l'avenir lorsque les accusés n'entendront pas la langue française.*

<sup>32</sup> Brunot-ek dioenaz (1911b:713), orohar, 17. mendean finkatuko da aldebat frantsesa jakintza hizkuntza gisa, Malherbek hizkuntza xeheki arautu ondoan bereziki. Irakaskintzan halere, jansenisten entseiuen ondotik, gauzak zailago izan ziren (id. 717-718). Aurreko mendean indar handi-handia zuen oraino latinak prestijio mintzaira gisa. Gogoan izan, adibidez, Montaignek bere hezieraz ekarri lekukotasuna, kontatu baitzuen haurrean etxeko guztiek, aitamak eta sheiak barne (!), manua zutela, latinez baizik ez mintzatzeko haren aitzinean, halako moldez non, dioenaz, sei urte pasa izan zituelarik, ez frantsesik, ez Périgord-eko mintzairarik ez baitzekien. (*Essais*, I. lib. 26. kap.) Brunotek (1911a:8) azpimarratzen du makurrean litzatekeela latinaren garrantzi izariz kanpokoa iduri duen hau orduan jendarte horietan hain arradoa zela uste lukeena.

<sup>33</sup> Frantziako unibertsitateetan luzaz indarrean iraun zuen latinak. Unibertsitateetako kampo egin ziren berrikuntzekin batean agertu ziren latina jakintza hizkuntza nagusi gisa baztertzeko saio garrantzizkoenak. A. Blair-ek (1996) dioenaz, *c'est seulement dans les années 1630 et 1650 que commence à se répandre, pour la première fois avec succès l'idée qu'il faut abandonner les institutions, le savoir et la langue traditionnels de la science universitaire. (...) Aucun doute que (...) l'université devient progressivement au cours du XVIIIe de plus en plus refermée sur elle-même – ce qui ne l'empêche pas de continuer à produire quantité de thèses, de traités, de sommaires, toujours en latin, qui suivent, avec un certain retard, la transition d'Aristote à Descartes dans les années 1680, puis à Newton au XVIIIe siècle.*

Hor adieraziek garbiki erakusten dute lehenik, frantsesa eta latina, biak, kontsideratuak zirela jakin beharreko kultura hizkuntza gisa,<sup>34</sup> bigarrenik, ordu arte, estudioen egiteko eta hizkuntza horien ikasteko Euskal Herritik atera behar zutela gazteek. Bidegarayk aipatu egoerak mende erdia gehiago iraun zuen, goi mailako eskolarik ez izanik, ez eta apaizgaitegirik ere Lapurdin 1730ko hamarkada arte. 18. mendearen hastapenean, beraz, irakasle berezirik izan ez zezaketenek Euskal Herritik kanpo egin behar izaten zituzten kolegio mailako ikasketak, horrek nahitaez murrizten baitzuen moldakuntza horren hartzaileen kopurua, nahiz pentsa daitekeen gero eta gehiago izan zirela horrela kanpora ateratzeko ahala izan zutenak:

*Un grand nombre de jeunes gens du pays Basque se rendaient en ces temps-là [18. mendearen hastapenean] à Bordeaux, pour y étudier au collège des jésuites où l'on enseignait gratuitement toutes les classes, depuis la sixième jusqu'à la rhétorique, la philosophie et la théologie. (Duvoisin 1861:35)*

Mendearen bigarren herenean eginen dira aldaketa garrantzikoena Euskal Herrian berean antolatzeko bigarren mailako irakaskintza, frantsesaren ikastea ere berez zekarrena. Lapurdin eta Baxenabarren Larresoroko apaizgaitegiaren sortzea (1733) har dezakegu horren adierazle gisa.<sup>35</sup> Garai hartan eta ondoko mendean hura izan zen ikasetxe garrantzikoena Iparraldean. Nahiz haren sortzeko arrazoi nagusia euskaldun gazte behartsueneren apaiztera laguntzea izan zen,<sup>36</sup> ez du iduri deus ere egina izan zen euskararen aldetik moldakuntza berezirik emateko hango ikasleei.<sup>37</sup>

<sup>34</sup> Halere, J. Etcheberri beren herria bertuz goretzi zuten olerkariak aipatzerakoan ez du halako mendekotasunik erakusten frantses erreferentzien aldera, izen hauek zerrendatzen dituelarik: Caton (Italia), Pibrac (Frantzia), Verino (Espainia) eta Ader (Gaskoinia). Horrelako aniztasuna ere aurkitzen dugu Oihenarten *Arte poetikoan*, nahiz, Arkoxak (1994:444) erakutsi bezala, eragin berezia izan zuketzen honen neurtitzetan zenbait olerkari frantsesek, hala nola C. Marot-ek eta La Pléiadeko poetek.

<sup>35</sup> Badirudi, orduan euskara zela oraino apaiz euskaldunen artean erlijio gaiez eztabaidatzeko hizkuntza. Doktrina janisten gaineko eztabaidak mindu zirenean Baionako elizbarrutian, bereziki Druillet apezpikuak *Unigenitus* bulda zela-eta dei egin zuelarik 1719an, Lapurtar erretore batek apaizen artean idazki bat zabaldu zuen apezpikuaren deiarekin bat ez egiteko eskatuz elizagizon euskaldunei: *Orhoit gaitezen eskualdunak garela, erran nahi dut katoliko onak*; idazki hura euskaraz egina zen (Duvoisin, 1861:16).

<sup>36</sup> Hala zioen eskola sortzeko Orléans-eko dukeak egin zuen onespén gutunak. Azpimarratzen zuen bereziki *l'utilité singulière qu'il y a d'y former pour l'état ecclésiastique de pauvres écoliers basques, qui de là sont distribués dans les pays basques de ce diocèse et y enseignent les vérités et les maximes de notre sainte religion pour la facilité qu'ils ont d'entendre et parler le langage*; cf. Dubarat 1901: CCCXLVI.

<sup>37</sup> Badakigu Daguerrek eta haren apaiz lagunek (M. Behona eta G. Diharce) misioak euskaraz egiten zituztela. Haiek deitu nahi izan zituen Donibane Lohizuneko auzapezak Duhalde predikariarekin batean 1734an euskarazko predikariaren egiteko (ik. 40. oh. *infra*). Halere Larresoroko apaizgaitegiko sortzaileak ez bide zeukan euskara estimu handitan, kultura hizkuntza gisa bederen. D. Etcheverryk idatzi gutun batean (1745/04/24) irakurtzen ahal da nola behartu zuen Hazparneko Erretreta Etxeko seroetarik bat, berari igorri gutun frantsesez idaztera, alta euskara baizik ez zekieliarik emazteki hark: *vous l'avez mise à une grande épreuve, en voulant qu'elle vous écrivît en françois ce qu'il lui est absolument impossible (Lettres et vie de Made-moiselle d'Etcheverry, 1751:173)*. 1763an argitara eman zuen moralari buruzko liburu bat, frantsesez egina, bost argitalpen izan zituen 1823 arte.



Larresoroko apaizgaitegia.

Frantsesaren hedatze hau Lapurdiko erdi-mailako jendaldeetan, are hobeki adierazten du Harrieten gramatikak (1741). Euskaraz idatzi lehenbiziko gramatika argitaratua izanik hau, haren helburua frantsesaren erakustea zen. Guztiz argigarria da ikustea nola adierazten duen Harrietek zertan beharrezkoa zuten euskaldunek frantsesaren jakitea:

*Trabailu xumetto hunen argitarat emateko obligatu nauen arrazoia ez da berzerik baizen emateko lagunza piskabat franzes hitzkuntza ikhasterat enseiatzen diren eskualdunei. Halatan ez dut egiten presenteko liburu xume hau bera examinatua izateko, baiñan bai hunen medioz franzes hitzkuntza ikhasteko gutizia duten eskualdunek izan dezaten lagunza eta erraxtasun gutibat, presuna sabant eta jakinsunek egiñ dituzten liburuetarik zerbaiten komprenitzeko, eta hetarik zenbaiten probotxuren atheratzeko. (Harriet, *Irakurtzailleari*).*

Harrietek garbi dauka frantsesa ezinbesteko tresna bihurtu dela Iparraldeko euskaldunentzat jakintzako munduari buruz leiho baten irekitzeko.

18. mendearen lehen erdian frantsesa prestijioko hizkuntza gisa nola indartu zen ikusteko aski da behako baten ematea 1734-1735eko neguan Donibane Lohizunen auzapezaren galdez egin ziren misioen egitarauari (Nogaret 1925:79; Darrobers 1994:123-135). Leremboire auzapezak urte hartan jinarazi nahi izan zuen Donibanera Duhalde, Père Clément erraten zioten predikari famatua, sortzez azkaindarra zena.<sup>38</sup> Kaputxino haren egitarauaren arabera goiz guztiez, kasik hilabete batez, bi prediku egitekoak ziren:<sup>39</sup> lehena, 6etan, euskaraz, ofiziale eta

<sup>38</sup> Duhalde hamalau urte arte egon zen Azkainen, eta gero Baionara kaputxinoen komentura joan. Ondotik famatuko zen predikari gisa. Euskara galduxa zuela eta, frantsesez egin zituen bere predikuak Donibanen ere.

<sup>39</sup> Gehiago ere bazen, baina hizkuntzei lotu bereizkuntza soziala azpimarratu nahi izan dugu hemen soil-soilik.

sehientzat (*en faveur des artisans et des domestiques*), eta bigarrena, frantsesez, 10etan. Prediku orduei dagokien partikamena guztiz adierazgarria da: nahiz hura bide zen Donibanen karrika hizkuntza nagusia, euskara agertzen da jende xehe-en mintzaira gisa: goizean goizik egitekoa den predikuan erabiltzeko, hots.<sup>40</sup>

## 5. Euskara idatziaren prestijio galtzea 17 eta 18. mendeetan Iparraldean

Ikusi dugu zer gisaz indartu zen frantsesa jakintza hizkuntza gisa Lapurdin. Ordea, zalantza guti izan dezakegu denbora berean zabaldu zela Lapurdiko (eta orobatsu Baxenabarreko eta Zuberoako) oinarrizko eskolatzea, euskaraz *ororen eskoletan* egiten zena (Oyharçabal 1999a).

Noizkoa zen xuxen maila apaleko herri eskola hori, gaitz da erratea. Badirudi 16. mendean, tokika bederen finkatua zela (Serisier, 1874), eta ondotik hedatu eta indartu zela. Aipatu dugu gorago (13. oh.) Baionako sinodo-estatutuetakoko deliberoa (1666), honen ondorioak indartu baitzituen 18. mendearen hastapeneko errege dekretu batek, herrietako ororen eskolak bultzatuz. Erljio auzien garaian eta haien ondotik, elizagizonek bide bat ezin baztertuzkoa ikusi zuten eskola haie-tan, herritarren pentsamoldea begipean edukitzeko, ez baita dudarik irakaskintza horren lehenbiziko helburua zela elizaren irakaspenen zabaltzea eta finkatzea jendeen artean. Euskaraz egiten diren liburuak testuinguru horretan egiten dira: Materrek eta Axularrek egin zuten bezala, baina egoera berri batean, euskal irakurlearen irudi soziala guztiz apaldua izanik.

---

<sup>40</sup> Paradaz balia ez dirot uko egin misio horren apailatzeko urratsetan gertatu zen auzi baten kontatzeari. Itxuraz euskalki auzia da, egiazki, segurenaz ere, sos kontua. Misio horren egitaraua izigarri kargatua zen: Duhaldeki nahi zituen berekin hamar bat laguntzaile ekarri, kasik hilabete batentzat. Soberaxko auzapezaren ustez, entseiatu baitzen orduan misioen denbora laburraraztera, eta Duhalderei laguntzaileen kopurua gutiaraztera. Bigarren puntu hau zenaz bezainbatean, pentsatuz menturaz Duhalderean laguntzaileetan ez zela lapurtarrik, euskalkiarean argumentua baliatu zuen, zioelarik predikari lapurtarrak behar zirela Donibanen, Nafarroa Behereko euskara grekoa bezain ezin konprenituzkoa baitzen donibandarrantzat, eta hain zuzen, bazirela bizpahiru predikari lapurtar, sekula Duhalderean laguntzaileen artean herrialde horretakorik ez balitz, lan hori egin zezaketenak: *Nous vous prions ... de faire attention au langage des Prédicateurs Basques. L'idiome de Basse-Navarre est Grec pour nous, nous ne l'entendons absolument pas et à supposer que vous seriez en peine d'en trouver de ceux qui parlent à notre façon. Nous avons icy deux ou trois dignes ecclésiastiques [Daguerre eta haren lagunak, 37. oharrean ikusi bezala] qui rempliront ce devoir avec honneur et à la satisfaction de notre peuple.* (Auzapezak Duhalderei 1734/08/04ean egin gutuna, ik. Darrobers 1994:127). Duhaldeki argi ikusi zuen estakuru bat xerkatzen zutela hor donibandari herri gizonek xahutze gutiago izateko, ihardetsi baitzien berehala, uste zuela xurritua izan zela lehenagotik auzi hori, eta, hordago eginez, gisa horretan nahiago ziela lekua utzi auzapezak aipatu predikari lapurtarrei: *Rien n'est plus judicieux que la réflexion qu'on fait vos Messieurs sur la nécessité des Prédicateurs du País. Leurs épenchements et leur bontés pour moy les empêchèrent sans doute de faire attention à ce que j'eus l'honneur de leur déclarer au moment qu'ils me demandèrent la mission, que nous n'étions que deux capucins du Labourd, que pour moi je ne pourrais donner que peu d'instruction en basque en ayant presque perdu l'usage et que la plupart des autres missionnaires seroient de basse navarre et de Soule, par conséquent d'un idiome un peu différent de celui du país, à quoi il me fut répondu qu'on se feroit aisément à leur langue et qu'on les entendroit. je me suis reposé là dessus... Mais puisque vos messieurs jugent, et avec raison, que l'idiome de ces missions seroit du Grec pour St-Jean-de-Luz, je leur écris de se mettre en repos, et comme je ne suis pas en état d'entreprendre une mission dans un théâtre tel que St-Jean-de-Luz avec un seul Basque du país, je crois que vos Messieurs profitent de la disposition des zélés Ecclésiastiques dont vous me faites l'honneur de me parler pour faire la mission projetée. Je conclus qu'il faut leur laisser faire la mission; étant trois ils y pourront fournir beaucoup mieux que moy qui ne puis avoir pour second qu'un seul capucin de votre idiome* (1734/08/06ko gutuna; cf. Darrobers 1994:128). Azkenean donibandarek amor eman zuten.

Eskolatze horren lekukotasun ia zuzena ematen digu de Bellefonds apezpikuak Etcheberri Anderearen bizia eta gutunak biltzen dituen liburuaren (1751) aitzin solasean:

*Le Pays Basque est situé sur les frontières de la France et de l'Espagne, dans les diocèses de Bayonne, de Dax, d'Oloron et de Pampelune. Malgré le commerce avec ces deux royaumes, et le passage continuel de toute sorte de personnes, on peut dire que la langue le rend presque inaccessible aux étrangers; il leur est presque impossible de l'apprendre; elle n'a aucun rapport avec une langue connue. Ce pays ne peut donc trouver de ressources que dans lui-même pour l'instruction des peuples et l'éducation de la jeunesse. Peu de familles sont en état d'envoyer leurs enfants ailleurs; les personnes du sexe et les gens de la campagne y seraient absolument sans secours, si des prédicateurs, des maîtres et des maîtresses du pays, ne se chargeaient pas de les instruire dans leur langue. (Vie et lettres de Mme d'Etcheverry, 1751, de Bellefonds apezpikuaren aintzin-solaseko erranetarik)*

Hitz horiek, Duvoisinen erranen berme izanik, erakusten digute mendearen lehen partean herritar gehienei zegokien oinarrizko irakaskintza eta hezkuntza (*instruction des peuples* eta *éducation de la jeunesse*) ezin bestean euskaraz egiten zela Iparraldean, nahiz familia aberatsenek, haurren hobeki eskolatzeko, herritik kanpora igortzen zituzten.

Paradoxa iduri badu ere, euskara idatzia oinarrizko eskolatzeari esker gizartean zabaldu arau gizartean haren ospe-maila apalduz joan zen. Materrek eta Axularrek gogoan zituzten euskal irakurle haiek, segurenaz ere gizarteko erdi-mailetakoak zirenak, tokia utzi zieten Lopezek (1782),<sup>41</sup> bere itzulpen-egokitzapen lanaren aitzin solasean, aipatu zituen *jende praubeei*.<sup>42</sup> Guztiz interesgarria da idazlan hau, lehen aldikotz ikusten baitugu hain argiki aitorturik, norentzat gelditu ziren azkenean euskarazko liburuak 18. mendeko Iparraldeko banaketa diglosikoan. Liburua A. Rodriguezen *Práctica de la perfección Cristana* obra famatuan oinarritua da. Lan luzea, gogoetagai asko dituen, Lopezek ez baitzuen uste euskaldun irakurleek hartarik probetxu handirik atera zezaketen, non ez zien modu sinpleago eta laburrago batean eskaintzen:

*Lanaren luzetazunaz zen bezambat, ene Adiskidiaren seindimendia zuzun laburtzia hobe zela, liburu hedatu horren pharte bat gende komunaren hoben*

<sup>41</sup> Liburuaren tituluaren berean dio itzulpena *Heuzkara bezik ezlakitenen dako* egina zela.

<sup>42</sup> Molde berean, De Philippes d'Abense, Jutsiako erretoreak bere baimen hitzean dio, Lopezek jatorrizko obra laburtuz egin hautuaz: *bi abantailla besarkatzen tizi, bata emanaz liburu net handi esten [= ez den] batetan zer ere baita prootxosenik her[r]jetako populiaren dako devozionesko liburu dugun hobenen batian, zoin lauretan hedatiago baita; bestia bere laburtazunaz familiaren praubenen eroz bidian ezarritz.*

*denaren xoilki Heuzkarala itzuliz, eta bestiak utziz; ceren halaz liburria labur-ago baitate eta merkiago, eta hantik gende praubek ihikiago erosiren, eta aborok probetxaturen.*

*Arrazoin horiek, ene Irakurzale Maithia, ene bihotzeko dudak kendu tizie, eta ekarri nizie erran dudan liburu horren, ez ororen, bena pharte baten Heuzkarala itzultzera intseatzera, eta ene uztez horren kapitulu gende komunaren probetxosenak hautatu tizit, bai-eta heendako auher zauzkidan kapitulu heen pharte zumbait utzi.*

Maila apaleko jendaldeentzat sortu euskarazko kultura idatziaren emaitza gisa kontsidera ditzakegu halaber pastoralak ere, hain zuzen oinarrizko alfabetatzea beren gain zuten Zuberoko errejentei esker sortuak.

Iparraldeko euskal letren egoera, orduan, Hegoaldean lehenagotik kausitzen zenaren idurikoa izan zen. Larramendik, predikarien jokamoldea gaitzestean, eman zigun pentsamolde haren berri:<sup>43</sup>

*Y aun ha llegado la infamia a valerse de estos predicadores para que en muchos pueblos, comunidades de monjas y cofradías se tenga por cosa de menos valer el que se predique en vascuence. Como que el vascuence es solamente lengua para aldeanos, caseros y gente pobre: diablura más perjudicial no ha podido introducirse en los púlpitos. (Corografía de Guipúzcoa: 305)*

## 6. Hegoaldeko euskal letren egoera Iparraldekoena konparaburu gisa harturik

Iparraldeko euskal letren azterketa honen ondotik, ikusirik 16. eta 17. mendeetan ez zela euskarazko libururik egin Hegoaldean, bihirik ere ez, Sarasolak (1976:179) baliaturikako irizpideen arabera behintzat,<sup>44</sup> nola esplika dezakegu Hegoaldean denbora horietan euskarazko libururugintzan aurkitzen den antzutasuna?

Ez du iduri, Iparraldea konparaburu izanik, baliabiderik ezean datzala azalpalpena. Adibidez, Hegoaldean ziren lehen moldiztegiak egin, Baionan baino

<sup>43</sup> Larramendik hitz gogorak erabiltzen baditu euskararen gutiespen sozialaren salatzeke; halere ulertzen du jendarte eta gai batzuetan nekez ager daitekeela euskara, ordu artinoko utzikeriagatik: *Que esa máxima* [euskara deusetako ez dela on baserrietako jende xumeei gai aruntez predikatzeke baizik] *tenga acogida y aceptación entre jóvenes que vienen de colegios y seminarios, muy imbuídos de bellas letras y del latín, romance o francés, en que las han estudiado, y que la practiquen en conversaciones sobre esas materias, que no son comunes, ni populares, pase, pues que hasta ahora no se han escrito en vascuence.* (Corografía:305)

Jesuiten orduko pentsamoldearen ondorioa ote? Euskara kasu batean behintzat bazterturik ikusi nahi zuen (beste hizkuntza komunak bezala): *Ocasiones hay en que no debe predicarse en vascuence o en lengua común de todos los oyentes, y es en aquellos sermones cuyos asuntos miran a los que mandan, dirigen y gobiernan, y no son para el común de los oyentes, ni éstos es razón que sepan cuán mal gobernados están y qué pecados cometen en su gobierno los que mandan, a menos que no haya otro camino para su enmienda que en sonrojarlos en público y con todo el común.* (id. 307. o)

<sup>44</sup> Irizpide horiei jarraikiz, neurri tikiko idazlanak, 49 orrialde baino gutiagokoak, ez dira kontuan hartzen, ez eta itzulpen bidez obratu liburu elebidunak ere.



lehenago, Iruñean, Lizarran, Tuteran, Bilbon eta Donostian.<sup>45</sup> Halaber, erran daiteke durduza handirik gabe bazirela hala jendeetan nola gizarte azpiegituretan, baldintza egokiak, idatzizko kultura bizitza baten garatzeko 16. eta 17. mendeetan. Horrela ere gertatu zen. Gaztelarazkoa izan zen, haatik, eta gaztelarazkoa bakarrik kasik (latina bazterrean uzten badugu).<sup>46</sup> Arras guti euskarazkoa.

Behako bat eman diezaiogun Baionako diozesarekin harreman gehienik izan zuten Iruñeako diozesako irakaskintza egiturari, 16. mendean jende gehiengoa euskalduna baitzuen elizbarruti horrek, hartan sartuak zirelarik, Aragoiko parte handi batez landa, Nafarroa Garai osoa,<sup>47</sup> eta Gipuzkoako parte gehiena.<sup>48</sup> Hain zuzen, 16. mendearen erdialdean garrantzi berezia hartu zuten Nafarroa Garaian hezkuntzako gaiek, segurenaz ere konkistaren ondotik sortu egoera politiko guttiz nahasian erlijio gataskek pisu handia eman baitzieten.

Alde batetik goi mailako irakaskintzan nabaritu zen kezka hori. Oñatiko unibertsitatea sortu zen garaian (1550), Nafarroako Gortean ere aipatu zen unibertsitate baten sortzeko beharra (Vergara Ciorda 1991:37), eta handik laster apezpikuek eta elizako tokiko egiturek<sup>49</sup> bere gain hartu zuten irakaskintzaren antolamendua Trentoko kontzilioko ondorioak aitzintzen zituztela.<sup>50</sup> Bi uniber-

<sup>45</sup> Euskal Herriko lehen inprimatzailea Brocar izan zen, 1489an Iruñean inprimatu baitzuen lehen liburua. 1501ean Iruñeatik joan zen eta 1546 arte ez da moldiztegiarik izan Euskal Herrian. Urte hartan Lizarran bat jarri zen (Elsoren dotrina, 1561ekoa, hiri hortan izan zen inprimatua; ik. Goñi Gaztambide 1995). Bilbon Mares-ena izan zen lehenbizikoa (1576an irekia, honetan inprimatu zen Pozaren *De la antigua lengua ...* 1587an) eta bigarrena P. Cole de Ibarrena (honek inprimatu zuen Betolaçaren *Doctrina christiana* 1596an). Donostiako lehen inprimategia, Borgoñak 1586an jarri zuen, eta Baionakoa J. Merlet-ek 1608an. Ez da argi egiazki izan ote zen azkenik aipatu inprimatzaile hau, edo ibilkaria ote zen : haren izena aipuz baizik ez da ezagutzen, agertzen delako bi aldiz (1607, 1608) argitaratu eman zen liburuxka herriko batean (Godinot 1965, Desgraves 1972). Haren ondoren Baionan moldizkiratu zen lehen liburua Voltoireren ikasbidearen 1642ko berrargitalpen bat izan zen. Euskal Herriko moldiztegien historiaz, ikus Arana (1994). Baionako inprimatzaileen lanetan toki handia izan zuten euskarazko argitalpenek 17 eta 18. mendeetan, erdiak edo gehixeago ziren Desgraves-ek (1972, 1974) ematen dituen xehetasunen arabera.

<sup>46</sup> Nafarroan egiten ziren liburua Nafarroatik kanpo ere saltzen ziren. Gaztelako herrian kanpotikako liburuen sartzea debekatu nahi izan zutelarik Adrian Anvers Iruñeako inprimatzaileak gutun bat egin zuen erranez: *como este reyno es tan pequeño, y la mayor parte del sea Bascongado; se vende muy poco de lo que se imprime: y si sino se da lugar a que se venda en Castilla, recibirá mucho daño el suplicante, y no podrá mantener su casa.* (Perez Goyena 1947:120)

<sup>47</sup> Oroit Baionako diozesari lotuak ziren Hegoaldeko lurraldeak (Nafarroa Garaian, Baztan, Doneztebe, Bostiriak, Luzaide, eta Gipuzkoan, Hondarribiatik Erreterria arteinokoak) 1567an beretu zituela Iruñeako elizbarrutiak.

<sup>48</sup> Mendebaldeko Gipuzkoa (guti gora behera bizkaieraz mintzatzen dena) lotua zen Calahorrako elizbarrutiari, Bizkaia gehiena eta Araba bezala.

<sup>49</sup> Elizagizonen eskola mailaz Goñi Gaztambidek (1947:141) zenbaki hauek ematen ditu 1577ko: 25 doktore, 111 lizentziatu eta 127 batxilerrak, beraz orotara 263 graduatu. Jakinez 1594an 9000 elizagizon zirela elizbarrutian, eta 160 000 jende zenbatzen zirela orduko Iruñeako diozesan, kontatzen da elizagizon bat bazela 17 jenderentzat (Vergara Ciorda 1991:38). Bestalde, pentsatuz 1577-1594 urte arte horretan graduatuen kopurua ez zela biziki kanbiatu, heldu da elizgizonetan %3 guti-gorabehera graduatuak zirela. Gutxi zen, segurki, aurki ahal zedin elizgizonetan molde arruntean unibertsitateko maila. Ez hain gutxi, kontuan hartuz beste toki batzuetan %1 zela (Goñi Gaztambide 1947:141), eta ez zela unibertsitateko Nafarroa Garaian 16. mendean.

<sup>50</sup> Goñi Gaztambideren (1947:145) arabera erreforma katolikoa Nafarroa Garaian Trentoko Kontzilioa bukatu baino lehenago hasi zen: *la diócesis iruñense hizo en el siglo XVI, aún antes de la terminación del Concilio Tridentino, un esfuerzo vigoroso por regenerarse y limpiarse de las máculas que le afeaban.*

tsitate sortuko ziren Iratxen lehena (1615) eta Iruñean bigarrena (1630),<sup>51</sup> aipatu gabe Jesuisten kolegioa<sup>52</sup>, kolegio sekularrak, eta gramatika eskolak.<sup>53</sup>

Beste aldetik, behe mailako eskolen antolamendua ere hasi zen 16. mendean. Helburua zuten Iparraldeko ororen eskolek bezala oinarrizko erlijio irakaspenaren segurtatzea, bai eta irakurtzen eta idazten erakustea ere. Goñi Gaztambidek (1947:282) azpimarratzen du aski hedatua zela 16. mendearen bigarren partean eskolatze hau:

*El hecho de de que no sólo en Pamplona, sino en pueblos como en Muruzábal, Burlada, Obanos, Belascoian y Artajona funcionaran escuelas elementales, permite suponer que la instrucción primaria estuvo muy extendida en el Obispado durante la segunda mitad del siglo XVI. (Goñi Gaztambide 1947:282)*

Elizaren gerizapean sortuak izanik, eskola horietarik batzuk herriek ordaintzen zituzten; Laspalas Perez-ek (1987:30) 19 herri kontatzen ditu horrela finantzatu lehen mailako eskolak zituztenak.<sup>54</sup> Beste batzuk fondazio pribatuak ziren, hala nola Azkoitian,<sup>55</sup> edo Mutrikun, non 1610ean, diru bat emana izan baitzen xede hau zekarrena: *salariar un maestrescuela que a los hijos de esta villa les enseñase la doctrina cristiana, leer, escribir y contar* (Azpiazu 1998). Horretaz datu zehatz guti dugun arren, badirudi gazteleraz egiten zela Hegoaldean oinarrizko eskolatze hori. Euskarak ez zuen den mendreneko tokirik kolegioetan,<sup>56</sup> eta hala izan behar zen orohar beheragoko mailetan ere; cf. Goñi Gaztambide (1947:288).<sup>57</sup> Elizako izkirioetan agertzeko ere, euskarak erdaratik itzulia izan behar du eta haren ondoan; zenbait katixima argitaratutan agertzen delarik

<sup>51</sup> Unibertitate horien arrakasta hala-holakoa izan zen, bereziki lehenbizikoarena, baina gure gaia denaz bezainbatean ez du horrek halako muntarik; ikus Martínez Arce (1999).

<sup>52</sup> Jesuiten kolegioa 1580an sortu zen Iruñean, eta kolegiarik garrantzikoena izan zen: laister 450 ikasle izan zituen, 1620an 500, 17. mendearen bukarean 600. (Goñi Gaztambide 1947:213)

<sup>53</sup> Goñi Gaztambidek (1947:210): *Desde fines del siglo XV la Diócesis de Pamplona vióse contagiada por la fiebre humanista que sacudía a Europa y cada villa o ciudad importante quiso tener su Escuela de Gramática. En el siglo XVI existían clases de latín en Pamplona, Sangüesa, Olite, Tafalla, Puente le Reina, Tolosa, San Sebastián y Uncastillo.* Vergara Ciordak (1991:39) gaineratzen du: *Algunos conventos también impartían estas enseñanzas. Tal es el caso de los franciscanos de Pamplona, Tolosa, Mondragón y los dominicos de Pamplona y Estella.*

<sup>54</sup> Gipuzkoako juntek 1721ean deliberatu zuten herrialdeko herri guztietan errejent bat izanen zela; cf. Cortina (1986:29).

<sup>55</sup> Inazio Loiolakoaren ahaideek sorrarazi zuten mendearen bukaeran lehen letretako eskola bat Azkoitian, 1600ean ireki zena. Idazten, irakurtzen, kontatzen, dotrina giristinoa, eta latin gramatika irakatsi behar ziren hartan. Halere, latinaren irakaskintza anitez geroago, 1732an, hasi omen zen. egiazki (Goñi Gaztambide 1947:213)

<sup>56</sup> Ikus adibidez, Iruñeako kolegio sekularretako ikasketak (Vergara Ciordak 1991: 172-185).

<sup>57</sup> Cardaberazek *Eusqueraren berri onac* liburuan baiesten du puntu hau, Iparraldeko tradizioa bestelakoa zela erranez: *Frances Euscaldunai Gramaticaco Erreglac Eusqueraz adiraci, ta eracusten diezcate* (18. o). Ele bortitzak erabili zituen Cardaberazek maisuen euskarari buruzko jokabidearen salatzeke, argumentu pragmatikoak utzirik euskaltzetasunean oinarrituz bere gaitzespena: *Emen Guraso, ta Maisuac falta andibat erremediatu beardute, ta gure Eusquerari orañdaño baño mesede gueiago eguiñ. Genden artean beste Lenguageric Eusquera baño dicha gabeagoric ezta icusi, ta gure jatorrizco, edo jaiotzaco Izquera ezbaliz bezala, guiza artetic quendu, ta hurpean ondatu naidute, ta Escoletan sortija, edo siñalequin, azote ta castiguaquin eragotcinaidute. Cer eraqueria itsuagoric au baño?* (17. o.)

halaxe agertzen da, bai Elsorenenean (1561), bai 1608ko dotrinan<sup>58</sup> eta Beryainenean (1626).

Funtsean ikusten dugu Iruñeako diozesan 16. mendearen erdiaz geroztik gaztelarak aitzineko tokia hartua zuela jadanik hizkuntza idatzi gisa, eta latinaren ordeko gisa agertzen da askotan elizan berean ere. 1544tik aitzina latina ez zen gehiago baliatu elizako auzitegietan eta kurian (Jimeno Jurío 1995:59).<sup>59</sup> Ikuspegi horretan, Hegoaldeak garai haietan euskara kontuetan izan zuen antzutasuna ez da kultura mailako gibelamendu edo berantze baten ondorio gisa aztertu behar, batzuetan egiten den bezala, baizik ere, aitzitik, aitzintze baten ondorio gisa: Hegoaldean Iparraldean baino lehenago zabaldu ziren Pizkundeak kultura sailean ekarri zenbait berrikuntza, bereziki hizkuntza arrunten erabilerari zegozkionak, baina gaztelaniaren fagoretan gertatu ziren,<sup>60</sup> horrek sortu gabe ito baitzuen euskarazko liburugintza, ezinbesteko itzulpen lanetarik kanpo bederen.

## 7. Larramendik bultzatu zuzperraldiaren mugak: Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen jarrera

Euskal letrei begira Trentoko kontzilioak, beraz, ez zuen ondorio handirik izan Hegoaldean, salbu hain zuzen arras maila apaleko dotrina liburuxka batzuen egiteko, beti ere gaztelera ondoan izanik. Erabilera egokirik ezean, zaildu gabe zegoen euskara eta nekez balia zezaketen elizagizonek molde egokian. Horren lekukotasuna ematen digu Larramendik. Mendibururi egin gutunean (1747) bazioen erdaraz predikatzen zela Hegoaldeko euskaldun herrietan, predikariek euskara ez aski jakinez:

*Zer bada? eztabilza gure Eleizetan Predikarioz franko? eztarasate surmurrez, ta deadarrez Zeruko jakinbidea? Egia da, badabilza, ta badarasate. Ordea zer da ansi, enzunle geienak erausi hura aditzen ezpadute? Sinisterazo nai digute, aditzen dala Gaztelania, are ikasi ez dutenen artean. Ezta hori egia: alperren erausiak, eta aitzakiak dirade: hitz banakaren batzuek adituagatik aizeak daramatzi besteak, eta Jainkoaren hitzaren ogia gelditzen da Euskaldunentzat, xeatu bagez probetxurik gabea. (Manuel Larramendiren euskal testuak: 35)*

Euskaraz egiten zenean ere franko molde traketsean egiten zen Larramendiren arabera:

<sup>58</sup> Dotrina hori aipuz baizik ez da ezagutzen, piska bat Elsorena bezala, baina gutiago dokumentatua izanik (Goñi Gaztambide 1947:289).

<sup>59</sup> Jimeno Juríok (1995:59) dio *En castellano está escrita toda la documentación de los protocolos notariales, de los tribunales civiles y eclesiásticos, de ayuntamientos, parroquias y conventos; en ella se escribían gran parte de los libros.*

<sup>60</sup> Estatuak ere alderdi berera bultzatzen zituen gauzak. Ezaguna da Felipe II.ak 1573an onarturiko Gipuzkoako legetarik batek (3. tit. 20. kap.) obligatzen zituela Gipuzkoako hautetsiak irakurtzen eta idatzen jakitera (zehaztua ez izanagatik, praktikan gazteleran mamitzen zen jakite hori).

*Alabañan gutik daki bere jaieterriko Euskeraren erdia, eta alperrak diraden bezala, eztute ikasi nai geiago, ta eztie nai beren buruai atsekaberik eman. Baña onetatik zer gertatzen da? Dakiten piska arekin, hitz moltxo, eskumen baten diña eztan arekin nola eziñ adierazo dituzten beren esakariak, badarasate pulpituaz hitzera naasi bat, beñ Euskera, beñ Erdera, beñ Latiñera, guzia leudatua, zikin-dua, baraustua: zeñean dirudien, igo dirala gaiñ artara enzule burla egitera: ta arritu oi naz, nola asko ta asko, bulzaka ordu gaistoan aientzat, botatzen ezituzten andikan bera. (Manuel Larramendiren euskal testuak: 35)*

Mendiburuk ere elizagizon jantzien euskaraz aritzeko nekezia azpimarratu zuen, predikuetan zerabilten haur euskara salatuz *Igande eta Festegunetarako Irakurraldiak* idazlanaren hastapenean irakurleari egin hitzean:

*Eliztar euskaldun jaunak egiten dirà Eliz-jauin ta predikari beren estudi guziak erdal-herrien batean egin ezkeru. Estudiora joaten dirà aur-euskara bai ta besterik ikasi bage, ta zekiten pisk orretan ere moteltzen dirà ango beren lanak bukatu orduko; ta eliz-jauin ta predikari egiten diranean arkitzen dirà aurtasunean diña euskar ere ez dakitela. (Mendibururen idazlan argitaragabeak, 1. lib.:53)*

Hain zuzen, jesuista batzuen eta Zarauzko frantziskanoen inguruan,<sup>61</sup> egoera horren aurkako mugimendu bat sortu zen euskaltzaletasunak eta misionest garrak sustatua. Larramendik eman zion mugimendu horri itzal eta ospe, baina ez zen aski izan euskara jakintza hizkuntza gisa onarrarazteko, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen jokabidea aztertuz orain ikusiko dugun bezala.

18. mendearen bigarren partean, erran nahi baitu Larramendiren ekarpena ongi ezaguna zen garai batean, ikusi zen garbiki mende hartako merkataritzaren onurek kultura alorrean ekarri aitzinamenduak ez zirela baitezpada euskararen onetan gertatzekoak, ez bederen esperantza zitekeen neurrian eta moduan. Orduko jakintza berriaren sustatzaile eta zabalzaile izan zen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen euskararen alderako zenbait asmo onek ez baitzituzten funski aldarazi euskara letra mundutik kanpoan atxikitzen zuten jarrerak eta jokabideak.<sup>62</sup>

Garai hartan euskaraz *batzarre* erraten zioten elkarte horrek euskararen alde tik egin zituen lanak ikertu ditu Alzibarrek (1985). Ezagutzera eman ditu horrela ikasleek etsaminen aitzinean, edo jaun baten laudorioetan, jendaurrean errateko egiten zituzten euskarazko *arenga* batzuk, neurtitzetan edo hitz laxoetan eginak, gazte haietarik zenbaitek behintzat euskara lantzen zutela erakusten dutenak.

<sup>61</sup> Ikus Larramendik *Corografian* (309-310) zer dioen misionesten euskararen nolakotasunaz.

<sup>62</sup> Argitalpenei dagokienez, gogora gaitezen, Lasagabasterrek (1986) azpimarratzen duen bezala, euskararen lantzeko asmo onek, estatutuetan aipatzen zirenek eta gero ikusiko dugunaz denbora batez behintzat ikasleekin behintzat obratu ere zirenek, ez zutela ondorioz izan elkarteak argitaratu lanetan.

Elkartearen 1765eko estatutuen arabera zen jokabide hau, baitzioten hauek 9. artikuluan, zenbaitek espainol literatura landuko bazuten, *otros se aplicarán a pulir y cultivar la lengua bascongada*. 1776ko estatutuetan ere aurkitzen da puntu hau. Badakigu, bestalde elkarteko lehenburuetarik bat, J. de Muñibe, Peñafloridako kondea (Caracasako konpainiaren sortzailearen semea), euskal antzerkigintzaren historian toki berezian agertzen dela.<sup>63</sup> Badugu, halaber, elkartearen orduko egitasmoen artean agertzen zen euskara-gaztelera hiztegi baten berri ere, eta kide batzuen azterketetan ikusten da euskararen gramatika latinarenarekin erkatu zela batere uzkurkeriarik gabe. Ezin dudarik egin daiteke, beraz, jaun horiek euskararen aldera zuten atxikimenduaz eta errespetuaz.

Horiek horrela, euskara monumentu gisa<sup>64</sup> eta edergintzako tresna gisa ere mespretxatzen edo gutiesten<sup>65</sup> ez bazuten euskaldun *ilustratu* haiek, ez du iduri Larramendik lehenxeago salatu gizarte egoera hits hartarik ateratzeko asmorik izan zutela sekula, eta eskolako mintzaira gisa gaztelararen parean emateko ideia-rik izan zutela.<sup>66</sup> Alabaina, lehen mailako eskola sare bat, hiru probintzietako herri guztietara hedatu gogo zutena, egitea proposatu zutenean, horrela erakutsiz jakintzako ateak ireki nahi zizkietela euskal herritarrei, euskara ez zuten bate-re kontuan hartu. Garbi zuten irakaskintzaren herritartzeko beharrezkoa zela eskola haietan herri mintzairak erabil eta lan zitezen, baina, gaztelararen aldeko

<sup>63</sup> Funtsean *El borracho burlado* antzerkiak aski ongi erakusten du hemen aipatzen dugun diglosia motarekin konformatzen zela Muñibe: erranak gaztelerez dira eta kantuak baizik ez euskaraz. Antzerki gutzia euskaraz egiteko gogoia izan omen zuten Muñibek, baina gipuzkera estandarrik ez izanik, nahiago izan zuen horrela jokatu. Goierriko eta Beterriko mintzamoldeen arteko alde hain handia ote zen jendeen belarrietan, nola baitzioten Muñibek zela? Dudazkoa da. Hemen ere, Donibane Lohizuneko auzi hartan bezala (cf. 40. oh.), estakuru aire bat badu azpimarratu zuen euskalki kontuak. *Digo, pues, que mi primera idea fue de que toda esta ópera fuese en vascuence, pero luego me faltó la dificultad del dialecto de que me había de servir en ella. Si me valía del de Azcoytia, hubiera sido poco grato a todo el resto del País hasta la frontera de Francia, por la preocupación que tienen contra el vascuence o dialecto de Goi-erri, y si quería usar del dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastián, etc., exponía a los actores a hacerse ridículos, pues sería difícil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razón, pues me hube de contentar el vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuese en castellano.*

<sup>64</sup> Hiztegiaren egiteko ideia P. Rodríguez Campomanes, *Real Academia de Historiako* zuzendariak ekarria zuen *suponiendo la importancia de esta empresa para facilitar los conocimientos de la antigüedad Española, y evitar la ignorancia de un idioma que puede conducir mucho a la Geografía y cosas antiguas de la Península*. (*Extractos de 1775*:106) Batere ez ziren aipatu garai hartan hiztegi batek euskararentzat berarentzat izan zitzakeen ondorio praktikoak. Azkenean, Aizpitareren gain gelditu zen lan hori.

<sup>65</sup> Ospea ere ez zioten ukatzen euskarari elkartearen akta ofizialetan, nahiz, iduriz, beti **ikasleen** bidez egiten zen. Adibide gisa ikus daiteke nola errezibitua izan zen 1772an elkartearen diru emaile nagusi zen, baina euskararik ez zekien eta orduan Madrilen bizi zen Bañosko Kondea. Ongi etorrian erabili ziren *expresiones gratulatorias en Castellano, Latin, Francés y Vascuence, dirigidas por los Caballeros Alumnos a los Excelentísimos Señores Condes de Baños sobre su venida al País Bascongado*; (*Extractos de 1772*:110). Altiabarrek (1985) argitaratu ditu karia hartara X. M. Egia, hamabi bat urte zituela, erranikako euskarazko hitzak, euskara ongixko landua zuela ezin argiago erakustera ematen dutenak: *Orraco zuen maitagarritasun zoragarri orrec vere ondo- nen daramasqui aurean jartzen zaizcan violet guciac...*

<sup>66</sup> Segurenaz ere itxurazkoa da arras Larramendiren eta Euskalerrriaren Adiskideen arteko diferentzia hau. 1751n edo, Bergaran nesken kolegio bat ireki nahi izan zutelarik, galdatu zioten Larramendiri idatz zitzan eskola hartako estatutuak. Neska eskola izanik euskararen irakaskintza eskola hartan sartzea errazagoa uste izateko den arren, ez du iduri Larramendik deus ere egin zuen alderdi horretarik. Gaztelararen gramatika eta ortografia sartu zuen eskolaren egitarauan (13 eta 14. arauak), berrikuntza pedagogikoa baitzen hori orduan. Hitzik ere ez zuen erran, ordea, euskararen irakaskintzaz; ik. Malaxechevarría (1926:147). Areago dena, Larrañagak (1991:41) dioenez, debekatua zen eskoletxe hartan hartan euskararen erabiltea. Hots, euskararen kontuetan, egitateetan bederen, Euskalerrriaren Adiskideen jokabidea Larramendirenari jarraiki zitzaion.

politika bat, euskara oso-osoki baztertzen zuena, indarrean jarri nahi izan zuten haietan.<sup>67</sup>

Horrela 1771n bat herrialde bakoitzean sariketa bat antolatu zuten gaztelareren irakaskintzako egitaraua zeinek hobeki moldatuko zuen, helburuak izanik: lehenik, *introducir en las Escuelas del País el estudio de la gramática y ortografía española*, eta bigarrenik, Espainolaren Akademiaren lanetarik abiatu, gaztelareren gramatikako eta ortografiako eskola-liburuxka baten egitea. Zenbaiti halarik ere, ez zitzaion gustatu jokabide hau, horren ondotik, 1772ko uztailan, idatzi bat hartu baitzuen elkarteak, *El amigo alabés* goitizenaz izenpetua, hartan egileak baitzioen kitzikaz beterikako estilo batean (*un estilo que tiene mas de sátira que de verdadera critica*) kontraesana zela alde batetik herri mintzairetan oinarritu irakaskintzaren alde izatea, eta euskal herrialdeetan gaztelarazko irakaskintzaren bultzatzea, jakinik euskara zela herriko mintzaira... Idatzi anonimoa izanagatik erantzun zioten gutun egileari Elkarteko Historia eta Arte Ederretako batzordeko kideek, erranez:

lehenbizikorik, *aunque la lengua peculiar del País es la Basgongada, la de la nacion es la Castellana, y consiguientemente la nativa de todos los Españoles;*

bigarrenekorik, *por disposicion del Gobierno no puede en las Escuelas del País usarse de otra lengua que la castellana; por lo qual todas las cartillas, libros, manuscritos y materias que se dán à los muchachos son en Castellano, prohibiendose al mismo tiempo el Bascuence en tanto grado, que hay establecido un que pasa de mano en mano entre los que se descuidan en este punto: de modo, que aquel en cuyo poder se encuentra al fin de la semana, tiene su castigo determinado (Extractos de 1772, 100-101).*<sup>68</sup>

Ihardespenean politikazko obligazioa eta legea bereziki aipatzen dira, baina ez da nabari egin-molde horri buruzko den gutieneko gaitzespenik edo krikikarik,<sup>69</sup>

<sup>67</sup> Arras garbia da puntu au irakurtzen delarik nola pentsatua izan zen haste-hastetik (1775) Elkarteak sortzea erabaki zuen Bergarako *Escuela patriótica* hartako irakasaraia hizkuntzen aldetik: Gaztelera izan behar zen lehen mailan irakatsia (*leer y escribir segun la Ortografía de la Academia Española* zen lehen puntua, eta gramatika ere sartzen zen gero); beste irakaste bat izan behar zen beste mintzairerentzat, hauek izendatzen zirelarik: latina, frantsesa, italiara, ingelesa, alemana (azken biak ulertereko gisan bakarrik). (*Extractos de 1775, 171-172*) Euskal mintzairaz deus ere ez, ez zenik ere; ikus horretaz Larrañaga (1991:92).

<sup>68</sup> Nahiz ez den testuan zehaztasunik ematen, delako debekua lehen eta erdi mailako irakaskintzan gaztelera soilik erabiltzeko errege manuari (1768) dagokioke.

<sup>69</sup> Azpimarratzekoa da, bizkitartean, izan zirela jadanik ordukotz euskararen irakaskintzan baliatzeko entseiuak Hegoaldean ere. Cardaberazek horrelakoak aipatzen ditu (1761:18-19), bai erdi-mailako eskoletako latinaren irakaskintzan (*Gramatikako Maisu famatu bat gure egunean izanzen. Latin gauzac ere Euscavaz eracusten cituena.*), bai lehen mailako eskoletan irakurtzen ikasteko (*Bedeica nic daquidan Maestra estimagarri errespeto andico bat, bere gracia onarequin, ta castigu gabe inocente, sei urtecoai ere, Eusqueraz, Erdaraz, ta Latinez berdin, chit trebetasun andiaz, ta ederqui lotsaric iracurten eracasten diena. Ojala ori bera Maisu guciac eguiten balute: mutil mutu, lotu motel guchiago Errietan izango litzaque.*). Ohargarria da ororen gainetik Cardaberazek (ik. 57. oh.) hamar bat urte lehenago parerik gabeko erokeria itsusizatz jo zuen eraztun seinalearen erabilera bera ere ez zutela gaitzetsi batzordekideek beren ihardespenean.

segurenaz ere bat baitzetozen batzordekide gehienak jokabide horrekin,<sup>70</sup> nahiz pentsa daitekeen, bestalde, idatzi anonimo horri ihardetsi behar izateak ez-adostasuna dirudien baino handiago izan zela.<sup>71</sup>

## Hondar hitza

Euskal Herriko Hegoaldean gaztelera frantsesak Iparraldean baino lehenago indar hartu zuen jakintza eta sorkuntza hizkuntza gisa, eta 15 eta, bereziki, 16. mendean Europan gaindi nabaritu zen hizkuntza arrunten alderako joera haren onetan izan zen. Ordutik aitzina, euskaldun doi bat ikasiek, gaztelera izan zuten letra hizkuntza, latinarekin batean jantzientzat. Konprenitzen da horrela zergatik ez zen kasik liburu bihirik egin Hegoaldean euskara baizik ez zekiten irakurleentzat. Arrazoia hitz gordinetan emanez: gaztelania ez zekien euskal irakurlerik ez zelako. 18. mendean, garaiak ekarri aldaketen ondorioz, eta, segurenaz ere, behe-mailako irakaskintzaren hedatzearekin, elizagizon talde batek, Larramendiren gidaritzapean, euskarari beste toki bat eta beste itxura bat eman nahi izan zion lehenik ahozko predikuetan, eta gero idatzizkoetan ere, horrela Hegoaldeko euskalkiak, eta gipuzkera bereziki, letra euskalki gisa gorpuzten hasi baitziren. Berrikuntza horrek, haatik, elizako pastorgintzaren mugak ezin izan zituen gaingitu, eta euskarari guti baliatu zitzaion, kasik batere ez, 18. mendearen bigarren partean Azkoitiako zaldun delakoei esker, eta haien inguruan, Hegoaldean sortu zen letren, jakintza berrien eta irakaskintzaren aldeko interesa eta ekimena.

Pizkundearen onkoko garaietan Hegoaldeko letren mundutik ia osoki bazterturik egon ondoan, euskara, *argien* garaian ere, ez zen egoera hits hartarik egiazki atera, prediku alkian itxura ederragoan agerturik ere, ez baitzen sartu ahal izan, ez jakintzabideko atek doi bat zabal ziezazkioketen eskoletan, ez eta gogoeta edo plazer literatura landuaren eremuetan ere.

---

<sup>70</sup> Sarailhek (1954:239) eta, haren haritik, Alborgek (1985:82) eta Martínez Gorriaránek (1993) ere horrela interpretatu dute batzordekideen baieztapena, legezko obligazioaren kontua deusetan aipatu gabe, haatik. Zail da jakitea Estatuaren larderiak zenbaterainoko eragina izan zezakeen hemen. Ezen urte haietan izan zuten Erresumako agintariak gaztelaren aldeko politika aktibo bat, Erresumako beste hizkuntzen kaltetan egina: hemen eskoletako aipatzen dugunaz landa, beste biga aipa daitezke: gaztelera testuak baizik ez argitaratzeko ordena, 1766an Arandako kondeak emana, eta merkataritzako kontu liburuak gaztelera beste hizkuntza batean egiteko debekua (1772). Gisa guztiez, zerbaiten adierazgarri dateke eztabaida sortzailea bere izena gorderek eta *letra contrahecha* baliaturik mintzatu behar izan baitzen (edo mintzarazi behar izan baitzuten). Seinala dezagun oraino 1775ean beste gutun bat egin zuela R. Gaetano Aldaeta, Bergarako Santa Marinako erretoarek, elkartearen jokaera, eta arabar adiskideari eginikako ihardespena gaitzetsiz eta euskararen defentsa eginez. Nahiz gutun haren oihartzunik ez den aurkitzen *extractos* delakoetan, Larrañagak aipatzen du *Euskararen liburu zurian* (Euskaltzaindia 1978:473, 257. oh.) Urkixoren paperetako notetan haren berri jakinik.

<sup>71</sup> Elkarteak izenik gabeko idatziei ez erantzutea erabakia zuen arren, batzordekideei kasu horretan salbuespen egitea komeni zela iruditu zitzaion *por quanto la erudicion y autoridades que vierte en impugnarlo pudieran preocupar a algunos* (*Extractos de 1772:98*).

**Bibliografia**

- ABELLAN, J. L. 1986. 'La Ilustración en Europa y en España', in J. Urrutikoetxea (arg.), *Peñaflorida y la Ilustración*, Mundaiz, Donostia, EUTG, 9-20.
- ALTUNA, P. 1994. Lapurtarrak Oihenartekin haserre?', *Oihenarten laugarren mendurrena*, Iker-8, Euskaltzaindia, Bilbo, 477-484.
- ALTZIBAR, X. 1985. 'Euskara adiskideen batzarrean', J. L. Melena (arg.) *Symbolicae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, Pars altera, EHU, Gasteiz, 1119-1135.
- ARANA MARTIJA, J. A. 1994. 'Euskal Herriko inprentaren historia', *Uztaro*, 2, UEU, Bilbo, 53-67.
- ARKOTXA, A. 1994. 'Oihenarten amodiozko poesien azterketa konparatiboa', *Oihenarten laugarren mendurrena*, Iker-8, Euskaltzaindia, Bilbo, 401-450.
- ALBORG, J. L. 1985. *Historia de la literatura Española. El siglo XVIII*, Gredos, Madrid.
- AZPIAZU, J. A. 'Las escuelas en el País Vasco a principios de la Edad Moderna. El interés por la enseñanza por parte de instituciones y particulares', *Vasconia, Cuadernos de Historia-Geografía*, IV Jornadas de Estudios Históricos Locales, Formas de Transmisión de la Cultura, Eusko Ikaskuntza, 27, 147-164.
- BELAPEYRE, A. 1696. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Ginco Jaunaren eçagutçia, salvatu içateco*, fac-simileko argitalpena eta J.-L. Davanten edizioa kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983. Ikus halaber P. Agirrerren doktore tesia, EHU, 1996.
- BLAIR, A. 1996. 'La persistance du latin comme langue de science', in R. Chartier & P. Corsi (zuzend.) *Sciences et langues en Europe*, Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales, Paris, 21-42.
- BRUNOT, F. 1911a. *Histoire de la langue française des origines à 1900*, 2. lib., *Le seizième siècle*, Colin, Paris.
- BRUNOT, F. 1911b. *Histoire de la langue française des origines à 1900*, 3. lib., 2. parte, *La formation de la langue classique (1600-1660)*, Colin, Paris.
- CARDABERAZ, A. 1761. *Eusqueraren berri onac eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco erreglac*, A. Castillaren echea, Iruña.
- CORTINA, J. L. 'La ideología ilustrada del Conde de Peñaflorida', in J. Urrutikoetxea (arg.), *Peñaflorida y la Ilustración*, Mundaiz, Donostia, EUTG, 21-42.
- DARROBERS, J-N. 1992. 'Histoire de Ciboure des origines à la Révolution', in *Ekaina* (arg.) *Ciboure*, Ekaina, Saint Jean de Luz.
- DARROBERS, J-N. 1994. 'Saint-Jean-de-Luz au XVIIIe siècle' in *Saint Jean de Luz, II*, Ekaina, Donibane Lohizune.



- DE LANCRE, P. 1612. *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons, où il est traité des sorciers et de la sorcellerie*, N. Jacques-Chaquin-en argitalpena (1982), Aubier, Paris.
- DESGRAVES, L. 'Les livres imprimés à Bayonne au XVIIe siècle', BSSLAB, 379-382.
- DESGRAVES, L. 1975 L. 'Les livres imprimés à Bayonne au 18<sup>ème</sup> siècle (1701-1789)', BSSLAB, .
- DUBARAT, V. 1901. *Le Missel de Bayonne de 1543*, Pau.
- DUBARAT, V. 1914. 'Le dictionnaire basque et les rudiments du P. Dominique Bidegaray, franciscain du couvent de Pau (1675-1679)', RIEV, 8, 6-16.
- DUO, G. 1998. 'Cuatro aspectos de la enseñanza de náutica en el País Vasco (s. XVI-XIX)', *Vasconia, Cuadernos de Historia-Geografía*, IV Jornadas de Estudios Históricos Locales : Formas de Transmisión de la Cultura, Eusko Ikaskuntza, 27, 87-99.
- DUPUY A. 1972. 'La vie religieuse dans le diocèse de Bayonne aux 17<sup>ème</sup> eta 18<sup>ème</sup> siècles', BSSLAB, 103-122.
- DUVIGNEAU-LÉGASSE, M. 1993. *Le bailliage du Labourd. Ses jugements civils et criminels de 1680 à 1790*. Thèse d'Etudes basques, Université de Bordeaux 3.
- DUVOISIN C. 1861. *Vie de Monsieur Daguerre, fondateur du Séminaire de Larresore..* Veuve Lamaignère, Bayonne.
- ETCHEBERRI, J. 1627. *Manval devotioenezcoa edo ezperen, oren oro escvetan erabiltzeco liburutchoa*, G. Millanges, Bordeaux ; édition facsimilée de la seconde édition de 1669 chez I. Mongirion Millanges à Bordeaux : 1978, Hordago, Saint Sébastien ; édition critique du 1er livre par P. Altuna, 1981, Académie de la Langue basque - Euskaltzaindia, Bilbao.
- ETCHEVERRY, D. 1751. *Vie et lettres de Madame d'Etcheverry*, Jean Niel, Avignon.
- EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA 1772-1775. *Extradados de las juntas generales celebradas por la RSBAP*, Madrid (1772), Vitoria (1773-1775).
- EUSKALTZAINDIA. 1998. *Euskararen liburu zuria*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- EYGUN, J. 1992. 'L'occitan dans la pastorale catholique au XVIIe et XVIIIe siècles: premières recherches dans les diocèses gascons', *Lengas*, 31, 39-68.
- FORTUN, L. J. 1994. 'Guipúzcoa y las diócesis de Pamplona y Bayona', in J. L. Orella (argit.), *El pueblo vasco en el renacimiento (1491-1521)*, Loiolako Inazio Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
- GODINOT, R. 1965. 'Contribution à une Histoire de l'Imprimerie et de la librairie à Bayonne', BSSLAB, 119-132.

- GOÑI GAZTAMBIDE, J. 1947. *Los Navarros en el Concilio de Trento y la Reforma tridentina en la diócesis de Pamplona*, Publicaciones del Seminario diocesano de Pamplona, Pamplona.
- GOÑI GAZTAMBIDE, J. 1995. 'Sancho de Elso y su Catecismo bilingüe: nuevos datos', *FLV*, 68, 7-22.
- HARRIET, M. 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez, comlposatua Frantzez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Baiona.
- JIMENO JURÍO, J. M. 1995. 'Las lenguas escritas y habladas en Pamplona', *FLV*, 68, 51-68.
- JIMENO JURÍO, J. M. 1999. *Navarra, Gipuzkera y el Euskera. Siglo XVIII*, Pamiela, Iruña.
- JUARISTI, J. 1987. *Literatura vasca*, Taurus, Madrid.
- LAFITTE, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Le livre, Baiona.
- LAPALAS PEREZ, J. 1987 *Escuelas y maestros de primeras letras en Pamplona durante el Siglo de Oro*, Universidad de Navarra, Lizentziaturako idazlan argitaragabea.
- LARRAMENDI, M. 1990. *Euskal testuak*, P. Altunaren eta J. A. Lakarraren edizioa, Andoingo udala. Donostia.
- LARRAMENDI, M. de — . [1754]. *Corografía de la Provincia de guipúzcoa*, lehenbiziko (1882) argitalpenaren edizio faksimilea, Editorial Amigos del libro vasco (1985).
- LARRAMENDI, M. 1990. *Manuel Larramendiren euskal testuak*, P. Altuna & J. A. Lakarraren argitalpena, Andoingo udala.
- LARRAÑAGA ELORZA, K. 1991. *Las manifestaciones del hecho ilustrado en Bergara*, Bergarako udala.
- LASAGABASTER, J. M. 1986. 'Peñaflorida en la vida literaria del siglo XVIII', in J. Urrutikoetxea (arg.) *Peñaflorida y la Ilustración*, Mundaiz, Donostia, EUTG, 43-66.
- LLUCH, E. 1999. *Las Españas vencidas del siglo XVIII*, Grijalbo Mondadori, Bartzelona.
- LOPEZ, 1782. *Alphonsa Rodriguez, Jesusen compaghaco Aitaren Guiristinho Perfeccioniaren praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia, Heuzcara becic eztakitenen daco*, Avignon.
- MALAXECHEVARRÍA, J. 1926. *La compañía de Jesús por la instrucción del Pueblo Vasco en los siglos XVII y XVIII.*, Donostia.

- MARTÍNEZ ARCE, M. D. 1999. *Luces y sombras del siglo XVIII: Navarra en tiempos de Carlos II*, Iruñea.
- MARTINEZ GORRIARÁN, C. 1993. *Casa, Provincia, Rey*. Alberdania, Irun.
- MATERRE, E. (1623 [1617]). *Dotrina christiana. Bigarren impresionearen debocinozco othoitz eta oracino batçuez berreturic*, 2. argitalpena, J. Millanges, Bordele.
- MENDIBURU S. 1982. *Mendibururen idazlan argitaragabeak*. 1. liburua. P. Altunaren edizio kritikoa. Euskaltzaindia-Mensajero, Bilbao.
- MICHELENA. L. 1960. *Historia de la Literatura vasca*, Minotauro, Madrid.
- MITXELENA, K. 1981: 'Patxi Altunari erantzunez', *Euskera*, 2, 617-626.
- MONTOYA MARTÍNEZ, J. & Riquer, I. de —. 1998. *El prólogo literario en la Edad Medieval*, UNED, Madrid.
- NOGARET, J. 1925. *Saint Jean de Luz des origines à nos jours*, Baiona.
- OIHENART, A. 1665. *L'art poétique basque*, P. Lafittek 1967an argitara eman eskuizkribua, separata, édition Gure Herria, Baiona.
- OYHARÇABAL, B. 1999a. 'Euskarazko irakaskintzaren historia: ooren eskolen ondotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat', *Lapurdum*, IV, J. Haritschelharren omenez, 81-105.
- OYHARÇABAL, B. 1999b. 'Les prologues auctoriaux des ouvrages basques des XVIe et XVIIe siècles', *Lapurdum*, Numéro spécial 1, Actes du colloque de Bayonne (12-13 avril 1999) *Euskal literatura Axularren aroan*, 39-94.
- PANTIN, I. 1996. 'Latin et langues vulgaires dans la littérature scientifique européenne au début de l'époque moderne (1550-1635)', in R. Chartier & P. Corsi (zuzend.) *Sciences et langues en Europe*, Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales, Paris, 43-58.
- PEREZ GOYENA, A. 1947. *Enseño de una bibliografía navarra desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910*, 1. lib., Aldecoa, Burgos.
- PONTET J. 1980. 'Elèves et enseignants du collège de Bayonne au XVIIIe siècle', *BSSLAB*, 19-40.
- PONTET, J. 1991. 'Ville, société, culture', in J. Pontet (arg.) *Histoire de Bayonne*. Privat, Toulouse, 151-174.
- PONTET-FOURMIGUÉ, J. 1990. *Bayonne, un destin de ville moyenne à l'époque moderne*, J & D, Biarritz.
- SAGARNA, A. 1984. 'Euskara XVIII. mendean', *Eusko Ikaskutza, Cuadernos de sección Hizkuntza eta Literatura*, 3, 17-114.

- SALABERRI, P. 2000. 'Axularren testu-zorrak', FLV, 84, 193-210.
- SARAILH, J. 1957. *La España ilustrada de la segunda mitad del siglo XVIII*, frantsezko testuaren (1954) itzulpena, aipuak 1992ko argitalpenaren arabera, FCE, Madrid.
- SARASOLA, I. 1976. *Historia social de la literatura vasca*, Akal editor, Madrid.
- SÉRURIER, M. le Vicomte de – . 1873-1874. 'De l'instruction primaire dans la région des Pyrénées occidentales et spécialement en Béarn depuis la fin du XIV<sup>e</sup> siècle jusqu'en 1789', *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, Pau, 224-282.
- TELLECHEA IDIGORAS, I (1966), 'La visita ad limina del obispo de Pamplona D. Bernardo Rojas Sandoval (1594)', *Revista Española de Derecho Canónico*
- TURGEON, L. 1982. *Pêches basques en Atlantique-Nord (XVIIe-XVIIIe siècle)*, Thèse de 3<sup>ème</sup> cycle, argitaragabea, Université de Bordeaux 3.
- URKIZU, P. 1986. 'Euskara XVI-XVII. mendeetako zenbait idazle atzerritarrengan', ASJU, XX-2, 343-350.
- URKIZU, P. (zuz.), M. J. Olaciregui, X. Altzibar, I. Aldekoa, J. R. García; J. 2000. *Historia de la Literatura vasca*, UNED, Madrid
- VERGARA-CIORDA, J. 1991. *Colegios seculares en Pamplona (1551-1734)*, Ediciones Universidad de Navarra, Pamplona.
- VILLASANTE, L. 1979. *Historia de la literatura vasca*, 2. argitalpena (1961), zuzendua eta aberastua, Oñate.
- VINSON 1891 & 1898. *Essai d'une bibliographie de la langue basque* (1. lib.) eta *Additions et corrections, citations et références. Journeaux et revues* (2. lib.), Maisonneuve, Paris.

# BARAKALDO ETA ENKARTAZIOEN HISTORIA LINGUISTIKOAZ

*Ander Ros<sup>1</sup> & Esperanza Saiz<sup>2</sup>*

---

<sup>1</sup> Barakaldoko HEOKo irakaslea.

<sup>2</sup> IRALEko irakaslea.

## LABURPENA

Artikulu hau Barakaldon XIX. menderen azkenera arte hitz egiten zen euskarara lehen hurreratzelana da. Behin-behineko corpora osatzeko ahalegina egin da bertan, 1712. urteko mikrotestu inedito batetik hasita, hau da, Lope García de Salazarrek *Bienandanzas e Fortunas* obran euskaraz agertu zuen esaldi iluna alde batera utzita, dokumentaturik daukagun laginik mendebaldarren eta zaharretetik hasita, Nerbioiaren ezker aldeak hartzen duen eskualde zabalerako azken mendeetan galdu den euskararentzako bakarra. Barakaldo izan zen berau galdu zuen azken herria. Han eta hemen barreiatutik dauden testigantza ugariak bilduta eta kritikoki aztertuta, urteak aurrera joan ahala euskara nola galdu zen eta honen tokia erdarak nola hartu zuen azaldu da. Ikerketa honen ostean Barakaldoko toponimiaren ezaugarriak aztertuko dira, bertako azentuazioa behinik behin, orain arte ulergaitza izan den Barakaldo izenaren beraren etimologia argituaz, eta beronen berreraiketarako erizpide onomastikoaren zuzentasuna aztertuz.

## RESUMEN

Presentamos aquí una primera aproximación al euskara que se habló hasta finales del siglo XIX en Barakaldo. Esbozamos un pequeño corpus encabezado por un microtexto de 1712, inédito hasta ahora y que, con la excepción de la oscura frase inserta en las *Bienandanzas e Fortunas* de Lope García de Salazar, supone la muestra más occidental documentada del euskara y la única para la amplia zona de la margen izquierda del Nervión que, con Barakaldo a la cola, perdió durante los últimos siglos la lengua vasca. Por último, se analiza de modo crítico y reuniendo muchos testimonios dispersos, las causas y la cronología del proceso de pérdida-sustitución de la lengua. Un estudio posterior analizará ciertos rasgos de la toponimia baracaldesa, su acentuación en especial, la cual nos lleva a vislumbrar la etimología del propio nombre de Barakaldo, que había venido resistiéndose a ser descifrada, e igualmente la validez del criterio onomástico en la reconstrucción de ésta.

## RÉSUMÉ

Cette étude présente une première approche de l'euskara parlé à Barakaldo jusqu'à la fin du XIXe siècle. On y ébauche un bref corpus qui commence par un microtexte de 1712, inédit jusqu'à nos jours et qui, à l'exception de la phrase obscure insérée dans les *Bienandanzas e Fortunas* de Lope García de Salazar, constitue l'exemple documenté le plus occidental de l'euskara et l'unique dans la vaste zone de la rive gauche du Nervión qui a perdu la langue basque, Barakaldo fermant la liste, au cours des siècles derniers. Enfin, on y analyse, de manière critique et en réunissant de nombreux témoignages disséminés, les causes et la chronologie du processus de perte-substitution de la langue. Une étude ultérieure analysera certaines caractéristiques de la toponymie de Barakaldo, notamment de son accentuation, qui nous permet de saisir l'étymologie du nom même de Barakaldo, qu'on n'était encore jamais parvenu à déchiffrer, ainsi que la validité du critère onomastique dans la reconstruction de celle-ci.

## SUMMARY

The aim of this essay is to offer a first approach to the variety of Basque spoken in Barakaldo until the end of the XIXth century. A short corpus heading a microtext dating back to 1712 and hitherto unknown is introduced. Except for the obscure sentence from Lope García de Salazar's *Bienandanzas e Fortunas*, this sample is not only the first evidence we have of the variety of Basque spoken furthest to the west but also the only evidence concerning the wide area that covers the left bank of the Nervion River, where –being Barakaldo the last in the queue– Basque disappeared progressively during the last centuries. Finally, We are approaching critically –enclosing many scattered evidence– the causes and chronology of the loss of the language and its substitution. It will be analysed in a next essay certain features of the toponymy of Barakaldo, highlighting those ones related to accentuation, the key to clarify the name of Barakaldo itself, wich has been an unsolved enigma for a long while, equally the validity of onomastics criteria on its reconstruction.

*Barakaldoko ene  
ikasle eta lankide  
desdixaduo!*

## 0. SARRERA

Barakaldo, hiriburuak alde batera utzita, populazioz Euskal Herriko herri edo hiri nagusia dugu. Aurreko hamarkadotan ehun milatik gorakoa izatera heldu zen populazio eskerga hori azken mende eta Erdiko hazkunderari<sup>1</sup> zor zaio, euskararen galera bermatu zuen hazkunde berari, hain zuzen ere. Postulatuko dugu, eta frogatzen ere saiaturiko gara, Barakaldon galera prozesua XVIII. mendean abiatu eta hurrengoan gauzatu zela, seguruenik XX. mendearen hasieran artean euskararen azken hondarrak geratzen baziren ere.

Aitzitik, nahikoak izan dira gizaldi gutxi batzuk euskara barakaldotarren oroitzapen kolektibo historikotik<sup>2</sup> ezabatzeke. Desagertu aurretik, alabaina, hainbat aztar-na utzi dizkigu hiltzera doan kondenatuaren hilburukoa bailitzan. Aztarna horiek guztiak biltzea, –bigarren eskuko bilketa bada ere–, eta beraien irakurketa kritikiko<sup>3</sup>

---

<sup>1</sup> “Cuando se ve la transformación que en estos últimos años han experimentado los siete concejos del valle de Somorrostro y la antegulesia de Barakaldo, que geográficamente forma parte de aquel valle, se conviene en que no anduve excesivamente hiperbólico”, Antonio de TRUEBA, «Compendio histórico-descriptivo de las Nobles Encartaciones de Bizkaia basado en el inédito de Don Juan Ramón de Iturriza», in *Las Encartaciones*, Geu, 1978, 84. or. Hiperbolea *Antes que los muchachos / lleguen a viejos / seréis siete ciudades, / siete concejos* poematxoan agertutakoa da. Ik. 2.3.6. puntua.

<sup>2</sup> Berrikitan, dibulgazio artikulua interesgarri batean honela zioen Aitor GOROSTIZAK: “Hutsune askotxo ditugu gure desoroimen kolektiboan, eta horietako bat da euskarak Barakaldoko historian bete duena”, «Inoiz egin ote da euskaraz Barakaldon?», *Euskarri, Barakaldoko Euskaldunon Aldizkaria* 7, 2000ko abendua, 18. or.

<sup>3</sup> Kritika paradigma lakatosianoan ulertzen dugu, aurreko ikuspegia aldatzen edo hobetzen joateko xedea duen baliabide gisa, alegia. Hortaz, gure egiten ditugu, nola ez, MITXELENAREN hitz hauek: “La actividad crítica, que como la caridad bien entendida tiene que empezar por aplicarse a lo que sale de uno mismo, no puede ser sino un continuo tejer y destejer: en el mejor de los casos, siempre hay datos que añadir a los ya aducidos para que la imagen que antes se presentó pueda ser retocada y rectificadora o bien, en el peor, para cambiarla de punta a cabo. Y prescindo (...) de los datos que hay que suprimir; sencillamente porque no reúnen la entidad mínima necesaria para que puedan ser tenidos por tales y se quedan en producto de interpretaciones imaginativas que no pueden hallar lugar más que en el folklore o en la historia anecdótica de la investigación. Eso de deshacerse de la broza, tan simple en apariencia, es, sin embargo, lo que parece que cuesta más entre nosotros”, «Miscelánea filológica vasca, IV», *FLV* 33, 1979, 377. or., baina baita lehenagoko beste hauek ere: “En efecto, la crítica constructiva que tanto han solido ponderar nuestras gentes bien pensantes siempre me ha parecido un mito; peor todavía, un disfraz deshonesto de lo que en román paladino debe llamarse conformismo beato”, «Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca», *FLV* 10, 1972, 12. or.

bat egitea izan da gure asmo apala; polemika luze, antzu eta nahasgarrietan argi pixka bat jartzen haste aldera, ezer erabateko eta behin betikorik egiteko handiustertik gabe<sup>4</sup>. Hizkuntzaren historia<sup>5</sup> arakatu behar dugu, kanpokoa behinenik, eta, bide batez bakarrik, barne historia jorratzen hasteko lehen pauso herabe bat nahiko genuke egin, gure nahikaria hori delako baino gehiago, eskuartean ditugun datuek ez digutelako beste aukerarik ematen. Kronisten testigantza idatziak eta bestelako datuak, zuzenak zein zeharkakoak, bildu nahi ditugu, baina batzuk eta besteak, berantiarrik dira; ez dago, esate baterako, Erdi Arorako kasik materialik<sup>6</sup>, eta zer esanik ez lehenagoko garaietarako. Antzinako garai horien orria zuriz utzi beharko genuke, baina gerokoak ulertzen lagunduko digutelakoan horietaz esandakoak ere laburbiltzen saiatuko gara. Datu sendoen faltan, beraz, arazoa korapilotsua<sup>7</sup> da eta irtenbideak ez errazegiak.

Hasteko, esan behar da Barakaldo aztertzea Enkartazioak aztertzea dela, nahiz eta jakin badakigun Barakaldo herri desenkartatua daukagula, antzinako hasieran baino ez baitzen izan Enkarerrietakoa<sup>8</sup>. Halaber, Bilbo etengabeko erreferentea izango dugu, hiriburuaren eragina handia eta bien arteko harremanak estuak izan direlako ez ezik, informazio gehiena Bilbori buruzkoa delako ere, sarritan inferentziak eta estrapolazioak egitea beste biderik ez egoki. Somorrostroko haranetik banatu zenez geroztik, Uribeko merindatearen barruan egon da beti Barakaldo, herri euskaldunekin batera, beraz. Era berean, oraintsura arte Barakaldok irentsita izan duen Alonsotegi herria ez da Barakaldokoa izan, ehun bat urtez baino. Alonsotegi Arrigorriagako alkate-auzoa zen, eta independentzia lortu zuelarik ere, harreman estuak izan zituen Arrigorriagarekin ez ezik, Uribeko bere auzo-herri euskaldunekin ere, Abando, Basauri edota Zollorekin, alegia. Basaurik, berau ere Arrigorriagari baitzegokion, Alonsotegiko Artiba inguruan zituen egur-

<sup>4</sup> Julio CARO BAROJAK ezin hobeto esan bezala “*creo que es el sino de los investigadores disgustar a las gentes ávidas de una síntesis definitiva y clara*”, *Materiales para una Historia de la Lengua Vasca en Relación con la Latina*, Acta Salmantiensis, tomo I, núm. 3, Universidad de Salamanca, Filosofía y Letras, 1945-46, 5. or. MITXELENAK, Barandiaranen irakaspena gogoan duela, premisa bera berrindartzen digu: “*debemos renunciar, por mucho que nos cueste, a lo más atractivo y brillante, a las síntesis fáciles, para dedicarnos ante todo a la humilde e indispensable recogida de datos que, por negligencia nuestra, pueden perderse para siempre*”, «La lengua vasca y la prehistoria», in *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología Vasca*, IV Symposium de Prehistoria Peninsular, Pamplona, 1966, 273. or.

<sup>5</sup> “*La historia de una lengua es una disciplina estrictamente histórica y se hace, por lo tanto, conforme a los métodos comunes, aprovechando de la mejor manera posible todos los testimonios posibles*”, L. MICHELENA, *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca*, Editorial Añamendi, San Sebastián, 1964, orain in *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, I, ASJUren gehigarriak 10, 1988, 23. or.

<sup>6</sup> Toponimo nagusi soil batzuk baino ez daude, Etxebarria Mirones anaiek berrikitan bildu eta iruzkinduak. Baitezpadakoa zaigun toponimia xehearen hatzik ez dugu, gure eskualde honetarako ezinezkoa gertatuz MITXELENAK iradokia: “*Los límites medievales de la lengua podrían trazarse con precisión por medio de un estudio detallado, lugar por lugar, de la toponimia menor, estudio que tendría base más firme, cuando pudiera apoyarse en formas documentales de los nombres modernos*”, *op. cit.*, 26. or.

<sup>7</sup> “*En el W. hay un problema difícil que es preciso abordar ya*”, Odon de APRAIZ, «Prólogo», in *Toponimia Euskérica en las Encartaciones de Vizcaya*, Jesús María SASÍA, Enbor, Bilbao, 1966, 13. or. Zaila garai ilunetarako, baina bai berriagoetarako ere: “*No es fácil averiguar con precisión la época en que se perdió el vascuence en Gordejuela*”, J. ECHEZARRAGA, *Valle de Gordejuela. Reseña Histórica*, 203. or.

<sup>8</sup> “*Barakaldo, que geográficamente e históricamente pertenece a las Encartaciones, aunque se separó administrativamente de ellas hacia el siglo XIV*”, A. TRUEBA, «El nombre de la Encartaciones», *El Noticiero Bilbaino*, 1879/7/16.



bideak, eta Bilbok bertan zituen hainbat baso. Laburbilduz, Barakaldo antzina baino ez zen herri enkartatua izan, eta Alonsotegi egundo ere ez, are gutxiago, inoiz esan denaren kontra<sup>9</sup>, Salcedo haranekoa.

Ez gara aztertzeraz sartuko, datuak eta ikerketak falta direlako, noraino zen berezko edo antzinakoa Barakaldoz haragoko euskara eta zein neurritan bertara joandako euskaldunen presentziaren emaitza<sup>10</sup>. Presentzia honek azalduko luke, besteak beste, *Peñas Negras* leku ezaguna Portugaleteko fundazio gutunean *Arribelzaga* formaz agertzea, ekialdeko *beltz* lexemarekin<sup>11</sup>. Baditugu, esaterako, Balmasedarako datu batzuk<sup>12</sup> eta beste herri batzuetarako zenbait berri<sup>13</sup>, inmigrazio hauen pisua nabarmen uzten dutenak, baina ez dakigu euskaldun hauek aurkitu zuten lurra aurretik populaturik zegoen eta egotekotan, zein hizkuntzatak jendeak populatua zen. Lehenagoko garaietarako, alderantzizko fenomeno<sup>14</sup> ere aipatua izan da Enkartazioen ustezko erdalduntzea azaltzeko, baina hemen ia ezinezkoa da frogatzea sendorik aurkitzea. Portugaleteko kasua berezia izan daiteke, itsas portuak bestelako dinamika sortzen zuelako, baina esanguratsua izan daiteke bertako elebitasunaren kasua<sup>15</sup>.

<sup>9</sup> Mikel GORROTXATEGI, «Sustitución y alteración de topónimos en las Encartaciones de Bizkaia», *FLV* 85, 2000, 467. or.

<sup>10</sup> «...la extensión y la intensidad de la romanización, y el carácter residual o importado del vasquismo o vasconismo de algunas comarcas en época medieval y moderna. / El problema, que aquí sólo puede considerarse desde el punto de vista lingüístico, está planteado sobre todo para la parte más occidental de Vizcaya, algunas zonas navarras y, acaso más agudamente que en ninguna otra parte, para Álava», L. MICHELENA, «Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca», *FLV* 10, 1972, 12. or.

<sup>11</sup> M. GORROTXATEGI (*ibid.*, 480. or.) arkaismo bat edo kopistaren hutsa ikustea nahiago du. Honek, gainera, axiomatikoki eta kategorikoki, baina hutsaren gainean, ukatzen du kanpotarren eragina toponimoen izendapenean: «*Hori logika, linguistika eta historiaren kontra joatea da, hiri izenak erregeak ematen baditu ere, auzo, erreka, mendi eta horrelako izenak herriak berak ematen ditu, eta ez da Europa osoan gertatu horrelako auzo izenak kanpotar batek inposatzea herriaren hizkuntza bestelakoa bazen*», «Enkartazioetan euskaraz», *Deia*. Kontrako hurbileko adibide bakar bat ekartzearren, Galdamesko *Loizaga* auzoarena aipa daiteke, ezaguna denez, Gipuzkoatik etorritako leinuaren izena baita jatorriz.

<sup>12</sup> Balmasedan ondasunak zituzten bizilagunen bigarren deituraren arabera jatorrien azterketa egiten dute ETXEBA-RRRIA MIRONES anaiek, «Balmaseda 1487: Toponimia, Onomástica y Procedencia», *Cuadernos de Balmaseda* 16, 1988. Azterketa honen arabera, 650etik 27 zazpi dira Bizkai eta Gipuzkoakoak, beste 40 Arabakoak eta beste zenbait euskaldunak izan zitezkeen eskualdeetakoak (Lupardo, Nuncibay, Urista, etab.). Guztira, beraz, % 10tik gora ziren bertaraturiko euskaldunak.

<sup>13</sup> «Sin embargo en este concejo [de San salvador del Valle] debieron existir amplios grupos vascoparlantes ya que se trata de un lugar poco poblado (127 personas en 1587) en el que al finales del siglo XVI y comienzos del siglo XVII se instalaron familias venidas de Elduayen, de Azkoitia, de Ereño, de Busturia, de Barakaldo, de Bilbao...», Gregorio BAÑALES, *Mayorazgos de Barakaldo*, Ediciones de Librería San Antonio, Barakaldo, 1999, 122-23. or.

<sup>14</sup> P. MADOZEK, J. R. Iturrizaren ideia eta datuak baliatuta, Leongo erresumako jendearen eragina argudiatzen du: «Sin duda el continuo roce con el territorio de Castilla, lindante por S. y O., que siempre ha tenido esta porción de Vizcaya, y el haberse establecido en ella, desde muy antiguo, varios personajes de León que debieron ejercer mucha influencia en el país..., fueron causa de que, introducida poco a poco la lengua castellana, llegase a remplazar a la vascongada», *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico*, 1846, 103. or. Euskaltzaindiarentzat SLADECO taldeak buruturiko azterketa ezagun batean ere arrazoi bera ematen da euskararen galeraren kausatzat: «*Erdi-haroko garaian Santander aldetik iristen diren astur-leondarren inbasioak*», *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian*, Bilbao, 1979, 26. or.

<sup>15</sup> *Jh.* 296. oh.

## 1. BARAKALDOKO EUSKARA

Enkartazioetako herriekin alderatuta<sup>16</sup>, zorioneko ikuspegia eskaintzen dio Barakaldok filologo eta hizkuntzaren historialariari; egun, esku artean ditugun datuek, beren mendrean, toponimia hutsez haragoko gutxieneko korpus txiki bat osatzen hasteko bidea ematen baitigute. 1712ko mikrotestu bat, alde honetarako bakarra eta euskara osoaren laginik mendebaldarrena; lexiko mugatu bat, –onomastikatik, toponimiatik nahiz gaitzizenetatik, ateratakhoa batetik eta gazteleran itsatsita gorde izan den substratukoa bestetik–, eta deklinabidean, tema nominati-boaren *eufoniak*, berauek diren garaiko terminologia erabiltzearen, edo *lois de l'affinité ou harmonie des voyelles*, Bonaparterenean nahiago bada.

Badira, bestalde, bat datozen testigantza batzuk, Barakaldokoa euskara naha-sizat ematen digutenak, sarritan arrazoi handirik gabe herri askotako hizkuntzari egotzitako orbana. Material urri baina interesgarri honen azterketak, Alonsotegi bitarte dela, Arrigorriagara hurbiltzen gaitu, baina, ibaiak mendiak baino muga gandierrazagoak direla berriro ere egiaztatuta, ez digu Txorierra begien bistatik aldentuarazi behar.

### 1.1. Ai ene desdixadea!


Goiburukoa, hil-hurren zegoela, *Concepción de Tillitu* neskato barakaldotarrak hiru bider errepikatu zuen aienezko garrasia dugu. Neskatoaren heriotza Abandoko Zorrotza auzoan 1712an gertaturiko krimen lazgarria izan zen. Beronen eta aipatu mikrotestuaren berri ematen diguten autu judizialak Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboko Korrejimendu sailko dokumentu interesgarri batean<sup>17</sup> gorde dira. Lau urte badira dokumentua aurkitu eta han hemen ezagutzera eman genuenetik, azken aurreko aldiz Deustuko Unibertsitateak 2000ko azaroan antolaturiko *Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza Gunea* sinposioaren



1712ko autu judiziala dakarren agiri-bildumaren azala.

<sup>16</sup> Gordexolako substratu-lexikoarekin batera, Irene HURTADOn euskararen azterketa interesgarri bat badugu orain, baina berau toponimiatik ondorioztatuta eta, horretara, fonologia eta lexikora mugatua: «Gordexola aldeko euskara», in *El Gordejuela de Antaño*, Kastañabakotxa taldea, 2000, 295-328. or.

<sup>17</sup> *Autos de Oficio de la Real Justicia por el señor Corregidor de este Muy Noble y Muy Leal Señorío de Vizcaya en razón de la muerte violenta dada a Concepción de Thillitu natural de la anteiglesia de Varacaldo por testimonio de Domingo de Alipazaga escrivano de su Magestad.* 1822/008 dokumentua.



1712ko autu judiziala, euskarazko mikrotestu batekin.

barruan<sup>18</sup>. Berrikitan, Mikel GORROTXATEGIk eta Gregorio BAÑALESek eman dute testuaren berri laburra<sup>19</sup>.

Istorioak nobela beltz batetik aterea dirudi, giro eta eszenatokian A. TRUEBAREN *La vara de azucenas*<sup>20</sup> ipuineko *Catalina* gaixoaren zoritxarrak gogoratzen dizkiguna, baina benetan gertatu zen 1712ko irailaren 26an eta aurreragoko astetan. Concepción de Tillitu, 13-14 urteko neskatu umezurtza, Bilboko zezenketararako oholtzak ikustera eta, bide batez, hautsa saldu eta Lucas del Campo Barakaldoko abadearen enkarguz olio gozo eta koipea eroatera zihoanean asasinatu zuten. Bidean, gazte batek jarraitu zion atzetik eta Zorrotzabason bide bazterrera eraitsi eta bertan gisa lazgarri batez hil, ondoren bortxatu egin zuelarik.

José de Mesperuza aitaordea Burtzakon ikazkintzan zebilela eta, amaordea, Antonia de Uruga Escauriza, irten behar izan zitzaion biharamunean bila eta hilik



Burtzeña. XIX. mendea.

<sup>18</sup> «Bilboko Toponimia» izan zen agerturiko ponentzia, azaroaren 8an, prentsan kaleratzeaz dauden sinposioko aktetan bildua.

<sup>19</sup> «Testimonio euskérico de 1712 en Barakaldo», *FLV* 87, 2001, 337-41. or. Artikulua idazten duenak ez bide du berau azaletik edo zeharka baino ezagutu, inondik inora zuzena ez den puntu bat, –euskararen aipatze bakarrarena– oroz gainetik nabarmentzen baitu (338. eta 340. or.) eta berorretatik ondorio okerrak ateratzen. Izan ere, aurrerago azalduko den bezala, hildako neskatoa, baita ere hiltzaileak akusaturiko bidaiaria, autuen harira atxiloturiko Deustuko baserritarra, eta baserritar honen morroia baitira euskaldun azaltzen zaizkigunak; neskatoaren aieneak jasotzen dituen andre gailegoak, hiltzaileak berak eta autuak idazten dituenak argitzen dutenez.

<sup>20</sup> *Cuentos de Color de Rosa*, Madrid, Tejado, 1859.

aurkitu Zorrotzabasoko gaztañadiko trokarro batean. Deustutik Bilbora, Basurtuko kaboarekin joanda, hilketaren berri eman zuten eta korrejidoreak autuak abian jarri. Lekukoen aitorpenetan, neskatoa Burtzeñako pasajea erreka igaro eta handik Basurtura lagunduta joan zela azaltzen da; halaber, Nobia auzorantza bakarrik abiatu eta ondoren Elexabarriko ermitan meza entzuten ikusi zutela, beti segika mutil bat zuela.

Deklarazioen ondoren, susmagarri nagusia zen Antonio del Campo galdamestarra atxilotu eta giltzapean jarri zuten Bilbon. Honek, bere burua errugabetzat jo zuen momentuoro, Burtzeñako mezara joan eta bidean eskopeta aldean zeraman gizonezko *bascongado* bat ikusia zuela argudiatuz. Gaztea, 20 urteko moraleko ikaslea genuen eta neskatoak auzokoa zuen Barakaldoko abadearen anaia.

Dokumentuan, behin eta berriro aipatzen zaizkigu euskaldunak. Abagune honetan bidaiari izengabe bat euskalduna zela diosku lekukoak eta bide horretatik Barakaldora ondo ote zihoan galdetu omen ziola. Kontua da, euskalduna zela jakiteko entzun behar izan bide ziola, bidez galdetu zionean urrean. Ez dakigu lekukoak aitortutakoa egia zen ala ez, eta egia bazen euskaraz ala erdaraz erantzun ote zion, baina modu batera zein bestera esanguratsua da testuinguru soziolinguistikoa.

Ondoren, ikaslearen bertsioa baieztatu zuen *Dominga Gonzáles* Vigoko andre eskekoak deklaratu zuen, atxilotutako gaztea errugabea zela esanez. Deklarazioa hartzeko Joseph de Guinea Bilboko kartzelako alkaidea izendatu zuten interprete, "*respecto de hablar la susodicha la lengua gallega muy çerrada*". Egoera hau ere, atentzioa ematen duena da, aipatu andre gailegoak, gaztelaniaz egiteko gai ez zela, euskarazko hitzak hutsik egin gabe behin eta birritan ematen dituelako. Izan ere, berau da neskatoa hiltzorian ikusi eta *Ai ene desdichadea!* garrasia hiru bider<sup>21</sup> jaurtikitzen entzun ziona.

Hasieran, *Perico* izeneko gizon bat salatu zuen emakume gailegoak, Gatikako abadearen semea eta gazte atxilotuak deskribatutako eskopetadun euskaldunarekin bat zetorrena. Hiltzaile perfektuaren itxura zuen: txaparroa eta *mosorrojo* ilegorria, betondoan aurpegia apaintzen zion tokor bat zuela. Ordezko susmagarri hau, Deustuko Berriz auzoko San Bartolomé ermitaren ondoko baserrian bizi zen eta hara abiatu ziren alkaidea eta laguntzaileak baserritarra detenitzeko asmoz.

<sup>21</sup> "Y declaró que al tiempo y quando mataron a la dicha muchacha oyó la declarante por tres veces una voz en que decía dicha difunta en lengua basconganda ay enedesdichadea y que lo referido oyó con el motibo y ocasión de haver andado pidiendo limosna por las casas que están pegantes al río del varrio de Olaviaga", aipatu autuak, 47v-48r; "Oyó las tres bozes de ay enedesdichadea", *ibid.*, 49v; "Oyó la declarante una voz delgada como de muchacha que desía ay desdichadea la qual repitió otras dos bezes", *ibid.*, 56r.

Nahaste batean, morroia atxilotu zuten lehenik, baina honek ugazabari euskaraz deituta, *Domingo de Inchaustegui* izeneko gizona agertu zen. Ez zuen *Perico* izena, eta ez zioten ez eskopetarik ez lekukoez deskribatutako arroparik aurkitu. Hala ere, atxilotu eta giltzapean eduki zuten, harik eta lekuko gailegoak egia azaldu zuen arte<sup>22</sup>. Hiltzaileak bizitza bat baino gehiago eduki zezakeela eta, heriotza asko eskatu zuen fiskalak, aurretiaz publikoaren aurrean animaliarene baten buz-tanetik narras eramana izan eta gero. Azkenik, hala eta guztiz ere, ez omen zuten kondenatu.

Dokumentuak berebiziko interesa dauka, transkribatutako esaldi horrez gain, oso aberatsa delako beste hainbat arlotan; datu jakingarriak ematen dizki-gu, zein baitira orduko Barakaldoko hainbat gertakari biolento, zenbait datu soziolinguistiko eta inguruko herriekiko harremanen berri interesgarria, hainbat pertsonaiaren izen-gaitzizenak eta apika euskararen itzala izan dezaketen zenbait egitura sintaktiko eta lexiko: *Haviendola muerto, sea suelto de la carcel, llamado por mal nombre, le tomaban en boca, hizo alguna reflexión; sobrepuerta, musurrojo*, etab. euskarazko hurrengo beste forma hauen paralelo: *hil zuen, askatua izan zen, gaitzizenez, ahotan hartu, gogoeta edo hausnarketa egin; ategain edo ateburu eta musugorri*.

Ez dakigu, hau erromanisten lana<sup>23</sup> baita, goiko horiek euskararen kalkoak izan daitezkeen ala euskaraz gaztelania zaharrarekin amankomunean eta behar-bada berari hartuta zeuzkan egiturak diren. Gaztelanitik hartutakoa da, esaterako, *longaiña* hitza, Azkuek bere hiztegian bildu eta Xabier Mendigurenek Nikolai Gogolen nobela paregabeari izenburutzat jarritakoa<sup>24</sup>. Gure dokumentuan, gaztelaniazko *hongarina* forma zaharraren ondoan, Azkuek Arratian bildutakoaren iturria<sup>25</sup> den *longarina* ere azaltzen zaigu, seguruenik gaztelaniazko artikulua berrinterpretatuta.

<sup>22</sup> “Viniéndose [el estudiante] hacia la declarante a quién amenasó y dijo: Boto a Christo que si dises algo te he de degollar... y le preguntó al estudiante porque havia muerto a dicha muchacha a que respondió que por su gusto”, *ibid.*, 56v.

<sup>23</sup> “El vasco no es en absoluto una lengua románica, pero ha vivido en tan estrecha simbiosis con ellas durante muchos siglos que su historia y su prehistoria no pueden ser estudiadas, y hasta cierto punto aclaradas, más que con un conocimiento nada superficial de la lingüística románica”, L. MICHELENA, *op. cit.*, 41. or.

<sup>24</sup> Hitza espainolez *anguarina* da, *hungarina* zaharretik etorria, Hungariako modaren araberakoa bide zelako janzki hau. J. COROMINAS, *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Madrid, 1980. Sabino Aranak berak, Azkuek bere hiztegiaren eranskinean sinesmen eskasaz argitzen duenez, antzemana zuen erdaratiko jatorria.

<sup>25</sup> Horixe da, hain zuzen ere, HUMBOLDTEk Durangorako zehaztasunez deskribatzen diguna: “La Longarina, sobretodo amplio con varios dobladillos en las mangas, el equivalente de la capa castellana...”, «Diario del viaje vasco, 1801», *RIEV XIII*, 1922, 658. or., baita ere *RIEV XIV*, 1923, 213. or. eta “El lugar de la manta o casaca lo sustituye la Longarina, una amplia chaqueta con largos faldones y mangas...”, «Los Vascos o Apuntaciones sobre un viaje por el país vasco en primavera del año 1801», *RIEV XV*, 1924, 289-90. or. *Ongarina*, *Longarina* eta *Longaiña* dira Nafarroarako J. M. IRIBARRENEk biltzen dizkigunak (*Vocabulario Navarro. Segunda edición preparada y ampliada por Ricardo OLLAQUINDIA*, Príncipe de Viana, Iruñea, 1984), azken biak Aezkoarako eta Abaurregainerako hurrenez hurrenez, Corominasek aipatu gabeak eta Azkuek Nafarroan bildutako *longaiña* formaren paraleloak.

Kontuak kontu, *Ai ene desdichadea!* dira birritan jasotzen diren hitzak eta *Ai desdichadea!* beste behin, hiru kasuetan neskatoak hiru aldiz errepikatu zituela zehazten zaigularik. Mikrotestuak islatzen digun egoera soziolinguistikoa ere adierazgarria da; XVIII. mendearen hasieran Barakaldon oraindik euskara hizkuntza nagusia zela baieztatzen baitigu. Orduan denboran, gaztetxo batek, emakumezkoak, euskara bide zuen ama hizkuntza, estukura larri batean ahoskatutako hitzak barren-barrenetik ateratzen direnak baitira, ez bestelakoak<sup>26</sup>. Badakigu euskara mende horretan bertan galtzen hasita zegoela eta egoera edo gune elebidun batzuk bazirela, inmigrazioa, esaterako, ez baitzen meatzeen ustiakuntza masiboarekin hasi, lehenago baizik, eta Barakaldok Portugaleta<sup>27</sup> eta Bilbo<sup>28</sup> elebidunekin zituen harreman estuek ere hori pentsarazten baitute. Egoera elebidun horretan, gainera, gazteak ziren erdarara jotzen zutenak, logikoa denez eta J. A. Uriartek Bonaparteri bidalitako datuek egiaztatzen digutenez. Dokumentuan jasotako ezizenak ere, egoera horren alde mintzo zaizkigu, beheraxeago aztertuko dugun bezala.

Euskarazko testu txiki honek, bere apalean, iruzkin filologiko txiki bat merezi duela uste dugu, García Salazarren eskutik ailegatutako esalditxo<sup>29</sup> kenduta, euskararen lagin mendebaldarrena eta Nerbioi ibaiatzek ezker alde erdaldundu horretako bakarra baita, Josu TELLABIDEK<sup>30</sup> 1986an eta geronek 1987an<sup>31</sup> Artiban bildutako aurretikoa bederen.

Bada beste testu bat, bere jatorria egiaztatua izanez gero, korpus txiki hau emenda lezakeena: Gordexolako *Basoko* etxe eta leinuaren armariari laguntzen

<sup>26</sup> Gauza ezaguna da zaharrak, burua galtzen dutenean, sarri ama hizkuntzara bueltatzen direla berau itxuraz galduta edo zuten arren. Begoñako *Morro Txikerra* baserriko *Eduvne Bilbao* zenak kontatu bezala, horixe gertatu zitzaion hilzorian zuten aitari. Bujan jaioa zen, baina bertara ezkondu, erdara bihurtu zitzaion eguneroko eta ondorioz seme-alaben hizkuntza. Seme bat, ordea, Bujan hazia edo ibilia zuen eta horretara euskara galdu gabea, heriotzako une horietan, bada, semea izan zen aitari kontu egin behar izan ziona, honek burua galtzen hasita erdara ahantzi egin baitzuen eta euskara huts ez mintzatzen.

<sup>27</sup> *Ik.*, besteak beste, 296. oh.

<sup>28</sup> «*Situada en las cercanías de la frontera de dos lenguas de estructura muy distinta, Bilbao viene siendo una población bilingüe, en proporciones difíciles de calcular, desde época ya lejana*», L. MICHELENA, «Prólogo», in *Lexicón Bilbaíno*, Emiliano de ARRIAGA, Minotauro, Madrid, 1960, 5. or. Hona zer dioskun L. VILLASANTEK, Aita Palacios herri misiolariak 1765. urtean Bilbon egin predikua ahotan dituela: «*Horra garbi aitortua Bilbon ordurako bazela elebitasun bat. Segur aski herri xehea euskaldun izango zen, eta bestea, gizarte goi mailakoa, erdaldun edo erdaldundua*», «Juan Mateo Zabalakoaren omenez», *Euskera XXII*, 1977, 365. or.

<sup>29</sup> Justo Gárate, Juan Carlos Guerra, Manuel Lekuona, Jon Bilbao eta abarrek aspaldian aztertua. Mitxelenak (*TAV*, 61-63. or.) berraztertzen du eta agerian uzten testuaren zailtasuna, agerian utziko lukeena García de Salazarren euskararekiko urruntasuna.

<sup>30</sup> Arantzadi Zientzia Elkarte. *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (Lehen atala. Bigarren zatia)*, Munibe, Donostia, 1990, 9. etnotestua.

<sup>31</sup> 1987ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro, eta Lurralde-Antolaketa eta Garraio sailen *Bizkaiko Toponimia Bilketak* proiektuaren barruan.

bide zion dibisa<sup>32</sup>, J. ECHEZARRAGAK, Gordexolaren euskalduntasunaren frogagarri<sup>33</sup> aipatzen dituenen artean ez dagoena.

Gure testura itzulita, esan behar dugu ez dela inolaz ere literarioa, baizik eta hizkuntza biziko ahozko alea eta honek balio berezia ematen dio, testu zaharretan holakoak oso gutxi izaki. *Orotariko Euskal Hiztegian* biltzen diren datuen arabera ikus dezakegu *Ai ene* interjekzioa zaharra dela; Axularrek behin edo behin bada-rabil (*Ai ene titxa gabea*) eta Landucciok *ay eneri, ay erioa* ematen du *guay* interjekzioaren kideko. Baina G. HENAOK<sup>34</sup> ematen digun berria da gure testukora dataz eta testuinguruz gehien hurbiltzen gaituena: “*De igual manera las Vizcaynas usan del Ayene, aspiración que significa Ay de mí! Ésta se repite a cada tonada, que son tantas, quantas dicta el afecto o afectación de las que plañen*”. J. Augustin CHAHOK<sup>35</sup> ere ohitura horren berri ematen digu, ez dakigularik bere bidaian ezagutu zuen ala Henaori edo besteri irakurri zion. Bizkaian usadiokoa bide zen interjekzio hori, Barakaldoko mikrotestuak orain baieztatzen duenez. Aurrerago, Larramendi eta

<sup>32</sup> Ez dakigu noizkoa den ez eta bere jatorria zein den ere, baina Julián ECHEZARRAGAK aipatzen dizkigunek ez bezala, egiantza eite handiagoa du: *Basoko piztien sutsuevaorri de basurde ederra*. Autore honek, bestalde, 1977an idatzten duela (*Valle de Gordejuela. Reseña Histórica*), Gordexolan 86 etxe noble, dorretxe edo jauregi izan direla dio eta horietatik 18k baino ez dirautela zutik; galduriko horietako batekoa behar du izan aipatu dibisadun armariak. Ez Alberto eta Arturo GARCÍA CARRAFFAK (*Enciclopedia Heráldica y Genealógica Hispano Americana*, Madrid, 1920-60; *El Solar Vasco-Navarro*, Salamanca-Madrid, 1933), ez euskarazko hainbat dibisaren berri dakarkigun Francisco PIFERRERREK (*Nobiliario de los Reinos y Señoríos de España*, 1857-66), ez eta Jaime de QUEREXETAK (*Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1970) ez digute honen aipamenik egiten, eta berrikiago Gordexolako ondare arkitektoniko eta nobiliarioaz arduratu direnek ere berri negatiboak ematen dizkigute, arrastoak oro galduak diren seinale (Javier de YBARRA y BERGÉ & Pedro de GARMENDIA, *Torres de Vizcaya, I. vol.: Las Encartaciones*, Instituto Diego Velázquez, Madrid, 1946; Javier de YBARRA y BERGÉ, *Escudos de Vizcaya, 5-Las Encartaciones, volumen I*, Biblioteca Vascongada Villar, 1967; J. Ángel BARRIO LOZA eta Nieves BASURTO FERRO, *Patrimonio Monumental de Gordexola*, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gordexolako Udala, Bilbao, 1994; J. A. BARRIO LOZA (Dir.), *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica, III. Bilbao y su Entorno. Las Encartaciones*, Deustuko Unibertsitatea (Deiker), Bizkaiko Foru Aldundia, 1991). Adolfo LAFARGA LOZANOK (*Hidalguías y Genealogías de las Encartaciones de Vizcaya*, Bilbao, 1967) aipatzen digun *Basoco*-ren 1634ko kaparetasun probantza ere aztertu dugu, baina bertan ez dago dibisaren berririk. Arrazoi hauek eta besteek, XVIII. mendearen amaiera aldean, Mexikorako bidaiaren karietara, irabazitako titulu eta merezimenduen fruitua dela pentsatzera behartzen gaituzte. Lehenik Mexikon, 1809an, eta mende horretan Amerikan barrena hainbat argitarapen izan zituen J. F. IRIGOYENen lan ezaguna ere (*Colección Alfabética de Apellidos Bascongados con su Significado*) begiratu dugu, baina hor ere ez dago arrastorik. Donostian, 1881ean Ignacio R. Barojaren eskutik ateratako edizioa kontsultatu dugu.

Inguru honetakoa litzateke, edo honetan kokatu eta girotua behintzat, RSKo “*Eriok erezan, Butroeko alabea Plentzian*” 167. erretra ere, Bittor KAPANAGAK ematen dion interpretazio eztabaidagarria ontzat emango bagenu. «Testu zahar baten bitxitasunak», *Euskerá XXVIII*, 1983, 159-168. or.

<sup>33</sup> “*Otra prueba de que se hablaba vascuence en este Valle son las divisas de los escudos que algunas casas solariegas llevan en vascuence*”, Julián ECHEZARRAGA, *Gordejuela. Breve Historia* eta ideia bera in *Valle de Gordejuela. Reseña Histórica*, 178. or. Funtsean, nahiz eta ez kasu gutzietan, GARCÍA CARRAFFARI hartu dizkio datuak eta lehenengorai Rafael GONZÁLEZ OREJASEK (*Valle de Gordexola*, Temas Vizcaínos 261, Bilbao Bizkaia Kutxa, 1996) kopiatu datuak eta datuen gaineko gogeta.

<sup>34</sup> P. Gabriel de HENAO, *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria, I*, Salamanca, 1689, 342. or., 17. oh. MITXELENAK aipatua, *TAV*, 173. oh.

<sup>35</sup> “*La mujer del difunto se cubría la cabeza con un velo llamado buruzea y acompañaba al ataúd lanzando gritos desgarradores, entre los cuales se distinguían estas palabras: ¡ay ene!; y la viuda se precipitaba sobre el cadáver y lo estrechaba en sus brazos*”, «Viaje a Navarra durante la insurrección de los Vascos (1830-1835)», *RIEV XXI*, 1930, 133. or. Martín de ANGUIOZAREN itzulpen zentsuratuarekin, bertso osoa, Xabier Mendigurenena, Txertoa argitaletxearena, San Sebastián, 1976. Lehen edizioa, frantsesez, 1836an: *Voyage en Navarre pendant l'Insurrection des Basques*, 1830-1835.



bere segizioko Kardaberaz bitarte, mendebaldeko literaturara, eta predikaziora ere seguruenik, zabaldu zen, gure artean Mogelek erabili zuelarik maizenik.

*Desdichadea* hitzak ere, bestalde, zerbait erakusten digu. Axularrek eta Kardaberazek *titxa gabea*, *ditxa gabea* euskarazko bertsioa darabilkigute, baina Landucciok, Barrutiak (*Ai ni mila bider desdixadua!*) eta Kardaberazek berak (*Ai nere desdixadua!*) gure testukoaren parekoa den erdarazkoagoa. Frai Bartolomek ere *desdixaubá* idazten du. Hala ere, ez zaigu, ikusten denez, femeninoaren forma, ez lehenago ez ondoren, ageri. Honek ez du esan nahi, ordea, *-a / -o* genero bereizketa erromantzea gure artean ordurako, eta askoz lehenagorako ere, zabaldua ez zegoenik, bizkaieraz behinik behin. Mikoletak *kriadea* darabil eta *krijadia* Frai Bartolomek eta Astarloak. *Koitada* hitza ere oso erabilera handikoa dugu handik gutxirako literaturan.

## 1.2. Luzea, Zalduna eta Onena

Onomastikaren beste arlo interesgarri bat, beste argi izpiren bat eman diezagukeena gaitzizenena dugu. Hau ere, gutxi aztertua izan da, bi arazo nagusi dituen eremua izanik. Batetik, gaitzizenak nekez iragaten dira dokumentuetara, lagunarteko eta herri mailako usadioko erregistroari dagozkiolako. Hauek honela, salbuespentzat hartu behar ditugu jasotzen direnak, auzi judizialekoak, esaterako. Literatura, jakina, kostunbrista bereziki<sup>36</sup>, material honen harrobi agortezina dugu, baina literatura den aldetik ez dauka datu historikoek duten balioa.

Eta bestetik, berriz, sarri askotan gutxiesgarriak izaten dira gaitzizenok eta izaera honek argitaratzeko bestelako problemak sortzen ditu. Gaitzizen hauek, gainera, gizabanakoei ez ezik, familia osoei ere badagozkie sarritan eta belaunaldi belaunaldi mantentzen, argitaratzeko zailtasuna *sine die* luzatuz.

Hala eta guztiz ere, Barakaldorako badugu material apur bat, eta material horretatik ateratako zenbait gogoeta. Gregorio BAÑALESek<sup>37</sup> XVI eta XVII. mendeetako batzuk ematen dizkigu, eta XVIII.era urriak direla esaten<sup>38</sup>, 1712eko hilketaren berri ematen digun dokumentuak uste hori usteltzen badu ere. Hizkuntzaren gorabeheren nolabaiteko jarraipena egiteko balio dutela ezin

<sup>36</sup> Gurean kokatutako ale bat aipatzearen, aurrerago ere aipatuko dugun Luis OCHARANen *Marichu* nobela gogora genezake, bateko *Chominandi* bezalako euskal izenekin eta besteko *El Tuertu* bezalako izen erromaniko interesgarriekin.

<sup>37</sup> Irakasle barakaldotar honek toponimia eta historia emankortasunez eta maisuki uztartzen dituen bi liburu idatzi dizkigu, bertako historia linguistikoa ezagutzeko lehen eskuko materiala eskaintzen digutenak eta, hortaz eta bestela, ezinbestekoak direnak: *Mayorazgos de la Villa de Portugalete*, Ediciones de Librería San Antonio, Barakaldo, 1997 eta *Mayorazgos de Barakaldo, ibid.*, 1999; eskuartean darabilen *Barakaldo eta Alonsotegiko Toponimia* proiektu esperantzagarria ahaztu gabe.

<sup>38</sup> "Algo tan sencillo como los alias nos permite hacer un seguimiento bastante real del idioma empleado por los habitantes de un lugar (...) A finales del siglo XVI y comienzos del XVII en Barakaldo conviven el castellano y el euskera en cierta proporción de igualdad, desequilibrándose esta proporción a favor del castellano ya desde mediados del siglo XVII. A partir de esas fechas el uso de moles se hace infrecuente en este municipio por lo que resulta muy difícil analizar su continuidad", *Mayorazgos de Barakaldo*, 121. or.

uka badaiteke ere, Bañalesen hitzek eurek garbi asko frogatzen digute kontua ez dela hain lerroz lerrokoa eta beste faktore asko hartu behar direla kontuan hizkuntzaren historiari bagagozkio. Alde batetik, eta goian esan bezala, datuen urritasuna neurtu eta aztertu behar da, ondorio zuzenik aterako bada. Izan ere, ez datoz inondik inora ere bat Bañalesek esku artean darabiltzan datu soiletatik ateratzen dituen ondorioak beste testigantza askok adierazten diguten egoera-ekin.

Lehenik eta behin, esan beharra dago *ex silentio* argumentazioak<sup>39</sup> nabarmenki huts egiten duela kontrako lekukotasunak falta ez direnean edota datuen hutsarteak arrazoizko esplikazio alternatiboa duenean, eta, paradoxikoki, esan ere esan daiteke argumentazio bera erabilia kontrakoa ere suposa dezakegula, Mitxelenak antzeko kasu baterako egiten duen bezalaxe<sup>40</sup>. Urrunera joan gabe, goian aipatutako 1712ko dokumentu bakar horretan hainbat gaitzizen jasotzen dira: *El Duende, El Valenciano, El Estudiante, Corro, Tancho, Separelin, Txirta, Onena*. Lehen hirurak gaztelaniazkoak ditugu; *Corro, Tancho* eta *Separelin* ilunak eta hizkuntza bati nahiz besteari adskribatzeko zailak, eta *Onena* euskarazkoa dugu, jakina. *Txirta*, Bilboko andrea zen eta hitz hau euskaraz zein erdaraz erabilia izan dela esan behar da. Argi dago, bada, gaitzizenen erabilerak pil-pilean jarraitzen zuela XVIII. mendearen hasieran, eta aurrekoetan bezala erdara nagusia zela, gaitzizen hauek paperatzeko orduan, behinik behin. Izan ere, kontuan hartu behar dugu *El Estudiante, El Valenciano* eta halako izen generikoak, goian esan bezala, euskaraz ere berdintsu (*Estudiantea* eta *Valentzianoa* edo) esango zirela eta euskaraz ere era-

<sup>39</sup> Maiz ohartarazi gaitu Mitxelenak hizkuntzaren historiarako argumentazio honen ahuleziaz. Balio beza definizio moduko honek: "Soy tan consciente como otro de la falibilidad intrínseca del argumento ex silentio. Al revés de lo que ocurre con las ideas de Popper sobre la necesidad de que las teorías sean refutables si han de servir para algo (un solo caso que no se ajusta a ellas bastaría, al menos en principio, para obligar a modificarlas, mientras que millones de hechos conformes no alcanzaran a probarlas de modo definitivo), un ejemplo bien establecido es suficiente para demostrar que algo ha existido en cierto momento en alguna parte, en tanto que los textos sin fin en que no se documente no tienen fuerza que baste para borrarlo de cualquier momento del pasado de este mundo nuestro. Espero, con todo, que se me concederá que, cuanto más pertinaz sea la ausencia de algo allí donde uno esperaría encontrarlo, menor se hace la probabilidad, si faltan razones que lo abonen, de que llevara una vida soterrada, alejada de las páginas escritas", «Miscelanea filológica vasca, IV», *FLV* 33, 1979, 387-88. or. Era berean, ez dira gutxi historialarien ahoz datozkigunak ere; hor ditugu, besteak beste, Bosch Gimperak zeltiar eta euskaldunen arteko harremanei buruzkoak (ik. 2.1. puntua, 167. oh.) edota J. J. SAYASEk mingainean makurrik gabe dioskuna: "Entiendo que, cuando la evidencia es acusadamente precaria, no se puede suplir con planteamientos apriorísticos, sobre todo en aspectos cruciales de la interpretación de hechos históricos", in *Los Vascos en la Antigüedad*, Catedra, 1994, 219. or. (lehenago, *Actas del Primer Congreso General de Historia de Navarra*, Príncipe de Viana, 1987) eta J. GORROCHATAGUIK eskarmenturako gogora dakarkiguna: "Lo que ha ocurrido en Navarra y las Cinco Villas nos muestra que no se pueden inferir conclusiones definitivas a partir de argumentos ex silentio", «La aportación de la lingüística a la reconstrucción del poblamiento en el País Vasco», *Illunzar* 94 (*Problemática de la Reconstrucción del Poblamiento en el País Vasco: Un Enfoque Interdisciplinar*), Gernika, 1993, 114. or.

<sup>40</sup> "Hay que pensar, además, que, si un nombre vasco tenía equivalente románico, éste era el que se usaba sistemáticamente por escrito. / Esto, por desgracia, no puede ser probado con la documentación disponible, que es por definición escrita, y queda en mera sospecha, fundada en un dudoso argumento ex silentio", «Onomástica y población en el antiguo Reino de Navarra: La documentación de San Millán», in *XII Semana de Estudios Medievales. 1974. Pamplona*, 1976, xx. or., orain in *Palabras y Textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987, 61. or.

biliak izan zitezkeela, nahiz eta paperatzeko orduan erdarazko bertsioan agertu beti<sup>41</sup>, toponimian arrunta den bezala<sup>42</sup>.

Batetik, gaitzizenen erabilera ez bide zen batere murriztu, dokumentuetan halabeharrez garai batzuetan gutxiago jasotzea suerta badaiteke ere. Horren froga garbia berauen gaur egunera arteko iraupena dugu, Carlos IBÁÑEZek Barakaldorako<sup>43</sup> jasoak lekuko. Azkenik desagertu edo hauen erabilera guztiz murriztu bada, neurri handi batean nekazal gizartea gainbeheran etorri eta hiriaren masifikazioarengatik gertatu da. Lehenago, euskararen desagertpenarekin batera, gaitzizen berrien lerratze linguistikoa eman zen. Jakina datekeenez, eta salbuespenak salbuespen, gaztelaniazkoak izan dira gaitzizen bakarrak azken ehun eta berrogeita hamar urteotan Barakaldon.

Bestaldetik, jakina da izenak ez duela zertan beti derrigorrean bere jabearen hizkuntzaren nolakotasunarekin zerikusi zuzenik eduki, eta ezagunak direla bi zentzuetako salbuespenak. Galdakaon, esaterako, *Bermeana*, *Borrachín*, *Diesisiete*, *Malas Trampas* gaitzizenak jaso ditugu<sup>44</sup> izen horien eramaleak euskaldunak zirelarik. Ugaon, *El Chopo* dugu bertako bat, baina, ezizena gaztelaniazkoa izanagatik, Zarauzko beste *El Chopo* ezagunagoa bezain euskalduna da. Izan ere, gaitzizenak bestek jarriak dira, eramalearen hizkuntzaren edota gogoaren arabera jarriak baino. Neurri batean, beraz, komunitate linguistikoaren aldi-aldiko hizkuntza egoera islatzen dute gehiago, jabearena berarena baino.

G. BAÑALESek<sup>45</sup> biltzen dituenetariko batzuk –*Salduna* (1581), *Arraunça*, *Luçea* (1598), *Ybarreco* (1600), *Mocha* (1615), *Balza* (1617)– izen euskaldun garbiak dira baina ilun samarrak urte horietako beste zenbaitzuk: *Fallaxo* (1596), *Echio*, *Faran*, *Zangon* (1598), *Gallarde* (1605), *Maora* (1613), *Juaniqui* (1645), *Perotín* (1655), *Chiquitu* (1664)... seguruenik ere, mende horietan, Barakaldon gehientsuenak euskaldunak baziren ere, nekez asmatuko genukeelarik zein zer zen.

<sup>41</sup> Bujan, esaterako, *Baltza* ez-uzena zuen bertako batek, baina *Ben Bereh* ezizena ere bai, Afrikako futbolari haren planta bazuelako jokoan. Hau ez zen, noski, auzoan eta inguruan ezizena zuen bakarra; *Lepoistu*, *Kurtzulu*, *Malluki*, *Marratxa*, *Urrutxa*, *Matarral*, *Gorrión* eta abarrek berriro frogatzen digute izendapen hauen iraupena ez dela oraintsura arte eten. Hautetari-ko batzuk bertsio bikoitzaz: *El Churrero* edo *Txurrerue*, *El Chato* edo *Txatue*, *Txatuena* Etxebarriko baserria, etab.

<sup>42</sup> “*La onomástica personal está tan sujeta a modas como el vestido por lo menos y cambia según corrientes culturales de la más variada naturaleza. A ella se añade la toponimia con nombres nada vascos, aunque ello no excluya la dualidad de formas* (San Sebastián-Donostia, Villanueva-Iriberrí, etc.) *que es natural no tuvieran en cuenta, de haber existido, los autores clásicos*”, L. MICHELENA, *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca*, 43. or. Bilbo eta Arrigorriagaren arteko mugan, idazten dugunetik bistan, *Beteluri* auzoa genuen; autopistak orain 25 bat urte azpiratu zuen baina dokumentaziotik, 1300-1750. urteen bitartean bizitza joria izan eta gero, ia desagertzerraino bakandu zen, *Venta Alta* izendapen berri zaharra hartuta; bertakoek, alabaina, oraindik orain *Betellu* darabilte ahotan, euskaraz ari direnean bakarrik, jakina. Hemendik hurbil, Galdakaoko *La Cruz* toponimoa, euskaldunen artean beti *Kur(u)tzea* formapean erabilia da ahoz, baina oso bakanki baino ez dugu horrela paperaturik aurkitu eta herri bereko *El Gallo* bidegurutzeari *Ollarra* esaten zaio, horrela, guk dakigula, inoiz paperatua izan ez bada ere.

<sup>43</sup> *El Boticario*, *El Jardínero*, *Arrascón*, *Tapabujeros*, *El Asturiano*, *El Vasco*, *Las Vascas*, *La Piconá*, *Lobito*, *Tximí*, *El Pajero*, etab., *De Barakaldo... Jolín*, El Cofre Barakaldés 7, Bilbao, 1999.

<sup>44</sup> Gorane INTXAURRAGA, Asier BIDART eta Ander ROS, *Galdakaoko Toponimia*, 2000, argitaragabe.

<sup>45</sup> *Op. cit.*, 151-52. or.

### 1.3. Txinbo, matxinsalto eta tresnak

Lexikoa ere, substratukoa<sup>46</sup> gure kasuan, euskararen presentziaren lekuko lagungarria dugu, toponimia bera bezain datagaitza eta neurgaitza izanagatik, euskararen galeraren erreferentzia eman diezagukeena. Bilbokoa dugu bereziki ezaguna, eta orain Gordexolako<sup>47</sup>, baina badakigu, Unamuno gaztearen bataio eta nahikaria gorabehera<sup>48</sup>, gune eta egoera elebidun guztietan izan dela; seguruenik, Bilbokoa bezain markatua Barakaldo bezalako nekazal herri batean. P. MUGICAK<sup>49</sup> eta R. BIELEK<sup>50</sup> aztertzen duten hizkuntza Bizkaikoa da edo zen, eta ez Bilbokoa bakarrik<sup>51</sup>, eta euskaldunek moldakaizto egindako gaztelania<sup>52</sup>, berriz, bizkaitar euskaldun guztiena, bereziki *Vizcaya* esatea *Vascongadas* esatea gauza bertsua zen garaian. Zalantzarik gabe, Jon JUARISTIK postulatzen duen bezala, bi errealitate bikoitzen aurrean gaude, bata literatur konbentzioarena, tradizio zabaleko *dialecto aldeano*<sup>53</sup> eta Unamunok asmatu zuen *dialecto bilbaino* direlakoek osatua, eta beste errealitatea, literatur dialekto hauen atzean edo azpian zegokeen benetako hizkerena, euskaldunen erdara moldagaitza eta bil-

<sup>46</sup> Adstratukoa esan beharko genuke Bilboren kasuan bereziki, J. JUARISTIK iradoki eta M. T. ECHENIQUEK berretsi bezala («Castellano y lengua vasca en contacto; ¿hubo una lengua criolla a fines del siglo XIX en Bilbao?», in *Estudios Lingüísticos Vasco-Románicos*, Itmo, Madrid, 1997). Izan ere, eremu elebidunen kasuan bi hizkuntzen kontaktaren eraginez hizkuntza batean eta bestean txertatutako lexikoa genuke, hizkuntza batek bestean utzitako arrasto soila baino.

<sup>47</sup> *Ik.* 66. oh. eta testuan aipatzen diren J. Zorrillaren eta Javi Llanoren lanak ere.

<sup>48</sup> «El dialecto bilbaíno (R.I.P.)», *Revista de Vizcaya*, 1886. «En sus obras [de Trueba] no aparece, sino muy esporádicamente, el habla típica de Bilbao de aquellos años, lo que Unamuno llegará a llamar «dialecto bilbaíno», una mezcla de palabras castellanas conservadas en Bilbao, de palabras de origen vasco dichas «a la castellana» o de palabras castellanas dichas a la manera vasca. Todo con una sintaxis especial», J. Antonio EREÑO ALTUNA, *Antonio de Trueba. Literatura, Historia, Política*. Bilbao, 1998, 87-88. or. Paradoxikoki, dialekto hau Bilbotik kanpo eta guztiz desagertu denean egin da ezagunen Jon JUARISTIren obra eta tesi ausart bati esker (*El chimbo expiatorio: la invención de la tradición bilbaina, 1876-1939*, Bilbao, El Tilo, 1994), batez ere Madrilen Espasa-ren esku-tik 1999an egindako bigarren argitarapenetik.

<sup>49</sup> «Dialecto vizcaíno», in *Dialectos castellanos, montañés, vizcaíno y aragones. Primera parte: Fonética*, Berlín, Heinrich und Kembe, 1892, 41-74. or.

<sup>50</sup> *El habla vulgar en Vizcaya. Repertorio humorístico poético-prosaico de los modismos y expresiones incorrectas más frecuentes en este país. Utilísimo para perfeccionarse en el idioma español. Parte primera: verso* eta *El habla vulgar en Vizcaya. Repertorio de idiotismos y expresiones más comunes en este país. Utilísimo para perfeccionarse en el idioma español. Parte segunda: prosa*, Bilbao, Los Dos Amigos, 1882.

<sup>51</sup> Hortik, J. JUARISTIren iritziz (*op. cit.*, 67. eta hur.), Unamunok Mugicaren lanari agertutako gaitzespena eta, behar-bada, Biel institutuko irakaskideari eskainitako isiltasuna. Bilboko dialektoari protagonismoa kentzen ziolako edo Bilbo eta Enkarterrietako hizkerak Bizkaiko gainerako herrienarekin zerikusi handirik ez zuela suposatzen zuelako, ez zion txera egi-ten: «¿Qué es eso de dialecto vizcaíno? Conozco el vascuence, conozco el castellano que se habla en Bilbao y en las Encartaciones, conozco la jerga que resulta cuando un vascongado que no sabe bien el castellano lo habla, pero ¿dialecto vizcaíno!», *Cartas inéditas*, Madrid, Rodas, 2.ª ed., 144. or.

<sup>52</sup> «Desde el renacimiento, las mal trabadas razones de los vascongados han constituido uno de los más socorridos motivos cómicos de las letras españolas...», J. JUARISTI, *ibid.*, 42. or.

<sup>53</sup> «El mal castellano de los vascos era un artificio literario tan convencional como el sayagués de las comedias pastoriles. El siglo XIX, con su radical exigencia de realismo (también de realismo lingüístico), produjo remedos más fieles del habla castellana de los campesinos vasco-hablantes», J. JUARISTI, *ibid.*, 42. or.

Hemen kokatu beharko genuke Euskal Herri osoan ale oso ezagunak dituen kantagintza humoristiko «elebidun» tradi-zionala, zeinean kokatu behar dugun gure lankide Aitor Ortiz de Pinedoren aitona, gitarraz lagunduta, Ibarrangelun kan-tatzen zuen hau:

Con tus mentiras, con tus garbantzos  
kanso naukazu aspaldi,  
ni eres liberal, ni eres federal,  
todas las partzas para ti.  
(...)

botar erdaldunduen substratuaren arrastoak zituena, hurrenez hurren. Azken bi hauetako lehenengoa, bere bertzio literario hanpatua eta guzti, funtsean, behin-behineko trantsizio hizkera<sup>54</sup> dugula esan genezake, hizkuntza bat galdu eta beste eskuratzen den bitartekoa<sup>55</sup>. Bigarrena, ostera, aurrekoaren fase bilbotarra, non euskaldunak jadanik ez baitira euskaldun, eta euskararen presentzia, hortaz, substratura azpiratua baita<sup>56</sup>. Barakaldok ere, bi fase hauetatik pasatu behar izan bide zuen, baina ez bataren eta ez bestearen bertzio literariorik gabe. Barakaldo, gainera, Enkartzioetatik hurbilago dago, hauei deusala, eta bertako dialektoaren eragina nabarmenagoa da, bertako *Baleju*, *Siebe*, *Coteru*, *Escorial*, *Pedrea*... toponimoen formari erreparatze hutsak agerian uzten duenez.

Esanak esan, besterik bide da goian zeharka aipatu berri dugun Enkartzioetako hizkuntza (nolabait) amankomuna, gazteleraren sorburu<sup>57</sup> eta azpidialektoztat<sup>58</sup> har daitekeena, baina lexikoan neurri batean euskararen arrastoak bazitue-

<sup>54</sup> M.<sup>a</sup> Teresa ECHENIQUEren hitzetan: "... marcan momentos de acceso de hablantes vascos monolingües a la situación de bilingüismo es decir, muestran, in vivo, procesos de transición de hablantes monolingües a hablantes bilingües", *op. cit.*, 141. or.

<sup>55</sup> Euskara desagertu bitartekoa bide da. Azkuek XIX. mendearen bigarren erdialdean kokatzen du: "... el curioso hecho que se notaba en Bilbao desde mediados hasta fines del siglo pasado, de que habiendo perdido la mayoría de sus habitantes su lengua tradicional, conservaban (y aún conservan algunos) cual si fuesen vocablos castellanos, palabras como *ampur poquito*, *chalabete un juego de niños* (contracción de *uts ala bete*)...", «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera* XII, 1931, 207-08. or., A. IRIGOYENek aipatua («Bilbo euskal arloan eragile», *Euskera* XXVIII, 1983, 60. or). UNAMUNOK («El dialecto bilbaino (R.I.P.)», *Revista de Vizcaya*, 1886, 145-47. or.) hizkera honi dialekto statusa eman eta gero, honen desagertzea berresten du: "Yo no alcancé más que a sus postrimerías; mejor sería decir al entierro de sus despojos. / Cuando llegué al mundo, ya el dialecto bilbaino se estaba despidiendo de él. Pude, sin embargo, conocerle un tantico, y le guardo todo el respeto que se merece", "Yo sostengo que el dialecto bilbaino fue una espontánea y fresca eflorescencia de nuestro espíritu, que un renuevo castellano injertó en vascuence" eta aurrerago: "Qué queda de todo aquello? Dos composiciones literarias que yo conozca, y arruinadas memorias". J. JUARISTIK dialektoaren existentzia bera ukatuko badu ere, testuinguru historiko batean kokatzen digu: "Si como [Unamuno] afirma, llegó a conocer las postrimerías del dialecto, la desaparición de éste debía ser muy reciente. Durante la infancia de Unamuno (es decir, durante el Sexenio), el dialecto debería de estar aún vivo. Los diez años transcurridos entre 1876 y 1886 habrían tenido que ser los de su definitiva extinción (téngase en cuenta que esos diez años son, precisamente, los del despegue industrial y los de la primera oleada inmigratoria)", *op. cit.*, 55-56. or. Eta Iñaki GAMINDEren ilusio melanikoniko, Juaristiren tesiaren baieztapen anakronikoa baino ez da: "Geroztik, Bilboko erdara galduz joan den arren, gaino apalagotan izanda, gurean gure amak egiten duen euskarakadez beteriko erdara bilbotarren artean bizi bizirik dago, egungo egunetan ere bai. Nik neuk erdara berberoi ikasi diot amari, eta berori izan da eta da erdaraz berba egitean erabiltzen dudana", «Bilboko euskararen ezaugarriez», in *I. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*, Bilbao, 1992, 56. or. eta ia hitzez hitz in «Bilbo eta euskara 700 urte geroago», *Euskara Mintzatuaren Erroak*, EHU, Donostia, 1998, 104. or.

<sup>56</sup> J. JUARISTIK apalki onartzen du dialektoa: "Como cualquier otra habla local, la de Bilbao debía de tener sus peculiaridades. Es raro, sin embargo, que casi nadie, hasta que Unamuno lo hizo, hubiese señalado la existencia de un dialecto particular", *op. cit.*, 50. or., ondoren sarkastikoki ezaugarriak ñimiñoenera ekartzeko: "La respuesta es descorazonadora: los rasgos privativos del dialecto se reducen a uno, la desinencia de diminutivo", *ibid.*, 56. or.

<sup>57</sup> R. CIÉRBIDEk konplexua sinpleki adierazita: "El romance castellano comenzó a hablarse en tierras de Vizcaya (Las Encartaciones) y de Álava (Valdegovía y Valderejo) antes que en Soria, Segovia y toda la Castilla al sur del Duero, y mucho antes que en la mayor parte de León", «Plurilingüismo histórico en Euskal Herria», *FLV* 56, 1990, 161. or.

<sup>58</sup> "Hemos hallado continuidad de tipos léxicos y rasgos fonéticos en un área iberorromance occidental amplia, y otra, castellana norteña; ésta suele comprender, con el norte de Burgos, Álava y La Rioja, pero la afinidad más constante y manifiesta se da con las hablas montañosas", Isabel ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, «El romance del occidente de Vizcaya en su toponimia. Bosquejo histórico», *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* LIII, 1998, 214. or. Eta azterketa sakonagoa bere tesian: *Estudio Lingüístico de la Toponimia de Carranza (Vizcaya)*, doktorego tesia, EHU, 1998, mikrofitxetako edizioa, eta *Corpus de Toponimia Carranzana. Materiales para el Estudio del Castellano de Vizcaya*, Serie Tesis Doctorales, Universidad del País Vasco, 1999, paperekoan, baina azterketa linguistikoa mozturik duena. Linguistikatik kanpo, J. I. HOMOBONOK seinatua zuen ideia nagusia: "El lenguaje propio del grueso de la zona minera durante el período de explotación intensiva fue un habla comarcal castellana, con peculiaridades locales pero común al conjunto de Las Encartaciones - Castro", «Cultura popular y subcultura obrera en la cuenca minera vizcaína (siglos XIX y XX)», in *La Cuenca Minera Vizcaína. Trabajo, Patrimonio y Cultura Popular*, FEVE (Dirección de Comunicación), 1994, 119-61. or., 120. or. Hizkera honek Bizkaiko dialektoarekin zuen harremanetarako ik. 51. oh.

na<sup>59</sup>, lehenago euskara hitz egiten zen eskualdeetan bereziki, zenbait langintzatan euskaldunen presentziaren eraginez zabaldutakoari gehiegi pisua eman nahi ez badiogu. Paradoxikoki, inmigranteen kopururik handiena erakarri zuen meagintzaren arloan<sup>60</sup> aurkitzen dugu euskal lexikoaren presentzia nabarmena, aurretiko tradizioak abantailazko postuetan jarri zituelako euskaldunak, behargin inmigranteen gainetik<sup>61</sup>. Orobat, euskaldunek basogintzan eta ikazkintzan<sup>62</sup> zuten maisutzari esker azaldu beharko litzateke, esaterako, *txirpia* bezalako hitz bat Enkartzazioen mendebaldean bertan ere aurkitzea<sup>63</sup>. Gauzak pixka bat sinpletuz, Barakaldoko *dialektalismo enkartatuak* ukipen edo kontaktuari egotzi behar dizkiogu, Enkartzazioetako euskararen hondarrak euskaldunekiko kontaktuari egotzi behar zaizkion bezala.

Lexiko honi itsatsita bizi zen mundu tradizionala desagertuz joan delako eta honi eusten zion hizkuntza komunitateak masa kritikoa galdu duelako, esan behar da substratuko lexikoarena galbidean edo ia galdurik dagoen altxorra dela. Barakaldon, Bilbon bertan baino areago, esan bezala, populazio natiboa gutxiengo nabaria da, inmigrazioa<sup>64</sup> XIX. gizaldiaren azken laurdenetik eta lehenagotik jada indarrez hasia baitzen, populazioa etengabe hornituz joan delarik kanpoko kontingenteekin, gutxienez joan berri zaigun mendeko 60ko hamarkada arte.

Bestaldetik, guk dakigula, Barakaldon ez da lexiko erresidual honen bilketa lanik ia egin, orain aipatuko dugun PEREAREN lantxoia izan ezik, eta ez du lexiko honek, berriro ere Bilbon ez bezala, letretan kasik lekurik izan, Perearena berriro ere salbuespena, eta salbuespen berantiarra, izanik.

<sup>59</sup> “*Si bien usan sus naturales muchas voces cuya raíz no puede confundirse con otra alguna que con la que se habla en la antiquísima tierra solariega*”, J. E. DELMAS, *Guía Histórico-Descriptiva del Viajero en el Señorío de Vizcaya*, Bilbao, 1864, 450. or. Enkartzazioei erreferentzia zuzena egin gabe, É. RECLUSek ere ohar bera egin zigun: “*Las poblaciones se sirven de un castellano mezclado con algunos términos locales*”, «Les basques, un peuple qui s’en va», *Revue des Deux-Mondes*, LXVIII, 1867, 313-340. or.; Martín de ANGUIOZAREN gaztelaniazko bertsoia: «Los vascos. Un pueblo que se va», *RIEV* XX, 1929, 60. or., guk aipemenetan darabilguna. Berrikiago, J. I. HOMOBONOK seinalatu du gauza bera: “*Su léxico, con numerosas persistencias de raíz eushérica, informa la obra de diversos escritores costumbristas y aunque se cuenta con algunos inventarios locales de voces, aún no ha sido objeto de un estudio filológico sistemático*”, *op. cit.*, 120. or.

<sup>60</sup> “*Chirtera o escombrera de mineral, estroza o espacio bajo las galerías, galguero o galguista de los trenes mineros, motil, motiluco o pinche de las minas, etc.; galsarri o cuarcita pedregosa de algunos minerales, etc.*”, J. I. HOMOBONO, *ibid.*, 120. or. Carlos IBÁÑEZek (*ik.* 82. oh.), E. Perearen lexikoari erantsitako artean, *galasarri* ‘parte pedregosa de algunos minerales’ jasotzen du.

<sup>61</sup> Honek azalduko luke, zatiz behintzat, HOMOBONOK Castro Urdialeseko euskal toponimiaz esaten duena (*ik.* 206. oh.) eta, bidenabar, Sasiak bertarako bildua. J. P. SÁNCHEZ LLAMOSASEk itsasoaren bidea eta Enkartzazioetatik barrenekoa aipatzen ditu lexiko honen iturri: “*Junto a este gran bloque de vocablos se encontrarían abundantes palabras de raíz eushérica –probablemente llegadas por los caminos de la mar, o tal vez por tierra trayendo el tamiz de las Encartaciones de Vizcaya–...*”, *El Habla de Castro*, Ediciones Irene, 1982, 17. or.

<sup>62</sup> “*No hay otros testimonios onomásticos vascos que las huellas de algunos apellidos conocidos en varias denominaciones del tipo La Caseta de Zabala, El Molino de Chávarri o La Huerta de Ibarondo, que designan propiedades y que recuerdan sobre todo el afincamiento en el Valle de gentes vascongadas, vizcaínas, guipuzcoanas y navarras, en relación con la explotación de las numerosas ferrerías de la zona, la tala de árboles y el carbón*”, I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, «El Romance», 182-83. or.

<sup>63</sup> *Ik.* 2.2. atalean, 204. oh.

<sup>64</sup> “*Ni en otra parte, fuera de la populosa capital, se ha mezclado con el pueblo vasco tanta gente de tan diversas provincias*”, Eduardo de ESCÁRZAGA, *Avellaneda y la Junta General de las Encartaciones*, Bilbao, 1927, 6. or.

Enkartazioetan ere ez da lan orokor eta erabatekorik egin, baina ari dira tokian-tokiko lexiko bilketak agertzen. ETXEBARRIA MIRONES anaiek<sup>65</sup> lantxo barreiatuen bilketa egiten dute euren zerrenda osatzeko, haien artean, bi lantxo argitaragabe: Gordexolako lexikoa biltzen duen Ramón VALLERen «El rincón de las palabras» eta Sopuertakoa biltzen duen Javi LLANOREn «Palabras olvidadas» izenekoak. Gordexolarako, goian aipatuaz gain, bilketa interesgarria dugu orain, Kastañabakotxa taldearen eskutik<sup>66</sup> eta honi erantsi behar zaion J. ZORRILAREN «Lexicón Gordejolano»<sup>67</sup> argitaragabea ere. Josu GÓMEZEK<sup>68</sup> RETANAK Zallarako apailaturiko hitz zerrenda darabilkigu, baina hor 60ko hamarkadako Bilboko giro euskaltzaleko hitzak baino ez dira ageri. Orobat, nabarmentzeko lana da José SÁNCHEZ LLAMOSASEK<sup>69</sup> Castrorako biltzen digun lexiko interesgarria, Villaverde de Trucíos barne hartzen duena. J. I. HOMOBOONOK<sup>70</sup> lan batzuk badirela esaten digu, zein diren zehazten ez badigu ere.

J. I. HOMOBOONOK berak<sup>71</sup> gogorarazi bezala, obra literarioetan ere, korren-te kostunbristetan bereziki, usu erabili izan da lexikoi *naturalista* hau eta noiz-behinka obren epilogoan, erabilitako hitzen zerrendak apailatu ere. Guk, bakar batzuen erreferentzia baino ez daukagu, A. TRUEBAK *Cuentos de Color de Rosa* obran txertaturikoa<sup>72</sup>, L. OCHARAN MAZASEN *Marichu* nobela eskergakoa<sup>73</sup> edota mende honetakoak diren ZUNZUNEGUIREN *El chiplichandle* eta Alberto SAN CRISTÓBAL eta Jesús BASÁÑEZEN *Arlotadas, Cuentos y Susedidos Vascos* obretakoak<sup>74</sup>. J. JUARISTIK, bestaldetik, aztertzen dituen zenbait egileren lexiko konkordantziez baliaturik, *Lexicón Bilbaino*<sup>75</sup> interesgarri bat apailatu du. Neurri anekdotiko batean bada ere, bestelako kronisten lanetan<sup>76</sup> ere ageri zaigu hauetariko

<sup>65</sup> «Vocabulario encartado», in *Tradiciones y Costumbres de las Encartaciones*, Ed. Beitia, 1997, 363-80. or., gehi «Notas», 460. or.

<sup>66</sup> «Lexicón gordexolano», in *El Gordejuela de Antaño*, Gordexola, 2000, 19-134. or.

<sup>67</sup> Irene HURTADO MENDIETAK aipatua, «Gordexola aldeko euskara», in *El Gordejuela de Antaño*, 328. or.

<sup>68</sup> *Vocabulario Popular de Bilbao. Recopilación del habla peculiar vizcaína en sus lexicones publicados e inéditos*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 2000.

<sup>69</sup> *Ik.* 61. oh.

<sup>70</sup> *Op. cit.*, 120. or.

<sup>71</sup> *Ibid.*, 120. or.

<sup>72</sup> «*Alguno de sus libros (Cuentos de color de rosa) contiene, al final de todo, un pequeño glosario, sobre todo de voces usadas en las Encartaciones*», J. Antonio EREÑO ALTUNA, *op. cit.*, 87. or. Jon BILBAOK ere ematen digu honen berri bere Bibliografian: «Glosario», in *Cuentos de Color de Rosa*, 1859, 67-77. or.

<sup>73</sup> «Voces técnicas, clásicas y locales cuya significación no está incluida en la última edición del Diccionario de la Academia», *Marichu*, Barcelona, 2.<sup>a</sup> ed., 1918, 765-77. or. Oso lexiko interesgarria da ematen diguna, batetik Arriagari zuzenean jasotakoa eta, aldaki gutxi batzuk gorabehera, alde horretatik interes gutxikoa, eta Castro Urdialeskoa bide den arrantzako eta itsasoko lexiko oso aberatsa eta guretzat ezezaguna, zati bakarrik Eneko BARRUTIAK (*Bizkaiko Arrantzaleen Histegia*, Bilbao, 2000) berrikitan Santurtzi eta Zierbenan jasotakoaren berdina.

<sup>74</sup> *Op. cit.*

<sup>75</sup> «Apéndice: Lexicón Bilbaino», *op. cit.*, 241-73. or.

<sup>76</sup> Julián ECHEZARRAGAK (*Gordejuela. Breve Historia*, 42. or.): *apala, gorri, zeruque, abarra, gorringo, otaca*, eta (*Valle de Gordejuela. Reseña Histórica*, 179. or.): *larri, sorqui, curruscu, muna, pamincha*; E. CALLE ITURRINOK (*Apuntes para una Historia de Baracaldo*, d.g.) *Zapaburus* aipatzen digu Barakaldorako eta Sigfrido GUTIÉRREZEK (*La Ruta de los Vascos Foramontanos*, Diputación Foral de Vizcaya, 1969) Gordexolako *sekulebiderra* ematen du, gutxi batzuk baino ez aipatzearen. Argi dago, bada, lexiko bilketa lan baterako datu iturri osagarri eta ezinbestekoa dugula hau.

hitz bat edo beste. Tankera bereko bilduma dugu, baina, konkordantziak gabe, iturri lexikografikoak erabilia, J. GÓMEZek berrikitan aurkezturikoa<sup>77</sup>.

Azterketa etnografikoetan sarri jasotzen da, bidenabar, lexikoa ere, kultura materialari dagokiona bereziki, J. M. SALVIDEGOITIAren lana<sup>78</sup> lekuko. Eneko BARRUTIAK<sup>79</sup> Zierbena eta Santurtziko arrantzaleen hiztegia bildu digu, Azkuek Santurtziko baliatu zuen eta T. ARANZADIren lan paregabean<sup>80</sup>, Santurtzikoaz gain, Portugalete, Castro, Laredo etabarrekoak biltzen dira. Guztiarekin ere, Barakaldorako ez dugu ezagutzen, Etniker taldearen ekimenez bultzaturiko *Atlas Etnográfico de Vasconia* proiekturako Juan Ramón LEIBA ZABALAK bildutakoa baino<sup>81</sup>, baina ziur gaude material lexikoa eskaintzen diguten lan gehiago badagokeena.

Lexikoa, hizkuntzaren osagai inherente nagusietako bat den aldetik, nekez gordetzen da hizkuntza ordezkapena gertatutakoan; hizkuntza aldaketa, gutxiagotasun eta diglosia baten azken emaitza dela kontuan hartzen baldin badugu. Alde horretatik, beraz, toponimiarena baino testigantza urriagoa izango dugu beti, azken hau substratuan hobeto gordetzen baita. Bestaldetik, kultura materialari errazago itsasten zaio lexikoa, baita ordezkapena ematen denean ere. Horrek esplikatzen du Gordexolan bildu den lexikoa Barakaldorako Pereak biltzen digunaren aldean askoz ere euskaldunago agertzea, bertan hizkuntzaren ordezkapena lehenago eman zen arren. Gordexolan hobeto gorde izan da, orain arte bederen, nekazal gizartearen bizimodua, eta euskara lehenago galduta ere, lexikoa gutxiago aldatu da erreferente extralinguistikoak ere gutxiago aldatu diren neurrian.

Esan bezala, ez dugu Barakaldorako lexikoa ezagutzeko lan monografikorik, lan publikaturik behintzat, ezpada Ernesto PEREAREN *Lexicón Baracaldés* izeneko lantxo apala, Carlos IBÁÑEZek<sup>82</sup> birritan txertatu eta publikatua bere lanetan, zenbait hitz gehitu dizkiolarik. ETXEBARRIA MIRONES anaiek<sup>83</sup> eta Josu GÓMEZek<sup>84</sup> ere beren bildumetan txertatu dute, baina ez batzuek ez besteak lanaren erreferentzia zehatzik ez digute ematen. *Perfiles Baracaldeses* liburuan lexiko hau

<sup>77</sup> *Vocabulario Popular de Bilbao*, 68. oharrean aipatua.

<sup>78</sup> «Estudio etnográfico del Valle de Trucíos», *Kobie* X, 1980, 153-95. or.

<sup>79</sup> *Op. cit.*

<sup>80</sup> «Nombres de peces en euskera», *RIEV* XXIV, 1924, 375-86. or. Eneko Barrutiak bere tesian eta bere hiztegian baliatu gabea. Orain ez dugu esku artean Manuel ALVAR zendu berriaren *Léxico Marino de los Pescadores Peninsulares* lan erraldoi eza-guna, eta ez dugu, hortaz, Alfonso Irigoyenek alde euskaldunerako egin inkestez gain, Bizkaian, kostalde erdaldunean, inkesta gehiago egin ote zen egiaztatzeko modurik.


<sup>81</sup> *La Alimentación Doméstica en Vasconia, Atlas Etnográfico de Vasconia*, 3, Bilbao, 1990. Galdameserako Carlos Glariak biltzen du materiala, baita *Juegos infantiles en Vasconia* tomorako ere. Trapaga, Portugalete eta Karrantza ere baditugu, besteak beste, atlas horretarako inkestak egindako herriak eta horretara, Enkartzioetako lexikoa ezagutzeko material iturria.

<sup>82</sup> Lehenengoz in *Historias de un Pueblo. Baracaldo*, El Correo, 3.<sup>a</sup> ed., 1987, 50-52. or.

<sup>83</sup> *Op. cit.*

<sup>84</sup> *Op. cit.*, 27. or.





darabilkigu E. PEREAK<sup>85</sup> eta letra etzanaz markatzen, nahiz eta toponimoekin ez beza-la, ez duen azkenean indize batean biltzen.

Lexikoi txiki horri gainbegirada eginda, bi gauza geratzen dira oso nabarmen: euskal sustraiko lexikoa gutxi dela erdarazkoaren aldean, baina euskal sustraiko lexikoa bildu gabe dagoela neurri batean, hots, ez dela dagoen guztia eta ez dagoela den guztia. Mitxelenak lexikoaz oro har esandakoak<sup>86</sup> balio du egun ere hemen bete-betean.

Euskal erroko ale garbi bakarrenetariko-ak Barakaldon *saltamachin*, *tresna*, *onda-quin...* ditugu, eta jaso gabeak, esaterako, *txinbo*, *gangarrana/-ona* eta *mutxurdina*, azken hau Bilborako ere jaso gabea eta guk geuk Barakaldon bi gazteri entzuna baina beste bik ezeztatua. Barakaldon, baina, esa-

nahia ez da, Azkuek Galdakao eta Orozkorako ematen digun ‘neskazaharra’ eza-guna, baizik eta maitasunezko losintxa, ‘potxolo, laztana’ edo holakoa, amak alabari esana, esaterako.

*Txinbo* hitz hain bilbotarrak, bigarren adiera nagusi bat ere badu, besteak beste: ‘urak libratzeko ubide edo erretena’, beharbada primariotik hurbilago dagoena eta Barakaldon ere testatzen dena. Guk geuk, Barakaldorako “*una heredad labrantía de 20 áreas, serrado de ballado con su chimbo*” eta “*los reparos del chimbo, caño maestro y demás cerraduras*” jaso ditugu<sup>87</sup>, 1776 eta 1842 urteetarako, hurrenez hurren. Txomin ETXEBARRIAK<sup>88</sup> *junto al chimbo* jaso du 1823ko dokumentu batean eta 1796ko fogeraziotik aurrekoaren idazketa edo irakurketa okerra dirudien *Chambo*, Zuatzu auzoko etxea. Deusturako erruz dokumentatu dugu, eta bakanki Abandorako, toponimoen osagarrietan zein lexikoan, Deustuko Olabeagako *Estrada del*

<sup>85</sup> Ernesto PEREA VITORICA, *Perfiles Baracaldeses*, Baracaldo, Imprenta Comercial, 1944. La Gran Enciclopedia Vasca, II. tomoa, 1974, hiru ataletan berrargitaratu zuen, indexik gabe. Halaber, Perearen beste obra baten berri ematen digu: “*En 1946, basado el argumento en el antiñón ambiente entre rural y fabril de Baracaldo, escribía Perea el libreto de la zarzuela Percal y Mahón, al que puso inspirada música el maestro don Tomás Aragües...*”, *ibid.*, 235. or.

<sup>86</sup> “*El vocabulario vasco no está debidamente recogido, la historia de las palabras está en buena parte por hacer y, sobre todo, lo que aparece recogido no ha sido siempre debidamente comprobado*”, «Thesaurus Praeromanicus, II», in *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madrid, 1985, 322. or.

<sup>87</sup> Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziarra, Registro de Hipotecas, 91. lib (31v) eta 96. lib (12r), hurrenez hurren. Diogun, bidenabar, hitzaren hedapenaz ohar gaitezen, lehenengoa Portugalteko Manuel Villar eskribauak idatzia dela.

<sup>88</sup> Txomin ETXEBARRIA MIRONES, *Orígenes Históricas de Baracaldo. Siglos XI-XIV. Toponimia y Lengua Propia*, argitaragabea, 88. or. Liburuan toponimo zerrenda interesgarria eskaintzen du, 75-104. or., eta *La lengua propia de Baracaldo* atalean, 63-76. or., aurreko obra batean zeharka aipatuak jorratzen ditu (ik. 245. oh.).

*Chimbo*<sup>89</sup> eta Abandoko *Vega del Chimbo*, *heredad llamada Chimbo*<sup>90</sup> eta *Campo de Chimbo Ibarra*<sup>91</sup>, erreferente lexiko anbigua duten toponimo soil batzuk baino ez aipatzearen. Euskaraz, Bizkaian bereziki, esanahi ezberdinak ditu *txinbo* hitzak, errotaren zenbait atal, besteak beste. Emilio ALARCOSEK<sup>92</sup> Asturiasen bertan jaso eta euskararen hondartzat eman zituen *chínflón* eta *xiblo* ‘boca estrecha del canal del molino’.

Bistan dago, premiazkoa litzatekeela lexiko hau berandu baino lehen biltzea eta interesgarria aztertzea. Interesgarria litzateke, halaber, lexikoaren arloan ere estudio konparatiboen bidez hizkuntzaren iraupen eta higadura mailak neurtu ahal izatea, baina azalean utziko ez gaituen ezer funtsezkorik aterako bada, azterketa sakonagoak behar dira, Gordexolarako egin denaren modukoxeak, alegia.

Toponimiaren azterketa arretatsu eta sakon batek korpus lexikoa osatzen lagunduko liguke<sup>93</sup>, jakinik ere toponimian agertzen den lexikoa murrizta dela eta ez duela beti iturri zuzenik, Bilboko toponimiarako<sup>94</sup> seinlatu dugun bezala. *Arescalante* (1770), *Arrichiquerra* (1823), *Urjaugi* (1810), *Bustingorri* (1779), *Recazarreta* (1756), *Solobiribil* (1862), *Erricobasoa* (1772), *Aresti-ilun* (1862)... Barakaldoko toponimoek (*h*)*aretx*, (*h*)*aresti*, *erreka*, (*h*)*arri*, *solo*, *bustin*, *ur*, (*h*)*erri*, *baso* sustantiboak; *galant*, *txiker*, *zar*, *ilun*, *biribil*, *gorri* adjetiboak eta *jausi* aditza ematen dizkigute, baina beste toponimo askok eta askok ez digute honelako daturik ematen edo ematen dizkigutenak dudazkoak izan daitezke. Izan ere, toponimo guztiak ez dira aldia-aldian eta tokian-tokian hizkuntza biziaz baliatuta sortutakoak, eta bai, sarritan, bestetik ekarriak<sup>95</sup>, gizakion sormen gaitasuna mugatua baita oso.

#### 1.4. Eufoniak

Ezaguna da Bonaparte printzeak euskalkiak eta azpieuskalkiak definitzeko orduan berebiziko garrantzia eman ziela hitz edo tema soila artikuluaekin batzean sortutako bokal elkarketen emaitzei.

<sup>89</sup> Deustuko Udal Artxiboa, 130-74 dokumentua, 1923 (orain Bilboko Udal Artxiboaren barruan) eta Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboko Administrazio saileko C00962-8 dokumentuan, 1900.

<sup>90</sup> Abandoko Udal Artxiboa (orain Bilboko Udal Artxiboaren barruan), 8-3 dokumentua, 1874.

<sup>91</sup> Bilboko Udaleko Planoaren saileko 47-4 plano, 1925.

<sup>92</sup> *Ik.* 201. oh.

<sup>93</sup> “*Las inferencias extraíbles de este material se limitan casi por completo a la fonología, y algo al léxico y a la morfología (composición y derivación)*”, Joaquín GORROCHATÉGUI, «Vasco-céltica», in *II. Euskal Mundu-Biltzarra, I. Atala, I. Alea*, Eusko Jaurlaritz, 1988, 375. or.

<sup>94</sup> *Ik.* 18. oh.

<sup>95</sup> Bilboko eta Basauriko toponimian aztertua dugu eginkizun hau, eta José Luis Ugarte ere (ah. kom.) Gipuzkoako Goierriako ondorio berera heldua da: etxe izen asko eta askoren izenak toponimoak izandako deiturretatik datozela, pentsatzen genuen baino portzentaia askoz handiagoan, azken batean *bigarrenik sortuak* diren kasuetan “*ez dirateke erakitako etxe batzuei jarritako izen deskriptiboak, ezta ere etxeak kokaturiko parajetik hartutako izenak, etxaldea fundatu zuen leinu edo familiaren marka soilak baizik*”, Ander ROS, *Basauri, kalez kale*, Basauriko Udala, 2000, 34. or. Hauetarikoa dugu, adibide bakarra jartzearen, Galdamesko *Loizaga* auzo izena, euskararen muga ebaki eta erabakitzeke erabilia, *ik.* 11. oh.

Enkarterrietarako ere azalpen honek pertinentzia osoa du: “*La onomástica claramente vasca [de Carranza] se limita –así lo creemos– a la toponimia de origen antroponímico, y sólo la toponimia enigmática hipotéticamente prerromana ofrece alguna posibilidad de investigación en el sentido de revelar un estrato preindoeuropeo*”, Isabel ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *Estudio*, 95. or.

Barakaldoko euskararen arrasto ia bakarria toponimian aurki daitekeenez, horixe dugu lehen datu iturria. Hizkuntzako edozein izen sintagmatan determinatzailea behar den bezala, toponimia bizioan, xehean bereziki, ezinbestekoa da artikulua presentzia, singularrekoa zein pluralekoa. Toponimoak ihartzen diren neurrian, alabaina, artikulua berez dagokion funtzionalitatea galtzen du eta, ondorioz, bere marka sarri galtzen da, askotan arrastorik utzi gabe. Esan gabe doa hizkuntza aldaketa gertatzen denean, supituan ihartzen direla toponimo guztiak, nagusiak zein txikiak, azken hauek hizkuntza berrian bizirik irauteko aukera murrizak badituzte ere. Hizkuntza aldaketarik gertatu gabe ere, badira toponimoen fosilizatzerako beste arrazoi eta bide batzuk, jakina. Gure kasuan, bada, gutxi dira toponimiatik atera dezakegun informazioa<sup>96</sup>, Barakaldoko toponimia xehea sakonki jasotzen denean zenbait material aurkitu behar direla suposa badaiteke ere.

Substratuko lexikoan ere, artikulua arrastoa galtzen da maiz, inoiz edo behin bakarrik kontsonantearen ondoan gordetzen delarik, gaztelaniazko femenino markatza berrinterpretatuta, Bilboko *gangarra*, kasurako, baina Barakaldon gorde dena *gangarrana*, *-ona* forma hibrido da<sup>97</sup>. Barakaldokorako ez dugu, bada, lexikoan artikulua inolako arrastorik; *zapaburu*, *galasarri*, *ondakin*, *saltamatxin*, *talaburdin*... tankerakoak baitira jasotako hitzak.

Barakaldo euskararen, *-i + a > -ia*; *-a + a*, *-e + a > -ea*; *-o + a > -oa* eta *-u + a > -u(b)a* dauzkakegu *eufonia* edo lotura horiek toponimiaren arabera, inferentzia honetarako toponimiari kasu egin badiezaiokegu. Lehenengorako *Sulibarria*, *Vegabarria*, *Rotabarria*..., bigarrenerako *Bengo(o)lea* (egun *Mingolía*), *Picachea* edo *Goicoechea*, *Larracochea*; eta azkenik *Ituricosoloa*, *Munoa*, *Munua*, *Galsua*, baina *Mucusúluba*, *Garamilloba* hirugarren eta laugarrenerako.

*Bengolea* formaren lotura, toponimiatik kanpoko *desdixadea* aipatuak berresten digu, duda gabe. Honek mendebaldeko euskararekiko lotura egiaztatzen digu, baina Abando eta Arrigorriagako euskaratik erauziko luke Barakaldo, haieran *-ea* ez, baina *-ie* bilakatua egiten delako batetik, eta *-ia* gabe, *-idxe*; biak ere Bonaparteren garaitik behintzat, eta Azkueren *Erizkizundi Irukoitzaren* inkestetan egiaztatuak.

Gauzak, aitzitik, ez dira hain sinpleak, material toponimiko hauetan ez delako, besteak beste, aldagarri diakronikoa, kontuan hartu. *Bengolea* eta *desdixadea*, esaterako, XVIII. mendekoak ditugu. Bestetik, *-oa*, *-ua*, baina *-oba*, *-uba* ere baditugu. Azkenek, nolabaiteko prestigioa izan zutela dirudi, agian Bizkaiko literatur hiz-

<sup>96</sup> Gordexolarako ezin izan du Irene HURTADOk alerik atera, *op. cit.*, 308. or.

<sup>97</sup> Guk jaso *mutxurdina* hitzean egon daiteke euskarazko artikulua, nahiz eta egun gaztelaniazko femeninoarena den marka.

kuntzaren ezaugarrietako bat<sup>98</sup> zelako, baina baita Enkartazioetatik hurbileko Orozko eta Baranbioko euskararena<sup>99</sup> ere. Egun galdua da bietan, arrastoa aditzean, lexikoan eta toponimian baino utzi ez duela. Ideia tentagarria da, aztertze-koa betiere, Barakaldon ageri zaigun *-uba* hori J. A. Uriartek Bonaparteri jakinara-zi zion Orozko-Baranbioko *-uba* bera izatea, eta alde horretatik nolabaiteko zubia egotea Gordexolarekin batetik eta Aiararekin bestetik, ezaguna baita Gordexolak Baranbio eta Aiara haranarekin zuen hartueman estua. Jakina da kontsonante ezpainkari antihiatikoaren presentzia toponimian aurkitzeak ez duela bermatzen deklinabidean erabili izana, baina ezin da ukatu toponimian maiztasun handiz agertzeak fenomenoaren hedaduraz zer pentsatua ematen duela. Aipatu *Mucusúluba* eta *Garamílloba* toponimoez gain<sup>100</sup>, *Subichúbeta* eta *Espinóbeta* ere badauzkagu Barakaldon, oso nekez aurkitzen direlarik holakoak Bizkai osoan<sup>101</sup>.

Beharrik, honi buruz Bonapartek Barakaldon bildu datuak baditugu. J. A. Uriarteren bi gutunetan ez dio euskara nolakoa den zehazten, orduko horietan euskararen mugez baitzuen ardurua bakarra. Bonaparteren laguntzaile bizkaitarrak informazio gehiago ere gaztigatu bide zion, beharbada, 1866ko gutunean jakinara-zi zion bisitan jasoa<sup>102</sup>. Informazio hori baliatuta edo, Bonapartek *Phonologie* ize-neko eskuizkribu bat<sup>103</sup> argitaratzeko prestatu zuen, zeinetan titulu luzearen amaieran euskalki eta azpieuskalkien sailkapen berria iragartzen baitzuen, 1856, 1857, 1866 eta 1867. urtetan egindako inkesten emaitzen ondorioa bide zena. Barakaldo, Arrigorriagako barietatean sartzen du, eta barietate horretako gainera-

<sup>98</sup> "Para ellos [Moguel y Astarloa] no había más que gogua, galduba, etc. Esto, ya se sabe, se ha prolongado hasta (casi) nuestros días en una escuela vizcaína de la que Lauaxeta, por citar un solo nombre, fue destacado representante", L. MICHELENA, «Contra Leko-bide», *ASJU XX*, 1986, 293. or. Gure Barakaldotik gertuago, UNAMUNOK berak erabili zuen euskaraz idatzi zuen apurretari-ko horietan, «Agur, arbola bedeinkatube!» lantxo lekuko, *Euskal-Erria*, XIX, 1888, 299-300. or. KIRIKINOK zabaldua, *Edo geuk edo inok ez*, Labayru, Bilbao, 1984, eta hortik: «Miguel de Unamunok euskaraz idatzi zueneko», *Garziarena* 6, 1993. A. IRIGO-YENEK ere testu osoa ematen digu, «Bilbo eta euskara», *Euskera XXII*, 1977, 408. or., 33. oh.

<sup>99</sup> "Es indudable que, lo mismo en Orozco como en Baranbio, se intercale la b entre las vocales de terminación: Burue, anguerue, etc., se pronuncian burube, anguerube; pero, como creo te decía en mi anterior, es preciso un oído delicadísimo para percibir la pronunciación de la b, que es tan suave que parece no tiene otro objeto que romper, o interrumpir el diptongo, intercalando la b entre las dos vocales", Juan RUIZ de LARRINAGA, «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *BAP XIII*, 1957, 437. or.

<sup>100</sup> Fenomeno bera, baina beste inguramen fonetiko batean, El Regatoko *Eskauriza* toponimoan ikus dezakegu, zein *Eskábriza* ahoskatzen baitute.

<sup>101</sup> Arabako Mendialdean eta Nafarroako Erdialdean oso ugariak dira: *Bidaburba*, *Guchisolba*, *Isasburba* (Markinez), *Oyanborba* (Uterga), *Artasorba* (Zirauki), *Achulba* (Subiza), etab. *burua*, *sova* edo *zuloa* elementu lexikoez osatuak. Ander ROS CUBAS, «Nafarroako toponimia xehearen azterketa», *Euskaltzaindiak Lizarran*, hiriarren 9. mendeurrenaren karietara, 1990ean antolatutako III. Onomastika jardunaldietan aurkezturiko komunikazioa.

<sup>102</sup> Gutunetan ez da honelako informaziorik azaltzen, gutunetan detaileak eta bestelako kontuen berri ematen baitzion Uriartek, baina ez omen zizkion inkesten emaitzak horren bidez jakinarazten. Egin zituen itzulpen guztiak eta bestelako inkesta eta lanak, beste bide batetik helarazten bide zizkion. Hainbat gutunetan, eufonien kontua aipatzen da, bereziki 1861ko gutun batzuetan, baina ez dago hor herri bakoitzeko eufonien detailerik, *Arratiano* zeritzanekoak baino ez, Mendebaldeko barietateetatik.

<sup>103</sup> *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes, comprenant les règles de la prononciation, de l'accent tonique et du changement des lettres; suivie de la loi de l'affinité ou harmonie des voyelles, et précédée d'une nouvelle classification des dialectes, sous-dialectes et variétés de l'euscara. D'après de nombreux renseignements pris sur les lieux en 1856, 1857, 1866 et 1867. Par le Prince Louis-Lucien Bonaparte.* 26 cm-ko 6 orri solte dira. C. González Echegarayren katalogoan 16. zenbakia daramana. Ikus, orobat, Pedro de YRIZAR, *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probinziaza, Donostia, 1981, II. tomoa, 249. or.

ko herriek, Arrankudiaga eta Laudio izan ezik, egiten zituzten eufonia berdinak egiten zituela aditzera ematen. Arrigorriagako barietateak, Arratiakoarekin batera, Mendebaldeko azpieuskalkiaren barruan bazegoen ere, eufoniak Erdialdekoen moduan egiten zituen, hau da: *alabie, semie, mendije, astoa, burue*; Gernika eta Zornotzan bezala, alegia. Otxandion berdin egiten zen, *burube* salbuespenarekin.

Genitibo singularraren kasuan ere, Arrigorriagako barietatea eta bertako herrien detaileak aipatzen dira gutun batean<sup>104</sup>, baina ez da Barakaldo ageri. Gernikaldeko eta Durangoko *Aitieren, Semieren* formen ordeztu, *Aitien, Semien* jasotzen da Otxandio, Zornotza, Galdakao eta Bilbo inguruetan; baita Basauri, Arrigorriaga eta azken honen inguruetan ere. Hauxe da, beraz, Barakaldorako ere suposatu behar duguna.

### 1.5. Barakaldoko kerizea duztia da mantekea

Topikoa dugu, nahiz eta pisuzko frogarik inoiz ez den aurkeztu, herri edo inguru elebidunetako euskararen pobretasun eta nahas-mahasa. Nekazal herri euskaldun bateko eta hiriburu elebidun bateko hizkuntzen artean alde nabaria dagokeela ukatu gabe ere, esan nahi dugu ez dela azken hauetan euskal pidginik<sup>105</sup> aurkitu, ezta pidgin itxurako edo berriro *tertium quid* izenda genezakeen ezer. Hor ditugu, besteak beste, Eibar<sup>106</sup> eta Bermeoko euskara txarto famatuen adibidea, gerora Markinako edota Tolosako ondo famatuei zer inbidiatu askorik ez dietela frogatu dutenak.

Zabaldua da fama txar hori Bilbori buruz<sup>107</sup>, esaterako, baina Mikoletak, Mi-

<sup>104</sup> 1861eko uztailaren 7an Bermeotik bidalitakoa, 104. zenbakiduna.

<sup>105</sup> MITXELENak ematen digun karakterizazioak lagun diezaguke Barakaldon aurkitu beharko genukeenaren diskriminazioa egiten: “*Para que el deterioro o desnaturalización de una variedad lingüística llegue a ser sentida sería preciso que el cambio fuera rápido, además de profundo, de modo que en el transcurso de dos o tres generaciones el idioma llegara a ser otro de lo que en un principio era. En cuanto a la profundidad, nadie sabe cómo podría medirse su grado o cuáles son cualitativamente las zonas vitales. / Se podría, piensa uno, llegar a una especie de pidgin si se fuerzan las circunstancias, pero también en la mezcla hay reparto de papeles, de ningún modo confusión*”, L. MICHELENA, «Lingüística inmanente y lingüística trascendente», *ASJU XVIII*, 1984, 260. or. Eta honelako euskal pidgin baten benetako eitea ikusteko euskaldunek Islandia aldetik baliatu zutena dugu. Aparteko ereduia dugu euskal arrantzaleek erabilitako hizkuntza frankoak, orain G. H. DEEN eta J. I. HUALDERen eskutik bilduak, *Basque Pidgins in Iceland and Canada*, ASJUren gehigarriak XXIII, 1991.

<sup>106</sup> “*Cure denboran Eibarko euskararen gainean ere halakoak entzun izan ditugu. Ori da trigoak maduratzeko denbora prezioso, eta abar, baina nik ezagutu ditudan Eibarko euskaldunek oso ondo hitz egiten dute euskaraz eta ez dute halakorik esaten*”, Alfonso IRIGORYEN, «Bilbo euskal arloan eragile», *Euskera XXVIII*, 1983, 60-61. or. baita ere: «Bilbao jatorriz hiri euskalduna izan da», in *I. Jar-dunaldiak Soziolinguistikaz*, 19. or. Aitor Ortiz de Pinedo lankideak “*solearen kaloreak trigoak maduratzeko ditu*” aldakia ezagutarazi digu. Azken honetan oso agerian geratzen da asmakizun petrala dela, lexema horiek guztiek euskarazko forma gardena baitute Eibarren. Gainerakoa, egitura morfosintaktikoa alegia, euskara jatorrean dago, benetako pidgin batean gertatzen denaren kontrara, euskara beti izan baita horietan zordun eta menpeko, aurreko oharreko Mitxelenaren hitzek argi utzi bezala.

<sup>107</sup> “*Su vascuence no ha sido muy celebrado, por razones fáciles de comprender, por los buenos hablantes y escritores vascos. El autor de un catecismo inédito, compuesto a fines del siglo XVIII, apunta con ironía que los bilbaínos hablan una especie de tertium quid que no es ni vascuence ni romance*”, Luis MICHELENA, «Prólogo», in *Lexicón Bilbaíno*, 5-6. or. Katekima hau *Elgoibarko* deituraz ezagutzen zena da, antza denez J. A. MOGELena, *Cristaubaren Icañabidea edo Doctrina Cristiana*, zeinen edizio kritikoa sarrera interesgarri batez Luis VILLASANTEk prestatu baitzuen, Euskararen Lekukoak 14, Euskaltzaindia, 1987. Katekimako testuak honela dio: “*Nada quiero hablar sobre la pureza de la lengua. Es preciso confesar ingenuamente, que está menos alterada en lo común de Vizcaya (no hablo de Bilbao, por que parece que aquí se esmeran en sacar un terciumquid de la lengua castellana, y la bascongada, como allá algunos Israelitas con la hebrea, y la Babilónica). Hablo pues de otros lugares, donde tal vez no saben aun el comercio de las gentes*”, 90. or.

txelenaren kalifikazioa gorabehera<sup>108</sup>, erakusten digun hizkuntza ez da bereziki pobre edo nahasia, ematen digun testua itzulpena dela eta bertan euskaraz izen berezirik izan ez duten hainbat objektu edo gai darabiltzala kontuan hartuta. Hila-beteen izenez<sup>109</sup> dioskunak argigarria badirudi ere, gogoratu beharra dago gaur egun behintzat orokorra dela hori, baita inguru menditsu eta euskaldunenetan ere. Eta kalea eta baserria bi mundu ezberdin direla jakinik ere, komeni da gogoratzea Bilboko baserrietan<sup>110</sup> egiten izan den eta oraindik entzun daitekeen euskara ez dela bereziki higatua, inguruko herrietakoaren oso antzekoa baizik.

Zoritxarrez, Barakaldoko euskararen arrastorik ia bat ere ez daukagu, heldu zaizkigun informazio guztiak, Tomás LÓPEZ geografoarena eta beherago aipatze-koak ditugun beste gutxirena salbu, egoera soziolinguistiko soilari buruzkoak baitira, baina fama txar hori bazuela badakigu, eta fama txar hori Txorierrri aldean zabaldua zela ere bai, seguraski auzokideak zituen Erandiotarren artean bereziki.

Barakaldoko euskarak, *mezclado y nada puro* kalifikazioa jaso zuen XVIII. mendearen amaieran<sup>111</sup> eta handik ehun urtera, hilaginean zegoela, *Barakaldoko keri-zea duztia da mantekoa* burlazko erretra<sup>112</sup> merezi zuen. CALLE ITURRINoren hitzak<sup>113</sup>, aurrekoak baieztatzen badatoz ere, ez dirudi oso kontuan hartzekoak direnik, iturririk eta oinarrikerik gabe, eta postulatu duen etimologia hibrido bitxi

---

Landu-ciorena ere beste adibide bat izan daiteke, baina Gasteizkoa edo izatea, hipotesi bat baino ez da, alde zaharretan hala nolako euskara darabil-elako formulatua hain zuzen ere. Arabatik atera gabe, Uriartek Bonaparteri bidalitako gutun batean (125. gutuna, 1862koa, Juan RUIZ de LARRINAGA, *op. cit.*, 430. or.) “*El bascuence de Barambio está corrompidoísimo*” dio, baina hurrengoan, aurrekoa arretuz: “*fuera del eco o tonillo y de algún raro término, que puede calificarse de barbarismo o brusco, no se diferencia del de Orozco*”, *ibid.*, 433. or.

<sup>108</sup> “*Sabemos mucho de esta lengua criolla gracias al doctor Rafael de Micoleta*”, L. MICHELENA, *op. cit.*, 6. or. Errederiarra-zen zoritxarreko baieztatzen honek A. IRIGOYENen gaitzespena jaso zuen (“*errakuntza nabarmen bat izan zuen*”, *op. cit.*, 13. or.) eta berak beti ukatu zuen antibilbainismo halako fama bat eman zion.

<sup>109</sup> MITXELENak (*op. cit.*, 6. or.) Mikoletaren aitoren hau nabarmentzen du, baina ez digu esaten F. Mendietak, hau ere bilbotarra baitzen, euskarazko forma bat darabilkigula bere pintura famatuan: “*Au da nola milla ta laueun ta yruoguetaa-masei urteetan Garagarrenen ogueta amargaren egunean erregue jaun Fernando bostgarrena guernicaco ardolen bean bizcarrari confirma-du eguinezan euen foruac ta eurac bera jauntac ecutea*”. Hilabeteen izenen egungo erabileraz, ik. Ander ROS, «Lexikoa», in *Euskal Dialektologiaren Hastapenak*, 2. edizioa, UEU, 1987, 538. or.

<sup>110</sup> Egia esan, baserri horiek Bilbokoak bete-betean izan ez diren bi alde berezitakoak dira, Begoñakoak eta Buja-Zeberetxe ingurukoak. Begoña, alde erdaldunenak kenduta, ezaguna denez, XX. mendearen bigarren laurdenetik aurrera bakarrik izan da Bilbo. Bestaldetik, Bilboko lau Artigak –Buja, Zeberetxe, Beteluri eta Ortzekauko– antzinatek egon dira Bilborekin loturik, baina izatez Arrigorriagakoak izan dira, oraindik orain edo oraintsu arte, eleizak izan diren edo diren bezala. Bilbon auzotzatuturik zeuden baserri batzuen statusa, nola ez dakigula, orokortu eta gailendu egin zen eta Bilbo barruan geratu ziren auzo hauek. Giza harremanak ere, Arrigorriaga aldera begira izan dituzte beste inora baino gehiago. Sabino Aranaren amaren aldetiko aitua, Benito Goiri Urizar, Bujakoa zen, “*de Buja-Arrigorriaga*” Ceferino de JEMEINen hitzetan, *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabín e Historia Gráfica del Nacionalismo*, Juventud Vasca de Bilbao, 1935. Beraz, ez da zuzena I. GAMINDEK honetaz dioskuna: “*Alderdi hau beti izan da Bilbo beronen sorreratik gora*”, «Bilbo eta euskara 700 urte geroago», in *Euskara Mintzatuaren Erroak*, EHU, Donostia, 1998, 105. or. Bilbok lehenagotik irentsita zeukan Abandon ere baziren baserriar euskaldunak, eta oraindik bada bakanen bat euskalduna dena, baina hemen euskara azken-azkenetan dago.

<sup>111</sup> Tomás López geografoari bidalitako informazioan, ik. 2.3.4. puntua.

<sup>112</sup> R. M<sup>a</sup>. AZKUE, *Euskalerraren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco*, III, 2.<sup>a</sup> ed., Espasa Calpe, 1969, 141. or., 1.530. erretra.

<sup>113</sup> “*Solamente vizcaínos de la margen derecha del Nervión hablaron en tiempos remotos un vascuence exento de influencias y dicción románicas (...) El vascuence de las Encartaciones estuvo en todo tiempo contaminado de influencias, innovadoras o trastocadoras, románicas*”, *Apuntes para una Historia de Baracaldo*, d.g., 6. or.

bat justifikatze aldera idatziak baitira. Saio hori idatzi zuenerako aspalditxoan iraungia zen Barakaldoko eta, batez ere, ahotan hartzen duen Enkartzioetako euskara eta ondorioz gauza idatzi gutxi aurki zezakeen horretaz.

Azkuek, bildu zuen erretrauz “*corrió mucho este dicho, hace como un siglo, para con su mantekaa guasearse del vascuence de los barakaldeses*” informazio baliagarria gaineratu zuen. Hitzek hitzeko interpretazioa erraza ez bada ere, ez dirudi behintzat, Gotzon GARATEK<sup>114</sup> ematen diona guztiz zuzena denik. Pentsa liteke mantekaren erreferentziaz euskara mordoiloa sinbolizatu nahi bide dela, beste askotan *bentanie* edota *zapatu-domeka* hitzen bidez adierazi nahi izan den legez. Izen hori presezki aukeratzea, aitzitik, harrigarria egiten zaigu, eta bakarrik espero izango genuke horren orde euskarazko beste hitz ezagun eta jator bat zerabiltenen ahotik, beste la xoxo eta belearen artekoarena gertatzekoa baitzegokeen. *Manteka* hitza ez da euskaraz usu erabiltzen den horietakoa, ezta euskaraz orde euskaraz garbirik duen horietakoa ere. *Manteka*, eta *mantekilla* bereziki, hitzetik hortzera erabili izan dira euskaraz, hiztegiek nekez jaso badituzte ere. *Gurina*, jakina denez, eskolan ikasia dugu berau ezaguna dugun euskaldun gehienok. *Manteka* hitza, hala ere, hitz anbiguo da eta dituen adiera ezberdinen artean *gantza* edota *koipearena* dugu bat eta hitz horiek bai ezagunak eta erabiliak izan dira, baita, seguraski, Barakaldon bertan ere, ez baita ahaztu behar *koipelustre* erdaraz ere erabilia izan dela.

Jon JUARISTIK transkribatzen duen *La caza del chimbo* kanta batek<sup>115</sup> honela dio:

*¡Ene, que chimbo!*  
*Mírale.*  
*¿Burlas me haces?*  
*Tírale.*  
*¡Pum...! ya cayó*  
*¡Qué mantecasas!*  
*Ni en serdo hay trasas*  
*Más gordas, no.*

José de ORUETAK ere<sup>116</sup>, txinboaren identifikazioaren xerka, *hortelano* txoriaz ari dela, *tiene mantecas al cebarse diosku*. *Manteca*, beraz, edozein animalia edo fruituren mami edo muina dugu, bereziki goxoa irizten zaionean; haragia ez beste dugu, soberakoa baina, hala ere, goxo eta tentagarria. Honek azalduko luke madari mota biren izena ere izatea *manteca*<sup>117</sup>.

<sup>114</sup> “Joan zen gizaldian barakaldotarren euskarari, maxiatzeko, manteka esaten zioten”, 27.173. *Atsotitzak*, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Bilbo, 1998, 134. or., 1.943. erretraua.

<sup>115</sup> Unamunok aipatua da eta 1826. urte inguruan Ciórraga gasteizarrak idatzia omen da, J. JUARISTI, *op. cit.*, 96. or.

<sup>116</sup> *Memorias de un Bilbaíno, 1870 a 1900*, San Sebastián, Nueva Editorial, 1929, 16. or., J. JUARISTIK aipatua, *ibid.*, 103. or.

<sup>117</sup> “Entre otras muchas peras hay quatro especies de las aguanosas fundientes muy regaladas, á saber: la manteca, la doyená ó manteca blanca, la enguindo y la bergamota”, Vicente GÓNZALEZ ARNAO, «Vizcaya», in *Diccionario Histórico-Geográfico del País Vasco, sección I, tomo IV*, 1802, 487. or.

Hauek honela, konparazio ironiko bat baino ez bide da mantekarena. Barakaldoko gerizak<sup>118</sup>, oraindik gorde duten oso fama onekoak ziren eta goxotasuna adierazteko manteka erabiltzen da, konparazioaren termino moduan: *más ricas que la manteca!* Horixe da Regatoko andreen ahotan ezartzen den erreklamo<sup>119</sup>. Barakaldoko gerizak onenen fama izatea gehiegikeriatzat eta inbidiaz hartu behar zuten txorierritarrek, ordainetan Barakaldokoen euskarari burla egiten ziotelarik. Modu ironiko batez, bada, gerizen exagerazio hori asmatu zuten, beharbada bide batez erdararen erabilpena sinbolizatzen zuelako. Kontua da fama hori bazutela, eta inongo kerizak onenak eta goxoenak direla esatea exagerazioa den bezala, exagerazioa zatekeen Barakaldoko euskararen kalitate faltarena, ziurraski biek, kerizen onurak eta euskararen pobrezia, arrazoiaren alde bat merezia bazuten ere.

Esan bezala, ez dakigu zer nolakoa zen gaitzespena edo ixeka eragiten zuen euskara hura, geuk zoritxarrez, ez dugu iritzi bat osatzeko nahikoa den gutxieneko laginik ezagutzen. Horren faltaz, beharbada aipatuena dugun Bilbokoa izan daiteke Barakaldorako imajinatu behar dugunaren irudi ona, Barakaldorako materialik aurkitzen ez dugun bitartean, behintzat.

Lehenik eta behin, gogoratu behar da Bilbo ez dela inoiz euskalduntasunaren inolako ereduia izan, hiriburutik oso urruti ibili direlarik beti literatur hizkuntza ereduak. Koldo ZUAZOK<sup>120</sup> Bilbo erdaldundurik egoteari egozten dio Bizkaiko literatur hizkuntza sortzeko orduan batasunik ez izatea. Egia da, esan dugun bezala, Bilboko euskarak ez duela inoiz prestigiorik izan, baina Añibarroren garaian artean ere Bilboko herri xehea, neurri batean<sup>121</sup> euskalduna zen, gogoratu baino ez dago Añibarrok berak herri euskaldunen zerrendan sartzen duela Bilbo eta literatur hizkuntzaren lehia horretan buru dugun J. A. MOGUELe berak ez du hiriarren euskalduntasuna ukatzen<sup>122</sup>, baina bai bere euskararen kalitatea. Mikoletaren

<sup>118</sup> Honela famatzen dizkigu TRUEBAK: "Para sardinas, Santurce, / para guindas, Baracaldo / y para vomperse el alma, / los adoquines de Ascao", *El Noticiero Bilbaíno*, 1885/6/21 eta beste batean ere: "Sólo conocía yo el Regato como tantos otros bilbainos por la fama de sus truchas y de sus guindas, cerezas y melocotones", *ibid.*, 1885/7/10. Aipamen biak José Antonio EREÑO ALTUNAK bilduak: op. cit., 205-06. eta 230. or. Carlos IBÁÑEZek ere poema bat baino gehiago idatzia du gerizen aipamenekin, hona bat Beurkokoiei buruz: "... / las higueras y cerezas / sólo son una añoranza / de aquél Beurko querido / al que canto mi semblanza", *Historia General de Baracaldo*, Librería San Antonio, Baracaldo, 1991, 142. or.

<sup>119</sup> *Más rico que la manteca* klitxea oso zabaldurik dago Barakaldotik kanpo eta ez gerizak bereziki erreferitzeko, bestetan *más bueno que el pan chosne* esaten denaren pareko baizik.

<sup>120</sup> "Lapurdin Donibane-Lohizumek eta Gipuzkoan Donostiak bete zuen eginkizuna, ezin izan zuen Bizkaian Bilbok bete, hain zuzen ere erdaldundurik zegoelako orduko. Hiribururi baten erreferentzia ez izateak, idazle bakoitza bere herri edo eskualdeko hizkeraz baliatzea ekarri zuen", «Euskararen egoera Bonaparte-ren garaian», *Jakin* 66, 1991, 27. or. Informazio sendoagoaz, MITXELENak ere adierazia zuen hizkuntza standarrerako indarren koerlazioan Bilboren pisurik eza, baina ez XVIII. menderako, XX. mendeko baturako baizik: "El vizcaíno es marginal y el único factor que habría podido neutralizar esa situación excéntrica, es decir, que Bilbao fuera una población vasca de lengua, no se da. Las raíces vascófonas de Bilbao, que no son tan remotas, son indiscutibles. Pero el Bilbao de la expansión, el de la gran transformación económica, ya no es euskaldun en proporción bastante", «La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco», in *Historia y Lengua*, 226. or.

<sup>121</sup> Orduko eta geroagoko kronista asko, Humboldt eta Reclus besteak beste, ditugu XIX. mendeko Bilbo euskalduna ezagutu zutenak.

<sup>122</sup> XIX. mendearen amaierarako artean populazioaren laurdena, *lautarik bat*, bide zen euskalduna, A. IRIGOYENek («Bilbo eta euskara», *Euskera* XXII, 1977, 386., 409. or. eta «Bilbao jatorriz hiri euskalduna izan da», 26. or.) gogora dakarkigun Azkueren *Euskalzale* aldizkariako «Euskerea Bilbon» artikulua izengabearen arabera.



garaian ere, ez zuen euskara honek aurrerabiderik izan eta Mikoletaren *Modo Breve* isolaturik ageri zaigu, Bilboko euskararen isla, isla zentzu bikoitzean ulertuta. Orduan ere, Bizkaiko ekialdeko euskarak hartu zuen pisu handiagoa, ez baitago zalantzan jartzerik Kapanagak, esaterako, Mikoletak baino askoz ere hizkuntza eredu standarizatuagoa agertzen digula. Eta abadeez hitz egiten jarrita, esan behar dugu Bilbok honetan ere izan omen zuen gabeziak izan zezakeela behar-bada eraginik<sup>123</sup>, Julio Urquijok asmatzen badu eta K. W. von Humboldt zuzen badago, behinik behin. Galdera Durangora ere zuzen liteke, ea zergatik ez ote zuen bertako euskara onak aurrerabiderik izan literatur hizkuntzan, eta erantzuna, galdera bezala, Blanca URGELLEk<sup>124</sup> ematen digu: sortutako obren zabal-kundearen aldetik inongo eskolak ez zuen Markinakoak besteko arrakastarik izan, eta horretan ez da merkea beranduago Bonapartek egin hautua.

Moguelek bilbotarrei egozten dien “*Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten*” esaldiak<sup>125</sup> aztarna batzuk ematen dizkigu. Hasteko eta bat, esan behar da esaldi horrek islatzen diguna euskara dela eta ez pidgina, Mitxelenak aipatu funtzioen banaketari kasu egiten badiogu. Morfologia euskara hutsezkoa du, euskara arruntekoa, baita, antzeman daitekeen neurrian, fonologia ere. Lexiko arlorra mugatzen da, bada, hizkuntzaren pobretasun edo nahasketa, eta hemen ez ere ez da dirudiena bezain narrasa. Izan ere, *Plaza* lexema zabala dugu Euskal Herri osoan, Mogelen Markinaldean oso zabaldua deitura gisa, esaterako, edota toponimian, *Plazakola* bertako bidegurutze ezaguna lekuko. Litekeena da *toro* hitza erabili izana Bilbon<sup>126</sup>, baina nekez sines dezakegu *manzania* erabiltzen zenik guztiz orokorra den *sagarra* hitzaren orde. Mogelena, beraz, gehiegikeria eta trufa date-

<sup>123</sup> “*Si la preeminencia del vascuence de Sara se ha debido, como se ha hecho notar en un trabajo reciente, más que a sus condiciones intrínsecas, al hecho de haber sido párroco de aquella villa el autor del Guero, es probable no sean ajenos a este juicio, los trabajos de Moguel*”, J. de URQUIJO, «Bilbao visto por dos extranjeros», *RIEV XIV*, 1923, 152. or. “*En Bilbao sociedad menos agradable y menos literaria que en Vitoria. Menos ilustración del clero que en Durango y Marquina. Consecuencia del comercio*”, K. W. von HUMBOLDT, «Diario», *RIEV XIV*, 1923, 219. or. Hemen berriro ere Mogelen azpilana ikusten da, izan ere, Mogelen beraren Xemeingo parrokiari erdaraz arituak ziren luzaz, hariak eta Apezpikutegetik euskaraz egitera behartu zituzten arte, A. Irigoyenek jakinarazi eta L. Villasantek gogoratu digunez. Euskararenganako atxikimendu eza ere orokorra omen zen Bizkaian: “*Biak [Moguel eta Añibarro] dira euskaltzaleak, biak adiskide minak, eta eskolatuen artean euskaraganako nabari den axolarik ezaz, zabarkeriaz eta ezjakintasunaz arrenkuratzen dira*”, L. VILLASANTE, *op. cit.*, 14. or.

<sup>124</sup> “Literatur bizkaieraz: Añibarroren Esku-liburua”, *ASJU XIX*, 1985, 65-117. or.

<sup>125</sup> “*Y no se trata de hacer chistes sobre aquel tertium quid que hablaban los bilbaínos y que el vizcaíno Juan Antonio Moguel, en 1800, caracterizaba con esta frase: «Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten»*”, L. MICHELENA, *op. cit.*, 226. or.

<sup>126</sup> Litekeena dela diogu, baina, *sesena* da BELAUNDEK 40 urte geroago bere *Comedia aldeana* aipatuan darabilen hitza: “*En el tarde novilos / corriendo plaza están / amuchos hascogido / diabruen sesena*”. Arriagak, bestaldetik, egun ere ezaguna den *sesensuco* ematen digu, Donostiatik inportatua dela aitortzeaz batera. Bujan, eta Begoñako baserrietan ere, *zezen* da egun oraindik erabiltzen den hitza, Bujan *toro*a inoiz kanpokoei entzunik daukatela esan badigute ere. Cosme Belaunde, gogoratu behar da, ez zen baserritarra eta euskara ez bide zuen, bere aitortenez, behar bezala ezagutzen: “*Confieso que soy el más pobre de todos los vascos para producirme en este rico y dulce lenguaje; pero vivo en la esperanza de que mis queridos paisanos disimularán mis muchas y notables faltas*”. Abandokoa zen, baina familia, aita behintzat, Urduña aldekoa. Alfonso IRIGOYEN ere iritzi berekoa genuen, Mikoletak *sesena* dakarrela gogoratu eta *toro*a Bizkaian hain arrotza ez dela adierazten digunean: “*Bizkaian badira toro eta zezen, biak erabiltzen dituztenak, noiz nola*”, «Bilbo euskal arloan eragile», *Euskera XXVIII*, 1983, 61. or, baita ere: «Bilbao jatorriz hiri euskalduna izan da», in *I. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*, 19. or.

ke<sup>127</sup>, bere markinatartasunaren harrotasuna kontrastez nabarmentzeko modua. Ez dugu ahaztu behar, Eibarren jaioa izanagatik, Markina hartu zuela adopziozko habia, eta bertako euskara erabili eta famatu, eta ez berezkoa, edo jaioterrikoa, zuen eta gutxietsirik geratuko zen Eibarkoa.

Ez dugu ahaztu behar, bestaldetik, HUMBOLDT, Markinako euskararen<sup>128</sup> eta Markina eta Durangoko kleroaren onurak aipatzen dituenean, Mogelegin adiskidetu<sup>129</sup> berria zela. Bilboko euskara<sup>130</sup> deskribatzen digunean ere, Mogelen ahotik ari dela dirudi. Izan ere, hizkuntza ezagutzen ez duen pertsona batek nekez eduki dezake hizkuntza horri buruzko ezaguera zuzen eta sakonik, Humboldttek berak aitortzen duenez. Litekeena da, beraz, Bilbokoari buruz aurreiritziren bat edukia.

Urte horietan GONZÁLEZ ARNAOK euskara Bizkaian –Enkartazioak alde batera utzita, jakina– euskara jende xehearen hizkuntza bakarra dela diosku, Humboldttek gogoan zituen baserritar eta menditarrena alegia. Hau egiaztatzen duen hainbat testigantza<sup>131</sup> ematen digute Fidel SAGARMINAGAK eta Darío de AREITIOK, XIX. mendearen lehen erdi osoan behintzat. Madozek gauza bertsua idazten du Bilbori buruz, baina González Arnaori hartutako hitzak dirudite. Élisée RECLUS geografo jakintsuak, alabaina, gure artera etorri zen, Humboldttek egin zuen bezalaxe, eta ondorio berberera<sup>132</sup> heldu: gaztelania nagusitzen ari zen eta euskara desitxuratzen,

<sup>127</sup> “El vascuence de Bilbao, por otra parte, fue calificado de tertium quid y ejemplificado de modo no muy encomiástico por Juan Antonio Moguel: esas ‘ilustraciones’ propenden a lo grotesco y exagerado, pero una caricatura, para ser buena, tiene que reflejar algo, y aun mucho, del modelo”, L. MICHELENA, «Lingüística immanente y lingüística trascendente», *ASJU XVIII*, 1984, 263. or.

<sup>128</sup> Julio URQUIJOK Mogeldarreganako zorra azpimarratzen du, Humboldttek Markinako euskara 1801erako jadanik oniritzia zela dioskula gogoratzeaz batera: “Humboldt escribe ya, sin embargo, en 1801, «A Marquina se considera el pueblo donde quizás se hable vascuence más puro», op. cit., 152. or., oin-oharra. Mogeli merezimendurik kendu gabe ere, gogoratu behar da fama ona, baita Durangokoak ere, lehenagotik ere bazuela, hazia ereinik bai behintzat; hona, bestela, LARRAMENDIren hitzak: “... y en que guardando el Dialecto Bizcaíno, hablan muy dulcemente, y con gusto, como en Marquina, y Elorrio, y lo he experimentado –eta kontrastez nabarmenago gera dadin- Aunque en Bilbao se habla mal”, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, Prólogo, xxviii. or.

<sup>129</sup> “Humboldt-ek, jakina denez, har-emanak izan zituen Mogelegin. Haren eskariz egin zituen honek Versiones Bascongadas direlakoak. Baita Lelo-ren kantu famatua ere Mogeleg eman zion Humboldt-i eta gero honek argitaratu egin zuen”, L. VILLASANTE, *ibid.*, 22.or.

<sup>130</sup> “Pues por el continuo tráfico con forasteros ha desalojado las costumbres patrias, que sólo se pueden buscar en el campo y en la montaña, y hasta el idioma es en alto grado impuro, y mezclado con castellano”, «Los Vascos», 391. or. MOGELEK behin baino gehiagotan aipatzen du atzeritarrekiko trafikoa, –“el comercio de las gentes”–, eta, kontrastean komertzio honetatik libro, jatorrizko euskara mendi zokoetan eta baserritarren gordailuan egotearen ideia: “Habita como desconocido en los bosques y casas solitarias, y es más que cierto que nuestros rústicos montesinos lo saben y hablan maravillosamente y sin alteraciones que se notan en la gente que debía de ser su depósito. Y se puede decir aquí: Rusticus ab normis, sapiens crassaque Minerva”, Vargas Ponceri bidalitako gutuna, VILLASANTEk aipatua, op. cit., 23. or.

<sup>131</sup> Hainbat eta hainbat kasutan bandoak euskaraz emateko beharra azpimarratzen zen, herri gutzia esatekoaz jabetuko bazen. Arrazoi berberengatik, Diputazioan ere langileen erdiek gutxienez euskaldunak behar zuten izan orduan, etab.

<sup>132</sup> “En torno del euskera, como alrededor de todos los dialectos hablados en Francia, el límite ideal permanece el mismo, y, no obstante, la lengua perece. Modificada por un fenómeno constante de intususcepción, se mezcla con palabras de origen extraño contrarias a su genio, pierde sus giros elegantes y busca a acomodarse más y más al espíritu de los extranjeros que acuden a establecerse al país; pierde sin cesar su originalidad y se transforma gradualmente en jerga”, op. cit., 71. or.

*jerga* bihurtuz. M. RODRÍGUEZ-FERRER-ek<sup>133</sup> ere, Reclusek idatzia aurrean duela, datu biak ematen dizkigu: euskara hizkuntza nahasia da eta herri xehearena, erre- gistro jasorik nekez darabilen jendearena, hain zuzen ere. Erregistro zabarrei erraza- goa da, jakina, nahasi eta pobre iriztea, hizkuntza bizia eta zaindugabea erakusten dutelako. Horretarikoak dira hizkuntzaren bizitasuna erakusten duten fonetismoak, solezismoak edo lagunabarrekotzat eduki diren baliabideak, hitanoko tratamendua, esaterako, bai Mikoletak bai egungo Bilboko egungo baserritar euskaldunek erabilia.

Gauzak argiago ikusten has gaitezke orain, Reclusek aipatzen digun *jerga* eta TRUEBAk mingainean darabilen *jerga ininteligible*<sup>134</sup> bat direla egiten badugu. Reclus euskarari buruz ari da eta Trueba, berriz, gaztelaniari buruz; hortxe egon daiteke giltzarria. Susmoa dugu, eta susmoa ondo oinarrituta dagoelakoan gaude, Bilboko euskara karikatuzatua, eta berdin pentsa dezakegu Barakaldokoaz ere, ez dela Unamunok eta bestek hitzetik hortzera erabili zuten *Bilboko dialektoa* edo *habla aldeana* baino, baserritarrek mintzaturiko gaztelania mordoiloa, alegia. Alfonso IRIGOYENek ere garbi ikusi zuen<sup>135</sup>, eta *tertium quid*, *pidgin*, *criollo* edo dena delakoaren existentzia deplauki ukatu; euskara eta erdara bakarrik zeuden Bilbon, lurraldeko beste hainbat herritan bezala, ez erdibideko besterik. Erdibi- deko kontu bakarra, hola deitzerik badago, hizkuntza baten azpian bestea egotea da, baserritarren kasuan euskara zegoen azpian<sup>136</sup> erdaraz egiten zutenean ere, egun gertatzen denaren kontra. Bestela, oso ondo bereizten dira hizkuntza biak, indefinitorako lekurik gabe, A. IRIGOYENek Bermeokoaz<sup>137</sup> esan bezala.

Cosme de BELAUNDEK<sup>138</sup> inork baino hobeto ezagutarazi zigun mintzaira

<sup>133</sup> “En esta última capital [Pamplona], como en la de Álava ya nombrada, y Bilbao, no se advierte sino muy mixturado y sólo en sus últimas capas sociales”, *Los Vascongados. Su País, su Lengua y el Príncipe L. L. Bonaparte*, Madrid, M. Martínez, 1873, 69. or.

<sup>134</sup> “En Bilbao predomina el castellano, pero fuera del recinto de la villa, es generalmente la lengua familiar del pueblo. El castellano de la gente ordinaria de Bilbao y sus arrabales es una jerga poco menos que ininteligible para los que no están acostumbrados a oírla. (...) A chuchu de chirloras, sospales y mucurres arrapar hase”, *Cuentos de Vivos y Muertos*, 1865, *Obras Escogidas*, Editorial Rubiños, 167-68. or. J. A. EREÑOOk aipatua, op. cit., 88 or.

<sup>135</sup> “Delako tertium quid horrezaz esan beharra dago kanpoko norbaitek pentsa dezakeela Bilbon hizkuntza criollo bat egiten zela eta ene ustez hori errealtatetik urrun legoke. (...) Nire ustez euskararekin gauza bat gertatzen da: edo jakiten da, hobeto edo gaizkiago, edo ez, baina ez dago criollo delakorik”, «Bilbao jatorriz hiri euskalduna izan da», 19. or. Berrikiago, gaia sakonago aztertuz, M.<sup>a</sup> T. ECHENIQUEK ondorio bera ateratu du: “No ha habido una lengua criolla en sentido estricto, aunque sí un contacto muy intenso”, op. cit., 142. or.

<sup>136</sup> “Beste alde batetik erran behar da Emiliano Arriaga-ren liburu goian aipaturikoan del bilbaino neto delakoaren azpian egiten diren erdarazko aipamen mendearen azkenaldekoetan maiz euskara dagoela struktura sakonean, hau da, euskaldunek eginiko erdara dela”, op. cit., 27. or.

<sup>137</sup> “Bermeon ere inguruko baserrietako berbetarekin konparatuz gero euskara berezia egiten da egungo egunean ere, baina bertako hiz- tunez oso ondo dakite noiz mintzo diren euskaraz eta noiz erdaraz”, *ibid.*, 16. or., 8. oh.

<sup>138</sup> “Belaunde fue muy conocido en su tiempo como autor de ciertas descripciones de regocijos públicos, escritas en jerga vasco castella- na”, Fidel SAGARMINAGA, op. cit., 7. tomoa, 144. or., orri azpiko oharra. Obra hauetariko bat izan zen, duda gabe. Jon Bilba- ok bere Bibliographian ematen digun eta lehenengoz J. JUARISTIK aztertzen duen *La Comedia aldeana. En la que se representa en tres actos y en relación metro-chapurrada vascona las funciones celebradas en Bilbao por la paz y concesión de los fueros*, Bilbao, 1839. Holakorik idazten duen lehen aldia dela dioskun arren, susmoa badugu berarena ez ote den baita ere berrikitan Javier MADA- RIAGAK ezagutzera emandako 1826ko *Diálogo entre Bartolo Patan Vizcaino y D. Pedro Médico del Pueblo* («Habla popular vizcaína en impresos de los siglos XVIII y XIX», *Letras de Deusto* 84, 1999, 259-78. or.). Alde guztietako parekotasunak ezin erraz esta- lizkoak baitira. Belaunde, bestaldetik, ez dugu historian euskal letrerata hurbildutako “bufoi” bakarra, hor ditugu, besteak beste, Francesillo de Zuiñga eta, beste neurri eta estilo batean, Josef Xabier de Echevarría Iturrico.

berezi hau, eta ezagutarazteaz batera zertan zen azaldu zigun eta, bide batez, euskara beste kontu bat zela adierazi ere bai. Belaundek euskararekin nahasitako gaztelania humoristiko horretan<sup>139</sup> egiten du bere komedia, baina euskaraz, eta ez euskara bereziki txarrez, *zorzico* luze bat. Kontuan hartzekoa da Belaundek bere buruaz dioskuna: bera ez da idazteari ekiteko euskaldunik aproposena, hizkuntza menperatzen ez baitu eta gainera idazten duen lehenengo aldia baita. Horrez gainera, eta literatura hizkuntza ereduaz hitz egin behar dugu berriro, dialekto ezberdinen nahaste bat erabili behar duela diosku, nahiz eta gero funtsean bizkaiera, eta Bilbo ingurukoa bereziki, izan zortzikoa idaztean darabilena. Bilbok bazukeen, hiri kosmopolita izateagatik urrean, bere euskararekiko ez-axolabekeria<sup>140</sup> baino, euskara ez-lokalista baten beharraren kontzientzia, eta horretxek ere lagun dezake Bilboko euskararen ereduaren hutsarte ulertzen. Belaunderen aitorten honez gain, badugu Fermín de Basabilbaso merkatari bizkaitarrak 1683an Bilbotik Lapurdira bidalitako gutuna<sup>141</sup> eta eredu zabalago baten saioak izan daitezkeen beste adibide batzuk<sup>142</sup>, Belaunderen garaikide eta auzokoa zen Paulo de Ulibarri abandotarra bera, besteak beste.

Peña edo Ibaizabal auzoko Vicenta Etxebarrena nonagenarioak gogoratzen zigun Bilboko Erriberako azokan *bendejera* lanetan zebilela izandako elkarrizketa bitxi bat:

Eroslea:	- <i>segan piperra?</i>
Bendej.:	-[honenbestean]
Er.:	- <i>karue</i>
Be.:	- <i>tranquilla, otro día estará baratue.</i>

<sup>139</sup> Karmele ROTAETXEK («Alternancia de código: uso y restricciones tipológicas», *FLV* 80, 1999, 59-72. or.) deskribatzen dizkigun kode-alternantzien ale berezi bat genuke hau, kutsatutako edo nahasitako hizkuntza bat bakarra baino gehiago.

<sup>140</sup> LARRAMENDIK ez-axolabekeria hori egotzen die bilbotarrei, Axularren izpirituan uler dakiokelarik Bilboko euskaldunek berek dutela falta, eta ez Bilboko euskarak: «*Aunque en Bilbao se habla mal, pero no es así en sus cercanías, donde la propiedad y pronunciación se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao, si en este punto se picaran algo más de Bizcaínos: ni en esto quiero decir, que no ay en Bilbao quien no sepa bien su dialecto, pues se hallan algunos*», *op. cit.*, Prólogo, xxviii. or. Ik. L. VILLASANTE aipu honetaz eta euskaraganako bilbotarren axolabekeria horretazko beste zenbaitez, «Juan Mateo Zabala-koaren omenez», *Euskera* XXII, 1977, 364. or.

<sup>141</sup> «*Fermín de Basauihuaso, vizcaíno originario y residente en Bilbao, no escribe su correspondencia en dialecto vizcaíno. Sin duda recibió influencia de otros dialectos sobre una base primitiva vizcaína, la cual no se oculta en la carta que comentamos, a pesar de que la forma no le corresponda*», «Carta en lengua vasca dirigida en 1683 desde Bilbao por Fermín de Basauihuaso a Joanes de Callo, a San Juan de Luz», Alfonso IRIGOYEN, *Euskera* VII, 1962, 268. or. Ibon SARASOLAK kostaldeko koine bati egotzen dio hizkuntza eredu hau, testu honen oinarri bizkaitarra onartuta: «*Estas relaciones tuvieron, como era de esperar, consecuencias lingüísticas, con la difusión a lo largo de toda la zona costera de rasgos regionales, en especial en lo que se refiere al léxico y a la morfología*», «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* XVII, 1983, 131. or. Harreman hauen fruitua da, zalantzarik gabe, Mikolentaren *Modo Breve* ere, ezaguna denez, ingelesek euskara ikas zezaten pentsatua baitzen.

<sup>142</sup> Belaunderen garaikoak dira, 1826koak, Zornotzatik Otxandiora bidali ziren libelo batzuk, itxura guztien arabera Zornotzako Cipriano Larrea zirujauarenak, baina bertsoen hizkuntzak oso gutxi du bizkaierazkorik eta asko gipuzkerazkoa. Bertsook eta berauek eragin zuten auziaren gorabeherak geronek ezagutzeria eman genituen ineditoak zirelakoan («Libelo inedito batzuk Zornotzatik bidaliak», *Lanbroa* 20, 1993, 18-20. or.), baina Julio Etxebarria Zornotzako historialariak Nicolás Alzolak lehendik argitaratuak zituela jakinarazi zigun: «Otxandioko irain-idaztia euskal bertsuetan (1827)», *BAP* XXVIII, 1972, 386-87. or. eta «Otxandioko irain-idaztia euskal bertsuetan: Ulibarrire Jose Paulok gaztelarera erderatua», *BAP* XXXI, 1975, 279-80. or.

Elkarrizketa honek ondo irudika lezake Bilboko euskara nahasi horrentzat ematen dena. Gure informanteak Durangaldekoa zuen ama, erdara erdipurdiz zekiena, baina bera ez zen gauza euskaraz egiteko. Euskaraz ekiten dio azokako bezero batek eta prezioa entzunda garesti iritzita, ez erosteko erantzuna luzatzen dio. Gure bendejerak, elkarrizketa laburra ulerturik baina euskaraz erantzuteko gauza ez dela, erdaraz erantzuten dio, *karue* eta *freskue* ezagunen eredura, errima zainduz, lotsagabe *baratue* asmatuz.

Edurne Bilbao zenak ere antzeko irudia ematen digu, Peñatik gertuko *Miraflores* auzorako: bere ama, Begoñako *Azkarai* auzokoa, ez zen moldatzen euskaraz ondo egiten, ez eta erdaraz ere, dena *s* egiten zuen behintzat, eta hori, euskaldunen beste modismo tipiko batzuekin batera, erdara *mordoi*lotzat zeukaten.

Bestela esanda, bereziki euskara ia galdutako eta erdara txarto ikasitako jendeak<sup>143</sup> batetik eta euskara txarto ikasitako edo ia ahaztutakoak bestetik egiten zuena dugu hizkuntza *tortoi*lo-*mordoi*lo entzutetsua. Neurri batean trufa egiteko bidea ematen zuen<sup>144</sup> eta, Mitxelenak ondo iradoki bezala, errazegi karikaturizatzen. Karikatura horrek Bilbon, XVIII. mendearen erdialdetik<sup>145</sup> gutxienez izan zuen literaturan isla, bereziki XIX. mendean, euskararen galerarekin gorpuztu bazen ere. Ia hankapuntetan heldu zaizkigu hauetariko ale asko, orain Jon JUARISTI eta bestek<sup>146</sup> berraurkituak. Cosme Belaunde eskribaugai urduñatar-abandotarraren *Comedia Aldeana*, J. Juaristik ezagutarazitako Unamuno gazteenaren *El Cuestión del Galabasa*, J. Morotani-ren *La Ronda de Barregarris*<sup>147</sup>, *Peru el Aldeano*<sup>148</sup> eta beste hainbat ditugu hauetariko batzuk.

Pentsa dezakegu, bada, Barakaldoko euskarari buruzko errefrau hori eragin zuen hizkuntza ez izatea euskara, euskaldunen edo euskaldunak izandakoen erdara berezi eta bitxia baizik. Hemen ere, alabaina, dena dago ikertzeko. Nolanahi

<sup>143</sup> BELAUNDEK berak ematen digun azalpena argigarria izan daiteke: "... he querido imitar á nuestros paisanos que como puramente vascongados, suelen hablar el castellano por un estilo así, agradando á los que les escuchan, el particular modo con que se produce", *Comedia Aldeana*, 35-36. or. Unamunok egiten duen karakterizazioa ere bat dator honekin, ik. 51. oh.

Aitor Ortiz de Pinedo lankideak bere familiarteko baten kasuaren berri eman digu. Atso batek, erdara moldakaitz zekienak, euskaraz egiteko konplexua edo hartuta, erdaraz egiteari eman zion, edo berak erdaratatzat zeukan nola-halako hizkuntza mordoi bati, alegia.

<sup>144</sup> Beste testigantza askoren artean, Pedro NOVIA de SALCEDOrena ezin argiagoa da: "¿en Vizcaya, cuyas concordancias y enunciativas en castellano son aun hoy el hazme reir y el chiste de las bufonadas cómicas?", *Defensa Histórica, Legislativa y Económica del Señorío de Vizcaya y Provincias de Álava y Guipúzcoa*, Bilbao, 1851, Tomo II, 306. or.

<sup>145</sup> "A partir de mediados del siglo XVIII menudearon los textos escritos en esta variedad lingüística que intentaban, como se ve, remedar el castellano vulgar de las personas de condición popular de Bizkaia. La popularización de la prensa escrita favoreció a finales del siglo XIX un auge en el uso de esta variedad, del que dan fe los «Pasavolantes» del periodista bilbaíno Argos, y que fue continuado por Unamuno", Josu GÓMEZ, «La Ronda de Barregarris, análisis lingüístico de una canción popular del siglo XIX», in *Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza Gunea Sinposioa*, prentsan.

<sup>146</sup> Javier MADARIAGA, *op. cit.*

<sup>147</sup> J. JUARISTI, *op. cit.*, 59-62. or. et pass.; Josu GÓMEZ, *ibid.*

<sup>148</sup> Josu GÓMEZ, «¿Fue Unamuno el autor de *Las cartas de Peru Errotaco?*», *Letras de Deusto* 84, 1999, 197-205. or. eta argitaratara bidean gutun hauen bilduma: *Cartas de Peru el Aldeano. Una recopilación de escenas del siglo XIX, escritas en la llamada «habla aldeana» de Vizcaya*, bere *Vocabulario Popular de Bilbao* liburuan iragarria.

ere den, hizkuntzaren desagertpenaren azken pausua da, dudarik gabe, hizkuntza egoera hori, belaunaldi biren arteko eten latzaren fruitua. Barakaldon, Bilbon bezalatsu, XIX. mendean eman zen, nahiz eta hiriburuan, seguru asko, egoera konplexuagoa eta prozesua luzeagoa izan zen, gaur egun, oraindik orain, euskaldunak eta sasi-euskaldunak falta ez direlarik.

## 2. KANPOKO HISTORIA

### 2.1. Bizkaiko mendebaldeko antzinateko hizkuntzen mosaikoan

Historikoki, Enkartzioak autonomoak ditugu, Bizkaitik independenteak, eta ez dira Jaurerrian sartzen XVIII. mendea amaitu arte, prozesua aurreko mendean hasi bazen ere. Haatik, hasiera hartan, Barakaldo *Valle de Somorrostro* zeritzonaren barruan zegoelarik, goiz samar, 1384rako, bertatik askatu eta Uribeko merindatean sartu zen, horrela mugakide zuen eta gero irentsiko zuen Alonsotegi elizatera pausu batez eta lehenengoz hurreratuz. Hala ere, Barakaldok Burgosko apezpikutzan<sup>149</sup> jarraitu zuen eta lehengo jabeekiko loturak, beraz, ezin esan dezakegu guztiz hautsi zituenik. Betiere, aurrez aurre zituen Bilboko ibaiak bestaldeko herriekin<sup>150</sup> harreman estuak behar zituen izan Barakaldok.

Enkartzioetatik erauzi zen garaian, Barakaldo eta inguruko herriak, Portugaletetik eta Zallara bitartekoak, alegia, euskaldunak bide ziren; orduan bertan, ziu-rrenik, gune elebidunak falta ez baziratekeen ere. Ordurako, alabaina, Enkartzioen enparaua, Galdames Sopuertatik haranzkoa funtsean, guztiz erdalduna zen oso antzinatek, halako moldez non euskararen lorratz guztiak, inoiz izan baziren, ezabaturik baitaude guztiz<sup>151</sup>. Jakina da Delmasek, Truebak eta Labayruk Enkartzio osoen euskalduntasunean itsuki sinetsi zutela eta horiena da uste hori neu-

<sup>149</sup> “Solamente a fines del siglo XII se suscitaron dudas sobre la porción del valle que media entre Baracaldo y el desagüe del Cadagua, pues la reclamó por de su diócesis el obispo Calahorra, que lo era de Vizcaya, estando entonces en posesión del de Burgos, que lo era exactamente de todo cuanto integraba por esta parte el antiguo condado de Castilla. No pudiéndose ventilar el pleito de modo definitivo, aunque los señores de Baracaldo aparecieran en el siglo XI casi siempre entre los magnates vizcaínos y no entre los castellanos, se convino en que dicho territorio fuese un año de la diócesis calagurritana y otro, alternando, de la burgalesa”, Luciano SERRANO, «Orígenes del Señorío de Vizcaya en época anterior al siglo XIII», in *Vizcaya en la Alta Edad Media*, (1936an emaniko eta 1941ean argitaraturiko hitzaldia), Bilbao, 1976, 54. or. “Por otro lado, la huella romana, ligera pero positiva, junto a la adscripción medieval y moderna de la comarca a los límites diocesanos que la reunieron durante siglos con otras más meridionales y occidentales, burgalesas y montañesas, son algunas facetas de la personalidad histórica de su territorio”, I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *Corpus*, 17. or.

<sup>150</sup> “Se desmembró de la de Erandio debido al brazo de mar que las separaba y parece ser que también perteneció a la jurisdicción de Santurce, según se desprende de la carta puebla concedida por D.º M.º Díaz de Haro, señora de Vizcaya en 1322 a Portugalete”, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco Auñamendi*, «Baracaldo», 78. or.

<sup>151</sup> “Guk besteren aurrean esaten dugunean Nafarroako Erriberak, Kaskantek esate baterako, euskara galdu zuela eta berreuskaldundu egin behar dugula, ez gara egiaz ari; guk dakigunez eta guk ezagutzen dugun garaian Kaskanten ez da euskaraz egin; hori da egia, egia huts hutsa eta Kaskanten bezala hori bera gertatzen zen gutxi gora behera Bizkaiko Enkarterrietan, Arabako zenbait zatitan eta beste franko lekutan. (...) Euskal Herri edo Euskadi bezala gelditu den hori ez da osorik euskalduna izan azken bi mila urteotan”, in *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1981, 265. or.

rri handi batez egun oraindik bizirik egotearen merezimendu edo errua<sup>152</sup>. Kontestu honetan kokatu behar dugu J. M. SASÍAk berpizturiko eguneko polemika antzua<sup>153</sup>, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordetik hanpaturikoa eta Etxebarria Mirones anaiek sutzuki ihardukia. Ustekizun zahar hori salatuta, I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA irakasleak ezarri ditu, eska daitekeen errigor zientifiko osoaz, gauzak bere lekuan<sup>154</sup>.

J. M. de SASÍAk, erbestetik eta gutxieneko baldintzarik gabe jardun du aurreko mendeko erromantikoen iritzi hau berpizten, baina inolako bermerik ez duten datu eta metodologia erabili zituen lehen<sup>155</sup> eta jarraitu du orain ere<sup>156</sup> erabiltzen, datu horien gaineko edozein hipotesi berez suertatzen delarik ahul<sup>157</sup>.

Euskararen mendebaldeko muga historikoa beherago zehazten saiatuko gara, baina okertzeko beldur handirik gabe aurrera daiteke Balmaseda alde batean eta Zalla bestean uzten zituela muga honek, orobat kostaldetik Portugalete alde eus-

---

J. CARO BAROJAK ere Enkartzioen euskalduntasuna postulatu zuen, erromatarren aurreko garairako kantabro eta euskaldunen arteko nolabaiteko lotura defendatua baitzuen, edo austrigoien batasun linguistikoa, nahiago bada, baina, berak aitortu bezala, oso argudio ahula erabili zuen: “*Cuando por primera vez comenté hecho semejante [que en la época romana ya los vascones, vardulos y caristios tendrían sus dialectos propios dentro de un idioma común], al punto me vino a la imaginación el buscar comprobaciones en la toponimia y así discutí «si los austrigones hablaron vasco o no» en su totalidad, fiándome en la cantidad de nombres vascos que encontraba en Vizcaya, al W. del Nervión, Gordejuela, Zalla, Ocharán y Loizaga hasta Musquiz y la parte occidental de la ría de Somorrostro. Bajaba luego a Álava (Arciniega, Oquendo, Luyando...) y a simple vista encontraba que los restos se iban diluyendo al S. del valle de Cuartango, y llegaba a ciertas conclusiones que hoy no podría defender*”, *op. cit.*, 34. or. Autokritika gorabehera, Enkartzioen euskalduntasunaren hipotesia ez zuen alde batera utziko: “*La pérdida del vasco en Carranza, Sopuerta, Arcentales y Somorrostro (dentro de las Encartaciones) debió de tener lugar antes que en Güeñes y Gordejuela, como parece revelarlo la toponimia*”, *ibid.*, 18. or., 28. oh.

<sup>152</sup> “*Los encartados dimanaron del mismo tronco que los demás vizcaínos, formando todos parte de la antigua Cantabria, hablando el mismo idioma y teniendo idénticas costumbres; se ha presentado contra esta opinión el hecho de que en esta parte de Vizcaya no se habla el bascuence, pero este hecho, si bien en parte es cierto en la actualidad, no destruye en lo más mínimo el origen de los encartados*”, J. E. DELMAS, *op. cit.*, 450. or.

<sup>153</sup> Polemika horren bi ale ikus daitezke, besteak beste, honako lanetan: Mikel GORROTXATEGIren «Sustitución» eta ETXEBARRIA MIRONES anaiei *Orígenes Históricos de Las Encartaciones. Siglos X-XIII. Toponimia, Onomástica y Lengua Propia*, Bilbao, 1994.

<sup>154</sup> “*Las escasas consideraciones escritas sobre la lengua de Las Encartaciones suelen prejuzgar algunos hechos no demostrados. La presunción básica es una primitiva vasconidad perdida, que se deduce y postula desde la vizcainía de la comarca*”, *Corpus*, 17. or., beste hitzez: “*la primitiva vasconidad perdida de Las Encartaciones suele respetarse casi como axioma*”, «El Romance», 177. or. Salaketa, alabaina, aspalditik agertua da: “*Además, y esto es más de lamentar, un sello uniforme parece marcar la investigación: la creencia general y a priori de que todos los nombres de lugares vascos, (...), pueden explicarse por el euskera*”, M.<sup>a</sup> Luisa GUAZA, *La Toponimia Romana en Vizcaya*, Publicaciones del Ayuntamiento de Bilbao, 1952, 17. or. eta aurrerago: “*El camino está muy trillado, pero siempre ha guiado la yunta el apasionamiento (vascofilia, vascofobia), la politiquería y multitud de intereses bastardos que no han podido hacer otra cosa sino acumular dificultades y enmarañar más y más algo que ya de sí aparece como muy complejo*”, *ibid.*, 18-19. or.

<sup>155</sup> *Op. cit.*

<sup>156</sup> «*Más sobre toponimia euskérica en las Encartaciones de Bizkaia*», *Euskera XLIV*, 1999, 1.183-94. or. Aurretik *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* aldizkarian hainbat *aportación* eginak zituen, 1970 eta 1984-85. urteetan; 80-81 eta 137-40 zenbakietan, baita ere *II. Onomastika Jardunaldien Agiriak. Urduña, 1987ko iraila*, Euskaltzaindia, 2000, 521-29. or.

<sup>157</sup> “*Quién acaso reconozca elementos vascos con excesiva facilidad*”, «Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca», L. MICHELENA, 13. or., 17. oh.; “*Su inventariado no es fiable, ya que, basado al parecer exclusivamente en fuentes escritas sin contrastar, contiene demasiados errores*”, I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *Corpus*, 17. or. “*Este [Sasía] sostiene el vasquismo primitivo de la margen izquierda del Nervión y de toda la zona estudiada en su trabajo. Es muy subjetivo y polémico*”, Manuel AGUD, «La lengua vasca y su territorio», in *Historia General del País Vasco*, vol. II, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca-Haramburu Editor, Donostia, 1980, 16. or.

kaldunean eta Santurtzi<sup>158</sup> erdaldunean. Muga, toponimiak argi dezakeen neurrian, garbia<sup>159</sup> da eta toponimiak ezer argitu ezin dezakeen aldiatarako egin daitezke bestelako suposizioak, baina hauek ausartak bezain frogagaitzak izango dira.

Sánchez Albornoz-en iritziaz geroztik autrigoiak kantabroengandik bereizten zituen *Asón* ibaia, beraz, oso urruti<sup>160</sup> geratzen da historikoki inoiz euskalduna izan den ingurutik, bai eta GONZÁLEZ ECHEGARAYK<sup>161</sup> nahiago zuen *Agüera* ibaia ere; Nerbioi ibaia<sup>162</sup>, berriz, ez du ematen erabateko ezer ebakitzen duenik. Haatik, MITXELENAK<sup>163</sup> iradokitzen duen mugak, *Abando* alde batean eta *Abanto* bestean ezarriko lituzkeenak, testigantza lagungarri gehiagorik badauka, eta, horretara, egiantza handiagoa.

Erromatartze goiztiarreko<sup>164</sup> eta populazio urriko<sup>165</sup> eskualdetzat aipatua izan da beti Karrantza-Sopuerta, kasualitatea ez izanik, lehenengoz izen horiek aipa-

<sup>158</sup> Santurtzi euskaldun imajina duenik ere ez da falta, horra hor M. GORROTXATEGIren baieztapen borobila: «*bertako biztanleen hizkuntza BAKARRA euskara zen*», «*Enkartazioetan euskaraz*», *Deia*, MICHELENAREN erabakior eta zuhur hau gogorra dakarkiguna: «*Las afirmaciones, aun las que se hacen en el tono más asertórico, no equivalen a pruebas*», «*De fonética vasca. La aspiración intervocálica*», *BAP VI*, 1950, 451. or., 7. oh.

<sup>159</sup> «*El estudio de la toponimia da también alguna luz sobre los límites antiguos de las hablas éuskaras: el límite aparece cortado de una manera mucho más clara al oeste que al este, como advierte con mucha razón Tovar (El euskera y sus parientes, p. 88 ss.). Si dialectos vascos de tipo vasco se hablaron más allá de la frontera histórica del vasco en Vizcaya, fueron suplantados en fecha muy remota por dialectos indoeuropeos*», L. MICHELENA, *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca*, 30. or. Muga hori zehaztea zuen helburu Euskaltzaindiak 1987an Urduñan antolatutako II. Onomastika Jardunaldiatarako aurkezteko genuen lanak: «*Estrato linguistikoen koerlazioa Bizkaiko Enkarterriak toponimian*» zuen izenburua eta Eusko Jaurlaritzarako Deustuko Unibertsitateko Deiker institutuaren zuzendaritzapean burutzen ari ginen *Bizkaiko Toponimia Bilketa* proiektuko bost lagunek prestatua zen, hots, Roberto González de Viñaspre, Xabier Santano, Patxi Aizpurua, Mikel Euba eta Ander Rosek osatutako taldeak. Ponentziaren laburpena bidali genuen Euskaltzaindira, baina guk geuk bildutako materialak erabiltzeko baimenaren faltaz ezin izan genuen lana burutu.

<sup>160</sup> Egokiera honetan, errazagoa izango litzateke Autrigoiena euskal leinuen artekotzat hartzea, bistakoa denez. Haatik, muga hori gero eta urruntzenago da eta irakurketa zuhurragoa inposatzen. *Asón* ibaiaren ameskeriak, alabaina, oraindik abandonatu gabe dirau: «*Igualmente hay que admitir que la densidad de nombres euskéricos decrece según nos acercamos a la cuenca del río Asón*», M. GORROTXATEGI, *Deia*, 93/IV/21, Cartas al Director, J. M. SASÍAK aipatua, «*Más sobre toponimia*», 1.184. or.

<sup>161</sup> Honek aurreko mendean Assas eta Fernández Guerrak defendaturiko hipotesia argudio pisutsuekin berreskuratuta, kokapen eklektikoa ematen digu, euskararen mugarako jartzen den Somorrostroko ibaiarenetik gertuago: «*Los límites... vendrían a coincidir con el curso del río Agüera, que desemboca en la ría de Oriñón (...)* Por el Este, la zona de Castro-Urdiales debió de quedar fuera de Cantabria», *Los Cántabros*, Madrid, 1966, 22. or.

<sup>162</sup> A. SCHULTENEK (*Los Cántabros y Astures y su Guerra con Roma*, Madrid, 1943), berrehun urte atzeragoko FLÓREZEN hipotesia berpiztuz, Nerbioi ibaian kokatzen du kantabroen muga.

<sup>163</sup> «*Reseña de Cantabria Prerromana o lo que la lingüística nos enseña sobre los antiguos cántabros*, por Antonio Tovar», *BAP XI*, 1945, 119-20. or., José Ramón ZUBIAUR BILBAOK bildu eta iruzkindua, *Las Ideas Lingüísticas Vascas en el Siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*, Mundaiz 6, Donostia, 1990, 130. or.

<sup>164</sup> «*Solana Sainz ofrece un análisis basado sobre materiales onomásticos para probar el grado de romanización alcanzado en la región*», I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *Estudio*, 63. or., 21. oh.; «*Las Encartaciones vizcainas forman parte de la Hispania Indoeuropea, opinión bastante general, que parecen corroborar los escasos datos toponímicos contemplados en la indagación de los límites occidentales de la lengua vasca. Por otra parte su frontera se ha mantenido estable durante milenios*», *ibid.*, 89. or.; «*el occidente vizcaino corresponde, a la llegada de los romanos, a la parte ya indoeuropeizada de la península*», «*El Romance*», 179. or.

<sup>165</sup> «*Por lo que se refiere a Las Encartaciones, entre los siglos V-IX hay un silencio absoluto sobre el pasado de la comarca, que parece reflejar la existencia de una sociedad ligada a formas culturales próximas a la prehistoria, vinculada a modos de vida pastoril*», I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *ibid.*, 72. or. Ondorio berberera heldua da J. GORROCHATEGUI ere, baina berau Bizkaia eta Gipuzkoaz oro har ari denez artzain haiei euskalduntasuna suposatzen du: «*La falta general de epigrafía y la única presencia de nombres romanos con epigrafía revela un alto índice de indigenismo, que en nuestro caso muy verosímilmente es de filiación vasca*», «*La aportación*», 124. or. Élisée RECLUS harago zihon, indigenismo hori erabateko isolamendu gisa irudikatuz: «*Es fácil comprender por qué los dialectos de origen latino, español, francés, bearnés, no usurparon en el territorio euskaro después del período romano. Durante la Edad Media*



tzen direnean, Alfonso III.aren kronikan, orduan populatu zirela esateko izatea. Eskualde bat, modu batera edo bestera, aipatua ez izateak<sup>166</sup> ez dakar, alabaina, derrigorrean eskualde hori populatu barik egotea, izan baitaiteke, euskaldun eta antzinako herri gehienek kasuan bezala, bertako bizilagunek idazketarako biderik eduki ez izana.

Kontuak kontu, Barakaldo batasun linguistikorik gabeko eskualde batean daukagu kokatuta, eskualde horretako alde euskaldunean eta euskaldunak ondoko auzokideak ere, nahiz eta berauek argiro euskalduna ez zen aldearekin muga egin eta, horretara, bertan gune elebidunak<sup>167</sup> suposatu behar ditugun. Bestela esanda, Autrigoien batasun linguistikoa<sup>168</sup> edo bere lurraldearen mugak kolokan jarri beharra dagoela dirudi. Bi arrazoi nagusi aipatu izan dira batasun falta hau azaltzeko. Bata, autrigoiak –karistioak eta barduloak bezala– euren izenek adierazten dutenez, ez ote ziren herri inbaditzaileak<sup>169</sup>, eta lehenengo kasuan pisu eskasa-

---

*la antigua sociedad, anteriormente tan poderosamente centralizada en la Gran Roma, se hallaba reducida a fragmentos; cada grupo feudal o popular se había aislado de los demás; cada cual poseía una lengua o un dialecto que no sufría la presión de ningún idioma vecino*", *op. cit.*, 70. or. MICHELENAN, ordea, kontrako eragina ikusten du, nahiz eta eragin honetatik urrunean zegokeena Bizkaia zela onartu: "El siglo V y buena parte del VI debieron de ser tiempos por estos parajes, sino de liberación, sí al menos de extremo aflojamiento de dependencias externas (...) Lo que tuvo que crecer es el intercambio, la tendencia a una mayor unidad y centralización, con consecuencias inevitables, inmediatas o mediatas, sobre la lengua, desfavorables a la fragmentación y al aislamiento dialectal y favorables al establecimiento de formas comunes de la lengua, capaces de saltar por encima de barreras comarcales y regionales", «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU XV*, 1981, 312-13. or.

<sup>166</sup> "La utilización de la escritura entre nuestros antepasados iba de par con la romanización y la romanización no sólo excluía el uso escrito de la lengua indígena, sino que tendía también a proscribir el uso de la onomástica propia", L. MICHELENA, *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca*, 27. or.

<sup>167</sup> "Tuvo que existir forzosamente un bilingüismo vasco-latino o vasco-protorrománico del que surgió el romance. Quizá la comunidad bilingüe vasco-latina o vasco-protorrománica fuese pequeña en un principio; presumiblemente correspondería a los grupos dominantes del país y de ellos fue extendiéndose a otras capas de la población", M.<sup>a</sup> Teresa ECHENIQUE, *Historia Lingüística Vasco-Románica. Intento de Aproximación*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1984, 63. or. Honen aurretik, jakina, elebitasuna zeltiarren eskutik zetorken: "La posibilidad de fuertes infiltraciones célticas entre los vascos hay que admitirlas sin dudar", Manuel AGUD, *op. cit.*, 58. or. Berauek toponimian utzitako ondareaz ikus Juan de GOROSTIAGA, «Toponimia céltica del País Vasco», *BAP IX*, 1953, 211-18. or. CARO BAROJAK (*Los Pueblos del Norte*, 3.<sup>a</sup> ed., Txertoa, San Sebastián, 1977, 270. or.), zeltiarren irenste goiztiarra defendatu zuen eta Nils M. HOLMEREK lexiko zeltaren jatorriaz gogoeta interesgarria egiten digu: "De los verdaderos «prestamos» celtas parece que hay muy pocos: generalmente son vocablos que existen también en romance, así que a veces es muy difícil averiguar si vienen o no directamente de algún idioma o dialecto celta. Desde el punto de vista del vascuence deben tal vez más bien considerarse como parte de los elementos recibidos de las lenguas románicas", «Las relaciones vasco-celtas desde el punto de vista lingüístico», *BAP VI*, 1950, 414. or.

<sup>168</sup> "Creo, en primer término, que se puede sostener que esta lengua se ha hablado en la época romana en el territorio ocupado por los vascos (en parte), vándulos, caristios y autrigones (en parte), con intensidad mayor o menor, según la romanización iba siendo también mayor o menor", J. CARO BAROJA, *ibid.*, 106. or. Bestela esanda, "concretar la filiación étnica y lingüística de los autrigones no parece empresa fácil, aunque se ha sostenido su carácter céltico", I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, «El Romance», 179. or., 9. oh.

<sup>169</sup> "Fue posiblemente A. Schulten («Las referencias sobre los Vascones hasta el año 800 después de J.C.»), *RIEV 18* (1927), 225-240) el primero que defendió resueltamente la idea de que vándulos y caristios, y con mayor razón sus vecinos occidentales y meridionales, eran de habla indoeuropea y nada tenían de común en este aspecto con los vascos: guipuzcoanos, vizcaínos y alaveses, para emplear una fórmula gráfica, no serían, por lo tanto, vascos, sino simplemente vascongados, es decir vasconizados en cuanto a la lengua", L. MICHELENA, *op. cit.*, 27. or.; "Es posible que pueblos que la historia nos presenta en territorio vasco actual, como Caristios y Vándulos, fueran minorías de invasores indoeuropeos que convivían con los indígenas que hablaban formas antiguas de los actuales dialectos vascos", Antonio TOVAR, «Orígenes del euskera: Parentescos, teorías diversas», in *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitaerak, 1981, 9. or. Hauxe da aurretik, besteak beste, Luciano SERRANOK, «Orígenes del Señorío de Vizcaya en época anterior al siglo XIII», in *Vizcaya en la Alta Edad Media*, Bilbao, 1976 (1936an emaniko eta 1941ean argitaraturiko hizaldia), M. GÓMEZ MORENOK, *Misceláneas: Historia-Arte-Arqueología*, Madrid, 1945 eta C. SÁNCHEZ ALBORNOZek, *Orígenes de la Nación Española. Estudios Críticos sobre la Historia del Reino de Asturias, I*, Oviedo, 1972, agertua zuten jarrera.

goa izan euskaldunek hauen etorrerari aurre egin eta euskarari eusteko, behar bada mendebaldeko inguru horietan euskaldunak urriagoak zirelako. Hizkuntzaren ordezkapen hau 3.000 urtez<sup>170</sup> atzeratu beharko genuke A. TOVARen ustez. Beste arrazoa, berriz, euskaldunak eurak ez ote ziren izan ekialdetik mendebaldera etorri zirenak, kasu honetan zabalkundearen muga aztergai dugun inguru horretan izanda<sup>171</sup>. Egoerak, hala ere, ez du zertan absolutua eta simplea izan, mugak zehatz ebakirik eta zentzu edo norabide bakarreko ibilbide historikoa duena, alegia; atze-aurre<sup>172</sup> eta egoera konplexuz beterikoa baizik. Batasun falta honen azpitik, haatik, penintsularen iparralde osoa, alderik alde, hartuko lukeen nolabaiteko oinarri arin, ahul eta mehe bat bagenuke, substratu prerromanoaurrean, Ernst GAMILLSCHEGek<sup>173</sup> kantabro-ligur izendatu zuena.

Baldintzapen linguistiko horiek utzi dute, duda gabe, beren lortza hizkuntzaren eitean bertan ere. Bizkaiko mendebaldeko muturreko gaztelera, orain I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZAK<sup>174</sup> aztertua, berezkoa dugu, ondo sustraitua eta berezitasun historiko nabarmenak dituena. Eta dialekto hau Karrantza aldean ez ezik,

<sup>170</sup> "Se puede afirmar que quizá ya al oeste mismo de la ría de Bilbao el establecimiento de pueblos de lengua indoeuropea cambió la lengua del país desde comienzos del milenio I a. C.", *op. cit.*, 9. or.

<sup>171</sup> Hauxe da Manuel AGUDEK ematen digun azalpena: "¿El actual pueblo vasco-hablante es el que ocupó la antigua Vardulia y Caristia, que cambió de lengua por efecto de una invasión? Aquellos nombres, nada menos que designadores de unas regiones, no tienen relación con la lengua vasca", «Áreas toponímicas en el País Vasco», *ASJU VII*, 1973, 39. or. eta "parece cierto que esa zona pudo ser de lengua vasca, quizá de repoblación", «La lengua vasca y su territorio», 16. or. Aurretik, zabalkunde ezberdinak postulatuak ziren, bata P. BOSCH GIMPERAK egina, baskoien zabalkunde beste leinu euskaldunen lurretatik irudikatzen diguna: "Y la cultura pirenaica se extendió también por el territorio de los autrigones, por lo menos por la parte montañosa del este de Vizcaya, lo que da también una base positiva para admitir la existencia de un núcleo étnico vasco en el territorio autrigón", «Los celtas y el País Vasco», *RIEV XXIII*, 1932, 468. or. Eta aurreraxeago: "... producen más bien el efecto de indígenas que de celtas, estando arraigado el carácter vasco en muchas de sus cosas, especialmente en la lengua en buena parte de su territorio, aunque pudieron haber sido celtizados con más intensidad que los demás pueblos vascos", *ibid.*, 471. or. José Manuel IGLESIAS GILEk ere, aukera hori seinatzen du, Cantabriaraino luzatuz lerratze hori: "Pero también cabe la hipótesis de un desplazamiento de los vascos de oriente a occidente en busca de nuevas formas de vida que se habría efectuado con posterioridad a las invasiones de gentes indoeuropeas en Cantabria", *Onomástica Prerromana en la Epigrafía Cántabra*, Santander, 1974, 209. or.

Julio CARO BAROJA (*La formación de los pueblos de España*, México, 1945) dugu, ezaguna denez, handiki hauen hipotesiei aurre egin ziena, eta geroago: "Resulta a mi juicio un poco difícil defender el corrimiento del vasco desde el territorio navarro-aragonés-riojano de la antigua Vasconia más conocida de los romanos a las actuales Provincias Vascongadas, si se tiene en cuenta que para sostener con éxito esta tesis, habría que admitir que la única lengua no indogermana que se conserva al O. de Europa ha ido de un territorio muy romanizado, ... a otro en el que no hay vestigios apenas de romanización", *Los Pueblos del Norte*, 103. or. Zabalkundearen aldeko Gómez Moreno, Menéndez Pidal, A. Schulten, J. Untermann eta abarren postulatuak Juan José BAYASen sintesia interesgarria irakur daiteke, «De historiae Vasconiae rebus controversis», in *Los Vascos en la Antigüedad*, Catedra, 1994, 205. eta hur. (Iehenago, *Actas del Primer Congreso General de Historia de Navarra*, Príncipe de Viana, 1987), bere azken hitz erabakiorra buru: "el debate continúa, sin grandes progresos...", *op. cit.*, 209. or. Orobat, interesgarriak dira baskoien zabalkunde Espainiako Bagaudiarekin lotzen zituen Sánchez Albornozen tesiaren kontrako argudioak. Egokiera honetan, beraz, eta antzinatea aztertzen dutenek lanean jarraitzen duten bitartean, geratzen zaiguna, detaileak alde batera utzita, ezagunagoa zaiguna abiapuntutzat hartzea da, gutxi gorabehera ECHEVARRÍA ISUSQUIZAK deskribatzen digun irudia: "Las Encartaciones parecen corresponder, a la llegada de los romanos, a la parte ya indoeuropeizada de la Península, de modo que, lejos de ser éste un espacio castellanizado más o menos recientemente, su lengua romance habría surgido, sin interrupción, de la evolución lingüística de un ámbito ya indoeuropeo a la llegada de los romanos", *Corpus*, 17. or.

<sup>172</sup> "Hay que ir contra la idea divulgada de que [la romanización] se trata de un proceso homogéneo", J. CARO BAROJA, *Los Pueblos del Norte*, 99. or.; "Tal vez hay que desechar la idea de un retroceso constante desde una fase ideal de máxima extensión: Hay que partir de la premisa de la complejidad de la situación lingüística en esta zona", I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *Estudio*, 61. or.

<sup>173</sup> *Romanen und Basken*, 1950, Kurt BALDINGERek erruz aipatua, *La Formación de los Dominios Lingüísticos en la Península Ibérica*, Editorial Gredos, 2.<sup>a</sup> edición, Madrid, 1972.

<sup>174</sup> *Ik.* 58. oh.

askoz ekialderago ere zabaltzen zen edo momentu ezberdinetan zabaldua izan da, indar apal eta mendreaz izanik ere, Barakaldo bera ikutuz, toponimian eta lexikoan igarri daitekeenez.

Bilboko erdarak aparteko egoera planteatzen digu eta berebiziko interesa pizten, baita Bilboko eta inguruko herrietako euskarak ere, gorago seinalatu dugunez. Echevarría Isusquizak iradokitzen duenez, erdararen zabaltzailea dugu Bilbo, baina erantsi behar dugu guk euskararako zubia ere izan bide dela, korrespondentzia lexiko interesgarriak baitaude Bilboko itsasadarrak mendebaldeko erdararen eta itsasadarrak ekialdeko euskararen artean, batzuetan kalko lexiko gisa azaldu daitezkeenak<sup>175</sup>. Zoritxarrez, oraindik orain ezer gutxi dakigu Barakaldoko eta mendebaldeko euskaraz. Barakaldo, betiere, hizkuntzen joan etorri horien atea dugu, ez beti, beharbada, Bilboko atea, ibaiak bestaldeko Txorierriekin ere –Erandio eta Deusturekin bereziki– harreman zuzenak izan baitzuten beti.

## 2.2. Euskararen muga Bizkaiko mendebaldean

Euskararen mugak diskriminatzeke orduan bi euskarri nagusi erabili izan dira. Batetik, toponimia baliatu izan da, muga garbia baina ez zehatzegia markatzen uzten diguna. Bestetik, talde etnikoen mugak, arkeologiatik eta testu klasikoen deskribapenetatik heldu zaizkigunak. Muga batzuk eta besteak lainotsuak eta eztabaidatuak dira, ez testigantzak ez berauen interpretazioak ez baitatoz beti bat; denboran barrena zenbat eta urrunago joan, are irristagarriagoak ditugu ondorioak. Euskararen agerpenaren *terminus post quem* ilun eta urruti gertatzen zaigu, bai euskararen presentzia dagoen aldeetarako, bai eta presentziarik ez dagoen tarako ere, eta horregatik ez zaigu bereziki intereseke eta artikulua honen gure zereginerako pertinetea. Bestaldetik, jakina da mugak sarritan aldakorak izaten direla, gutxitan absolutuak eta kasik inoiz ez egonkorak; izan ere, aro historikotan, kasu honetan toponimiaren bidez, diskrimina ditzakegun mugak ez dira aro protohistorikoetako berdinak, denboran barrena aldatuak direlako batetik, eta mugak aztertzeke datuak eskasagoak eta ilunagoak direlako bestetik, zehaztapenak egiteke hutsalak kasu askotan, GONZÁLEZ ECHEGARAYk<sup>176</sup> kantabro eta autrigoien arteko mugaz dioena lekuko.

<sup>175</sup> Interesgarria da, besteak beste, *calle* eta *fraila* hitzen lerradura semantikoa, ‘troka’ eta ‘haitz’ zentzu berriak hartuta, Enkartzioetako gazteleran nahi Bilbo inguruko euskararen. Galdakaon *Infernukalle* toponimoa dugu troka baten izena eta *Fraideiturrieta* Abandoko paraje batena, lerradura semantikoa jaso bide duten beste batzuen artean.

<sup>176</sup> “Conviene, no obstante, insistir en que es sumamente difícil determinar estas fronteras con precisión. Cuando los autores han querido concretarlo, se han dejado llevar a veces de la fantasía, porque en realidad no tenemos elementos de juicio suficientes para sentar afirmaciones tajantes en cuestión de detalle”. *Los Cántabros*, 19-20. or. Talde etnikoen mugez ari zaigu González EcheGARAY, baina jakina da muga hauek zehazteke baliabide nagusia, geografoen deskribapenez gain, toponimia bera dela. Euskararen mugaz den bezanbatean, datu historikoak ugariagoak diren arren, ez da erraza lehenagoko garaiei buruz ezer irmotasunez finkatzea, arinkeria delarik zehaztasun gehiegi aldarrikatzea: “Honela beti esan da euskararen muga mendebaldean, Bilbo inguruan zegoela, inolako

Mitxelenak insistentziaz irakatsi zigun berreraiketaren objektua berreraiketa egiteko eskura ditugun materialek berek definitua eta mugatua dela; ez da ezer erreala, gureganatu ditugun datuen proiektio ideal bat baizik, eta aldi baterako edo besterako, nolako datuak eduki halako berreraiketa izango dugu. Honi erantsi behar zaio muga etniko eta linguistikoek ez dutela beti zehazto zertan bat etorririk, homogeneotasun falta frogatzen diguten hainbat datu eta ebidentzia dau-denez gero.

Hauek honela, interpretazio hertsiago edo lasagoen arabera euskarak men-debaldetik oso eremu zabala izan du edo oso murrizta, irakurketa zuzena zein den asmatzea erraza ez izaki. Menéndez Pidal eta Tovar batera zein bestera lerratzen dira momentu ezberdinetan. Azkenak, behin eta berriz aipatzen du Bilbo<sup>177</sup>, itsasadarra euskaldunen muga bailitzan. Badirudi, alabaina, autrigoiei egotzitako muga etnikoak muga linguistikoekin bat egiteko nahikaririk azaldu behar dela A. TOVARen postulatua. Edonola ere, muga historikotzat hartzen du Bilboko itsasadarra, fase protohistoriko batean euskara Asturiaseraino bertaraino zabaldurik egon zitekeela iradokitzeke gero<sup>178</sup>, horrela hipotesi biak uztartuz.

Tovarrek aipatzen duen *Gueñes* toponimo ustez indoeuropearraren ebidentziak<sup>179</sup> ezer gutxi frogatzen du, gehienez ere izendatzailea kanpotarra zela edo kanpotarren ezaupidea eta gustuak zeuzkala, bestela esanda: zeltak hortik pasatu edota egon zirela, Lautadako mozarabiar batzuk Barakaldoko Mesperutzan eta

---

zehaztasunik eman gabe”, M. GORROTXATEGI, «Enkartazioetako toponimiaz: Artzentalet, Galdames eta Sopusuerta», in *II. Onomastika Jardunaldien Agiriak*, 533. or. Ondorio kaltegarriak ezin argiagoak dira: “*Precisiones cronológicas mayores serían artificiales y enmascararían lo mucho que desconocemos sobre la situación real de esas lenguas*”, Javier de HOZ BRAVO, «El euskera y las lenguas vecinas antes de la romanización», in *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, 1981, 27. or. eta arriskuak onartezinak: “*Sabido es que los estudios de toponimia abren cada vez más la puerta de edades pretéritas y de estadios lingüísticos hoy desaparecidos; siempre, sin embargo, con el riesgo de que la fantasía se desboque...*”, Manuel AGUD, *op. cit.*, 37. or.

<sup>177</sup> Hauxe da Gregorio SALVADOREn diatriba anakronikoaren oinarria, sinkronikoa pankronikoa bihurtuta: “*En Baracaldo, como en todas las localidades situadas en la margen izquierda del Nervión, nunca se habló vasco*”, ABC, 2000/4/25, M. GORROTXATEGI aipatua, «Testimonio euskérico de 1712 en Barakaldo», 338. or., 3. oh. Holako beste batzuetarako, ordea, Mitxelena hartu omen du abiapuntu eta oinarri Madrileko akademikoak, horixe da behintzat A. IRIGOYENek («Bilbao jatorriz hiri euskalduna izan da», 16. or.) Bilbori buruz esanikoez uste zuena.

<sup>178</sup> “*En cuanto a los límites del vasco por el oeste el problema es más oscuro, pues las invasiones indoeuropeas impusieron su lengua en Cantabria desde tiempos muy anteriores a los de la desaparición del vasco en las zonas vecinas al Pirineo. Podemos suponer que el vascuence quedó limitado al oeste aproximadamente según límites actuales entre quinientos y mil años antes de que perdiera las tierras pirenaicas*”, *El Euskera y sus Parientes*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1959, 88-89. or.; “*Hacia el oeste de la ría de Bilbao la difusión primitiva del vasco está cubierta desde muy pronto por invasiones indoeuropeas, y desde las Encartaciones va oscureciéndose a través de Cantabria y Asturias*”, *Mitología e Ideología sobre la Lengua Vasca*, Alianza Editorial, Madrid, 1980, 197. or. Mendebaldeargoko lurren arazoa lehenagotik luze eta zabal aztertua zuen TOVARek (*Cantabria Prerromana o lo que la Lingüística nos enseña sobre los Antiguos Cantabros*, Publicaciones de la Universidad Internacional Menéndez Pelayo, Madrid, 1955) euskal elementuen hondarrak. K.a.ko 1000. urtera, hau da inbasio indoeuropearren aurrera, ekarri beharko liritekeela garbi ezarrit eta ustezko hondar horiei “*eco vago y confuso*” kategoria ipiniz.

<sup>179</sup> “*Gueñes (...) nos va a proporcionar algunos datos sobre la extensión del vasco ya en tiempos remotos a sólo unos 15 kilómetros de Bilbao*” A. TOVAR, *El Euskera y sus Parientes*, 92. or.

Trapaga eta Retuerto bitarteko Egiluzen<sup>180</sup> egon omen ziren bezala. *Barakaldo* izenak berak<sup>181</sup>, eta are garbiago *Abandorenak*, jende arrotzek jarriak dirudite, baina horrela izanagatik ere, ez du Barakaldoren edo Abandoren euskalduntasuna kolokan jartzen, jakin bai baitakigu gune euskaldunak izan ditugula, bata nahiz bestea eta zalantza izpirik uzten ez duten datu historiko nahikoak bai baititugu<sup>182</sup>. Alde horretatik, ETXEBARRIA MIRONES anaiek darabilten kriterioa ere estuegi gertatzen da eta ez du ezer frogatzen, ondorioetan ondraduki baina deplauki onartzen duten bezala<sup>183</sup>. *Trucios* edo *Turtzios* izenerako ere aplikagarria da irizpide hau; izena euskalduna dela frogatuko balitz, ez luke honek ezer gehiago frogatuko, eta euskalduna ez izateak, –ez den bezala–, ez du ezer aldatzen, hemen, Barakaldon ez bezala, euskalduntasunaren kontrakoak baitira datu historikoak oro. Aztertu eta asmatu behar duguna da, bada, euskara galdutako herri hauetan zer nolako presentzia izan zuten jende zeltiarrek eta bestek, eta zer eragin izan zuen presentzia hark euskarari.

Menéndez Pidalen postulatuak ere, oso modu lasa eta zabarrean interpretatuak izan dira, beste batean aztertuko dugun bezala. Cantabria eta Asturiaseko euskal hondarren presentzia frogatzeko baldintzaz ari baitzaigu Menéndez Pidal, presentzia hori baieztatzen edota iradokitzen baino. Datu historikoak eskuan dituela, aitzitik, Somorrostron jartzen digu euskara eta gaztelararen arteko muga. Cantabriaren antzinatoko historia aztertu dutenengan Menéndez Pidal eta Tovarren postulatuaren interpretazio baten aurreiritzien pisu handia ikus dezakegu. GONZÁLEZ ECHEGARAYk, esaterako, frogarik ikusten ez badu ere, zabalik uzten du euskaldunak kantabroen aurretik lur horietan egon izanaren aukera<sup>184</sup>. Oro-

<sup>180</sup> Horixe interpretatu behar dugu García Salazarrek ematen digun *Soleta de Giluz* ilunaren bigarren zatian. *Egiluz* hau ezaguna dugu, C. IBÁÑEZek (*Historias Gráficas de un Pueblo*, Barakaldo, Librería San Antonio, 1990, 137. or.) biltzen digun kantako *Fuente de Iguliz* bera; baita ere honekin sarri nahasten den *Sel de Egiluz*, Bilboko fundazio gutunean azaltzen dena; berau Alonsotegi gainean dago, baina Bilbo aldean, egun Bilboko udalaren kortabaso edo olagorta delarik. Migrazio hauek bereziki Enkartzazioen ekialdean eman baziren ere, anekdotikoak izan bide ziren, Luis María BILBAOK eta Emiliano FERNÁNDEZ DE PINEDOK seinalatzen dutenaren arabera, «En torno al problema del poblamiento y la población del País Vasco en la Edad Media», in *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1978, 131-60. or.

<sup>181</sup> *Barakaldo* toponimoari berari ere oinarri zeltikoa bilatu nahi izan dionik ere izan da, hurrengo lan batean azalduko dugun bezala.

<sup>182</sup> LABAYRUren garai edo giroan, alabaina, kolokan jartzen hasita bide zegoen Barakaldoren euskalduntasun hau, toponimiari heldu behar baitio berriro ere frogatzen: «Esta anteiglesia no desmiente su origen euskaro á juzgar por sus nombres locales antiguos, como Amézaga, Aranguren, Gorostiza, Uruga, cumbre Urallaga, Sagastieta, colina de Olarte, monte Aygalario, Aguirre, Susanaga, Bengolea, Landáburu, Uguliz (fuente); Zuaza, collado de Oqueluri, Basuchu, y aún el hace tiempo barrio del Regato se llamó antiguamente Mendi-errea», *op. cit.*, Tomo II, 640. or.

<sup>183</sup> «Todo lo expuesto nos lleva a creer que la lengua romance-castellana ha sido, también, la lengua hablada en esta zona desde sus orígenes históricos. Lo que no es óbice para que hayan existido también núcleos minoritarios de habla vasca. Considerando asimismo, como ya hemos indicado, el caso aparte de Baracaldo, donde la lengua vasca ha podido ser hablada mayoritariamente desde sus orígenes históricos», *op. cit.*, 235. or. Dirudiene dirudiela, euskararen presentzia historikoaz egiten duten irakurketa murriztailea Sasía eta besteren irakurketa beroa baino zuhurragoa da zinez, zuhurreria aukeran.

<sup>184</sup> «J. Caro Baroja ha defendido que los cántabros hablaban la primitiva lengua vasca; pero parece ser que hasta el presente no hay razones suficientes que aboguen a favor de tal hipótesis, lo cual no supone la negación del hecho de que el vascuence o una lengua afín a él se haya hablado en este país en la época precántabra, pues parece ser que existen algunos indicios de ello en la toponimia», GONZÁLEZ ECHEGARAY, *Los Cántabros*, Madrid, 1966, 121. or.

bat, IGLESIAS GILEk zeltikoa euskararekin eta euskaraz gaineko beste hizkuntza iberiarrekin lehiatzen eta garaitzen irudikatzen digunean<sup>185</sup>; hala ere, epigrafiara mugatzen denean abiapuntua ezin argiagoa aldarrikatu behar du<sup>186</sup>. Julio CARO BAROJA, aitzitik, kantabroek akitaniarrekin omen zituzten harreman estuetan<sup>187</sup> oinarrizten da euskaratik oso diferentea ezin izan zitekeen hizkuntza zutela esateko, nahiz eta ez duen erabateko euskalduntasuna<sup>188</sup> defendatu.

Nolanahi ere, aurreragoko edo ondoko ustezko presentziak oinarri ahulak ditu<sup>189</sup>. *Selaya* famatu eta isolatuaren ondoan *Selores* eta *Solórzano*<sup>190</sup> ematen zaizkigu, eta *Ibio* ezagunaren ondoan, aldiz, *Íbero*, *Bareta* eta *Bárcena* ez arrotzagoak; halaber, *Laredo*, *Izarrilla*, *Iseca*, *Isequilla* eta holako beste zenbait. Guztia, euskarazko *zelai*, *ibar* edo *ibai*, iz- 'ur' erro iluna edota *l(eh)er* 'pinu' lexemen urrutiko lekuko. Loturaren bat erakutsi uste duten beste elementu batzuk honako hauek ditugu: *Erudino* teonimoa, protesi bokaliko euskalduna lukeena, eta *Coniaci* leinu kantabroaren izena bera, zeinetan González Echegarayk *goi* ikusi nahi duen. Hau guztia oso ezaguna eta zaharra da, eta ez dakarkigu ezer berririk, ezer funtsezkorik ez, bederen. Premisa argia da linguistika historikoan, konparagai den segmentua zenbat eta laburragoa izan, orduan eta kointzidentziarako aukera zabalagoa dagoela, eta, horretara, balio frogatzailea txikitzenago dela. Toponimiaren kasuan, gainera, formak baino ez dira konpara daitezkeenak, zentzuaren babesik gabe, konparazioa ahul berez suertatzen delarik.

Ez da ahaztu behar, gainera, inguru horietarako euskal elementuak arazorik gabe azal ditzaketen bi iturri jadanik ezagunak eta ondo aztertuak direla. Batetik,

<sup>185</sup> "Este elemento celta lucha por imponer su lengua contra el vascuence y demás lenguas ibéricas vecinas, lográndolo, como posteriormente la lengua latina, romanizando toda la península", José Manuel IGLESIAS GIL, *op. cit.*, 207. or.

<sup>186</sup> "El sustrato lingüístico básico de la antigua Cantabria dentro del tronco indoeuropeo y más concretamente del indoeuropeo occidental, es céltico", *ibid.*, 207. or.

<sup>187</sup> "Una intimidad tal como la de cántabros y aquitanos, no es posible sin unidad de lengua", J. CARO BAROJA, *op. cit.*, 107. or.

<sup>188</sup> "En ningún caso he defendido de modo radical el «vasquismo» de todos los cántabros. Tampoco otra atribución a grupo lingüístico homogéneo", J. CARO BAROJA, *ibid.*, 109. or.

<sup>189</sup> "Quedan hacia el Oeste restos de tipo vasco, y sin duda no todos reducibles a las colonizaciones que hubo con vascos en la reconquista cristiana, pero estos restos no son numerosos ni muchas veces muy seguros", Antonio TOVAR, «Orígenes del euskera: Parentescos, teorías diversas», 9. or.

<sup>190</sup> Antzinako *Selórzeno*. Hauetariko gehienak adibide ezagunak dira, beste batzuen ondoan Rafael LAPESAk bere *Historian* eta Antonio Tovarrek biltzen dizkigutenak, esaterako. García BERLANGAren lanek, bestalde, badute bestek ez duen abiapuntu sendoa, beren zientifikotasun ezaren aitorpena: "La ventaja de tratarse de un pasatiempo, es que no me preocupa para nada el rigor científico", *5000 años de euskera*, Bilbao, 1980, 9. or. Ez ditugu ezagutzen Echevarría Isusquizak aipatzen dizkigun García Berlangaren beste lanak, ezta ere F. Garvens-ena, baina ildo beretikoak direla suposatu behar dugu; *arri-*, *carr-*, *-andi...* elementu toponimiko ilun eta anbiguen sostengu eta frogabide laburra dutenak. *Carr(a)* elementuaren irakurketa kritiko baterako, MANSO de ZUÑIGAren erreferentzia labur bezain erabakiorra ikus daiteke, «Karr», in *BAP XXV*, 589. or. Beste *Ar-* batzuk, esaterako, *Er-* bilakatuak baino ez dira, Trucioseko *Arbosa*, Sasíak *Arbaso* forman itxuraldatuan emana, (*H)erbosa* baino ez dateke, bistan denez. I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZAren hitzetan, horixe da euskal toponimiaren geografiak dituen arazoetako bat: "La existencia de elementos compositivos o derivativos extendidos por áreas de amplitud difusa", *Estudio*, 89. or., 1. oh.

errekonkistako populamenduak<sup>191</sup> ditugu –Errioxa, Soria eta Burgoseko<sup>192</sup> eza-gunez gain– Duero ibaiatz iparraldera, *Castella Vetulan* eta León-Asturiaseko Erre-  
suman barrena izandakoak<sup>193</sup>. Seguruenik, nahiz eta batzuk<sup>194</sup> hizkuntzaz euskal-  
dunak izan, ez zuten euskara *Barduliaz* harago zabaldu eta horrek azaltzen du utzi-  
tako toponimia bera ez izatea ez ugaria ez bereziki euskarazkoa, gehienetan  
coronimo soilak baitira ahotan hartzen direnak, hots, euren izenaren gentilizioaz  
osatutako herrien izenak<sup>195</sup>. Alde horretatik, eduki zezaketen eragin linguistikoa  
gazteleraren bidez bideratu zatekeen, erdipurdiz ikasitako gaztelera moldagaitz  
germinal horren bidez<sup>196</sup>, hain zuzen ere. Urrutiko lurralde haietan, tokian-  
tokian utzitako toponimia G. MANSO de ZÚÑIGAK<sup>197</sup>, A. LLORENTE MALDO-

<sup>191</sup> “*Dicha existencia* [de toponimia vascoide en diversas zonas hispánicas] en la mayoría de los casos responde a repoblaciones (mejor diríamos emigraciones) de la llamada Reconquista”, Manuel AGUD, *op. cit.*, 38. or.

<sup>192</sup> “*Por el este se van a volcar los descendientes de aquellos pueblos, que los antiguos historiadores y geógrafos llamaron Bárdules, Caristios y Autrigones, es decir, las gentes de habla euskérica, que habitan a ambas orillas del Nervión, en los valles del Zadorra y en la tierra accidentada que se extiende hacia levante hasta Deva*”, “*La vasconización es fuerte en toda la zona oriental hasta los alrededores de Burgos, y se advierte también hacia el occidente*”, Justo PÉREZ de URBEL, «Los vascos en el nacimiento de Castilla», *Vizcaya en la Edad Media*, (1941)can emaniko eta 1946an argitaraturiko hitzaldia), Bilbao, 1976, 77. eta 80. or. “*Este movimiento repoblador no pasó por entonces de los valles superiores de Losa, Mena y Valdegovia*», «Repoblación y luchas civiles en la España, siglos IX y X», Luis G. De VAL-DEAVELLANO, *Vizcaya en la Edad Media*, (lehenago, *Historia de España*, I), Bilbao, 1976, 17. or. “*La zona riojano-burgalesa de habla vasca debemos, por el contrario, incluirla con todo derecho en el conjunto de la Euskal-Herria de la época*”, J. GORROCHATEGUI, *op. cit.*, 118. or.

<sup>193</sup> Claudio SÁNCHEZ ALBORNOZek behin baino gehiagotan aztertu ditu migrazio hauek: “*Castilla recibió una fuerte colonización vasca*”, «Repoblación del Reino Asturleonés. Proceso, dinámica y proyecciones», in *Viejos y Nuevos Estudios sobre las Instituciones Medievales Españolas, II*, Espasa-Calpe, 1983, 691. or., 29. oh. (lehenago, *Cuadernos de Historia de España 53-54*, 1971); “*Repoblaron la Castilla condal vasco-cantábricos, las masas godas refugiadas al norte de los montes, y un puñado de mozárabes. La toponimia y el habla de cada una de tales regiones comprueban esas realidades.*”, *ibid.*, 711. or. Gure artean Sigfrido GUTIÉRREZ ARECHABALAK zabaldu ditu, beharbada hauen eragina gehiegi puztuz: “*Por ahí andan las pruebas a montones en forma de vocablos y topónimos euskéricos que están dando nombre a montes, ríos y lugares de media Castilla*”, *op. cit.*, 122. or. Joaquín GORROCHATEGUIk ere aipatu ditu migrazio hauek, behar den zuhurtzia eskatuta: “*En épocas posteriores, a partir del s. XII, se desarrolló el proceso de repoblación del valle del Duero, en el que los vascos en un sentido amplio tuvieron un papel muy notable. A esta fase se deben cantidad de topónimos de las provincias occidentales españolas (Salamanca, Zamora, Avila, sobre todo), muchos de ellos de claro origen antroponímico... que muestran una extracción claramente oriental navarro-aragonesa*”, *ibid.*, 118. or.

<sup>194</sup> “*Es posible que muchos de los primeros pobladores fueran vascoparlantes, pero dado que la repoblación se hacía con gentes de diversos lugares, aunque fueran vascos, y que junto a ellos debía haber un gran contingente de romanizados, sin descontar el hecho crucial de que se hallaban en un ambiente totalmente románico, es casi seguro que desde el principio el castellano o, a veces el leonés, se convirtiera en la lengua franca de utilización general, para llegar a ser en muy pocas generaciones la única existente*”, J. GORROCHATEGUI, *ibid.*, 117. or.; Vascón hauetako beste asko, suposa dezakegu erdalduak zirela, besteak beste, Bizkaiko Enkartzatuetatik joanak, Sigfrido GUTIÉRREZek zehazten duenez, *op. cit.*, 52. or.

<sup>195</sup> “*Las emigraciones del país vasco fueron importantes, cuando hallamos varios pueblos con el nombre de Bascos en Asturias y tres en Palencia, Vascois, Bascos en Galicia; Vascos, Vasca*”, Ramón MENÉNDEZ PIDAL, *Orígenes del Español. Estado Lingüístico de la Península Ibérica hasta el Siglo XI*, 10.ª edición, Madrid, 1986, 474. or. eta hauek osatuz: “*Recibieron el nombre de Bascos lugares de Castella Vetula, Lantarón, Lerma, Osmá, Palenzuela, Saldaña, Valdivia, Valdivielso y de tierras de Palencia. Existían varias Villas de Vascones: Villa Bascones de Sotoscueva, Villa Bascones de Bezana, Villa Vascones de Cardaña; algunos Vasconillos: de Tozo en Villadiego, de Muñó cerca de Burgos y otros en Cardaña y en Levilla; un Basconuelos en Villarcayo, un Bascuñana en Belorado y un Vizcaíno en tierras de Lara y Salas*”, Claudio SÁNCHEZ ALBORNOZ, *Despoblación y Repoblación del Valle del Duero*, Buenos Aires, 1966, 314. or. PÉREZ de URBELek ere honelako izendapena daukaten herrien zerrendapena egiten digu, Serranoren eta Escalonen datuak baliatuta, *op. cit.*, 81. or., 16. eta 17. oh. Esan gabe doa, ordurako *baskoi* izendapena ez zela ekialdeko euskaldunena soilik, euskara hizkuntzako edota Euskal Herrietako normahirena baizik.

<sup>196</sup> Koiné edo zubi-hizkuntza bat beharrezkoa baituzten populaturiko lurretan bilduriko jende ezberdinek: “*... no colonizarían en aldeas unitariamente sino que se incorporarían a núcleos de población diversa*”, Claudio SÁNCHEZ ALBORNOZ, «El régimen de la tierra en el Reino Asturleonés hace mil años», in *Viejos y Nuevos Estudios sobre las Instituciones Medievales Españolas, III*, Espasa-Calpe, 1980, 1.322. or., 22. oh. (lehenago, Instituto de Historia de España, Universidad de Buenos Aires, 1978).

<sup>197</sup> «Nombres vascos en el Reino de León», *BAP XXV*, 1969, 584-86. or.

NADO de GUEVARAK<sup>198</sup>, Virgilio SEVILLANOK<sup>199</sup>, J. Antonio RANZ YUBEROK<sup>200</sup> eta bestek aipatua eta azertua izan da.

Bestetik, zenbait langintzatan euskaldunek Asturiaseraino ez ezik, Galiziaraino bertaraino ere zabaldu zen maisutzaren hondarrak ditugu, linguistikoak ezin ukatuzkoak, besteak beste meagintza-errementaritzan<sup>201</sup> eta hargintzan<sup>202</sup>; nekazari-tza arloan –oliba eta mahatsaren landaketan<sup>203</sup>, esaterako– aragoiera, arabiera eta abarretik hartzaileak izan garen moduan, arrantzaren lexikoaren kasu nahasiagoa ez aipatzearren. Honi buruzko azterketarik ezagutzen ez badugu ere, badirudi basogintzan ere harremanak ez direla falta izan<sup>204</sup>, erdarazko testuetan han hemenka agertzen diren eta Enkartazioetan guztiz ezezagunak ez diren *txirpia*, *egurbide*, *mukur*, *txorko*... elementuen presentzia azalduko luketenak<sup>205</sup>.

Esanak esan, kantabroen euskalduntasuna edo kantabroen aurreko euskaldunena ilunegia da eta Barakaldotik oso urrun denboran eta espazioan. Euskararen ageriko falta hori, gainera, Asturias eta Cantabrian ez ezik, Enkartazioen alde handi batean ere nabarmen-nabarmena dugu, halako moldez non muga zeharo argia eta ondo ebakia den, toponimiaren presentziari gutxieneko balioa ematen badiogu, behinik behin. Hauek honela, arazo handirik gabe, marra bat traza deza-kegu Abanto-Zierbena, Muskiz, Sopusuerta eta Galdames zati handi bat, Truebaren sorterrria zen Montellanoko feligresia barne, alde erromantzean uzten dituenak<sup>206</sup>.

<sup>198</sup> «Topónimos salmantinos y repobladores vasconavarros», in *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Vitoria-Gasteiz, 1985, 721-734. or.; «Toponimos abulenses y repobladores vascones», in *I. Onomastika Jarhunaldien Agiriak*, Euskaltzaindia, 1991, 177-97. or.; «La repoblación vascona en Ávila y Salamanca a la luz de la toponimia», in *Toponimia de Castilla y León. Actas de la Reunión Científica sobre toponimia de Castilla y León*, Burgos, 1994, 13-32. or. eta lan hauek erreferentzia gehiagorako.

<sup>199</sup> «Topónimos zamoranos de aspecto vasco», *BAP XXI*, 1965, 69-72. or. eta *BAP XXIV*, 1968, 261-62. or.

<sup>200</sup> «Topónimos de posible origen vasco en torno a la ciudad de Guadalajara», in *Actas del V Encuentro de Historiadores del Valle del Henares*, Guadalajara, 1996, 695-703. or.

<sup>201</sup> «La importancia de los caballeros ferrones vascongados en los siglos pasados y la difusión que su técnica alcanzó en otras zonas, concretamente en la asturiana», Emilio ALARCOS LLORACH, «Elementos vascos en el léxico de las ferrierías asturianas», in *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1978, 65-70. or. Alarcosek seinatzen du aurretik L. Rodríguez Castellanos agertua zuela euskal eraginaren susmoa. CARO BAROJAK aipatzen duen eta euskarazko *arragua* formarekin lotzen digun Plinioren *arrugia* lexemak urrunagora gindaramazke, eta Itzeakoak berak zuhurtziaz aitortzen du ezen «no es seguro, ni mucho menos», *op. cit.*, 109. or., 35. oh. Halaber, ikus daiteke M. C. GONZÁLEZ ECHEGARAY, «Aportación al estudio de las ferrierías montañosas», *Publicaciones del Instituto de Etnografía y Folklore «Hoyos Sáinz» V*, 1973, 131-211. or. eta 62. oharrean I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZAK dioena. Honen isla literaturan L. OCHARANek (*op. cit.*, 145. or.) utzi digu, olako mailukaria *Chominandi* bataiatzen duenean.

<sup>202</sup> Alberto GÁRATE, «El euskera, el verbo dos arxinas y el barallete», in *Odón Apraizi Omenaldia*, Arabako Foru Aldundia, 1981, 121-23. or.

<sup>203</sup> Carmen MARTÍNEZ ALBARRACÍN, «El léxico del olivo en Navarra», in *Actas del I Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española*, Madrid, M. Ariza, A. Salvador eta A. Viudas ed., 1988, 1.527-36. or.; Ana María ECHAIDE, «Léxico de la viticultura en Olite (Navarra)», *Príncipe de Viana 114-115*, 1969, 147-78. or.

<sup>204</sup> «Las profesiones que se dedicaban los encartados eran: la agricultura, el laboreo de carbón en los bosques, la extracción y acarreo de mineral y la fabricación y laboreo de hierro», E. ESCÁRZAGA, *Avellaneda*, 11. or.

<sup>205</sup> *Ik.* 61. oharra.

<sup>206</sup> «El mapa toponímico contemporáneo de la zona minera corrobora este gradiente de las culturas locales. El sector comprendido entre los ríos Nervión y Cadagua presenta un absoluto predominio de la toponomástica vasca. Al otro lado de este último, el término municipal de Barakaldo y zona aneja de Güeñes acusan una neta prevalencia de términos euskéricos. Más al Oeste, el Valle de Trapaga, San Pedro de Galdames y Ortuella aún cuentan con una elevada densidad toponímica vasca. Pero ya en Abanto-Zierbena, resto de Galdames, Sopusuerta y Muskiz predomina absolutamente la toponimia románica, encontrándose las persistencias euskéricas muy desdibujadas. Sin embargo, la toponimia vasca rebasa el límite provincial por tierras de Castro Urdiales, con mayor presencia en su zona minera», J. I. HOMOBONO, *op. cit.*, 119-120. or.



Itsasadarrean barrena, berriz, Portugalete<sup>207</sup> da, dudarik gabe, testigantza gehientsuenek aitortzen duten muga, Santurtzi alde erromantzean eta Sestao euskaldunean ezartzen dituen. Pentsatzekoa da, alabaina, muga horretan barrena ukipen area bat bazela eta Galdames, Sopuerta, Muskiz edota Portugaleten gune elebidunak izango zirela. Gaitzagoa da, ordea, marra hau elementu geografiko-historikoren batez identifikatzea.

Burdigalaren erramala zen *Pisórac-Flavióbriga* kaltzada-bidea<sup>208</sup> ikusi nahi izan du inork<sup>209</sup> Enkartazioak banatzen dituen lerro horren ardatz, baina kaltzadek eta edozein komunikazio-bidek bereiztu baino, batu egiten dute, eta gure artean ere ibaiak ditugu ezer baino gehiago muga linguistiko eta etnikoekin bat datozenak, baina ez derrigorrean<sup>210</sup>, jakina.

Adostasun handiagoa bildu du, muga-lerroa, itxura zeltikoa duen *Barbadún* edo Somorrostroko ibaian<sup>211</sup> kokatzen duen hipotesiak. Asón edo Agüera ibaiak, bestalde, ezer banatzekotan kantabroak eta autrigoiak banatuko zituzten, baina hau ere, gorago esan dugun bezala, ez da aho batez onartua. Hala ere, euskaldunak ez ziratekeen bokaleraino ailegatzeko, Somorrostroko eta Portugaleteko itsasadarren arteko lurretan, Portugaletetik kostaldera bitartekoetan nekez aurki baitezakegu euskal elementurik.

### 2.3. Galera prozesua

Gorago ikusi dugu Enkartazioek ez dutela inoiz batasun linguistikorik izan; azken mendeotan, milurtekoetan ere esan liteke, euskararen presentzia ekialdeko herrietan baino ezin daitekeelarik testatu. Hala ere, ohikoak dira zehaztapenik egin gabeko aipamenak, batasun politikoa linguistikoaren gainetik jarrita eta zatia osoarentzat hartuta. Hauek honela, ZALDIBIA batxilerrak Enkartazioak eskualde

<sup>207</sup> Garibayk aipatzen du lehenik, gero Añibarrok, ondoren Reclusek eta azkenik, honi irakurrita, RODRÍGUEZ-FERRE-REK: "Los límites más precisos de este idioma comienzan entre Bilbao y Portugaleta en la costa de Vizcaya, porque en el primer punto es ya preponderante el castellano", *op. cit.*, 68. or.

<sup>208</sup> Ik. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *Estudio*, 68.or. bide honi buruzko informazio gehiagorako.

<sup>209</sup> "El eje que diferencia los ámbitos lingüísticos parece ser, a grandes rasgos, la vía Flavióbriga-Astórica que pasaba por Sopuerta y Balmaseda, aunque existe toponimia euskérica al oeste de dicha desde el conocido Olabarrieta, en Sopuerta, hasta (I)turrión y Agirre, hoy en día Agerri, en Arcentales", M. GORROTXATEGI, «Sustitución», 468. or.

<sup>210</sup> "En este terreno es bastante corriente incurrir en petición de principio, pues se apela a los límites dialectales contemporáneos para probar la existencia de unas supuestas demarcaciones tribales que, a su vez, sin ser bien conocidas, han sido evocadas para explicar esos límites dialectales contemporáneos", I. ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, «El Romance», 180. or., 10. oh.

<sup>211</sup> "En San Julián de Musques se abre el valle más despejado de las Encartaciones; es de magnífico panorama, por él corre el río Somorrostro, que viene de las montañas de Arcentales, Sopuerta y Galdames", E. ESCÁRZAGA, *op. cit.*, 9. or. Hortxe ikusi zuen Henaok Enkartazio erdaldunetako paisaia zabal eta Bilbotik ekialderako paisaia itxiaren arteko ebakia, A. TRUEBAK gogorki iharduki ziona: "El erudito y laborioso Gabriel de Henao que atribuyó á esta causa la desaparición de dicho idioma en las Encartaciones, carecía en efecto de conocimiento del territorio encartado", *Libertad en Vizcaya mientras romanos y mahometanos dominaron el resto de la península ibérica*, Bilbao, 1870, 23. or.

euskalduntzat ematen digunean<sup>212</sup>, ziurrenik lurraldea hurbiletik ezagutu gabe egiten du, Araba aipatzean egiten duen bezalaxe. AGUIRRE GANDARIASEk dakartzan testigantzak<sup>213</sup> ere horrela ulertu behar ditugu, lekuko elebakarrak ezin baitzitezkeen izan Enkartazioetako edozein herritakoak, Enkartazioetatik kanpoko Barakaldokoak edo Bilbo inguruko elizateetakoak bakarrik baizik. Orobat, Antonio TRUEBA eta hainbaten<sup>214</sup> adierazpen baikor eta beroak. Gabriel HENA-OK<sup>215</sup> Enkartazio erdaldunduak aurkezten dizkigunean, bestalde, alderantzizko bertsioa agertzen duten arren, berdin-berdin ulertu behar ditugu. Bestetik, Lope MARTÍNEZ de ISASTIK<sup>216</sup> 1625erako Bizkai osoa ematen duenean euskalduntzat, Urduña baino ez baztertuta, Enkartaziorik gabeko Bizkaia imaginatu behar dugu, jakina baita XVIII. mendera arte ez zirela Bizkaian guztiz integratu. Termino bertuetan ulertu behar ditugu Andrés de POZAREN hitzak ere<sup>217</sup>.

Barakaldon bertan ere, jakina, prozesua ez zen homoginoa izan, Euskal Herri osoan bezala, lehen eta orain, baserri eta auzo apartatuen eta gorenetan eutsi izan baitzaio hobetoen euskarari, Barakaldotik asko ez urruntzearren Alonsotegiren adibidea gogora dezakegu, non Artiba auzoa euskalduna izan baita hustu deino, *kalea* اسپالديدانik<sup>218</sup> erdaldundurik zegoelarik ere.

Horixe dugu euskararen galera prozesuaren abiaburua. Enkartazioak oso bat bezala hartzea ez da erreal<sup>219</sup>, eta Enkartazioetan euskara joan den mendean edo aurrekoan eman zela esatea<sup>220</sup> falazia handia da, uste ustel hori oso zabaldurik

<sup>212</sup> "Háblase esta lengua en Guipúzcoa, Vizcaya y Encartaciones, Álava, lo más interior de Navarra, y en Labort y Vascos...", Juan MARTÍNEZ de ZALDIBIA, *Suma de las Cosas Cantábricas y Guipuzcoanas*, Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián, 1945, 12. or.

<sup>213</sup> Sabino AGUIRRE GANDARIAS, «Dos documentos inéditos sobre el euskera en las Encartaciones: lengua vulgar a fines de la Edad Media», *Hizkuntza eta Literatura* 10, 1982, 9-14. or.

<sup>214</sup> "La desaparición del idioma euskaro en el territorio encartado es modernísima y las leyes y costumbres son allí idénticas á las del resto de Vizcaya", Antonio TRUEBA, *op. cit.*, 20 or.; Luis M.<sup>a</sup> de URIARTE, *El Fuero de Ayala*, Madrid, 1912, 24. or.; "Tenemos leído en alguna parte que la zona encartada no era totalmente erdaldun en el siglo XVI, y que todavía en el siglo XIX sufrió allí pérdidas nuestra lengua; pero no sabemos precisar más", J. M. MOCOROA, Ibar, *Genio y Lengua*, Tolosa, 1935, 132. or., etab.

<sup>215</sup> "De cualquier modo, el no hablarse en las Encartaciones vascuence, sino romance, es vehemente indicio de haberle aprendido de los Romanos, dominantes allí", *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria*, III, 1894, 187. or., 2. oh.

<sup>216</sup> "Háblase en tierra de bascos y en la mayor parte de Navarra, en Guiana de Francia, que se llama Lapurdí, que está en la raya, en Álava y Señorío de Vizcaya, excepto en la ciudad de Orduña", *Compendio Historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1850, 161. or.

<sup>217</sup> *Ik.* 242. oh.

<sup>218</sup> "Gu pakarrik eiten gendun auskera, etxeokak eta ausokuak, bajetan gentzen Alontzoteire ta an erdera dena", 1901ean edo jaioriko Juana Etxebarria, Josu TELLABIDEK elkarriketatu, *Euskalerriko Atlas Etnolingüistikoa, lehen atala, bigarren zatia*, Donostia, 1990, 9. etnotestua.

<sup>219</sup> "Es un absurdo tratar a las Encartaciones como un todo homogéneo cuando es más que notorio que la situación lingüística es muy cambiante, sin que podamos hablar de una situación general común a toda ella. Causa espanto observar cómo distinguidos lingüistas como Tovar hablan de las Encartaciones como si en la lengua y en la toponimia formasen una unidad tan clara como la cuenca del Deba o el valle del Roncal, cuando en realidad tiene una diversidad comparable a la totalidad de Navarra", *op. cit.*, 483. or.

<sup>220</sup> "Argi dago ekialdeko Enkartazioetan euskararen galera joan den mendean gauzatu zela, hara hor Gordexolaven kasua", Mikel GORROTXATEGI, «Enkartazioetan euskaraz», in *Deia*. Hauek bezalakoak irakurrita Mitxelenaen zuhurtiazko hitzek pertinentzia osoa bereganatzen dute: "Contra el vicio de creer como cosa demostrada lo que se ignora y acaso se seguirá ignorando hasta la consumación de los siglos, y de afirmar o negar con énfasis lo que no se sabe, el incrédulo, que se limita a señalar la insuficiencia o la falacia de la argumentación de los dogmáticos, es un dechado, por lo menos, de virtudes epistemológicas", «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU* XV, 1981, 292-93. or.

egonagatik ere. XVIII. mendean gauzatu zen askoz atzeragotik zetorren prozesu luzearen amaiera, artean euskalduna zen alderik ekialdarrenean. XIX-XX. mendeetan, jakina, oraindik azken hondarrak ezagutu dira, milurteko hasi berrian Alonsotegirako oraindik orain dauden bezala. Euskararen lorratzik ez dagoen eskualdeetarako, berriz, nekez asma daiteke kronologiarik<sup>221</sup>, Martitzen bizitzaren kronologia bat saiatzearen pareko ariketa antzu eta zentzugabea bailitzateke. Datuen bermeaz ezarri daitekeena da, galera prozesua luzea izan zela eta mendebaldetik ekialdera zabaldu zela<sup>222</sup>, beharbada gerra karlisten galtzea azken inflexio momentu erabakiorra izan zelarik.

Zorionez, ez dira gutxi galera bete-betean gertatzen ari zeneko testigantzak: batzuk Barakaldori buruzkoak, zuzenak eta detaile handikoak, eta zeharkakoak besteak, Bilbo eta Enkarterrietako inguruko herriei buruzkoak, baina aurrekoak bezain garrantzitsuak. Garrantzitsua da, halere, iritzi eta ustekizunak direnak, –Trueba, Delmas eta berauen jarraitzaile anakronikoenak, besteak beste– eta batez ere iritzi hauetatik ateratako inferentziak, datu objetiboak direnetatik bereiztea, askotan aurrenekoei ematen izan baitzaie merezi ez zuten pisua.

Galeraren kronologia, absolutua eta erlatiboa, ezartzeko beste baliabide bat linguistika historikoaren eskutik datorkiguna da. Aldaketa fonologikoen kronologia eta ordena gai korapilotsua den arren<sup>223</sup>, substratu toponimiko zein lexikoa- ren adina ere neurtu liteke, jaso duen higaduraren, edo erdararen eraginezko bilakaera arrotzaren zantzuak aztertuta. Hala eta guztiz ere, ezin ukatuzko eta kontuan hartu beharreko zenbait ondorio haizeratuko lirakeela auresan daiteke. Gordexolan, esaterako, euskara XVIII-XIX. mendeetan galdu zela aipatzen da, baina *Iratzagorria* toponimoaren ordeztasunaz *Lazagorria* higitua XVII. mendearen hasierarako jadanik azaltzen zaigu, lehenagorako ez bada, eta antzeko kronologia ezarri genezake *Zubiete*, *Ulierte*, *Rodayega*, *Ligorria*... toponimoetarako. Izan ere, XVII. menderako jasotzen dugun toponimia ez dago, inondik inora, herri euskaldun batekoarekin alderatzerik, mendiaz bestaldeko Zollokoarekin, kasu baterako, ez toponimo erromantzeen kopuruari, ez eta higadurari dagokionez ere. Abandon, euskara artean galdu gabe zegoen inguru eta garai batean, esaterako, *Aransuli* eta *Restaleku* jaso ziren, eta Basaurin, oso urrun ez joatearren, *Kantalarra* famatua, Gordexolako zenbait alek erakusten duten higadura marka bertsuekin. Barakal-

<sup>221</sup> “*Sopuertan (edo Garapen), Castroitik Gaztelara zihuan bidearen erdian, egoera nahasiagoa da, baina argi dago euskara ez zela Erdi Aroan galdu. Arcentales eta Turtziosen berriz, euskara aspaldi galdu dela dirudi eta Karrantzan, agian, erromatar garaietara joan beharko genuke*”, Mikel GORROTXATEGI, *ibid.*

<sup>222</sup> “*En cuanto al euskera, los más fiables datos históricos perfilan un retroceso gradual de O. a E., común al resto de Las Encartaciones*”, J. I. HOMOBONO, *op. cit.*, 120. or.

<sup>223</sup> Paradoxikoki, gramatika sortzailetik sortu zen erregelen ordena historikoa aztertzeko bultzada, Carmen PENSADO RUIZ-en lan garrantzitsua lekuko: *El orden histórico de los procesos fonológicos*, Acta Salmanticensia 145, Universidad de Salamanca, 1983. Gure artean badugu orain toponimian oinarritutako lehen saio bat Matías MÚGIC-aren eskutik: «Notas de fonética histórica y toponimia, I. Sobre cronología de los cambios fonéticos», *ASJU* XXX, 1996, 219-238. or.

don bertan, artean euskara bizirik zegoela *Sasibro, Rájeta, Káriga, Luísiga, Galanilluba*, etab. entzun zitezkeen, euskarazko jatorrizko bertsioetatik bereizi samarturik. Badirudi, beraz, erdararen nagusigoa nahikoa dela, euskara guztiz galdurik egon gabe ere, higadura prozesua abia dadin. Datuak honetara interpretatuta, suposa beharko genuke Gordexolan euskara gutxitasun egoeran zegoela XVII. menderako jadanik. Hauxe da, gaitzizenen filiazioarekin batera, G. BAÑALE-Sek<sup>224</sup> euskararen presentzia aztertzeo baliatzen duen bidea, ateratzen dituen ondorioek makur handirik ez dutela.

Azterbide hau, glotokronologiaren itzal beltza etsai dugula, ez dugu orain jorratuko, galera prozesuaren gaineko testigantza idatziak banan-banan eta kritikoki lehenago aztertzea funtsezkoa baita, aurrerago toponimiaren azterketa lagungarria gerta dakigun. Izan ere, azken urteotan auzi honetan nahasi diren aldarrikapen zutzargabe eta antzuek pentsa lezaketenaren kontra, prozesu hau konplexua baina objetiboa edo objetibagarria dugu.

Hizkuntzaren galeraren jarraipen kronologikoa egin aurretik, aipa ditzagun, azaletik badarik ere, galera eragin zuten zergatiak.

Enkartazioak ez dira, alde honetatik, salbuespeneko lurraldea<sup>225</sup>. Hemen ere, bestetan baino indar handiagoz apika, izan du erdara bidelagun gaiztoa. Lurralde erdaldunekiko kontaktua<sup>226</sup>, Santander eta Burgosko muga bertan baita, baina baita historikoki erdalduna izan den Enkartazioen mendebaldeko aldea bera. Kontaktua gain, lurralde auzo horietatik etorritako inmigranteak eta bestelako eraginak aipatu izan dira inoizka. Ez dakigu, bestalde, noraino izan ziren euskaldun, esaterako, Zalla edo Portugaleteko herri-hiriak, eta, hortaz, noraino galdu zuten hizkuntza edo noraino ez zuten guztiz bereganatu.

Duda gabe, gerrek eta foruen galtzeak ondorio larriak ekarri zituzten, azken honek meatzeen ustiakuntza masiborako bidea zabaldu zuenez gero<sup>227</sup>. Meatzeen ustiakuntzari lotuta, industria iraultzaren garaia etorri zen, inmigrante-oste han-

<sup>224</sup> *Ik.* 281. oh.

<sup>225</sup> "Algo semejante [a lo que ocurrió en Tierra Estella] se había dado también, aunque la época no esté bien determinada, en tierras encartadas de Vizcaya. (...) [El proceso] comienza tiempo atrás, y en la culminación tuvieron su papel la guerra de la independencia y la 1ª carlista", Luis MICHELENA, «El largo y difícil camino del euskera», in *El Libro Blanco del Euskera*, 20. or.

<sup>226</sup> "El continuo roce con Castilla mató el euskara en esta región, y al presente los miles de braceros de todas las regiones de España que han venido a sus minas han extinguido lo escaso que quedaba, amenazando con todo lo que se encuentre parecido", E. J. LABAYRU, *op. cit.*, II, 533-34. or.

<sup>227</sup> "La antigua industria no estaba obligada a ser enemiga de las viejas costumbres y de la vieja lengua, como lo está ahora", Julio CARO BAROJA, «Observaciones generales sobre el estudio del País Vasco desde los puntos de vista lingüístico, etnográfico y antropológico», *BAP I*, 1945, 228. or.; "De todo ello [la guerra civil de 1872-76 y la ley abolitoria de esta última fecha] se sigue la explotación a tumba abierta, sin las viejas restricciones, de las minas vizcainas, con la implantación de la gran industria y la primera inmigración masiva", Luis MICHELENA, *op. cit.*, 21. or.; "A fines del XVIII, parece que se hablaba en los confines de Barakaldo, en contraste con el último cuarto de siglo, cuando por probable efecto del desastre carlista y la primera inmigración industrial, únicamente lo hablaban los más ancianos; habiendo casi desaparecido del conjunto de las Encartaciones, en donde lo utilizaban unos dos mil habitantes de los 30 mil de población total", Sabino AGUIRRE GANDARIAS, *op. cit.*, 12-13. or.

diak erakarritz<sup>228</sup>, eta bertakoak baserriak abandonatzera bultzatuz<sup>229</sup>, meatzeek baserrien lurak okupatu ez zituztenean.

Ez dago dudarik, Portugalete eta Barakaldon bertan, merkatalgintzak ere kanpotar erdaldunen joan-etorria ekarri zuela<sup>230</sup>, lehenik elebitasuna zabaldu eta ondoren euskararen galtzean eragin handia izan zuelarik.

### 2.3.1. Erdi Aroa

Kontu ezaguna da Erdi Arokoa garai iluna dugula, oso bereziki euskararen egoeraz den bezainbatean<sup>231</sup>. Iluntasun horretan babesturik bezala, nekez froga daitezkeen zenbait baieztapen egin izan dira. Hauek honela, ODÓN DE APRAIZEK<sup>232</sup> XII. mendean Karrantzan euskaraz egiten zela diosku, LABAYRUK<sup>233</sup> Erdi Aroa ematen du Turtzioserako, M. GORROTXATEGIK<sup>234</sup> esaten digu Sopuerta ez zela Erdi Aroan erdaldundu, beranduago izan balitz iradoki nahiko balu bezala. Ez da, bada, kasualitatea aipamen lauso hauek euskararen arrasto historiko argirik ez duten herriei buruzkoak izatea. Erdi Arorako testigantza zuzenak urriak eta zekenak dira, baina aipatu berri hauekin inondik inora bat ez datozenak.

Goi Erdi Arorako, toponimiatik inferitutako irudia baino ez dugu, toponimo soil batzuen presentziari interpretaziorik zabalena emanda<sup>235</sup>. Behe Erdi Arorako, toponimia hutsetik egindako inferentziez bestaldeko lehen testigantzak ditugu jadanik: Lope García de Salazarren aipamen lokabeak eta orain Sabino AGUIRRE historialariak aurkitu eta ezagutzera emandakoak.

<sup>228</sup> *“Pero en definitiva, la industrialización y el consiguiente flujo migratorio sobre el ámbito nuclear de la zona minera tienen lugar en un territorio ya castellanófono”*, J. I. HOMOBONO, *op. cit.*, 120. or.

<sup>229</sup> *“Muchos de sus moradores [de Baracaldo] abandonan la agricultura por el beneficio de las minas de hierro que tienen inmediatas”*, Vicente GÓNZALEZ ARNAO, «Baracaldo», in *op. cit.*, 146-47. or.

<sup>230</sup> *“Beste faktore batzuek sortarazi zuten arazoa, hala nola inguruko Portugalete eta Bilbo hirien eragina: merkataritza, dirua, oparotasuna bertan zeuden... eta mundu hartan erdaraz egiten zen. Gauzak horrela, erraza da nor bere miseriaren errua hizkuntzari lotzea eta euskara bazter utziz gero bizimodu hobea errazago lortuko dela pentsatzea”*, Aitor GOROSTIZA, *op. cit.*, 20. or.

<sup>231</sup> *“Parece sin embargo que los límites actuales del idioma euskaro no se han modificado desde la época romana, por lo menos en el lado de Francia. (...) Los primeros documentos escritos de la Edad Media muestran en efecto que no se hablaba ya el euskera en el valle de Andorra ni en las confederaciones republicanas de los Pirineos centrales, ni en los bordes de los ríos Aspe y Olorón. El límite de separación entre los dialectos románicos y los dialectos vascos pasaba exactamente por los sitios por donde pasa en nuestros días”*, E. RECLUS, *op. cit.*, 69. or. *“La información acerca del euskera en épocas anteriores, durante los largos siglos medievales, mengua en proporción inversa a la antigüedad de la que se trate”*, J. GORROCHATAGUI, «La Aportación», 117. or.; *“Ignoramos los límites exactos de la lengua vasca antes del siglo XVI. Pero hay derecho a pensar que durante grandes períodos de la Edad Media, en Navarra por lo menos y en la parte occidental se mantuvo en posiciones muy estables”*, Julio CARO BAROJA, *op. cit.*, 229. or. Esan ere esan da, egonkortasun hau erromatarren gainbeheratik bertatik has zitekeela: *“En general se puede decir que este estado de cosas adquirió algún grado de estabilidad ya en el Bajo Imperio y que las invasiones bárbaras no hicieron más que afianzarlo de alguna manera”*, Alfonso IRIGOYEN, *La Lengua Vasca en Relación con la Antroponimia y otras Cuestiones Medievales, Tesis Doctorales, Universidad del País Vasco*, d.g. (1983koa tesia), 4. or.

<sup>232</sup> J. M.<sup>a</sup> SASÍAK aipatua, «Más sobre toponimia», 1.183. or.

<sup>233</sup> *“Son escasos los nombres vascos que quedan en este valle, lo cual demuestra que desde la Edad Media fué perdiendo el habla vizcaína”*, *op. cit.*, Tomo II, 563. or.

<sup>234</sup> Ik. 221. oh.

<sup>235</sup> *“Y en la misma etapa [siglo X], mientras sus vecinos de Santander y Burgos al romanizarse fueron perdiendo su lengua iberica o vascona, los encartados (de Muskiz, ría de Somorrostro, Labarrieta y Otxaran) siguieron hablando su idioma por más tiempo, con la temprana excepción del valle de Karrantza e inmediaciones, como lo confirma Menéndez Pidal”*, S. AGUIRRE GANDARIAS, *op. cit.*, 12. or.

Somorrostrotik idatzia da XV. mendean, 1471-75. urteetan, Lope García de Salazarren *Las Bienandanzas e Fortunas* kronika ezaguna, non egun ere *la parte del vascuence* deritzona, hau da, euskara egiten den aldea, *comarca de los Vascongados* izendapenez ageri baita. Hemendik atera daitekeen inferentzia Alfonso IRIGOYENek<sup>236</sup> ateratzen duena da, bertan, Somorrostrotik mendebaldera, erroman-tzea zela hizkuntza arrunta, eta euskara arrotza.

Bestaldetik, Enkartazioen ekialdea, Somorrostro eta Gueñesetik Barakaldora bitartekoa bederen, euskaldun azaltzen zaigu. XV. mendearen amaieran, *Cristóbal de Toro* juje peskisdorearen gehiegikerien kontra izandako istiluen eta hurrengo mendearen hasierako Muskizeko Muñatonestarren herentziaren auzi luzearen karietara, agerian geratzen den bezala. 1491ean, Gernikan bilduta zeuden Bizkai osotik etorritako ia 3.000 ordezkari, peskisdorearen aurka jaiki ziren, honek Forua Batzarrearen gainetik aldatu nahi zuela bide. Orduan, *Tristan Díaz de Leguizamón* probestu bilbotarra mintzo zitzaizen, euskaraz mintzatu ere, eta Gueñesko *Juan Ruiz de Bolibar* prestamero tenenteak ardura hartu peskisdoreari “*de irle vertiendo al castellano todo cuanto allí sucedía y se hablaba*”<sup>237</sup>. Gertakizuna adierazgarri samarra da, bilbotarra delako bizkaitarrei euskaraz hitz egiten diena batetik, eta Gueñestarra delako interpretaria, bestetik. Honek ez du esan nahi bertara hurbildutako ia 3.000 ordezkariak euskaldunak zirenik, baina bai, euskara ulertzen ez zutenen gutxi batzuen aurrean, gaztelania ulertzen ez zuten ehunka bizkaitar bazirela. Gueñeskoak euskara ulertzen zuela badakigu, eta ulertu bakarrik ez, baita ondo menperatzen zuela ere pentsatu behar dugu. Izan ere, diskurtsu luze baten bat-bateko itzulpena egiteko ez da nahikoa hizkuntza doi-doi ezagutzea.

### 2.3.2. XVI. mendea

Handik urte gutxira, berriro ere Sabino AGUIRREk ezagutzera emandako dokumentuei esker<sup>238</sup>, 1504ko eta 1508ko testigantza bana daukagu, auzi bakar batekoak eta euskarari buruzko informazio interesgarria ematen digutenak. Enkartazioetako lekuko euskaldunei aitortpena ezagutzen zuten hizkuntza bakarrean, euskaraz alegia, egin zekien interprete baten eskabidearen berri ematen dute testuek. Isabel ECHEVARRÍAk azaltzen duen zuhurtziazko mesfidantza gora-

<sup>236</sup> “*Con toda probabilidad en Las Encartaciones, sobre todo en la zona de Carranza, Arcentales, Trucíos, Lanestosa, parte de Somorrostro, etc., la lengua predominante a la sazón, aunque no la única, sería el castellano, no tanto en el área comprendida más o menos entre Baracaldo, Gordejuela, Güeñes, Zalla, Galdames, etc., donde la lengua vasca fue utilizada con cierta intensidad hasta más recientemente*”, in *Las Lenguas de los Vizcaínos: Antroponimia y Toponimia Medievales*, Bilbao, 1985, 5. or.

<sup>237</sup> Sabino AGUIRRE GANDARIAS, «La oficialidad del euskera en procesos postmedievales (con documentos inéditos)», *ASJU XXVI*, 1992, 259-79. or.

<sup>238</sup> Sabino AGUIRRE GANDARIAS, «Dos documentos», 11. or.

behera<sup>239</sup>, badirudi Barakaldokoak behar zutela izan aipatu euskaldun elebakarrek. Izan ere, Barakaldoz gain, Bilbo, Somorrostro eta Karrantza herriak baino ez dira aipatzen. Bilbo herri enkartatuen artean emateak zer pentsatua ematen du eta, gainera, hiribilduan elebakar euskaldunak aurkitzea zalantzan jartzekoa da, Bilboren aipamen horretan hiriaren beraren orde, inguruko elizateren bat ikusi nahi ez badugu, behintzat. Esan gabe doa Karrantza eta, goian esan berri dugun bezala, Somorrostro, baziratekeela elebakarrak, jakina, baina ez euskaldunak, bertan euskaldunak egon bazitezkeen ere, bigarrenean bereziki.

XVI. mendea aurrera doala, Zaldibia, Garibai eta Iburguen-Cachopínen kronikak helarazi dizkiguten berri apalak ditugu.

Zaldibia batxilerrak, euskara mintzaten zen eremua zehaztean *Vizcaya y Encartaciones* idazten du. Batxiler tolosarraren obra 1564an datatu da<sup>240</sup>. Gorago esan bezala, distantziatik egindako deskribapena da, seguruenik errealitatea hurbiletik ezagutu gabe, urtetxu batzuk aurrerago, Esteban de Garibayk, errealitate bera bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuenak, bestelako irudia ematen baitu. Garibay Portugaletetik abiatu zen Anberes aldera 1570ean, *Compendio Historial* argitaratu baino urtebete lehenago, beraz. Liburu horretakoa da, behin baino gehiagotan<sup>241</sup> jaso eta aztertu den aipu ezaguna:

*“Portugalete, pueblo marítimo de antigua fundación, donde ... el día de oy fenece por esta parte la Lengua Bascongada de los Cántabros, más aun las riberas del mar Cantábrico, pertenecientes e las montañas de esta región”.*

Andrés de POZAK<sup>242</sup>, 1587an, Bizkaia soilik aipatzen du euskararen eremua seinalatzean, Enkartzioak Bizkaitik kanpokoak zirela gaineratzen duelarik. Aipamenak, bistan denez, oso lainotsuak dira eta ezin da ez alde bateko ez besteko ondorio zehatzik atera.

Mendearen amaiera aldean idatziriko Iburguen-Cachopínen kronikak, oraindik azaletik baino ezagutzen ez denak<sup>243</sup>, informazio zehatz eta apartekoa ematen

<sup>239</sup> “El problema es que, en los textos reproducidos luego, no se lee en parte alguna que los testigos sean de Las Encartaciones”, *Estudio*, 92. or. Duda, lekukoen jatorrian egon daiteke, baina ez funtsean. 1504an interpretea behar zen “para que entienda lo que los testigos le dixieren” eta 1508ko testuak dioena ezin argiagoa da: “los testigos que han de presentar son bascongados, que no entienden la lengua castellana”.

<sup>240</sup> José Ramón ZUBIAUR BILBAO, *op. cit.*, 81. or.

<sup>241</sup> José Ramón ZUBIAUR BILBAO, *ibid.*, 129-30. or.; J. GORROCHATÉGUI: “Debemos al cronista arrasatiarra del s. XVI, Esteban de Garibai, la información (...) que en Portugalete la lengua se hallara en fase moribunda”, *op. cit.*, 117. or.

<sup>242</sup> “La [lengua] vascongada se habla en la provincia de Vizcaya y Guipúzcoa, Navarra, tierra de Alava y en la Gascuña”, *Antigua Lengua de las Españas*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1959, 13r. eta aurrerago: “No todo lo que antiguamente fue Cantabria ahora es Vizcaya, que es donde se ha conservado la antigua lengua de estos reinos de que tratamos. (...) Todo lo que en nuestros tiempos se tiene por Vizcaya, comprende veinte villas y una ciudad y más setenta y dos anteiglesias, en el cual número no entran las poblaciones de las Encartaciones”, *ibid.*, 44r-45v.

<sup>243</sup> Julen ARRIOLABENGOA, «Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan (1570-1620)», *ASJU* XXX, 1996, 94.

digu, L. MICHELENak iragarriak zituen harribitxi horietako bat<sup>244</sup>, lehenengo berria Barakaldoko euskararen nolakotasunaz:

*“Aquí [en Baracaldo] hablan basquence y Romance y el bascuence con unos regustos particulares lo pronuncian con un sonido diferente a los demás pueblos comarcanos, y el romance hablan habitantes de hacia Castro Urdiales”*<sup>245</sup>.

Testuak, bere laburrean, ez dauka zer galdurik. Alde batetik, Barakaldoko euskararen berezitasuna azpimarratzen digu, eta hau alderdi fonotik datorkiola zehazten. Egia esan eta zoritxarrez, ez dugu, beste batean aurkeztuko dugun toponimoen azentua kontuaz landa, hau zehatzago interpretatzen lagun diezagukeenik. Beste alde batetik, orduko egoera elebiduna baieztatzen digu, eta azaletik deskribatzen. Badirudi bi hizkuntza komunitate zeudela: euskaldunena, baserritarak urrean, eta erromantzea egiten zutenena, Castro Urdiales aldekoak omen zirenak. Pentsa daiteke azken hauek merkatariak eta bestelako langintzatan aritzen zirenak ditugula, eta *“de hacia Castro Urdiales”* aipatzen denean *sensu lato* ulertu behar dugula. Pentsatzekoa da, halaber, bi komunitate hauek nolabaiteko harremanak izango zituztela, bestela esanda; hizkuntza bateko eta besteko gizabanako elebakarren ondoan elebidunak<sup>246</sup> ere baziratekeela. Izan ere, geroko datuek adierazten digute aurrerago ere, artean elebakar euskaldunak bazirela Barakaldon, eta Barakaldon ez ezik, inguruko beste herri batzuetan ere, orduan eta lehenago, antzeko hizkuntza egoera konplexuak<sup>247</sup> bazirela. Ordukoak eta hurrengo urtekoak ditugu G. BAÑALESek<sup>248</sup> aurkeztu dizkigun *Salduna, Arraunça, Luçea, Ybarreco, Mocha, Balza* eta gaitzizen hain garbia ez zuten beste hainbat, beharbada, beste komunitate horretakoak zirelako: *Chiquitu, Echio, Faran, Fallaxo, Gallarde, Juaniqui, Maora, Perotín, Zangon*, etab.

<sup>244</sup> *“Donde queda todavía sin duda alguna valiosa pepita éuskara que otra entre tanto árido peñasco”*, «Contra Lekobide», *ASJU* XX, 1986, 293. or.

<sup>245</sup> Testua Julio Etxebarriak eman digu ezagutzera, baina Jesús eta Txomin ETXEBARRIA MIRONES anaiek publikatutik jasotzen dugu, *Orígenes Históricos de Las Encartaciones. Siglos X-XIII. Toponimia, Onomástica y Lengua Propia*, Bilbao, 1994, 279. or, 50. oh.

<sup>246</sup> Badirudi elebitasunak ez duela ekarri, orain arte behintzat, elebakar euskaldunen erabateko desagertzea. A. IRIGOYENek («Bilbo eta Euskara», *Euskera* XXII, 1977, 403. eta 409. or.) Bilborako bi kasu aipatzen ditu, bata domeketan euskarazko mezak jartzea erabaki omen zen *“erderaz ulertu edo aditu ezin daben askok bide ori ezautu daien izan da”*, 1898ko aipatu «Euskerea Bilbon» artikuluan, bestea askoz berrikiago Adrián Zelaia Enekurira epaile joan eta interpretea behar izan zuen batekoa. Buja inguruko kasuak ere, ez dira ez ezezagunak ez eta oso aspaldikoak ere.

<sup>247</sup> *“En cualquier caso en las familias de relieve de la época de los banderizos el castellano debía ser a todas luces, incluso en zonas más amplias del País Vasco peninsular, la lengua de prestigio que les abría al mundo exterior; independientemente del conocimiento que la lengua vasca que normalmente también les era útil tener y en general tenían”*, Alfonso IRIGOYEN, *Las Lenguas de Los Vizcaínos*, 7. or.

<sup>248</sup> *Op. cit.*, 151-54. or.



### 2.3.3. XVII. mendea

XVII. mendean, are urriagoak ditugu berriak, Gernikako Juntetxeetan Barakaldoko mandatariekin gertaturiko gorabehera ezagunak eta Henaoren aipu laburra, besterik ez.

Enkartazioen euskalduntasuna aldarrikatze gehien erabili izan den testigantza, Gernikako Juntetxeetara joandako Barakaldoko mandatarien gorabeherei buruzkoa izan da, halako moldez erabilia, non interpretazio euforikoek gertakizuna guttiz desitxuratu duten.

Kontua da 1624an Arrieta, Ispazter, Sondika, Leioa, Berango, Lemoiz, Laukiz, Basigo, Gamiz, Gaztelu-Elexabeitia eta Ubideako prokuradoreak ez onartzeko agindu zuela Korrejidoreak, izan ere *“no se hallaban con la suficiencia necesaria en leer y escribir y lengua castellana”*<sup>249</sup>, 1625ean, berriz, Muxika, Ereño eta Berriatuakoak errefusatu zituzten maiatzaren 10ean *“por no saber leer, escribir y hablar romance”*, eta Barakaldo eta Berangokoak irailaren 16an, azken hauei, gainera, bi dukateko isuna eta 5 eguneko kartzela zigorra jarri zitzaielarik. Hurrengo urtean gauza bera gertatu zen beste zenbait elizaterekin, oraingoan Areitiok zeintzuk izan ziren zehazten ez badigu ere.

Preskripzioa askotan eta modu ezberdinez ageri da: *“supieran leer y escribir en romance”* edota *“carecen de suficiencia necesaria en leer, escribir y lengua castellana”*, *“excluido por no saber leer y escribir y hablar en romance”*, *“por no saber leer, ni escribir, ni entender la lengua castellana”*. Barakaldo eta Berangoko ordezkariak errefusatu zituztenean, ordea, *“por no saber leer y escribir”* soila idatzi zen<sup>250</sup>, oraingo honetan *romance* edo *lengua castellana* aipatu gabe, ETXEBARRIA MIRONES anaiek zehaztu eta finkatu nahi izan duten bezala<sup>251</sup>. Hitzak hitz, aldiari aldiari erabilitako formulak beti egoera bat berari egiten bide diote erreferentzia, orduan ia Bizkai osoan bat baitzetozen letraduna izatea gaztelania jakitearekin eta eskolagabetua euskaldun hutsa izatearekin. Formularen literaltasuna gorabehera, beraz, pentsatzekoa da eskatutako baldintzak beti berberak zirela, eta erromantzearen ezagueraren exigentzia horren bidez herrietako ordezkariak gutxieneko eskola izatea lortu nahi zela.

<sup>249</sup> Dario de AREITIO, *El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya*, Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbao, 1943, 43. or.

<sup>250</sup> Dario de AREITIO, *ibid.*, 43-44.or.; Fidel SAGARMINAGA, *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya*, Bilbao, 1892, 1. tomoa, 403. or.; Gregorio MONREAL CIA, *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (Hasta el Siglo XVIII)*, Bizkaiako Diputazioa, Bilbao, d.g., 346-48. or, 1.163. oh. bereziki.

<sup>251</sup> *“... la única indicación que se hace del Procurador de Baracaldo es que no sabía leer y escribir”*, *op. cit.*, 280. or., 50. oh., sarri, informazioa kontrastatu gabe, beste kasuetan erabilitako formularen *“... en romance”* eransten zaion arren, esaterako, M<sup>º</sup>. Ángeles CASTAÑOS URCULLU, «Barakaldoko muinetan arakatzen», in *II. Onomastika Jardunaldien Agiriak*, 451. or.

Gertaera honek agerian utziko luke XVII. mendearen hasieran Barakaldon artean euskaldun elebakarrak bazirela, Sasiak egiten duen irakurketa beroegi eta hanpatutik urrun xamar dagoena. Betiere, SASÍAren interpretazioa<sup>252</sup>, beroarenik kendu gabe, izan da gailendu eta zabaldu dena, gai hau sakonki aztertu duen Gregorio MONREALen hitz zuhur eta datu erabakiorren gainetik<sup>253</sup>.

Arabian erantzun erabakiorragoa eman zitzaion arazo honi, 1682an Artzeniegako ordezkari euskalduna errefusatu zenean<sup>254</sup>. Juntak hartutako erabakiak argi uzten du arazoa zertan zen: bertan erromantzez hitz egiten baitzen, ordezkariak erromantzea jakin ezean nekez jabe zitezkeen bertan eztabaidatzen zirenez eta ez zuten erraza botoa ganoraz ematea, ordezkatzeko zituzten ermandadeen kaltetan. Isunak euskaldun hutsak bidaltzen zituzten ermandadeentzat zein ordezkari entzat berentzat jarri ziren, bosna mila marabedikoak, Artzeniegakoaz beste auzirik egon ote zen ez dakigun arren.

Manuel LÓPEZ LLAMOSASEk<sup>255</sup> Truebaren ahotan jartzen du euskara 1647. urtean hizkuntza arrunta zela Barakaldon, baina ez diogu Truebari holakorik irakurri eta ez dugu honentzat baieztapen horren oinarria izan zitekeen orduko gertakizunik ezagutzen. TRUEBAk, ezaguna denez, askoz ere gehiago atzeratzen du data hau<sup>256</sup>. Manuel Lópezen aipua, bada, oker bat besterik ez dela pentsatu behar dugu, beharbada Gernikako Juntetxeetako gorabeherez entzundako zer-baiten nahasmenez.

Mende honetan gaitzizenak orindik euskaldunak ditugu. Goian aipatu mende hasierako Barakaldokoez gain, badugu Eduardo de ESCÁRZAGAK<sup>257</sup> aurkeztan digun Gordexolako *Aroza*, 1655ean erretabloa egiteko dirua eman zuenatarikoa.

XVII. mende honen amaierako Gabriel HENAren deskribapena<sup>258</sup> ere bat dator Enkarterri ia erdaldunen irudiarekin, beharbada ordurako euskara Barakaldorekin muga egiten zuten herrietan edota herri hauetako auzoetan baino ez baitzen mantentzen, eta hauetan gutxiengo egoera nabarmenean, eta gaztelania, ostera, gero eta sustraituago, hurrengo menderako ditugun datuek agerian uzten dutenez.

<sup>252</sup> “*Toda la parte del Este de las Encartaciones en el siglo XVII era zona euskaldun ‘cerrada’ que desconocía en absoluto otra lengua que no fuera la indígena*”, *Toponimia Euskérica de las Encartaciones*, 1966, 76. or. Han hemen sutsuki defendatuak izan dira, edo aipatuak soilik, Añamendi entziklopedian, kasurako, ETXEBARRIA MIRONES anaien haserrea piztuz, *op. cit.*, 280. or., 50. oh.

<sup>253</sup> “*En romance se expresaban [en la Juntas] el Corregidor, su Teniente y el Prestamero, el representante de la Encartación y los de las villas de Valmaseda, Lanestosa y quizá Portugalete*”, *op. cit.*, 346. or.

<sup>254</sup> Ricardo CIERBIDE, «Consideraciones históricas en torno al euskera en Álava», *FLV* 72, 1996, 292-93. or.

<sup>255</sup> “*El vascuence constituía en 1647 en Baratz-alde, Baracaldo su lengua vulgar*”, *Baratz-Alde*, 85. or.

<sup>256</sup> “*En Barakaldo (...) era todavía lengua vulgar el vascuence a principios de este siglo*”, *Compendio Histórico-Descriptivo de las Nobles Encartaciones de Vizcaya, Basado en el Inédito de Don Juan Ramón de Iturriza*, 1887, 11. or.

<sup>257</sup> *Descripción Histórica del Valle de Gordejuela*, Imprenta de la Excelentísima Diputación de Vizcaya, 1919, 105. or.

<sup>258</sup> *Ik.* 215. oh.

### 2.3.4. XVIII. mendea

1712ko gertaera lazgarriarekin hasten zaigu XVIII. mendea. Datu hau objektibo da oso eta garrantzitsua zenbait arrazoiengatik. Heldu zaigun mikrotestua, bere balio historiko-filologikoa alde batera utzita, ahozko errealizazio naturala da, hitzetik hortzera jaulkia, testu idatzien zurruntasun literariorik gabea, beraz. Adin txikiko pertsona batena, hau da, ez beti aipatzen diren zaharrena, hauek beti baitira aurreko egoera baten hondarrak. Adin txikiko hau emakumezkoa izatea ere adierazgarria izan daiteke, ezaguna baita emakumezkoek, prestigio eta konplexu kontuak tarteko, errazago utzi diotela euskara egiteari. Honenbestez, gertaera honek argi uzten duena da, XVIII. mendearen hasieran euskararen transmizioa bizirik zegoela Barakaldon, edo Barakaldoko zenbait familiarengan, behintzat. Autuetako beste pertsonaien ezaugarri linguistikoak ere kontuan hartzekoak dira. Kulpatu nahi izan zuten gizonezko deustuarra eta bere morroia euskaldunak ziren; neskatoaren hitzak jaso zituen lekuko gailegoa ez zen gaztelaniar mintzatzeko gauza, baina euskara ondo ulertzen bide zuen, neskatoaren hitzak hutsik egin gabe errepikatzen gauza izan baitzen. Hiltzailea, berriz, Galdameskoa baitzen, ez dakigu euskalduna zen ala ez, baina badirudi arrotz egiten zitzaiola euskara, edo atentzioa ematen ziola bederen. Bestaldetik, adierazgarria izan daiteke, datuak urriak badira ere, proportzioan gaitzitzen euskaldun gutxiago egotea. Pentzatzekoa da, era berean, Barakaldoko abadea, hiltzaile galdamestarraren anaia baitzen berau, erdalduna zela, eta horretara liturgia ere erdarazkoa.

Lino de AKESOLOK<sup>259</sup>, oso aipatua izan den beste gertakizun baten berri ematen digu; XVIII. mendearen hasieran Sopuertako Carral auzoko *Inchausti* deiturako batek *Nocedal* gaztelaniar bertsioa zatekeena hartu zueneko.

Aurkeztu nahi izan zaigu hau gaztelaniaren inposaketa baten aztarnatzat, Enkartzioetan euskara jazarrita desagertarazi zuten seinale ia-ia, baina gertaera honek oso bestelako azalpena eskatzen du, toponimia itzuliaren mitoa gañdituta<sup>260</sup>. Hasteko esan behar da, *Inchausti* hori alde euskaldunetik etorritakoa zela, eta ez Enkartzioetakoa bertakoa. Bigarrenik, deituraren itzulpena ez zela izan, Akesolok aurkezten dizkigun datuen arabera behintzat, inposaketa sistematiko baten beste ale bat, baizik eta borondatezko aldaketa, itxura denez. Nafarroako kasuetan bezala<sup>261</sup>, nahitara

<sup>259</sup> «Tuvo lugar en las Encartaciones de Vizcaya, dentro del municipio de Sopuerta, en su barrio de Carral, en la primera mitad del siglo XVIII»; Lino de AKESOLO, «Un cambio de apellido por traducción. Inchausti-Nocedal», *BAP XXII*, 1966, 122-123. or.

<sup>260</sup> «Se ha pretendido que el visible carácter predominantemente románico de la toponimia de Las Encartaciones ha resultado de una especie de traducción masiva de una toponimia vasca original, hoy desconocida, aunque los ejemplos aducidos, alegados, en general, por no lingüistas, parecen más imaginarios que reales», ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, *Corpus*, 17. or.

<sup>261</sup> E. de MUNARRIZ URTASUN, «El cambio de apellidos en la vieja Navarra», *RIEV XIV*, 1923, 401-03. or. Alicia Ainciburu adiskideak bere deitura baztandar batzuen aldaketaren berri eman digu, eta alde berean azaldu Baztanen ez omen zegoela aitaren deitura hartzera behartzen zuenik eta sarritan amarena, amandrearena edota etxearena hartzen zela, bataren edo bestearen sonaren arabera, joera armarridun etxearena hartzea izanik.

hartutako erabakia bide dugu, beharbada inguru horretan erosoago edo integratago sentitzen zelako euskalduntasuna ezkatututa, kasu honetan ez baitirudi inork *Intxausti* ahoskatzeko arazo berezirik<sup>262</sup> eduki zezakeenik. Barakaldon bertan<sup>263</sup>, eta beste hainbat lekutan, ohikoa zen Nafarroako moduko deitura aldaketak. Baliteke, bestela, Sopuertakoa aldaketa hutsa izatea eta ez itzulpena<sup>264</sup>, formen kointzidentzia kasualitatea izanik. Izan ere, jakin badakigu Sopuerta inguruan *Nocedal* deitura horretako lekurik badagoela<sup>265</sup>, bai eta seguruenik leinurik ere, Gregorio BAÑALE-Sek La Quadrarako<sup>266</sup> dakarzkiguneren pareko. Edonola ere, benetako itzulpena balitz Sopuertako gertakizun honek, ageriago utziko luke erdararen nagusigoa herri hartan, euskararen desagertzea bideratu zuen ustezko inposizio kasu bat baino.

Urte batzuk aurrerago, ahotan bero erabilia izan den beste testigantza interesgarri bat badaukagu, J. Víctor ARROYOren lumatik<sup>267</sup> ezagutu duguna. 1753. urtean, Galdamesen, maisu bat ezar zezaten dirua ematen du Mexikotik Juan José de Las Casas-ek, maisuak albait euskara eta gramatika jakitea eskatzen duelarik. Badirudi ordurako euskara desagertzeko zorian zegoela Galdameseko alde euskaldunetik, gogoratu behar baita herri hori erdibitzen zuela euskararen muga historikoak. Barakaldoko mugan zeuden Castaños eta Burtzako auzoek behar zuten orduan izan euskarari nolabaiteko indarrez eutsi ziezaioketen bakarrak. Gauzak horrela, ez dakigu zein arrazoik mugitzen duen emalea euskara jakitearen baldintza edo eskaera hori jartzera. Mexikotik egiten du diruaren emaria, suposarazten diguna herritik hainbat urte lehenagotik alde eginda egongo zela herriko seme aberastua. Euskara galtzearen kontzientzia eduki zezakeen edo euskara eguneroko kontu jakin beharrekotzat sentitu. Guk lehena sinesten dugu gehiago, nekez pentsa baitezageku orduan euskara izan zitekeenik eguneroko hizkuntza Galdamesen.

J. E. DELMASek<sup>268</sup> XVIII. mende honen amaieran kokatzen du hizkuntzaren

<sup>262</sup> Hauxe da J. CARO BAROJAK iradokitzen duen zergatia, *Materiales*, 14. or.

<sup>263</sup> “*Un simple repaso a los libros parroquiales nos permite apreciar con bastante nitidez la diferencia: En Baracaldo, Erandio... era práctica común que un cambio de casa o solar supusiese también el cambio de apellido. De esta forma no es difícil encontrar que algunos llevaban el apellido Larrasolo cuando su padre llevaba el de Llano y su abuelo paterno el de Uriarte. Sin embargo en Somorrostro el apellido se mantiene aunque cambie la residencia*”, Gregorio BAÑALES, *Mayorazgos de la Villa de Portugalete*, 21. or.

<sup>264</sup> Nafarroakoak, agerikoa denez, ez dira itzulpenak, M. GORROTXATEGIK («Sustitución», 470. or.) esaten duenaren kontra.

<sup>265</sup> “*En un lugar inmediato a una zona donde la toponimia vasca es abundante, y en cuyas inmediaciones se hablaba vascuence el siglos XVIII, y cerca de Sopuerta, existe un topónimo Nocedal, que bien pudo ser conocido con nombre vasco y castellano: Nocedal e Inchausti. Casos así se han dado y se dan actualmente. Tenemos en las inmediaciones de Bilbao un Puentenuuevo y un Zubibarrí, un Dos Caminos y un Bidebieta*”, Lino de AKESOLO, *op. cit.*, 123. or.

<sup>266</sup> *Nozedal* deiturako hainbat pertsonaz gain, *La Cantero de Nozedal* eta *el Nozedal de la Quadra* toponimoak zerrendatzen ditu, *ibid.*, 182. or.

<sup>267</sup> “*Otorgó Don Juan José de las Casas... el capital de 3.000 pesos fuertes de cuño mexicano para se críe y funde y establezca en dicho lugar de Allende Maestro de primeras letras con las circunstancias que previene la cláusula del asunto, para que les enseñe a los niños de dicho concejo y comarcas sin llevar derechos y siendo posible que sepa la lengua bascongada y gramática*”, *El Concejo de Galdames en el Antiguo Régimen (siglos XVIII y XIX)*, 2. *Economía y Sociedad*, Bilbao, 1990, 142. or.

galera Galdamesen<sup>269</sup>, berdin A. TRUEBAK<sup>270</sup> eta LABAYRUK<sup>271</sup>, baina mendialdeko auzo batzuetan bakarrik egiten zela gaineratuta, Barakaldoko mugaren ingurukoetan<sup>272</sup>, jakina. Gueñesen egoera antzekoa bide zen, informazioa orain A. TRUEBA eta LABAYRUren eskutikoa dugularik. Ladislao de VELASCOren informazioak<sup>273</sup>, bestaldetik, guztiz baieztatzen digu aurreko herrietako egoera linguistikoa.

Gordexolan egoera ez zatekeen oso ezberdina, A. TRUEBAK<sup>274</sup> oso argi adierazten baitu, Gueñes eta Galdamesen bezala, aurreko mendean, XVIII.ean alegia, mintzatzeko zela eta ez herri hauen esparru guztian. Labayruk ez du Gordexola aipatzen eta J. E. DELMASEK informazio oso kontrajarria<sup>275</sup> ematen du, galera mende batez atzeratuz. Delmasek aipatzen dituen Gordexolako euskaldunek herri euskaldunetatik etorritakoak behar zuten izan, hots, *erriak*; ez baita posiblea 1864. urterako artean gordexolatar askok eustea euskarari, Retuertoren eta Regaton, esaterako, galduta zegoelarik eta Bonaparterentzat J. A. Uriartek egindako ikerketetan Gordexolaren inolako aipurik ez zegoelarik, jakinda muga zehazten izan zuela interes berezia. Eduardo ESCÁRZAGAK<sup>276</sup>, bertan 20 urteren buruan jaioak, ez bide zuten euskaldunik ezagutu eta ahotan hartzen dituen euskararen hondar

<sup>268</sup> "Todavía se hablaba vascuence en Galdames á principio del siglo pasado", *op. cit.*, 450. or., 2. oh.

<sup>269</sup> "Los testimonios de Delmas, Trueba y Labayru son coincidentes al afirmar que el vascuence todavía se hablaba en Galdames durante el siglo XVIII, habiendo agonizado en este concejo durante el periodo de entresiglos, para quedar reducido en el XIX a la inmediata anteguerra de Barakaldo", J. I. HOMOBONO, *op. cit.*, 120. or.

<sup>270</sup> "... y la misma [lengua vasca] se conservaba a últimos del siglo pasado [XVIII] hasta las montañas de Galdames y Gordexola", *Compendio Histórico-Descriptivo de las Nobles Encartaciones de Vizcaya*, 1887, 11. or.

<sup>271</sup> "La parte encartada (...) en que agonizó á fines del pasado y principio del presente Galdames y Güeñes en algunas de sus barriadas", *Historia General del Señorío de Bizcaya, tomo II*, Bilbao, 1897, 534. or.

<sup>272</sup> *Urállaga* ez zegokeen horien artean, alde erdaldunean baino, nekez onar daitekeelarik behin, 1799an, dokumentatzen den *Uralla* aldakitik M. GORROTXATEGIK ateratzen duen ondorio auzartea: "En este caso tendríamos un testimonio indirecto de la denominación euskérica del lugar, viva todavía en 1799", *op. cit.*, 475. or.

<sup>273</sup> Gasteiztarrak, bere estatistikako oharretan akats nabarmenak egiten baditu ere, baliosa dirudien testigantza hau ematen digu: "aun recordaba no ha mucho un respetable anciano que alcanzaba los 85 años, que en su niñez todavía hablaban vascuence los de los barrios de Galdames y Güeñes, que habitaban las alturas confinantes con Barakaldo", *Los Euskaros en Alava, Vizcaya y Guipúzcoa*, Barcelona, 1879, 485. or. Kalkulua modu lasan aterata eta 1780. urtea ematen digu J. I. HOMOBONOK, *op. cit.*, 120. or. Kontuak kontu, XVIII. mendearen amaieran gaude.

<sup>274</sup> "La desaparición del idioma euskaro en el territorio situado al pie septentrional de la Peña de Orduña es tan moderna que todavía subsiste aquel idioma en algunos puntos de Ayala y las Encartaciones, tales como Llodio, Luyando y Baracaldo, y en otros, como Oquendo, Güeñes y Gordejuela, valles estos dos últimos encartados, se hablaba el siglo pasado si no en toda su jurisdicción, al menos en parte", *Libertad en Vizcaya*, 24. or.

<sup>275</sup> "Hoy mismo lo hablan muchos vecinos de Gordejuela", *op. cit.*, 450. or., 2. oh. SASÍAK ere aurrekoarekin ezkonduko litzatekeen datua ematen digu: "En 1958 el rdo. Arechederra sobre el este del valle de Gordejuela donde él conoció de niño el euskera vivo a fines del s. XIX"; «Más sobre toponimia», 1.184. or. Baina esan bezala, nekez onar liteke; kanpotik etorritakoak ez balira edota Artibakoa bezalako kasu isolaturen baten aurrean ez bageunde, aurreko honetatik oso urritu ez zegoen Miñaur auzotxoan edo.

<sup>276</sup> Sigfrido GUTIÉRREZek data eta guzti jartzen du, bere hitzen iturria ezagutzen ez dugula: "En el [somo gordejolano] dejaron los nativos de ser euskalzales hace más de dos siglos, según nos dice Escárzaga", *op. cit.*, 149. or. Guk, ordea, irakurri diogun bakaarra hauxe da: "En carácter y costumbres son vascos, habiéndose perdido la lengua de la raza en tiempos no lejanos, como lo demuestra el conservarse los nombres de barriadas, caseríos, montes, etc. con formas euskéricas muy poco alteradas; y el haber hoy mayor número de nombres vascos y menos corrompidos en la forma en la parte de Zubiete y Zaldú, que miran al interior del Señorío y al valle de Oquendo, prueba que la pérdida del idioma fue progresiva y lenta debida al contacto con las tierras de Burgos y Ayala", *Descripción*, 7. or. eta: "Actualmente en las Encartaciones se habla la lengua castellana, habiéndose hablado en otros tiempos la lengua vasca, como lo demuestran los nombres de lugares, caseríos, montes, etcétera. El cambio de idioma se ha debido á la comunicación con los pueblos de Castilla, y ha sido muy lento. Los pueblos de Carranza, Sopuerta, Arzentales y Somorrostro lo verificarán mucho antes de Güeñes y Gordejuela. Se desprende con evidencia de la toponimia", *Avellaneda*, 21. or.

bakarrak toponimiarenak dira. Aurreraxeago ikusiko dugun bezala, Tomás López geografoari Arechederra abadeak bidalitako informazioan ere gauzak berdintsu agertzen zaizkigu. Azkenik, J. ECHEZARRAGAK<sup>277</sup>, aurrekoak bezala Gordexola-ko abadea izandakoak<sup>278</sup>, XVII. edo XVIII. mendeak ditu gogoan. Delmasen iritzi kontrastatu gabea oinarri hartuta idatzi direnek<sup>279</sup>, bada, oso oinarri hutsala eta oso frogabide gaitza dute.

Esan beharrik ez dago Zalla<sup>280</sup> lehenagotik erdaldundurik genuela, interpretazio bakar hori baitu kasu honetan iturri guztien isiltasunak. Sestao eta Trapagarako ere ez dago kasik informaziorik, baina pentsatu beharko genuke egoera herri hauetan Barakaldoko mugetako gainerako herriena bezalatsukoa zela. Gregorio BAÑALESEK<sup>281</sup>, gaitzizenak eta batez ere toponimia baliatuta, egiten duen irakurketa ondo ezkontzen da seinalatzen ari garen egoerarekin.

Mende amaierakoa da, 1775ekoa lehen eskuizkribua bederen, nahiz eta 1812. urtera arte<sup>282</sup> ez zen argitaratu, Juan Ramón de ITURRIZAREN obra handia ere. Datuak, berritro ere, ez dira oso baikorrak, baina bai argiak: euskara ez da dagoneko Enkartzioetan hizkuntza arrunta, eta galera akordutik ezabatua<sup>283</sup>.

<sup>277</sup> “Tenemos por otra parte algún dato para creer que en Gordejuela se hablaba el vasco a fines del siglo XVII”, *Gordejuela. Breve Historia*, 42. or. eta “Esta frase parece denotar que en el siglo XVII se hablaba aún el vasco en Gordejuela si bien se emplearía también el castellano”, *Valle de Gordejuela. Reseña Histórica*, 203. or. Aipatu datua 1678ko erdarazko esalditxo bat dugu, euskara leukakeena azpian: “Enero 28, los sentimos a amo”. Oso datu ahula, bistan denez. Aurrerago, ordea, honakoa diosku: “Será mucho pedir que en el siglo XVIII aún se hablaba el vasco en Gordejuela?”, *ibid.*, 42. or.

<sup>278</sup> Arechederra deiturako bertako beste abade baten arabera, ordea, gauzak oso bestela ziren; *ik.* 275. oh.

<sup>279</sup> “Se sabe que el euskera se ha hablado en Gordexola hasta el siglo pasado”, Mikel GORROTXATEGI, *Enkarberriak* aldizkari-ko 1996ko ekaineko alean egindako elkarrizketan, Irene HURTADOK aipatua. “Parece que Gordexola es el último pueblo de las Encartaciones que perdió el euskera, hablándose aún en algunos caseríos en el siglo XIX”, R. GÓZALEZ OREJAS, *op. cit.*, 7. or. J. ECHEZARRAGAK (*Valle de Gordejuela. Reseña Histórica*, 269. or.) ildo bereko Diego LOSADA QUIROGAREN hitzak dakarzkigu: “Hemos leído que hoy apenas se habla el vasco en las Encartaciones, pero sí en Galdames en el siglo XVII y en Gordejuela en el XIX”. Berotasun hau harago darama, lapsus bat bitarte dela, Lur Entziklopediak, Gordexolari buruz hau dioenean: “XX. mende hasieran galdu zen euskara”.

<sup>280</sup> “Gueñes, Zalla eta Galdamesen galera pixkat zaharragoa da, baina argi dago euskara bizirik zegoela orain dela mende gutxi”, Mikel GORROTXATEGI, «Enkartzioetan euskaraz», *Deia*. Zalla ezin da, esan bezala, Gueñes eta Galdamesekin alderatu, baina are gutxiago, inoiz egin den bezala, Sopuerta eta Balmasedarekin, eta okerra handiagoa egiteko herri hauetarako euskararen galera XVIII. mendearan hasieran kokatu (EUSKALTZAINDIA, *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian*, Bilbao, 1979, 48. or.). Argitarapen horretako mapek, bestalde, zer zuzendu asko daukate, bereziki *Euskararen Lehen Lurraldeak* izenburua duenak, non euskararen muga XVI. menderaino Cantabriako Santoñaraino (!!) hedatzen den eta *Hizkuntza Areak* izenekoan Enkartzioak oro har, Karrantza barne, ukipen-arean kokatzen dituen. Mapa hauen eta besteren erreferentziak gure «Euskararen muga historikoen mapa bilduma», Ander ROS, in *Euskara Historian Zehar*, UNED, Bergarako Ikastetxe Elkartuko Euskal Kultur Departamentua, 1995, 61. or. eta hur.

<sup>281</sup> “Desde finales del XVII y a lo largo del siglo XVIII muchos topónimos euskaldunes dejarán de utilizarse en el Valle, Sestao y Barakaldo y gran parte de los que permanecen serán deformados”, *op. cit.*, 117. or. eta ondoren: “Este proceso seguido en los Tres Concejos y Portugalete comienza a darse en Barakaldo desde mediados del siglo XVIII”, *ibid.*, 118. or.

<sup>282</sup> Hasierako argitalpenetan, gainera, ez zen osorik atera, Enkartzioei eskainitako *Epítome* delakoa falta baitzen, hain zuzen ere.

<sup>283</sup> “En las Encartaciones no es vulgar el bascuence sino el romance, o castellano; y algunos se persuaden que perdieron la frecuencia de aquel en tiempo que estuvieron sugetas a los Reyes de Asturias y León”, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Bilbao, 1938, 597-98. or.

Auzoko arabarrak artean euskaldunak genituen, Urduña bera barne<sup>284</sup>, BARANDIARANek<sup>285</sup> aurkituriko 1787.eko Arabako herri euskaldunen zerrendaren arabera, bai eta aurreraxeago aipatu eta aztertuko dugun Beauharnais-en 1807ko maparenera, P. Brocaren geroagoko datuek baieztatua.

Mendea amaitu gabe, Europatik zetorkigun ilustrazioko arrazionalismoak enpresa handiak jarri zituen martxan. Berrehun urte luze atzeragoko Felipe IIaren *Relaciones histórico-geográfico-estadísticas* sakon aztertu eta argitaratuen antza handia zuen Tomás Lópezen ikerketa zabalak, aurrekoa ez bezala, Euskal Herria ere barne hartu zuena. Mende berriarekin, beste bi ekimen garrantzitsu dauzkagu, lehendabizikoa *Real Academia de la Historia* erakundearen ekimenez buruturiko *Diccionario Histórico-Geográfico de España* eta bigarrena, Frantziako estatistika ministeritzatik bultzaturiko inkesta linguistikoa, orduko inperio napoleoniko osoan barrena Coquebert de Montbretarren ardurapean egingo zena. Urte horietan Karl Wilhen von Humboldt jakintsu prusiarra Parisen jarri zen bizitzen eta, hurbilago gintuela, euskaldunetz arduratzen hasi. Bi bisita egin zuen gure artera, 1799-1800 eta 1801ean, hurrenez hurren. Bidaia horietan egin zituen behaketa ugari eta aberatsen artean euskararen gainekoak bereziki garrantzitsuak dira.

Manuel Godoy-k 1795ean Juan eta Tomás López anaiei geografia gabinete bat antolatzeke agindua luzatu zien, berauek lehenagotik burutzen ari ziren lanari bermea eta bultzada emateko, itxura denez. Tomás gutunenez bidez jardun zen herriz herriko informazio orokor eta zehatza jasotzen, gure artean sari eta berandu arte erabili den metodoaz, alegia. Inkesta geografiko hauek, eskuarki abadeen bidez egiten zituen, berauek baitziren herri txikietan ia letratu bakarrak, oso sare trinkoa osatzen zutenak, eta, batez ere, herriaren gorabeherak herritar bat bederaren ahotik ezagutzeko motiboa eta bidea zutenak.

Gordexolan eta Barakaldon ere –eta ez dakigu gure inguruko herri gehiagotan euskarari buruz jaso ote zuen ala ez informaziorik–, galdeketak abadeen bidez egin zituen, baina ez daukagu horretaz beste berririk. Datuek argitaragabe diraute, Madrileko Biblioteka Nazionalako apalategietan lozorroan, berauek aztertu dituen Clotilde OLARANek<sup>286</sup>, Bizkaiko Diputazioko Bibliotekaren arduradunak,

<sup>284</sup> Ezaguna da Lope Martínez de Isastik erdalduntzat ematen digula hiri hau, baina honen adierazpena aurrean duela, bestela ikusten du J. CARO BAROJAK: "A comienzos del siglo XVIII parece que en el territorio vizcaíno de Orduña, enclavado entre Álava y Castilla [sic], se hablaba vasco con intensidad", *Materiales*, 16. or.

<sup>285</sup> «El euskera en Álava a fines del siglo XVIII», J. M. BARANDIARAN, *RIEV XVII*, 1926, 464-67. or.

<sup>286</sup> Clotilde OLARAN MUGICAK indexak argitaratu zituen: *Índice de las relaciones geográficas enviadas a Tomás López que se conservan en el gabinete de manuscritos de la Biblioteca Nacional*. Biblioteca Nacional, Madrid, 1987, eta edizioa edo lanen bat apailatzen dihardu. Bien bitartean, ez dakigu zer nolako arretaz eta fidagarritasunez erantzun zioten gure geografoari. Beste herrialdetako batzuk aspaldixkoan argitaratu dira: *La provincia de Extremadura al final del s. XVIII*, Asamblea de Extremadura, 1991 edota Andrés BLÁZQUEZ GARBOSA, «Las relaciones topográficas de D. Tomás López. Pueblos de la provincia de Guadalupe (1760-1795)», *Wad-Al-hayara 11*, 1984, 97-149. or., besteak beste, eta horiei esker jakin dezakegu zerbait inkesten zer nolakotasunaz.

ikerlari zenbaitu aipatu eskuizkribuen berri eman badie ere, eta hauei hartuta Etxebarria Mirones anaiek<sup>287</sup> euskarari dagozkion berri laburrak argitaratu. Nolanahi ere, bi herri hauetako berri labur bezain zehatzak iritsi zaizkigu, Gordexolan euskara azkenetan zegoela baieztatzen diguna bata, eta ez askoz hobeto Barakaldon bestea. Bere laburrean, bada, oso aberatsak eta zehatzak dira XVIII. mendearen hondarreko Gordexola eta Barakaldori buruz heldu zaizkigun datuak, interpretazio baikor edo ezkorretarako leku handirik uzten ez dutenak

Batetik, Gordexolan euskara 1794an azkenetan zegoela baieztatzen digute: “*ai muy pocos que la entiendan*”. Gutxi baziren euskara ulertzeko gauza zirenak, imajinatu behar dugu are gutxiago zirela, inor baldin bazegoen, mintzaten zirenak, jakin badakigularik, gainera, guztiz arrunta zela herri euskaldunetatik etorritako jendea ere herrian izatea. Inmigrante hauei *vasco* edo *erri* izena<sup>288</sup> ematen izan zaie, euskaldun izatea edo ez izatea alde nabaria zen seinale. Gordexolaren gaineko berri labur hau, beraz, ia euskararen heriotzaren aktatzat har dezakegu, eta honek ordutik aurreragoko euskaldunak, eta neurri handi batean aurretikoak ere, inmigrante edo *erriak* direla pentsatzera garamatza, zalantzarik gabe.

Bestetik, hurrengo urtean Barakaldon euskara oso egoera onean ez zegoela ere baieztatzen digute Tomás Lópezi bidalitako datuek: “*la lengua común es el castellano y vascuense, mezclado y nada puro*”. Gaztelania da eguneroko hizkuntza<sup>289</sup> eta euskara nahasia omen. Zaila da, berri labur hau interpretatzen lagun liezagukeen bestelako daturik gabe, egoera detailez asmatzea. Ez dakigu gaztelaniaren gailentasuna norainokoa zen, ez eta euskararen garbitasun falta hori noraino hurbiltzen zen pidgin moduko batera edo, bestela esanda, euskara nahasi horrek zenbat erdarazko *manteka* zuen. Datu hau eta besteak eskuan ditugula, egoera konplexua imajinatu behar dugu, euskara inguru geografiko eta sozial batzuetara mugatua, gaztelaniak artean guztiz bereganatu gabe zituenekoetan, alegia.

### 2.3.5. XIX. mendearen lehen erdialdea

HUMBOLDTEk, gure artera egin zuen bigarren bidaiaren oharretan esaten digu euskaldunon ohitura zaharrak baserri eta mendietan baino ez direla begi-

<sup>287</sup> *Orígenes Históricos de Las Encartaciones. Siglos X-XIII. Toponimia, Onomástica y Lengua Propia*, Bilbao, 1994, 279. or, 50. oh. eta 281. or., 55. oh.

<sup>288</sup> “*En las barriadas y pueblos de éste –como sucede en Las Encartaciones y en Álava– se designa con el apodo de el vasco o erri a cada uno de los vecinos inmigrados desde la zona euskaldún, genéricamente designada como El Vascuence*”, J. I. HOMOBONO, *op. cit.*, 120. or. *Erri* hau Bilborako ere Arriagak bildua da, baina ‘baserritarra’ adiera soilaz, bertako euskaldunak ere bai baitzeuden, inondik etorriak izan gabe ere.

<sup>289</sup> *El castellano y (el) vascuence* interpreta liteke, baina horrela hurrengo sintagma hankamotz gertatuko litzaiguke, hau da, subjetu gabe; interpretagaitz eta agramatikal.



ratzen, euskara bera barne. Horrela, Bilbon euskara gaztelaniarekin oso nahasita dago, eta Enkartzioetan<sup>290</sup> jadanik ez da egiten.

XIX. mendea zabaltzearekin batera, 1802. urtean, argia ikusi zuen urte luzetan mamitzen egondako *Diccionario Histórico-Geográfico de España* zeritzon proiektuak. Espainiako Historia Akademiak bultzaturikoa zen eta goian aipatu izpiritu zientifiko ilustratuaz gain, asmo politiko zentralizatzailea ere bazuen ernamuinean. Ez dakigu, garaikideak baitira, zein zerikusi duen Tomás Lópezen lanarekin; hots, proiektu bat bakarra ala bi proiektu paralelo diren; izan ere, biak berdin xamarrak dira metodologiaz, helburuz eta baliabidez. Dakiguna da Tomás Mauricio López, Tomás Lópezen semea, aritu zela hiztegi honen lanketan. Humboldt-tek<sup>291</sup> kontatzen du inkesta koaderno horietako bat ikusi zuela, abadeen bidez burutzekoa eta aipatu hiztegirako zena. Kontuak kontu, hauxe da argitaratu zen bakarra, paradoxikoki, baina ez kasualitatez, lehenik, gure lurraldeei zegokien tomoa, *Sección I*; bigarrena, Errioxari eskainia, ia mende erdiz atzeratu zelarik. González Arnao izan zen Bizkaiari zegozkion artikulua idazteko ardura hartu zuena, eta bere eskutikoak, beraz, darabilgun gairako oso interesgarriak zaizkigun datuak.

Enkarterriei buruz ari dela, Tomás Lópezek ezinbestela Gordexolarako ateratako ondorio bera aurkezten digu González ARNAOk<sup>292</sup>, erabilera oso urriturik zegoela, alegia. Aurrerago, *Vizcaya* artikulua famatuan, euskaldun elebakartzat ematen digu probintzia osoa eta erdalduntzat, berriz, Enkartzioak eta Enkartzioetako hiriak<sup>293</sup>, hau da, Portugalete, Valmaseda eta Lanestosa:

*“Los más, exceptuando la gente culta, no saben otro idioma que el vascuence, salvo en la encartaciones y villas de Portugalete, Valmaseda y Lanestosa, donde tan sólo se usa el castellano; bien que los nombres de muchos de sus pueblos son vascongados, y dan á entender haberse usado allí también en algun tiempo aquel idioma”*

Testuak ambigutasun bat badu, ez baita argi geratzen gaztelaren erabilera eskusiboa Enkartzio osoei, ala bakarrik bertako hiriei ote dagokien. Duda ez da merkea; izan ere, aurrerago Enkartzioei eskainitako artikuluan esandakoa ez da

<sup>290</sup> “Las llamadas Encartaciones, distritos del lado de allá del Ibaizabal, en que ya no se habla vascuence”, «Los Vascos», 414. or.

<sup>291</sup> “En casa de Ojea vi una gran cantidad de preguntas de orden estadístico, arqueológico y literario que envió la Academia de la Historia en Madrid para que las contestaran los curas de las provincias. La forma y la disposición estarían muy bien si no nacieran muchos errores por la incapacidad y abandono de los que contestan. La Academia reúne estos materiales para una nueva edición de un Diccionario geográfico-histórico de España”, «Diario del Viaje a España. Octubre de 1799 a Abril de 1800», *RIEV XXIII*, 1932, 60. or. Justo Garatek itzulitako 1918ko *Gesammelte Schriften* lanetik.

<sup>292</sup> “El uso del vascuence que, aunque hoy poco frecuente entre ellos, se muestra haberlo sido en la mayor parte de sus apellidos, y aun en los nombres de sus lugares y solares antiguos, como Berbiguiz, Irazagordia, Goicouria, Loizaga, Arangoiti, &c”, Vicente GÓNZALEZ ARNAO, «Encartaciones», in *op. cit.*, 248. or.

<sup>293</sup> «Vizcaya», *ibid.*, tomo IV, 487. or.

hain erabateko eta borobila eta, bestaldetik, ez dago arrazoi handirik hiriak bereiz aipatzeko<sup>294</sup>, bereizketarik egitekotan, mendebaldeko eta ekialdeko herri edo hirien artean egin beharko baitzituzkeen. Hauek honela, Enkartazioei buruz ari bada<sup>295</sup>, bertako hirietako monolinguiismoaren maila, Portugaletekoa bereziki<sup>296</sup>, erlatibizatu beharko litzateke. Aitzitik, *tan sólo se usa el castellano* aipu anbiguoak hiriei baino ez balie erreferentzia egingo, bestelako irudia aurkeztu litzaiguke, nekazal eta hiri munduetako bereizketa linguistikoarekin.

Espainiako inperio handiaren gainbeheraren eta inbasio napoleonikoaren atetan geundela, “1807an<sup>297</sup>, Madriden zen François de Beauharnais izeneko frantses enbaxadoreak euskararen mugak adieraziko zituen hegoaldeko mapa bat egiteko mandatuia jaso zuen. Gestio itxuraz ez oso suttsuen ondoren, Santanderren zen Ranchoup kontsularen informe batez baliaturik burutu zuen egitekoa. Aipaturiko mapak inedito iraun du B. Oyharçabalek lozorrotik atera artean. Historia oso polita da, baina luze kontatzekoa; interesa duen irakurleak Oyharçabalen lan publikatuetara<sup>298</sup> jo dezake. Inperio napoleonikoaren garaiak ziren haiek eta enperadorearen manupeko demeinuen nondik norakoak ezagutzeko lanetan ziharduten orduan. Gauzak horrela, bi mapa egin ziren, Euskal Herriaren hego eta ipar aldeko bana; oso zehatz eta baliotsua kontinentala, oso trauskila, kasik mutua baina ez horregatik interes gutxiagokoa alde penintsularrekoa. Azken hau interesatzen zaigu orain bereziki.

Bizkaiari dagokionez, euskararen mugak markatzen dituen lerro banatzailea kostaldetik abiatzen da, ustez Barbadun erreka datekeenaren bokalearen eskui-nean, Zierbena izan daitekeen puntu batean. Arrasto bat jaisten da, ia lerro zuzenez *Salcedo* idatziriko punturaino. Salcedo antzina Gueñes eta Zalla haranak izen-

<sup>294</sup> Hala ere, holaxe egiten du González Armao aipatu berriak eta Gregorio Monreak Gernikako Juntetxeetan erdaraz aritzen zirenak aipatzeko, Portugaletekoa, dudan ematen badu ere. *Ik.* 1625eko istiluei buruzko lerroetan esandakoa, *ik.* 253. oh.

<sup>295</sup> Hauxe da Manuel AGUDEk egiten duen irakurketa: “*En el año 1802 en las Encartaciones, Portugalete, Valmaseda y Lanestrosa [sic] se hablaba sólo el castellano*”, «La lengua vasca y su territorio», 35. or.

<sup>296</sup> Garibayk euskara bertan hiltzen dela diosku, baina Añibarrok XIX. mendearen hasieran herri euskaldunen zerrendan sartzen du, Reclusek muga Bilbo eta Portugalete artean jartzen duen bitartean. Arazoa ez da simplea eta zehaztasunak ematea ez da posiblea: “*Portugalete caía fuera del área de habla vasca en tiempos de Bonaparte y sin duda mucho antes*”, L. MICHELENA, «Prólogo», in *Lexicón Bilbaino*, 5. or. Gregorio BAÑALESek Portugalete elebitasuna hobeto ulertzen eta kontestualizatzen laguntzen duen analisia egiten digu: “*De esta forma encontramos que desde mediados del siglo XVII cesa en gran medida la afluencia de gente venida de la Encartación y sobre todo de la que viene desde Cantabria para dar entrada a un gran número de nuevos vecinos procedentes de Bizkaia: Sarachaga, Maruri, Lopategi, Gorrostiola, Escarza, Gastaluga, Zugasti... Especial mención merece el aluvión procedente de Barakaldo en estos años (Beurco, Sobrado, Llano, Sasia, Urcullu...)*. Siendo así, y siguiendo el razonamiento anterior que nos ofrecía una población mayoritariamente castellanoparlante, deberíamos situarnos ahora en un contexto en el que una parte de la población de la villa es vasco parlante”, *Mayorazgos de Barakaldo*, 122. or.

<sup>297</sup> Dibulgazio gure lantxo bateko hitzak dakartzigu hona, «Euskararen mendebaldeko muga historikoez», *Lanbroa 21*, 1994ko apirila, Zornotza, 18-20. or.

<sup>298</sup> «Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)», in *Luis Villasanti Omenaldia. Iher-6*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1992, 349-366. or.; «Euskararen mugak hego aldean 1807.ean: Eugène Coquebert de Montbret-en artxiboetan gelditu dokumentuak», in *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, ASJU gehigarriak, XXVIII, R. Gómez eta J. A. Lakkarra (arg.), 1995, 241-253. or.

datzeko terminoa da, ezaguna denez, nahiz eta mapan den puntua, Cadagua erre-karen eskuineko ertzean, Sodupe izeneko lekuarekin erraz identifika daitekeen, zein mapa frantsesaren dibisoriak alde euskaldunean uzten baitu. Lerroak hego-rantza jarraitzen du beste arrasto ia zuzen batez Urduñaraino, hiri hau ere, alde euskaldunean utzirik.”

Esanak esanak, ez da batere erraza mapako lerroa zehatz identifikatzea. Izan ere, mapa esku altxatuz eginda dago, eta ondorioz proportzioak eta erreferentziak oro oso-oso lainotsuak<sup>299</sup> dira. Badirudi, Beñat OYHARÇABALek argitaraturiko beste lan batean ematen diren zehaztapenengatik, hitzez *Salcedo* eta *Orduña* puntu hutsak seinalatuta marraztu zutela mapako lerroa<sup>300</sup>. Kostaldean, Somorrostro uzten du argi alde erdaldunean, baina Zierbena ere sartu beharko genuke alde honetan, marra banatzailea herri honen eta Santurtziren artean koka genezakee-larik<sup>301</sup>. Hortik, zuzen abiatzen da Sodupe baino ezin izan daitekeen punturantz, Galdames eta Gueñes euskaratik kanpoko aldean utzita. Balirudike Sodupe gai-neko Eretza mendia dela lerroaren erreferentzia bat, baina lerroa Cadagua ibaia-ren paretik doa, Ganeranetik barrena Gallarta gaineko Montañoraiño gabe, Apuko mendirantz balihoa bezala. Egiten dugun irakurketa egiten dugula, argi dago Barakaldo eta Alonsotegi geratzen direla euskararen esparruan, baita Tra-paga ere. Lerroa Ortuellan barrena, Zierbenarantz ez, baina zuzenean Portuga-leterantz suposatu behar dugu, nahiz eta, goian esan bezala, erregela eskuan dugula, marra hamaika biderekin identifika daitekeen. Hegoaldetik, bestalde, beste marra zuzen bat abiatzen da, Sodupetik Urduñarakoa hau, ditugun datue-kiko interpretazio koherente batean alde erdaldunean utziko lukeena Gordexola eta alde euskaldunean, berriz, Okondo eta Amurrio.

Mapaz gain, gure ingurua aipatzen duten gainerako bi dokumenturen berri eman digu Oyharçabalek. Lehenengoa, Donostiako frantses kontsulatuko orde-zkariak, Madriliko kontsulatuaren bidez, Eugène de Coquebert-i helarazia. Bertan, Salcedo eta Orduña puntuez gain, Somorrostro ere aipatzen da<sup>302</sup>, mapa egiteko erabilia izan zela pentsatzera ginderamazkeena. Bigarren dokumentua zehatza-

<sup>299</sup> “Ez dut uste, duen baino balio handiagoa eman behar zaion, *Beauharnais Enbaxadoreak Madrildik igorri mapari*. Nola egina izan den ikusirik, horren berri dakigun neurri mugatuan, bederen, ez da dudarik funts handirik gabe ari izan zivela *Beauharnais*-ren lan-hideak –kasu horretan, *Santandarreko kontsula*, bereziki– euskararen mugez informazio biltzen. Norik egin zuen zuzen ez dakigunarren, nekez testu horrek Hegoaldeko euskararen irudia eman zezakeen”, B. OYHARÇABAL, «Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)», 362. or.


<sup>300</sup> “*Itxura guzien arabera, inkesta ofizialaren bidez erdietsi izan zen dokumentu honen arabera moldatu zuten Madrilén euskararen mugez egin mapa*”, «Euskararen mugak hego aldean 1807.ean», 244. or.

<sup>301</sup> J. CARO BAROJAK, 1802ko datuak gogoan dituela, erdaldundutzat hartzen du inguru hau guztia: “*El vascuence ha debido perderse hace mucho en las Encartaciones y en las márgenes occidentales del Nervión hacia su desembocadura*”, *Materiales*, 18. or., 28. oh.

<sup>302</sup> “*Ensuite elle continue à se parler dans la province de Alava depuis Salvatierra, par l’extrémité de son territoire, dans le District de Ayala, jusqu’à Orduña et par Zalzedo, et finit à Somorrostro, un village de Biscaye sur la côte*”, B. OYHARÇABAL, «Euskararen mugak», 247. or.

goa<sup>303</sup> da, Bilbotik bertatik bidalia izan baitzen. Algortatik Barakaldora jauzi egi-  
ten zuen mugak, gero Abandora eta handik Alonsotegira omen zihoan sigi-saga.  
Bistan denez, mugak askoz ere murriztazo aurkezten zaizkigu hemen, ez Salcedo  
ez eta Somorrostro ez direlarik aipatzen, Barakaldo eta Alonsotegi soilik. Muga  
hauek sinesgarriagoak dira, aurrekoak baino, nahiz eta goian esan bezala, Bara-  
kaldo eta Alonsotegiren ondoan ziren Gueñes eta Galdamesko auzoak ere, neurri  
batean badarik ere, euskaldunak bide ziren.

Handik urtetxu batzuetarako da Añibarroren herri euskaldunen zerrenda<sup>304</sup>,  
baina ezer gutxi argitzen digu honek. Zerrenda 1823-30 bitartekoa da, nahiz eta  
aurrekoa izan daitekeen zirriborro bat ere badagoen. Zerrendako herri euskaldu-



Euskararen eremuko mugak Hegoaldean 1807.ean.

<sup>303</sup> "Puis entrant dans le neriñon-Ibaichalval (sic) ou rivière de Bilbao, toutes les paroisses qui se trouvent à la gauche de ladite rivière en la montant, passant ensuite à sa droite à Baracaldo suivant le bord de la rivière, jusqu'au couvent de St mamez, décrive une ligne en zig zag vers albia, abando, laventa, alonsotegui, arrigorriaga, miravalles, Arrancudiaga, Areta, Llodio, Oquendo, Luyando, le pont de marquijana, amurrio...", *ibid.*, 247. or.

<sup>304</sup> Luis VILLASANTE, «Una lista de pueblos vascongados, de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra de principios del siglo XIX», in *Geografía Histórica de la Lengua Vasca (Siglos XVI al XIX)*, Colección Auñamendi 13, 2.<sup>a</sup> ed., 1966, 44-60. or.

nen artean, Barakaldorekin batera, Bilbo eta Portugalete ditugu; ez dago, ordea, Gordexola, Galdames, Gueñes edo Zallaren aipamenik<sup>305</sup>, baina Enkartazioak oro har agertzen dira herri euskaldunen zerrendan aipatuta. Berriro ere datu lainot-su eta kontrajarriak, Alfonso IRIGOYENek<sup>306</sup> apuntatu bezala. Enkartazioen aipu honi dagokionez, Barakaldo eta Alonsotegirekin muga egiten duten auzoetan pentsatu behar dugu, beharbada Gordexolako ekialdeko auzoren batean ere. Gorago esan bezala, Galdamesko Castaños eta Burtzako auzoetan egon zitezkeen artean euskaldunak, beharbada Gueñesko Loizeta edo Saratxo auzoetan ere, nahiz eta gogoratu behar den Barakaldoko Regatorekin egiten dutela muga auzo hauek eta Regato, Retuertorekin batera, dela Bonaparteren garaian euskararen arrastorik jadanik ez duen Barakaldoko auzoa. Orobat, euskaren akordurik egon zitezkeen Gueñesko Sodupe, La Cuadra, eta Zaramillo edota Okondorako bideko Gordexolako Azkarai, Zaldu eta El Llano auzoetan, inguru hauetan ere euskarak mendi zokoetan iraun baitzuen luzaroen. Azken hauek, Bonaparteren datuen araberak, mugakide euskaldunak zituzten; Irauregi auzoa<sup>307</sup> eta Zollo elizatea batetik, eta Araba aldeko Okondo Goiena, Laudio eta Baranbio, bestetik.

Hurrenik, Pascual Madoz-en *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico* entzute-tsuak ikusi zuen argia 1846an. Honek, alabaina, aurreko autoreen datuak berretu baino ez dizkigu egiten. MADOZek dagoeneko desagertutaz<sup>308</sup> ematen du euskara Enkartazioetatik eta galeraren arrazoiak asmatzen saiatzen. Horretan Iturri-zaren ideiak eta hitzak baliatzen ditu, bai eta González Arnaoren datuak dirudite-nak ere. Alde horretatik ez digu ezer berririk aportatzen. Bilbori buruz diosku-na<sup>309</sup>, bestalde, González Arnaok Bizkaiari buruz dioena da; horrexek azaltzen du Bilbori buruzko datu sinesgaitza, lehen eskuko informazioa zuen F. SAGARMI-NAGAK eta bestek bestela gezurtatua<sup>310</sup>.

### 2.3.6. XIX. mendearen bigarren erdialdea

1857an F. MICHELen *Le Pays Basque* obra ezaguna kaleratu zen, baina Madoz-ek bezala, ez digu datu berririk ematen, aurrekoak errepikatzen baino. F. Miche-

<sup>305</sup> Alonsotegi ere ez da zerrendan ageri, Arrigorriaga bera ageri ez den bezala.

<sup>306</sup> "No coincide [El Diccionario geográfico-histórico de [1802] en lo que se refiere a Portugalete con la opinión del franciscano P. Fr. P. A. Añibarro, recogida en su relación de "Pueblos de Vizcaya" que entonces hablaban vascuence", *Las Lenguas de los Vizcaínos*, 7. or.

<sup>307</sup> Irauregi auzoa, Barakaldo eta Alonsotegi herriak banatzen dituen Cadagua ibaiaren alde bietan kokatzen da, horretatik herri batean edo bestean aipatua izatea.

<sup>308</sup> "Aunque en las Encartaciones se ha perdido completamente el uso del vascuence, puede asegurarse que en remotos tiempos, fue su única lengua, como la de todo el Señorío, de quien siempre fueron parte integrante; así es que sus barriadas y solares más antiguos conservan aun los nombres vascongados de su fundación, tales son Berviquiz, Barrieta, Aranguren, Irazagorria, Güeñes ó Gercones, Arangosti, Goucouria, Loizaga, etc.", *Diccionario*, 1846, 103. or.

<sup>309</sup> "Los más de los habitantes, exceptuando la gente culta, no sabe otro idioma que el vascuence", *ibid.*, «Bilbao».

<sup>310</sup> "Es de lamentar que dentro de la villa de Bilbao, en la que en el segundo tercio del último siglo aun se hablaba el vascuence, se haya llegado después a olvidarse totalmente", *El Gobierno Foral*, 1892.

lek, bestaldetik, Enkartazioetako hiriak ematen dizkigu erdalduntzat, beste detailerik eman gabe, hauek ere González Arnaori harturiko datuak direla pentsatzera garamatzana.

Hirurogeiko hamarkadan bi gizon aritu ziren euskararen geografia miatzen, elkarren berri izan gabe, baina antzeko lanetan, biak ala biak laguntzaile sare batez lagunduta: Louis Luciene Bonaparte printzea eta Pascual Broca antropologoa. Urte horietakoak dira, baita ere, Elisée Reclus geografo handiaren bisitaren deskribapena, J. Ernesto Delmaren *Guía* ezaguna eta euskararen berri ematen diguten Truebaren hainbat lan, literarioak batzuk eta historiko-deskriptiboak besteak.

Bonaparte printzearekin badugu lehenengoz, eta azkenengoz tamalez, Barakaldoko euskararen berri zehatza, bidenabar Enkartazioen enparautik ordurako guztiz desagertua zela esatea ere badena. Informazio guztia José Antonio URIARTE frantziskotarrak bildu zion eta gutunez igorri, ezagunak eta behin baino gehiagotan argia ikusi<sup>311</sup> duten eta ikerlarien gogoetak jasan<sup>312</sup> dituzten bi gutunen bidez, 161 eta 184 zenbakia daramatenak, hain zuzen ere. Lehenengo gutuna Markinatik bidalia dugu, 1864ko maiatzaren 16koa, eta bigarrena, berriz, Bermeotik bi urte geroago bidalia, 1966ko apirilaren 23koa. Uriarte Arrigorriagakoa zen eta printzeak Bizkaian izan zuen laguntzailerik nagusia.

J. A. URIARTEren lehendabiziko gutunak dioenaren arabera<sup>313</sup>, *El Regato* eta *Retuerto* guztiz erdaldunak dira eta bertan nekez entzuten da euskara. Gainerakoa, nahiz eta lau auzo baino ez aipatu, gehiengo euskalduna omen zen, adinekoak elebidunak eta gazteenak erdaldun hutsak. Buruan, *San Vicente* auzoan, galduago omen zegoen, bertan gehiengo erdalduna baitzen. Datuak aurrekoen aldean oso zehatzak<sup>314</sup> badira ere, interpretatu egin behar dira, Barakaldo oso

<sup>311</sup> Juan RUIZ de LARRINAGA, «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *BAP X*, 1954, 295-328. or.; *BAP XIII*, 1957, 220-239. or., 330-348, 429-452. or.; *BAP XIV*, 1958, 397-443. or., azken entrega honetan Barakaldoko biak: 403-04. or. lehena eta 419. or. bigarrena; Sebastián GARCÍA TRUJILLO eta Roberto MONTALBÁN TRUEBA (koord.), *Lutxana*, 1995, 71-74. or., gutun bien kopia fotografikoaz.

<sup>312</sup> Koldo ZUAZOK gutunen testua euskaraz ematen du, «Euskararen egoera Bonaparte-ren garaian», *Jakin 66*, 1991, 11-43. or.

<sup>313</sup> «He averiguado con toda exactitud cuantas preguntas me hace S. A. para el mapa lingüístico. En Baracaldo los barrios de Regato y Retuerto son enteramente castellanos y es muy raro que en éstos se hable bascuence; pero en los otros cuatro que son: Beurco, Burceña, Irauregui y Landaburu la gran mayoría es bascongada, porque muchos poseen ambas lenguas, y sólo algunos muy jóvenes no saben bascuence. / En el barrio de San Vicente la mayoría es castellana, aunque también hay bastantes bascongados. Olavega y Deusto con Zorroza son también bascongados, aunque se habla mucho castellano», *BAP XIV*, 1958, 403 or.

Bigarren gutunean, aurrekoaren datuak berretu besterik ez du egiten, oraingoan datuak bertatik bertara jasota: «Participo a S. A. que he estado de intento en Baracaldo y he averiguado que en los barrios de Landaburu y Beurco [sic] se habla mucho bascuence y en el de S. Vicente también algo; pero en el barrio de Retuerto y demás apenas se conoce. He hablado con muchos yo mismo en bascuence. Como los jóvenes por lo regular hablan en castellano, este idioma es el que domina», *BAP XIV*, 1958, 419 or.

<sup>314</sup> Zehaztasun honekin kontraste handia egiten du S. AGUIRRE GANDARIASek egiten duen irakurketa bitxiak: «Por lo tanto en 1863, cuando el príncipe Bonaparte fijó los límites territoriales del euskera en su mapa, en Bizkaia cubrió la margen izquierda del Nervión, comprendiendo a Baracaldo y valle de Somorostro», *op. cit.*, 13. or. Nerbioiaren ezker alde ez zuen, bistan da, euskararen esparruan sartu Bonapartek, ez Somorrostroko harana, ez eta Barakaldo zati handi bat ere. Diogun, bidenabar, Bonaparteren mapa ez zela 1863an argitaratu, ezpada 1869ean, Barakaldoko informazioa, esan bezala, 1864 eta 1866. urteetan bidali baitzion Uriartek printzeari.

zabala baita eta orduantxe populazioaren gorakadarik handiena ari baitzen abian jartzen. Hizkuntza aldaketa oso aurreraturik zegoela ezin uka daiteke, euskarari baserri inguruetan baino ez zitzaizlarik eusten; bertan jaiotakoek kopuruak egunean-egunean pisua galtzen zuen kanpotik etorritakoek aurrean eta, ondorioz, baserriar euskaldunek, aldi berean, erabateko gutxiengoa behar zuten izan.

*Altos Hornos de Vizcaya* enpresa erraldoiaren ernamuina izango zen *Ntra. Sra. del Carmen* 1854. urtean<sup>315</sup> hasi zen martxan Desierto auzoan. Hurrengo 20 urteetan urteroko hazkunde tasa disparatu egin zen, gorakadarik handiena etortzeko bazegoen ere, aurrekoaren hiru halakoa izan baitzen 1877-1887 hamarkadan, inoizkorik eta altuena<sup>316</sup>. 1857an 2.569 bizilagun ditugu herrian; 2.688, 1860an, baina ia bikoitza, 4.360 bizilagun, 1877. urterako. Bataioen kopuruari begiratzen baldin badiogu, are argiago ikusten da Bonaparteren maparen garaiko hazkunde izugarria: 67 > 133 > 156 > 290 bataio, 1854-64-74-84 urteetan, hurrenez hurren. Mapa egin aurreko hamarkadan bikoiztu egin zen bataiatu-urteko umeen kopurua, baina 30 urtean laukoiztu egin zen. Hauxe dugu, duda gabe, askoz ere atzeragotik hasia zen euskararen galera prozesuaren azken errematea Barakaldon. Inmigranteak gehien bat Gaztela Zaharretik, Burgosetik bereziki, eta Kantabriako itsasertzeko komunitateetatik zetozen eta itsasadarraren ondoko auzoetan eta El Regato-Retuerto<sup>317</sup> inguruan pilatzen.

Baserritarrak ere, ordurarteko bizimodua alde batera utzita, industriara hasi ziren aldatzen, aldaketa honekin batera hizkuntzarena ere gauzatu zelarik. Harrezkero, adin handikoek gorde zuten euskara, harik eta adinez hauek iraungi ziren arte. Élisée RECLUS, zatiz behintzaz, okertu egin zen euskararen desagertpenaren premonizioaz, baina bete-betean asmatu trenbideek sinbolizatzen zuten zibilizazio berriaren ondorio kaltegarriez<sup>318</sup>. Barakaldon, besteak beste, *The Bilbao River and Cantabrian Railway* eta *Luchana-Minning Company* legendarioen eskutik

<sup>315</sup> 1882an *Altos Hornos de Bilbao* eta *La Vizcaya* fundatu ziren Sestaon.

<sup>316</sup> Datuak Maite IBÁÑEZ-en dira, *Barakaldo*, Bizkaiko herrien monografiak, Bizkaiko Foru Aldundia, 1994. J. JUARISTIK ere datu adierazgarriak ematen dizkigu, denbora eta espazio marko zabalago baterako: "El crecimiento de esta zona fue incoparablemente mayor que el de Bilbao: la población pasó de unos 25.000 habitantes en 1876 a cerca de 230.000 en 1900" eta "La mayor parte de las 60.000 familias que se establecieron en el valle del Nervión entre 1876 y 1900 venía del campo castellano, andaluz y gallego", *op. cit.*, 30 eta 31. or.

<sup>317</sup> J. I. HOMOBONO, «Modificaciones del paisaje, recursos naturales y culturales, y ordenación del territorio en el valle del Regato (Barakaldo)», *Lurralde*, 1987, 239-83. or

<sup>318</sup> "Cada carretera que penetra en el territorio vasco hace al mismo tiempo un agujero en el mismo idioma. Siendo agentes para la mezcla de los pueblos, al mismo tiempo que medios de transporte para las mercancías, los ferrocarriles de Bayona a Vitoria, de Bilbao a Miranda, de Alsasua a Pamplona, ejercen la influencia más fatal para la pureza del idioma, y próximamente las locomotoras de la vía de los Alduides, pasando por los valles más apartados del País Vasco, serán para el eushera máquinas de destrucción mucho más terribles todavía. Pronto o tarde las regiones euskaras de las dos vertientes, completamente cruzadas en todos sentidos por vías de comunicación, pertenecerán a los extranjeros tanto como a los mismos indígenas, y éstos, obligados a conocer dos lenguas a la vez, acabarán por abandonar la que les sea menos útil", «Los Vascos», 69. or. E. ESCÁRZAGAK ere paisaia hori deskribatzen digu: "Valles, que hace un siglo fueron de paz y de silencio, ven turbado su reposo por el silbar constante de las locomotoras, el chirrido de los cables cargados que cruzan el aire, y por la agitación del trabajo minero", *Avellaneda*, 6. or.



Lutzana. XX. mendearen hasiera.

etorri zen iraultza. Azken konpainia honek, Regatorainoko trenbide bat ere egin zuen, baina auzi luze batek eta meatzeen atarramendu eskasak bertan behera utzi zuten azkenik. Barakaldo beti izan zen, lehenagotik ere, inguruko mearen portu naturala, holaxe baieztatzen digu HUMBOLDTEK<sup>319</sup> XIX. mendearen hasierarako.

Hizkuntzaren galera ez zen, J. A. URIARTEK hartutako berriek diotenez, auzo guztietan aldi berean erritmo berdinez eman. Beurkon<sup>320</sup>, Galindoko ibarrean, isla baten moduan eutsi zitzaion, Landaburu aldeko baserrietan bezala, eta Abando aldera begira zegoen Burtzeñan, Gurutzetan eta seguraski Aldain eta Zubiletan ere. Gainerakoan, Desierton –Lasesarre, Arrajeta aldean, bereziki–, eta Retuerto-Regato aldean, besteak beste, gaztelaniaren eta industriak ekarritako bizimodu eta demografia iraultzaren aurrean amore eman zuen euskarak.

Datu horiez gain<sup>321</sup>, Irauregi aipatzen du J. A. URIARTEK auzo euskaldunen artean, baina hau, ezaguna denez, zatiz baino ez da Barakaldokoa, Cadagua ibaiatz

<sup>319</sup> “El Galindo es donde principalmente se embarca el mineral de hierro y se transporta a Bilbao y más allá”, «Diario», RIEV XIV, 1923, 222. or

<sup>320</sup> Beurkon baserri batzuek zutik iraua bazuten ere, ez ziren falta izan eraikin berriak eta inmigrante-osteak: “Donde la construcción de nuevos edificios ha sobrepasado extraordinariamente por su número, en estos últimos años, ha sido en los barrios de Beurco, Desierto, Regato y Retuerto. Maravilla cómo en tan breve tiempo se han improvisado tantas y tan bellísimas casas”, Manuel de AZCÁRRAGA, *Historia de Vizcaya*, Bilbao, 1885, 287. or.

<sup>321</sup> “Por la parte de Arrigorriaga el castellano está reducido a la población reunida con Bilbao, que son: Achuri y Bilbao la Vieja, de consiguiente todas las barriadas por las que me pregunta, como son: Bolueta, Venta Alta, Madariaga, Aguirre, Artunduaga, Ilumbe e Ibaizábal son enteramente bascongadas”, BAP XIV, 1958, 404. or.



bestaldekoa Alonsotegikoa baita. Halaber, Bilbo-Begoñako Atxuri eta Abando-Bilboko Bilbao la Vieja erdalduntzat ematen dizkigu, baina euskalduntzat, erdarak presentzia handia izanda ere, Zorrotza, Olabeaga eta Deustu. Bestetik, Begoñako Bolueta eta Abandoko Ibaizabal auzoak, Arrigorriagako auzoekin batera, guztiz euskalduntzat ematen ditu, hau oso diskutigarria edo ñabardura handiak egin beharrekoa bada ere. Bolueta auzoak, euskalduna izanagatik, inmigrante asko bereganatu zituen bertako meatze eta fabriketara, eta XIX. mendearen amaieran euskararen transmisioaren etena ematen ari zen, etorritako inmigrante asko eta asko Otxandiokoak eta burdingintzan tradizioa izandako herrietako euskaldunak ziren arren. Ibaizabal ere erdalduntzen hasia zen ordurako, kanpoko inmigranteen etorrerak askoz pisu handiagoa hartu zuelarik hemen.

Bien bitartean, Paul BROCA antropologoa ari zen antzeko mapa bat egiten, Bonapartek berea publikatu baino urtebete lehenago aurkeztu zuena, nahiz eta argitarapena, printzearen kasuan bezala, urte batzuez atzeratu zen, azkenik 1874-75ean argitaratu zelarik<sup>322</sup>. B. OYHARÇABALEk<sup>323</sup> kontatzen ditu proiektuaren detaile batzuk eta maparen erreproduzio bat ematen, lehenago J. CARO BAROJAK egindako moldaketa sinpletutik<sup>324</sup> ezagutzen baikenuen. Berebiziko garrantzia dauka, Bonapartek egina zuen bezala, euskararen intentsitate ezberdinen markatzeak, esparru elebidunak zirenak baino gehiago, euskara galtzen ari zirenekoak<sup>325</sup> seinalatzen baitizkigu. Badira Bonaparteren maparekiko ezberdintasun nabari zenbait; J. A. Uriarte, Brocaren laguntzailea zen Velasco irakaslea baino hobeto informaturik zegoelako, jakina. Barakaldo, lehenengoz *Limite de la Langue Basque* fatidikotik kanpo uzten da, *Rituerto* [sic], *Portugaleta* eta Gueñesko *Cuadra* auzoarekin batera. Hala ere, Alonsotegi eta Barakaldoko alde bat barruan sartzen ditu, honetan, Bonaparterekin nahiko ados suertatuz. Euskararen eremu elebidun horretan sartzen ditu Bonapartek erdalduntzat ematen dituen batzuk, Okondo eta Urduña, esaterako, eta, elebidunak ez, baina oro har euskaldun hutsak izan behar zuten Orozko eta Hego Uribe osoa, aurrerago Velascok emango zituen datu oker batzuen ildotik, urrean.

<sup>322</sup> Jon BILBAOK (*Eusko Bibliographia*, II, 131-32. or.) 1864 argitarapen urtea ematen du eta «Carte de la répartition de la langue basque en France» titulua ematen, atzera argitaratu bide zelarik 1874an *Mémoires d'Anthropologie* delakoan, eta *Carte de la epigrafea* kenduta *Association Française pour l'Avancement des Sciences* erakundearen defendatua eta hurrengo urtean argitaratua. Gaztelaniaz, 1874an *Revista Europea* izenekoa atera zen, baina oraingoan, orri kopuruari begiratzen badiogu, laburbildurik urrean. Hauek ez datoz bat B. Oyharçabalek eman datuekin (*ik.* hurrengo oharra), aurkezpen eta argitarapen ezberdinak egon zirela pentsatzera garamatzana.

<sup>323</sup> «Hegoaldeko partearentzat ere jende desberdinen eskukaldia izan zuen: Carrión [sic] jaunak egin zion Nafarroan lan handiena, eta Velasco Madrilgo irakasleak (Zarautzen etxe bat zuen honek) mapa batean ezarri zion zein herritan euskara bakarrik erabiltzen zen, eta zeinetan gaztelera ere bazekien jendeak. 1868.ean mapa berria aurkeztu zuen beti Zientzia Elkarte beraren aitzinean», «Euskararen mugez», 353. or., 5. oh.

<sup>324</sup> *Materiales*, 1. mapa.

<sup>325</sup> «Nosotros estimaríamos esta zona como de desaparición o intensidad mínima del vasco, ya que bilingüismo ha existido en todo el país desde hace mucho», J. CARO BAROJA, *Materiales*, 9. or.

Urte horietan, 1867an, hirugarren frantses bat, Élisée RECLUS geografo anarkistak, *Géographie Universelle* obra erraldoiaren egilea izango zenak eta Piotr Kropotkin printze anarkistaren adiskide eta kolaboratzaileak, Brocari bere lehen mapa, Iparraldekoa, egiten lagundu zionak<sup>326</sup>, gure artean egindako bidaiaren baten berri ematen du, izenburu premonitorioa<sup>327</sup> zeraman artikulua ezagun batean. Artikuluan euskararen galerari buruzko aparteko informazioa<sup>328</sup> ematen digu: euskararen muga Portugalete eta Bilbo artean zen, eta Bilbon bertan gaztelania egunean egunean nagusitzen doa. Honek esan nahiko luke Sestao euskaldun genuela, orduan oso txikia zen herri honi buruzko berri bakarrenetarikoa izanik. Hala ere, ordurako euskaldunik gera bazitekeen, badakigu Uriartek Bonaparteri bidalitako informazioari esker inguru horietan azkenetan zela. J. M.<sup>a</sup> SASÍAK<sup>329</sup> informaziorik gabeko beste herri baterako, Trapagaranerako, berri arin bat ematen digu, baina hau ere kontu handiz hartzekoa. Egiatzkoa izatera, Trapagaraneko azken-azkenetariko hondarren kasu baten aurrean geundeke.

Ladislao de VELASCO gasteiztarrek, euskararen estatistika egiten duela, Barakaldori buruzko informazio interesgarria ematen digu<sup>330</sup>, okerrak diren beste datu batzuekin batera. Lehenik eta behin, Barakaldo zerrendatzen du euskara ia galdu duten herrien artean, Enkartzioetako gainerako herri guztiekin batera, baina Abando, Arrancudia (sic), Miravalles eta Zollorekin batera ere. Argi dago Enkartzioetako euskaldun izandako herri guztiek guztiz galtuta zutela euskara eta, bestetik, Uribeko aipatu herriek euskaldun hutsak behar zuten izan orduan. Ondoren, zehazten du Barakaldon artean bazirela euskaldun adineko batzuk. Diogun, bidenabar, Bilbo ere euskaldun agertzen digula, bertan arrotz erdaldun asko badira ere.

XIX. mendea amaitzera bidean, Arturo CAMPIÓNek bere gramatikan interes handirik ez duen berri labur bat<sup>331</sup> ematen digu Barakaldori buruz, Bonaparteren datuen irekirketa hutsa baita. Azkenik, E. J. LABAYRU dugu mende honetarako

<sup>326</sup> «Élisée Reclus eta Honoré Brocari laguntzari esker moldatu ahal izan zuen, baina ez zuen argitara eman», B. OYHARÇABAL, «Euskararen mugez», 353. or., 5. oh. Reclus batek, ez dakigu Élisée berak ala bere anaia antropologo Éliek, J. Vinson-ekin ere kolaboratuko zuen gero, *Cowadeari* buruzko lantxo batean, Vinsonek berak bere *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*-n azaltzen duenez, *Complemente et supplement*, XLIII, 759. or.

<sup>327</sup> «Les basques, un peuple qui s'en va», *Revue des Deux-Mondes*, LXVIII, 1867, 313-340. or.; Martín de ANGUIOZAREN gaztelaniazko bertsioa: «Los vascos. Un pueblo que se va», *RIEV*, XX, 1929, 57-83. or., guk aipemenetan darabilguna.

<sup>328</sup> «El dominio de la lengua vasca comienza al oeste entre la pequeña villa de Portugalete, situada a Orillas del golfo de Gascuña, y la capital de Vizcaya, Bilbao, donde, no obstante, el español se convierte poco a poco en idioma preponderante para penetrar al sur en los valles que descienden de la cordillera de los Pirineos cantábricos», *op. cit.*, 60. or.

<sup>329</sup> «En 1970 el Sr. Fco. de Abrisketa, sobre Trapagaran (por la parte pegante a Barakaldo) en la misma época del dato anterior [a fines del s. XIX]; se trataba de parientes suyos», «Más sobre toponimia», 1.184. or.

<sup>330</sup> «Aun subsisten algunos ancianos que lo conservan como lengua nativa, cual sucede en Barakaldo», *Los Euskaros en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya. Sus Orígenes, Historia, Lengua, Leyes, Costumbres y Tradiciones*, Barcelona, 1879, 484. or.

<sup>331</sup> «En Bizcaya, la región de escasa densidad del euskara se limita á Barakaldo», *Gramática de los Cuatro Dialectos Literarios de la Lengua Euskara*, vol. I, Pamplona, 1884, 35. or.

azken berria<sup>332</sup> ematen diguna, Barakaldoko euskaraz lehenaldian mintzatzen delarik. Galera, hondar ezkutukoren bat gorabehera, gauzatua zen.

### 2.3.7. XX. mendea

XX. mendea galeraren egiaztapenarena dugu. Oraindik orain bada arrastoren baten berri ematen digun testigantza bat edo beste, galera berresten duten testigantza ugarien artean. Barakaldon bezala, Deustun ere guztiz burutu da prozesua eta Begoñan eta Abandon, zatirik handienez. Alonsotegiko Artiban, ordea, auzoa hustu dela ere, eutsi izan zaio euskarari.

J. ECHEZARRAGAK<sup>333</sup> Barakaldoko Gurutzeta eta Burtzeña auzoak batetik, eta Alonsotegi eta Irauregi ematen dizkigu mende hasieran oraindik euskara gordetzen zutenen artean. MENÉNDEZ PIDALEK<sup>334</sup>, Unamunoren ahotik, diosku euskara aspalditik galdua zela Barakaldon, Laudion eta Baranbion bezala. Oro har informazioa zuzena bada ere, pentsa dezakegu, Laudion eta Baranbion bezala, auzo batzuetan ez zela prozesua artean guztiz burutu, Barakaldon beste bi herri hauetan baino lehenago burutu zela pentsatu behar dugun arren.

Azkuek ez du hiztegian Barakaldo, ezta Alonsotegi ere, aipatu ere egiten. *Euskal-erriaren Yakintza*-n, aldiz, ibaiatz bestaldeko herrietan Barakaldori buruz usu korritzen omen zuen atsotitza dakarkigu, goian sakon aztertu duguna. Azkuek dio ehun urte atzerago edo erabiltzen zela, orduan euskara desagertuta zegoen seinale.

Ernesto PEREA barakaldotarrak<sup>335</sup>, 1944an idazten zuenean, Alonsotegiko Artiban baino ez bide zuen euskara entzun, J. I. HOMOBONOK<sup>336</sup> berretzen diguna. Koldo ARTOLA eta Josu TELLABIDE<sup>337</sup>, ezinbestela, berandu iritsi ziren Barakaldora euskararen arrastoena bila, desagertuaren akta idaztea baino ez zutela izan.

<sup>332</sup> "La parte encartada en que todavía en este siglo se ha hablado el bascuence es Baracaldo", *Historia General del Señorío de Bizcaya*, tomo II, Bilbao, 1897, 534. or.

<sup>333</sup> "Cruces y Burceña barrios de Baracaldo fueron antaño lugares poblados de caseríos excepción hecha del casco central de Burceña. En el período de los primeros decenios del siglo presente se hablaba vascuence en todos aquellos caseríos. / Existen autorizados testimonios de personas ya fallecidas que aseguraban que las localidades de Irauregui y Alonsotegi se servían de la misma lengua vasca a principios del citado siglo, ya que por otro lado se emplea aun en el barrio de Artiba de Alonsotegi", *Valle de Gordejuela. Reseña Histórica*, 203. or

<sup>334</sup> "Unamuno me ha indicado alguna alteración del límite en Vizcaya", *Introducción al Estudio de la Lingüística Vasca*, Publicaciones de la Sociedad de Estudios Vascos, 1921, orain in *En Torno a la Lengua Vasca*, Espasa Calpe, Buenos Aires, 1962., 45. or. eta aurrerago: "Hace ya bastantes años que Unamuno me informaba de que en Baracaldo, Llodio y Barambio se había perdido también el vascuence", «Sobre las vocales ibéricas e y o en los nombres toponímicos», *Revista de Flogía Española* V, 1918, orain in *En Torno a la Lengua Vasca*, 115. or. Bernardo ESTORNÉS LASAK, Menéndez Pidalen hitz horietan oinarrituta, datu bera errepikatzen digu: "Hace ya años que en Baracaldo, Llodio y Barambio el vasco está perdido", «Área lingüística», in *Geografía Histórica de la Lengua Vasca*, 15. or.

<sup>335</sup> "Y es éste de Artiba un somo baracaldés donde todavía puede oírse, a los nativos, el euskera privativo", *op. cit.*, 60. or.

<sup>336</sup> "Hacia 1930 aún conocían este idioma muchos vecinos de Artiba (Alonsotegi), Larraskitu, Begoña y la práctica totalidad de los de Seberetxe y Buia (Bilbao), así como los de los caseríos de Basauri y Arrigorriaga confinantes con los cotos mineros de Mirabilla -El Morro y Ollargan-Montefuerte", *op. cit.*, 120. or. Esan behar da Basauri, Arrigorriaga, Seberetxe, Buja, Begoña eta Larraskituko baserri gehientsuenetan oraintsu arte egiten izan dela euskara, eta zenbaitzuetan oraindik orain egiten dela.

<sup>337</sup> "Barakaldoko udalerrian, bere aldetik, ez BURTZENAN, ez LUTXANAN, ez SAN VICENTE-BARAKALDON, ez da aztarrenik geratzen", «Euskararen muga 1980. urtean», *FLV* 56, 248. or.



# LOUIS HAMACEI GOURE ERREGUE HOUNAREN TESTAMENDIA

*Cesar Gallastegi<sup>1</sup>, Gotzon Lobera<sup>2</sup>, Andres Urrutia<sup>3</sup>*

---

<sup>1</sup> Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

<sup>2</sup> BFAko Euskera Sustatzeko Zuzendari Nagusia.

<sup>3</sup> Euskaltzaina eta notarioa.

## LABURPENA

Artikulu honetan testu bitxi bat azaldu nahi dugu, Luis XVI.ak idatzitako azken nahiaren euskarazko bertsioa, hain zuzen. Testu hori 1815. urtean, gutxi gorabehera, argitaratu eta zabaldu zen, eta, ezbairik gabe, Iparraldeko literatura politikoaren adibide azpimarragarritzat jo dezakegu. Jatorrizko testua gillotinarra abiatu orduko idatzi zuen Frantziako azken erregeak, eta segituan kontrairaultzaileek ikurra bihurtu. Hori dela eta, testamentuak hamaika argitalpen eta itzulpen izan zuen, euskarazkoa barne. Euskarazko itzulpenaz gain, jatorrizko testua eta gaztelaniazko bertsioa bildu dira artikulura; azkenik, XIX. mendearen amaieran *Eskualduna* astekariak eman zuen errege testamentuaren itzulpena ere jaso da.

## RESUMEN

Presentamos en este artículo un curioso texto en euskera, publicado y distribuido hacia 1815, y que constituye un notable ejemplo dentro de la literatura política del País Vasco continental. Se trata, ni más ni menos, que del testamento del último rey de Francia, Luis XVI, redactado pocos días antes de ser conducido a la guillotina. Este documento, utilizado después como manifiesto contrarrevolucionario, conoció una extraordinaria difusión y fue traducido a varios idiomas, entre ellos el euskera. A lo largo de nuestro trabajo ofrecemos, además de esta traducción, la redacción original en francés y una versión de la época en castellano. Finalmente, recogemos una segunda traducción al euskera del testamento real, publicada en el semanario *Eskualduna* a finales del siglo XIX.

## RÉSUMÉ

Nous présentons dans cet article un texte curieux en basque, publié et distribué vers 1815, qui constitue un échantillon remarquable de la littérature politique du Pays Basque continental. Il s'agit, ni plus ni moins, que du testament du dernier roi de France, Louis XVI, rédigé quelques jours avant sa montée sur l'échafaud. Ce document, utilisé plus tard comme manifeste contre-révolutionnaire, a connu une extraordinaire diffusion et a été traduit dans plusieurs langues, dont le basque. Au cours de ce travail, nous proposons, outre cette traduction, le texte original en français et une version de l'époque en espagnol. Finalement, nous avons incorporé une seconde traduction en basque du testament royal, parue à la fin du XIXe siècle dans l'hebdomadaire *Eskualduna*.

## SUMMARY

This article presents an interesting text in Basque, published and distributed c. 1815, being a notable example of political writing in the French Basque Country. The text is in fact the testament of the last King of France, Louis XVI, drafted just a few days before he was led to the guillotine. The document, later used as a counter-revolutionary tract, was widely circulated and translated into a number of languages, including Basque. The article gives the Basque translation, the original in French and a contemporary version in Spanish, plus a second Basque translation, published in the weekly journal *Eskualduna* in the late 19<sup>th</sup> century.

## I. SARRERA

Joanak dira, urte batzuk jada, Frantziar Iraultzaren berrehun urtegarreneko ekitaldiak. Edonon sumatu genituen, orduko hartan, giza historian goi mailako gertaera horren lorratzak.

Euskal Herrian ere, hor nonbait, izan ziren horren oihartzunak, Iparraldean batez ere. Iraultzaren nondik norakoak xeheki aztertuak izan ziren: historia, hizkuntza, legea, gizartea... eta gainerakoak plazaratuz. Nonahi begi-bistakoak garai hartakoak, hain zuzen ere, egun honetako giza antolakuntzaren oinarri sendoenak.

Bazen, alabaina, hortxe bazterrean aurreko horrekin akort ez zebilena. Izan ere, delako horrek gogoratu zizkigun iraultzaren sarraskia eta txikizioak, azaldu matxinada horren erbesteratze eta zapalketak... horiek guztiak, batik bat, Euskal Herriko Iparraldean.

Artean, esan gabe doa, berriro denon gogoan Iraultzaren hasieran eskualdeetako hizkuntzek erdietsi zuten aitopen mugatua. Horretara, euskaraz ondu diren testu juridiko-administratiboen andana eta saila, esku-eskura. Testu horien biltzaille, Julien Vinson euskaltzalea. Etorri bazetorren, lehendik ere, horren bilbadura, P. Lafitte zenak ohartarazi zuenez: «Au départ il y aurait à fouiller les documents basques de la Révolution française et de l'Empire: cahiers des États, testament de Louis XVI, affiches, proclamations, instructions, règlements de police, programmes. M. Vinson en a recueilli jadis un certain nombre. Cette littérature ne mourra jamais: elle s'adaptera simplement aux fluctuations politiques du siècle.»<sup>1</sup>

Aipamen labur horren leerroartean nabari dugu honetara ekarri dugun testuaren albistea, alegia, Frantziako errege Luis XVI.aren testamentua eta horren euskarazko bertsioa. Horretarako, bistan da, premiazko jarduna dugu jatorrizko

---

<sup>1</sup> LAFITTE, P.: *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Le Livre, Collection Aintzina, Baiona, 1941, 54. orr.

frantses testuarena. Hurrena ere, garrantzi berekoa edo handiagokoa, horretan kontua baita jakitea euskal bertsioaren ipi-apa guztiak, testua bera paperezatu baino lehen. Azkenak, ordea, bitxikeriaren erresumara garamatzake, bertan baitugu, ageri-agerian, erregearen gillotinatze mendeurrena zela eta, *Eskualduna* kazetan norbaitek ondu zuen testu beraren bigarren bertsioa, berrikitan J. Haritschelhar euskaltzainburuak aipatu eta gogoratua, gerotxoago aipatuko denez. Dena dela, gure saio hau lehen bertsioaren inguruan izango da, batik bat.

## II. TESTAMENTUAREN JATORRIZKO TESTUA

1789. urtean hasitako Iraultzaren ondorioz, Luis XVI.aren egoera gero eta kaskarragoa zen. 1792. urtean errepublika aldarrikatu eta erregea giltzapetu zuten *Tour du Temple* izenekoan. Hor pasatu zituen bere azken egunak, Konbentzioak gillotinatzeko erabakia hartu zuen arte. Erregea bere familiarekin sei hilabetez bizi izan zen espetxe horretan, zerbitzari baten laguntza zutela, Cléry izeneko, alegia. Zerbitzari horrek idatzi zuen erregearen azken egunetako kontakizun eza-guna.<sup>2</sup> Lan hori historialariek erabili dute erregearen azken egunak eta egintzak jakiteko.

Espetxealdi horretan Konbentzioaren erabakia —erregea heriotza zigorrera kondenatu zuena, alegia— jakin zuten 1793ko urtarrilean. Ebazpen latzaren jakinarazpena Josep Domingo Garat lapurtarrak<sup>3</sup> eman zion erregeari. Aurreko hilean, epaiketa gauzatzen ari zen bitartean, erregeak bere testamentua idatzi zuen. Hor dugu, beraz, gure ikergaiaren jatorrizko testua, frantsesez idatzitakoa. Testamentuaren testua laster zabaldu zen, bai lehen aipatu dugun liburuaren bidez —Cléryk erregearen testamentua bere liburuan jaso baitzuen—, bai testu bakar gisa.

Cléryk idatzitako oroitzapenen lehenengo edizioa Londresen egin zen, 1798an; orduetik hona liburuaren edizioak zenbatu ezinak dira.<sup>4</sup> Liburuaren arrakasta ikusita, iraultzaileek ere edizio apokrifo bat atera zuten. Bestalde, liburu hori beste hizkuntzetara ere itzuli zen: artikulu honetan jaso dugun gaztelaniazko bertsioa 1815ean agertutako ediziotik hartu dugu, hain zuzen ere. Are gehiago, testamentua beste liburu batzuen bidez ere ezagutarazi egin da, liburu horien

<sup>2</sup> *Journal de ce qui s'est passé à la Tour du Temple pendant la captivité de Louis XVI Roi de France par M. Cléry valet de chambre du roi.*

<sup>3</sup> Garat anaiak Lapurdiko hirugarren estatuko ordezkariak izan ziren Estatu Orokorretan. Domingo Josep ez omen zegoen ados erregeari jarritako zigorrarekin, baina berari egokitu zitzaion mezu garrantza helaraztea. Gogoratzekoak dira gertaera horien-egatik Salvat Monhok egindako bertsioak, mespretxuz beteak. Ikus, LAFITTE, P.: *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)*, Ikas, Baiona, 1972; URKIZU, P.: «Iraultza frantsesaren garaiko bertsioak (1789-1799)», in *1789 et les basques. Histoire, langue et littérature*. Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele, 1991; ORPUSTAN, J.: «Un poète basque au temps de la révolution : Salvat Monho (1749-1821)», in *1789 et les basques. Histoire, langue et littérature*. Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele, 1991.

<sup>4</sup> Lan horren edizioak, gutxienez, honako urteotan egin ziren: 1800, 1814, 1816, 1825, 1827, 1838, 1841, 1852, 1853, 1861, 1869... baita xx. gizaldian: 1958, 1968, 1969, 1987... Azken edizio horretatik jaso dugu testua.



barruan ere errege testamentua jaso baita.<sup>5</sup>

Gainera, lehen aurreratu dugunez, testamentua testu bakar gisa ere zabaldu zen, bai Frantzian (frantsesez, Koroapeko beste hizkuntzetan —euskarazko testua da horren lekuko— edota atzerriko beste hizkuntzetan, esaterako kasu honetan: *Testament de Louis XVI, roi de France et de Navarre, avec une traduction arabe. Paris, Imprimerie royale, 1820*) bai Europako beste herrialdeetan ere (berbarako, *Testamento de Luis XVI. Málaga, En la imprenta y librería de los herederos de D. Francisco Martínez de Aguilar, hamazortzigarren mendea agortu baino lehenago argitaratu omen zena*).

### III. EUSKARAZKO TESTUA

Izatez, erregearen testamentuak berebiziko esangura zuen, hain juxtu ere, politika kutsukoa, kontrairaultzaileek bultzatua. Hartara, agertu ere, testamentuaren euskarazko itzulpena propagandarako balio duen panfleto itxurazko orrialde batean agertzen da, datarik gabe. Argitalpenaren helburu nagusia erahildako erregearen ontasuna eta iraultzaileen maltzurkeria erakustea zen. Kontuan izan behar da une horretan monarkiaren berrezarkuntza gertatu zela.

Euskarazko testua Vinsonek aipatzen du bere *Essai d'une bibliographie de la langue basque* (179 zenbakidun erreferentzian). Honakoa jartzen du fitxan: «*Louis Hamacei goure erregue hounaren testamendia (s. T. L. ni d. : à la fin:) A Pau, chez Vignancour, avocat, imprimeur du Roi. In-8 —4p. Renseignement donné par le prince L.— L. Bonaparte.*». Bestalde, Vinsonek bibliografiaren aurkibide batean esaten duenez, gure idazkia 1815ekoa da, gutxi gorabehera.

Bibliografiaren osagarrian ohar hauek gaineratzen ditu, orrialdearen deskripzioari dagokionez: «*En tête, una ligne de petits fleurons en forme de fleurs de lys. La justification est de 96 mm.; et la hauteur des pages, chiffres non compris, de 160 mm. J'en connais deux exemplaires, dont l'un se trouve chez les Bénédictins de Belloc à Urt. Il mesure 220 mm. Sur 140*». Vinsonek aipatzen duen bigarren alea, ziur asko, Bonaparterena zen eta horixe da, izan ere, guk geuk erabili duguna, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekari esker.

Orrialdetxoaren argitaratzailea, datu guztien arabera, Jean Antoine Sylvestre Vignancour izen zen, argitaratzaile familiako bigarren ordezkaria, alegia.<sup>6</sup>

<sup>5</sup> Adibide bat jartzearren, gaztelaniaz honako izenburua hartu zuen lanak: *La capilla expiatoria de Luis XVI y de María Antonieta*, Sabornin Abateak idatzitakoa.

<sup>6</sup> Ikus, LACAZE, M.L.: «Les imprimeurs et les libraires en Bearn. 1552-1883», in *Bulletin de la Société des Sciences, Lletres et Arts de Pau*, Pau, II Série-Tome 13, 1884.

#### IV. GAZTELANIAZKO TESTUA

Arestian esan dugunez, testamentuaren testu horrek, beste hizkuntzetarako itzulpenak izan zituen. Agi denez, berehala heldu zen Espainiara, lehen aitatu dugun Malagako alea dela bide.

Testamentuaren jatorrizko testua ezagutzeko erabili dugun lanak —Cléryren idazkia, hain zuzen ere— gaztelaniazko bertsioa izan zuen, eta bertan ere testamentua irakur daiteke (133-143 orr.). Hauxe da gaztelaniazko liburuaren izenburua: *Relacion circunstanciada de quanto tuvo que sufrir el desgraciado y virtuoso Luis XVI durante todo el tiempo de su prision en la Torre del Temple hasta el día 21 de Enero de 1793 en que subió al cadalso, formada sobre la declaración jurídica de los testigos oculares: con un breve Apéndice sobre lo que ocurrió á las quatro Augustas víctimas que quedaron en la misma Torre.*<sup>7</sup>

Gaztelaniazko liburua bestearen itzulpen hutsa da, bekatua inon aitortu ez arren. Hauek dira gaztelaniazkoaren aipamenak testamentuaren inguruan, ezer aldatu gabe:<sup>8</sup>

El Rey escribió en los tres dias precedentes á la Pasqua de Navidad mas de lo que acostumbraba. Seguro ya de su suerte, y conociendo que como Rey y como padre de familia debia hacer aquellas disposiciones á que todos estamos obligados en ciertos casos, escribió *todo de su mano* el día de Navidad su testamento, que por creerlo ya un monumento celestial de su piedad é inocencia nos parece justo ponerlo aquí.

París estaba sobre las armas desde las cinco de la mañana. Por todas partes se oia tocar la generala, el ruido de armas, de los caballos y de la artillería, que tan pronto la colocaban en un punto como en otro; y todo esto retumbaba en la Torre.

A las nueve se aumentó el ruido: se abren las puertas de la Torre con estrépito, y se presenta *Santerre* con diez gendarmes que colocó en dos filas. “¿Vosotros venís por mí?” dixo el Rey á *Santerre* = “Sí,” respondió este infame. “Pues bien, dixo el Rey, os pido que me esperéis un instante,” y entró en su gabinete. Salió al momento con su confesor, y traia en la mano su testamento. Se dirigió á un Municipal llamado *Jacobo Roux*,

<sup>7</sup> Hona hemen liburuaren lehenengo orrialdea: *Relacion circunstanciada de quanto tuvo que sufrir el desgraciado y virtuoso Luis XVI durante todo el tiempo de su prision en la Torre del Temple hasta el día 21 de Enero de 1793 en que subió al cadalso, formada sobre la declaración jurídica de los testigos oculares: con un breve Apéndice sobre lo que ocurrió á las quatro Augustas víctimas que quedaron en la misma Torre. Dedicada al Rey Nuestro Señor D. Fernando el Septimo por el presbítero D. Luis Fris Ducos, Rector y Administrador de la Real Iglesia-Hospital de San Luis Rey de Francia. Un tomo dividido en dos partes. Por Don Francisco Martinez Dávila, Impresor de Cámara de S. M.*

<sup>8</sup> Posible zen, jakina, jatorrizko testu frantsesa hona ekartzea. Gastelaniazko pasarteak orrialde hauetan datoz: 123. orr. eta 175-176 orr.



Luis XVI.a (Versailles, 1729-Paris, 1793). Frantziako erregea 1774tik 1792ra, Konbentzioak errepublika aldarrikatu zuen arte.

clérigo juramentado, que estaba mas inmediato, y le dixo: “Os suplico que entreguéis este papel á la Reyna mi esposa.=Yo no he venido aquí para eso, respondió el juramentado, yo he venido para llevaros al cadalso.” Entónces mirando el Rey á otro Municipal, llamado *Gobeau*, le dixo: “Yo os suplico que entreguéis este papel á mi esposa: lo podéis leer si que-reis: contiene disposiciones que deseo sepa la Municipalidad.”

Hala ere, bada posible, lehen aurreratu dugunez, testamentuaren gaztelaniazko bertsio desberdin eta modernoagorik ekartzea, esaterako, Sabornin-en lanaren gaztelaniazko bertsioa dakarrena: *La Capilla expiatoria de Luis XVI y de María Antonieta*, Madrilen 1873. urtean argitaratua.

## V. TESTAMENTUA HIRU ZUTABETAN

Aukeran ditugu, beraz, testamentuaren hiru testuak, hau da, jatorrizko testu frantsesa, eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsio zaharrak batera ematea, hiruren arteko ezaugarriak erkatu ahal izateko. Testuok eguneratu eta zuzendu gabe utzi ditugu, ortografiaren eretzean.

Hona hemen, Luis XVI.aren testamentua orain arte aipatutako hiru bertsioetan:

Au nom de la très-sainte Trinité, du Père et du Fils, et du Saint-Esprit. Aujourd'hui vingt-cinquième jour de décembre mil sept cent quatre-vingt-douze, moi Louis XVI du nom, roi de France, étant depuis quatre mois renfermé avec ma famille dans la tour du Temple à Paris, par ceux qui étaient mes sujets, et privé de toute communication quelconque, même depuis le onze du courant, avec ma famille; de plus, impliqué dans un procès dont il est impossible de prévoir l'issue, à cause des passions des hommes, et dont on ne trouve aucun prétexte ni moyens dans aucune loi existente; n'ayant que Dieu pour témoin de mes pensées, et auquel je puisse m'adresser, je déclare ici, en sa présence, mes dernières volontés et mes sentiments.

Je laisse mon âme à Dieu, mon créateur; je le prie de la recevoir dans sa miséricorde, de ne pas la juger d'après ses mérites, mais par ceux de Notre-Seigneur Jésus-Christ, qui s'est offert en sacrifice à Dieu son Père pour nous autres hommes, quelque indignes que nous en fusions, et moi le premier.

Je meurs dans l'union de notre sainte mère l'Église catholique, apostolique et romaine, qui tient ses pouvoirs, par une succession non interrompue, de saint Pierre, auquel Jésus-Christ les avait confiés.

Trinitate Saindiaren, Aytaren, Semiaren, eta Spiritu Saindiaren icenian. Egun abenduaren hogoita bost garrena, milla eta çazpi ehun eta lau etan hogoita amabi garren ourthia, ni LOUIS hamacei icenez, Franciaco Erregue, lau hilabete eta guehiago hountan Pariseko Temploco Dorrian, neure familiarekin serratia, ene sujeten ordrez, eta communicatione orotas, ene familiarekin, hilabete hounen hameka guerrenes gueros pribatia; prosez batian sarthia çoinen fina ecin çagut beitaite, guiçonon passionen causas, eta coinen pretextaric, eta moyennic, ecin idereiten beita legue bihi batian; hemen Gincoari declaratcendut ene ondar borundatiac, eta sendimendiac, honra beita ene pensamendien destimonio choila, ez çeini adressatcen ahal nicana.

Ginco creaçaliari gomendatcen dut ene arima, othoitcen dut haren errecebitcez bere misericordian, eta jujatcez, ez ene merechimendien arabera, baina gure *Jesu-Christo* Jaunaren icenian çoin Ginco bere Aytari sacrificatu içan beita, guiçonon orenen daco, combat ere indigno beicitren, eta ni particularski.

Hilcen nis gure Eliça ama Saindiaren, Catholicuaren, Apostolicuaren, eta Romanuaren unione Saindian, coinnec bere botheriac beguiratcen beytitu,

En el nombre de la Santísima Trinidad, Padre, Hijo y Espíritu Santo. Hoy 25 de Diciembre de 1792, Yo Luis XVI, de este nombre, Rey de Francia, hallándome en París encerrado con mi familia en la Torre del *Temple* por los que eran mis vasallos, y privado de toda comunicacion aun con mi familia desde el 11 del corriente; ademas implicado en un proceso, cuyo éxito no es fácil de preveer á causa de las pasiones de los hombres, y para el que no se encuentra motivo alguno ni aun pretexto en ninguna ley, no teniendo á quien dirigirme por testigo de mis pensamientos sino á Dios, declaro aquí en su presencia mis últimas voluntades y sentimientos.

Dexo mi alma á Dios mi Criador. Yo le suplico que la reciba en su misericordia, y no la juzgue segun sus méritos, sino por los de nuestro Señor Jesucristo, que se ofreció en sacrificio á Dios, su Padre, por nosotros los hombres por mas indignos que seamos, y yo el primero.

Yo muero en la union de nuestra Santa Madre la Iglesia católica, apostólica y romana, que tiene sus poderes por una sucesion no interrumpida desde San Pedro, á quien Jesucristo se los habia confiado.

Creo firmemente, y confieso todo lo que se contiene en el símbolo y en los

Je crois fermement et je confesse tout ce qui est contenu dans le symbole et les commandements de Dieu et de l'Église, les sacrements et les mystères, tels que l'Église catholique les enseigne et les a toujours enseignés. Je n'ai jamais prétendu me rendre juge dans les différentes manières d'expliquer les dogmes qui déchirent l'Église de Jésus-Christ; mais je m'en suis rapporté et rapporterai toujours, si Dieu m'accorde vie, aux décisions que les supérieurs ecclésiastiques, unis à la sainte Église catholique, donnent et donneront, conformément à la discipline de l'Église, suivie depuis Jésus-Christ.

Je plains de tout mon cœur nos frères qui peuvent être dans l'erreur; mais je ne prétends pas les juger, et je ne les aime pas moins tous en Jésus-Christ, suivant ce que la charité chrétienne nous enseigne. Je prie Dieu de me pardonner tous mes péchés; j'ai cherché à les connaître scrupuleusement, à les détester, et à m'humilier en sa présence. Ne pouvant me servir du ministère d'un prêtre catholique, je prie Dieu de recevoir la confession que je lui en ai faite, et surtout le repentir profond que j'ai d'avoir mis mon nom (quoique cela fût contre ma volonté) à des actes qui peuvent être contraires à la discipline et à la croyance de l'Église catholique, à

Juan dene Petriren successione seguitu batez, coini Jesu Christoc confiatu beitterascon.

Sinhisten dut borthiski, eta aitortcen symboloan, Gincoaren eta Eliçaco manamendietan, sacramendietan eta mysterionestan idereiten diren gauçac, Eliça Chatolicoac eracasten, eta eractsi tien guisan. Secula estut nahi içan juge çarthu Dogmen explicatceco manera diferent etan, çoinc Jesu-Christoren Eliça phorrokatcen beitate; baina bethi seguitudut eta seguituren, Gincoac bicia acordatcen badaut, eliça catholicoco, superiorec emaiten eta emanen dusten decisioniac, Eliçaren disciplinaren conforme, coin beita Jesus-Christos gueros seguitia.

Errurian diren goure anayac ene bihots guciac pleinitcen tut; baina estut haien jujatcia pretenditcen, eta estitut gutiago maite Jesu-Christo beithan, christino caritatiac eracousten daicun beçala. Gincoa othoitcen dut barkha ditçadan ene bekhatiac: nahi içantut scrupuloski, çerkatu, hastiatu, eta Gincoaren aincinian humiliatu. Apphez Catholicoco baten ministeriouas ecin cerbitçatcen beinis, othoitcen dut Gincoa errecebitcez ene confessionia, eta particularski ene dolumen handia, çeren ene icena essarri dudan, (eni claric nahi) Eliçaco fediaric eta disciplinari contrario

mandamientos de Dios y de la Iglesia, los sacramentos y los misterios, tales quales enseña y ha enseñado siempre la Iglesia. Jamas he querido hacerme Juez de las diferentes maneras de explicar los dogmas que atormentan la Iglesia de Jesucristo; y siempre me he atendido y me atenderé, si Dios me concede la vida, á las decisiones que los superiores eclesiásticos unidos á la Santa Iglesia católica dan y darán en conformidad á la doctrina de la Iglesia seguida desde Jesucristo.

Me lastimo con todo mi corazon de nuestros hermanos que pueden estar en el error, pero no pretendo juzgarles, y no por eso dexo de amarlos á todos en Jesucristo, segun lo que la caridad cristiana nos enseña. Pido á Dios me perdone todos mis pecados: yo he tratado de hacer un escrupuloso exámen, de detestarlos, y de humillarme en su presencia. No pudiendo servirme del ministerio de un Sacerdote Católico, pido á Dios que reciba la confesion que le he hecho de ellos, y sobre todo el arrepentimiento profundo que tengo de haber firmado (aunque contra mi voluntad) unas actas que pueden ser contrarias á la disciplina y creencia de la Iglesia Católica, á la que he estado siempre sinceramente unido de corazon. Pido á Dios reciba la firme resolucion en que estoy, si me concede la vida,

laquelle je suis toujours resté sincèrement uni de cœur. Je prie Dieu de recevoir la ferme résolution où je suis, s'il m'accorde vie, de me servir, aussitôt que je le pourrai, du ministère d'un prêtre catholique, pour m'accuser de tous mes péchés et recevoir le sacrement de pénitence.

Je prie tous ceux que je pourrais avoir offensés par inadvertance (car je ne me rappelle pas d'avoir fait sciemment aucune offense à personne), ou ceux à qui j'aurais pu avoir donné de mauvais exemples ou des scandales, de me pardonner le mal qu'ils croient que je peux leur avoir fait; je prie tous ceux qui ont de la charité d'unir leurs prières aux miennes, pour obtenir de Dieu le pardon de mes péchés.

Je pardonne de tout mon cœur à ceux qui se sont faits mes ennemis, sans que je leur en aie donné aucun sujet; et je prie Dieu de leur pardonner, de même qu'à ceux qui par un faux zèle, ou par un zèle mal entendu, m'ont fait beaucoup de mal.

Je recommande à Dieu ma femme et mes enfants, ma sœur, mes tantes, mes frères, et tous ceux qui me sont attachés par le lien du sang ou par quelque autre manière que ce puisse être; je prie Dieu, particulièrement, de jeter des yeux de miséricorde sur ma femme,

diren acto batçutan, coini bethi bihotcez juntatia issan beinis. Othoitcen dut Gincea errecebitcez nic dudan erresolutione borthitza, bicia accordatcen badaat, ahal beçain laster apphez Catholico baten ministerious cerbitçatcia, ene bekhatien hari aitortceco eta penitentiasco Sacramendia- ren errecebitceco.

Ouste gabez offensatu dustanac othoitcen tut (enisjaorhit nehor daquidalaric offensaturic) eta çoin ere nori eman beitut exemplu gaisto edo scandalaric barkhadeçadaâten ene ganic errecibitu uste ukhan dusten oguen guciac. Caritate duten guciac othoitcen tut bere othoitçac ener juntatcez, amorecatic eta Ginceoânic obteni deçaten ene bekhatien barkhamendia.

Ene bihots guciac barkhatcendut ene etxai indiren gucier, sujetic eneelaric eman, eta Gincea othoitcen barkhatcez heier, eta zelo gaiski endelgatu batez, eni oguen anhits eguiler.

Gincoari gomendatcen dut ene emastia, ene haourrac, ene arreba, ene icebac, ene anaiac, ene adisquidiac eta odol eco guciac: Gincea othoitcen dut particularski bere begui misericordiosac aurdic ditçan ene emastiaren, ene haourren, eta arrebaren gaira, çoin aspaldian enekin pena doloretan beitaude; bere gratiaz sustenga ditçan, ene galcerat giten badira, eta

de servirme luego que pueda del ministerio de un Sacerdote Católico, para acusarme de todos mis pecados, y recibir el Sacramento de la Penitencia.

Pido á todos aquellos á quienes pueda haber ofendido por inadvertencia (pues no me acuerdo de haber ofendido á nadie á sabiendas), ó á los que podré haber dado malos ejemplos ó escándalos, que me perdonen el mal que crean que puedo haberles hecho; y pido á todos los que tienen caridad, que unan sus súplicas á las mías, para alcanzar de Dios el perdon de mis pecados.

Perdono con todo mi corazon á los que se han hecho mis enemigos, sin que yo les haya dado motivo alguno, y pido á Dios que á los perdone, lo mismo que á los que por un falso zelo, ó por un zelo mal entendido me han hecho mucho mal.

Encomiendo á Dios mi muger, mis hijos, mi hermana, mis tías, mis hermanos, y á todos aquellos que estan unidos á mí por los lazos de la sangre, ó por qualesquiera otra manera que pueda ser esto: pido á Dios mire particularmente con ojos de misericordia á mi muger, mis hijos y mi hermana, que tanto tiempo hace padecen conmigo, y que, si llegan á perderme, los sostenga con su gracia mientras permanezcan en este mundo pere-

mes enfants et ma sœur, qui souffrent depuis longtemps avec moi; de les soutenir par sa grâce, s'ils viennent à me perdre, et tant qu'ils resteront dans ce monde périssable.

Je recommande mes enfants à ma femme; je n'ai jamais douté de sa tendresse maternelle pour eux: je lui recommande surtout d'en faire de bons chrétiens et d'honnêtes hommes, de ne leur faire regarder les grandeurs de ce monde-ci (s'ils sont condamnés à les éprouver) que comme des biens dangereux et périssables, et de tourner leurs regards vers la seule gloire solide et durable de l'éternité. Je prie ma sœur de vouloir continuer sa tendresse à mes enfants, et de leur tenir lieu de mère, s'ils avaient le malheur de perdre la leur.

Je prie ma femme de me pardonner tous les maux qu'elle souffre pour moi, et les chagrins que je pourrais lui avoir donnés dans le cours de notre union; comme elle peut être sûre que je ne garde rien contre elle, si elle croyait avoir quelque chose à se reprocher.

Je recommande bien vivement à mes enfants, après ce qu'ils doivent à Dieu, qui doit marcher avant tout, de rester toujours unis entre eux, soumis et obéissants à leur mère, et reconnaissants de tous les

mondu triste hontan direno.

Emastiari Gommendatcen dut ene haourrac; estut secula dudatu haren amorio tendrias haien daco; othoitstendut principalgui christino houn eta guizon honest eguinditçan, eta mundu hontaco handitarçunac, (secula porogatu behar balinba duste) hontarçun dangeros eta inutil batçu beçala consideraâssi ditcent, eta haien ydeiac eternitateco gloria solido eta inestimagarriat diriga ditçan; othoitcen dut ene arreba maïtia bere borondate honac ene haourrer continua ditçan, eta amabaten lekhia achikidissen, beriaren galceco malurra içaiten balute.

Othoitcen dut ene emastia barkha ditçadan enegatic soffritcen tien gaitçac, eta goure unionian eman ahal dascotan chagrinac; gauça bera, segur iceiten ahalda, estu dala geusie haren contre beguiratcen, ouste balu badiela cerbeit berari erreprochatceco.

Ene haourrer gommendatcen dut Gincotic laudan, çoinec behar beïtu bethi lehenic issan, elgarrequin unione hounian bici diten; sumis eta obedient bere amari içan diten, eta amac haien daco harthu tien soïnac eta penac estitçaten secula ahatx, ene memoriotan. Othoitcen tut orano ene arreba bere bigarren ama beçala soïtez.

cedero.

Encomiendo á mi muger mis hijos; jamás he dudado de su ternura maternal hácia ellos; y la recomiendo sobre todo, que trate de hacer que sean buenos cristianos y personas de honor; que les haga comprehender que las grandezas de este mundo (si ellos están condenados á probarlas) son unos bienes engañosos y perecederos, y que miren la sola gloria sólida y durable de la eternidad. Suplico á mi hermana quiera continuar practicando sus tiernos cariños con mis hijos, y de servirles de madre, si tienen la desgracia de perder la suya.

Suplico á mi muger me perdone todos los males que sufre por mí, y las pesadumbres que yo pueda haberle dado durante el tiempo de nuestra unión, así como puede estar segura de que yo en nada me resiento contra ella, si cree que me ha dado motivo alguno.

Recomiendo vivísicamente á mis hijos que (después de lo que deben á Dios, que es lo principal de todo) estén siempre unidos entre si, sometidos y obedientes á su madre, y agradecidos á todos los cuidados y penas que se toma por ellos, y en memoria de mí. Yo les suplico miren á mi hermana como una segunda madre.

soins et les peines qu'elle se donne pour eux, et en mémoire de moi. Je les prie de regarder ma sœur comme une seconde mère.

Je recommande à mon fils, s'il avait le malheur de devenir roi, de songer qu'il se doit tout entier au bonheur de ses concitoyens; qu'il doit oublier toute haine et tout ressentiment, et nommément ce qui a rapport aux malheurs et aux chagrins que j'éprouve; qu'il ne peut faire le bonheur des peuples qu'en régissant suivant les lois: mais en même temps qu'un roi ne peut les faire respecter, et faire le bien qui est dans son cœur, qu'autant qu'il a l'autorité nécessaire; et qu'autrement, étant lié dans ses opérations et n'inspirant point de respect, il est plus nuisible qu'utile.

Je recommande à mon fils d'avoir soin de toutes les personnes qui m'étaient attachées, autant que les circonstances où il se trouva lui en donneront les facultés; de songer que c'est une dette sacrée que j'ai contractée envers les enfants ou les parents de ceux qui ont péri pour moi, et ensuite de ceux qui sont malheureux pour moi.

Je sais qu'il y a plusieurs personnes, de celles qui m'étaient attachées, qui ne se sont pas conduites envers moi comme elles le devaient, et qui ont même montré de l'ingratitude;

Ene semia abertitcen dut, secula erregue içaiteco malurra helcen haçaco, bere buria osso ossoua populiaren hirusitatiari sor diela, herra, eta malecia guciac ahatsi behar tiela, eta particularski ene malur eta dolorer erraport diena; estiroquela populiaren bonurra eguin leguen arabera gobernatus bessic; bena dembora berian erregue batec estirosquela errespectarassi, eta bihotzez desiratcen dien hona eguin espalimbadu autoritate necessarioa; Berceinez bere ocupationetan estekaturic espadu populier errespectia carrearasten, houn beno guehiago oguen eguitendu.

Ene semiari gommen-datcendut eni estekaturic cirenen personetas soin ukhen deçan, demborec permitti turen dacoten beçain bat; orhil dadin nichoriec sordustala enetaco hildirenen, haourrer edo ascassier, eta enegatic maluros direner.

Badaquit anhits persona eni estekaturic cirenetaric, estirela behar çuten beçala gobernatu, eta ingrat içan direla; bena barkhatcenderet. (turmentasko eta tribulationeesko mementoetan eguira goure hurien nausi.) Eta semia othoits tendut, haien malurres intres hartcez, occasionia guerthatcen baçaco.

Nahinuke hemen ene erreconechentsia, eracatsi ene adisque beritabler eta

Recomiendo á mi hijo (si tiene la desgracia de llegar á ser Rey) que reflexione, que debe dedicarse enteramente á hacer la felicidad de sus conciudadanos; que debe olvidar todo rencor y resentimiento, y con especialidad lo que tenga relación á las desgracias y pesadumbres que paso; que no puede haber felicidad de los pueblos, sino reynando segun las leyes, pero al mismo tiempo que reflexione, que un Rey no las puede hacer respetar, y hacer el bien á que le inclina su corazon, sino en quanto tiene la autoridad necesaria; pues de otra manera, estando ligado en sus operaciones, y no siendo respetado, es mas dañoso que útil.

Recomiendo á mi hijo que tenga cuidado de todas las personas que me eran adictas, segun le sea posible en las circunstancias en que se halle; que reflexione que es una deuda sagrada que he contraido con los hijos ó los padres de los que han perecido por mí, y de consiguientes por mí son desgraciados.

Yo sé que hay muchas personas que antes me estaban adictas y obligadas, y no se han conducido como debian, y aun han sido ingratas; pero yo las perdono (muchas veces en los momentos de desórden y efervescencia no es uno dueño de sí mismo), y suplico á mi hijo que, si llegase la



mais je leur pardonne (souvent, dans les moments de trouble et d'effervescence, on n'est pas le maître de soi), et je prie mon fils, s'il en trouve l'occasion, de ne songer qu'à leur malheur.

Je voudrais pouvoir témoigner ici ma reconnaissance à ceux qui m'ont montré un attachement véritable et désintéressé: d'un côté, si j'ai été sensiblement touché de l'ingratitude et de la déloyauté de gens à qui je n'avais jamais témoigné que des bontés, à eux ou à leurs parents ou amis; de l'autre, j'ai eu de la consolation à voir l'attachement et l'intérêt gratuit que beaucoup de personnes m'ont montré: je les prie d'en recevoir tous mes remerciements. Dans la situation où sont encore les choses, je craindrais de les compromettre, si je parlais plus explicitement; mais je recommande spécialement à mon fils de chercher les occasions de pouvoir les reconnaître.

Je croirais calomnier cependant les sentiments de la nation, si je ne recommandais ouvertement à mon fils MM. De Chamilly et Huë, que leur véritable attachement pour moi avait portés à s'enfermer avec moi dans ce triste séjour, et qui ont pensé en être les malheureuses victimes. Je lui recommande aussi Cléry, des soins duquel j'ai eu tout lieu de me louer

desinteressatier; alde bate-tic pena bat handia senditu badut icoustian persona batçun ingratitudea, çoini edo haien ascassier eta adisquider borondatesco signaleric bessic espeï nien eman; bertce aldetic placer handibat equin icousi dut, anhits personec eracatsi daâten amorio eta intres particularra; othoitcen tut ene erremestiamendien errecebitcez. Memento hontaco gaucen estatian, beldur ninçateke hayen galcia, clarquiago mintza banin deyte: beina semiari particularski gommeudatcen dut haien eçagutceco occasionia cherkha ditçan.

Uste nuke hargatic nationiaren sendimendiac calomniã eza nessa semiari clarqui gommenda mousde *Chamilly* eta mousde *Hues* çoin enetaco çuten amorio handiac eneganat juntatcerat engayatu beicitien, eta abantzũ bictima malurosac içen beitura. Gomendatcen dacot ere, *Clery* çoinec soin handiric errendatu beiteraut enekin den momentos gue...; eta enequin egon beita undarrera dino, othoitcen tut Comunako Jaunac, hari emaitez ene arropac, ene liburiac, ene montra, ene boursa, eta comunako conseilian essarri dusteu hatu guciac.

Barkhatcen dut orano gogotic ene beguiraçalec eguin daaten tratamendu gaistoac oro: arima sensible eta generos çombait ediren

ocasiõn, solamente reflexiõne en su desgracia.

Yo quisiera poder manifestar aquí mi reconocimiento á los que me han mostrado una inclinación verdadera y desinteresada; por una parte si he sentido mucho la ingratitude y deslealtad de ciertas personas, que de mi no han recibido sino es favores para ellos ó sus parientes o amigos; por otra he tenido el consuelo de ver la inclinación é interés gratuito que muchas personas me han mostrado: yo les suplico que reciban aquí las expresiones de mi agradecimiento. Si hablase mas claro temeria, en la situacion actual de las cosas, comprometer á estas personas; pero recomiendo especialmente á mi hijo que busque las ocasiones de poderlas conocer.

No obstante creeria calumniar los sentimientos de la Nacion, si no recomendase claramente á mi hijo á MM. *Chamilly* y *Huë*, que por una verdadera inclinacion y afecto se encerraron conmigo en esta triste morada, y han estado para ser víctimas infelices. Tambien le recomiendo á *Clery* por el cuidado y aplicacion con que me ha servido desde que está conmigo; y como es éste el que ha estado en mi compañía hasta el fin, suplico á los señores Municipales que le den mis vestidos, mis libros, mi reloj, mi bolsa y los otros pequeños efectos que están

depuis qu'il est avec moi: comme c'est lui qui est resté avec moi jusqu'à la fin, je prie messieurs de la commune de lui remettre mes hardes, mes livres, ma montre, ma bourse, et les autres petits effets qui ont été déposés au conseil de la commune.

Je pardonne encore très-volontiers, à ceux qui me gardaient, les mauvais traitements et les gênes dont ils ont cru devoir user envers moi. J'ai trouvé quelques âmes sensibles et compatissantes: que celles-là jouissent, dans leur cœur, de la tranquillité que doit leur donner leur façon de penser!

Je prie MM. De Malesherbes, Tronchet et Desèze, de recevoir ici tous mes remerciements, et l'expression de ma sensibilité, pour tous les soins et les peines qu'ils se sont donnés pour moi.

Je finis en déclarant devant Dieu, et prêt à paraître devant lui, que je ne me reproche aucun des crimes qui sont avancés contre moi.

Fait double, à la tour du Temple, le 25 décembre 1792.

LOUIS.

dut; haiec goça deçatela bere pensatceco manerac emaiten deren tranquillita.

Othoitcen dut mousde *Malesherbes, Tronchet* eta de *Sèze*, ene erremestiamendiac errecebitce, bai eta ene sendimendien expresionia, enetaco harthu dusten soinen daco.

Finitcendut Gincoaren aincin erat aguerceco prest, eta declaratcen dudalaric, accusatia niçan crima bihi batez eniçala oguendun.

Doblio eguina Temploco Dorrian, abenduaren hogoi eta bost garrenian, milla eta çazpi ehun eta lau etan hogoi eta hamabi garren ourtian.

*Sinatia*, LOUIS

depositados en el Consejo de la Municipalidad.

Tambien perdono con muchísima voluntad á mis carceleros los malos tratamientos y las penas con que han creído deberme afligir: he hallado algunas almas sensibles y llenas de compasión; ¡que éstas gocen en el fondo de su corazón la tranquilidad que darles debe su modo de pensar!

Suplico á MM. de *Malesherbes, Tronchet* y de *Sèze* que reciban aquí las gracias y la expresion de mi sensibilidad por todos los cuidados y penas que se han tomado por mí.

Concluyo declarando delante de Dios, y pronto á parecer en su presencia, que no tengo que argüirme de alguno de los crímenes que se han inventado contra mí.

Hecho por duplicado en la Torre del Temple á 25 de Diciembre de 1792. = Firmado = *LUIS*.



Luis XVI.ak testamentua irakurtzen dio Malesherbes jaunari. Egun horietan Konbentzioa Luis XVI.aren etorkizuna erabakitzen ari zen eta jaun horrek erregearen abokatu defentsariarena egin zuen.

---

<sup>9</sup> HARITSCHELHAR, J.: «Le centenaire de la Revolution Francaise dans l'Eskualduna», in J. Orpustan (zuz.): *La révolution française dans l'histoire et la littérature du XIX siècle*, Editions Izpegi, Baigorri, 1994, 217-244. orr.

## VI. EUSKARAZKO BIGARREN BERTSIOA *ESKUALDUNA* KAZETAN

Bada Luis XVI.ak idatzitako testamentuaren euskarazko beste bertsio bat, lehen jorratu dugun 1815eko testuarekiko desberdina. Beraz, gaztelaniaz gertatzen den bezalaxe testamentuaren bertsio desberdinak ditugu euskaraz ere. Bigarren testuaren argitalpena *Eskualduna* kazeta tradizionalistaren eskutik etorri zen, 1893. urtean. Horren inguruan idatzi zuen Jean Haritschelharrek *Le centenaire de la Révolution Française dans l'Eskualduna (1889-1895)* izeneko lantxoan.<sup>9</sup>

Erregearen hiltzea zela eta, mendeurrenaren kariaz *Eskualduna* aldizkarian agertutakoa jarraian emango dugu, ezer aldatu gabe: batetik, mendeurrenaren inguruko gogoeta batzuk, eta, bestetik, testamentuaren bertsio berria. Hori guztiori zatika agertu zenez —testamentua hirugarren zatitik aurrera plazaratuko zaigu—, argitaratzearen adierazpena ere jarriko dugu, zati bakoitzaren azpian.

### EHUN URTHE

Aste huntan egin ditu ehun urthe, Frantzian lehen aldikotz Errepublikak ezarria izan zela. Ordukotzat gerla gorria phiztua zen eta hedatua bazter guzietarat. Odol hainitz ere bazen jadanik ichuria. Frantziako errege, Louis hamaseigarrena preso zaukaten, eta handik lau hilabete gabe behar zioten moztu lephoa.

Gauza guziak azpikoz gora ezarri zituzten. Khendu ziozkaten errege gaizoari bere khoroa eta bere indar guziak ; eta buruilaren hogoi-ta batean ezarri zuten errepublika.

Geroztik hunat joan dira ehun urthe. Ehun urthe horietan zenbeit eta zenbeit itzulika izan da Frantzian !

Behinik behin, Errepublika nausitu eta berehala, zer nahi itsuskeria egin zuten Errepublikaren izenean, alegia eta populuaren alde. Bi, hiru urthez, nigar eta odol chorta onik ichurarazi zuten, libertatearen izenean, Frantzia guziak jabeturik, gizon buru bero eta bihotz-gabe batzuek. Nork ez lituzke arbuiatu behar eta bethikotz madarikatu gizon tzar heien egitateak, heien chede gaichtoak eta heien izenak berak? Bizkitartean, egungo egunean ere, ehun urtheren buruan, heien aldeko, heien iduriko hainitz oraino izaki Frantzian ! Zer diot ? Hek ditugu eta buruzagi. Odol ichurtzeaz gaineratiko tzarkeria guziak egiten dituzte, edo egin gogo. Eta nork daki, uzten baditugu nausi, azkenean noraino joaten diren ? ( Horra zertan giren erreboluzione handiko egun lazgarrietarik hunat, ehun urtheren buruan : egundaino bezen gibela, edo gibelago asko eskualdez.

Baginuke bada gure baithan sartzekotz ingoitik zerbeit ikhusirik eta



Josep Domingo Garat (Baiona, 1749-Basusarri, 1833). Justizia ministroa izanik, lapurtar honi egokitu zitzaion Konbentzioak erabakitako heriotz zigorraren berri jakinaraztea erregeari.

ikhasirik, gure gustuz, azken ehun urthe hautan.

Zenbat gora-behera, zenbar gerla, bai arrotzekin, bai guharen artean elgarrekin ? Zenbat hisia eta aiharkunde ? Zenbat odol(-)ichurtze, bakhotchak bere eskualde hura ez utzi nahiz ? Zenbat gobernamendu, batzu bertzen ondotik, batzu churi, bertzeak gorri edo nahastekache?

Guziek izan dituzte zoin beren eskualde onak eta tcharrak.

Erreboluzione hura garhaitu zuen *Napoleon* handiak. Bainan hark ere ordean bazterrak hits utzi, Frantziako gazteria guzia gerlan chahaturik, eta behingotz gure izena arrotzen begietan ezarririk.

Gero berriz izan ditugu erregeak : hiru errege, lan ederrak ukhan baitzituzten Frantziaren ahal bezenbat altchatzen. Bainan hek ere laster erori, beren eta bertzen faltaz.

Berrogoi-ta zortzian berriz Errepublika, zer nahi hitzemaiten zuela : Libertatea, bakea.... elhe ederra frango, eta obra on guti.

Handik hiru urthe gabe, Napoleon hirugarren emperadorea. Zenbeit urthez aski joan ziren gauzak. Bainan hak ere huts handiak egin : orotako handiena hiruetan hogoi-ta hamarreko gerla dohakabe hura.

Haren ondotik egundainokoetan berriz Errepublika geroztik orai arte irauten duen Errepublika

hau ! Hnnek [sic] duen zorigaitza izan da, haste-hastetik gizon chede tzarrekoen eskuetan sarthu eta handitu baita. Zenbeit urthe izan ditu arte hortan askitto onak. Iduri zuen kenka batez kasik Errepublika *churia* behar ginuela.

Bainan buruzagiak ahul izan ziren. Batzuek nahi zuketzen errege edo emperadore berri bat ezarri ; bertzek aldiz Errepublika nahiago. Ezin elgar adituz tirabiraka hor ari zirelarik, zer gerthatu da ? ( Gorriak arte-tik sarthu ; gorriak nausitu, Errepublikaren izenean.

Errepublika baizik ez balute izan gogoan, aspaldian, bakearen gatik baizik ez balitz ere, Frantzia guzia beretua zaketen. Bainan hainbertze tzarkeria egin deraukute hogoi urthe huntan, nun geroztik hunat bethi gerla gorria baitugu.

Lege batzu ezarri derauzkute nehola ere onhesten ahal ez ditugunak. Erlisionea dute khendu nahia erroitik ; eta guk hori ezin onhets.

Trufa baino musika gehiago : Duela ehun urtheko Errepublikaren denboran egin itsuskeriarik handienak, eta heien egileak nahi dauzkute ohora-arazi, heien orhoitzapenetan eginez besta handi batzu.

Chede hortan da ezarria aurthendanik *buruilaren hogoi-ta biek*o besta hori. Horra nolako Errepublika daukuten eskaintzen ehun urtheren buruan.

Nahi badugu errepublika onik, ez dugu zeren iguriki oraiko buruzagien, ez eta heien aldekoen ganik. Nolako deputatu, halako Erepublika [sic].

[*Eskualduna*, 1892-IX-22, azalean]

### **LUIS HAMASEIGARRENAREN HILTZEKO URTHE-MUGA**

Iragan larumbatean, urtharrilaren 21an bethe ditu *ehun urthe*, Frantziako errege, *Luis hamaseigarrena* hil zutela gorriek. Lau hilabete preso atchikirik, azkenean lephoa moztu zioten.

Ordukotz gorriak, eta gorrietan tzarrenak Frantziaz jabetuak ziren.

Bazter guziak harriturik zauzkatzen.

Pariseko hirian bereziki oro ikharan zauden, beldurrez hitz bat erran edo urhats bat egin, gorrien gogorako ez zenik.

Bazekiten orok nolako chedeak zituzten *Robespierre* higuingarriak eta harekilakoek. Bainan nehork ez zuen kopetarik, odol-edale tzar heieri jazartzeko.

Deus onik ziren guziak erregeri atchikiak ziren ; eta errege izen hori bihotzean ekhartzen ez zutenek ere ez zuketzen *Luis* erregea hiltzen ikhusi nahi. Bainan beldur ; oro beldur haren alde hitz baten errateko.

Gaichtaginek ere bizkitartean ez zuten iduri bazuketela harentzat deus erratekorik.

Gizon zuhur, ezti batentzat ezagutua zen. Sobera *ezti* izan zen, ez baitzuen jakin bere eginbidearen bethetzen gaichtagineri hastetik bihurtuz.

Hobeki egin zuken dohakabeak alimale heieri aski goiz eta azkarki oldartu balitzaioite ! Bainan zorigaitzez bihotz eria zuen. Adichkidek erra-



Errege familia afaltzen, espetxe bihurtutako *Tour du Temple* delakoan. Irudian beste pertsonaia hauek daude: ezkerraldean, zaindaria; eskuinaldean, agintari berrien ordezkari bi; eta afaria zerbitzatzen, erregearen zerbitzurako baimendu zuten laguntzaile bakarra, *Clery* izenekoa.

ten ziotenean atzar ordu zela eta ez zuela etsaiarenganik eztitasunez deus irabaziko, bethi solas bera ihardesten zuen : “ *Ez dut nahi ene-gatik odolik ichur dadin.* ”

Hitz eder horiek behar zioteten haren etsaieri bihotza hutsi. Bainan harria baino gogorrago izan ziren harentzat eta haren odoleko guzientzat ; non ez baitzioten barkhatu, ez berari, ez haren andre erreginari, ez eta haren arreba harekin preso altchatu zutenari, guziak aldizka gillotinatatu arte.

Haren semea bera, *zazpi urthetaco haur gazte bat* presondegian kaliturik hil-arazi zuten, zer nahi urdekeria jasan arazi ondoan. Haur gaicho hura, trufaz bezala, *otsokumea* deitzen.

Hek ziren berak egiazko otsoak, otso errabiatuak. Aski erakusterat eman zuten ondoko egunetan, Frantzia guzia odoletan eta nigarretan ezarririk, azkenean elgarri jazarri baitziren, eta hiltzaleak berak batzu bertzen ondotik gillotinatatuak izan baitziren !

Ehun urtheren buruan ezin ahantziak dire orduko sarraski izigarriak.

Luis erregeak ez zuken nahi haren-gatik odolik ichur zadin ; eta bizkitartean haren ahuleziak ekharri zituen handik ondoko odol ichurtze ikharagarriak, etsaia nausitzerat utzi zuelakotz.

Halere bertzen odolaren ichurtzeko baino indar eta kuraja gehiago ukhan zuen berak heriotzearen jasaiteko. Deus ez da unkiarriagorik haren azken hitzak eta hil atzinean egin zuen testament ederra baino.

Baginuke chedea ondoko egunetan testament hura eskuaraz itzulirik, bederen zathika, gure irakurtzaleri begien aitzinean emateko.

Ez da errana ez dugula eginen, Jainkoak nahi dugularik.

Egun nahi ginuen bakharrik aiphatu urthemuga horren orhoitzape-na.

[*Eskualduna*, 1893-I-27, azalean hasi eta atzekaldean jarraitzen du]

**ERREGE MARTIR  
LUIS HAMASEIGARRENAREN  
TESTAMENTA**

*Aitaren eta semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.*

Egun, abendoaren hogoi-ta bortzean, mila zazpi ehun eta laueta hogoi-ta hamabian, nik, Frantziako errege Luis hamaseigarrenak, hemen



ezartzen ditut ene azken gogoetak eta chedeak, Jainkoaren aitzinean, hari baizik nehoi ene hitz hauk hel-araz ez detzazkedalarik. Hura bera hartzen dut lekhuko.

Lau hilabete baditu hemen naizela preso nere familiarekin, Parisen, *Temploa* deithu dorre huntan. Nere azpiko zirenek narokate hemen, orotarik berezia, nehor utzi gabe ni-ganat hurbiltzera, ez eta bakharrik ene familiakoak ere.

Bertze alde, auzi batean sar-arazia naute, ez baitakit noiz, ez nola atherako nizen, ez non geldituko diren gizonen jaidura gaichtoak, nahiz ez duketen niri hola jazartzeko lege zuzenik, ez den gutieneko estakururik.

Uzten diot ene arima Jainko ene kreatzaileari ; othoizten dut har dezadatan urrikalmendurekin ; eta juja, ez ene merezimenduen arabera, bainan Jesu-Kristo gure Jaunak guretzat irabazi dituenan arabera, nahiz ez zarokun deusik zor, behinik behin ez niri.

Nahi naiz hil gure Ama Saindu Eliza Katoliko, Apostoliko eta Erromanoarekin batasunean ; sinhesten dudalarik bere nausitasun guzia Yondoni Petriren-ganik ukhana duela, eskutik eskura, Jesu-Kristok hari berrari eman zion bezala.

Sinhesten ditu eta aithortzen goraki fedearen irakaspen guziak, Jainkoaren eta Elizaren manamenduak, sakramenduak eta michterioak, Eliza Katolikoak bethi irakatsi eta irakasten dituen bezala.

Behinere ez dut nere gain hartu Elizaren irakaspenetan makhurrik hatzemaitea. Bethi onhetsi ditut, eta onhetsiko, Jainkoak bizia uzten badarot, fedezko egia guziak, Elizako buruzagiek Eliza katolikoarekin bat egiten dutelarik onhesten eta onhetsiko dituzten bezala, Jesu-Kristo gure Jaunak utzi dauzkigun legen arabera.

Bihotzez urrikari ditut egiazko sinheste hori ez duten guziak. Guziak elgarren aneak gira ; eta bide makhurrean direnak ez ditut nik gaitzes-ten. Maite ditut oro Jesu-Kristo baithan, girichtino karitateak nahi baitu oro maita detzagun.

Othoitz egiten diot Jainkoari barkha detzazkidan ene bekhatu guziak. Nere ahalak egin ditut, nahiz eta haren aitzinean guziak osoki chuchen ezagutu, bekhatuari doakon urriki eta ahalkearekin.

Ezin-bertzean izanez, aphez katoliko baten oinetan nere eginbidearen bethetzeko, galdatzen diot Jainkoari, othoi onhar dezak berari egin diotan konfesioa ; barkhamendu galdatzen diot bereziki, urriki samin batekin, zeren eman dudan nere izena Elizako sinhestea eta irakaspenak

kolpa detzazketen lege batzueri, nahiz ez dudan huts hori nere nahitara egin ; ezen Elizari atchiki diot bethi zinez eta bihotzez.

Jainkoa othoizten dut onhar dezala hemen orai dudan zinezko che-dea, bizia ematen badarot ahal bezen laster bilhatzeko aphez katoliko baten laguntza, hari aithortzeko nere bekhatu guziak, eman dezatan harek penitentziako sacramendua.

Othoizten ditut uste-gabeen zerbeit bihotz-min egin dioketedan guziak (ez naiz orhoit nehoi ere jakinean deusetan huts eginik) ; edo zerbeit etsemplu gaichto eta eskandala eman dioketedan guziak : barkha diezadaten nik egin diotedala iduri zaioten kaltea.

Karitaterik duten guzier galdatzen diotet egin dezaten othoitz enetzat enekin batean, Jainkoaren ganik ardiesteko ene bekhatuen barkhamendua.

Barkhatzen diotet bihotzez ene etsai bilhakatu direnei, ez diotedalari deusetan nik bidegaberik egin. Othoizten dut Jainkoa, barkha dezotela heieri ; ba eta ere ene alde, edo *alegia alde* ariz, beren moldegaizkeriaz hanbat bidegabe egin dautedan guzieri.

(Bertze aldiandarra).

[*Eskualduna*, 1893-II-3, azken orrialdean, 4. orrialdean]


**ERREGE MARTIR  
LUIS HAMASEIGARRENAREN  
TESTAMENTA**

(Bigarren eta azken zathia)

Jainkoari gomendatzen diozkat ene andrea, ene haurrak, ene arrebak, ene izabak, ene aneak eta bertze ahaide, ene odoleko guziak, ba eta bertzelako edo zoin lokharriz eni estekatuak direnak. Oroz gainetik othoizten dut Jainkoa, urrikal dadin ene andreaz, haurrez eta arrebaz, aspaldian enekin hemen hainbertze bihotzminen erdian bizi direnez ; othoizten dut eman dezoten, ni galtzen banaute, indar eta laguntza, mundu galkor huntan bizi direno.

Ene haurrak gomendatzen diozkat ene andreari. Behinere ez dut ukhan den gutieneko beldurrik, ez dituela ama on baten amodioarekin arthatuko.

Othoizten dut bereziki, giristino on eta zuzen izaten erakats dezotela; orhoit-araz detzala, zoin iragankor eta galgarri diren mundu huntako ohore guziak, baldin egun batez hetaratzeko zorigaitza balinbadute;



Luis XVI.aren exekuzioa gillotinan (1793ko urtarrilaren 21ean). Irudiaren eskuinaldean erregearen estatua erraustuta ikusten da.

begiak itzulirik atchik detzatela bethi, eternitateko zorion hartarat buruz, hura baita bakharrik bethi iraunen *duena*.

Ene arreba othoizten dut har dezala bethi artha ene hurrez, eta izan dakiotela ama ordain, beren amaren galtzeko zorigaitza duketenean.

Othoizten dut ene emaztea, barkha dazkitzadan ene-gatik jasaiteko dituen nahi gabe guziak, ba eta elgarretaratuz geroz eman diozketadan bihotzminak. Halaber sinhesten ahal du nere aldetik ez dudala harentzat den gutieneko herrarik, baldin uste balu zerbeitetan huts egin darokedala.

Ene haureri hertsiki gomendatzen diotet orhoit ditezela, lehenik Jainkoari zor diozkitzaten eskerrez (Jainkoa bethi lehen) ; eta gero elgarrekin batasunean biziz, beren amari ekhar dezotela obedientzia ; eta ez ahantz, amak heientzat, ene orhoitzapenaren-gatik harzten dituen arthak, jasaiten dituen oinhazeak eta bihotz-minak. Othoizten ditut, begira dezotela ene arrebari, bertze ama bati bezala.

Gomendatzen diot ene semeari, baldin egun batez errege izateko zorigaitza balinbadu orhoit dadiela bakharrik bere herritarren zoriona egiteaz ; ez dezotela den gutieneko herrarik, ez eta hoztasunik erakuts,

bereziki eni jasan-arazi darozkidaten laido eta bihotzminen-gatik ; orhoit dadien bethi, ez ditakela errege on izan, baizik ere legeak begiratuz ; bairan ez dezan ere ahantz errege batek bere burua obedi-arazteko eta bere azpikoeri zinez egin nahi lioketen ongia egiteko, behar duela baitezpada atchiki, hein batez, bere nausitasuna ; bertzenaz, ez balinbada bere buruaren jabe, nehork ez ukhanez harentzat beldurkunderik, ongi baino kalte gehiago eginen duela.

Gomendatzen diot ene semeari, artha ukhan dezala atchikimendu erakutsi darotaten guziez ; zer ere baitu egin ahalko heientzat egin dezala bere ahalaren arabera ; orhoit dadila zer eta zenbat zor diotedan, enegatik bere bizia eman dutenei edo dohakabe direnei, heien ahaideri eta ondokoeri.

Badakit izan direla ene zerbitzari ohien artean zenbeit, ikhustate-gabeak, ba eta ere batzu esker-gabeak. Orori barkhatzen diotet, zeren eta asko aldiz, asko buru berotze eta nahasmenduren artean ez baita bakhotcha bere baithan. Eta ene semea othoizten dut, balinbadu egun batez eskurik heien gainean, deusetaz ere ez dadila orhoit, baizik ere heien zorigaitzaz.

Nahi niokete hemen nere ezagutza erakutsi egiazko eta zinezko atchikimendu bat enetzat ukhan dutenei. Zonbatenez ere baitute ene bihotza saminkiago zaurthu batzuen eskergabetasunak eta maltzurkeriek, behinere nik nere aldetik ez berer, ez eta heien ahaideri eta adichkider onik baizik egin ez diotedan ondoan ; hanbatenez atsegin gehiago egin darot ikhusteak, zenbat artha eta griña zuten deusetaz niri zordun ez ziren bertze batzuek.

Othoizten ditut onhar detzatela ene eskerrak. Beldur nintake, garbi-kiago mintzatuz, zenbeiti bidegabe egin. Bainan ene semeari gomendatzen diot, bilha detzala, ahal dituen bide guziez, ene ongi egileak.

Beldur nintake ere bizkitartean ez lakioken nehori ongi, ez banintzo nere semeari hemen bereziki aipha eta izenda : *Chamilly* eta *Hue*, zeren baitire bi jaun horiek enetzat amodioz, ene lagun hemen, toki goibel huntan sarturik egon nahi izan enekin. Gutitarik huts egin du, ez baitituzte enegatik beren buruak galdu.

Gomendatzen diot orobat *Cléry*, ene muthila, zeren bethi ongi arthatu bainau ene ganaz geroz. Nola hura baita ene aldean egon dena azken egun arteo, othoizten ditut *Hiriko jaun buruzagiak* (*jaunak* deitzen zituen bere burregi bihotz gabeak!...) othoizten ditut eman detzotela muthil horri ene phildak, liburuak, muntra, moltsa eta bertze puchka, jaun horien eskuetan utzi ditudanak.

  
**LOUIS hamacei goure erregue hounaren**  
**testamendia.**

**T**estate Saioñaren, Aytaren, Semiaran, eta Spiritu Sain-  
 dinen itezian. Egun abenduaren hogoiita host garrena, mila eta  
 gazpi elun eta lau eta hogoiita azabi garren onrtia, ni Louis  
 hamacei itenez, Franciaco Erregue, lau hilabete eta guabingo  
 boantau Pariseko Temploco Dorrian, neure familiarekin serratia  
 ene sajeteu ordiez, eta communicatione orotas, ene familiarrekin,  
 hilabete honen hamaka guerenes guerus pribatia; procez batian  
 sartia goian sinu eta egagat beltaité, guiganen passioenen cau-  
 sas, eta coñen preterarie, eta moyensie, coñ idarritan beita  
 legue hibi batian; heonen Gineosari declarateentot ene undar bo-  
 rundatie, eta sendimendie, haura beita ene pensamendie dea-  
 timosie elioa, et goini adrebaten alai nioana.

Gineo erregalari gomendatzen dut ene arima, otthocon dut  
 hareu errebatzen bere misericordian, eta jujatuz, ex ore mero-  
 elimendie behera, haina gure *Jesu-Christo* Jaunaren iperlan  
 goin Gineos bere Aytari sacrificatu igau beita, guigant: oñen  
 daco, combat ero indigna beiteiren, eta ni partienturaki.

Testamenduaren euskarazko lehenengo bertsioren hasierako lerroak. Azkue bibliotekan ikusgai.

Barkhatzen diotet bihotzez hemengo ene zaintzaler; barkhatzen  
 diozkatet ustez hala beharrez egin daroztaten gaizki eta laido guziak.

Heien artean kausitu ditut zenbeit bakhar, bihotz onekoak eta urri-  
 kalmenduz betheak. Halakoek goza bezate bere baithan bere barneko  
 eztitasunak ematen dioten bakea.

Eskerrak diozkatet bihotzetik *Malesherbes*, *Tronchet* eta *de Séze*, ene abokateri, egin daroztaten laguntza guzientzat eta enegatik hartu dituzten neke-aldi guzientzat.

Huna ene azken hitza : Jainkoaren aitazinean erran dezaket goraki, eta erraten dut hemen, haren aitazinean agertzerakoan : Ez dut ezagutzen nere burua nik egin ditudala derasaten krimetarik bakhar batez ere hobendun.

*Temploko dorrean egina, abenduaren 25ean 1792.*

LOUIS.

[*Eskualduna*, 1893-II-10, azken orrialdean, 4. orrialdean]

## VII. Labur beharrez

Euskararen testugintza politiko-juridiko-administratiboaren esparruan, testu horrek berebiziko loturak eta estekadurak dakartza, Lapurdiko Estatu Orokorren Kaieratik abiatuta, eta geroko Iraultzaren testuetara heldu arte. Agi denez, Iraultzak azpimarratutako erregimen haustura frantses hizkuntzan ez ezik, eskualdeetako hizkuntzetan ere mamitu zen, hizkuntzok erabilia lanabes moduan, batez ere, propaganda politikoaren arloan. Frantsesez sorturiko mezu kontrairaultzailea, hain zuzen ere, errege martiriaren testamentua, frantziar frantsestu gabekoei helarazteko premia sumatzen da, harako *liberté*, *égalité*, *fraternité* hirutasun sakratuaren gainetik.

Ideologia eta erabileraren kontuak alde batera utzita, hizkuntzaren errekatik testu honek baditu bere ezaugarri bereziak. Vinsonek 1815. urtean jartzen du argitaratze data. Hala ere, horrek ez du, lexiko zein joskeraren ikuspegitik, halako desberdintasun nabarmenik erakusten. Itzuliaren birundak azal-azalean ditu, mailegukeriak begi-bistakoak eta sarri askotan ere, zabar samarra da hitz hurrenkeran. Ez du, hortaz, zerikusi handirik garai berean euskal jorrocketan ari diren testu egile euskaldunekin.

Erakutsi ere, esku-erakutsia egiteko unean, zalantzakoa gertatzen da jakitea nor den testuaren itzultzailea, Iparraldeko euskalduna dela garbi azaltzen da. Baditu zuberotar zantzuak (*ginco*, *segitia*, aditz nominalizazioak...), eta, pentsatzekoa da, egilea apaiz girokoa izatea, orduko euskalgintzaren kontuak aintzat hartuta.

Hitz batez esateko, euskarazko testugintzaren katebegi berria eta lokarri eza-gutarazia.

# “ARREBA SABELKIDE DENUXI’RI”: ORIXEREN FANTASIA BAT

*K. Josu Bijuesca\**

---

\* Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

## LABURPENA

Artikulu honetan, Orixek idatzitako poemaren maila semantikoa aztertzean, ondorengo emaitzak lortu dira: lehenengo eta behin, irudikatutako Jainkoa antropomorfoa dela; gero, teologia feministaren laguntzaz, Jainkoa ama gisa irudikatu dela; ondoren, sorburuko fantasia bat jokatzeko ari dela poema honen oinarrian, umetokirako itzuleraren fantasia, psikoanalisi freudianoaren arabera; azkenik, Jungek proposatutako amaren arketipoari erantzuten diola fantasia horrek, eta beraz inkontziente kolektiboari ere badagokiola.

## RESUMEN

Este artículo, al proponerse analizar el nivel semántico del poema escrito por Orixe, obtiene los siguientes resultados: primero, que el Dios representado es antropomorfo; después, y con ayuda de la teología feminista, que Dios ha sido representado como madre; más tarde, que en el origen del poema está actuando una fantasía originaria, la fantasía de vuelta a la vida intrauterina según el psicoanálisis freudiano; por último, que dicha fantasía responde al arquetipo de la madre propuesto por Jung, y por tanto al inconsciente colectivo.

## RÉSUMÉ

De cet article, qui se propose d'analyser le niveau sémantique du poème écrit par Orixe, plusieurs conclusions peuvent être dégagées : en premier lieu, que le Dieu représenté est anthropomorphe; ensuite, et en faisant appel à la théologie féministe, que Dieu a été représenté comme mère; puis qu'à l'origine du poème agit un fantasme originel, le fantasme du retour à la vie intra-utérine selon la psychanalyse freudienne; et enfin que ce fantasme répond à l'archétype de la mère proposé par Jung, et de là à l'inconscient collectif.

## SUMMARY

While analyzing the the semantic level of the poem by Orixe, this article offers the following results: first, that God as represented in the poem is anthropomorphic; then, with the help of feminist theology, that God has been represented as a mother; later that a primal fantasy is acting in the origen of the poem, more precisely the fantasy of returnig to intrauterine life according to freudian psicoanalysis; finally that the fantasy corresponds to the archetype of the mother as proposed by Jung, and consequently to the collective unconscious.



“Arreba sabelkide Denuxi’ri” izeneko poematxo hau beste olerki luzeago baten hirugarren eta azken zatia da. Olerkiak “Iainkoagan bat” izena du eta *Barne-Muinetan*<sup>1</sup> liburuko azkena da. Lan honen helburua “Arreba sabelkide Denuxi’ri” poemaren interpretaziorako izan litezkeen aukera guztietatik bat eskaintzea da, besteak ukatu barik. Asmo horrek gidaturik, azterketa bereziki maila semantikora mugatuko da. Psikoanaliaren eta antropologiaren zenbait kontzeptu ere interpretaziorako lanabes erabilgarriak izango ditugu. Irakurlearen lana errazteko asmoz, hona hemen olerkitxoa bera:

- 1                   Hurrun aiz, hurrun dun gure Martin; emen  
aitaren ondoan nauzute, ta an goien  
3                   amarekin hura.
- 4                   Iainkoak barraia  
gindunan bere esku legun begidunez:  
halere esku huntan geuden zorionez,  
ezin aldeginki. Bai esku zabala,  
8                   sabel berokia, begi maitakorra.
- 9                   Begi-nini gaitin; elkarrago geuden  
sabelean baino. Nere buru barnen  
zaute zuek ere bihotz-arimetan:  
hiurok bat gaitun oroipen bizitan;  
batago Iainkoan. Hunek gu sor, bizi,  
14                  Hunek emai onez Bera sumarazi.
- 15                  Sabel bateti ilki, sabel batera io  
(Iainko onen altzora): emen argi, bero;  
17                  emen zegon zori lurrean gaudeño.

---

<sup>1</sup> Ormaetxea, Nicolas, “Orixe”, *Barne-Muinetan*, Zarautz, Itxaropena, 1934, 124-139.

- 18                   Gauzkion zantzuan, aterrik bage erne,  
                       gauden adi beti, dugun beti maite  
                       anai arek antzo. Dakusagun elkar
- 21                   Iaunari begira, bihotza su ta gar.
- 22                   Ez geuden hurruti, hortik ainbat bide  
                       emendik zerura, Iaunaren altzora.  
                       Sar adi barneon, ago Iainkoari;
- 25                   emen ikusko naun; behon anaiari.
- 26                   Gu bien gorputzak ama lurak irets  
                       ditzanean, ordun Iaun hunen altzoan
- 28                   arimok bil bitez betiko beroan.

*Barne-Muinetan* liburua 1934. urtean argitaratu zen. Garai horretan Orixe Uitzin zen *Euskaldunak* idazten. “Iainkoagan bat” poema, ostera, Uitzikoaren aurretik dagoen Bilboko egotaldiari dagokio, 1923-1931 urte birtartean. Poema honek 1930eko Errenteriako Oleriti Egunean lehian egin zuen, saria Lauaxetaren “Maitale kutuna”-k jaso bazuen ere. Lizardi olerkari eta lagunak, “Euskaltzaleak” elkar-tekoa izanik, Orixe lehiaketa honetan bere lana aurkeztera bultzatu zuen.<sup>2</sup> Orixek ohorezko aipamena jaso zuen eta berak aurkeztutako poemak, “Iainkoagan bat” eta “Itzai zekena”, Aitzolek argitaratu zituen, lehiaketara aurkeztutako beste zenbaitekin batera, *Eusko Olerkiak*<sup>3</sup> liburuan. *Barne-Muinetan* liburua bera ere Orixek “Bilbon hasi zuela”, eta “1932 aurretik hain zuzen” hasi, uste du Joxe Azurmendik. Honela azaltzen du liburuaren sorrera:

Agian jakingarria da, Orixeren zein bizi unetan sortu zen ere. Bokazio krisi larri baten ondoren, lagundia utzi behar izanik, fedea zerbait kraskaturik agian eta barnea zuruturik ziur, urte batzu Bilbon lanean eta ezin bertarako eginik iragan ostean, bere sorlekura da eta, aspaldiko orde, Orixe azkenean “bere giroan” dago.<sup>4</sup>

“Iainkoagan bat” olerkiari dagokionez, argi dago 1930 urtekoa edo lehenagokoa dela eta *Barne-Muinetan* liburuko beste poemak baino lehenagokoa izatea ere lite-

<sup>2</sup> Iztueta, Paulo, *Orixe eta bere garaia*, Gasteiz eta Donostia, Eusko Jaurlaritza eta Etor, 1991, 88. Xehetasun ugariz aurkezten ditu Iztuetak Orixeren Lizardi eta Aitzolekiko harremanak.

<sup>3</sup> Aitzol, J., ed., *Eusko Olerkiak*, Donostia, Euskaltzaleak, 1930. Hordagok egindako argitalpen faksimila darabilgu: Donostia, Lur, 1985. “Iainkoagan bat” poema 34-44 orrialde bitartean dago.

<sup>4</sup> Azurmendi, Joxe, *Zer dugu Orixeren alde?*, Arantzazu, Jakin, 1977. Zitak 178 eta 180 orrialdeetatik jaso dira. Bestelakoa da Lino Akesolok poema honen sorreraz duen iritzia: “Bilbon izan zeneko egunetan onduak zituen, nonbait ere, bere barneko sentierak ustu bearrez. Mistiko askoren jokabidea izan da; beren barneko ‘zakukoak’ kanpora atera bearra etortzea, eta bertsotan ateratzea. Gure olerkariari ere orixe gertatu zaio, Bilbon, jesuiten artetik atera berritan, lenengo ‘gañezkaldiak’ [éxtasis] izan zituenetik aurrera”. Ikus Akesolo, Lino, “Orixeren mistika”, *Orixe Mendeurrena (1888-1988)*, IV *Hitzaldiak*, ed. Paulo Iztueta, Gasteiz eta Donostia, Eusko Jaurlaritza eta Etor, 1991, 187-198. Zita 193 orrialdetik jaso da.

keena da. Poema honek “bokazio krisi larri”-rik susmatzeko biderik ematen ez badu ere, begibistakoa da introbertsio edo barneratze prozesu baten deskribapena eskaintzen duela. Psikoanalisiak esaten duenez, introbertsioa frustrazioaren ondorio da<sup>5</sup>. Gogoan izanik Orixek jesuita izateko zeukan gogo bizia, bidezkoa da pentsatzea 1923an Jesuslagunen artetiko kanporatzeak eragin handia, benetako frustrazioa sortu behar izan zuela Orixerengan.<sup>6</sup>

“Arreba sabelkide Denuxi’ri” eskainitako poematxoa dela eta, 1930 eta 1934ko argitalpenak aurrez-aurre jarriz gero ia alderik ez dagoela ikusten da. Aldaketa gehienak grafikoak dira. Hitz hasierako *y*-ak (“Yainkoak”, “yo”, “yaun”) *i* bihurtuko dira (“Iainkoak”, “io”, “Iaun”) eta 12. lerroko “hirurok” hitzak lehenengo *-ra* galduko du. Alderik handiena 14. lerroaren amaieran dago: hasierako “sendirazi” aditza “sumarazi” kutsu euskaldunagodun sinonimoarekin ordezkatu zuen Orixek. Argitalpen bi hauei laguntzen dien itzulpena, ordea, ez zuen aldatu: “El nos concede, por un excelente don, que le estemos sintiendo” ageri da bietan. Bertsio bien artean alde handirik ez badago ere, lan honetarako bigarrena erabiliko dugu, *Barne-Muinetan* liburukoa. *R* bikoitzaren grafia, gakoduna jatorrizko bertsioetan, gaurkoturik eman dugu.

Poematxo honetan Orixek bere arima arreba Denuxirenarekin eta anaia Martin defuntuarenarekin “Iainkoagan bat” egiteko desira adierazten du. Literaturaren pragmatikak sarritan idazle eta barne igorlearen arteko bereizketa argia zaintzea eskatzen badu ere, badirudi oraingo honetan idazle eta igorlearen instantziak hein handi batean identifikagarriak direla: Denuxi edo Dionisia eta Martin Nicolas Ormaetxea Orixeren anaiarreba enpirikoak badira, igorlea Orixek bera da. Denuxi, Martin eta Nicolas 1888ko abenduaren 6an Orixeko herrian jaiotako hiruzkiak izan ziren, lehenengo biek baino lortu ez bazuten ere heldutasunera iristea, anaia Martin haurtzaroan hil zen eta.<sup>7</sup> Orixek poema hau idatzi zuenean



<sup>5</sup> Ikus Laplanche, Jean eta Jean-Bertrand Pontalis, *Diccionario de psicoanálisis*, Barcelona, Paidós, 1996, 204-205, s. v. “Introversión”.

<sup>6</sup> Orixeren bizitzaren alderdi ilun eta eztabaidatsu hau dela eta, ikus, besteak beste, Iztueta, Paulo, *Orixek eta bere garaia*, 49-83, eta Altuna, Patxi, “Orixek Jesusen lagundian emaniko urteak (1907-1923)”, *Orixek Mendueuren (1888-1988)*, IV Hitzaldiak, 41-86.

<sup>7</sup> Iztueta, Paulo, *Orixek eta bere garaia*, 21 orrialdea eta 1. oharra.

arreba Denuxi Txilen zegoen misiolari. Denuxi hau dugu testu honen barne har-tzailea. Honi zuzentzen dio igorleak bere diskurtsoa. Hizkuntzak berak ere horixe adierazten du, andrazkoari dagokion hitanoaren erabileraren bitartez.

Anaiarrebarekin bateratzeko nahia errealitateak ezarritako sakabanaketak dakarkio igorleari: hau Euskalerrian dago, “aitaren ondoan”; Denuxi Txilen, “hurrun haiz”; eta Martin ere “hurrun dun”, zeruan, “an goien / amarekin”. Urruntzearen eragilea Jainkoa bada ere (“Iainkoak barreira / gindunan bere esku legun begidunez”), Iainkoa bera izango da bateratzeko bidea: “halere esku hun-tan geuden zorionez, / ezin aldeginki”. Beraz, esku edota izaki barreiatzailea bate-ratzaile ere bilaka daiteke. Elkartzeko bidea Jainkoaren begietara begiratzea da, honen begi-ninietan islatuz: “begi-nini gaitin; elkarrago geuden / sabelean baino”. Elkar ikusteko era, orduan, Jainkoari begiratzea da: “dakusagu elkar / Iau-nari begira, bihotza su ta gar”. Ez da bide bakarra, ordea, oroitzapenak ere bere tokia baitu (“hiurok bat gaitun oroipen bizitan”) baina hala ere “batago Iainko-an”.

Batasuna hala lurrean nola zeruan, lurreko bizitzan nahiz betiko bizitzan, lortu nahi da. Jaiotzan Jainkoak bereganatu egin ditu igorlea eta bere anaiarrebak: “sabel bateti ilki, sabel batera jo / (Iainko onen altzora)”. Lurreko bizitza duten bitartean (“lurrean gaudeño”) bizitza hori eman dien Jainkoa (“Hunek gu sor, bizi”) maitatzea (“gauden adi beti, dugun beti maite / anai harek antzo”) eta hari begiratzuz elkar ikustea eskatzen dio Orixek Denuxiri. Hori da gorputzek lurreko bizitzan ahalbidetzen duten guztia. Geroago, ostera, “Gu bien gorputzak ama lurra irets / ditzanean”, hau da, heriotzako orduan, arimek askatasuna berreskuratu dezatenean betiko bizitzarako bidean, “ordun, Iaun hunen altzoan, arimok bil bitez betiko beroan”.

Poetak sortutako unibertso poetiko berezia irudikatzen duen orduan, hiru alderdi nabarmentzen dira: denbora, espazioa eta Jainkoa. Azter ditzagun banan-banan. Denbora irudikatzerakoan, garai bi bereizten dira: alde batetik oraina, bizitzari dagokion garaia, “lurrean gaudeño” (17. lerroa); beste batetik etorkizuna, betiko bizitza, igorleak bere desirak beteko dituen unea: “ordun, Iaun hunen altzoan / arimok bil bitez betiko beroan” (27. eta 28. lerroak). Garai batetik bestera igarotzeko bitarteko pausu bat dago, heriotza, metafora baten bitartez adierazia: “Gu bien gorputzak ama lurra irets / ditzanean” (26. eta 27. ll.). Jakinaenez, platonismoak gorputzak arima gartzeleratuta zeukala esaten zuen. Heriotzako orduan arimak bere askatasuna berreskuratu eta bere jatorri jainkotiarrean itzuliko zen. Ideia hauek oso gogoko izan zituzten Errenazimenduko idazle eta poeta neoplatonikoek, mistikoek bereziki. Lurreko bizitza eta betiko bizitzaren bi garai haiek eskatologia kristauak aldarrikatu zituen, salbazioaren kontzeptuarekin hertsiki loturik baitaude. Laburki bada ere, iragana ere aipatuta dago: jaiotzaren aurreko unea (“sabel bateti ilki / sabel batera jo” 15. l.). Alde honetatik, Orixeren poema

ez da aldentzen ez bere tradizio poetikotik ezta dotrina kristauaren irakatsietatik ere.

Espazioaren irudikapenean toki bi bereizten dira: zerua eta lurra. Hauetariko bakoitzari deiktikoa bana dagokio: zeruari “an”, lurrari “emen”. Zerua hildakoen tokia da: “an goien amarekin hura” (2-3. ll.), hau da, anaia Martin. Toki hori urrun dagoela esaten da: “hurrun dun gure Martin” (1. l.). Lurra bera ere bitan banatuta dago: alde batetik Nicolas igorlearen tokia, “emen”, eta bestetik Denuxi hartzailearena, “hor”. Hasieran hau ere urrun dagoela esan arren (“Hurrun aiz”, 1. l.), geroago sentsasio hori erabat aldatuko da: “Ez geuden urruti, hortik ainbat bide / emendik zerura, Iaunaren altzora” (22-23. ll.). Beraz, Jainkoa da itxuraz urrun daudenak elkartzen dituen. Izan ere, “emen” deiktikoaren balioa ez da bakarrik “aitaren ondoan”, hau da, lurrian, Euskal Herrian, igorlea momentu hartan zegoen tokian. Laugarren ahapaldian jaiotza Jainkoratze gisa definitzen da. Kontestu horretan “emen” deiktikoak *Jainkoaren baitan* esan nahi du, 15-17. eta 24-25. lerroetan esate baterako:

Sabel bateti ilki, sabel batera io  
(Iainko onen altzora): emen argi, bero;  
emen zegon zori lurrian gaudeño.

Sar adi barneon, ago Iainkoari;  
emen ikusko naun; behon anaiari.

Lerro hauetan “emen” aditzondoak Bühler-ek “Deixis am Phantasma”<sup>8</sup> deitutako funtzioa betetzen du. Oraingo “emen” hau ez da igorlea dagoen tokia (lurra, Euskal Herria), baizik eta igorleak berak eraikitako toki fantastikoa: Jainkoaren altzora edo sabela. Zeru eta lurraren arteko banaketak ez du batere eragozpenik kristau irakatsien ikuspuntutik. Jainkoaren irudikapenari dagokionak, ordea, azalpen zehatzagoa eskatzen du.

Jainkoaren irudikapenerako ere kristautasunaren kontzeptzio tradiziolak badu bere tokia, Jainkoa sortzaile gisa deskribatzen duenean, esate baterako: “Hunek gu sor, bizi, / Hunek emai onez Bera sumarazi” (13-14. ll.). Dena den, Jainkoa bera ere ia “toki” gisa aipatzen da, inesibo kasuan inoiz: “batago Iainkoan” (13. l.). Hola gertatzen zen “emen” hitzari *Jainkoaren baitan* esanahia ematen zitzaionean, gorago azaldu legez. Gauza bera ikusten da bigarren ahapaldian, Jainkoaren eskuak elkarrengandik banandu dituela hartzaile eta igorlea esaten duenean azken honek, jarraian zera gehitzeko: “halere esku huntan geuden zorionez, / ezin aldeginki” (6-7. ll.). Eta berriro ere azken ahapaldian, heriotzaren ostean Jainkoa betiko bizitza igarotzeko toki gisa aldarrikatzen duenean: “Iaun hunen al-

<sup>8</sup> Lázaro Carreter, Fernando, *Diccionario de términos filológicos*, Madril, Gredos, 1968, 168, s.v. “Deixis”.

tzoan / arimok bil bitez betiko beroan” (27-28. ll.) Igorleari berotasuna (“sabel berokia” 8. l.) eta zoriona eskaintzen dizkion tokia da Jainkoa: “esku huntan geuden zorionez” (6. l.); “emen zegon zori lurrean gaudeño” (17. l.). Subjektu liri-koaren ikuspuntutik Jainkoa Nicolas eta bere anaiarriben topagune aproposa da, bai bizitza honetan, bai betikoan.

Jainkoaren irudikapenak badu, esandakoarekin batera, beste ezaugarri nabarmen bat. Eskuak eta altzoa, begiak eta sabela dituen Jainkoa da, erabat antropomorfikoa, beraz. Jainkoaren ezaugarri hauek bigarren eta laugarren ahapaldietan dute garapenik zehatzena. Hona hemen bi ahapaldiak:

Iainkoak barreia  
gindunan bere esku legun begidunez:  
halere esku huntan geuden zorionez,  
ezin aldeginiki. Bai esku zabala,  
sabel berokia, begi maitakorra.

Sabel bateti ilki, sabel batera io  
(Iainko onen altzora): emen argi, bero;  
emen zegon zorion lurrean gaudeño.

Jainkoaren irudikapen antropomorfiko honetan zenbait gorputz atal aipatzen badira ere, gehien errepikatu eta testuaren amaieraraino hedatzen diren bakarrak sabela eta altzoa ditugu. Esku leun eta zabala, begi maitakorra, sabel berokia eta altzoa dituen Jainko hau ama gisa irudikaturik ageri zaigu. Amatasunaren isotopia figuratibo<sup>9</sup> batek zeharkatzen du diskurtsoa goitik behera. Diskurtso hori sortzen duen igorle edota aktante subjektuak ama-semeen arteko harreman gisa ulertzen du bere Jainkoarekiko harremana. Haurrak amarengan legez, igorleak Jainkoarengan babesa bilatzen du.

Jainkoaren irudikapen era hau, mugatua izanik ere, ez da erabat arrotza tradizio judeo-kristauan. XX. mende amaierako teologia feministak aldarrikatzen duenez, Itun Zahar nahiz Berrian Jainkoa irudikatzeko irudi ugarien artean amarena ere badago. Lafey-k Isaiasen zenbait pasartetan aurkitzen du.<sup>10</sup> Phillis Tribblek idatzitako *God and the Rhetoric of Sexuality* liburua laburtzean, Hamerton-Kelly-k hiru ideai nagusi jaso ditu:<sup>11</sup>

---

<sup>9</sup> Ikus, kontzeptu hau azaltzen duten Greimas-en lan ugarien artean, ondorengoa: Greimas, A. J. eta J. Courtés, *Semiótica. Diccionario razonado de la teoría del lenguaje*, Madril, Gredos, 1982, s.v. “Isotopía”.

<sup>10</sup> Laffey, Alice L. “God as mother”, *An introduction to the Old Testament. A Feminist Perspective*. Philadelphia, Fortress Press, 1988, 173-174.

<sup>11</sup> Hamerton-Kelly, Robert, “Dios Padre en la Biblia y en la experiencia de Jesús”, *Concilium. Revista internacional de Teología*, 163 (1981), 442-443.

1. Hasiera edo Genesitik bertatik (Gen 1, 27), Jainkoa irudikatzen da eta emez osatutako bikotearen metafora erabiltzen da sarritan.

2. Jainkoaren ideia gauzatzeko gehienetan metafora maskulinoetara jotzen bada ere, zenbaitetan ezaugarri femeninoak hobesten dira, hala nola titiak, erdi-tzea edota amatasuna.

3. Jainkoaren errukia (ingelesez *mercy, compassion*, frantsesez *tendresse*) adierazten duen hebraierazko hitza (*raham, rahamim*) sabelaren esanahia duen erroitik (*rhm, rehem*) dator. Metafora hau fede biblikoaren oinarrian egongo litzateke. Etimologia bera Aynard<sup>12</sup> eta Clanton-en<sup>13</sup> lanetan ere aurkitzen da. Bibliako idazleek analogia ugari erabiltzen dituzte Jainkoa deskribatzerakoan. Hauetariko batzuk gizakiei dagozkie, beste batzuk ez, baina guztiak dira lagungarri hitzetatik haratago dagoen Jainkoa adierazteko, Clanton-en ustez.

Itun Berriari dagokionez, hemen ere ez dira falta amatasunaren adierazgarriak. Jakina denez, Jesusek “Aita” hitza hobetsi zuen Jainkoari dei egiteko eta horrela egitea irakatsi zuen (Mat 6, 9-16 eta Lukas 11, 2-4). Hau Jainkoaren maskulinitatea frogatzeko erabili izan bada ere, Jesusek arameoko “Abba” hitza erabiliz —haurtxoek *aita* esateko darabilten hitza— Jainkoa eta pertsonen arteko harreman mota bat adierazteko egiten du, gizarte patriarkalean ez bezalako harreman intimoa, Clanton-en ustez,<sup>14</sup> amarekilakoa ere izan litekeena. Monoteismo patriarkala gainditzeko panteismo matriarkalean erori gabe, kristautasunak doktrina trinitarioa asmatuko zuen, Moltmannen iritzi.<sup>15</sup> Trinitatearen arabera Jainkoak bere semea sortu eta erditu egin du. Beraz Jainkoa ez da aita maskulino hutsa, Aita amatiarra baizik, 675. urtean Toledoko Kontzilioaren esanetan: “Nec enim de nihilo, neque de aliqua alia substantia, sed de Patris utero, id est, de substantia eius idem Filius genitus vel natus esse credendum est”. Berriro ere Jainkoaren sabelaren irudia, erabat tradizionala eta funtsezkoa, guri arrotz egiten bazaiagu ere. Bazuen Orixek zeri heldu bere irudikapen berezia sortzeko orduan. Jainkoaren amatasuna irudikatzen duten Bibliako testuen artetik, hona hemen Orixeren poemarekin zuzenki loturik diruditen pasarte bi, biak Isaiasen liburutikoak (Is 46,3-4 eta Is 66,12-13):

Entzun niri,  
Jakoben ondorengook,  
Israel herrian bizirik geldituok:

<sup>12</sup> Aynard, Laure, *La Bible au féminin. De l'ancienne tradition à un christianisme hellénisé*, Paris, Les Éditions du Cerf, 1990, 70-73.

<sup>13</sup> Clanton, Jann Aldredge, *In Whose Image? God and Gender*, New York, Crossroad, 1991, 23-29.

<sup>14</sup> *Op. cit.*, 31-32. Amatasunaren zenbait ezaugarri aurkitzen ditu idazle honek Itun Berriaren pasarte ugaritan ere.

<sup>15</sup> Moltmann, Jürgen, “El padre maternal. Patripasionismo trinitario y patriarcalismo teológico”, *Concilio. Revista internacional de Teología*, 163 (1981), 381-389. Toledoko Kontzilioan esandakoari dagokion zita 385 orrialdean dago.

neure gain hartuak zaituztet  
amaren sabeletik,  
neuk zaramaztet altzotik bertatik,  
eta zuek zahartzean ere,  
ni beti berbera.

Ibaika ekarriko diot  
Jerusalemi zoriona,  
erreka betean nazioen ondasunak.  
Amak haurra bezala  
zainduko zaituztet:  
bularra eman eta altzoan hartuko  
eta magalean gozatuko.  
Amak haurra  
kontsolatzen duen bezala,  
halaxe kontsolatuko zaituztet.<sup>16</sup>

Irudien mailako antzekotasuna begibistakoa bada, aldeia ere nabarmena da Orixek idatzitakoa eta Bibliatik jasotakoaren artean. Azken testu hauetan profeta-  
ren diskurtsoan txertaturik dagoen Jainkoaren ahotsak berak egiten du bere  
buruaren irudikapena, ez Jainkoari zuzenduriko ahots batek. Gainera, Jainkoaren  
ahotsak bere herriari, gizarteari, zuzentzen dizkio bere hitzak, gizabanakoari  
barik. Orixeren poemako igorlea, osteria, ez da gizartearen ordezkari edo profeta  
(Aresti, esate baterako, den bezela), gizabanakoaren izenean hitzegiten du,  
herriarenean baino gehiago. Gainera, bere hartzaila ez da Jainkoa, Salmoetan  
den bezela, arrebaren Denuxi baizik. Eta guztiaren gainetik deigarria da zinez gure  
subjektu lirikoak adierazten duen desira: irudikaturiko Jainko-ama horren altzo-  
sabelera sartzea-itzultzea. Horren aurrean ez da harrizkoa Joxe Azurmendiren  
gogoeta:

irudiok, batzutan, zerbait bitxi gerta dakizkiguke, halakoxeak, erdaraz  
eta, (“el seno de Abraham”) entzuten ohiturik bagaude ere. Denuxiri  
eskainitako bertsuotan, adibidez (eta beti esango da nola arrebaren “sabel-  
kide” duen), erlazioko lehen aldearen errealismoak, ohizko metafora  
kaskatu hari errealismo gordintxo baten bizitasun txokagarria bihurtzen  
dio. Okertuko ditu bekainak psikoanalasi-zalaren batek:

Sabel batetik ilki, sabel batera jo  
(Jainko onen altzora): emen argi, bero

---

<sup>16</sup> *Elizen arteko Biblia*, Lazkao, Bibli elkarte batuak eta Elizen arteko Biblia Elkarte, 1998. Bibliako zita guztietarako ber-  
tsio hau erabili da.





Nikolas Ormaetxea “Orixe”.

[...] (Ezer disimulatu zigunik behintzat, ezin esango dute psikoanalistek).<sup>17</sup>

Hasieran esan bezala, lan honen helburua “Arreba sabelkide Denuxi’ri” eskainitako poematxoaren azalpen bat ematea da. Horretarako teoria psikoanalitikoaren kontzepturen bat edo beste erabiliko bada ere, asmoa ez da Orixe psikoanalizatzea. Izango da horretarako abagadune egokiago eta ikertzaile trebatuagorik. Oraingoan poemak ezartzen dituen diskurtso-mugak errespetatuko dira, inoiz edo behin Orixeren biografiako daturen bat gogora ekarriko bada ere. Freudek badu sorketa literarioari buruzko teoria bat.<sup>18</sup> Teoria honen arabera, idazleak

---

<sup>17</sup> *Zer dugu Orixeren alde?*, Arantzazu, Jakin, 1977, 261-262. Bere iritzia aldatu zuen Azurmendik nonbait Orixeri buruzko liburu berria idatzi zuenean. Hona hemen lehenago zuen ustea: “Beraenik omen den hartan, *Barne muinetan* liburuttoan, poeman edo ez bezala, bere-bere barnetik mintzo omen zaigu, bihotza hustu omen digu, bere kezak eta larriak eta zalantzak argitu bide ditu, han ei da inongo pertsonalena eta autentikoa, eta zabaldu omen digu bere barrena. Zabaldu ote digu, eta erakutsi? Izkutatatu, bai, egin digu. Izan ere, problema xit pertsonaletaz mintzo zaigu. Baina hain unibertsalduta, orokor-keratuta, azaltzen digu hori guztia, eta hain ‘pentsatuta’, non norbereko berezitasunik ozta-ozta igarri ahal bait liteke”. Azurmendi, Joxe, *Zer dugu Orixeren kontra?*, Arantzazu, Jakin, 1976, 94.

<sup>18</sup> Freud, Sigmund, “El poeta y los sueños diurnos”, *En torno a “El poeta y los sueños diurnos” de Freud*, ed. Patricia Grieve, Madril, Biblioteca Nueva, 1999, 23-30. Bertio honen itzultzailea Luis López-Ballesteros da. Dena den, jatorrian “Der Dichter und das Phantasieren” izena duen saioak zenbait itzulpen izan ditu gaztelaniara. Itzulpen-zerrenda bat ondorengo argitalpenak eskaintzen du: Freud, Sigmund, *Obras completas*, itzul. José L. Etcheverry, Buenos Aires, Amorrortu editores, 1979, 9. alea, 125. Freuden lan osoen zitetarako beti hauek izango dira erabilitakoak. Beraz, itzultzaile, argitaletxe eta hiriarri buruzko datuak ez dira errepikatuko aurrerantzean.

bere mundu fantastikoa sortzen du haurrak jolasean egiten duen bezala, bai batak eta bai besteak errealitateetik bereizten dutelarik. Bete gabeko instintoak dira fantasiaren indar sortzaileak. Fantasiatzearen emaitzak itzar-ametsak dira. Fantasia orok hiru denbora lotzen ditu desiraren hariak baliatuz: 1. orainean inpresio batek subjektuaren desira bat iratzartzen du. 2. hemendik haurtzaroko gertaera bat gogoratzen du, desirak satisfazioa edo asetasuna lortu zueneko gertaeraren bat. 3. etorkizunera begira dagoen egoera bat sortzen du desiraren satisfazio gisa itzar-amets edo fantasia bat aurkeztuz. Idazlearen ni-a izaten da bere laneko heroiaren gunean dagoena, Freuden ustez. Idazlearen lana bere bizitzarekin konparatuz gero, fantasiak hiru denborekin duen lotura agertuko litzateke, eta desirak lan poetikoan aurkituko luke asetasuna.<sup>19</sup>

Orixeren olerkitxora itzuliz gero, hemen gauzatutako fantasiaren izatea zehaztu beharko litzateke lehenengo eta behin. Fantasien artean badira batzuk gizakiengan sarritan modu beretsuan agertzen direnak, sorburuko fantasiak<sup>20</sup> deituak. Hauen iturria pultsio edo instintoak badira ere, ondare filogenetikoa osatzen dute, hau da, historiaurrean izandako esperientzien memoria genetikoa.<sup>21</sup> Honezkero ez dago zalantzarik Orixeren poema honek erakusten duena amaren sabel edo umetokirako itzuleraren fantasia dela. Espazioaren eta Jainkoaren irudikapenak aztertzerakoan amatasunaren isotopiaren indarra azaldu zaigu. Ez da harrizkoa horrela gertatzea sakoneko irudi egituratzailea umetokibarneko fantasia edo fantasia intrauterinoa izanik. Oso hedatua dagoen fantasia hau nork bere erara bizi du: idazle batzuegan irudikapen negatiboak sortarazten ditu hestura edo angustiaren bat edo besteren eraginez kutsaturik; beste batzuk angustiarik sentitu ez eta jarrera positiboa erakusten dute.<sup>22</sup> Orixerena azken hauetarikoa da. Giro atseginean murgiltzen ari dela esaten du subjektuak, maitasun, berotasun eta zoriona dagoen toki horretan sartzeko gonbit egiten dion bitartean hartzaileari: “sar adi barneon”, “emen ikusko naun; behon anaiari” (24-25. ll.). Erljioak iragarten duen betiko bizitza bera ere sabelaren “betiko beroa”-k metaforizatzen du poeman (28. l.), sabelerako itzulera heriotzaren ondorengo bizitzarekin

<sup>19</sup> Ideia hauetariko batzuk ondorengo lanean ere eman zituen: Freud, Sigmund, *Conferencias de introducción al psicoanálisis*, *Obras completas*, 1978, 15. alea, 88-90.

<sup>20</sup> Zalantza askorekin bada ere, honela ematea erabaki dugu Freuden *Urphantasien* hitza. Gaztelaniaz *fantasia originaria* eta *fantasia primordial* itzulpenak erabiltzen dira. Frantsesez *fantasme originnaire* esaten zaio.

<sup>21</sup> Freud, Sigmund, *Conferencias de introducción al psicoanálisis*, *Obras completas*, 1978, 16. alea, 338. Fantasiei buruzko azalpen sistematiko eta kritikorako, ikus Laplanche eta Pontalis, *op. cit.*, s.v. “Fantasía” eta “Fantasías originarias”, baita idazle beraren artikulua: “Fantasme originnaire, fantasmes des origines, origine du fantasme”, *Les temps modernes*, 215 (1964), 1833-1868.

<sup>22</sup> Ikus Bardavío, José María, *Fantasías uterinas en la literatura norteamericana*, Zaragoza, Universidad de Zaragoza, 1988. Bardavío Freuden angustiarik buruzko kontzeptuan oinarritzen da bereizketa hau egiteko: *Inhibición, síntoma y angustia*, *Obras completas*, 1979, 20. alea.

inkontzienteki loturik dago eta.<sup>23</sup> Hortaz, Freudek berezitako hiru denporetatik azkena argi azaldu da, heriotzaren ondoko ordua: “Gu bien gorputzak ama lurra irets / ditzanean” (26-27. ll.). Poemaren arabera, heriotzako orduan emango litzateke amaren sabelerako itzulera, orduan gauzatuko litzateke desira bete-betean. Desira hori iraganean ere bete izandakoa dela ez dago ukatzerik, ez haurtzaroen zehazki baina bai jaio aurretik, subjektua amaren sabelean izan zen bitartean: “sabel bateti ilki” (15. l.) arteko denbora, hain zuzen ere. Orainaz badakigu Orixe Jesusen Lagunditik aldentutako garaiaren ondoren idatzitakoa dela. Aldentzearen esperientzia erabat latza eta mingarria gertatu behar izan zitzaion nonbait, bere borondatea konpainian sartzea izanik. Gorago esan dugun bezala, testuak introbertsio egoera bat deskribatzen du. Introbertsioa, Freuden ustez, frustrazioak eragindakoa izaten da eta erregresiora bultza lezake, errealitate petraletik urrunarazi eta fantasiako desira berriak sortaraziz eta zaharragoak berpiztuz.<sup>24</sup> Espero zitekeenez, jesuiten arteko esperientzia haurtzarokoarekin loturik dago Orixeren memorian. Bere desira lortzea galerazi dioten jesuitak “etsai” ditu eta haurtzaroen ere “amaren sabelean bi etsai”, Denuxi eta Martin, izan zituen, amaren altzotik urrunarazi zutelako Orixe Uitziko inude batengana bidali zute-nean, hortik zetorkiola bere “bizi guziko utsaldia: bi ama ta amarik ez”.<sup>25</sup> Nagusitako frustrazioa sumatu ondoren, bere “barne-muinetan” sartu eta libidoa fantasia batera zuzendu du: jaio aurretik amaren sabelean izan zen garai zorionsura. Hauxe da, hain zuzen ere amaren sabelerako itzulera nahiak adierazten duena.

Zergatik, ordea, oraina ere era positiboan deskribatu? Orixeren esperientzia erlijioaren galbaearen bitartez emana datorkigulako. Bilboko urteetan hasten da extasi edo “gaiñezkaldiak” izaten. Erljioak fantasia osoa sublimatu egin du, orainari berari ere kutsu baikorra emanez. Iraganean betetako eta etorkizunean ustez berriro ere beteko den desira, orainean ere betetzen da fantasiaren bitartez.<sup>26</sup> Fantasia hau, gordin-gordinik, onartezina izango litzeteki gizartearentzat gizaba-

<sup>23</sup> Freud, Sigmund, *La interpretación de los sueños*, *Obras completas*, 1979, 5. alea, 403, 65. oharra: “Sólo más tarde aprendí a apreciar el significado de las fantasías y pensamientos inconcientes sobre la vida en el vientre materno. Contienen tanto el esclarecimiento de la extraña angustia que sienten muchos hombres ante la posibilidad de ser enterrados vivos, cuanto la más profunda raíz inconciente de la creencia en una perduración tras la muerte, que no constituye más que la proyección al futuro de esta ominosa {*unheimlich*} vida anterior al nacimiento”.

Fantasia honek intzestuekin eta Ediporen konplexuarekin duen harremana begibistakoa da. Dena den, Freuden ustez fantasia intrauterinoak koitoa ordezkatuko luke: *Inhibición, síntoma y angustia*, *Obras completas*, 1979, 20. alea, 131 eta *Nuevas conferencias de introducción al psicoanálisis*, *Obras completas*, 1979, 22. alea, 81.

<sup>24</sup> Freud, Sigmund, *Sobre los tipos de contracción de neurosis*, *Obras completas*, 1980, 12. alea, 240-241.

<sup>25</sup> Ormaetxea, Nicolas, “Orixe”, *Quito-n arrebarekin, Idazlan guztiak. I Sorkuntzazkoak*, Paulo Iztueta ed., Eusko Jaurlatza eta Etor, Gasteiz eta Donostia, 1991, 711. Orixeren haurtzaroa dela eta ikus Paulo Iztuetak (*op. cit.*, 26-29) ematen dituen xehetasun ugariak eta Orixeren idazlanekin egiten dituen lotura egokiak.

<sup>26</sup> Hona hemen Freudek aztertutako gizon baten egoera: “Su queja es en verdad una fantasía de deseo cumplida, ella lo muestra de regreso en el seno materno; ciertamente, es la fantasía de deseo de la huida del mundo. Cabe traducirla así: ‘Soy tan desdichado {*unglücklich*} en la vida que debo regresar al mundo marterno’.”, *De la historia de una neurosis infantil*, *Obras completas*, 1979, 17. alea, 91.

nako heldu eta osasuntsu batengan. Erljioak ahalbidetutako sublimazioaren bitartez, ordea, onargarri bilakatzen da. Izan ere, erljioak berak eskaintzen dizkio subjektuari bere fantasiaren kide diren kontzeptu eta irudi ugari, Jainkoaren amatasuna azaltzerakoan ikusi dugunez. Beraz, hiru denboretan ikusten du igorleak bere burua amaren sabelean: iraganean, etorkizunean eta orainean ere, erljioan sartzerakoan edo kristautzean: “sabel bateti ilki, sable batera io” (15. l.). Irakurketa freudiano batean, dena den, kutsu erljiosoak idazle-igorlearen benetako desira inkontzientea sublimatuz eraldatzeko eta desitxuratzeko balioko luke, desira hori amaren sabelera itzultzea delarik.

Hala ere, ez da hau Orixeren poematxoak onartzen duen irakurketa bakarra. 15. lerroko sable batetik bestera igarotzea bigarren jaiotzaren motiboarekin lotuta dago. Gainera, sable barnean, espero litekeenaren kontra, ez da nagusi iluntasuna, argia baizik. Bi motibo hauek, bigarren jaiotza eta argia, Joanen Ebangelioan daude (Jn 3,3-21). Jesusek Nikodemo fariseuari esaten dionean ezin duela “inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada”, Nikodemok ulertu ez eta zera galdetzen dio: “Nola jaio daiteke norbait, jadanik zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriro jaio?”. Jesusek bere hasierako hitzak ulertzeko giltza ematen du gizakiagandiko jaiotza eta espiritutiko jaiotza bereiziz: “ezin izango da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretatik eta espiritutik jaiotzen ez bada”. Hau lortzeko Jainkoaren semearengan fedea izatea eskatzen da, argia berak ekarri duelako mundura (“Jainkoa argia da, eta berarekin ez dago inolako ilunik”, 1 Jn 1,5), eta berarengan sinesten duenak betiko bizia izango du. Espiritu edo uretatiko jaiotza bataioak sinbolizatu ohi du Kristautasunean.

Pasarte honetatik bi ondorio atera daitezke. Alde batetik, Orixek Joanen liburuko zenbait teologia kontzeptu bereganatu eta egokitu ditu, Jesus bera aipatzen ez badu ere. Aipatutako sabelaren eta argiaren motiboetaz gain, Joanen liburuko kontzeptu hauek poemaren amaieran isla zuzena izango dute gorputz eta arimaren arteko banaketa egitean. Beste alde batetik, diskurtsoaren hermeneutikari dagokionez, Jesusek bigarren jaiotzaz esandakoa ez dela literalki interpretatu behar adierazten da, Nikodemok hasieran egin duen bezala. Giltza mezuaren hartzailearengan dago: sinestuna ez denak literalki ulertuko ditu Jesusen hitzak; sinestunak, oster, figuratiboki. Ondorio bera atera liteke Orixek bere poeman erabilitako iruditeriaz. Interpretazio freudianoaren arabera subjektuaren desira literalki ulertu beharko litzateke. Jungek, ordea, aipatutako Joanen pasarte honetan ikusten du egia sinbolikoaren adibide paregabea:

las palabras de Jesús tienen un poder de sugestión tan grande porque formulan verdades fundadas en la estructura psíquica del hombre. La verdad empírica no libera al hombre de sus ataduras sensibles, puesto que sólo le enseña que siempre fué así y que tampoco habría podido ser de otro modo. En cambio, la verdad simbólica, que sustituye a la madre

por el agua, o al padre por el fuego, ofrece un nuevo camino a la libido ligada a la llamada tendencia al incesto, la libera y la encamina hacia una forma espiritual. Así el hombre como ser espiritual vuelve a ser un niño nacido en un círculo de hermanos; pero su madre es la “comunidad de los santos”, la *iglesia*, su círculo de hermanos la *humanidad*, con la cual se une de nuevo en la herencia común de la verdad simbólica.<sup>27</sup>

Azken batean, Jesusek analogiaren bitartez hitz egingo luke eta gauza bera egiten du Orixek. Batak zein besteak, toki eta garai guztietan gertatu ohi den bezala, arketipoaren irudikapena, hau da, inkontziente pertsonala baino sakonagoa den inkontziente kolektiboaren ekoizpena erabiltzen du bere diskurtsoa gauzatzeko. Arketipoak fantasia mota normal guztietan agertzen dira, ez bakarrik gaixoei dituztenetan.<sup>28</sup> Amaren sabelerako itzulera berpizkundearekin lotzen da kristautasunean ere. Jainkoarekiko bilketa lortu nahi den neurrian, ez da harrizkoa fantasia arketipiko hau oraindik indartsuago agertzea kutsu mistikoa<sup>29</sup> duten testuetan, Orixeren *Barne-muinetan* liburukoak besteak beste eta “Iainkoagan bat” atalekoak bereziki. Gainera, barneratze edo introbertsio esperientzia batekin lotuta dagoenez gero, Durandek bereizten dituen imaginarioaren bi eremuetatik gauekoari dagokio amarenganako itzuleraren arketipoa.<sup>30</sup> Igorleak argia eta zoriona aurkitzen ditu, baina barnean, ez kanpoan.

Jungen arabera, amarenganako erakarpena kasu hauetan ez da intzestua lortzea, berjaiotzea baizik. Hori dela eta, eguzkiaren mitoetan amaren simalak bilatuko lirateke libidoari irtenbide berriak emateko asmoz. Hori egiteko modu bat ama beste izaki bat bihurtzea edo desagartarazi arte gaztetzea litzateke.<sup>31</sup> Hemen koka-

<sup>27</sup> Jung, Carl Gustav, *Transformaciones y símbolos de la libido*, Buenos Aires, Paidós, 1953, 238-239.

<sup>28</sup> Arketipoaz, ikus Jung, Carl Gustav, *op. cit.*, 240 eta “Sobre los arquetipos de lo inconsciente colectivo”, *Arquetipos e inconsciente colectivo*, Barcelona, Paidós, 1997, 9-48, eta bereziki 46.

<sup>29</sup> Domínguez Morano, Carlos, *Experiencia mística y Psicoanálisis*, Cuadernos Fe y Secularidad, 45. zenb., Fe y Secularidad eta Sal Terrae, Madril eta Maliaño (Cantabria), 1999, 20-21: “De modo estructural, se mantiene en todo individuo un anhelo incumplido de fusión, de recuperación de un estado originario (cuya representación prototípica vendría dada por la situación intrauterina), en el que no tendría lugar distancia ni diferencia alguna. Somos, de ese modo, deudores de una satisfacción que míticamente se tuvo [...] Si, como veremos más adelante, sólo mediante el símbolo paterno la representación del Todo llega a tomar una figura, un nombre y una representación, es la experiencia primera de relación con la totalidad materna la que juega como impulsora de ese deseo que marca esencialmente a la experiencia mística”. Indiako mistika dela eta baditu Mircea Eliadek Orixeren testu honekin erraz pareka daitezkeen hausnarketa interesgarri hauek: “Apasionado por la estructura antropocósmica de la Diosa Suprema, la Madre Universal, en los Kogi (= Cabaga). Rara vez se encuentra una valoración tan coherente, sistemática y transparente de la maternidad como fuente de lo *real*. Todo lo que existe ha sido concebido. La creación es una procreación. Todos los modos de ser —incluso el de la muerte— han sido “concebidos” por la madre universal. Y todo lo que hace el hombre lo hace en el interior de la Madre. Por primera vez las diferencias entre los cuatro modos de existir intrauterinos, aparecen expresados con claridad y precisión: el modo prenatal, el de la existencia terrestre, el modo postmortem a la espera de la reencarnación, finalmente el modo de ser del muerto que decide permanecer en el seno de la Madre”. Ikus Eliade, Mircea, *Fragments de un diario*, Madril, Espasa-Calpe, 1979, 334. Erljiio kristauan berrarragizatzerik ez dagoenez, une hori ez du izlatzen Orixek. Beste hirurak analogoak dira.

<sup>30</sup> Durand, Gilbert, *Les structures anthropologiques de l’imaginaire. Introduction à l’archétypologie generale*, Paris, Bordas, 1969, 261-263. Durandek zenbait antropologo garrantzitsuren iritziak biltzen ditu amaren arketipoaz. “Régime nocturne” eta “régime diurne” itzultzeko Aurelia Arkotxak erabiltzen duen “eremu” darabilgu guk ere. Ikus behegero 33. oharrean Arkotxaren lanaren aipamen osoa.

tu beharko genuke ama-lurraren mitoaren sorrera. Orixeren poeman, ostera, amatasuna bikoiztuta dago, alde bat Jainkoari dagokiola eta beste bat lurrari. Bikoiztasun horren azpian gorputz eta arimaren arteko banaketa datza, lehenengoa bakarrik dagokiola lurrari eta Jainkoari arima. Erljio kristauaren eskatologiak, eta bereziki Joanen liburukoak, bultzatzen du banaketa hori egitera. Sinestunentzat bizitzatik heriotzarako pausua lurreko bizitzatik betiko bizitzarako trantsizioa baino ez da.<sup>32</sup> Ikuspuntu honetatik oso antzekoa eta oso bestelakoa da Miranderen jokera “Eresi” poeman, Aurelia Arkotxak<sup>33</sup> ondo ikusi duen bezala. Mirandek erlijio paganoaren pentsaerari heltzen dionez gero, bere poemako amalur eta aberria jainkosa ere bada. Beraz, poema horretako igorle-gudariak ama lurrean ehortzia izan nahi du, hark bizia emango diolakoan. Ama emankor eta emazte den lurrari ere zuzentzen dio bere libidoa Lizardiren “Bultzi-leiotik” olerkiko subjektu lirikoak. Zarautzarraren arabera bizitza eta etorkizuna lorgarriak dira baldintza bat betez gero: “Hölderlinek idatzi zuen bezala, naturarekin ezkondu”.<sup>34</sup> Euskal literaturan behin eta berriro ageri den arketipo honek merezi luke ikerketa zehatz eta zabala.<sup>35</sup>

Orixeren *Barne-muinetan* liburuko lirikari intelektualegia izatea<sup>36</sup> eta kutsu teologiko handiegiaren zama<sup>37</sup> kritikatu izan zaizkio. Irakurketa teologikoa ez da egin daitekeen bakarra, ostera. Psikoanalisiak eta antropologiak ere badute zeresanik “Jainkoagan bat” eta batez ere “Arreba sabelkide Denuxi’ri” poematxoaz. Baina hauen irakurketa huts-hutsa ere ez litzateke nahikoa izango testuaren ulermen aukera guztiak agortzeko, nahi ta nahi ez gune teologikoa ere bertan dago eta. Ezin ahaztu, ostera, teologia bera ere inkontzienteak moldatu duela hein handi batean. Literaturan gertatu ohi denez, ontzat eman daiteke Orixeren lan honek aipatutako irakurketa guztiak eta hemen aipatu ez diren zenbait ere sorre-razi ditzakeela. Hemendik aurrera irakurleari dagokio berea egitea.

<sup>31</sup> *Transformaciones y símbolos de la libido*, 237.

<sup>32</sup> *Evangelio según San Juan*, “Introducción”, *Biblia de Jerusalén*, Bilbao, Desclée de Brouwer, 1998, 1543.

<sup>33</sup> Arkotxa, Aurelia, “Mirande eta Thanatos: heriotz heroikoa”, *Jon Mirande orhoituz (1925-1972)*. *Antologia*, ed. Patri Urkizu, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1997, 27-29.

<sup>34</sup> Uribe, Kirmen eta Jon Elordui, *Lizardi eta erotismoa*, Irun, Alberdania, 1996, 61-62.

<sup>35</sup> Euskal mitologian Lur eguzkiaren eta ilargiaren ama da, baita arimen gordeleku ere. Arketipo beronen agerpen goiztiarra euskal literatura modernoan Iparragirrek “Jaungoikoa eta arbola” bertso sailean emanikoa da. Hona hemen laugarren ahapaldiak zer dioen:

Euscaldun onac beardu eriotza  
Billa bere sor lecuán;  
Lurra da ama: maitatzen bada,  
Sartuco guera ceruan

Mirandek ez bezala, Iparragirrek bakea eskatuz egiten du bere aldarria. “Jainkoa eta lurra” bertsoaperaren faksimila Angel Kruz Jaka Legorbururenean ikus daiteke (*Iparragirre bere heriotzaren mendeurrenean*, Donostia, Donostiako Aurrezki Kutxa, 1982). Iparragirrerren testu honen berri Xabier Kalzakortari zor diot. Nire eskerrik onenak berari. Ama lurraren azterketa estetiko-ideologikorako ikus Kortazar, Jon, “Ama lurretik irudimenaren eremura XX. mendeko euskal poesian”, *Litterae Vasconicae* 7 (1999), 177-187.

<sup>36</sup> Ikus Azurmendi, Joxe, *Zer dugu Orixeren kontra?*, Arantzazu, Jakin, 1976, 97.

<sup>37</sup> Ikus, Villasante, Luis, *Historia de la literatura vasca*, Aratzazu, Jakin, 1979, 419. *Barne-muinetan* liburuko teologia dela eta, Orixeren aldeko iritzi baterako ikus Akesolo, Lino, *op. cit.*, 193-194.

# IRUDIZKO LOKUZIOAK HIRIART-URRUTIREN KAZETALANETAN

*Xabier Altzibar\**

---

\* *EHUko irakaslea.*

## LABURPENA

Lan honek irudizko lokuzioen multzo bat eskaintzen du, 200 ingurukoa, Iparraldeko idazle eta kazetaria zen Hiriart-Urrutiren (1859-1915) prosa erretorikoan bildua. Lokuzio horiek ahozko tradizioaren bizia eta idazlearen lantzearen ondorioz hizkuntzak hartzen duen espresio indarra erakusten dute. Gure kazetaritza zahararren joera da, esamolde eginak eta irudizko mintzaira erabiltzekoa, irudiek indar berezia dutelakoan. Joera hori etsenplu eta baliagarri izan daiteke egungo idazle eta kazetariarentzat.

## RESUMEN

El presente artículo ofrece una muestra abundante de locuciones figuradas, unas 200, de la prosa retórica del escritor y periodista vasco norpirenaico Hiriart-Urruti (1859-1915). Tales locuciones muestran una gran potencia expresiva cuando a los recursos propios de la tradición oral se añade el cultivo de los recursos idiomáticos propios del escritor. El uso de las expresiones hechas y del lenguaje figurativo con el fin de obtener imágenes de gran impacto, fue un recurso muy utilizado en el periodismo de viejo cuño en lengua vasca. Esta tendencia pudiera ser también un modelo para los escritores y periodistas actuales.

## RÉSUMÉ

Le présent article offre un échantillon abondant – 200 exemples environ – des locutions figurées que met en œuvre la prose de l'écrivain et journaliste basque nord-pyrénéen Hiriart-Urruti (1859-1915). Ces locutions témoignent d'une grande puissance expressive, en particulier lorsque aux ressources propres à la tradition orale s'ajoutent ceux d'un écrivain soucieux de son style. L'appel aux expressions toutes faites et au langage figuratif afin d'obtenir des images fortes constituait un recours traditionnel chez les anciens journalistes en langue basque. Il se peut également que cette tendance constitue un modèle pour les écrivains et les journalistes actuels.

## SUMMARY

Also contained in the article are examples in abundance—some 200 in all—of the figurative phrases and expressions that peppered the rhetorical prose of Basque writer and journalist Hiriart-Urruti (1859-1915), from the northern side of the Pyrenees. These expressions generate a powerful expressiveness, resulting from the combination of the writer's own idiomatic resources and those of the oral tradition. The use of set phrases and figurative language to obtain images of great impact was standard practice in the older style of journalism in the Basque language and could well serve as a model for writers and journalists today.



## I. Hiriart-Urrutiren (H-U) irudi bidezko mintzairaz

1. Jean Hiriart-Urruti (1859-1915), xurien astekari *Eskualdunako* idazle nagusiak, prosa erretoriko eta estilo berezian idatzi zituen bere kazetalan eta istorioak, eredu edo erreferentzia argi bat eskainiz. Ondoko idazle eta kazetariak (Barbier, J. Etxepare, P. Lafitte...) haren mintzamoldetik eta, xehekiago, haren adierazmoldeetatik zerbait hartu zuten, zeinek gehiago zeinek gutiago, batez ere hasieran. Diogunaren erakusburu on dira Barbier-en hasierako ipuinak, *Eskualdunan* agertaraziak, eta, zer esanik ez, J. Etxepareren kazetalanak. Jean edo Manex Hiriart-Urruti zaharraz ari gara, noski, izen bereko iloba idazle euskaltzain bat ere izan baita, *Herria* astekariaren zuzendari izana, hain zuzen gurearen iloba (1927-1990).

H-Uk hizkuntzaren baliabide orotarikoak ustiatu eta jendearen ahoko mintzairaz baliatu zen bere mintzaldia adierazkortzeko. Prosa erretoriko honen ezauzgarrietarik bat irudizko mintzaira da. Hazpandar kazetariak jendearen ahoko metafora, konparazio eta, oro har, tropo gatzatu nahiz irudizko esapide egin edo lokuzioak baliatu zituen. Baita metafora ez oso gizarteratu edo ohikoak, edo konparazio kultoagoak etab.

Bere hegatsezko hitzaldia ehundu ahala, irudi bidezko adierazmolde finkatuoz josten du, zinez ugariak eta usuak baitira. Berezi politik mintzairari adierazkortasun handia damaiote eta beti mintzaldi edo diskurtsoaren harian hartzen dute indarra. Gainera, testuinguruan garbi eta xeheki uler daitezke, egileak berak sinonimo eta perifrasi bidez azaltzen baitie irakurleei hitz eta esapideon esanahia, mailebu edo kalkoetara jotzeko premiarik gabe, salbu hitz berezi edo teknikoetan.

Izan ere, H-U irakasle eta kazetariak kontzeptuak irudien bidez azaltzen ditu. Haren lumak ideiei eta pertsoneri bizia ematen die, hori baita irakasteko eta jostatzeko (nor jostatzen ote gehiago, irakurlea ala egilea?) modurik on eta atseginena. Hain zuzen, lehenagoko kazetari eta idazleek, eta gure egileak nabarmen, kontzeptu abstraktuak nahiz garaiko hizkuntz adierazpideak edo gauzen izen

berriak adierazteko hitz eta adierazmolde irudizkoak —gehienetan esapide eginak edo klisetuak—erabili ohi zituzten. Besteak beste, euskara errumes zelako hitz berezi edo tekniko zehatzetan eta, hein bat garbizale izanik, frantsesetik mailebatzeko uzkur zirelako. H-Uk *ohiko hatz* (E 1313) edo *zaharren hatz* erabiliko zuen eta ez *tradizio*, egun bezala.

Baina H-U berezia da, nekez duke parerik, irudi ugari eta korapilatuen erabileran usuan. Testua ehuntzean, irudimenez jostatuz, joscara berriak asmatzen ditu, irudi sareak osatzen, irudizko adierazpide orotarikoak elkarrekin lotzen, matatzaten (metafora hariak edo metafora jarraituak, hiperbole metaforikoak, konparazioak, ...). Gero, berdin hitzen esanahi desberdinekin edo esanahiaren bat-bateko aldaketarekin, orobat umore eta ironiarekin jokatzeko daki. Ondorioz, gauzak adierazteko modu berriak ekarri zituen, kazetaritzaren literaturtasuna bilatuz, noiz edo behin “kazetaritza literarioa” delakoaren tankerakora hurbilduz, nahiz mintzaira hori irakurleek batzuetan hain erraz ez zuketean ulertzen. Ariketa literarioa baita zenbaitetan H-Uren kazetaritza. Adib. “Sos berria dantzan” artikuluan sosak ez direla alferrik xahutu behar adierazteko irudi ugari erabiltzen du, izenburutik hasita. Bukaerako zatitxo bat baizik ez dugu adibidetzat jarriko:

“Sos berriak hoi du; beti edo ardura egarri. Eta edanak urtzen; gatza bezala, bardin bardina; arnoak baino zaluago oraino aguardientak; edaleari oro dantzan ari zaskola: burua, zangoak, ikusten dituen eta ez dituen guztiak, eta oroz gaineetik basoaren zolan *sos berria*; dantza guziaren hastapena.” (E 1142 “Sos berria dantzan”).

H-Uren ustez, itzuli bereziek (Ipar. *hizkuntza*), *idiotismes* direlakoek erakusten dute hobekienik euskararen garbitasuna edo jatortasuna. Nahiz, azterketa bat eginenez gero, itzuli horietako anitz agian ondoko hizkuntzetako antzekoak liratekeen. Nolanahi ere, itzuli, hizkuntza edo esapide eginok esku eta beso luzea zuten, dute haren kazetaritzan eta egungoan.

Nondik jaso ote zituen H-Uk erramolde horiek? Batez ere laborarien ahotik, familiarik-eta ongi ezagutzen baitzituen; gero, liburuetatik (Oihenart, Duvoisin, Zaldubi, *Fedearen Propagazioneko urtekaria*, almanakak ...). Baina jendearen ahotik eta liburuetatik hartu ez ezik, bermoldatu eta erreberitu ere egin zituen; eta bat baino gehiago sortu ere bai, hain segur.

2. H-Uren irudizko adierazpide horietako gehienak bederen hiztegiatan agertzen dira, bereziki *Orotariko Euskal Hiztegi*an (OEH); hiztegi ttipietan eta ez hain ttipietan oso guti, ordea. OEHn bertan ere batzuetan irudizko adiera markaturik dutela, baina ez beste batzuetan (ik. adib. *astoaren buztana*, *dutxulo*, *esku orotako makila*, *galtzak beteak*, *errainak hautsi*). Eta irudizko adiera (*fig.*) markatzea komenigarria dateke, nahiz xuxen eta xeheki egitea ez izan erraza. Gero, bat baino gehiago dira OEHn ageri ez direnak (*airera mintzo*, *buruko ilei lotu*). Kontuan izan



Hazparne. 1982.

bedi, gainera, H-Uren idazlanetatik % 15 ingurutsua baino ez dela berrargitaratu antologia liburuetan. Aitortu behar da, hala ere, OEhk haren adibide ugari jasozten dituela.

## II. Irudizko lokuzioez

1. Egungo fraseologia ikerlarien arabera, lokuzioa hitz multzo batek osaturiko egitura da, esanahi batasuna edo bakarra duena —hitz batek konmuta dezakeena—, eta arruntki perpaus gisa funtzionatzen duena (Corpas: 1997: 88-89). Lokuzioak egonkorrak dira joserik eta esanahiari dagokienez, kohesio semantiko eta morfosintaktikodunak. Horren proba gisa, lokuzioa osatzen duen hitzen bat

ordezkutzen bada, haren antzeko beste bat ordez jarriz, ez dago ja lokuziorik; hitzen bat kentzen edo gehitzen bada, orobat; hitzordena ezin alda daiteke etab. Lokuzioek unitate fraseologiko edo fraseologismoen atal bat osatzen dute, kolokazio, paremia eta hizketa formulekin batera. Ikerlari aitzindarietarik den Zulua ga aipatuaren arabera, unitate fraseologikoez bi hitzez, gutienez, osaturikoak izan behar dute. Horien ezaugarriak dira: maiztasuna, instituzionalizazio edo eman-kortasuna, egonkortasun edo finkotasuna, esanahi berezitasuna (*idiomaticidad*) eta aldakortasuna (Corpas, 1997: 19-32).

Lokuzioak kolokazioetatik bereizi ohi dituzte fraseologia ikerleek. *Kolokazioa* osatzen dute bi hitzek, elkarrekin josirik edo elkarri sintaktikoki loturik joan ohi direnek (*gerla piztu*). Lokuzioak eta kolokazioak ez dira enuntziatu osoak. Bai, ordea, *erran*, *errefrau* edo *atsotitzak* eta *hizketa formulak*. Lokuzioak izendatzeko euskaraz hitz nahikoa zabal eta orotarakoak erabili izan dira: *esakuntza*, *esakune*, *erramolde*, *erranera*, *erranairu*, *esapide egin*, *esakera*, *itzulika* ... (baita *lokuzio* ere, adib. K. Iza-girrek: *Euskal lokuzioak*, Hordago, 1984); gazt. *modismo* erabili zuen Azkuek (*EY*, III).

Zorionez, fraseologia ikerketak gorabidean dira Europa mendebaldeko hizkuntza nagusietan; ondorioz, euskaraz ere bilduma eta azterketa gero eta zorrotzagoak egiteko aukeran gara (euskal fraseologiaren historia eta oinarriez ik. Kalzakarta, X., *Euskara*, 2001, 1, 73-87).

2. Lokuzioak funtzio eta kategoria gramatikalen arabera bereizi ohi dira, taxonomia zehatza egiterakoan hizkuntza mota desberdinak aintzat hartuz. Gaztelaniazkoetan, adibidez, preposizioek esku luzea dute. Euskarazkoetan ondoko multzoak bereiz daitezke handi-handika:

a) izen eta izenondo lokuzioak. Azken hauen artean badira, adib., izen + izenondo egiturakoak (*oilo busti* ‘koldar’, *mutur zuri* ‘mizkin’). Multzo honetan koka daitezke ere izenlagun (-ko) + izendunak (*bi soseko* (*gizonak* /...),

b) aditz lokuzioak. Horien arteko askok aditz hautazko eta hautagarria —zenbaiten artean— dute. Beste askok, osagarri zuzena agertzen delarik, ezezko perpausak osatzeko joera (*Ez du balio pipa bat tabako*).

c) aditzondo lokuzioak (*irinez ez bada*, *zahiz* ‘nolazpait’).

Sintagma batzuez osaturikoak ere badira, konplexuagoak. Haietako zenbaitek gaztelaniazko lokuzio klausalen (ap. Corpas: 109-110) itxura dukete (iritzi bat edo proposizio bat adierazten dute eta maiz izen + aditzaz osatuak dira, adib. *odola gatzatu*). Beste batzuk, bereziki erran eta lokuzioetatik eratorriak, kalifikatibo baliodunak dira. Adib., *norat haize harat itzul errex* (Ik. *Haizea itzul*) edo “*nor gira gu*” ‘harroputz’, H-Uk maite duena (ez halakoa izatea, ordea):

“Iduri zuen, apezaren erranak onesten zituztela orok edo gehienek, noiz eta ere mutiko gazte bat *nor gira gu*, ez direnak badirela iduri duten urguluntzi hetarik bat xutitzen baita, besoa goiti altxatuz: “*Je demande la parole*”. (E 1224 “Han hemenka”).

3. Forma aldetik, lokuzioek ezaugarri fonikoak izaten dituzte, funtzio mne-moteknikoaren euskarri (aliterazioa, bukaera hoskidetasuna, egitura erritmi-koa...). Adib.: *zinak eta minak*. Esaldi neurtuak eta biribilak dira. Osagaien aukera, mugatua izan ohi dute: bikoteak osatzen dituzte maiz, sinonimia (*ahurra bildu / hetsi*), antonimia (*dutxuloa hetsi / ideki, agortu / bete*) edo polisemia harremandu-nak (ik. *ahoa kurutze* edo *bere buruari zu erran*).

Lokuzio batzuek hautazko formak dituzte: zenbaitek, hautagarriak baina nahi-taez hartu beharrekoak; beste batzuek, har ditzaketenak edo ez. Hautazko aldae-rak dituzte, adib. artikuluek (*-a / bat, batzu + izan*) eta izenordainek (norbaiten *larruan / buruan / baitan*, adib. *Bere baitan sartu*, E 1270, ‘gogoeta egin’; *barne egosi, buru ahul*, non *barne / buru / larru* etab. ‘pertsonea’).

Lokuzioak malguak dira formaz: atribuzio funtzioa nahiz predikziozkoa har dezakete (*kutxalapil handia izan, kutxalapil handiko legea*). Lokuzio askok, H-Uren anitzek bederen, harridurazko aldaerak dituzte (*Zer X!* egituradunak: adib. *Zer boketa!*). Izen edo aditz jakinei lotuta erabili ohi dira batzuk. Bestalde, aditzaren elipsia gertatzen da maizkara.

4. Lokuzioak esaldi egin eta finkatuak (eratuak edo instituzionalizatuak) dira. Baina ez aldaezinak urteen ariaz eta bortxaz, eta beraz formaz alda daitezke eta desautomatizatuta erabil. Hori da, uste dugunez, H-Uren lokuzio batzuen kasua. Adibidez:

(Combes ministro nausiar) “adarrak barnerat sartu zitzaizkon (alta ez delarik barea), hiru deputatu bere aitzinera jinak ikustearekin.” (E 831).

H-Uk gogoko ditu lokuzio eta erranetik eratorririko (berak eratorraraziri-ko?) *-le, -zale, -kor* atzizkidunak: *ile alde perekatzale, makila bi buruetarik atxikizale, ogi baino gasna gehiago hitzemaile* (*Ogi baino gasna gehiago hitzeman* erranetik); *begietarat errauts emaile, bertzen buztanaz uli haizatzale, haize alderat erorkor,...*

Jendearen ahoko lokuzioen altxorra ezagutzen baina hegatsa askatasunez eta gogoaren arabera dantzatzen duen idazlea da. Hortaz, bihurtzen eta bermol-datzen ditu. Esaera edo lokuzio bat finkatua edo desautomatizazioaren ondorena denetz jakiteko, hiztegiek eta esaera bildumek lagun dezakete, hein bat. Idazle batek darabiltzan lokuzioek, bilduma honetakoek, hots!, jartzen diguten auzia da: ea hizkuntzan finkatuak diren edo ziren, ala desautomatizatu ondoren egileak odolberrituak edo, bestela, asmatuak.

5. Esanahiari dagokionez, lokuzioak pentsamendu analogikotik (sinesteak, mito-ak edo herri-jakintza) eratorriak dira. Jakintzan eta esperientzian oinarrituak, asko;

adib. abereen jokaera gizakiekin konparatzen dituztenak. Irudi konbentzionalak erabiltzen dituzte (metaforak, sinestesiak), emankorrak eta hedakorrak dira (metonimia, sinekdoke, antonomasia, konparazio, eufemismo, hiperbole bidez). Tradizioz lokuzioak metafora hil edo izoztuak direla onartzen da, hots, jatorrizko esanahia galdu edo hein bat bakarrik gordetzen dutela; esanahi erdi gardendunak, hortaz.

Esanahi konnotatiboa izan ohi dute. H-Urean badira konnotazio estilistikodunak (adib. estilo apal edo lagunartekoari dagozkionak); gizarte konnotatiodunak (gizarte konbentzioak erakusten dituztenak). Ugariak dira konnotazio adierazkorrekoak, esaterako hiztunaren emozioak -solasgaiari buruz- adierazten dituztenak: umoretsu edo irrigarriak; eufemistikoak, kortesiagabeak, gutiesgarriak edo are iraingarriak (*apo kixkil*). Idazlearen estilo mailaren eta entzuleekiko mintzabidezko harremanen berri ematen digute.

6. Aipatu dugunez, lokuzioak esanahi idiomatikodunak dira, hitzez hitz ezin ulertuzkoak, nahiz esanahi figuratiboa ere baduten hein bat. Hots, jatorrizkoan zuenaz bestelakoa hartu dutela. Irudidunetan, adib. bilduma honetako anitzetan, garbi ikus daiteke hau; irudizkoak hautatu baititugu, irudiak beti ere indarra duelakoan. Baina irudi gabeko lokuzioak ere badira: (*X eta Y*) *biga izan* ‘elkarrekin zer ikusirik ez izan’ (“Sumetitzea eta ezinbertzez behin jasaitea, biga dire”, E 1271). Eta ez dira beti irudizkoetatik bereizerrazak: *bazterrak nahasi* ‘iskanbila sortu’, *amen erran* ‘onetsi’ (“lege tzarrari ez *amen* erraitea”, E 1272), *zinak eta minak* ‘estuusun handiak’. Erdi irudizkoa, erdi ez irudizkoa edo figuratiboa dirudi *Urtearen bi buruak* (*ezin*) *elgarretaratu* lokuzioak, *Astean ortzirale bat baino gehiago izan*-en esanahi bertsukoa:

*Urtearen bi buruak* (*ezin*) *elgarretaratu*: ‘urte osoan bizibide aski (*ez*) izan, urtearen bukaerara bizibidez edo diruz heldu (ahal izan / ezin izan)’. Adiera bertsukoak dira ondoko atsotitzak: *Hertzeak luze* (*ditu*) *urteak* (H-U), *Urteak ahoa luze* (Garate 13246), bizk. *Urteak adarrak luze* etab. ‘urtean sos anitz behar bizitzeko, bizitzekoak erosteko’. (Egilearena ote lokuzio ongi asmatu hau?).

“Ehun urtetaraino herrestan bizi balira ere, hil arte beharko dute mutil neskatoen erretretarena eman. Edo egon shirik, ez mutilik, ez langilerik gabe. Berek egin ahala baino lan gehiagorekin borroka, leher egin,...edo uko lanari. / Ez da hor erremediorik, errainak azkar ez dituen nausiarentzat. / Eta zonbat ez da, urtearen bi buruak ezin elgarretaratuz debrua ikusten dutenik?” (E 1266, 1911-7-14, “Ezin lothuz”).

7. Beraz atsotitzen mukan daude lokuzio batzuk. Erranetikakoa da, adib. *Otsoa artzain* ‘etsaia (gorri-beltzak) onen (katolikoan) begirale edo zaintzaile’. Oihe-narten atsotizetik eratorria (Prov. 382). *Eskualdunak* eta H-Uk maiz erabili zuen irudi eta esapide hau (“Ongi loake artaldea otsoa eman baladi artzain”, E 261), gero Oxobik ospetuko zuena.

Erranetatik eratorririko batzuk kalifikatibo baliiodun perpausak dira, esan dugunez (*norat haize harat itzul errex* (E 1206). Ik. *Haizea itzul.*). Erranen itxura dute lokuzio frankok, esaterako *Zalditik astora* edo *Zauriaren gainean pikoa*. Gure idazle kazetariak mintzaldiari indarra emateko darabiltzan atsotitz anitz metaforikoak dira, gainera. Izan ere, askotan ez da erraz erranak edo hizketa formulak lokuzioetatik bereiztea, euskararen kasuan behintzat (ik. adib. *Bertzen buztanaz uliak kendu, Makilla xuritu, Urak bide egin*). Batzuetatik besteetara bidea erraz egiten dutela dirudi.

8. Hiperbole eta litotes batzuk hizketa formulen mugakide dira. Zerrendan kokatu ditugu hiperbole batzuk: (*Tu bat / Gatu hil baten buztana / Pipa bat tabako*) (*ez / baino gehiago ez*) *balio*; *Ile ondo bat* (*galdu / higitu*). Zenbait litotes ere bai (ezezko forma hartu ohi dute): *Ez zen su zariona* ‘eztia, leguna zen, ez zen batere sutua’, *su erion* kolokazio edo lokuziotik eratorria datekeena. *Ez zela gerla pizteko itxindi gorri bat* ‘ez zen pizgailu edo pizgarri bat’ *itxindi* tropotik eratorria dirudi. OEH: “*Itxindi* 1º (L-ain, Bonap. Observ.), tizón, tison.(...). 3º (BN-ald), fomento, estímulo, fomentation, stimulation” (Azkue), Duvoisin aipatuz. *Txindia baiño gorriago* más rojo que la brasa (Azkue, *EY* III 254 Brasa). Ondoko adibidean biak ageri dira:

(euskararen aldeko petizioneaz) “Zer zitaken jaun hoitarik zenbeitek sinatu dutenean, petizione hura? Berezi azken izendatu hoiek (Haulon eta Berdoly jaun zenatorrek), eta goragoko bertze gorri zahar, hoik iduri batzuk sinatzeko heinean egin petizionea, ez bide zen su zariona gure eskuara maitearen eta gure sineste are maiteagoaren etsaiari buruz!! / Dugun aitor ez zela gerla pizteko itxindi gorri bat. Ez alafede ez! Ja egun hogoi erran duguna, eztia zen biziki. Ahal bezen ezti eta legun eta umil, espres egina, prefetaren bihotzaren atzemaiteko (hain uzterra izakiz egungo prefeten eta hek idurikoen bihotza!” (E 834, 1903-6-19 EH “Eskuararen alde”).

Hiperbole metaforiko irudimentsua da (finkatua?, idazlearena?) *Uraren gainean su erion* ‘su eta gar jardun’:

“bertzerik izanen baitzen oraino apez arrotz bipil, uraren gainean su dariola orenak mintza litaken batek ez balauku huts egin, igande goizean depexaz ukanik aneia baten hil berria” (E 1283).

9. Bilduman bazter uzten ditugu, alde batetik, kolokazioak. Ez zalantzarik gabe, ordea, batzuetan: adib. *Kutxalapil handia* ‘gorabehera handia’ delakoak badu kolokazioaren itxura. Eta bestetik, enuntziatu fraseologiko osoak: paremiak —berezi erranak— nahiz hizketa formula ohikoak, esapide oso eta finakoak baitira. Kendu ditugu beraz hizketa formulak eta gisakoak (*Hi bahiz ni ere ba, Xarrenak amur, Baduk hoberik!* etab.) baita bestelako esapide irudi gabeko edo esanahi gardenekoak (adib. *Hori dakiena ixilik dago* (E0 16 1907) ‘inork ez daki’; *Bizi denak ikusiko du* (zerbait), *Bizi denaz ez da etsitzeko* (E 833) etab.

Hala ere, lokuzioak eta hizketa formulak ez dira beti elkarrengandik bereizten errazak, adib. *leher egin* eta zin egiteko formula itxurako hau:

“Ba, ba; leher egin dezadala baietz” (“Adema apheza”, E 1908, in *Mintz.* 163).

Bereizketak egiten hasita, nola bereiz lokuzioak hitz elkartuetatik? Batzuetan ortografiak laguntzen badu ere (*buruarina* hitz elkartua, *buru ahul(a)* lokuzioa), zer da *uzkipitxer*? eta nola idatzi behar da?). Lokuzioak kategoria eta gramatika-gailu askotan barne baitira (lokailuetan adib. : *azken beltzean* ‘azken buruan’).

Bazter utzi ditugu ere, alde batetik, hitz bakarreko metafora arrunt edo gatzatuak; bestetik, metafora hariak edo jarraituak —erranetatikoak edo haien bihurtatikoak eta egilearen burutik sortuak (?). H-Uk maite duen *bare* / *karakolaren* irudian agertzen dira hitz bakarrekoak eta metafora-hariak (ik. *Barea* / *karakoila izan*).

Hitz bakarreko zenbait, arruntak, ugari zerabiltzan (*asto*, *urde...*), kalifikatibo itusgarriz belzten baitzituen etsaiak gure egile oilategiko haga bezain mihi garbi-koak. Hitz bakarreko metafora gatzatuen artean usuak dira: *aztapar* ‘abere baten atzapar edo erpe; gizaki baten esku (gaitzespenezko esanahian)’ “governamenduaren aztaparretarat (...)”, E 1268, 1911, “Lege ahula”); *beheitikoa* ‘beherakoa’, bereziki ekonomian erabilia, diru untziaren edo jendearen gastuen isuria adierazteko (E 840, 1903-7-31 “Beheitikoa”, E 1900-5-25 “Goiti...beheiti”; geroago Saint-Pierrek-eta ere; *botiga* (*X eta botiga*, E 1265) berez ‘denda’, ‘botika’ (farmazia) baina irudizko adieran ‘gauza nahasia’; *harginbeltz* ‘framazon’ (E 1893-3-24, “Bat gutiago”, apud OEH), aurreragokoek ere (M. Elizanburu etab.); *julufria*, zer *julufria!* (E 267, E 1240 “Emaztea”) ‘krabelina’ berez, ‘bonne pièce’ irudizko esanahian (Lhande); *leizor* ‘listor’, ‘erlabio’ / *l(e)izafin* fr. *guêpe*, g. *avispa* ‘zizatzaileak, pozointsuak, alfer bizkarkinak, zurruburrakeriazaleak’ (EO 1905-8-18; E 1145 “Jende xehearen etsai”); *xapeldun* eta *bonetun* (E 1910-12-2); *ziliporta*: *Zer ziliportak!* ‘zipristina’ berezko adieran, politika eta gizarte kontuetan, irudizko adieran ‘ustelduraren ondorioz norbaiten gainera erortzen diren tantak’ (E 852 “Orotarik” art.); *zimiko* ‘min edo kalte’ (“begietarat errauts eta sakelan zimiko baizik”, E 1266; “Nausiek zimiko gaitza dute hor jasaiteko”, E 1265).

Bazter uzten ditugu ere, noski, egileak berak sorturiko (?) metafora batzuk, adib. hiritar gazte *ostoila*, hots, *ostoila* bezala aldakor dena (EO 42 1907-10-18); *gizon-xori* gazt. aviador, E 1259). Orobat pertsonifikazio batzuk, adib. *Jaun Gose*, *Andere Egarri* (“Adéma apheza”, in *Mintz.* 163).

10. H-Uren irudizko lokuzioen bilduma hau, hark erabilienetarikoenen –ez guztien— artean osatua da. Sartu ditugun lokuzio gehienak hizkuntzan finkatuak dira: metafora, metonimia eta, oro har, tropo gatzatuak eta hiztegitratuak (sinek-doke, eufemismo, hiperbole, litotes, grafismo, antonomasia...). Arruntak edo oso



erabiliak diren batzuk aipatu baizik ez ditugu egin azken iruzkinetan (adib. *lepoa eman* ‘jokatu, apustu egin’, (*zangopean / zangoen azpian*) *eman*. Ik. IV. Eraskinak).

Estereotipo-konparazioez den bezainbatean, anitz dira euskaraz eta anitz dauzka gure idazleak, bereziki ironiko eta hiperbolikoak. Konparazio hiperboliko (*zerbaitez*) (*ala*) *jazko haizeaz berdin axola*) eta litotes batzuk sartu ditugu; ez denak, ordea. Zeren “konparantza fraseologiko” finkatuak (ik. Kaltzakorta, X.: 2001: 80-82) multzo berezia osa baitezakete. Adib. *ihia bezen xuxen* eta *saltsa (bezain / bezala) apaindua*.

”Bide bat ia bezen xuxen” (E 1256 “Soldadoak malobretan”).

“diru sartze-jalgitzeak ia bezen xuxen egiten diren etxe batean”(EO 43, 1906-10-26 “Almanakaren saltzaileeri” ‘E.O.ren buru-egilea’).

”*un Monsieur*” saltsa bezala apaindua, jaun fina iduriz biziki.” (E 1220).

Lokuzioen finkatze maila probatzeko, maiztasuna da gailuetarik bat. Bilduma honetakoak gutienez bi adibidedunak dira; salbu hiztegieta, esaera bildumetan etab. lokuziotzat ezagutuak direnak, edo beste euskalkietan baliokide zuzenak dituztenak. IV. atalekoak (Eraskinak), ostera, adibide bakarrekoak dira eta maiztasun gutxiagokoak, iduriz bederen. Lokuzio batzuk egileak sortuak ote diren ere ez dakigu ziur, batez ere adibide bakarra aurkitu dugun kasuetan. Galdera zeinuaz markatuko ditugu horiek.

11. Ondoko urratsak jarraituko ditugu lokuzio bakoitza zerrendaratzean: lehenik lokuzioaren forma, *negritaz*. Parentesi artean ezarriko ditugu aldagarriak edo aukerak: batzuk lokuzioak berezko ditu, nahiz bat edo beste aukeran izan, eta horiek ere negritaz ezarriko ditugu, lokuzioaren formaren parte direnez gero. Parentesian ezarriko dira ere, letra etzan arruntez baina ez negritaz, lokuzioaren formaren parte ez izanik, lokuzioak osagai bat behar duenean edo har dezakeenean (komunzki izenordainen bat: *norbait*, *zerbait*,... euren kasuekin: *norbaitez*, *zerbaitez*, *norbaiten*, *norbaiti*...), edo hartzeko joera duenean, lokuzioak maiz aditz jakinak hartzeko joera baitu. Parentesi barneko hautazko formak –derrigorrezkoak nahiz balizkakoak— / zeinuaren ezker-eskuin agertaraziko ditugu. Eten puntuen bidez beste aukera batzuk ere badirela adierazten dugu.

Lokuzioaren formaren ondoren H-Uren testuetan duten esanahia ezarriko dugu, geure erara azalduta; bai eta Azkue, Lhande eta OEHN (XII. liburukiraino soilki, hots, *Oal*-eraino) agertzen diren esanahien azalpen eta adibideen lekukotasunak. Hain zuzen, egileak berak azaltzen du garbien lokuzioaren esanahia testuinguruan. Baina ohartarazi behar da H-Uren testuetan dutenaz gainera beste esanahi batzuk ere izan ditzaketela. Komenigarria iritzi diogu ere, batzuetan, aditzera emateari egileak zergatik edo zer adierazteko darabilen bere diskurtsoan aipatu lokuzioa.

Ondoren testu edo pasarteak ageri dira, hitzez hitz, ahalik eta osoen, lokuzioa ongi ulertzeko. Pasarteon aipuak edo nondik hartuak diren parentesi artean jar-tzen dugu, ondoko hurrenkeran: lehenik astekariaren edo liburuen izenburuak, laburturik: E (*Eskualduna*) edo EO (*Eskualdun Ona*); *Mintz.* (*J. Hiriart-Urruty: Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin, 1971, P. Lafitteren antologia); *Zez.* (*Zezenak Erre-publikan*, Jakin, 1972, P. Lafitteren antologia). Ondoren agerraldi edo lumeroa, gero data, eta batzuetan saila (adib. “Eskual-Herria”, laburduraz EH) eta artiku-luaren izenburua. Testuak egungo ortografian ezarri ditugu. Azkenik, kasu ba-tzuetan iruzkinen bat erantsi diegu ondotik edo aurretik, gehientsuetan lokuzioa zein erranetatik etor daitekeen edo zer tropo mota den adierazteko.

12. Bilketa hau euskal lokuzioen altxorra osatzen eta gordetzen laguntzeko asmoz egina da, edota toki edo idazle batzuen eta besteen artekoak elkarren arte-an konparatzeko ekai batzuk eskaintzeko, ustez euskara hobeki ezagutaraztea denon egitekoa den. Eta jendearen ahoko irudizko mintzaira idazle eta kazetari bikainei baliagarria izan bazaie orain baino lehenago, jokaera horretatik egun ere zerbait ikas dezakete kazetari, idazle nahiz euskara ikasleek, eta, zergatik ez, poli-tikariek. Azkenik, gure egilearen prosa eta irudizko mintzairari ohartarazteko, egun oraindik eskerrik inor gutxik dioen arren.

Bilketa eta azterlan –guztiz bururatugabe— honek haren lokuzio ez irudizko-enarekin batera, euskal lokuzioen biltegia hornitzen eta haien esparrua finkatzen lagun dezake. Komeni da, beti ere, lokuzioak kolokazio, paremia eta ohiko for-muletatik bereiztea. Eta formaren aldetik finkatzea: zein diren jendearen ahoko-ak, zein egileak aldatu-bihurrituak etab.

Beste alde batzuetatik ere badira aztergarri lokuzioak: kazetariaren diskurtso-aren xede, jarrera eta irakurleen harreraren aldetik; erakusten duten munduaren ezagutza eta pentsamenduarenetik; tropo moten aldetik; hizkuntz-, gizarte-kon-notazioenetik (anitz dira laborantza eta abeltzaintza giroko gauzak aipatuz, esa-nahia aldatzen dietenak).

Bilduma erakutsi baino lehen, *Milesker* handi baten zor gelditzen natzaie: Adolfo Arejitari, bizkaierazko baliokide batzuk niri ezagutarazteagatik, eta berezi-ki Xabier Kaltzakortari, bildumari eginiko ohar eta duda-muda batzuk argiago ikusten laguntzeagatik.

### III. Hiriart-Urrutiren irudizko lokuzioen bilduma

*Ahoan kurutze* (*egin*): ‘gose (izan), jan gabe (egon); gorriak ikusteko menturan (izan)’. “*kurutze*. 8º *Ahoan kurutze*, sans manger” (Lhande). (Hein bat antzeko adie-rakoa da *ni ahoan kurutze utzi naute* ‘ahoa bete aginegaz / musututs utzi’, Azkue *EY* III 254 Burla; ‘Ezer gabe’, Inza ap. OEH.). *Ahoan kurutze egin* darabil maizenik H-Uk:

“harat asko eta asko gauza saltzen zuketean laborari eta negoziant, fornizale guziek egin bezate ahoan kurutze.” (EO 1905-3-31).

(Erretreta legez, langile gizonkiek urtean 9 libera eta emaztekiek 6 libera emate aldera, gero 65 urterekin erretiroa kobratzekotan) “Eginen dugu arte huntan ahoa kurutze; eta legea jasanen, hori galdatzen zuten langile hiritar buru beroenek berek ez badute ur handirat aurdikitzen, ikusirik on baino kalte gehiago dutela hortarik, berek.” (E 1267).

“Zortzi egunen asean egun batez eltzean.—Eta bihar?—Ondarrak milika.—Etzi?—Hexurrak xurga.—Etzidamu?—Ahoan kurutze...edo auzora eske. / Harri-garri da nolakatzen ari den mundu hau. Orok diogu, denbora hitsak direla hauk; ez dela gehiago nehoentzat bizitzerik; irabazpideak oro ttipituak direla; hots, debrua ikusi behar dela, *ezin helduz, ezin helduz, ezin nehondik helduz*.” (E 836, “Ezteiak goizik”).

**Ahurra (bildu / hetsi):** ‘dirurik xahutu ez’.

“Ditaken gauzarik hoberena da, ba eta ez-deusena, bertze asko bezala, eta gehiago, sos berria. / Ea noren eskuetan den. Ahurra hetsirik atxikitzen dakitenei emozute hartarik den gutiena; zoazi geroxago berrien galdegitera. Ikusiko duzu zahartua, ontua; eta beti ontuz joaki arno *berria*, edo berri izana, sotoan egonez ontzen den bezala. / Ahuraren biltzen eztakienari emozu jasan ahala eta gehiago sos berri, gaindika...eztuzu zeren urteren, ez urtearen, ez astearen buruan haren berririk galda, nahiz beti bardin *berri* den. Joana da zalu, eta urrun.” (E 1142).

**Airera mintzo (nor bait) (nor adizkia):** ‘txantxetan hitz egin’. Ezezko perpausak osatzeko joera derakusa: *Ez (n(a)iz / gira / ...)* *airera mintzo*. Erdi irudizkoa. Ez bide dator OEHN, nahiz lokuzio hau egun erabilia eta beraz aipagarria den.

“Ez girela hemen airera mintzo, ez eta deus emendatuz (...) frogatzeko, (...)” (E 1206).

Antzekoa da **Aireko eleak** izen lokuzioa ‘txantxetako hitzak’:

“Aireko eleak, adixkide irakurtzalea, hauk oro?” (E 1214).

Edo **Aireko solas**, maiz ezezkako forma hartzen duena: *Ez da hau aireko solas bat*.

“Sei urte du egiten dutela operazio hori. Jende gaztearentzat balio duela iduriturik dugu hemen aipatzen. / Beharbada norbeiti zerbitzu egin dezoke guk gure begiz ikusi dugunaren jakiteak. / Ez da hau aireko solas bat; garbitasun gehiago nahi lukenaren argitzera gaude beharrez.” (E 1273 “Bariza khen”, «Zer eta zer» saila).

**Ametsetako lukainka:** ‘ustekabeko norbaiten edo zerbaiten etortzea’. Harridurazko perpaus gisa ager daiteke, edo izen sintagmaren ardatz gisa.

“To! Ametsetako lukainka! Nork behar zuen uste solas huntan Errepublikak deus egitekorik bazuela! Zera da hori: azeriaren buztana.” (E 835).

(langileen erretretaz) “Ezta erraiteko baizik, nola mintzo diren. / Agian langilek eta langilen ona zinez gogoan dutenek uste baino hobeki joanen dire gauzak. Bainan ez ahanztz: ametssetako lukainka hutsean egundaino nehor guti gizen du dela. / Erdi makur baizik ez litake, gizen baladi urdea ere ametssetako zahiz, bainan zer eztautzue janen eta zonbat urtez?” (E “Zerga berria”).

“*Ametsetako lukainka*. La saucisse du rêve. Se dice de la venida inesperada de una persona o de un suceso” (Duvoisin: 1878: 144). Duvoisinengandik jaso du Azkuek, hura aipatuz: *EY*, III, Atsotitzak, 1905.a. Duvoisinen baitarik ezagut zezakeen agian H-Uk ere.

***Apo kixkil***: ‘buru ahul, nortasunik gabeko’. “*apho* (BNc), apocado, falta de caracter, embarazado” (Azkue). “*apho* 2º N. (A.) faible de caractère.” (Lhande). “*apo* 1. Sapo (usado frecuentemente como insulto)” (OEH). “*kiskil*. 1º adj. chose de peu de valeur, de rebut, branche sèche tombée d’un arbre, haillon, etc. *Su gaitzat kiskila bildu*, ramasser des branches sèches pour combustibles; —2º *au fig.* se dit de personnes dignes de mépris, coquin, gredin, vaurien, vilain, canaille” (Lhande).

“(…) lagun gaztexago batek erraiten dio: “Haatik horrek, Manez, tapatu dauk. —K....k hiretzat, apo kixkila.” (E 1174, «Zer eta zer» saila, “Apho kixkila” art.).

Barbierrek ere (hain zuzen H-Uren ikasle izanak, idazkeran besteak beste), erabili zuen:

“Apo kixkila! Jin dadila jin Oihanburura!” (*Supazter xokoan*, apud OEH).

(***Apoak / igelak / ? bareak***) ***ire(n)tsi***: ‘nahigabeak, laidoak etab. jasan, atsekabea agertu gabe’. “*iretsarazi* (Sc) 3º aguantar una afrenta, supporter un affront” (Azkue). “*irets*. 8º. devorer, endurer des chagrins, des affronts sans rien laisser paraître.” (Lhande). “Hori irents dezakeenak apoak eta suge biziak ere irentsiko lituzke” (K. Mitxelena, MIH 391, apud OEH).

“egungo egunean ongi zerbeit egin nahi duenak igel onik behar duela iretsi, eta arteka hertsu askotarik iragan. Egiazki!” (EO 1905-12-29).

“Ez da erraiteko baizik, halako igel, apo eta bare batzu behar ditugula guk ere zenbeit aldiz iretsi” (*Zez.* 81).

***Astean ortzirale bat baino gehiago*** (*izan*): ‘estualdia (e. pasa, bizibidez edo diruz ezin helduz’).

“Omen baitire, bana bertze, hamazazpi gizonentzat ostatu bat daukaten herriak, nondik behar du bildu hetarik bakotzak patantarenik ere? / Astean or-

tzirale bat baino gehiago ardurago ahal dituzte heiek, gutienetik biga. Eta ostatu hetan egun eta gau, sakelak hustu arte, tripa ezin betez dabiltzan gizonen emaztek eta haurrek...zonbat ortziralere ote dituzte astean? Zonbat eta zoin luze garizumak urtearen buru batetik bertzera?” (E 1237 “Ostatuak”).

Erran batetik aterea dirudi (“Aste bakotxak, bere ortzirala” ‘Bizitzan beti nahigaberen bat’, G. Garate, 27.173 *Atsotitzak*, 1394. atsotitza). Halaber *Astean zonbat ortziralere!*. Aipatu atsotitzetik datorke *Ire andreak astean bi ostiral* lokuzioa ere (G- Errezil, Azkue EY III 322 Perezoso).

(*Astoaren / gatuaren / zakurraren*) *buztana* : ‘axola edo balio gutxiko zerbaite’.

“*Clemenceau* eta infanteria guziaren zurruburrakeriez beti eta beti zinkurina beretan burua, begiak eta zintzurra nik eta zuek hemen higitzea bezen laket ahal da, zer nahi izanik ere, holako zerbeitez eta azkenean astoaren buztanaz egitea solas, elgarrekin. Ala ez ote?” (E 1142, “Sos berria dantzan”).

“Bi urtez, egunetik has, luma hunek hemen ez du izkribatuko ez *auto*, ez *oto*...are gutiago *astomobil*; bainan ba beti *beribil*. Hitzeko gizon ez bagira, zuek oroitaraz. Berri heltzalek, behar orduan, guk bezala egin balezate, lan bat gutiagorez otom...utur eta asto buztan mozten artzea.” (E 1909-4-30).

“gatu hil baten buztana balio ez duen pegeseria” (E 230; *pegeseria*: gazt. *bagatela*).

Ik. (*zerbaitez*) (*ala*) *zakurraren buztanaz axola bera*.

*Azeriaren buztana*: ‘etsaiaren izaera eta azturak, gordezakakoak baina ezin estaliak’. D. Inzak Zigako esaera bat jasotzen du, 2117.a: “*Axeriek buztana ezin altxa (gorde, izkutatu)* (B). Azari dela ezin estali, eta berdin ajeen bat duenak ere” (*Nafarroako euskal-esaera zarrak*, 1974; apud OEH). Antzeko esaera batean oinarritua dago esapide metaforiko hori.

*Progrès de Biarritz* kazeta errepublikarrak euskara eta euskaldunei buruz esanak ironia eta sarkasmoz komentatuz dio gure egileak:

“Eta gero?...Gero, gehiago dena, egizue begiz itzuli bat Eskual-herrian: zer diren eskuaraz mintzo diren eskualdunak. / Halako zozo, buru gogor, itsu, nehor ezin hurbildu batzu. Behinik behin Errepublikarentzat atxikimendu izpirik ez dutenak. To! Ametsetako lukainka! Nork behar zuen uste solas huntan Errepublikak deus egitekorik bazuela! Zera da hori: azeriaren buztana. Ustez gorde zuen hark ere ixtapean, baina ez aski ororen tronpatzeko. / “*Errepublika*”, izen horren itzalean, nahi lituzkete oro beren iduriko egin, zer nahi gezur iretsaraziz jende ahulari. (...)” (E 835, 1903-6-26 “Zer derasaten”).

Esaerak dioenez, “Azeriari larrua edeki, baina azturak ez”. Azeriak buztana luzea du: “Azeriak buztana luze / berak bezala besteek uste”. Edo “Piensa el

ladrón que todos son de su condición, *gure katuak buztana luze, nork bera bezala besteak uste*” Lar. (OEH *katu*). Cfr. Azkue, *EY*, III, Atsot. 392 “*Azeri zaarrak ailea luze, bere (sic) legezkoak besteak uste*. El viejo raposo (tiene) cola larga; cree que todos son de su ley (como él) (B, *Peru Abarka* página 120, G-errezil)”.

Azeriaren irudia maiz darabil egileak etsaiak, bereziki framazonak, eta haien jokaera maltzurra irudikatzeke. Ik. adib. EO 1904-4-22 “Azeriak”.

*Buztana* hitzak “final”, “residuo” (OEH) edo ‘ondokoak’ ere adierazi nahi du (“artikuluko ondarreria hauien buztanean (...)”, EO 20, 1904-5-20). *Buztan* hitzaren irudizko esanahia: itzuli anitz: “(gobernamentua) Dena koropilo eta buztan” (E 31, 1907-8-2). *X-en buztanaren punta*: arazo baten azken erroa. “Non litazke gure gizonak, *Quintorik* ez balitz? Ja erran dugu, eta gure hitzean gaude: *Quintoaren buztanaren* punta ez daukagu ikusirik.” (E 1257, 1911-5-12 “Zer eta zer” saila, “Quintoa” artik. Egilea H-U edo bestela J. Etxepare dateke).

*Azken piruraino*: ‘azken hariraino, azken sustrai edo erroraino’. “Anbizioneaz itsutua denak badarama bere zoramendua azken hariraino” (Larregi, *Testament...*, I, 301, apud OEH). Orobat “Azken hariradino higituak gintuen indarrak” (Prop. 1890, 35, ap. DRA eta OEH). “azken hariala artio bere zentzia begiratü dü” (Herria 1968-5-16 apud OEH), etab.

“Erlisionearen etsaiak baderamate beti aintzina -eta zer oldarrean- beren sail tzar izigarria. Haizu direno, ez dute barkatuko, Eliza katolikoari esku guziak oro kendu arte. / Erro guziak azken piruraino moztu arte ez direla geldituko, diote berek goraki. (...)” (E 862 “Oro ken”).

*Baheaz ura hitzeman*: ‘jendearen gogoia atzemateko zernahi hitzeman’. H-Uk maite du *baheaz uraren hitzemaile* kalifikatiboa.

“Badire politikazko xarlatanak, —noiz izan da egungo egunean bezenbat? — baheaz uraren hitzemaile. / Zoazkote mintzatzera, hau edo hura dela; ez ditakena- ren, ez ditakela dakitenaren ardiesteaz “hara besoa” eginen dautzuate. / Bien artean baduzue makur bat, auzibide edo zerbeit holako; goizean bati, arratsean bertze- ari, segurantza berarekin hitzemanen dautzuate, (...)” (E 1339 “Xarlatanak”).

“Bazterrak aseak zituztela ikusiz, eta zerbeitez nolazpeit nahiz atzeman jende xehearen gogoia, dute hor egina lege hori, tarrapatan, zer ari ziren ontsa behatu ere gabe. / Baheaz uraren hitzemaile deputatu gorri aitzinatuenetarik batzu sus- tatzale; heien eskumakila, ministroak.” (E 1253, 1911-4-14 “Nahi ez badute?”).

*(Bare / karakoil) izan*: ‘koldar, beldurti (izan); soraio (izan)’.

“Bizkarreko edo bularretako larrutik ausikian aski lotzen zautzunari jazarri gabe nola egon. / Den beldurrienari odolak jauzi eginen dio. Eta Frantziako buruzagiak bare batzu balire ere, berzeak, erran nahi, heien iduriko ez litazkenak, nork atxikaraz ixilik eta geldirik?” (E 1273, 1911-9-1 “Gerla solas”).

Barearen iruditik atera du araz egileak *Bareak adarrak barnerat sar*. ‘uzkurtu, kikildu edo beldurtu’. Barearen / karakoilaren irudi-haria eta haien adarrak sar-ateraka agertzen dira maizko gure egilearen kazetalanetan.

(Combes ministroari) “adarrak barnerat sartu zitzazkon (alta ez delarik barea), hiru deputatu bere aitzinera jinak ikustearekin.” (E 831).

Pasarte honetan irudiak gertaera historiko bat aipatzen du: Katixima euskaraz irakastea Combes ministro nausi radikalak debekatu zuela-eta, asaldaturik, Euskal Herriko jaunen sinadurak bildu zituzten debekuaren kontra, eta deputatuak igor ministroarekin mintzatzea. Hona eite bertsuko beste erakusburu bat:

“Batzuen arabera *Eskualdun Ona barea bezen hila da*, eta maltsoa; hortzik ez, etsaiaren auskitzeko; ez koskatzeko adarrik. Balinbadu ere, bare kurkuilak bezala, sar-ateraka erabilki adarrak; den gutieneko haize hotzak izitzen. Hots, odolik ez, zainik ez.” (“Gu gure hatzean”, EO 3 1906-1-19).

Orobat da karakoilaren irudia:

“Etsai ohoinen edo ohoinen eta gure artean, zenbat karakoil, beren barne hil zuria kilikatzen baitiote ohointza eta holakorik aipatzearen urrundunikako usainak berak. / Egundainoko bare guziena da: ez laket harrabotsa; adarrak berehala barnerat sarturik koropilatzen zaitzu. / Zer nahuzue jalgi karakoiletarik? Deus ez, baizik ere berak bare, oro beren iduriko nahi lituzketela ikusi.” (E 1282 “Karakoilak”). (karakoilaren irudia ageri da ere aipatu E 1273, 1911-9-1 “Gerla solas” artikuluan).

Barearen irudiaren inguruko lokuziook esaera batean dukete oinarri: “Barea exurrik eta odolik gabea” (Azkue, *EY*, III, Atsotitzak, 399.a).

**Barne egosi:** ‘bestela bezala (bestela baitakoan) ari dena’. “*Egosi* 4<sup>o</sup> (BN, Sal.) disimulado” (Azkue); “adj. *au fig.* dissimulé, fourbe, vindicatif. *Gizon egosi bat da*, c’est un homme qui cache son jeu” (Lhande). OEHK ez dakar *barne egosi*, *ilun*, *tzar* ez *ustelk*; *barne galdu* eta *barne beltz* besterik ez, *Fedearen Propagacioneko Urtecaria*-ko 1884 eta 1887ko adibideekin. Agian albistari horretako enredura sortu edo egokitu zituen H-Uk hemen darakusatzagunak.

Etsaien egintzak nolako, haien barnea halako, H-Uren arabera. Adibidez, Estatuaren eta Elizaren (Elizen) Berexkudearen lehen ondorioez (apezen paga kentzea) ari dela, esaten du legea zela “108 bozez nausitu deputatuen ganbaran”.

“Eta nola zenator zaharrak Berdolyren kideko gizon barne egosi tzar batzu baitire, beldur izaiteko da, legeari makurreko alderat oraino itzuli bat gehiago eman dezoten” (EO 28, 1905-7-14).

Antzekoa baina ulerterrazagoa da *barne ilun*:

”Nago frangotan gogoeta: zenbat etsai duen jende xeheak,...hasirik bere burutik eta noiz nahi alde orotarik inguratua daukaten ile alde perekatzale barne ilun ele zuri batzutaraino.” (E 1145 “Jende xehearen etsai” (hasiera).

Halaber *barne ustel*:

“Bainan jendea den bezala hartu behar da. Gaixoak badu norat buru eman. Beharriak gezurrez tutaturik daukate eta gogoa nahasirik. Ager ezakozue begietara gezur ederraren barne beltza. Erran, ez girela errepublika galdu nahiz ari, bainan bai oraino eskuetan ditugun zuzenak begiratu nahiz eta jadanik hartuak dauz-kigutenak atzeman nahiz. (...). Erakuts, alde hortarik egiten deizkiten mehatxuak, emaiten deiezkitzaten hitz ederrak bezain barne ustelak direla” (E 256 “Bai eta bainan”).

Eta, noski, *barne txar* (bizk. *barru txar*). *Barnea* (barrua), burua eta barrena bezala, gizakiaren ordez dago. Adib. *barnea kilikatu*:

“egungo egunean, ba eta ja hogoi-ta gehiago urte huntan, Frantziar nausitzerat utziak eta nausitzen guhaurek lagunduak ditugun gizonak, eta heiekilakoa egin nahiz, zer nahi estakuruz, heien alde boz emaitak eta emanarazteak barnea kilikatuko ez dion gizona, izan bedi bonetun ala xapeldun, gizon eskolatu ala ez, engoitik, debrua izanik ere, aitortzen ez duena: *eskualde hau makurra da eta hori xuxena; hau erlisionearen alde, hura kontra...*” (E 1910-12-2).

Edo *barnea atzeman* (norbaiti):

“Atsegin bizi eta berri bat, ja *hartuak* ditutzunek ez bezala barnea atzemaiten dautzuna da (...)” (E 1157 “Ez guretzat”).

***Begiak xuriturik***: ‘arreta handiz’. Gehienetan *egon* aditzarekin:

“Goazin solas behin gure Almanakaz; ezta kazeta; ez eta katixima, ez eta elizako liburu bat. Badauka, guti edo aski, orotarik, toki deno; bainan haurrean ikusiaz oroitzen gira beti. / Eskualdun *armañakari* beha ginauden, begiak xuriturik; eta oroz gainetik zeri beha?. Erran gabe doa: supazter xokoan arratsetan, gaztena erreak jatearekin irakurtzeko ixtorio hunkigarrirei, eta oraino gehiago, *bitxikeriei* beha.” (E 1182, “Gure Almanaka”).

(langileen erretretaz) “Legeño bat eginen zutela biziki ona hitz-emanka langileari, urteak hor atxiki dute jende xehea begiak xuriturik eta ahoa zabaldurik. Parabisuaren erdian behar zuten ezarri langile zaharria guzia. Bazakiten badi-rela beti holakoan sinesleak. Orai?...” (E 1193 “Zerga berria”).

***Begietara errauts***: ‘nor bait nahasarazteko trikimailua edo jukutria’. Gehienetan *Begietara errauts eman* (aditz hau bertan edo inguruan ageri dela) edo *bota*: ‘nahasarazi nahi (nor bait)’.



”Hogoi urte eta gehiagoz begietara errauts botatzen arizan zaizku, erranez: “Frera eta Serora, edonolazko eskola-emaile giristinoak nahi badituzue, “appelez-les, payez-les”. (...) / Bainan hainbertze urtez, alegia zinez mintzo, erran ondoan: haizuko ginela, gurez gure, nahi genituen eskolen hautatzera, nola dire orai bertan ixildu? Edo hobeki erran dezadan, nola zeie ahoan mihia itzuli pekoz gora?” (E 1902-9-12; in Zez. 113 s; OEHk aipatua).

“Begietara errauts emanez” (E 835).

“Makeako merak ihardetsi zion behar zena: ez direla Makearrak aski ahul, beren arimaren saltzeko diru truk; ez eta aski ments, ez ikusteko, elizetako ontasunen, apez-geien aterbetarainoko guzien ebasle ohoinek eskaintzen eta beren gogokoer emaiten dituzten sos poziak ez direla guri eta gure erlisioneari ebatsien aldean deus. / Irinaren zahia baino gutiago, errauts pozi bat begietara. Gehiago balira ere, bardin ebatsiak dira.” (E 1257, 1911-5-12, EH: Makea).

”Halere, noizetik noizera, zerbeit lege izpika egiten dautzute, paperean bederen, begietarako errautsaren doia; edo irina hitzeman eta zahi poxi bat eman; *gezur hutsa*, jakirik gabe, idor baita alabainan beti irauteko.” (E 1146).

Handik eratorria da edo eratortzen du *Begietarat errauts-emaile*. Charles Minjonnet Baigorriko kantonamenduko kontseilari jeneral eta *Eskualdunako* jabe buruzagietarik izanikoaren hil berrian dio:

“Begietarat errauts emaileak ez zituen maite, bera ez baitzen halakoa, den gutienik” (E 1910-8-26).

***Bere*** (/ *beren*) ***buruari*** (/ *buruei*) ***zu erran***: ‘jaun / andre handi edo gizartean larriak direnak (adib. kargudunak, besteak beste)’. Azkuek beste adiera bat ematen dio bere hiztegian: “*zu*. De los vanidosos y presuntuosos se dice esta linda frase: *Horrek bere buruari zu erraiten dio* (BN, L)”.

“Ba bainan, oro bardin, zaude! Jaun meraren alaba, eta andre errientsaren semea nork berex bertzetarik? Hasi ziren herri ttipienetan beretan beren buruei zu erraiten zuten guziak zirio apaindu batzuen erosten, Eta nola apainduak! Oro xingola eta ozka, kolore pollit, xuri eta gorri, eta urdin; zilar eta urre, ikusteko bezen kasik jateko eginak iduri.” (E 837, 1903-7-10 “Non dugu burua?”).

“Ez du ez, *Maulen* berean ere, ez eta nehon hanbat adixkide handirik —gerota gutiago, beren buruei zu erran dezaketen gizonen, ez eta, on bazaio, emazten artean ere.” (E 860).

Aipatu lokuziotik eratortzen bide du ***Bere buruari zu erraile***:

“Jende xeheaz, populuaz baino are egiago da hau buruzagiez; herrietako auzapez, axuant, boz-biltzale, beren buruei zu errailez.” (E 1234, 1910-12-2 “Fede ona”).

Ik. *Bere buruari jauna erraile*.

? *Bere buruari jauna erran*: ‘bere buruari ongi esan’. *Bere buruari jauna erraile* da H-Uren lanetan aurkitu duguna.

“Emile *Sescosse* zena han edo hemen ikusi dugun aldi oroz ohartu gitzaio bere buruari bezala, bertzei ere “jauna” errailetarik zela; frantsesak diona, “très poli avec tout le monde” (EO 49 1906-12-7 EH: Uztaritze).

(Hilentzat utzi meza sariak ebatsi dituztela-eta) “Egitate ahalgegarri, ohointza eta trufa biak elgarrekilako hori, —hori eta holako zenbat! —eginen zaukutela, zautzuetela beren buruei ez bakarrik zu bainan jauna,...eskolan bertze orduz ikasi dukezuen, “majuscule” *Jauna*, erraile batzuek!...” (E 1179, 1909-11-12).

(*Bere / gure /...*) (*buruari / buruei*) / *guhaur guhauri /...*) *harrika ari*: ‘bere buruaren kaltean jardun’.

“Jende xehe ala jende larri, nork ez du ikusten biharko ogia egun arnotan deramana bere buruari harrika ari zaiola?” (? EO 49 1906-12-7 EH: Uztaritze).

“Nork ez du ikusten edozoin bozetan ere guhauri, gure buruei harrika ari ginitazkela, oraiko deputatu hauk edo hautarik biga *Guichenné* osoki, eta *Pradet* ere hein batez, gure alde ditugularik,...garbiki hor guhaur guhauri harrika artzea litakela, *geroaz ez oroitzea*, nork ez du ikusten?” (E 1214).

Antzekoa da (*nehoren bizkarrerat*) *harria aurtiki*:

”Ez diotegu zorigaitz bera desiratzen. Bainan ez dezatela nehoren bizkarrerat harririk artik, baldin ez badute nahi sudurrera berei eror dakioten.” (*Zez.* 201).

*Bertzen buztanaz uliak kendu*: ‘norberaren arazoak konpontzeko besteren lanaz baliatu’.

(Baionako kontseiluko gorri-gorriez) “Urdeek nahi zuketzen hiriak jo zezan ((enkantean S. Louis Gonzaga ikastetxea erosteko)); ez ordean berek beren dirutik jo nahi. Bertzen buztanaz uliak kendu nahi ukaitea, berak hobeki gizentzeko,...” (EO 3, 1905-1-20).

*Bertzen buztanaz uli haizatzaile*

“Bainan ez du horrek erran nahi oilo busti batzu girela, zenbeit antzara karrankaritarik entzuten dugun bezala; edo ahate mutu batzutarik. Baitire hala-koak ere; bertzen buztanaz uli haizatzaile batzu onak. Xo; bego hortan.” (E 1903-6-12 “Etsenplu: Tissier”, in *Mintzaira* 127).

“Bertzen parasola, ba, nahi zuken *duxaño* haren azpian ikusi; ez ordean berea. Bada holako, izan da, eta mundua mundu deno, izanen: bertzen buztanaz uli haizatzaile.” (E 1285, 1911, “Zer eta zer” saila: “Parasola”).

“Bertzen buztanaz uli haiztzaile” adierazpidea atsotitz batean oinarritua da: “Bertzeren buztanez uliak kendu nahi dituen, ardura uliekin gelditzen duk” (Azkue, *EY*, 417. esaera, III, 59. or.); Garate, G. 2494 “Besteen buztanakin uli kentzen” ‘Inoren lanaz baliatu’.

**Besoa luze ukan** (*norbaitek*): ‘esku, botere edo ahalmen handikoa izan’. *Gazt. Tener mucha mano*. H-Uk maiz erabilia.

(Pradet jaun deputatuaz ari dela) “Bainan baitire han hemenka herri bakar batzu, besoa luze duen gorringo eztika zenbeiti esker, deus guti galdu dutenak oraino; eskola, ospitale, apez-etxe, han kasik oro nolazpeit osorik dauzkatena baitire...boz truk; “ (E1163, 1909-7-23 “Zenbat itsu!”).

“Jende xehearen eta jende beharraren bozak baitezpada bildu nahiz, dena eta ez dena, ditakena eta ez ditakena hitzemanen daitzute: hau eginen, hura eginen; eta zer ez ardietsiko, bertzek ez dezaketunik? / Boz-emaile bakotxaren ala herri osoaren laguntzeko, hoiek ez duten xede onik, jenerostasunik, indarririk ez da. Nehor nehon ez da besoa hoiek bezen luze duenik, eta bihotza eskuan hoiek bezala, edozoin zeretako.” (E 1312, 1912-5-31 “Bortz liberakoa”).

“Besoa luze dutela sinetsaraziko baitiote deus ez dakienari; nik zure semeri hau ardietsi, hura ardietsiko; nik adixkideak ba buruzagi hoitan; ...” (E 1161).

“Saltsa guzietan sudurra sartu behar duten politikero nahasi batzuen lana da guzia. Marneko zenator da *Léon Bourgeois* delako ministro buruzagi ohi bat (Karbon ikusirik oroit gira *Grancher* mediku zenaren ikusterat jina); egungo egunean besoa luze duten gizonetarik. Uste ukan du balentria bat gaitza egin, bere boz-emaile eta boz biltzale arnodunentzat, legean ezarraraziz *Marneko* arnoa izan dadin bakarrik “*Champagne*” arnotzat ezagutua; hura baizik ezin sal izen horrekin; auzoak ez haizu beren arnoen saltzerat *Champagne*-tzat.” (E 1254, 1911-4-28 “Zer gizonak!”).

“Hori zeie zenbeiti besoa luze ukaitea” (E 1238 “Ostatuez”); ik. ere E 1258 “Ontsia goberna”; E 1339 “Xarlatanak”, etab.

**Bihotza eskuan**: ‘zinez’. “(Con) el corazón en la mano, sinceramente” (OEH). *Gazt. con el corazón en la mano* (Corpas: 1997: 100).

“Boz-emaile bakotxaren ala herri osoaren laguntzeko, hoiek ez duten xede onik, jenerostasunik, indarririk ez da. Nehor nehon ez da besoa hoiek bezen luze duenik, eta bihotza eskuan hoiek bezala, edozoin zeretako.” (E 1312, 1912-5-31 “Bortz liberakoa”).

**Bihotza estali**: ‘tristatu’. “*Estali* (En la expr. *bihotza estali* entristecer” (OEH, Duvoisin *Liburu Ederra*, Baiona 1856, 251. or. aipatuz. Hortik, *bihotz-estalgarri*.



”Hau hemen irakurtzearekin, alaba zonbeit errientsagei eskola batean duketenei bihotza estal dakiokete; bertze batzuri, oxtiko *andereari* bezala gaitzi: zer derasagun?” (E 1242).

“Hango ((Baionako Seminario Nagusiko)) buruzagi *Delissalde* Ustariztar zenaren eta *Manaudas*, haren aitzinekoaren gorputzak, zoin beren hobietan han baitire, bihotz-estalgarri zen ikustea, deusen ez nehoen, hilen ere errespeturik gabe, zaldien zangopean eta ongarripean, bertzeak bertze, bi apez-nausi hoi enizenak eta oro.” (E 1256, “Soldadoak malobretan”)

***Boketa egin***: ‘arropa garbitu, gobada edo bogada egin’ (berezko esanahia), gazt. *hacer la colada*; ‘garbiketa egin, usteldura garbitu’ (irudizko adieran; politikan erabilia).

“Nor izanen dire orai ministro berriak? (...) Gauza onik ateratzeko, *fabrika* guzia behar litake berri. (...) Noiz? Eta nola? Heldu den maiatza arte huntan, herrietako bozetan framazonen adiskideak *kanpo* ezarriz. (...). / Nahi baduzu oihal xuririk, egizu boketa. Eta arte huntan, ahal bezala bizi, *xuriketa* zonbeit artetan eginez” (E 248, 92, “Ministro berriak”).

“Egun batez horra nun *Laur* izena duen deputatu *gorri*, kixkil, debuz egin batek, ez dakit nun atzemanik *Constansen* atorra lohi bat, ziri baten puntan agertzen duen, Ganbararen erdian, deputatu guzien aitzinean! / Trufa baino musika gehiago, den bezalako deputatu ospina horrek, irriz, galdatzen diote bere lagunak, eta nahi dituzten ministro handi horren pilda guziak bederazka ikusi: / “Beha zazue, jaunak: huna nun dudan zama handi bat hemen, bizkarrean ekarria. Bertze hoinbertze badut hantxet utzirik, ezin oro betan jasanaz. Boketa-aldi baten beharra badute, ikusten duzuen bezala, soineko haukiek, eta haukien *jabeak*...” (E 248, 1892-2-26 “Ministerioa erori da”). *Boketa-aldi*: bizk. *lixiba-aldi*.

*Gobada egin* irudizko adieran ere erabilia da, adib. “Gero egingo dezula, diozu, bekatu guzien gobada” (J.B. Agirre, *Erakus*. III 531, apud OEH).

*Zer boketa!* harridurazkoa maizkara darabil. *Boketa* “Lío, intriga, chisme, confusión” ere bada (OEH).

“Diot badirela ehun eta zenbeit deputatu ere, auzi hortarik eskuak garbi eta buruak gorarik aterako ez direnak. Zer boketa!” (E 1892-11-25, in *Zez*. 47, apud OEH).

***Buru ahul***: ‘nortasun gabeko’. H-Uk oso erabilia.

“Zenbat buru ahul, sineskor, gezur-iresle” (E 780).

***Burua itzultzeko artean***: ‘bet-betan, istanpatean’. “en un momento” (OEH, ondoko adibidearekin): “Burua itzultzeko artean gogotik osoki galdua dugu...” (*Zez*. 142.).

Antzekoa da Azkuek dakarrena, Axulargandik jasoa: *Begi herts ideki baten bitartea* (Ax., *Gero*, I, 196-25, ap Azkue *EY* III, 237).

**Buru-buztanik ez** (*ukan: du / dute /...3. pertson.*): ‘zentzurik ez’; *ez hanka ta ez buru*. OEhk *ez buru(rik) ez buztan(ik)* etab. dakartza, H-Uren ondoko adibidearekin:

“horrelako ahapaldi buru buztanik ez duten...” (*Zez.* 30).

“Miletan hemen aipatu nahiago ginintuzken solasak utzirik, mintzatu behar buru-buztanik ez duten ele kakola batzuez, jende ahulak ez balinbaditugu gaixtaginen eta heiekilakoen saretan erortzerat utzi nahi.” (EO 27, 1907-7-5).

**Buruko ilei lotu**: ‘zerbait larria dela erakutsi’. *Gazt. estirarse de los pelos*. Ez dakarke esapide hau OEhk.

“Huna non aitzinagoko astean kendu dituzten kurutzeak, nondik uste duzue? *Tribunaletarik*. (...). / Ororen buruan, ez dut erran nahi, buruko ilei lotzeko, hau bertze tzarkeria bat baino handiago dela.” (E 856).

“Heldu da, heldu da, edo ja huna non den jina denbora, ohointza ez baita desohore bat izanen. Noraino geramatzan hunek ageriko geroxago; bainan ja ez dugu zeren buruko ilei lot: etxe ebatsi hoik oro hutsik egon beharko ote diren hola beti?. “ (E 1184, 1909-12-17 “Etxe hutsak”).

**Debruak hartu** (*norbait / zerbait*): ‘haserretu’. “*Deabruak hartu* b) Llevarse (a alguien) el diablo, enfurecerse” (OEH). H-Uren ondoko testua, besteak beste, aipatuz:

(Barthou ministro oportunistaz) “(...) gaitzi zaio aditzea, xuriekkin badaukala den gutienik ere. Debruak hartzen du, holakorik aipatzen diotenean.” (E 1898-5-6, “Nahi ez dutenentzat”).

**Debruak eraman**: “Llevarse (alguien o algo) el diablo (los diablos): echarse a perder, malograrse.” (OEH *Deabruak eraman*. H-Uren ondoko bi adibideekin):

“Izkiriatzeko luma eskuan hartzearekin, frantsesa doaku burura, eta ordutik debruak eraman du eskuara” (E 1908-7-17, *Zez.* 177).

“Hoinbertze gusta behar bada erlisionea, ez baditake burutziarik egin, azkenean debruak daramala utziko duela jendeak, ari dire hola framazonak, jo, jo, jo aitzina, tira ahala tira.” (E 1906-12-14, *Zez.* 152).

Adierazpide bortitza bide zen, egilearen arabera. Igandearen esanahia galduz doala-eta, dio:

“Igandearenak egin ote du? / Anitz tokitan ba. Eta egin gero zinez! / (...) Debruak eraman du —otoi barka. Noiz nahuzue hizkuntza itsusi hori hobeki

enplegatu, hor baino? / Deus ez da kasik nehon gelditzen, ez goiz, ez arratsalde, Jainkoarenik, igandean. ” (E 1349 “Igandea”).

*Debruak deramala* esapide egina da, agian:

“Gerta ditakena da, lege hunek eta hunen ondotik sail berari darraizkola eginen dituzten lege guziek ez emanik uste zuketan ondoriorik, etsiturik utz balezate, debruak deramala.” (E 1268 “Lege ahula”).

*Debruetan harat igor* ‘kanporatu’, ‘haserretu’ (?) (gazt. *llevarle a alguien los demonios* ‘encolerizarse’, ap. Corpas 109, lokuzioaren esanahi bertsukoa?).

“Guri zangoa gainean eman nahi luketenak aihar girela igortzeko debruetan harat, ziztuka, irrintzinaka...Hots, ez dela nehon nehor gu bezalakorik, aho beren arabera.” (E 1313 “Bere buruaren jabe”).

*Debrua ikusi*: ‘sufritu’. Azkuek antzeko bat dakar: “*Zazpi debru ikusi ditutzu* (BN-gez). “Ha sufrido usted mucho” (EY III, 339).

“Orok diogu, denbora hitsak direla hauk; ez dela gehiago nehorentzat bizitzerik; irabazpideak oro ttipituak direla; hots, debrua ikusi behar dela, *ezin helduz, ezin helduz, ezin nehondik helduz*.” (E 836, 1903-7-3, “Ezteiak goizik”).

“(…) deus ez dutela nahi holakorik; zer duten lege hori? ((Urtearen)) Bi buruak ezin elgarretaratuz ja debrua ikusten, eta nondik behar dituzten eman langile gaizok bakoxtarentzat, bederatzi, sei, lau libera eta erdi?” (E 1258, 1911-5-19, “Zaharren erretretak”).

“Anartean, sakela hemen gori ez duenak segura du parabisuko zoriona baino maizago ikuste...debrua, ezin biziz.” (E 1298 “Bizia Baionan”).

*Debruen lanak*: ‘lan eskerga’. OEHk Oxobiren adibide bat dakar: “Debrien lanak zituen frantses hori ezin mastekatuz” (*Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait*, Baiona, 1966, 191. or.).

(Bozetan Legrand, Harriage eta Pradet deputatuak atera direla-eta) “Hemen-dik lau urtez debruen lanetan behar dire jaun hoik, nahi badute beren eginbidea gizonki bete. Ezen etsaia oraino indar handitan da, nahiz hartu duen izialdi bat ona” (E 779, 1902-5-23, “Ongi ala gaizki?”).

(Legrand, Harriage eta Pradet deputatu *gorri* ohi, *xuri* edo *xuri-gorri* bilakatu-etz) “Noizez geroz ordean makur? ((deputatu horiek ministroekin)) Gorri beltz hoiek osoki gaina hartuz geroz. Ordu arte guziak elgarrekin ados ziren, guziak amigo; elgarren lagun. Eskuz esku, besoz beso, orok *bat* egiten zutelarik, lehertu zituzten ohiko deputatu xuriak oro; edo bederen kasik oro. / Eta orai? O! Manex, orai debruen lanak. Errekak behera goazila ikusi dutenean (berantxe!) gibelerat egin nahi, eta ezin egin. Tzarrek arront osoki gaina hartua. Nork lagundurik, hein bateraino? Jaun hoiek.” (E 809, 1902-12-19 ““Judu tzar hoik””).

“nondik zeri lot gobernamentua, langile ezazol edo ahul, pobre hotz batzuek ez badezakete urtean bederatzita libera berex, geroko, zahartzen direneko erretretarentzat? / Ez badezakete, edo ez badute nahi eman, zer debruen lana, gobernamentuarentzat, ororen ondotik ibiltzea, ez dezaketena, edo nahi ez dutena eman dezaten, galdez?” (E 1253, “Nahi ez badute?”).

Deabrua, gaizkiaren pertsonifikazioa, oso boteretsua da. Hori erakusten du ere adierazpide honek.

*Debruz egin(a)*: ‘gaiztakeria edo bihurrikaria egiten ari dena’. OEhk P. Mujikaren bi adierak jasotzen ditu: “1. despierto, vivo, espabilado; 2. diabólico, diabesco”. Bietarik du ondoko adibideetan.

“Egun batez horra nun *Laur* izena duen deputatu *gorri*, kixkil, debruz egin batek, ez dakit nun atzemanik *Constansen* atorra lohi bat, ziri baten puntan agertzen duen, Ganbararen erdian, deputatu guzien aitzinean!” (E 248, 1892-2-26, “Ministerioa erori da” ).

H-Uren arabera, deabruz eginak dira framazonak, gorriak edo errepublikanoak eta etsaiak orohar. Orobat errient eta bereziki errientsak. Hona zertako:

“(...) Frantziako jaun errient eta andre errientsa gazteen irakaspena da ja anitz eskoletan; errientak baino debruz eginago baitire errientsak; emaztekoa makurretarat itzuliz geroz gizonkia baino makurrago baita. (...). / Bihotza galduz geroz, akabo arbola; akabo den erresumarik azkarrena. Haurren altxatzaleak haur galzale bilakatuz geroz, debruak ereman du Frantzia, Badakite ba, zer ari diren gure etsai errabiatuek.” (EO 1905-9-29, “Usteldura”). Ik. ere E 1247.

*Dutxuloa (ideki / hetsi / agortu / bete; dutxuloak ixuri)*. *Dutxuloa*: ‘ontzi batek duen zuloa, likido bat isurtzeko’ (berezko esanahia); ‘hetsirik zen zerbaiten eten-gabeko isuria, behin idekiz geroz’ (irudizko esanahia). Ondoko testuan, irudiak lehenbiziko agerpenean ‘aurrekari bat behin ezarriz gero, ondotik halako kasuak etengabe gertatuko dira’ edo agian ‘abokaten ordainsaria’ edo antzeko zerbait esan nahi duke; bigarren *dutxuloa* ahokoa dateke, emazteen mihi ezin atertzuzkoa.

(Egilea trufatzen da, eta aldi berean hein bat beldurtzen lehen andre abokatuak agertzean) “Andre gazte bat agertu da eskoletako buruzagi jaun handi batzuen aintzinean. Egundaino nehork ikusi, ez eta ere entzun ez duena orai arte, andre hori nahi izan da sartu...*abokat*. Legeko liburuak buruan ezarri dituenan, erreki ikasi du abokatak bezala mintzatzen; edo hobeki erran dezadan, ikasi gabe bazakien bere baitarik mintzatzen. (...) / Hiru jauneri ihardoki diote, hiruek elgarrekin bezenbat edo gehiago ele ateratzen zuelarik harek berak. (...). / Horra nun den hura beti abokat. Ongi goazi, haren iduriko zenbeit dotzena agertzen badira! Iduri eta ez dugun jadanik gizonkiekin ere abokatik aski...Abokaten dutxuloa behin idekiz geroz, ez da berehala agortzen. / Ba bainan ordean dutxulo hortarik



ere, bertzetik bezala, behin hasiz geroz, emaztea nausi.” (E 270, 1892-7-29 *Petite Chronique*, “Andre abokata”).

“Zer da gertatu? Dutxuloa hetsi, edo agortu barrika; gure gizona emaitetik gel-ditu” (E 1198).

“Erretreta guziak 70 urtetan haste. Berant! Ba, bainan berak deus eman gabe baitu langileak hori; goizago ez bailuke gobernamentuak emaiten ahal, ez langileari ez nausiarri deus kendu gabe. / Dutxuloak ez baitu beheretik ixurtzen fite agortzen baita, gaintetik arauka betetzen ez baduzu.” (E 1284, “Hiru molde”).

(*Lurpean*) **Ehortzirik ezarri**: ‘lurra baino beherago ezarri norbaiten kontra zerbait esanez; txakurrenak esan’. “H(arriet). *Eortzirik ezarri*, decir sapos y culebras de alguno (Herr)”, DRA (ap. OEH).

(Barthou politikari oportunistaz) “Beraz iragan astean jaun hori *Parisetik* etorri da Oloronera; eta han bere herritar boz-emaile biarnesen aitzinean egin du mintzaldi bat. Mintzatu da bere buruaz eta bertzeez. Ele on eta tzar, xuxen eta makur, orotarik erran du. / Bere etsai guziak ezarri ditu lurpean ehortzirik. Eta nor uste duzue direla jaun horren etsaiak? Hek dire oroz gaintetik, dioenaz, gorribeltzak, *socialistes, radicaux*, eta holako herradun bazter-nahasle guziak. Hek oro nahi lituzke...*dioenaz*, errautsi, gure deputatu hauk bezalako zenbaiten laguntzarekin.” (E 1898-5-6 “Nahi ez dutenentzat”).

Antzekoa da *Lurra baino beherago ezarri* konparazioa:

“Ikusten dut solasa gaizkirat hartu nahiko dutenek, zer erranen duten: gizon dohakabe bat, eroria, herrestan erabiltzea ez askiz, haren hobenetan ikustekorik ez duen herria, herri guzia nahi ginukela berriz orai lurra baino beherago ezarri. Ez da egia hori ere.” (E 1903-6-12 *Etsenplu*”).

**Eiheralat ura**: ‘bakoitza bere onetan’.

“(publizitateko iragarkiez) “Deus bezen beharrak dire hoik eta beharragoak, bizi nahi duen gazeta batentzat (...) *burddina* ekarrarazten baitaukute hoiek; eiheralat ura.” (E 1083, 1908).

“*Bakhotxak bere astoari arri*. Chacun excite son propres âne à marcher. C.-à-d.: “Chacun soigne son propre intérêt.—Ce même proverbe se reproduit sous les formes suivantes: *Bakhotxak bere mandoari zaldare*, ou *bere opilari su* ou *bere iharari ur*.” (Duvoisin: 1878: 271). Erran itxura du.

(*Elgar / batek bertzea / jendea*) **jan**: ‘norbaiten kontra, gaizki esaka, aharran, hitz egin’. “*au fig.* se manger, se déchirer. *Aharran hari dire, zer nahi erranka, batek bertzea iaten duela*, ils disputent ensemble, se déchirant l’un l’autre” (Lhande; orobat H(arriet), OEH). Elkarrekiko kasuetan erabilia dateke gehienetan. Ondoko adibideetan (*Elgarren / jendea jendearen*) *jaten ari* ageri da.

“batasunak emaiten diote orori indar, zoin bere heinean bere egitekoetara heltzeko. Elgarri kalte egiten eta elgarren jaten artzeak ez du nehorentzat ondorio onik” (E 264 1892-6-17 “Laguntza laborariari”).

H-Uk maizko darabiltza “jendea jendearen jaten ari alabainan” eta eite bertsukoak.

Aipatu lokuziotik eratorriak dirateke *jende-jale, apez-jale* etab.: “jende-jale ohoin gutiago” (E 289).

***Eltze guzien burruntzali***: ‘besteen kontuetan sartzen dena (sudurra / muturra sartzen duena)’. “*Eltza askotako burduntzalia* (AN-larr, L) (...). Entremetido; liter.: cucharón de muchos pucheros (...) (Azkue EY III 284 Entremeterse).

(Kazetaren zeregina hori ez zela-eta, H-Uk holako berriemalerik ez zuen nahi). “Bizkitartean ez edozoin berri; badire lerro bat ez baitautzute igorriko non ez diren beti norbeiti aiher. Aurten errangurarik ez badute, mintzatuko zaitzu jazkoez; beti eta beti norbeit begietan dutela. Halakoak otoizten ditugu, beren eta gure eta ooren onetan, zinez ongia nahi badute, ez dezatela *Eskualduna* egin beti eltze guzien burruntzali, zoko-moko guzien xahutzeko esku-piltzar eta jats.” (E 1157).

***Erbia lo*** (*egon*): ‘uste ez den lekuan kausitu’. Bereziki *Beha non dagon* (/ *zagon*...) *erbia lo* bezalako harridura esapide hizketa-formula itxurakoetan erabiltzen du. OEHk *Eskualdunako* berriemale P. F. Irigarainen adibide bat dakar: “Gutien uste dugun lekuan erbia lo”. Antzeko batzuk ere bai: ”Ta aor ba: lengo egun baten atara neban erbia! (Bilbao *Ipuin barreka*) edo “Gutxien usten deni(a)n azaltzen da erbie” (AN-larr, Inza, *Naparroa’ko esaera-zarrak*, 430). Gazt. *levantar la liebre* lokuzioa ‘(inf.) Descubrir un secreto, revelar algo que constituye un escándalo’, *Diccionario Fraseológico del Español Moderno*, Varela eta Kubarth, 1994, apud *Corpas* 111).

“Berriz ala ehun aldiz, bardin erranen dut hemenxet irakurtzen dutana eta nahi duenari erakusteko on nizana: “miarritzar eta hura iduri ziri kazetari franxi-man hatsa gezurra dariotenen arabera: “katixima eskuarak dauzkala Frantzian diru untziak eta bereziki “caisse d’épargne” hori tripatik minez. / Behazue, non zagon erbia lo!. Ez da mirakulu begietan baitute katixima eskuara hori.” (E 840, 1903-7-31 “Beheitikoa”).

(oro) ***Er(h)ien puntan jakin***: ‘gauzak xuxen eta xeheki jakin’; gazt. *saberse al dedillo*. ”Orratzetik harirano behar du jakin” (Oihenart, apud OEH, ASJU 1967, 262, “de punta a cabo”).

H-Uk *Eskualdunarako* herri-berriketariak galda eta ezin erdiets; horretaz kexu zen maiz:

“Ai eta gure irakurtzale zenbeitek aldiz balakite gure berri! Kazeta hunen egiteari, eta bereziki gure huni doazkon goiti-beheitiak oro erhien puntan balazkite, gure adixkide on...alfer zenbeitek!. Hitz dautzuet higi litazkela eta erna; eta eskuin edo ezker, lanari lot, hor egon gabe, zango bat bertzearen gainean, bazterretarat so” (E 822, 1903-3-20 “Bizia lehen”).

**Errainak hautsi:** ‘bizkarra, giltzurrina hautsi’ (berezko adieran); ‘bizitzekorik gabe utzi, behar-beharrekoa kendu’ (irudizko adieran, ondoko adibideetan). OEhk ez du aipatzen irudizko adiera.

“Erran zuten, komentuek aski zutela baimenaren galdatzea; salbu jesuistei eta ez dakit bertze zoini ere, bertze guzieri emanen zutela baimen hori: *l’autorisation*. Hara, non diren oro lurrean, errainak hautsirik.” (E 1906-12-14, “Ohoinak”).

“Badire gorri aitzinatuer ez jarraiki nahiz, tematu direnak beren ozkan. Baia ba? Tzar aitzinatuek zin egin dute: behar dazkotela jarraiki nahi ez direnei errainak hautsi. Gerla egin diote orotan, xurier baino ere janiza gaixtoagorekin.” (E 1214).

**Errekak behera:** ‘gainbehera’. “*erreka*: 1º barranca, ravin” (Azkue); “2. (besteak beste) fosa, sima; barranco” (OEH). “*Erreka jo* (BN, L, S) arruinarse, se ruiner” (Azkue); Duvoisinien adibide batekin. “*erreka*: ruine. *Etxe horrek erreka joko du*, cette maison va être ruinée. *Gizon hori erre kara doha*, cet homme va à la ruine” (Lhande). “*erre kara* (*jausi, joan, ari, egin, eraman...*) Arruinarse” (OEH).

*Errekak behera* (*joan / eraman*) da H-UK maizenik darabilen irudia, gizartearen egoeraren —arlotan guztietan— aitzinean duen ikuspegi eta sentimenduaren adierazgarria.

“Guziek aitortzen dute eta erraten goraki, ez badute lege hori laster ezartzen, Alemania galtzera doala, errekak behera; alferkeria, ohointza, lohikeria, jaidura tzar guziak gainditzen ari direla, ez badute lege hori lehenbailehen, orok elgar aditurik, egiten. / Zer lege? (...). Alemanian, Prusian, protestant erresuma batean, jendearen erdia ere katoliko ez den tokian, eskoletan ezartzera doazi KATI-XIMA!” (E 246, 1892-2-12 “Prusiako eskolak”).

“Bainan zonbat ez dira oraino itsu direnik, edo nagi eta uzkur gure herri gai-xoa errekak behera deramaten legeri eta haien egile higuigarriari jazartzeko?” (E 258, 1892-5-6 “Esklabo gare!”).

“Elizak, elizetako lur, etxe, diru, meza saritarainokoak oro eskaintzen zituzten artaldeari...artzainak kanpo, edo deus eskurik gabe. / Orgak idien aitzinean edo, gehiago dena, idirik, ez itzainik gabe, zoazila berak,...errekak behera.. / Hori zuten bada nahi; errekak behera buruzkain igorri Eliza katolikoa.” (E 1272, 1911, “Legeari sumeti”).

Beste nonbait ere badio: “Frantzia badoala erreka behera”.

*Erreka (zola)ra(ino) (eraman / jautsaraz )*: “Frantzia errekara deramaten framazon tzar horien banda” (*Mintz.*, 56, apud OEH): “Holako zain eta odolik gabeko batzuek dute jautsarazi Frantzia ikusten dugun erreka zolaraino” (*Mintz.*, *aurp.* 129, apud OEH).

*Erreka (zola) jo*: “Hamahiru bakarrik nausitu dire. Bertze guziek erreka jo dute” (E 326). “Frantzia dohakabea beti beheiti, erreka zola jo arte” (E 512, 1897).

*Esku azpiz* : ‘gordeka, isilka’. ”Bajo mano, en secreto” (OEH)

”Delako juje jaun handi harek *Jaquin* du izena. *Jakin* balute zenbeitek, hura zer putikoa zen eta den! Iduri zuzentasuna bera zela, zuhurtzia bera, justizia bera, leialtasuna bera; ...eta gero hor agertzen da gure jauna, esku-azpiz ohoin tzar batzuekin bat egina zela. Burutik joan dire oro, samurrarekin. / Hizen bezalako *Jaquin* ! Hi zer putikoa hizen guk lehenago ez jakin!” (E 780, 1902-5-30, “Ah! Zer putikoak!”).

“Esku-azpiz gordeka egin zitzaketan urdekeria guziak eginik, horra nun iguzkitara ohointzari lotuak diren azkarki” (E0 30 1907-7-26 Supplém., “Etsaiaren kopeta”)

“Bertze ohointzarik dire jaun ministro buruzagiari sudurraren aitzinerat emaiten diozkatena; batzu beraren bere bekatu, bertzeak herritar ezagun bere kideko batzuenak, estali, gorde, kukutu nahi ukan dituela; eta harek nahi ala ez, agertu direnean, justizia gibelatzen duela hobendunen gaztigatetik, izilka, esku azpiz.” (E 1395, 1914-1-9 “Ahalge-gabeak”).

“Arima pozoindatzen izilka esku azpiz ari direnek harrabotsik ez nahi?” (*Mintz.*, 114, ap. OEH).

Ik. *Esku eman (azpitik esku eman)*.

*Eskuetarik joan*: “‘Eskuetarik goan da (...). On emploie cette tournure pour dire qu’un homme divague, qu’il perd la tête. On s’en sert aussi pour dire que l’âge ou les infirmités l’ont rendu invalide’ Dv” (OEH).

“Eskuetarik bagoazila, erranen dautzuate gauza huntaz argituak direlarik, axola izpi bat duten guziek, izan ditzen garaitikoz gorri ala xuri.” (E 1313).

“Badoazi eskuetarik; herioak deramatza sor arau, (...)” (E 1313).

Ik. *Eskua(k) zakuan sartu; Eskuetarik lurrerat utzi; Esku milikatzaile*: IV. Eraskinak.

*Esku izan*: ‘jokoan (musean) aurrelaria izan’. “ (Empleado en la expresión *esku izan*) “Mano, el que es mano, *esku izan*. Yo soy mano, ni naiz esku” Lar. (OEH).

“*Esku*. El delantero al juego del mus” (Azkue). “terme de jeu. *Esku naiz*, j’ai la main.” (Lhande).

“Azkar eta erne, bipil eta elgarrekin osoki bat, beti bat, bide xuxenean xut eta zuhur balinbadaude, oroituz Frantziaren etorkizuna eskuetan dutela,...baderamatzazkegu oraino lau urte gaixtoak, hersturan, gudu eta gerla gorrian etsai tzar madarikatu horrekin. Asko min ere oraino egin dezakeguke,...esku deno. Bainan ez da errana, beti hala izanen dela. Ez baitu ere beti gero esku den harek irabazten partida” (E 779, 1902-5-23, “Ongi ala gaizki?”).

Ik. *Hogoi-ta-hameka eta esku izan*.

(*bere(n)*) **Eskuko xoria** (*ukan/ eduki*): ‘eskuko, mendeko (‘-tzat eduki’)’. *Eskuko xoria*: ‘menpeko pertsona’ (politikan eta bereziki bozemaile nahiz kargudunei buruz erabilia). Baduke, agian, erran zaharrarekin ikustekorik: “Aireko xoriarentzat eskukoa ez utz” (Duvoisin, “Proverbios vascongados” 7, *Revista Euskara*, 1, 143).

H-Uk dio norbaitengatik, nonbait, “(beren) eskuko xoria (dute)”.

(“Morroxko” Harriageri buruz mintzo) “Hortakotz gorriek, eta guziz *framazonek* eta zozialistak direlako makur bilatzaleek begietan hartzen ari zuten; ja hartua ere hainbertzetaraino non, heldu den maiatzean jazarri gogo baitzazkon, hura kendurik ahal bazuten, haren ordain ezartzeko bertze bat, edo berenaz tzarra, edo ahula, sudurretik nola nahi erabiltzekoa. / Beren ustez hau ere ((Harriage)) bertze orduz hala berezia zuten; aberatsa zelakotz, errepublikanoa eta sortze apaletikakoa, beren eskuko xoria zaukaten. Bainan uste baino gizona bere buruaren jabeago dute atzeman.” (“Saint-Martin Harriage” in *Mintz*. 154).

(*norbaiten*) **Esku-makil** (*izan / ukan / jarri / ...*): ‘norbaiten mendeko’. *Esku-makil* “criado a quien se emplea en toda clase de faenas” (Azkue, *EY* III, Esakerak, Criado, 267. or.). Lhande “2º *au fig.* personne dont on se sert à sa guise, qu’on emploie selon toute volonté à quoi que ce soit”. Adibide frankotan predikatu osagarri da, *izan / ukan / jarri* aditzekin lagundurik doana.

(Etsaien, bereziki framazonen, *esku-makila jartzea* da H-U kazetariak xuri-gorri, xuri eta gorriei egozten diena). “Horra zertako, igandean zortziko pestan aurkituko diren, hemen gaindiko framazon guziak; heien esklabo eta eskumakil, eskualdun giristinotasunaz ala jazko haizeaz bardintsu axola dutenak; (...)” (E 1213, 1910-7-8, “Floquet-Renaud”, in *Mintz.*, 175, ap. OEH).

“Fuera Bertdoly. Kuku framazonen esku-makila!” (E 1904-7-15, “Berdoly”, in *Mintz.*, *aurp.* 145, ap OEH).

“Bainan dorpe dena da: giristino herrietarik jalgitzea zenator framazonak; edo batetara doana, framazonen esku-makilak. Hala nola Eskual-herritik.” (EO 29, 1907-7-19 “Zenatorrak”).

*Ezpainak elgarri josirik* (*egon / atxiki*): ‘ixilik, mutu, deus erran gabe (egon)’. Erdi figuratiboa da.

“Deus ez dela egiten mintzatuz,...eta erradazue, *zer egiten da*, zuen arabera, *ez mintzatuz*, mutu egonez? Deus egitekorik balitakela ere ahanzten. Mintzoak oroitaraz bederen dezake osoki soraiotua ez dena, orai ez bada gero, noizpeit zerbeitzen egiteaz. Guti da, ahul da eta mehe, mintzo xoilak; denik ere bi ezpainak elgarri josirik atxikitzea baino hobea.” (E 1244, 1911-2-10, “Nahas-mahas”).

“Ez baita errex, nahirikan ere, gogoan den hura, xuxen edo makur, erran gabe han egoitea, ezpainak elgarri josirik; gizonkiarentzat baino are nekeago mutu egoite hori emaztekiarentzat; errient batentzat baino lan gaixtoago errientza batentzat, ixiltasuna.” (E 1242, 1911-1-27 “Andere erientsak”).

*Ezpainak josi* metonimia nahiko erabilia bide da: cfr OEH Duvoisin “Aho-gainari josia gelditu bekit mihia” edo V. Mokoroaren “Ezpañak josiko dizkat jositorratza ta ariyarekin” *Damuba...garaiz*, 28 (1897) aipatuz.

*Ezteietan izan* : ‘oso pozik’. Hirugarren pertsonan (pl.) erabiltzeko joera du H-Uk.

“Ote da trufa okaztagarriagorik fraidei egitera doazina baino? Bortxan ezarri, Frantzian egoiteko gobernamentuaren baimenaren galdatzeko; hitzemanek, galdatzen zutenek ukanen zutela: edo bederen, ez edo bai, konfrario baktoren on gaitzak zuzenki, leialki pizatuak izanen zirela banazka. / Gero? Galdatu dute ba? Orori eza, paperak ikertu, ez eta hitz bat entzun ere nahi ukan gabe. / Zertako galdaraz, ez bazuten eman gogo? Zertako? Zakurkeriaz; irriz asetzeko elgarrekin. Hihi haha...Mandrin tzar batzu baino gehiagokoak dire. / Eta orai, iduri dute ezteietan direla. Fraide komentu guziak husturik, batzu berehala, bertzeak sarrixago, bizpahiru lau hilabete gorabehera oro; etxe eta lur guziak salduko dituzte, nahuten bezala. Saria...norentzat? Bixtan ahal da norentzat. Ez eiki zuretzat eta enetzat. / Nork nahi luke ere bertzerena, ohoina ez denak?” (E 825, 1903-4-10 “Ehortzirik”).

Ezezko perpausetan erabiltzen du batez ere, litotes gisa: *Ez dire ezteietan*:

(Diharassarryz) “Ari ba zinez, eta ibilki bere ahal guziaren egiten, bainan gero gertatzen zena gerta, ziolarik: “Jainkoak ez dauku bertzerik galdatzen, baizik ere harentzat gure ahalaren egitea. Ez dire ez, egun hautan gure etsaiak ere ezteietan! Nausitzen bazauzku ere, hoik beren eta bertzen kaltetan dabilta.” (“Diharassarry apheza”, in *Mintz*. 103).

*Galtzak beteak* (*izan*): ‘beldur (izan)’. “*galtza*. (Fig), lugar que se asigna a ciertos sentimientos, sobre todo al miedo y similares)” (OEH); nahiz *galtzak beteak* bezalako adibiderik ez dakarren. Maltzurkeria dario, egileak ohi zuenez, ondoko adibideari:

“Ministerioak leher egin du azkenean. Ordu zen! / Bi urte huntan zerbeit lan tzar egin ere badute. Ordu zen beraz *Constans*, *Berdolyren* adiskide miñuna, eta haren lagunak itzalerat joan ziten, bere kopetako izerdiaren xukatzerara. / Bazuten izerdiaz bertzerik ere xukatzeke, *Constans* gaixoak behinik behin urrunera ezagutu zuen, ez dakit nola erran...hots, galtzak beteak zituela. Nehor ez omen zaukeen gehiago haren aldean.” (E 248, 1892-2-26 “Ministerioa erori da”).

Beste nonbait hauxe dio: “Galtzak beteak dituzte, usteldura burrustan dariotela”.

**Giderra(k)** (*eskuan*) **uhan** : ‘boterea eduki’.

“—Ba bainan zera da: gider handiak omen zituen. Zer derasate: gider eta gider? Orizue, alafede, burutik joan denean, oro errautsi nahi omen baitzitu, hartu balu aizkora bat, atzeman guziei burua arraildu behar zeuela, utziko ote zuten libro, erranez: “*Bego, giderra eskuan du!*”. / Ken, ken giderra; ken fite zuen onetan. Lau urtetarik behin bazuketen Arrotarrek gizon lanjeros hari gider guzien kentzeko parada ona. Zertako ez ken? (...). / Anartean gure nausi, *Combes* Frantziako auzapez guzien “chef” ohiko apezgei arnegatua. Giderrak eiki eskuan dituzke hark ere. Nork emanak?” (E 1903-6-12, in *Mintz.*, 129-131).

*Gider*-etik eratorria da **Giderreko aldea (eduki)**, erdi figuratiboa:

“Guk hemen erran (...) bederen gauza bat bazutela ona, hitzeko gizonak izan zirela Legrand eta Harriage. Eta gero, bertzeak bertze, makur zirela bi jaun hoik egungo ministro tzarrekin, guk hemen erran, egia zen eta den bezala...Sudurrera zalu eman daukute, ez naski hitzez hitz, bainan gor ez denak entzuteko gisan: xoraturik gaudela jaun hoiengan adorant! Iduri ez zitzaukun iduri, bazela, bazitakela iguzkiaren pean holakorik, Eskual-herriaren eta Frantziaren zorionarentzat! Erran balezagute bezala (...) giderreko aldea daukagula guk beti” (E 779, 1902-5-23 “Ongi ala gaizki?”).

“argituz doa urtetik urtera, egunetik egunera, zer ondorio daukun ekarri, ekartzen eta ekarriko beti, giderreko aldea daukaten hoier bozaren emaitak” (E 1218).

**Gontzetarik jalgi**: ‘(norbait) (bere) senetik edo onetik atera’. “*Gontza* BN-haz, gozne, gond (?) (Azkue); “*Gontza* C. (H. A.) gond de porte, de fenêtre” (Lhande).

“Bigarren hutsa; huts handi goa oraino: jendea egunetik egunera kexuago zoala ikusten; oro mintzo, mintzo eta elgarri aher auzoak, herria herriaren kontra. Gerla piztera doala, ja piztua dela, herrazko egitateak azkarki hasiak ageri; beren begiz ikusten gobernamentuko gizonak; eta futxo halere bi besoak kurutzaturik egoki bazterretik so! Utzi dute jendea gontzetarik jalgitzerat osoki; des-

masiarik izigarrienak gertatu arte, deus ez dute egin, behar zitakenik; ondoan, berantegi dituzte soldadoak igorri.” (E 1254, 1911-4-28 “Zer gizonak!”).

**Haginean** (*egon / izan*): ‘herraz (izan)’. Hirugarren pertsonan (*dago / dire...*) eta harridura adierazpideetan bereziki. “*agin 2º Zer haginean den harendako!* (BN-ald-haz, Sc, ¡qué rencor tiene contra aquél!, comme il lui en veut!, quelle dent il a contre lui!” (Azkue, Dicc.) . Orobat *EY III 331 Rencor*). Harrigarria bada ere, OEHk ez dakar adiera hau, Azkuek badakarrena hain zuzen!

“Ala bide makurrean doazinak, xuxena daukatenentzat herra dariotela, behar ginuke guk hemen erran ongi dabiltzala? Baditake orduan ez ginintazken gaixtoak, gure gizonttoen gogora.—Ez dautzut erraiten: bainan orizu, bertzeak bertze, holako jauna, ohorezki bizitzeko bertzerenaren beharrik ez duena, *ohoina* dela erran omen duzu!.—Nork?—Zuk.—Nik ez.—Ba omen; hala dio berak; eta ez du zortzi egun, haren ahaide hurbil batek erraiten zaundala. / Hagin onean dagola delako herritarra zuretzat, hitz dautzut.—Dagola bere haginarekin. Zuk, adixkidea, otoi adi nezazu, eta bertze zonbeitak ere ba.” (E 1274 “Norenak handienik”).

“Eta zer hatsean, zer ausikian hor lotuak elgarri etsai zahar eta berri; (...) / zoin barna duten hartua, gerla huntan anglesa zuzenaren alde jarririk. / Eta Belgika dohakabearentzat zer haginean ez dire, zeren ez dituen utzi han gaindi sarzterat Frantzian!” (E 1453 “Oldar Handia”).

Ik. *Hatsean egon*.

**Haizea** (*alde / kontra*) (*izan / ukan*); **Haize** (*alde / kontra*): ‘zirkunstantziak edo gauzen egoera alde / kontra (izan)’; ‘gauzen egoeraren alde / kontra’.

“Ez baita errex, egungo egunean, herri handi baten buruzagigoaren jasaitea! Bereziki, haizea zure kontra duzunean! Haize alde, normahik egin dezake auzapez baten lana. Zuk lan hura gaizki eginik ere, begiak hetsiko dituzte goragokoek. Makurra xuxenduren dautzute berek, edo kukuturen...baldin heien eskualdea balinbadaukazu. Nahaskeria pullitik baita bazterretan, holaxet kukutzen denik! / Bainan haize kontra doanak mila sare, arteka, pezoin eta ateka baditu iragaiteko. Den hutsik ttipienak altxatzen diozkate. (...)” (E 1900-1-26, “Albert Goyeneche”, in *Mintz...87*).

“Boz emailleak han, bana bertze, orotan bezalatsu dire: aldakor, haize alderat erorkor; ez baitakite askok norat itzul, ezin ezagutuz zoin den on, zoin ez.” (EO 31, 1907-8-2”Bozak Eskual-herrian”).

**Haizea itzuli**: ‘egoera aldatu’. Agian egileak haizearen irudia bersortzen edo bihurtzen duke:

“Gaina dute orai framazonak (...) haizea alde dute. Bainan bizi denak, ikusiko du oraino eskualde bat edo bertze haize hau itzultzen” (E 312).



“Behin orai, mementoan, etsai gehiago du legeak, langiletan beretan, alde baino. Haizea itzuliko den ala ez, geroak behar du erakutsi.” (E 1265 “Nausi-langile”).

*Norat haize harat itzul* erranaren bihurtetaz sortzen du *norat haize harat itzul errex* kalifikatiboa:

“(…) bozak zer diren!...Ez-deus batzu bardin sartuko toki batzuetan, bertze batzuetan (...) bardin gizon handitzat ezagutuenak erroz gora gelditzen direlarik. / Kurutxalapil, asko bozemaile norat haize harat itzul errexekin.” (E 1206).

***Hari (azkarreko / zaileko/...).*** ***Hari azkarreko:*** ‘bere izakeraz osasuntsua, indartsua edo gogorra (?); iraute luzekoa (?)’.

”Adiskide batek egortzen daut beria, joanden ortzegunean egin dituela komentu hortako ((Oñatiko)) fraide eskualdun batek ehun urte. / Fraide hori — *Anacleto Salazar* du izena— oraino frango azkar da. Egun horretan kantatu du meza, apezpikuek kantatzen duten bezala, (...). / Hari azkarrekoa da fraide eskualdun hori. Segur naiz eskuetako hamar er(h)iak aski litezkela kondatzeko, zenbat apezek, Elizaren hastapenetik orai arte, meza kantatu izan duten beren ehun urteak bete dituzten egunean.” (E 1267; Adéma?). Ik. *Piru zaileko*.

***Hari zaileko*** : ‘ekin eta ekin, ahaleginean irauten duena; aldakor ez dena’.

”Charles Benoit. Pariselo deputatu hoberenatarik da jaun hori; buru azkarreko gizona eta hari zailekoa, bat balinbada. / Bere sailari lotu zenean duela zenbeit urte, guti aditua zen; bainan erranaren bortxaz, urak harria bera azkenean zilatzen duen bezala, zilatatu harek ere bururik gogorrenak” (E 1205).

“konda, zoin zuen herrietan, bat, biga, hiru, lau...bi lerrotan berex ezarriz, zuen baitan, xutak eta konkorrak; hari zailekoak eta ustelekoak; *eskualdun* fier, libertateari, elez bezala, obraz atxikiak.” (E 1313 “Bere buruaren jabe”). Ik. *Piru ahuleko / zaileko*.

*Hari oneko / gaiztoko* hiztegi eta lokuzio bildumetan jasoa da. “S. (A.) race. *Aria huneko gizona* (A.) homme de bonne lignée. *Zer ariatako jente da?* (Esk. n<sup>o</sup> 1453) de quelle caste est-il donc?.” (Lhande). “(h)ari “Raza, casta, género” (OEH). Azkueren arabera, izakera adierazten du: “*Character. Ari oneko gizona*, hombre de buena correa o humor (B, *Dicc.*). *Ari gaixtoko gizona*, hambrecillo de mal character (BN, L, D, *Dicc.*). *Ari batekoak dira biak, adiskide dira*, los dos tienen igual character, son amigos (B-g, *Dicc.*) (Azkue, *EY* III 258 Carácter).

H-Uk bereziki ***Zer hariko gizonak*** harridurazkoa darabil: ‘zer motako, izaerako, kastako’.

”Zer hariko gizonak ditugun Xobat Haranbururen adixkideak” (EO 36 1907). Ik. *Hari zaileko*.

**Hatsa gezurra** (*ukan*) (*norbaitek*). Hirugarren pertsonan ageri da maizenik eta *ukan* aditzarekin: *Hatsa gezurra du / dute* ‘oso gezurtia da / gezurtiak dira’. Esakune batetik dator: “Atsa ere gezurra du”, es muy mentiroso; lit.: aun su aliento es mentira (L-azk).” (Azkue *EYIII*, Modismos, Mentir.). Hiperbolea da.

“*Ba* eta *ez*, aho beraz, denbora berean, gauza beraren alde eta kontra erraiten duten gizonak zer gizon dire? Deus ez gizon, edo deus onik ez. / Gu bezalakoari begietarat errauts emaitako, hatsa gezurra duten batzu.” (E 1246, 1911-2-24 “Errespetatzen”).

“Harekin eta hura bezalakoekin oro lausengu eta ele zuri. Bertzekin hatsa gezurra eta bi hitzetarik bat ahalgegarrizko urdekeria...” (E 1225 “Ez dire gaixtoak”).

**Hatsa zail** (*ukan*) (*norbaitek*): ‘iraunkor (izan) (norbait)’.

“Lehen ere izan dire gobernamentu tzarrak, bainan iragankor. Hunek oraidinoko guziek baino hatsa zailago du.” (E 802).

“Bainan (eskuarak) hatsa zail duela bederen erakutsi du engoitik.” (*Mintz.*, 210, apud OEH).

**Hatsean** (*egon* / ?...). Bereziki **Zer hatsean!** esapide harridurazkoan. *Hats*: ‘herra, errabia, haserre’.

“Bere herrian eta auzoetan denarentzat ezagutua den lapurtar mera ohi batek zion, aitzinagoko astean: “Deus makurrik ez ginuke, urde apez horiek egon balite nonbeit. Preso behar litazke guziak ezarri boz egunetako, hilabete bat aitzinetik.”. / Zer gizon zaharraren ateraldia! Zer hatsean dagon beren eginbidea baizik egin ez duten apezentzat!” (“Zoin gibela”, E 1216).

“(…) gizonak baino laguntza beharrago baitu emazteak; bere gain utz baladi, urrunago bailoake gaizkian eta barnago, beheago. Hortakotz dire gure etsaiak, orai arte gizonkien galtzeko zazpi ahalak eginik, lotuak orai, eta ja bolta huntan —eta zer hatsean! —emaztekien galarazteari, andere eskolemaile geietarik has, neskatoke ttipi, aita eta ama giristinoen ume, haur hotzetaraino.” (E 1240 “Emazteak”).

Ik. *Haginean egon*.

**Hats gaixto**: ‘herra’. *Hats* : ‘herra, errabia, haserre’. “(Hats) En expresiones como *hatsean*, *hats gaiztoan*...’furioso, airado, en cólera’ (OEH).

“Etsaien herrak, eta onaz bertzeak oro dituzten politikero tzarren hats gaixtoak baino kalte gehiago egin behar ziokeela iduri zuken, denbora batez, adixkiden edo adixkide beharren hoztasunak, ezaxolakeriak.” (E 1344, 1913).

“Kopetarik aski ez, diren bezalakoek, eskuarari berari jazartzeko agerian; itzul guri apezei buruz, orotaz gu hobendun; *beti gu*. / Guk daukagula itsu mintzai hori, eskualdunak horri esker buruz beheiti atxikitze. Egiatzko egia dena da, gezur hori derasatenek luketela nahi eskuara izilka, gordeka urkatu, alegia deus ez, gero eskualdunak errezkiago bereturik, beren hats gaixtoaz kotsaturik, lehertzeko.” (“Dugun atxik eskuara”, 1910, in *Mintz.*, 213, apud OEH).

*Hats hortako gizonak* adierazpidea behin baino gehiagotan darabil:

“zer izigarrikeriak derasatzaten oraiko gizonen aldeko kazeta debroz eginek; gezurra, blasfemia, urdekeria dariotela. Hats hortako gizonak ditugu Frantziatz jabetuak; tzarretik tzarragora goazila beti.” (E 1198 “Boza nori”).

Ik. *Zer hatsean; Haginean* (*egon / izan*).

**Hogoi-ta hameka eta esku:** ‘aukera guztiak (irabazteko, auzi batean ongi ateratzeko etab.)’. Gehienetan *izan* aditzarekin darabil. Berez, karta jokoan erabilia; bizk., b-n *Hogei ta hamaika eskutik* (*Hogei ta hamaika eskuti dauzkat* AN-luz, ‘tengo la partida en mi mano’, Azkue *EY* III 321 Partida)

“Halere bazoaken aitzina, eta joanen zen berenaz, ez balu *Guichenné* bere koinat deputatu geiak azkarki kontseilatu, utz zezon bide bere ondokoari, hogoi-ta hameka eta esku izanik ere.” (EO 1905-10-13 “Hazparnen”).

“Nahutena erran eta egin, izan ditake nausia hersturaz; halere nausi deno, hogoi-ta hameka eta esku da” (E 1266, 1911-7-14 “Ezin lothuz”).

“Makur gehiago, prozeberbal gehiago, kolpe eta zauri gehiago, eta kontentago dire. Hoitarik eta holakoetarik dautzute beretzen hogoi-ta hameka eta esku.” (E 1238).

**Igela(k) ire(n)tsi:** ik. *Apoak ire(n)tsi*.

**Ihizi ona (izan)** (*nor bait*): “*ihizi, ihize* (Aplicado a personas). Animal. “4<sup>o</sup> (Au fig.) Personne dangereuse, madré, qui est à craindre, astucieux, maître, filou, etc. *Zer ihizia* etab.” (OEH, Harriet-en arabera). Harridurazko adierazpideetan eta gehientsuetan 3. perts. sing. darabil.

“Putiko ona da ba, debrua: badaki nori, zeri lot. (...). / Pazkoko argi handu hura bezen handiak ikusirik nago hanxet zirio batzu, Bastidakoko serora beneditanoetan. —Zer dire hauk, orga hagak? —Ez, jauna, ez; “des cierges de première communion” (...) /. Harritu nintzala garbiki erraiten dauzuet. Segur niz engoitik aspaldi oro salduak direla. Deus ez litake, edo ez makur bat hain handia, xede onez, komunioneari doakon errespetuz baloazi hauk oro. Bainan urguluak zer ez derama? / Behazue zeri lotua, non sartua bere sudur beltza debru den bezalakoak! Ihizi ona da ba hura, berriz erran dezagun” (E 837, 1903-7-10 “Non dugu burua?”).

Pasarte honetan garbi ikus daitekeenez, aipatu lokuzioa *Putiko ona (izan) (nor-bait)*-en baliokide da; hau ez da erabat irudizkoa. *Zer ihizia!*-ren parekoa da ere *Zer putikoa (den / zen /...):* ‘pertsonea arriskugarria, maltzurra’.

”Delako juje jaun handi harek *Jaquin* du izena. *Jakin* balute zenbeitetik, hura zer putikoa zen eta den! Iduri zuzentasuna bera zela, zuhurtzia bera, justizia bera, leialtasuna bera; ...eta gero hor agertzen da gure jauna, esku-azpiz ohoen tzar batzuekin bat egina zela. Burutik joan dire oro, samurrarekin. / Hizen bezalako *Jaquin* ! Hi zer putikoa hizen guk lehenago ez jakin!” (E 780, 1902-5-30, “A! Zer putikoak!”).

(Azken honek erran baten oihartzuna dakar: adib. “Joakin: i noiz hilko aizen guk ez jakin” (G-ataún), Azkue, *EY*, III, Espasa Calpe, 1969, 43. or.). Baina *Zer putikoak!* ez da beti peioratiboa:

“Goizeko hiruetan ja baziren eskualdun multzo batzu joaki, oinez, batzu Tarberat, bertzeak Lurderat. Zer putikoak! Ez dire bideari lotsa.” (E 1256, 1911-5-5 “Soldadoak malobretan”).

***Ile alde perekatu:*** ‘lausengatu, ongi esan’. *ile-alde* “(AN, L apud Azkue; Duvoisin). “*Ilealde eta ile kontra*, à poil et à rebrousse poil. *Ile alde ferekatzea* (fig.), flatter par des paroles d’approbation qui sont selon le coeur de celui à qui on s’adresse” Duv.” (OEH); Duvoisin, Laphitz eta Lafitteren adibideekin.

“Ederki perekaturik ile alde, igorri zituen etxerat...sartzean bezen gibel, jalitzean.” (E 831).

***Ile alde perekatzale:***

”Nago frangotan gogoeta: zenbat etsai duen jende xeheak,...hasirik bere burutik eta noiznahi alde orotarik inguratua daukaten ile alde perekatzale barne ilun ele zuri batzutaraino.” (E 1145 “Jende xehearen etsai” (hasiera).

***Ile ondo bat (galdu / higitu /...):*** ‘deus, bat ere’. Gehientsuetan + *gabe* edo ezezeko perpausetan. Ondoko adibideen iduritsuko batzuk dakartza OEhk: *ile-ondo*: “(Gizonak) sortzen dire ile ondo bat gabe. Hiribarren *Egia* 61 s; Gizonak, hoberenak, badu hille-hondo bat beltza (L-côte). Landerretxe *Zuhur hitz* (ap. DRA eta OEH); *buruko ile, buruko bilo*: “Ez deutstee buruko ule bat kenduko, fr. Bart. *Icasiquiz*. I 57); “baña zuen buruko ille bat ere eztu galduko” (Iraizoz, *Yesukristo gure Yaunaren bizia*, 1934). Hona hiperbole honen pare bat adibide:

(Aireplano istripu batez ari delarik) “Bitxi dena, tresnarekin erori den gizonak, ez eta ere lagun bat baitzuen berekin eremana goiti, eta ereman gogo zuena, aiaio, bigarren...ile ondo bat ez dute galdu, batek ez bertzeak. / Lurreratzearekin xehakatu behar zirenak, dremenden minik gabe dire gelditu. (...).” (E 1259, 1911-5-25 “Bat hil, biga hiltzer”).

“Edo bertzenaz, hura hobendun bazen, egiazki merezitua balinbazuen atze-man duelako gaztigu garratza, nola duten kondenatu bakarrik hura; haren lagun batzu, harekin batean bardin hobendun zirenak, ez gehiago, ez gutiago, nola diren auzitik atera, ile ondo bat galdu gabe, bitxi da.” (E 1264, 1911-6-30 “Hama-bi urtheren galeretarat”).

“Hanxet egon oro, geldi geldia, ur hila iduri, er(h)i bat, ez ile ondo bat higitu gabe. “Toujours chacun pour soi” (E 844).

**Irriz usteldu:** ‘irriz ito edo lehertu, urratu, asetu’. “Irriz usteldu (BN-gar), irriz lehertu (BN-am, S), irriz urratu (S), desternillarse de risa, reventar de risa: *rire à gorge déployée, pouffer de rire*” (Azkue).

“Egungo egunean *voyageur* bilakatuak dire xarlatan asko. / Goazin mintza bereziki eritasun edo zernahi minen sendatzale xarlatan debruak botan dituzten batzuez. Deus min, deus gaitzen, ez bakarrik sendatzeko, bainan ezagutzeko ere, fritsik ez jakin; axola izpirik ez gaitz bat bertzearentzat har, ala ezkerreko ixterrean behar enplastua eman eskuineko ukondoan. / Izigarriak badire, hurbildanik begi onekin ikus eta irriz usteltzekoak, ez balute sudur bat, bainan sudur bat, urrunera, urratsetik edo nolazpeit ezagutzeko, nor den sineskor, eta nor ez. Hautarik ez dute deus nahi; (...)” (E 1339, 1912-12-6, “Xarlatanak”).

**Itzea (buruan /...):** ‘ideia finko bat, griña edo sendimendu bat, buruan (/ bihotzean) landatua’. “Il se dit d’une idée fixe, d’un souci qui persiste, d’un resentment que l’on garde, etc. *Itze bat buruan ilkhiko etzaiona*, il a à la tête un clou qu’on ne lui sortira pas. *Bazinaki ze itze dakhardan bihotzean*” (H(arriet), apud OEH). *Sartu* aditzarekin, ondoko adibidean, non kazetaria ALP bultzatzeko ideia finkarazteaz edo pertsuaditzeaz ari baita:

“Beti solas beraz mintzatzea da. Nahi badu ba. Nork edo zerk erran dezake: bertze deus aipatzekorik ez ote ginuen? Erran beza nahi duenak nahi duena. Gu gure huntara beti: atzo, egun, bihar eta etzi...eta etzidamu; buruetan itzea barna sartu arte.—Zertaz da solas?.—Erran gabe ahal doa: beti beraz. *Action libérale populaire* (...)” (E 858).

**Itzulipurdi egin (norbaitek, zerbaitek) / itzulipurdikatu (norbaitek zerbait):** ‘(zerbait) erroz gora jarri / (norbaitek zerbait) hankaz gora ezarri’. *Itzulipurdi* “voltereta, vuelta que se da de cabeza; (fig.) vuelco” (OEH). Politika adieran darabil H-Uk: ‘porrot egin’.

“Nahi badute, oraikoa egiter duena eginen du etsaiak segur bertze aldian, itzulipurdi bat ederra.” (E 779).

“(...) itzulipurdi bat ederra egin lezake hunek.” (gobernamentuak) (E 1906-4-13 “Ahal guzia”, in *Zez.*, ap. OEH).

“(…) aitzinagoko bi gobernamentuak ere soldado-aitzindariak itzulipurdikatu zitu zuztela Espainian” (E1189, 1910-1-21 “Asteko berriak” saila; Adema egile).

“jende xeheak (...) balukela ostiko bat begitartera kask eman lezoken etsairik azkarrenari eginarazteko buruzkain itzulipurdi” (“Dugun atxik eskuara”, 1910, in Mintz., 199, apud OEH).

Ik. *Erroz gora*: IV. Eraskinak.

(*zerbaitz*) (*ala*) (**Jazko haizeaz / Zakurraren buztanaz**) (*bardin axola / axola bera / axolarik ez*; (*zerbaitz*) **Axolarik ez jazko haizeaz baino gehiago / Jazko haizeaz bezen guti axola**: ‘axolarik batere ez’. Konparazio formetan ageri dira, *izan / ukan* aditzekin maiz. Konparazio hiperbolikoa da.

“Egun ateri, bihar euri; egun ase, bihar gose. Geroko aterbeaz, geroko biziaz, ala jazko haizeaz bardintsu axola.” (E 838).

“gizontasunaz ala egiaz, ala zuzenaz, ala jazko haizeaz bardin axola duelarik.” (E 860).

“Biharamunaz ez axolarik, jazko haizeaz baino gehiago.” (EO 1905-8-18).

“Orai arte, ikusten duguna da, gure gizonen solasetarik: hain dela hor zerbeit beharra, non ezpaitzakete gorde; alegia zerbeit egin nahiarena bederen behar baitute erakutsi, funtsera eta jazko haizeaz baino axola gehiago ez ukanikan ere” (E 1237 “Ostatuez”)

(gure ministroak) “neskato haur gaizoen arimen galtzea baizik gogoan ez dutelarik, baitute kopeta oraino erraiteko, errientsagei andre gazteak ez lituzketela ikusi nahi jaidura tzarretarat erortzen! Jou! / Ontsa kilika ahal dire bada andre heien arimaz, heien ohoreaz, ala jazko haizeaz!” (E 1902, ap. OEH).

“beren buruzagi, eskoletako ministro eta guziez, jazko haizeaz bezen guti axola baitute *jaun errientek*, ba eta ere ja tokitan, *andere errientsek*?” (E 1326 “Jaun errientak”)

(Gobernamenduari) “Errientek ihardets: mehatxu hoiere eta handiagokoen bardin direla beldur, nola jazko haizearen” (E 1912-10-4 “Gaizkiak”).

(*zerbaitz*) (*ala*) **zakurraren buztanaz axola bera**: ‘axola gutxi’. Ez da ageri adiera hau OEHn *buztan* hitzean, bai H-Uren ondoko adibidea:

“Herriak, herriko burasok, herriko buruzagiek, auzapez eta kontseiluko gizonen holakoetan ikustekorik ez balinbadute, zertako ibili dire, iragan egunetan kontseilu guziei galdez: ea zer zitzeien; serorak nahi zituztenez atxiki, ala ez? / Galdeari guk hemen ihardets: “Ba, nahi ditugu” eta gero gure nahiaz ala zakurraren buztanaz axola bera” (E 1902-9-5 “Jaun medikuari”, in *Zez.* 106 ap. OEH)

**Karakoil izan:** Ik. *Bare izan*.

**Kukuruku egin:** ‘nagusi dela aldarrikatu’. “Au fig., familièrement se montrer fier, en maître” (Duvoisin ap. OEH)

“Gorrien aldeko gazeta tzarrek iduri dute ez dakitela nola aski espantu egin, azken boz horietan hartu duten esku-gainaz. (...). / Iduri luke ikusiz gure etsaien bozkalentzia. Bainan otoizten ditugu ez dezaten, bere onetan, goizegi kukuruku egin. Ele onak eta bakezko hitzak errexkiegi sinetsi dituzketen boz-emaile gaizoez horren laster eta agerian trufatzea ez da zuhurtzia.” (E 271, 18928-5, “Iragan igandeko bozak”).

“Gu galde-geldia, gu ixil-ixila, gu mutu, eta bertzeak, ohoinak eta ohoinekila-koak? O! amigo, hek burua gorarik. Heiek, zoin gehiagoka, kukuruku.” (E 1282 “Karakoilak”).

**Kutxalapil handi(a):** ‘gorabehera handi(a)’. *Kutxalapil* : ‘gorabehera’. “De resultado incierto; de cara o cruz”, Satrustegi *Vocabulario Popular* , 1963-1964 (OEH). < kurutx ala pil; gzt. *cara o cruz*. *Kurutxalapil*, *kurutxalapileko* ez dakar OEH, bai forma laburtua: *kutxalapil*, *kutxalapilka*, *kutxalapilkako* etab., eta Harriet-en adibide batean “*Khurutz ala pil*, *croix ou pile*”.

Ondokoak darabiltza H-Uk: *Kutxalapil handia izan*, *kutxalapil handiko* + izena (zerbait: *X: zerbait* : legea / ...).

“Gorago erran duguna, kurutxalapil bat handia baita hor, langilearentzat, legeari obedituz ala desobedituz.” (E 1265 “Nausi-langile”).

“Traunen duenez, eta noiz arte; hastetik uzkailiko ez ote den? Ez dakigu eta nork lakike? / Kurutxalapil handiko legea dela ba hori!” (E 1265, 1911-7-7 “Legea haste”).

**Larruak atxik ahala:** ‘asko, ugari, larruak koka edo hartu ahala’. *Hantu*, *bete* (‘jan, edan’) aditzekin ageri da adibideetan.

H-Uk lehenagoko ohitura *onak* maite zituen; moda berriko gormandiza, bate-re ez:

“Orai? O! gizon maitea, orai, *nouvelle mode*. Bazkaria eginez geroz jan nahi, eta janarazi. / Behinik behin haur gaixoa, goizean berant arte barurik egona, ezarriko dute, batek jatera eman, bertzeak edatera, larruak atxik ahala...beterik.” (E 836, 1903-7-3, “Ezteiak goizik”).

“Politika tzar bihurrienean barna sartuago eta errient *hobeago* buruzagien begietan; erlisioneri aiherrago, jazarriago, eta lausenguz, perekuz, agintzaz, ba eta ere anitz irabaziz eta, toki onez toki on, aitzinamenduz hantuago, larruak atxik ahala baino, zapart egiterainokoa.” (E 1326 “Jaun errientak”).





*Larrua beteko* (OEH), Eguzkizaren *Narrua betean ago* eta *Inzaren Larruain* (*larruaren*) *betean aunturik dago* adibideekin. Bizk. *Narruak hartu ezinik*, X. Kaltzakortak diostanez.

(*norbaiten*) **Larruaren barnean**: ‘persona (norbait)’.

“baten ez bertzearen larruaren barnean herioak ez atzemaitea” (E 1232).

(*Bere (/ beren) Larruaren barnean ez dauke (/ dauzke)* (= *dagoke / daudeke*, 3. pertsonan eta *-ke* modu-atzizkiarekin) da gehien darabilena: ‘leher egin ezin egonez, haserreturik etab.’ “*Bere larruan eztagoke*, il ne tient pas dans sa peau” (Lhande).

(P. Déroulède frantses politikari abertzaleari buruz) “Debruak hartzen du, gaixtaginak beren itsuskerien gordetzen ari direla ikustearekin. Ez dauke orduan bere larruaren barnean. Ahora jina erranen deie muturrera, erdiz erdi; gero berari zer nahi gerta dakion, ez du axolarik. Behartzen baitzaio!” (E 1900-2-9, “Orgatara bat lur”, in *Mintz.* 92).

“Larruaren barnean eztauzkela, beharrietara doakotenean *bascou* itsusi hori” (E 1908-2-21, in *Mintz.* 214, ap. OEH).

Antzekoa da *Nehon ez egon* (*Nehon ez dauke*) (“suprefet gaixtagin nehon ez daukenak.”, E 860)

**Lau hatzetarik** (*su / pindar(ra)*): ‘gogotik eta trebeki lanean’ (ari). Hirugarren pertsonan: *dario / dariote*, iraganaldian berdin.

“Batzu gibelerat uko dagotzi. Bertzek aldiz iduri dute lau hatzetarik su dariotela” (E 291).

“Pazkorik orobat ez egiten, eta futxo, Elizaren etsaien kontra boz-egunetan lau hatzetarik su dariotela.” (E 1231).

“Langile berri guziak bezala, lau hatzetarik pindarra dariotela, nehork ezin atxikiak ditugu hor zenbeit ((xuberotar laguntzaileak)). Su horren ikustea laket”. (bigarren esaldiko *su* hitzak ‘karra’ adierazten du, irudizko adieran.

**Leher eta zapart**: ‘kosta ahala kosta’ (“Costar (trabajo): ler edo zaparta; BN-s, R-uzt, Azkue *EY* III 267). H-Uk maiz erabilia da.

**Lepotik lotu**: ‘hersturan ezar’. *Lepotik hartu*: “Au fig. Etzaitut lephotik hartuko, je ne vous prendrai pas au cou, je ne vous presserai pas” H (OEH).

(erretreta lege berriak langile zaharrei 65 urtetarik goiti eguneko 22 sos emanen dietela-eta): “(...) hor hunkituak direnetarik anitzek ez dakite oraino, legea bizkarraren erdira jina dutela ere. (...) / (...) nausiari, etxeko andereari lepotik behin lotuz geroz, bizi direno, ez diote lege horrek hatsa utziko.” (E 1266, 1911-7-14, “Ezin lothuz”).

Ik. *Soka lepotik*.

**Leze(aren zola)ra (eror / joan /...):** ‘gainbehera, haitzulora (joan / eror /...)’. *Eror / joan* aditzekin maizenik. Leizearen irudiaz da H-U usuenik baliatzen gizarte eta politika egoera orokorra nola gainbehera doan irudikatzen.

“Gaixo Frantzia! Jainkoak baizik ez dezake neur, nolako leze barna eta ilunerat eror litakeen...” (E 253).

“Egundaino nehon ikusi ez dena Frantzian ikustera goazi holetan. Ez gira oraino hartara helduak; bainan hartara goazi bide xuxenez eta erdiz erdi; batzu buruz behera tarrapatan; bertzeak emeki-emeki; bi begiak hetsi eta erdi lotan bezala, bagoazi lerran, emekiño, lezearen zolara” (E 253 “Jainko berria”).

**Makila bi buruetarik (atxiki / eduki):** ‘bi aldeak eduki’. Zaharra da: OEHn Tartas-en bi adibide datoz.

Gure kazetariak bi aldeak dauzkatenak eta oportunistak ez ditu begi onez ikusten:

“erran ginuen, beldur ginela, jaun hori makila bi buruetarik atxiki nahi luke tenetarik izan zadin. Ele onak zituen, bainan elen araberakoago nahi gintuzke ikusi egintzak.” (E 809).

“Hek bederen alde bati daude osoki, tzarreko aldeari; beren gogorakoari. / Hauk aldiz bi aldetarat daude: makila bi buruetarik daukate hemengo hauiek, salbu zenbeit bakar-bakarrek. / Mintzo naiz bereziki herri bakoitzean gure etsaien aitzindari direnez.” (E 1154, 1909-5-21, “Hemengo etsaiak”).

“(…) *faltsua*, makila bi buruetarik daukana, maiz bera ere har-joa da. Ez da gizon fina.” (EO 28, 1907-7-12).

Aipatu lokuziotik **makila bi buruetarik atxikizale** eratoritzen duke, ondoko pasarteetan ikus daitekeenez:

“Ez dugu zeren luzaz mintza ere, hoin behera erori gabe, jarri gabe, hots, gorago aipatuak bezala, etzanik etsaiaren aitzinean, hautsi-mautsi egin nahiz dabilzan gorri gorrasta zuhail, ez xuri ez gorri batzuez. Bi buruetarik makila atxiki lezaken deputatu bat nahi bailukete, berak ere halatsukoak direlaketoz, makila bi buruetarik atxikizaleak, edo ezin atxikiz, debruen lanak dituztenak”. (EO 37 1905-9-15 “Nolakoa?”).

Halaber **Makilaren buru batean**: ‘alde batean’. Ez baita ageri OEHn adiera honetan.

“Asko zeretean bezala, huntan ere zuzena eta egia ez baitire makilaren buru batean, ez bertzean; bainan ba erdian...edo erditsu hartan.” (E 854, “Betharra-me”).

(*norbaitek bere*) **Makila xuritu**: ‘bere buruaren jabe izan; bere autoritateari / karguari dagokion eginbeharra bete (?), behar bezala agintzen jakin (?)’. OEHN *makila zuritu* ageri da, ‘criticar ( a alguien)’ esan nahi omen duena, adibide bakar eta moztuarekin (hain zuzen hemen ezartzen dugun lehena). Baina ondoko adibideak irakurrita, nornahik ikus dezake OEH kasu honetan itsura mintzo dela.

H-Uk (*norbait bere*) *makilaren xuritzeko on izan* esapide oso eta finko itxurakoa erabili ohi du. Kargudun batzuen jokabidea epaitzerakoan darabil egileak esapide hau:

“Are gutiago du zeren nehork erran, edo norbeitek hala ez dena erranik, sinets, herraz, jazarri gitzazkola gizon eri bati. Ez da hola. Lehenago ere, behin baino gehiagotan, bere buruaren jabe zelarik eta nehor bezen on, bere makilaren xuritzeko, bereak aditurik dago hementxet Arrotako auzapez ohia.” (E 1903-6-12 “Etsenplu: Tissier”, ap. *Mintz.* 126)

“Izan da ere bat, hau ez gorrietarik, bertze nehork egin ez duena egin baitu. *Etxeberri-Ainxart* Baigorriko jaun mera bipilak irakurri duen bezen laster Mauleko suprefetaren galde pertolia...hartu bere auzapez *exarpa* deitu gerriko hura, besogainka muturrerat aurdiki dio: “To, horra non dukan ene demisionea. Salatari bila balinbahadi, bila zak nitaz bertzerik”. / Buruz jokatu bada eta ez bada, ez gira hortan sartzen, dakigulakotz bere makilaren xuritzeko on dela, gizona” (E 820, 1903-3-6 “Salhatari”).

“Zer den jelsia! Espainiak auzo batek auzoari egin dezoken begitarterik gaixtoena egiten dauku.—Zertako?—Zeren *Marok*-en ez baita egundaino bere makilaren xuritzeko on izan; hango jendeak betidanik, eta guziz orai, nahiago baitu, españolekin baino gurekin bat bizi.” (E 1276 “Gerla ote?”).

(**Musika / soinu**) **bera** (*ukan /... ?*): ‘beti lelo bera (ukan /...?)’. “*beti musika bera du* (BN-arb)” (OEH). Ondoko adibideetan, *ukan* aditzarekin:

“aspaldi du orok musika bera dutela, erlisioneaz mintzatzeko ahoa idekitzen duten guziez: *Sinestearnak* egin du (...)” (E 1246).

“Merkatu herri gehienetarik soinu bera dugu, abererik, ez azindarik ez zela holako eta halako merkatuan, ba ordean aire hartzale frango halere oraino; (...)” (E 1279 “Merkatuak”).

**Musika** (*hura*) (**entzun /...?**): ‘iseka (entzun etab.)’. *Musika*: ‘norbait(zu)ek, burlaz edo marmarrean etab. entzunarazitako zerbait’. “*musika 2º au fig. moquerie*” (Lhande).

“Mauleko jaun suprefeta, *Second* deitua (naski *Combes* delakotz egungo tirano higuingarrietarik *lehen* eta *Second* araz *bigarren*), zoalarik Atharratzen barna, hixtuka, oihuka, trufaka, fueraka, eta diotenaz, oraino zerbeit gehiagoka ereman zutela xuberotar bipil batzuek beren aitzinean, hiritik han harat bide puska bate-

an; irriak eta larderiak barna omen baitzituen, musika hura entzutearekin, xubero-rotarrek eta baxenabartarrek aspaldian merke sal lezazuketen suprefet gaixtagin nehon ez daukenak.” (E 860).

(*norbaiten*) **Musikari beharri eman** (egilearen burukoa?).

“Hitz bat edo bertze artetan erran dezagula gero jende xehearen itzalez, haren onetan (...) emozu beharri leizor lizafinen musikari: “Horra, horra non den, *Eskualduna*, ikusten duzue, langilearen kontra; aberatsen alde jende apalaren, jende beharraren kontra”. (E 1145 “Jende xehearen etsai”).

Ik. *Trufa baino musika gehiago*.

**Oilo busti** : ‘beldurti, koldar’. Ondoko adibideetan, *izan* eta *iduri* aditzekin:

“Ba eta xurientzat ere badu asko errateko: itsu eta nagi direla, ez dutela kope-  
tarik, etsaiari ihardokitzeko; ez dutela ez zainik, ez odolik; oilo-busti batzu iduri  
dutela!” (“Edouard Drumont”, 1893-2-10, in *Mintz.* 60).

“Beltzuri bat baino gehiago ukanik gaude segurki (...) zeren ez ditugun igorri  
zauzkutenak oro hemen ezarri beti. Bertze zenbeitek hala egiten omen dute. Nahi  
badute ba. Guk ez. / Garbiki bertzenaz, iduri zeie batzuei, oro on direla erraite-  
ko, zeren eta errana den bezala, paperak ukanak oro hartzen dituen. / Paperak  
ba. Guk ez. Oroit hortaz. / Bainan ez du horrek erran nahi oilo busti batzu gire-  
la, zenbeit antzara karrankaritarik entzuten dugun bezala; (...)” (E 1903-6-12  
“Etsenplu”, in *Mintz.*, 126).

**Oilo saldan** (*bizi*) : ‘ondo janda (bizi)’.

“Badirela eztakit zer eta zertarik *alegiatzko sos* egile batzu debruz eginak, hor  
lukete, hor, lan bat pollita eta ona: sos guzia bildurik (bil baditake, hura denare-  
kin!), urtzea, eta *berritzea*, zenbeit kintal plomurekin nahas, zoko batean, Jinkoa  
lekuko. / Lan horrentzat presondegi orde, ontsa irabazia lukete, gobernamen-  
duaren ganik urrezko medaila bat ederra, lepotik dilindan ekartzekoa; eta gu  
guzien ganik—oraino guhaur aberats geldituz— ehun urtetaraino alfer bizitze-  
koa...oilo saldan. / Azkenean, bertzerik ez baditake, bota, erdi-erdian edo ezkina  
batean itze batez eginik zilo bat, handik aldeanbertze balezta bat; egon dadin non-  
beit!...” (E 1142 “Sos berria dantzan”).

”Ea gure apezak oilo saldan biziko diren, ala xardina idorrean? Hori ....)” (EO  
49, 1905-12-8).

**Pipa bat tabako** (*ez*) (*balio*): ‘deus ez (balio)’. Ezezko perpausetan eta 3. per-  
tsonan ageri da usuenik: *Ez du balio pipa bat tabako*.

(Elizei ebatsi ontasunez ari dela) “Hori ez balinbazautzue biziki dorpe, zuen  
erlisioneak ez du balio pipa bat tabako.” (*Zez.* 191).

“Hastea ez da aski; behar da jarraiki zuzenaren ardiestera heldu arte. (...). Bertzenaz gure erlisione guziak ez du balio pipa bat tabako.” (E 1194 “Eskolez gerla”).

Ik. *Tu bat (ez) (balio); Tu bat baino gutiago (izan)* .

**Piru ahuleko** (*gizona / jendea / ...*): ‘batarekin eta bestearekin ongi moldatzen dena’. “*piru, phiru* C. (H.) —1. *en gén.* tout brin plus ou moins long et délié qui se détache en forme de fil d’un corps, fil de laiton, etc. (...).—5<sup>o</sup> L.N. (A.) fibre.—8<sup>o</sup> *au fig.* *Phiru oneko gizona*, homme accommodant, de caractère facile. (Cf. gascon *pirou* )” (Lhande, *Dict.*).

“(…) geroztik zenator izan delarik, boza behin baino gehiagotan eman du erlisionearen etsaien alde. / Nola egin zuen hori galdatzen ziotenei, ihardesten zuen: Pariseraz geroz, hango lagunek beretzen zutela; han sartuz geroz ez zela bere buruaren jabe. / Gizon piru ahulekoaren ateraldia hori. Bainan egia zuen. Buru guti, eta hura beroa, (...)” (E 1213, 1910-7-8, “Floquet-Renaud”).

**Piru gaixto**: ‘erro gaixto’.

“(…) haurren altxatzeaz; eskolez eta eskolemailez. Hortan baita egungo egunekeo nahaskeria guzien erroa; hor, etsaiaren xede ageri eta gorde, alegiazko eta zinezko guzien pirurik gaixtoena, eskolan.” (E 1231).

**Piru zaileko** (*jendea*): ‘azkar (?), iraute luzeko’ (?).

“Piru zaileko jendea dela erakutsi du Loaneder Lordak ehun urtez, ba eta erakutsiko agian luzaz” (E 1378, “Joaneder Lorda”; 100 urte zituen andere honek).

Ik. *Hari azkarreko*.

**Piru batek eduki** (*norbaiten zerbait: bizia / ...*): bizk. *hari baten egon (dago/...)*; gazt. ‘pender de un hilo’.

“Zenbeit egun huntan ja piru batek zaukala erran ditake haren bizia.” (E 839).

(*norbaiten / bertzen Sabeleko min(a)*): ‘(norbaiten) arrangura, atsekabe’. “*sabel-min* 2<sup>o</sup> *au fig.* regret, appréhension vive” (Lhande).

(erretreta legea dela-eta, nausiari kentzen bazaio, honek gero langileari nonbaitetik kenduko dio) “Nausiaren sabeleko mina, goiz ez bada berant, —berant baino maizago goiz— jaitsiko da, segur, nausiaren sabeletik langilearen sabelera ere. / (...) zuk legez ala bertzela nausiari kendua, kenduko dio nausiak langileari, nolazpeit: paga mozkinduz, lana xuhurtuz, jan-edanetan zikanatuz.” (E 1269 “Nausientzat gaixtoago”).

*Bertzen sabeleko minaz (axola / griña) guti ukan (norbaitek)* da egileak gehien erabiltzen duen esapidea.

“Larrua loditua dugu, jarria, egina orotara. Bertzeen sabeleko minaz griña guti” (E 849; ‘elkarri atxikimendurik ez’).

“Deus ez da hor bertzerik, baizik ere bera hunkitua ez denak, axola guti duela bertzen sabeleko minaz.” (E 1225 “Ez dire gaixtoak”).

Antzekoak dira ezezkakoak: (norbait) (*norbaiten / bertzen*) *sabeleko minaz ez izan kilika; (norbaitek) sabeleko minik gabe.*

“Zuhaur ontsa balinbazira, ez zira kilika zure aldekoaren sabeleko minaz.” (E 844).

“(…) etsaiak bere etsaigoaren gordetzeko, egundainokoa duela gezur hori, noiznahi, edozoin solasez, ahoan duena: baizik eta gu girela, gu eta gure aldekoak, jende xehearen etsai. (...). / Zozoak beleari diona, otsoak artzainari. (...). / Badire ba, gazeta tzarrak; hitza gezur, edo lohikeriazko solas ahalgegarri dariotela. (...). / Bainan guhaurek hemen Lapurdin gure beharrez behin baino gehiagotan ez duguia entzun hemengo leizor edo lizafin pozoina dariotenen burrunba: “Phu!...*Eskualduna*, gazeta gaixtoa, orotaz beti gaizki mintzatu gabe nehon ez daukena!”. Horren erraileak ez du behar bada oren erdi bat, sabeleko min handirik gabe irakurtua duela gure erlisioneaz, erlisioneke gauzez, eginbidez, Jinkoaz beraz bardin zer nahi trufa, eskarnio, gezur, ele tzar zerasana.” (E 1145 “Jende xehearen etsai”).

***Saltsa mehe*** ( / ? *gizen*) (*egin*): ‘irabazi handirik ez (egin); nahaskeria handirik ez (sortu)’. *Saltsa* “4<sup>o</sup> brouille, mésintelligence. Syn. *nahaskeria*” (Lhande); *salsatu* 2<sup>o</sup> *au fig.* compliquer une affaire (Lhande). H-Uk usu darabil *saltsaren* irudi hori norbait(zu)en negozio iluna edo nahaskeria adierazteko (“Saltsa guzietan sudurra sartu behar duten politikero nahasi batzuen lana da guzia, E 1254, 1911-4-28 “Zer gizonak!”).

“Erran ditake beraz, gudurik izan den tokietan, erran nahi hamahirutarik *hamabi* on sartu direla; bat bakarrik tzarra, *Villejuif* deitu hirixka txar batean. Handia baita!...izenaren araberrako egitate. Juduek nehon irabazteko, han behar zuten irabazi. Bertzetan, saltsa mehe egin dute, eta mehe eginen, diotenaz, orai-kotik.” (E 1900-5-25 “Goiti...beheiti”).

OEhk adibide hau berau dakar (nahiz *mehe* hitzean bederen lokuzio gisa ez datorren), J. Etxepareren beste adibide baten aipu xoila eginez (*Mediku solas*, 69).

Beste nonbait “saltsa mehe egiteko bidetan direla framazonak” dio egileak.

(*Soka / urka-bil(h)urra*) ***lepotik***: ‘hersturan’. (*norbaitek*) (*eman / ezar /...*) edo (*ukan*) aditzekin maiz.

Irudi hau maiz ageri da *Eskualdun Oña*-n, 1904-1905 inguruan. Hauteskundetan etsaiek jendea (xuriak) soka lepotik omen darabilte:

“Bertze bi herrietan ere, *Makean* eta *Mehainen*, bertzetan bezenbat bilduko zuen ((Broussainek)), ez balire boz-emaile gaizoak artalde batzu bezala, soka lepotik, eremanak izan bozaren emaiterat.” (EO 1905-10-13 “Hazparnen” art.).

(Erlisoneko ministroei eta komentuei) “Bertze orduz elizak eta elizetako ontasanak ebaste orde zor zuen eta hitzemanana zuen intresa uka; eta bertzalde soka lasterra lepotik erlisoneko ministroei. Hitz bat bertzea baino gorago erraiten badute, presondegi, amanda eta zernahi” (EO 28 1905-7-13).

“Bertzalde lege berri bat hor zenbat ere baitute zorrotz egina, komentu guzien emeki-emeki hesteko eta husteko; urka-bil(h)urra lepotik emana baiteie komentueri, soka lasterra ministroak nahi arau tinkatzeko gisan; haren eskura emana zuten, *Jakinen* eskura...Urkatzeko lan hori. Ba eta harek hartu gogotik; eta bil(h)urrari zenbeit itzuli eman, bere baitan egiten zuelarik: “Ai, putikoa, jostatu behar nuk ederki!...” (E 780, 1902-5-30 “Ah! Zer putikoak!”).

***Sudurra sar*** : ‘eskua / ukondoa sar (egitekoren batean)’:

“Saltsa guzietan sudurra sartu behar duten politikero nahasi batzuen lana da guzia.” (E 1254, 1911-4-28 “Zer gizonak!”).

“Ez omen zaie haizu, hemendik harat, errientei, herriko goiti behehititan sudurraren sartzea (...)” (EO 49 1904-12-9 EH: “Jaun errientak”).

***Sudurrera (eman / aurdik / bota/...)***: ‘egotzi, aurpegiratu’.

“Guk hemen erran (...) bederen gauza bat bazutela ona, hitzeko gizonak izan zirela Legrand eta Harriage. Eta gero, bertzeak bertze, makur zirela bi jaun hoik egungo ministro tzarrekin, guk hemen erran, egia zen eta den bezala...Sudurrera zalu eman daukute, ez naski hitzez hitz, bainan gor ez denak entzuteko gisan: xoraturik gaudela jaun hoiien adoran! Iduri ez zitzaukun iduri, bazela, bazitakela iguzkiaren pean holakorik, Eskual-herriaren eta Frantziaren zorionarentzat!” (E 779, 1902-5-23 “Ongi ala gaizki?”).

“Etsaiek, alemanak eta harekilakoeak, español ala edozoin bertzek, aski nahi badaukute gerla bizkarrerat eman; nahuten estakurua sudurrerat aurdik eta, jazartzen bazauzku, batek tu, bertzeak mazelako, zer nahuzue dezaten egin, gerlarik sekulan ez onartzea zin egina balute ere?” (E 1273, 1911-9-1 “Gerla solas”).

“Alabainan zer nahi dugun beti eta beti solas bera emanez gure etsaien muturrera? Zer dugun uste ala, ohointza hoik eta holakoak, norapeit azkenean ahanzterat uzteko orde, beti eta beti sudurrera botatuz, ontuko direla, eztituko, urrikitan sartuko gure etsaiak?” (E 1282 “Karakoilak”).

Ik. *Muturrera eman*: IV Eraskinak: Somatismoak.

(*norbaitek*) (*Sudurretik / kokotsetik / gakotzetik*) *erabil*; (*norbait*) *sudurretik ibil*: ‘bestek bere gogara (norbait) erabil; besteren eskuko izan’.

“nahiz gazteria beretu, eskuratu nahiz (...) bat edo bik oro sudurretik erabil ditzaten makurreko alderat” (E 1162 “Gazteria Katolikoa”).

“Ahulak, buru gabeak, bertzek sudurretik derabiltzatenak badire. Heien hobena da erlisionekeo gauzetan Elizako buruzagiak baino lehen etsaiak sinestea.” (E 1233).

“ez girela ez gero sudurretik ibiltzen diren jende hetarik” (EO 27, 1907-7-5 EH: Aldude).

“Badakite jendea hola kokotsetik edo gakotzetik erabiliz, esklabo bilakarazten dutela, boza etsaiari eta harekilakoeri emanaraziz, gogoaren eta kontzientziaren kontra.” (E 1312 “Bortz liberakoa”).

(errientez) “Emozuete diru, politika nahasi tzarrenetik; (...) herriko afera eskolarekin deus ikustekorik ez duten zer guzietan sudurraren sartzea, eta ez urri-rik oraino; herriko buruzagiak kokotsetik erabil, ahalaz gorri baino gorriagokoen alde.” (E 1332 “Oro bardin”).

H-Uk berak ere ez zuen maite inork esan ziezaion zer egin behar zuen; ez zen inork *sudurretik erabiltzekoa*.

***Sudur-hixtu*** ‘S. (Fx.) colère (Lhande)’.

(errientak) “sendikaturik oro elgarrekin jar, ala nahi dutena egin, orai eta gero, axolarik eztutela ministro eta inzpetor guzien beltzuriez, sudur-hixtuez, larderia darioten paper ostoa txarrez.” (*Zez.* 209).

***Tilet bat***: ‘deus, tuntik’. “*tilet bat eztu eskas*, il n’y manque pas un point, une virgule, tout est complet (Cfr. esp. *tilde* et fr. *tiret*.)” (Lhande). Ezezko perpausetarako joera du. ***Tilet bat ahotik*** (*ez*) ***jali*** ‘tuntik erran’ agertzen da H-Uren kazetalanetan, hemen lekukotasun zehatzik ematen ez dugun arren.

***Trufa baino musika gehiago***: ‘txantxetan baino gehiago burlaz, isekaz’. Etsaien jokabidea adierazten du.

“Xede gaixoak dituela ((Combeseke)) erraitea (...) paso; ahulen larderiatzea, indarrez esku deno, paso; fraiden eta seroren ondotik, apezten eta apezpikuen alde izanen dela, eta lehenbailehen, oihu egitea, paso. Bainan trufatzea, ororen gainera; eta trufa baino musika gehiago, erlisionearen alde (sic; alde?) daukate-nez irri karkara egin nahi ukaitea oraino sudurrera; ostiko edo sistako emaitaekin, tu egitea begietara, zer ditake handiagorik?” (E 847).

“Deus ez balitz bezala, etxe ebatsi hek zuzenez berenak balituzte bezala, mintzatu da —trufa baino musika gehiago— “Huna zer lan ederra egin dugun. Uste



gabestarik bezala, etxe hauk eta bertze holako batzu eskuetan gelditu zauzku. Alfer ez nahiz atxiki, hautaz hemen huna zer egin dugun. Biba gu!” (E 1282 “Karakoi-lak”).

“Trufa baino musika gehiago, den bezalako deputatu ospina horrek” (E 248, 1892, “Ministerioa erori da” art.).

**Tu bat** (*ez*) (*balio*); **Tu bat baino gutiago** (*izan*): ‘deus ez, oso guti’. Ezezakako per-pausetan eta 3. pertsonan usuenik.

“Badu itxura zuen erranak, nahiz munduko itxura guziek tu bat ez duten balio, gizonik ez gizontasunik ez duzun tokian” (E 1235).

“Zer dire zor izigarri horren aldean hogoi miliun? —Deus ez; tu bat baino gutiago.” (E 291).

Ik. *Pipa bat tabako* (*ez*) (*balio*).

**Urak bide egin**: ‘denbora iragan eta gauzak aldatu (dira); aspaldiko kontua (da)’. “*Urak bide egin du*, pasará mucho tiempo; liter.: el agua caminará (R)” (Azkue, *EY* III, Modismos, Tiempo). Tradizio handiko lokuzio da, agian esaera batetik eratorria (ik. G. Garate 12989 *Urak* eginen du bide). *Geroztik* (*hunat*) nahiz beste –aditzondo balioko— esapide batzuekin erabili ohi du H-Uk eta erabiltzen da egun ere konparazio metaforiko gisa (*Geroztik hunat urak bide egin du*, *gizonak ere ba* edo antzekoak), maiz epifonema edo azken uztar eta bukaeretan.

“Urrun gira, eskoletan erlisionea ez zutela, ez alde ez kontra, tuntik aipatuko, baitzioten gezurra,...urrun gira hartarik.../ Urak bide egin du hogoi bat urte huntan...Eta gu ez ontu.” (“Burhasoak”, E 1245).

“Urak bide egin du Frantziako zubien azpian, kazeta hunen hastapenetik orai arte. Zenbat goiti-beheiti!”...” (E 1249, 1911-3-17 “24 urthe”).

H-Uk erreberitzen duke lokuzio hau:

“Aspaldikoa da hori. Urak eta pagak bide egin dute geroztik” (EO 36 1906-9-7 “Apezen paga”).

“Bainan gutarteko langile, mutl, sehi anitzek ere ez dute beren 9 edo 6 libera-koa urtean eman nahi; ez baitire emaitiaz bezen segur gero ukaitez. Eta gero, noiz? Hemendik hamar, hogoi, berrogoi urteren buruan. Urak bide eginen du ordukotz!” (E 1258, 1911-5-19 “Ontsia goberna”).

*Geroztik hunat urak bide egin du* errantzat har daiteke, perpaus eta enuntziatu oso eta finkoa baitateke.

“Gure herriko azken erretor zenak behin predikutik erran zuena (...): “*Osta-tuak gizonen bidean idekirik daude zabaldurik ur handian* arrainen bideari *pertolak*

hedatzen diren bezala; bardin-bardina. / Badu horrek hogoi bat urte. Geroztik hunat urak bide egin du..jou! Zer ez dezake erran orai. Hemendik dela “auberge”; handik dela “buvette” (EO 1905-7-24).

(*Ur (handi)ari behera / ur handirat*) ( *igorri / aurdiki*): ‘errefusatu (higuinduta); antzarak ferratzera bidali’.

“Eginen dugu arte huntan ahoan kurutze; eta legea jasanen, hori galdatzen zuten langile hiritar buruberoenek berek ez badute ur handirat aurdikitzen, ikusirik on baino kalte gehiago dutela hortarik, berek.” (E 1267 “Noren onetan”).

“Ur handiari behera igorri dituzte hor (...)” (EO 31, 1907-8-2 EH).

“Bozari atxikiak gira, haur bat atxikia litaken bezala, eskuetan luken tresna zorrotz, lanjeros bati. (...). / Aldekoari ala guhauren buruari min eginik ere, nahi dugu, behar dugu eman boza. (...) / Nehork ez du hor ikustekorik; boza gurea da, urari behera aurdiki ala debruari eman nahi baginu ere, ez dea hala?” (E 1216).

*Uzkipitxer* (*joan / izan /...*) : ‘bizkarkin’. “6º *Uzki-pitxer, -pitxer*, pique-assiette. *Gomitaren gomita uzkipitxer*, l’invité de l’invité est un pique-assiette.” (Lhande).

“Joan den igandean zortzi, Miarritzen egin dutela bazkari bat hiru zenator gorri berritan izendatuen ohoretan, badakizue naski. (...); han zen, huts egin gabe, gure auzo herri batetako auzapez ohia, herritik bakarra, jarraiki nahi zitzaizkioken batzu ez aski jaunetz utzirik, auzoko axuanta nahi baitzuden lagun ereman, ez balako gizonki errefusatu bilkura tzar hartarat haren uzkipitxer joaitea.” (E 1143, 1909).

*Xakurrei bota* : ‘alferrik galdu’. *Echar algo a los perros* (‘fr. Fig. y fam. Emplearla (una cosa) mal o malbaratarla’, DRAE), ap. Corpas 117)

*Eskualdun Ona* kazetaren izenaz ari dela, une horretan izenez aldatzen baitute berriz *Eskualduna* izena hartuz, dio:

“Eztugu xakurrei botatzen. Osorik atxiki gogo dugu, behar orduko.” (EO 52 1907).

*Xakurrentzat ere ez izan on* (*norbait*): ‘zeharo begitan hartua izan (?), gaiztotzat hartua izan (?); deus onik ez izan (?)’. 3. pertsonan (*da / ziren /...*).

(langile zaharren erretreta legeaz) “Bazterrak aseak zituztela ikusiz, eta zer-beitez nolazpeit nahiz atzeman jende xehearen gogoia, dute hor egina lege hori, tarrapatan, zer ari ziren ontsa behatu gabe. (...). / Azken bozak aitzineko azken lana zuten hori. Hori egin ez balute, xuxen edo makur, xakurrentzat ere ez zirela on izanen, diote berek.” (E 1253 “Nahi ez badute?”).

Ondoko testuan H-Uk Judasekin solasean izan dela irudikatzen du, judas txikiak baino gehiago handiak kritikatzeko; hona zer diotson Judasek xurien aldeko jaun batzuez, herrietako buruzagi edo xurien alde boz biltzen ari izanikoez:

“Beti erlisioneko gizonen alde, lege tzarren kontra egin du indar; *bainan* ez da berenaz elizatiarra, edo bederen ez *debota*. Bere bertzenazko harat-hunatetan zerbeit elepideska emaiten duke. Nahi baduzu, emagun itzal handiak badituela. Ordotik harenak egin du, anitzen begietan; xakurrentzat ere ez da on gure gizona, ez duelakotz erlisionea osoki *pratikutzen*. Haren eta zure herritar anitzek erranen derautzute gizon horrek herrian erlisioneari bidegabe handia egiten diola, zeren etsenplu gaixtoa emaiten duen. Eta nola? Erlisionearen alde bere burua erakutsiz eta ordu berean bera erlisioneak nahi ez bezala biziz.” (*Zez.* 197, “Ixil hadi, Judas”).

**Xori guziak miru:** ‘denak lapur direla uste izan, besteen beldur izan (oiloak edo txitak miruaren bezala)’. *Miru*: “Belatzaren familiako hegazti harraparia” (Sarasola, *Euskal Hiztegia*); Milano, gavilán (OEH). Erran baten (*Xori guziak ez dira miru* edo antzekoren baten) bihurketazkoa ote?

“han bizi zen, arima salbu, oilo xitama bat bezala, beti griñan, hau edo hura ebats zezoten beldurrez. Xitodunentzat alabainan xori guziak miru...” (E 245, 1892, H-U?).

(*Xoxoa / xoria*) (*bipildu / lumatu*): ‘lumatu; atzipetu’.

(langileen erretretaz) “Jaun hunek dio: *langilearentzat ona dela, nausiarentzat ez*. Iduki, amigo; heldu den astean, Jainkoak nahi duelarik, bipilduko dugu lau hitz hoitaz altxatu daukuzun xoria.” (E 1268 “Langilen erretretez”).

H-Uk maiz darabil irudi hau. Eta, ohi duenez, *-tzale* gehitu eta hein bat bihurrituz, (*xoxo(en) bipiltzaleak / lumatzaleak*).

“Nor eta zer dire *xarlatanak*?—Sineskorren sangratzaleak; bertzela nahi baduzue, xoxoen lumatzaleak. / Bere buruaz espantuka, ez dena badela buru ahuleri sinetsarazi nahiz dabilana, xarlatan bat duzu. Gogo eman hari.” (E 1339 “Xarlatanak”).

**Xutik (joan / egon) (gezurra / astokeria / zorokeria / ele kakola /...):** ‘gezur biritz’ (?). Maiz darabil hiperbole hau, ia beti funtzio atributiboan: *Xutik (doan, doazin / dagon, ...)* (*gezurra / astokeria / zorokeria /...*). *Erran, eskapatu* eta esanahi bertso aditzekin.

“Heien aldea ez daukan batek ardiets dezala gobernamentutikako laguntza bat, bertze norbeit ararteko edo berak duelakotz besoa luze, gezurra, xutik dagon gezurra erranen dautzute —eta zer kopetarekin!— “Badakizu, zera: niri esker duzu gero, holako laguntza; ni ez banintz hor arizan, etzinaukan deus ardietsirik. Oroit ondoko egunetan.” —Ba naski!...Xarlatanak.” (E 1339, 1912-12-6).

“Zer gezur xutik doana den (...)” (E 1214).

“Horra nola diren mintzo. Xutik doazin astokeriak erranen daitzute, barnez kurkurkur irriz daudelarik, (...)” (E 1271, 1911 “Makean eta bertzetan”).

“gutien ustean eskapatuko zeie xutik doan ele kakola berjes bat“ (E 1084, 1908).

Ondokoa (aipu zehatzik eskura ez dugun arren), funtzio predikatiboan: (*Tripan*) *xutik joan gezurra*:

“tripan xutik doakola ageri duen gezurra”.

**Zakuan sartu** : ‘atzipetu’. “4<sup>o</sup>. *Norbeit zakhuan sartu*, rouler, tromper qq.un (litt. le mettre dans le sac)” (Lhande).

“Gu bezalakoan zakuan sartzeko, ez dena badela, badena ez dela sinetsarazi nahiz, hoier gogoratuko ez zeien jukutriarik ez da.” (E 831).

**Zakurraren buztana**: ik. (*Astoaren / gatuaren*) *buztana*.

(*zerbaitetz*) (*ala*) **zakurraren buztanaz axola bera**. Ik. (*zerbaitetz*) (*ala*) *jazko haizeaz bardin axola*.

**Zakur errabiatu**: ‘etsai amorratu, zakur errabiatu bezala jokutzen dena’.

Pluralean erabili ohi du (*Zakur errabiatuak*) etsaien jokaera adierazteko, nahiz adibiderik ez dugun eskura. Maiz lotzen ditu *zakurkeria* (<zak(h)ur “*au fig.* rusé, fourbe, dissimulé, dangereux”, Lhande) eta errabia. *Zakurrak* deitzen ditu fraide-seroren eskolak hesten ari dituzten minixtro tzarrak): “Ba, egiazko *zakurrak* erran ditake direla. (...). Ezen ez dute iduri zakur batzuek baino gehiago arimarik baduketela holako gizonek; (...). Zakurkeriari darraikio errabia. Nehon ez dauzke. Klisk-klask, alde orotara ausikika ari dire, nondik hortzen artean harturik, porroskatuko duten serora bat edo fraide bat...” (E 788).

**Zalditik astora**: ‘gero eta beherago’. H-Uk maiz erabilia da.

“(sozialistek irabazi, “radicaux, radicaux-socialistes” jaitsi direla-eta). “Merezi-tua dute segurki; bainan guk beharko jasan zalditik astorat, edo hobeki erran, zakurretik otsorat erortze hunen ondorioak” (E 1413, 1914 “Goiti ala beheiti?”).

Adibide honetan egileak, lehen irudian oinarriturik, bigarrena sortzen du.

H-Uk, bere ikuskera ezkorra adierazteko, oso erabilia den esaera hori oinarri hartuta anadiplosia hirukoitz bat — beheranzko gradazioan— garatzen du. Hona egilearen bihurteta:

“Alta bada urteak ditu, buruz behera goazila, gero eta apalago: zalditik astora, astotik urdera, urdetik lurrera” (EO 4, 1905-1-27).

Azkuek dakarren ondokotik datorke: “Zalditik astora ta astotik lurrera”, de mal en peor; (...) (B)” (Azkue *EY* III, Modismos, Mal). Bizkaikotzat ematen du Azkuek.

**Zango bat bertzearen gainean** (*alfer bizi / egon /...*): ‘lan egin beharrik gabe lasaitasunez, trankil’ (bizi / egon...).

“Ai eta gure irakurtzale zenbeitek aldiz balakite gure berri! Kazeta hunen egiteari, eta bereziki gure huni doazkon goiti-beheitiak oro er(h)ien puntan balazkite, gure adixkide on...alfer zenbeitek!. Hitz dautzuet higi litazkela eta ernaz; eta eskuin edo ezker, lanari lot, hor egon gabe, zango bat bertzearen gainean, bazterretarat so” (E 822, 1903-3-20 “Bizia lehen”).

“(...) langile guziak zango bat bertzearen gainean alfer biziko. Nik dakita zenbat espantu?” (E0 30 1907-7-26 Supplément, “Etsaiaren kopeta”).

“...zonbat senton eta mutzurdin zahar (...) lana utz eta sos puska bat “*en rente viagère*” emanik, zango bat bertzearen gainean alfer bizitzekoa dutenak non nahi etxeño bat beren gain harturik aise bizitzen ahal...” (E 1256, 1911-5-5 “Hirieta-rat”). Ik. ere E 1188.

**Zer irinetarik or(h)atu:** ‘zer egin, beste norbaiten gogoko izateko’.

“Zer atsegina eta zer argia ez litake guretzat, *Eskualdunaren* egilentzat, artetan jakitea, nori zer zaion gure lanaz; eta zer irinetarik behar dugun or(h)atu, batzuen eta bertzeen gogoaren atzemaiteko?” (E 822).

**Zetabean pasatu:** ‘zein onartuko diren eta zein ez erabaki’.

“Orai omen du gobernamentuak, urtats iri arte huntan galde guzien zetabe-an pasatzeko xedea. Ministroek deputatuen bilkuran erranen dute, zenbatsu nahi lituzketen bizirik utzi, eta zenbatsu urkatu.” (E 802).

“Gobernamenduaren beraren manuz haren gizonak berek lehenik beren zetabean pasaturik eskola bakotxeko behar baino anitzez gehiago liburu, errientari doako, multzo hartarik berak bere zetabearekin berextea edozoin liburu.” (E 1252, 1911-4-7, “Liburuen hautua”).

(**Zotz / ziri / er(h)i bat**) (*ez*) **higitu:** ‘deus egin’. Ezezko perpausetan usuenik (*Zotz bat ez higitu / ezin higitu / higitu gabe*). Honelatsuko hiperboleak maizkara darabiltza H-Uk.

“Has zite; lot zerbeiti. Eleketari hek berak han tutzu bi aldetarik lerroan zut, non ez dautzuten oraino bidea hesten, (...). / Oro badazkitzate: zer behar den erran, zer egin. Bizi guzia baderamate, ele alferretan, santa sekulan zotz bat higitu gabe.” (E 1283 “Baionako bilkura”).

“(...) zoin guti giren bilakatuak gure buruen jabe; noraino jautsiak, eroriak non, oro gure nahitik doazila derasagutelarik –gezurra– zotz bat ez baitugu azkenean higitu ahalko, legearen baimena gabe.” (E 1287, 1911).

“Zotz bat nehork ezin higi, ez hunki nehorat, jaun errientak nahi ez badu.” (E 1326 “Jaun errientak”).

Beste nonbait dio: “ez baitute ziri bat higituko...”.

“Hanxet egon oro, geldi-geldia, ur hila iduri, er(h)i bat, ez ile ondo bat higitu gabe. “Toujours chacun pour soi” (E 844). Ik. *Ile ondo bat (galdu / higitu /...)*.

*Er(h)i xingila higitu* ‘deus higitu’.

“libertatearentzat er(h)i xingilaren higitzea sobera”, eta iduritsukoak.

#### IV. Eraskinak

1. Zerrendan ikus dezakegunez, lokuzio anitzek pertsona nahiz abereen gorputzeko atalen irudiak hartu eta esanahia antzaldatzen diete. *Somatismoak* deitzen dira. Adib. *Besoa luze du, Eskuetarik joan, Ile alde pereka...* Biziki anitz dira euskaraz, H-Uren adibideek erakusten dutenez. Ondoko zerrendan ezarriko ditugu, lehenik, haren kazetalanetan eta hiztegieta urriago ageri diren batzuk, irudi aldetik balioitsuak direnak, erdi figuratiboak barne; gero, arruntagoak edo jendeak erabiliagoak.

*Aharrosiz bizi*: ‘bizibiderik ez izan’.

“Bertze arrazoinik hor, geroari buruz, ez balitz ere, balaukuke aski ja hau: ez ditakenari ahoa zabaldurik egoitea, aharrosiz bizitzea litakela. Nork irauun gehiagoko jakirik gabe?” (E 1436, 1914, “Alemaniaren adiskidantza”).

Hiperbolea da. Ondoko atsotitza duke oinarri: “Aharrausi usua, gose edo lo mezua” (Oihenart, Prov. 11).

*Ahoa erre* (solasak): ‘mintzatzera behartu’. “Ahoa erretzen duen solasa” edo antzekoa darabil noiz edo behin. Bai eta *Ahotik ezin utzi(zko)a* ‘gogokoa’.

(?) *Ahoan mihia (pekoz gora /...)* *itzuli* (*norbaiti; nor-nori* adizk.): ‘esandakoa ahantzi’.

”Bainan hainbertze urtez, alegia zinez mintzo, erran ondoan: haizuko ginela, gurez gure, nahi genituen eskolen hautatzera, nola dire orai berbertan ixildu? Edo hobeki erran dezadan, nola zeie ahoa mihia itzuli pekoz gora?” (E 1902-9-12; in *Zez.* 114; OEHk aipatua).

*Axala legun* (*norbaitek*): ‘(norbait) atsegina itxuraz edo kanpoko irudiz’. 3. perts. (*du /...*):

(Briand ministro buruzagiari buruz) “Gaude, ez ote zen eta den oraino ere, geroari buruz, lanjerosago. Bertzeak zirentzat ageri ziren zabal-zabala; hau ez. Hunek beti ele ona; edo tzarra zuenean ere, gorde nahi tzar hura; barnea deus onik ez, axala legun.” (E 1247, 1911-3-3, “Ez aski tzarra”). Ik. *Azala idor / lodi*.

*Azala idor / lodi* (*norbaitek*): ‘axola guti’.

“Azken aldikotz horrela ikusten denari deus hoberik erraiteko ez duenak zoin idor eta lodi ahal duen arimako azala, nago” (E 1148 “Zato aberasturik”).

*Azala* (vs *axala*) adierazkorra da, hots, gutxiesgarria; halaber *zakurra* (ik. *Zakurraren buztana*, *Zakur errabiatu*) (vs *xakur*, ik. *Xakurrentzat ere ez on*).

**Beharriak gezurrez tutaturik** ‘gezurra gezurraren gain entzunarazirik’. Egileak sortua ote hiperbole hau?:

“Bainan jendea den bezala hartu behar da. Gaixoak badu norat buru eman. Beharriak gezurrez tutaturik daukate eta gogoa nahasirik. Ager ezakozue begietara gezur ederraren barne beltza. Erran, ez girela errepublika galdu nahiz ari, baina bai oraino eskuetan ditugun zuzenak begiratu nahiz eta jadanik hartuak dauz-kigutenak atzeman nahiz. (...). Erakuts, alde hortarik egiten deizkiten (sic) mehatxuak, emaiten deiezkizaten hitz ederrak bezain barne ustelak direla” (E 256 “Bai eta bainan”).

**Bi besoak kurutzaturik** (*egon*) ‘geldi egon, higitu gabe’; *Eskuak (Besoak) gurutze* (OEH *gurutze* 8., irudizko adiera aipatu gabe):

“Bigarren hutsa; huts handiagoa oraino: jendea egunetik egunera kexuago zuala ikusten; oro mintzo, mintzo eta elgarri aiher auzoak, herria herriaren kontra. Gerla piztera doala, ja piztua dela, herrazko egitateak azkarki hasiak ageri; beren begiz ikusten gobernamentuko gizonak; eta futxo halere bi besoak kurutzaturik egoki bazterretik so! Utzi dute jendea gontzatarik jalgitzerat osoki; desmasiarik izigarrienak gertatu arte, deus ez dute egin, behar zitakenik; ondoan, berantegi dituzte soldadoak igorri.” (E 1254, 1911-4-28 “Zer gizonak!”).

(?) **Bi besoak ukondoraino sartu** ‘giderrak eskuan izan, boterea(n) izan; ukondoa / eskua / sudurra sartu’. Ondoko adibidean idazleak *Besoa luze ukan* lokuzioarekin jokutzen du:

“Fritsik ikusteko ez duen zer guzietan bi besoak ukondoraino sarturik dauzkatuetela jaun errientak. Ba naski! Zer dire alabainan bertze guziak haren aldean? / Jakitatez ala beso luzez nor heltzen da jaun errientaren gerrira?” (E 1326).

(?) **Bizkarraren erdira**: ‘gailurraren erdira’. *Bizkar* ‘gailur’. Ondoko adibidean *jin* aditzarekin (zerbait: subjektua):

(erretreta 65 urtez goiti izanzen delako legeaz) “Hamalauan gira ja; hilabetea erditan badoa; eta hor hunkituak direnetarik anitzek ez dakite oraino, legea bizkarraren erdira jina dutela ere.” (E 1266, 1911-7-14, “Ezin lotuz”).

**Errainak azkar (izan)** ‘indartsu, azkar (izan)’. “*errain* : Riñones; región lumbar; espalda” (OEH).

“Ehun urtetaraino herrestan bizi balira ere, hil arte beharko dute mutil neskatoen erretretarena eman. (...). Berek egin ahala baino lan gehiagorekin borroka, leher egin,...edo uko lanari. / Ez da hor erremediorik, errainak azkar ez dituen nausiarentzat.” (E 1266 1911-7-14, “Ezin lothuz”).

(?) (Bi) **Eskua(k) zakuan sartu**: ‘ebats (ahalak oro)’.

“Bat holetan atzeman dute, bi eskuak erdiz erdi zakuan sartuak zituela...ebats eta ebats, beretzat eta bera iduri batzuentzat.” (E 1264).

**Eskuetarik lurrerat utzi**: ‘hondatu’.

“bainan ikusiko duzue *diruarengatik*, beren elizak, apez-etxeak, semenario eta guziak beren eskuetarik lurrerat utziko dituzten baino lehen, zernahi onetsiko baitute apezpikuek.” (E 1272).

(?) **Esku milikatzaile**: ‘zurikeriaz / koipekeriaz jokutzen den morroi edo mira-bea, nagusiaren lausengaria’. *Eskua milikatu*-tik eratorria.

”Ahula zauzkanak aldiz, edo...nola erranen dut? haizekaria, itzulkorra, ahanz-korra, esker-gabea, jaun esku berri milikatzailea, nik dakita zer oraino?...” (E 779, 1902-5-23 “Ongi ala gaizki?”).

**Esne-hortz**: ‘haur tiki’. Irudizko erabilerako adibiderik ez da ageri OEHN.

(langilen erretreta nahitaezkoaz) “Lanari lotuz geroz, izanik ere oraino *esne hortz*, berehala behar langile gaztea jarri legearen azpiko, nahi badu eta ez badu, dorpe da jasaiteko.” (E 1287“Utz libro”).

**Ezpainak bildu**: ‘ixilik egon’ (ondoko adibidean, zerbait gaitziturik edo mindurik edo muturturik dagoelako).

“Herrian balinbada, anderearen ((errientsaren)) eskolaz bertzalde, bigarren bat, eskola giristino libroa, gaitzitzen ((zaio delako andereari)) haren ganik haurrak bertze eskola hartarat joaitea: “Zer gaixtorik erakasten zeien harek?” eta holako. Ezpainak bildurik dagola, zeren burasoek Jainko legea gehiago daukaten beren haurrentzat, harekilakoaren egitea baino” (ibid. E 1242) (‘ixilik egon’, mindurik, muturturik edo gaitziturik dagoelako). Ik. *Ezpainak elgarri josirik*.

(*norbait norbaiten*) **Gerrira heldu**: ‘mailara’. Hiperbolikoa.

“Jakitatez ala beso luzez nor heltzen da jaun errientaren gerrira?.” (E 1326 “Jaun errientak”).

**Larru (bizi)a hunkitu** (*norbaiti /...?*): ‘(zerbaitek) (norbait) ukitu, atzeman, hartu’. *Larrua hunkitzen dauku*: ukitzen, atzematzen, hartzen gaitu. Egileak sortua ote? Ez baitut ikusi OEHN *larrua* hitzean. Baldin *larrua* hori egileak ezarria bada, irudiak balio erantsia luke. ”hau da solas bat ahotik ezin utzia, zeren eta orori larru bizia hunkitzen baitauku; langile ala nausi, ala berak ez nausi ez langile ez direnak eta oro, zerga pagatzale guziak atzemaiten baititu hor aipu den legeak” (E 1290, 1911, “Noiz arte?”).



(?) *Mihi begiratu* (*izan*): ‘zuhurra (*izan*) (hitz egiterakoan)’ (vs mihi luzea edo mihi arina). Kolokazioa? Erabilia dela dirudi, nahiz OEHN ez daukaten adibiderik.

“Hain bihotz oneko, mihi begiratu zen” (E 31, 1907-8-2 Eskual Herria: Heleta).

*Odola gatarazi* ‘beldurrarazi’. *Odola gatzatu* oso antzinakoa da, hegoaldeko poematxo epiko zaharretan ere agertzen baita:

”Ja belauniko ministroak hoin gutiren oinetan; izialdurak odola osoki gataraziko zioten, gehiago izan balire.” (*Zez.* 211).

*Odolak jauzi egin* (*norbaiti*) ‘bat-batean zerbait biziro sentitu’; gazt. *subírsele a alguien la sangre a la cabeza* (‘alterarse, airarse’, ap. Corpas 122). Ondoko testuan ‘biziro haserretu, amorratu’:

“Bizkarreko edo bularretako larrutik ausikian aski lotzen zautzunari jazarri gabe nola egon. / Den beldurtienari odolak jauzi eginen dio. Eta Frantziako buruzagiak *bare* batzu balire ere, bertzeak, erran nahi, heien iduriko ez litazkenak, nork atxikaraz ixilik eta geldirik?” (E 1273, 1911-9-1 “Gerla solas”).

*Odolean erosi* ‘garesti ordaindu’:

“Bizia kario; jan-edan, aterbe, guziak oro odolean behar erosi; (...)” (E 1298).

Aipatu dugu *Trufa baino musika gehiago*, etsaiaren jokaera adierazten duena. Horren eitekoak dira ondoko biak:

*Trufaren ondotik ausiki*: ‘iseka’.

“Trufatzea da hori apez eri zahartuez eta heien lagun keza hori formatu duten guziez. Iduri-ta *beren dirutik*, *osoki berena zutenetik ohoinari poxi galdatzera joanen diren apezak!*. / (...). / Trufaren ondotik ausiki. / Galdatu du delako keza eta kapitala, beren jabe zuzenei kenduak, eror ziten departamenduaren eskuetarat.” (E 1221, “Itsuseria bat”). Ik. IV. *Tu egin begietara*.

*Tu egin begietara*: iseka egin.

“eta trufa baino musika gehiago, erlisionearen alde (sic; alde?) daukatenez irri karkara egin nahi ukaitea oraino sudurrera; ostiko edo sistako emaitzarekin, tu egitea begietara, zer ditake handiagorik?” (E 847).

*Xutik egon*: ‘geldirik, gor eta gogor (?)’, ‘soraio’ (?)

”On da, zuzen da, jakin dezazuen, eskualdun burasoak, urtetik urtera gutituz doazila, ez bakarrik andere errientsa jainkotiarrek (...); bainan ba oraino *ezaren* eta *baiaren* erdian geldi-geldia xutik daudenak.” (E 1242).

**Xutik joan** ‘abian jarri / abiarazi’ (?).

“lege zorionezko horrek sortzetik ja zituen artikulu guzien gainera, eman daizkotela, xutik joaiterakoan, bertze *berrehun eta bat*.” (E 1251).

(?) **Zangoa eduki** (*nonbaiten*): ‘eutsi’ (zerbaiti), babestu’ (?).

“Lege huni buruz, langilearen hatzean zangoa —ixil-ixila— daukan nausiak ez du zeren beldur izan, (..)” (E 1265).

Arruntagoak edo jendeak erabiliagoak dirudite ondokoek:

**Ahora heldu** (*zerbait; nor-nori* adizk.): ‘(norbaitek zerbait) hartu, jaso’.

(langile zaharren erretreta) “Gozamena ere labur bainan urririk, (...) deus eman gabe zaiotenaz geroz heldu 70 urtetan harat bizi direnei erretretaño hori ahora, supazter xokoan beren hezur zaharren berotzen dagozilarik, pipa ezpaine-tarik dilindan.” (E 1285 “Bigarren moldea”).

**Atx egin**: ‘min edo nahigabea hartu’.

“Daukagu beraz, badirela segur langile anitz, erretreta onik ez balinbaditake, langileak berak bere partea eman gabe, atx eginik ere...emaiteaz, emanen dute-nak, behar dela ikusiz.” (E 1290).

**Begietan izan**: ‘begitan hartuta izan’. Oso arrunta (E 1274).

**Erroz gora**: ‘hankaz gora’; ‘porrot eginda’. (*Gelditu / erori / ...*) aditzekin.

(Hauteskunderaz) “Gutitarik egin du ez baitire tzar guziak oro erroz gora lurre-an gelditu, eta onak nausitu orotan.” (E 1900-5-25 “Goiti...beheiti”). Ik. *Itzulipurdi egin*.

**Esku eman** ‘lagundu’. Oso erabilia. Antzekoa da *Azpitik esku eman* ‘ixilean lagundu’:

“Lege haren aldekoeri azpitik esku emanaz” (*Zez.* 42, apud OEH).

**Eskuak hutsik**: ‘deus gabe’. (*gelditu / ...*) aditzekin:

“eskuak hutsik, pegarreko ur hotzarekin buruz buru gelditzeko” (E 1221).

**Golkoan (izan/...)**: ‘pertsonek batek bere barruan, barne-pentsamenduan (izan/...)’.

“Zer ere baitzuketan golkoan, beti sinatu dute; oroitzuz araz boz-emailen esku-ko direla” (E 834 EH “Eskuararen alde/Nor ba? Nor ez?”).

**Lepoa eman** (*norbaitek*): ‘jokatu, apustu egin’. Arrunta da, H-Uk maiz erabilia, gehienetan ondoren mende perpaus osagarria duela.

“Alta lepoa emanen nuen holako zerbeit zinueta gogoan” (E 1221 “Itsuskertia bat”).

**Muturrera eman:** ‘aurpegiratu, sudurrera eman / bota’. Ik. *Sudurrera eman*.

“Alabainan zer nahi dugun beti eta beti solas bera emanez gure etsaien muturrera? Zer dugun uste ala, ohointza hoik eta holakoak, norapeit azkenean ahanzterat uzteko orde, beti eta beti sudurrera botatuz, ontuko direla, eztituko, urrikitan sartuko gure etsaiak?” (E 1282 “Karakoilak”).

**Ostiko(a) eman** ‘ostikada eman’ (E 1226 “Igandea eta *Eskualduna*”).

**Zainetan odolik:** ‘bizi(rik), indar(rik)’. Ezezko perpausetan maiz (*zainik / odolik (ez) (ukan /...)*)

“eskolek mintzaraziko dute oraino mihirik ahoan eta zainetan odolik duena” (E 1244, 1911-2-10).

“madari zahar irindu purifikatu batek baino gehiago nehorat deus onetako zainik ez odolik ez duena” (H-U 1904).

**Zango bat sar** ‘barne izan’ (adib. bilkuran, E 1265, 1911).

(**Bi**) **Zangoak aitzinean joan** ‘xuxen joan’ (?):

“zonbat ez doazi bi zangoak aitzinean hilerrietarat?” (E 1313).

**Zangoen azpian eman** ‘zanpatu’ (adib. kontzientzia, E 1199).

**Zehe bat (luzeko) sudur (bat)ekin gelditu:** “*Zehe bat sudurrekin norbait igorri, renvoyer qq. un avec un pan de nez, confus d’un refus*” (Lhande). (*gelditu / utzi /...*) aditzekin.

“jandarmak gelditzen dire (...) zehe bat luzeko sudur batekin” (E 1253).

Somatismoak bezain ugariak ez dirateke barne-jarrera, sentimendu edo psikologia hitzak oinarrian dituztenak, adib. *gogo*. Hona bat:

**Gogoa saldu:** ‘etsi, bertan behera utzi’.

“Bainan ez daude gogoa saldurik. Alde batetik huts egina bertzetik ea baduketenez ari zaitzu;” (E 1206).

2. Lokuzio frankok abereen izenak aipatzen eta gizakiak haiekin konparatzen dituzte, ikusi dugunez (*xoxoa bipildu*). Badira abereen eta batez ere gizakien jatekoa aipatzen dutenak ere; hots, gehientsuetan bizibide-kontuak:

**Egungo ogia** ‘bizibidea’. Oso arrunta; hala ere, ondoko adibidean, egileak, erdi sortze, erdi-bihurtzez, metafora-hari matazatu bat osatzen du:

“Egungo ogia eta biharko irina, etziko bihia, eta geroagoko hazia, batzu orai berean, bertzeak sarrixago, oro ken” (E 1115, 1908).

**Irinez ez bada, zahiz:** ‘nolazpait’. Ondoko adibidean, *bete* aditzarekin:

“azken beltzean, irinez ez bada zahiz, nolazpeit beteko dugu *Eskualdun* hau.” (E 1207).

***Ogi baino gasna gehiago:***

“Zozialistak direlakoan amets eroek eta langileari ogi baino gasna gehiago hitzemaillen ahoberokeriek nahasten ez balituzte oro, eta batzu bertzen etsai bilakarazten, ederki loazke.” (E 1286, 1911, “Hirugarrena”). Cfr. Oihenart 346 *Ogi bezanbat gasna nahi luke*.

Eguratsa aipatzen dutenak ere franko dira; adib. haizea (ik. *Jazko haizeaz (...)* *axola*). Hona beste pare bat:

***Haize onak ekarri*** (*norbaiti zerbait*): ‘halabeharrak edo zori onak ekarri’.

“(…) izan girenez etsenplu on hunen bila han nonbeit urrun, ala eskuetara ekarri daukunez haize onak, batetara doa.” (E 1240 “Han-hemenka” saila).

***Iguzkiko ala itzaleko X*** (*zerbait*) ‘ageriko ala gordeko’:

“(…) iguzkiko ala itzaleko ontasun guzien urtarazteko” (E 1264).

Jokoa, bereziki museko jokaldiak aipatzen dituztenak (ik. *Hogoi-ta hameka eta esku*).

Zenbaki- eta kolore-epitetodunak eanguratsuak dira esanahiaren aldetik. *Bi da zenbaki aipatuena, (Urtearen bi buruak (ezin) elgarretaratu, etab.)*:

***Bi soseko X-ak*** (*gizonak /...*) ‘deus guti balio dutenak’. Bizk. *lau txakur (txakurreko)* A Arejitak diostanez.

“Uste zuten ala bi soseko gizonak ginela gu, (...)?” (EO 31, 1907-8-2 EH).

Kolore (politiko eta beste) epitetodunak badira; kolore politikodunez bestalakoen artean, adib., ondokoa:

***Mutur zuri*** : ‘mizkin’.

“Beti jateko bera: lur-sagar, haragi egosi, zopa, ilar, asetzekoa. Mutur-zurienek ere han denetik behar dute jan, on bazeie eta ez.” (E 1256 “Soldadoak malobretan”).

Azkenik, lokuzio zaharra da ondokoa, Axulargandikakoa (“indar gabeko kole-  
ra, haserrea eta mendekatzeko desira, parrik ezin iragan dezakeienarena.”, ap. OEH).

***Par*** (*guzi)a(k) pasatu*: ‘marra (guztiak) iragan; nahikunde (guztiak) bete’. Batez ere *pasatu / iragan, igaran* aditzekin erabilia. *Par* edo *parra* hitzetik. “Par. Entêtement, caprice” Dv. “Capricho, terquedad (...) Azkue” (OEH). “Parra: 2. Barrière. Parra iragaitea, franchir la barrière” O-SP 231.” (OEH).

(errient-errientsen grebaz) “Anitz badirela baitiote beren teman gogor dau-  
denak, beren par guziak pasaturik, *pagaren emendatzea* barne, legeari eta legeko gizoneri, beren buruzagieri uko eginaraz arte, (...)” (E 1327 “Legeari obedi”).

## Bibliografia

- AZKUE, R.M., *Euskalerrriaren Yakintza* (Espasa Calpe, Madrid, 1969; III. liburukia, I. Atsotitzak (Proverbios); II, Esakerak (Modismos); laburduraz EY. — (Azkue, soilki) *Diccionario vasco-español-francés de Resurrección María de Azkue*. (Facsimil) La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- DUVOISIN (1878): “Proverbios Vascongados”, *Revista Euskara*, t. I (1878), 142, 174, 271, 295. or.— (1879) “Proverbios Vascongados”, *Revista Euskara*, t. II, 1879, 158, 188, 313, 351.
- GARATE, G., *27.173 Atsotitzak. Refranes. Proverbes. Proverbia*, Fundación BBK Fundazioa, 1998.
- Jean Hiriart-Urruti. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*. Edit. Franciscana, 1971 (P. Lafitteren antol.). — *Jean Hiriart-Urruti. Zezenak Errepublikan*. (P. Lafitteren antol.) Edit. Franciscana, 1972.
- KALTZAKORTA, X., “Euskal fraseologia: historia, oinarriak”, *Euskera* 2001, 1, 73-87.
- LHANDE, P., *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque (Dialectes labourdin, basse-navarrais et souletin) d'après le Dictionnaire basque-espagnol-français de l'abbé R. M. de Askué et les Dictionnaires manuscrits des abbés M. Harriet, M. Hiribarren et Pierre Foix*. Paris, 1926.
- MOCOROA, J.M., *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*, Labayru-Eusko Jaurlaritza-Etor, 1990.
- Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH). Orain arte argitaratua (I-XII) baizik ez dugu ikusi ahal izan.
- SARASOLA, I.: *Euskal Hiztegia* (Kutxa Fundazioa, 1996). (Laburduraz EH).

## Zeinu eta laburdura

‘ ’: esanahia adierazten du.

/ : hautazkoa dela, zeinu horren ezkerretara nahiz eskubitara daudenak ger-tagarri direla. Testu-aipamenetan, jatorrizko testuan puntu eta bereiz dagoela adierazten du.

? : Lokuzio ote den edo egileak sortua denetz ziur ez dakigunean erabiltzen dugu.

ap.: apud; hots, non aipu den.

Azkue EY: Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza*. Ik. Bibliog. Azkue

E: *Eskualduna* astekaria (1887-1903; 1908-1944). E ondoren agerraldia (alea) jarri ohi dugu.

EO: *Eskualdun Ona* (1904-1907).

EH: "Eskual-Herria" saila (E eta EOkoa).

H-U: Hiriart-Urruti.

Lhande: ik. Bibliografia

*Mintz.:* Jean Hiriart-Urruty: *Mintzaira, Aurpegia, Gizon* (Jakin, 1971).

OEH (*Orotariko Euskal Hiztegia* ; XII. aleraino argitaratua dena).

Sarasola EH: ik. Bibliog. Sarasola.

*Zez.:* Jean Hiriart-Urruty: *Zezenak Errepublikan* (Jakin, 1972).

# ADITZ-IZENEN ETA PARTIZIPIOEN FORMAK BIZKAIERAZ

*Eneko Barrutia\**

---

\* Bilboko HEOKo eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

## LABURPENA

Artikulu honetan bizkaierazko aditz izenen morfologia aztertu gura izan da eta horregaz batera artikulua amaitzen proposamen bat egin: topetan, sartzen... idaztea komeniduko litzateken. Izen morfologia eta aditz morfologia geroago eta aztertuago daukaguz baina, orain arte behintzat, gai honetarako proposamenik egin ez danez eta kontu garrantzitsua danez, gitxi gorabehera gaiaren zertzelada nagusiak eskindu gura izan doguz.

Dana dala, aldaketa eta lege asko daukaguzan garaian, ez geunke gura arautzat hartzerik; Bizkaiko euskereak benetako normalizazio prozesu bat euki daian.

## RESUMEN

En este artículo se hace un estudio de la morfología de las nominalizaciones verbales y de ciertos participios del euskera vizcaino. Al final se hace una propuesta para su uso escrito. La forma de las declinaciones y de los verbos está cada vez más estudiada pero quedan aún lagunas que, no por no haber sido abordadas hasta ahora carecen de importancia.

En una época en la que estamos habituados a cambios y leyes o normas, no quisiéramos que se entendiese como tal esta propuesta, para que el euskera vizcaino entre en un verdadero proceso de normalización.

## RÉSUMÉ

Cet article consiste en une étude de la morphologie des nominalisations verbales et de certains participes du basque biscayen. En conclusion, il présente une proposition pour leur utilisation à l'écrit. La forme des déclinaisons et des verbes est de plus en plus étudiée mais il reste des lacunes qui, pour n'avoir pas été encore abordées, ne concernent pas moins des questions importantes.

A une époque où nous sommes habitués aux changements de lois ou de normes, cette proposition ne doit pas être vue sous cet angle si nous voulons que le biscayen entre dans un véritable processus de normalisation.

## SUMMARY

Also to be found here is a study of the morphology of verbal nominalizations and of certain participles in the *vizcaíno* dialect of the Basque language. A proposal for its written use is made at the end. The form of declinations and verbs is increasingly being studied but some gaps remain which, despite being ignored until now, are none the less of importance.

At a time of constant changes in legislation and rules, we would not want this proposal to be taken as such, so that *vizcaíno* might start out on a genuine process of normalisation.



Artikulu honetan bizkaieraz “-t(z)e” aditz-izenak eta partizipioak daukiezan barianteak eta honeek non erabilten diran zehaztu gura da. Helburua bizkaiera idatzirako proposamen bat egitea da, deskripzino zehatz-zehatza egitea luzea izango litzateke, leku askotako datuak beharko litzatekez eta bitxikeria asko be bada goz argitu behar litzatekezanak. Adibide batzuk hartuta, geografiaren aldetik zelako banaketea dagoan eta historikoki zelako eboluzinoa egon dan ikusiko da, handi-handika baino ez bada.

Gaur egun, euskera batuaren eragina dala eta, “topatzen”, “botatzen” eta holangoak irakurten doguz lantzean behin gure euskalkian, hemen erakutsi gura da horreek formok ez dirala zuzenak bizkaieraz eta horreen orde besta batzuk erabilten dirala. Aditz-izenak hartu beharrean hemen aztertuko dana “-ten”/“-tzen”/“-tan...” partizipioa izango da, maiztasunaren aldetik ugariena dalako eta neurri handi baten partizipio hori jakinda beste forma batzuk zeintzuk izango diran jakin geinkelako. “Urteten” esaten dauenak “urtetea” eta “urteteko” esango dau normalean, edo “urtetan” esaten dauenak “urtetako”.

Bost forma nagusiak aztertuko doguz lehenengo: “-ten”, “-tzen”, “-tan”, “-tzean” eta “-ketan”, egotez gehiago be badagoz baina gure helburua ez da hain azterketa sakona egitea; honeen ostean kasu bitxi batzuk ikusiko dira eta artikularen amaieran bizkaiera idatzirako proposamen bat egingo dogu.

Artikulu hau egiteko laguntasuna eskatu deutset lagun batzuei eta bakotzak bere herriko datuak emon deustaz. Honeek dira artikuluan erabiliko dodazan herrien laburdurak, herriaren ostean datuak nok emon deustazan agertuko da. Eskerrik asko informazinoa emon deustazuenoi.

- A = Arrazola (Belen Olaetxea)
- Bed = Bedia (Kolaziño) (Nagore Etxebarria)
- B = Bermeo (Neuk hartutako datuak)
- E = Elantxobe (Neuk hartutako datuak)
- G = Gernikaldea (Mendata) (Aitziber Urkiza)

Lau = Laudio<sup>1</sup>

L = Lekeitio (Neuk hartutako datuak)

Lez = Lezama (Eli Zallo)

M = Mundaka (Neuk hartutako datuak)

Mun = Mungia (Iraide Iturri)

O = Ondarroa (Neuk hartutako datuak)

U = Urduliz (Idoia Alzibar)

Z = Zeanuri (Irene Zuloaga)

Zeb = Zeberio (Ramon Etxebarria)

Bizkaierearen ekialderengo datuak lortzeko Jerardo Elortzaren artikulua erabili dot, bertan ederto zehazten dira desbardintasunak eta mugak non dagozan.<sup>2</sup>

Hemen herrien laburdurak:

Aram = Aramaio

Arras = Arrasate

Berg = Bergara

Oñ = Oñati

Literaturatik jaso diran adibideetarako:

PAb = Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka*

fB = Fr. Bartolome de Santa Teresa (Bartolome Madariaga)

Oe = Bartolome Olaetxea

\* ikurra forma hori bakarra ez dala adierazoteko erabiliko dot, Lezamako “batuten”en ondoan “batzian” be esaten da.

## 1. -TEN

1.a. -TUTEN / -DUTEN silaba biko aditzetan

batuten (Lez\*, U)

galduten (Bed\*, Lez\*, U)

geituten (Bed, Lez\*, Mun, U, Z\*, Zeb)

hartuten (U)

helduten (Bed, Lez\*, U, Z\*)

kenduten (Lez\*, U)

lotuten (Bed\*, Lez\*, U, Zeb\*)

---

<sup>1</sup> Louis Lucien Bonaparte: *Doctrina Cristiana en el Vascuence de Llodio, Provincia de Alava*. In *Opera Omnia Vasconice II*.

<sup>2</sup> Jerardo Elortza: “Aditzaren izen-formak Deba Garaian eta Araba aldean”. In *Euskal Dialektologiako Kongresua* (Donostia, 1991ko irailak 2-6), 465-477.

ostuten (B, Bed, Lez, M, Mun, U, Z, Zeb)  
 salduten (Lez\*, U, Zeb\*)  
 sartuten (Lez\*, U)

Badirudi Zeberion ez leukiela “geitzean” erabiliko. Zeanurin be gazteak erabiliko leukie, zaharrak “geituten”.

Literaturan:

batuten (fB, PAb)  
 deituten (PAb)  
 hartuten (fB, PAb)  
 ostuten (PAb)  
 poztuten (fB)  
 sartuten (fB, PAb)  
 sortuten (PAb)

1.b. -TEN (silaba biko “-tu”tik datorrena)

hozten (A)  
 husten (A, G)  
 osten (G), oosten (A)

Gernikaldean, Makinaldean eta Durangaldean.

1.c. -TUTEN / -DUTEN hiru silaba eta gehiagokoetan

afalduten (Zeb\*)  
 aginduten (Bed\*, Mun\*, U, Zeb\*)  
 apurtuten (B, M, Zeb\*)  
 bihurtuten (Zeb\*)  
 eskatuten (B, Bed\*, M, Mun\*, U, Z\*, Zeb\*)  
 eskribiduten (Bed\*, Mun\*, U, Zeb\*)  
 ezetuten (B, M, Mun\*, U, Z\*, Zeb\*)  
 ezkunduten (B, M, Mun\*, U, Zeb\*)  
 garbituten (Bed\*), garbitxuten (M), garbiten (B)  
 gehituten; gehitxuten (E)  
 gitxituten; gitxitxuten (E, M)  
 goatuten (Zeb.) silaba 2?  
 hotzituten (Bed\*, Lez, Mun\*, U, Z\*, Zeb\*)  
 hutsituten (Bed\*, Mun\*, U, Z\*, Zeb\*)  
 lorrinduten (Zeb\*)  
 luzetuteko (E)  
 samurtuten (Zeb\*)

segiduten (Mun\*, U)  
zarratuten (Zeb\*)  
zutunduten (Zeb\*)

Leku askotan “-duten” eta “-ten” entzuten dira: “enteniduten”/“enteniten”, “segiduten”/“segiten”, etab.

Literaturan:

agertuten (PAb)  
aitatuten (PAb)  
amaituten (fB)  
aztuten (PAb)  
batiatuten (fB)  
bedeinkatuten (PAb)  
begiratuten (fB)  
eskatuten (fB, PAb<sup>3</sup>)  
ezagututen (PAb), ezaututen (fB)  
gehituten (PAb)  
geratuten (fB)  
haserratuten (PAb)  
ikaratuten (PAb)  
jarraituten (fB)  
jokatuten (fB)  
laburtuten (fB)  
lotsatuten (PAb)  
orraztuten (PAb)  
osatuten (PAb)  
parkatuten (fB)  
sinistuten (fB, PAb)

I.d. -TEN [“-a”tik datorrena, maileguetatik batez be]

allegaten (B, M, U)  
altzaten (B, M, O)  
arrantzaten (O)  
atrapaten (B, L, M)  
biraten (E, M)  
botaten (A, B, Bed, G, L, Lez, M, Mun, O, U, Z)  
estudiaten; estudidxaten (E, M), estudidxeten (B)

---

<sup>3</sup> “Escatuten” lau bider agertzen da *Peru Abarkan*, “esquetan” behin baino ez. Bardin antzean jazoten da Mogelen beste liburu batzuetan be.

gertaten (L)  
 gomutaten (E)  
 kanbiaten; kanbidxaten (E), kanbidxeten (B)  
 nabegaten (B, E, M)  
 paraten (B, L, M)  
 pasaten (B, M, U)  
 pentsaten (B, E, M)  
 topaten (B, E, M, U)

-A amaiera orokorra da kostaldean: Armintzan, Bermeon, Mundakan, Elantxoben, Lekeition eta Ondarroan. Ez Bakion. Plentziako bariedadean be orokorra da. “Bota” aditza orokorra da bariedade guztietan. Mailegu guztietan ez da “-a” egiten, batzuetan “-tu” hartzen da: “bajatu” (“baja” be badago), “eskamatu”, “kalmatu”, etab.

#### 1.e. -ITEN

aurkituiten (Lau)  
 bedeinketuiten (Lau)  
 emoiten (Lau)  
 entendiduiten (Lau)  
 eskatuiten (Lau)  
 igoiten (Lau)  
 jaiioiten (Lau)  
 parkatuiten (Lau)  
 sinistuiten (Lau)  
 urteiten (Lau)

Laudiokoa ez eze Orozko aldekoa be bada bariante hau. Orozkon badirudi, halandabe, ez dala hain erabilia gaur egun, batzuk ez dabe erabilten antza edo aditz gitxi batzukaz baino ez da agertzen: “emoiten”, “joiten”, “urteiten”<sup>4</sup>. Oñatin, barriz, “-au”tik etorri leitekez forma honeek:

asmau - asmaitten  
 borrau - borraitten  
 kontau - kontaitten  
 pentzau - pentzaitten

---

<sup>4</sup> Anuntzi Arana: *Orozko haraneko kondaira mitikoak. Bilduma eta azterketa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

2. -TZEN

2.a. -TZEN (silaba bikoetan)

batzen (A, G, L)  
deitzen (A, G)  
galtzen (A, G), galtzeko (L)  
hartzen (A, G, L, O)  
heltzen (A, G, L)  
kentzen (A, G), kentzeko (O)  
lotzen (A, G, M)  
saltzen (A, G, M, O)  
sartzen (G, L, M)... sartzia (L), sartzeko (O)  
sortzen (A)  
zertzen; sertzen (E, O)... sertzeko (E)

Kostan Mundakatik Ondarroaraino. Makinaldean, Durangaldean eta Gernikaldean be nahikoa orokorra.

2.b. -TZEN (hiru silaba edo gehiago), “-du” eta “-tu”tik datozenak

afaltzen (A, G)  
agintzen (A, G, O)  
apurtzen (L)  
bajatzeko (L)  
bazkaltzen (A, G)  
eskatzen (A, G)  
eskribitzen (A, G)  
estutzen (O)  
ezagutzen; ezautzen (A, G, O)  
ezkontzen (A, G)  
garbitzen (A, G)  
geratzen; geatzen (O)  
hurreratzen; hurreatzen (O)  
konturatzen (L)  
laguntzeko (L)  
segitzen (A, G)  
usteltzen (O)  
zabaltzen (O)

Kostan Lekeition eta Ondarroan erabilten da, Gernikaldean, Makinaldean eta Durangaldean.

2.c. -TZEN (bizkaieraz “-ten”, “-etan” erabiliko litzatezan kontestuetan)

asmau - amatzen (Berg)

kontau - kontatzen (Berg)

pentzau - pentzatzen (Berg)

ekarri - ekartzen (Berg)

etorri - etortzen (Berg)

ibili - ibiltzen (Berg)

igo - igotzen (Berg)

ill - iltzen (Berg)

Honeek euskalkiaren barruko kasu bakarrak dira. Badirudi Eibarren eta Antzuolan be Bergarako ereduak daukiela. Aramaion, Arrasaten eta Oñatin, barriz, ez.

“-tzen” eta “-tuten” dala-eta literaturan danetariko adibideak ikusi leitekez, orokorrean esan leiteke bizkaieraz klasikoagoa izan dala “sartuten” “sartzen” baino. Mogelek ez dauka “-tzen” bakar bat be *Peru Abarka*-n baina agertuten dira *Refranes y Sentencias*-en, *Barrutiaren Acto para la Nochebuena*-n eta abar, bizkaierazko testu zaharrenetan, ekialderengoetan beharbada. Txomin Agirrerren *Kresala*-n, Eusebio Erkiagaren *Arranegi*-n, eta beste askotan alternantzia guztiz normala izan da, batera zein bestera jokutzen izan dabe idazleak puntu honetan sarri.

### 3. -TAN

1.a. -TAN (“-tu” eta “-du”tik datorrena)

afaltan (Lez, Mun, Z)

agintan (Bed\*, Lez, Mun\*, Z, Zeb\*)

apurtan (Zeb\*)

bazkaltan (Lez), bezkaltan (Mun)

bihurtan (Zeb\*)

eskatan (Bed\*, Lez, Mun\*, Z\*, Zeb\*)

eskribitan (Bed\*, Lez, Mun\*, Zeb\*)

ezetan (Bed, Lez, Mun\*, Z\*, Zeb\*)

ezkontan (Bed, Lez, Mun\*, Z, Zeb\*)

garbitan (Bed\*, Lez, Mun, Z)

hotzitan (Bed\*, Mun\*, Z\*, Zeb\*)

hutsitan (Bed\*, Lez, Mun\*, Z\*, Zeb\*)

ikutan; ukutan (Mun)

lorrintan (Zeb\*)

samurtan (Zeb\*)

segitan (Bed, Lez, Mun\*, Z)

zarratan (Zeb\*)  
 zutuntan (Zeb\*)

Arratian, Txorierrin eta Mungialdean, mendebaldeko bariantea. Ez da izaten forma bakarra, nahi ta askotan bera nagusi izan, eta “-tan”/“-tuten” bikoteak euki-tea nahikoa normala da Arratian eta Mungialdean behintzat.

3.b. -ETAN (“-au”tik datorrena)

allegetan (Bed, G, Lez, Mun, Z, Zeb), alleetan (A), allietan (G)  
 armozetan (A, Bed, G, Lez, Mun, Z, Zeb), armoztan (Mun, U, Zeb)  
 faltetan (Z)  
 pasetan (A, G, Lez, Mun, Z)  
 topetan (A, Bed, G, Lez, Mun, Z, Zeb)

Hauxe da bizkaieraz ia forma bakarra. Hau egiten ez dabenak partizipioan “-au” barik “-a” egiten daben herriak dira, lehen aitatu dodazan kostaldeko herriak eta Plentziako bariedadekoak. Gipuzkoako herri batzuetan bere ez leukie hau egingo, Bergaran, Eibarren eta Antzuolan.

Literaturan:

engaineetan (fB)  
 enkargeetan (fB)  
 ernegeetan (fB)  
 expliketan (PAb)  
 ezkutetan (PAb)  
 gomutetan (PAb)  
 izentetan (PAb)  
 kanteetan (PAb)  
 konteetan (PAb)  
 miazketan (PAb)  
 nastetan (PAb)  
 olgetan (PAb), olgeetan (fB)  
 penseetan (fB)  
 predikeetan (fB)  
 presteetan (fB)  
 probeetan (fB)  
 tokeetan (fB)  
 topetan (PAb)  
 tratetan (PAb)  
 useetan (fB)



“-etan” ez dator “-au”tik bakarrik literaturan, idazle askoren idatzietan eta testu askotan “-tu”tik be etorri leiteke kasu baterako, hemen aitatu doguzan idazle bi honeekan hain normala ez bada be. Dana dala gaur egun ez dot uste garrantzirik daukanik eta ez dot hemen holako adibiderik ipiniko.

#### 4. -TZEAN (silaba bi)

batzean (Bed, Z, Zeb), batzian (Lez\*), batxian (Mun), batzien (B)  
estzean (Z)

galtzean (Bed\*, Z, Zeb), galtzian (Lez\*), galtxian (Mun), galtzien (B)  
geitzean (Z\*), geitzian (Lez\*)

goatzean (Zeb), gatzean (Z)

hartzean (Bed, Z, Zeb), hartzian (Lez\*), hartxian (Mun), hartzien (B)

heltzean (Bed\*, Z\*); heltzian (Lez\*), heltxian (Mun)

kentzean (Bed, Z, Zeb), kentzian (Lez\*), kentxian (Mun), kentzien (B)

lotzean (Bed\*, Zeb\*), lotzian (Lez\*), lotxian (Mun), lotzien (B)

saltzean (Bed, Z, Zeb\*), saltzian (Lez\*), saltxian (Mun), saltzien (B)

sartzean (Bed, Z, Zeb), sartzian (Lez\*), sartxian (Mun), sartzien (B)

zertzean

Zeberiotik itxasoraino, Bermeoraino erabilten da: Arratian, Txorierrin, Mungialdean eta itxasoraino Bermeoraino. Mungialdeko bariedadea “tx”duna da, Bermeon entzuten dan “tx” “tz” galtzearen ondorioz da, ez dauka zerikusirik Mungialdeko bariedadeagaz alde horretatik, ondo ahoskatzen dabenak “tz” egiten dabe eta.

“Geitzean” Zeanurin gazteagoena izango litzateke, zaharrak “geituten” esango leukie. Bermeo aldean bere ez da “deitzien” esaten, “deitxuten” baino.

“Heltzean” aditzaren esangurea frutakaz erabilten da, “madurar” esateko, ostantzean “allegetan” esaten da eta.

#### 5. -KETAN

agerketan (Aram, Arras, Oñ)

apurketan (Aram, Arras, Oñ)

beroketan (Aram, Arras, Oñ)

ezkonketan (Aram, Arras, Oñ)

3 silabadunetan badirudi bardin jokutzen dala honeetan herriotan. “-ztu” amaiera daukien silaba bikoetan, barriz, desbardin jokaketan dabe:

mozketan (Aram, Arras)

pozketan (Aram, Arras)

mozten (Oñ)

pozten (Oñ)

Beste leku batzuetan “-tzean” egiten dan aditzakaz, silaba bikoak eta “-tu” edo “-du”z amaitzen diranak, ez ei da “-ketan” egiten:

galtzen (Aram, Arras, Oñ)

hartzen (Aram, Arras, Oñ)

sartzen (Aram, Arras, Oñ)

Beste batzuk

Beste aditz batzuk aparte aurkeztu gura neukez, talde garrantzitsu bat osotzen ez dabelako edo bitxiak diralako euretariko batzuk.

#### A. ATERA/ATARA

“Atera” forma zaharra Arratia aldean-eta gordeten dabe ondino, “atara” da ostantzean indartsuena, “ata”, “etara”, “eta” barianteak be badaukaz.

ATERATEN (Z), ATETAN (Z)

ATARATEN (A, B, Bed, Lez, Mun), ATATEN (B, Bed, G, Lez)

Zeanuriko adibideak Zeberiorako be balio dau, “ateraten” baina aditza laburtzen danean “-tan” agertzen da.

#### B. BETE, ERRE, GORDE erakoak

“Bete” berezia da leku askotan “betetu” egiten dalako, edo alternantzian, “betatu” forma zaharrago bat be badago. Honeek dira emon deusten datuak:

BETETEN (B\*, M)

BETETAN (A, Bed [bete-tik], G, Lez\*, Mun [betetu-tik], U, Z)

BETETUTEN (B\*, Lez\*)

ERRETEN (A, B, E, Lez\*, M, U)

ERRETAN (Bed, G, Lez\*, Mun, Z)

GORDETEN (A, B, Lez, M, U)

GORDETAN (Bed, G, Mun, Z, Zeb)

#### C. URTEN

“-n” amaiera daukienak ez dabe arazorik emoten eta bai batuan eta bai bizkaieraz antzean egiten dira: “esan”-“esaten”, “esatea”, “emon”-“emoten”, “emotea”. “Urten” berezituagoa da besteen aldean, honeek dira datuak:

URTETEN (B, L, Lez\*, M, U)

URTETAN (A, Bed, G, Lez\*, Mun, Z, Zeb)

Literaturan:

URTETEN (PAb, fB, Oe)

Bizkaierearen literaturan esan daigun “urteten” nagusi izan dala, ez hemen aitatzten diran hiru egileakaitik bakarrik.

#### D. ITXI

“Ixten” edo “isten” ahoskatzen dan edo idatzi behar litzateken, horretan sartu barik, esan daigun aditz honek alternantzia handia daukala forma barriago bategaz, “itxiten”egaz. Forma barria indartsua dan arren osasuntsu dago ondino forma zaharra:

IXTEN (A, Bed\*, G, Lez\*, Mun, Z)

ITXITEN (Bed\*, Lez\*, Zeb), ITXITXEN (B), ITXITZEN (U)

#### E. AFALDU, BAZKALDU

Goiago be “afaltan”, “afaltzen”-eta ikusita daukaguz, aditzetik datozen formak. Badagoz beste batzuk aditzetik barik izenetik datozenak, zaharrak diranak eta gaur eguneko testuetarako be ondo kontuan euki behar gendukezanak. Ugariak dira gure euskalkian eta beste hainbat lekutan be bai.

AFARITEN; AFAITEN (Z, Zeb\*), AFARITZEN (U)

BAZKARITEN; BAZKITEN (Z), BEZKARITZEN (U)

Bermeo eta Mundaka aldean “armozau”, “bazkaldu” eta “afaldu” ez dira aditz moduan erabilten eta “armozutan”, “armozutako” lako formak entzuten dira Mundakan, izenaren ganean eregitakoak. “Armozau” erabilten dan herrietan desezaguna da hau.

#### F. EBAGI

EBATEN (A, Bed\*, E, G, Mun, Z)

EBAITEN (Lez), EBEITEN (Bed\*), EBAITXEN (B, M, U [tz])

“Ebaten” da kasu honetan forma zaharra eta maila jasoagoa euki behar leukena.

#### G. BIZI/BIZI IZAN

BIZITEN (Bed, Lez, Z), BIZITXEN (B, U [tz]), BIZTEN (Mun, U)

BIZI IZATEN, BIZI IZETEN (A, G)

Honetan be, gehienetan legez, bat datoz Arrazola eta Mendata.

H. IGARRI

IGARTEN (Lez, U), IGIRTEN (Z), IGERTEN (A, G)

IGERTAN (Mun), IGIRTAN (Bed\*)

IGIRRITEN (?) (Bed)

### Proposamena

Ikusi doguzan datuetatik, gehiago bere ekarri leitekez baina gitxi gorabehera egoera orokorra erakusten dabelakoan nago, proposamen hau egingo geunke partizipioen erabilera apur bat arautzeko:

1. “-au” errespetetea:

harrapau

informatizau (baita gaur eguneko mailegu barrietan be)

konfirmau

pentsau

topau

2. “-au”tik “-etan” egitea:

harrapetan, harrapetako, harrapetea

informatizetan, informatizetako, informatizetea

konfirmetan, kofirmetako, kofirmetea

pentsetan, pentsetako, pentsetea

topetan, topetako, topetea

Eta ez: “topatzea”, “pentsatzea”, “tratatzea”, etab. Etorkizuna eta “-ta”/”-rik”dun adberbioak eta beste batzuk egiteko modu zuzenak “topauko”, “pentsaurik”, “pentsauta”, “pasaukeran”, etab. dira, “topeko”-eta esaten diran arren aurrekoaren barianteak baino ez dira.

3. “-i” amaieradun aditzak honetara idatziko dira:

ekarri - ekarten, ekartea, ekarteko

etorri - etorten, etortea, etorteko

ibili - ibilten, ibiltea, ibilteko  
ipini - ipinten, ipintea, ipinteko

4. “-o” amaieran:

ito - itoten, itotea, itoteko  
jo - josten, jotea, joteko

5. “-tu”/”-du” amaieran:

Batuaren antzean jokatu leiteke, beste aukerak baztertu barik honeek indartu leitekez silaba biko aditzak zein silaba bi baino gehiagoko izan:

hozten  
osten  
pozten

galtzen  
hartzen  
sartzen

eskatzen  
ezkontzen  
parkatzen

Alde batetik hau da bizkaitarraren barruan lekua irabazten joan dana eta euskera batuan be erabilten dana, dana dala, “ostuten”, “poztuten”, “sartuten” eta “eskatuten” lakoak be errespetau egin behar litzatekezala uste dot, eurak dira gure literaturan “klasikoenak” eta ondino leku askotan esaten diranak.

6. Eredu landurako forma honeek hartzea

beteten  
erreten  
gordeten  
urteten  
ixten  
afaritan/afariten  
afaritako/afariteko  
bazkaritan/bazkariten  
ebaten.



# MEÑAKAKO EUSKERAREN SOINU EGITURAZ

*Iñaki Gaminde\**

---

\* EHUko irakaslea.

## LABURPENA

Hizkuntza teknologiaren aro honetan, euskara dagokion esparrua lortu guran dabil, bai hizkuntzaren sintesian, bai ezagutzan. Ikerketa aplikatueta aurreratuta dauden hizkuntzek datu bilketak eta oinarrizko ikerketak aspaldian eginak eduki dituzte eta aplikazioen sasaira bide urratuta ailegatu dira. Hemen aurkezten duguna oinarrizko ikerketen alorrean kokatzen da. Batetik, euskararen bariedade baten soinu egituraren azterketa matematikorako urratsak ematen dira eta, bestetik, emaitzak arinago beste bariedade baten lortutakoekin erkatzen dira. Helburua, xumea izanagatik ere, bide urratzailea izan daiteke, izan ere, datu eta behin-behineko emaitzez ostera, gurean berria den iker-esparrua erakutsi gura da.

## RESUMEN

En estos momentos en los que adquiere gran relevancia la tecnología de la lengua, tanto en el campo de su síntesis como en la de su conocimiento, la lengua vasca intenta encontrar su lugar en este nuevo espacio. Los idiomas que están más desarrollados en las investigaciones aplicadas hace tiempo que llevaron a cabo la recopilación de datos y los estudios básicos. El trabajo que aquí se presenta se sitúa en el área de los trabajos de base. Por una parte abre una vía de análisis matemático de la estructura fónica de una variedad de la lengua vasca y, por otra, se establece una comparación con otras variedades de ésta. El objetivo, a pesar de ser humilde en apariencia y de presentar datos y resultados provisionales, es mostrar una vía innovadora en el ámbito de las investigaciones filológicas vascas.

## RÉSUMÉ

En ce moment, la technologie des langues, aussi bien en ce qui concerne leur synthèse que leur connaissance, connaît d'importants développements et la langue basque s'efforce de trouver sa place dans ce nouvel espace. Les langues qui ont le plus attiré l'attention de la recherche appliquée ont mené à bien depuis longtemps leurs collectes de données et leurs études fondamentales. Le travail présenté ici est à situer parmi ces études fondamentales. D'une part, il ouvre une voie d'analyse mathématique de la structure phonique d'une variante de la langue basque et, d'autre part, il établit une comparaison avec d'autres variantes de celle-ci. Notre objectif, apparemment humble, d'autant plus qu'il se limite à offrir des données et des résultats provisoires, est de tracer une voie novatrice dans le domaine des recherches philologiques basques.

## SUMMARY

With the technology of languages now gaining in importance, both in terms of synthesis and knowledge, the Basque language is looking to find its place in the new situation. Although languages where applied research is more developed have long since completed the gathering of data and basic studies, the work presented here should be considered as one such study. As well as paving the way for mathematical analysis of the phonic structure of a variation of the Basque language, it also compares it with other variations. Despite its apparently limited scope as a presentation of data and provisional results, the object of the article is to illuminate an innovative approach in Basque philological research.



## **0. SARRERA**

Behar honetan Meñakako euskararen soinu egituragazko hurbilpen gisara, segmentalen agerpen mailak aztertu gura ditugu; aurrerako behar batzuetarako suprasegmentalen azterketa uzten dugula; edozelan ere, intonazio sistemaren ezaugarrien gainean Gaminde (2000b) ikus daiteke.

Lana lau atal nagusitan banatuta aurkeztuko dugu. Helburua eta metodologia lehen atalean zehaztuko dira. Bigarren atalean Meñakako euskararen fonemen inbentarioa aurkeztuta, fonema bakoitzaren agerpen kopuruak aztertuko ditugu, kopuru hauetan arau fonologikoez zelako garrantzia daukaten ere aztertuko da. Hirugarren atalaren ikerkizuna silabaren egitura da, atal honetan ere, aurrekoan legez, silaba molde nagusia zein den aztertuko dugu eta molde bakoitzaren agerpen kopurua. Atalotan Meñakan lortu ditugun emaitzak Zamudion lortukoakaz (Gaminde 2000a) erkatuko ditugu. Azkenik ondorio eta bidea ebakitzen segitzeko zertzelada batzuk aipatuko dira.

## **1. HELBURUA ETA METODOLOGIA**

Behar honen helburua Meñakako euskararen soinu egiturari buruzko alde batzuk aurkeztea da.

Beharraren oinarrian 37 meñakarragaz grabatutako 35 orduko korpusa erabili dugu; korpus honetako 5200 berba erabili ditugu. Informatzaileak 39-87 urte bitartekoak izan dira eta denak bertako euskara darabilte. Grabazioak Minidisk deritzon grabazio sistemaz eginikoak izan dira informatzaileen ingurunean.

Jasotako materialaren transkripzioa egin ostean, azterketa estatistikoa aplikatu dugu, bai soinuen agerpenak kalkulatzeko, bai silaba egitura nagusiak zeintzuk diren agerian jartzeko.

## 2. FONEMEN INBENTARIOA


Atal honetan fonemen inbentarioa ikusita, fonema bakoitzaren agerpen maila aztertzeko bakoitzaren kopuruak emango ditugu. Fonemen inbentarioa jarraian ematen duguna da.

ezpain.	horz./albeo.	(aur)sabai.	bela.		
p	t		k	i	u
b	d		g	e	o
f	s	ʃ ʒ	x		a
	ts	tʃ			
m	n	ɲ			
	l	ʎ			
	r				
	r-				

Inbentario honi beheranzko eta goranzko diptongoetan agertzen diren semi-bokalak eta semikontsonanteak gehi lekizkioke.

Bokalen agerpen mailak aztertzeko, lexikoian azertu ditugun bokalak dene-tara 11.737 izan dira, testuetan berriz 7879. Ondoko tauletan eta grafikan bokal bakoitzaren kopuruak ikus daitezke:

	i	e	a	o	u
<b>Lexikoan</b>	2448	2383	4140	1470	1296
<b>Ehunekoa</b>	20,86	20,3	35,27	12,52	11,04
<b>Testuetan</b>	1233	2263	2554	940	889
<b>Ehunekoa</b>	15,65	28,72	32,42	11,93	11,28



1. irudia: bokalen kopuruak



Meñaka. 2000.

Meñakan bada arau bat “a” bokala “e” bihurtarazten duena bokal altuen ostean:

a→e/ i,u (C)\_\_\_\_\_


Arau honek “e” agerpen maila handia eragiten du; agerpen maila askozaz handiago da testuetan lexikoan baino, testuinguru egokia gehiagotan jazotzen da eta.

Lexikoaren datuetan oinarrituta, bokalen tasunei bagagozkie, bokal altuek %31,89 suposatzen dute; aurrekoek %41,16a eta, azkenik, biribilduak direnak %23,56a.

Diptongoen agerpen kopurua aztertzeko, beheranzko eta goranzko diptongoak bereiz emango ditugu. Beheranzko diptongoen artean “ai”, “ei”, “au”, “eu” eta “oi” dauzkagu; orotara 387 batu ditugu:

	ai	ei	au	eu	oi
<b>Orotar</b>	48	24	29	269	17
<b>Ehunekoa</b>	12,40	6,20	7,49	69,51	4,39


Meñakako euskaran joera nabarmen bat dago “au” “eu” bihurtzeko; joera hau mailegatutako partizipioetan areagotu egiten da, izan ere, mailegatutako erdarazko “-ar” amaierako partizipio guztiek “eu” egiten dute. Ondoko grafikian diptongo bakoitzaren agerpena ikus daitezke:



2. irudia: Beheranzko diptongoak

Goranzko diptongoak, mendebaldeko euskararen barietateetan arrunta den moduan, nahikoa marginalizat har ditzakegu; ondoko taulan daukaten agerpena ikus daiteke

	ja	je	jo	wa	we	wi
<b>Orotara</b>	4	12	3	13	16	6
<b>Ehunekoa</b>	7,41	22,22	5,55	24,07	29,63	11,11




3. irudia: Goranzko diptongoak

Lexikoan agertu izan zaizkigun diptongoak 441 izan dira; hauetarik 387 (%87,176) beheranzko diptongoak izan dira eta 54 (%12,24) baino ez dira izan goranzko diptongoak. Bestalde, goranzko diptongo gehienak mailegu berrietan baino ez direla agertzen esan behar dugu.

Kontsonanteen agerpenak aztertzeko korpua 11.128koa izan da, ondoko grafikan kontsonante bakoitzaren kopurua eta portzentaia ikus daitezke:

	Kopurua	Ehunekoa		Kopurua	Ehunekoa
<b>p</b>	465	4,18	<b>x</b>	84	0,75
<b>t</b>	1093	9,82	<b>j</b>	78	0,70
<b>k</b>	916	8,23	<b>tz</b>	262	2,35
<b>b</b>	680	6,11	<b>tx</b>	330	2,97
<b>d</b>	625	5,62	<b>dx</b>	445	4
<b>g</b>	528	4,74	<b>y</b>	87	0,78
<b>m</b>	474	4,26	<b>l</b>	739	6,64
<b>n</b>	827	7,43	<b>ll</b>	190	1,71
<b>ñ</b>	207	1,86	<b>r</b>	836	7,51
<b>f</b>	99	0,89	<b>rr</b>	1051	9,44
<b>s</b>	1112	9,99			




4. irudia: Kontsonanteen kopuruak


Kontsonante ahostunak 6.687 dira (%60,11) eta ahoskabeak 4439 (%39,89). Ondoko taulan artikulatzeko modu eta artikulagunearen araberako hedapenak ikus daitezke:

	ezpainkari	(hortz)albe.	sabaikari	belare	Orotara	Ehunekoa
<b>Herskariak</b>	1145	1718		1444	4307	38,70
<b>Sudurkariak</b>	474	827	207		1508	13,55
<b>Frikariak</b>	99	1112	84	78	1373	12,34
<b>Afrikatuak</b>		262	862		1124	10,10
<b>Albokariak</b>		739	190		929	8,35
<b>Dardakariak</b>		1887			1887	16,96
<b>Orotara</b>	1718	6545	1343	1522	11128	100
<b>Ehunekoa</b>	15,44	58,82	12,07	13,68	100	

Ondoko grafiketan artikulatzeko era eta ahoskune bakoitzari dagozkien hedadurak ikus daitezke:




5. irudia: Artikulatzeko erak



6. irudia: Ahoskuneak

“dx”ri dagokionez esan beharra dago, berau hasiera absolutuan afrikatua dela eta bokalen artean, berriz, frikaria; ondoko grafikan gauzapen biak ikus daitezke.



7. irudia: “dxadxo da” sintagmaren gauzapena.

“dd” “d”ren alofono bat dugu, berau “ind” eta “ild” testuinguruetan agertzen da, kopuru osoa lexikoan ez da oso handia: “ind” 15 eta “ild” 6

“y” frikari agertzen da “i” bokalaren alofono gisa, beronen ostean artikulua agertzen denean, denetara 66 aldiz topatu dugu.


Aztertu ditugun fonemen agerpenei dagokienez, ondoko eskala hau egin dezakegu, euretariko bakoitzaren portzentaien arabera; semibokalak eta semi-kontsonanteak gehitu ditugu:

	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>		<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
<b>a</b>	4140	17,76	<b>m</b>	474	2,03
<b>i</b>	2448	10,50	<b>p</b>	465	2,00
<b>e</b>	2383	10,22	<b>dx</b>	445	1,91
<b>o</b>	1470	6,31	<b>tx</b>	330	1,42
<b>u</b>	1296	5,56	<b>u0</b>	298	1,28
<b>s</b>	1112	4,77	<b>tz</b>	262	1,12
<b>t</b>	1093	4,69	<b>ñ</b>	207	0,89
<b>rr</b>	1051	4,51	<b>ll</b>	190	0,82
<b>k</b>	916	3,93	<b>f</b>	99	0,42
<b>r</b>	836	3,59	<b>i0</b>	89	0,38
<b>n</b>	827	3,55	<b>y</b>	87	0,37
<b>l</b>	739	3,17	<b>x</b>	84	0,36
<b>b</b>	680	2,92	<b>j</b>	78	0,33
<b>d</b>	625	2,68	<b>w</b>	35	0,15
<b>g</b>	528	2,27	<b>J</b>	19	0,08

Meñakan jaso ditugun datuok Zamudion bildutakoakaz erka ditzakegu (Gaminde, 2000a); era honetara, atalen baten desberdintasun handiak baleude zergatik gertatzen diren azter genezake barietate biotan jazotzen diren arau fonologikoen eraginaren arabera.

Bokalen agerpenak herri biotan ondoko taulakoak dira:

<b>i</b>		<b>e</b>		<b>a</b>		<b>o</b>		<b>u</b>	
<b>M</b>	<b>Z</b>	<b>M</b>	<b>Z</b>	<b>M</b>	<b>Z</b>	<b>M</b>	<b>Z</b>	<b>M</b>	<b>Z</b>
18,77	13,39	23,68	31,16	34,13	33,52	12,29	12,83	11,14	9,07



8. irudia: Bokalen agerpenak Meñakan eta Zamudion

Desberdintasunik handiena aurreko bokaletan dugu; desberdintasun honetarako arrazoi bat artikulua afijatzean Meñakan gertatzen den arau baten aplikazioa izan daiteke, hots, Meñakan “a”z eta “e”z amaituko berbak “ia” egiten dute, Zamudion, ostera, “ea”. Lexikoan amaierako “ia”dunak 961 dira, kopuru hau kontutan hartuta proportzioak eginten baditugu Meñakako “i” %13,87an eta “e” %28,58an lotuko lirateke; beraz, Zamudioko kopuruakaz nahikoa parekatuta.

Beheranzko diptongoen agerpen kopuruak ondoko taulakoak dira:

ai		ei		au		eu		oi		ou	
M	Z	M	Z	M	Z	M	Z	M	Z	M	Z
12,4	13,22	6,2	8,85	7,49	16,17	69,51	55,96	4,39	5,65	0	0,13

Goranzko diptongoen agerpenak ondoko beste honetan ikus daitezke:

ja		je		jo		wa		we		wi	
M	Z	M	Z	M	Z	M	Z	M	Z	M	Z
7,41	1,04	22,22	28,12	5,55	12,5	24,07	22,92	29,63	32,29	11,11	3,12

Herri biotako beheranzko eta goranzko diptongoen arteko proportzioak sano parekatuta agertzen zaizkigu:

Beheranzkoak		Goranzkoak	
M	Z	M	Z
87,17	89,01	12,24	10,99






9. irudia: Beheranzko eta Goranzko diptongoak

Kontsonanteen erkaketa egiteko abiapunto bi hartuko ditugu; batetik tasunen araberakoa eta bestetik, artikulatzeko modua kontutan hartuta, sailez sail ikusiko ditugu. Tasunen araberako erkaketak honako emaitzak erakusten dizkigu:


Ahostunak		Ahoskabeak	
M	Z	M	Z
60,11	50,17	39,89	41,83



10. irudia: Ahostunak eta ahoskabeak


Herskari		Sudurkari		Frikari		Afrikatu		Albokari		Dardakari	
M	Z	M	Z	M	Z	M	Z	M	Z	M	Z
38,7	42,4	13,55	17,39	12,34	12,72	10,1	5,7	8,35	6,88	16,96	14,9

IÑAKI GAMINDE



11. irudia: Artikulazio moduak

ezpainkariak		(hortz)albeolareak		sabaikariak		belareak	
M	Z	M	Z	M	Z	M	Z
15,44	14,27	58,82	66,51	12,07	5,68	13,68	13,54



12. irudia: Ahozkuneak

Artikulazio eren araberako sailkapenak egiten baditugu, honako taula hauek osa ditzakegu:

Herskariak

	p/b		t/d		k/g	
	M	Z	M	Z	M	Z
<b>Ahoskabeak</b>	4,18	3,3	9,82	13,02	8,23	8,58
<b>Ahostunak</b>	6,11	6,88	5,62	6,23	4,74	4,40

Horzkarietan agertzen diren desberdintasunak palatalizazio arauen eraginagatik gerta daitezkeela pentsa dezakegu. Meñakan ondoko arau biok topatzen ditugu:

(a) t → tx/ i\_\_

(b) d → dd/ in\_\_

(a) araua Meñakabarrenan ondoko beste era honetara topatzen dugu:

t → tt/ i\_\_

Lehen arauaren eraginez, 83 palatalizazio topatzen ditugu; kopuru honek “tx” guztien %20,1 a da

Sudurkariak

m		n		ñ	
M	Z	M	Z	M	Z
4,26	3,44	7,43	13,37	1,86	0,58

Atal honetako desberdintasunik handiena “n”ren agerpen kopuruetan topatzen dugu. Meñakan, Zamudion ez bezala, “n” “i”ren ondoan palatalizatu egiten da; “n”ren %16,04 palatalizatu egin da

Frikariak

f		s		x		j	
M	Z	M	Z	M	Z	M	Z
0,89	0,65	9,99	10,61	0,75	0,9	0,70	0,56

tz		tx		dx		y	
M	Z	M	Z	M	Z	M	Z
2,35	2,37	2,97	1,84	4	-	0,78	1,49

l		ll	
M	Z	M	Z
6,64	6,02	1,71	0,86

Meñakan “l”ren palatalizazio automatikorako araua ere topatzen dugu, arau honen eraginez, “l” %14,82 palatalizatu egin da.


r		rr	
M	Z	M	Z
7,51	7,66	9,44	7,24

### 3. SILABA EGITURAK

Atal honetan agertu zaizkigun silaba egitura desberdinak aztertu gura ditugu; horretarako jaso ditugun silabak eduki ditzaketen soinu elementuen arabera sailkatu ditugu, hots, bokalak (V), diptongoak (W) eta kontsonanteak (C). Agertzen diren konbinazioen arabera, silaba motak ondoko hauek dira bakoitzaren agerpen mailarekin batera, aztertu diren silabak 20.912 izan dira:

Mota	Kopurua	Ehunekoa	Mota	Kopurua	Ehunekoa
CV	7436	61,24	CWC	35	0,29
V	2449	20,17	WC	12	0,10
CVC	1134	9,34	CCVC	44	0,36
VC	422	3,48	CCW	15	0,12
CW	326	2,68	CCWC	2	0,02
CCV	214	1,76	CVCC	1	0,01
W	52	0,43	WCC	1	0,01


Taulan ikusten den moduan silaba mota arruntenak CV, V, CVC eta VC dira (%94,22 a). Ondoko grafikari silaba mota hauen arteko aldeak ikus daitezke:



13. irudia: Silaba mota nagusiak


Zamudioko emaitzakaz erkatuz gero proportzioak sano antzekoak dira

CV		V		CVC		VC	
M	Z	M	Z	M	Z	M	Z
61,24	55,68	20,17	20,01	9,34	12,47	3,48	6,06



14. irudia: Silaba mota nagusiak herri bietan

Silabaren egiturari dagokionez, ohikoa da egitura herarkikoa onartzea. Egitura honek hasiera eta errima dauzka, errima bera elementu bik osatzen dute gunea eta kodak:



Hasiera hutsa izan daiteke edo kontsonante bat edo bi gehienez ager daitezke; hasiera hutsak 2.936 (%24,18) dira, kontsonante batez hasten direnak 8.932 (%73,56) eta kontsonante bi dauzkatenak hasieran 275 (%2,26). Lexiko osoa kontutan hartuta, hasierako kontsonante taldeak honako hauek izan dira:

	<b>r</b>	<b>l</b>	<b>Orotara</b>
<b>b</b>	7	-	7
<b>d</b>	2	-	2
<b>g</b>	7	-	7
<b>p</b>	26	13	39
<b>t</b>	45	-	45
<b>k</b>	4	3	7
<b>f</b>	15	0	15
<b>Orotara</b>	106	16	122

Silabaren guneari dagokionez, bokal batek osatuko guneak 11.700 dira, dip-togodun guneak 443 eta birritan baino ez zaizkigu agertu triptongoak.

Hiru koda mota baino ez daukagu, koda hutsak 10.492 dira, kontsonante bakarreko kodak 1.649 eta kontsonante biko kodak 2. Koden azterketa egin ahal izateko bereizketa txiker bat egin beharrean gaude, izan ere, berba barruko kodetan lau kontsonante baino ez dira agertzen, “n”, “l”, “r” eta “s”. Berba amaierako kodetan hauez ostera, “tz” eta “tx” ere ager dakizkiguke; lexiko osoan “tz” 66 bider eta “tx” 5 bider baino ez zaizkigu agertu. Afrikatuen agerpena amaierako egongunean sano murrizten den aukera bat da; kontutan hartu behar da afrikatuak frikati-zatu egiten direla edozein kontsonanteren aurrean.

Berba barruko kodetan agertzen diren kontsonanteen agerpen kopuruak honako hauek dira:

<b>l</b>	<b>n</b>	<b>r</b>	<b>s</b>
198	508	486	416

#### 4. ONDORIOAK

Bi dira behar honetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak; bata, jakina izanagatik ere ez da garrantzi gutxiagokoa, hau da, arau fonologikoen soinuaren agerpenari eragiten diote eta hauek kontutan hartu beharko lirateke hizkuntzaren beraren sistema errotik aldatu gura ez badugu.

Bestetik, Zamudio eta Meñakaren artean dagozen kidetasunak nabarmentze-koak dira, batez ere, silaba egiturari dagokion esparruan. Momentu honetan, azterketa kuantitatiboak zabaltzen ditugun neurrian, euskararen oinarritzko silaba egitura zein den geroago argiago agertuko zaigu; hala ere, dakigunagaz, badirudi kontsonante talde batzuk ezin onartuzkoak direla, berorren ondorioz bersilabifikazioa egitean aplikatu beharreko arauak kontutan hartu beharko lirateke.

**AIPAMENAK**

**Gaminde, Iñaki** (2000a): “Zamudioko euskararen soinu egituraz” in Mendebalde Kultur Alkartea (2000): *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*. Bilbo

**Gaminde, Iñaki** (2000b): “Mendebaldeko doinu-azentudun sistemen intonazioaz” in Ormaetxea, Txipi (arg) (2000): *Txillardegi Lagun Giroan*. UEU. Bilbo





RAFAEL DE MIKOLETA  
EN QUERRELLA CRIMINAL CONTRA  
UNA MUJER

*Alberto Ruiz Capellán*

## LABURPENA

1652.ean Rafael Mikoleta lizentziadu, benefiziadu eta euskal idazleak Isabel Goiri, Juan Urizar eskribauaren emaztearen aurka aurkeztu eban kereila kriminala, tratu txarrak zirala-ta. Prozesuaren erdia desagertu egin da. Autoreak, lehenengo eta behin, Mikoletaren ganean Ozkabarteko Katedralaren Artxiboan gordeta dagozan agirien datuak agertzeko ahalegina egin dau eta, bestetik, geratu dan espedientearen zatia ikusita, erruduna nor izan zan argitzeko ahalegina egin dau, hau da, akusatua edo kereila-jartzailea izan zan argitu, Isabel Goiriren probantzarik ez dalako ageri eta osteko ebatzia be faltan dagoalako.

## RESUMEN

La desaparición de la mitad del proceso en la querrela criminal por malos tratos interpuesta en 1652 por el licenciado, beneficiado y euskeroólogo Rafael Mikoleta contra Isabel de Goiri, mujer del escribano Juan de Urizar, motiva al autor a indagar primeramente en los datos documentales existentes sobre Mikoleta en el Archivo Catedral de Santo Domingo de la Calzada, y en segundo lugar a analizar, desde el expediente conservado, si la culpabilidad recae en la acusada o en el querellante, por cuanto falta la probanza de la parte de Isabel de Goiri y la consiguiente sentencia definitiva.

## RÉSUMÉ

La disparition de la moitié de la procédure criminelle pour mauvais traitements issue de la plainte présentée en 1652 par le Licencié, bénéficiaire et euskérologue Rafael Mikoleta contre Isabel de Goiri, épouse du secrétaire Juan de Urizar, a poussé l'auteur à rechercher en premier lieu les données documentaires existantes sur Mikoleta dans les Archives de la Cathédrale de Santo Domingo de la Calzada et, en second lieu, à analyser, à partir du dossier conservé et dans la mesure où les preuves concernant Isabel de Goiri font défaut ainsi que la sentence définitive, si la culpabilité revient à l'accusée ou au plaignant.

## SUMMARY

The disappearance of half of the court proceedings in the criminal suit for physical abuse filed in 1652 by the bachelor of arts, beneficiary and Basque language expert Rafael Mikoleta against Isabel de Goiri, wife of the clerk Juan de Urizar, encouraged the author to investigate existing documentary evidence on Mikoleta in the Cathedral Archives in Santo Domingo de la Calzada, and then to use the surviving files in an attempt to discover who—accused or plaintiff—was actually guilty. A task made that much more difficult by the fact that neither the evidence given by Isabel de Goiri nor the definitive sentence has survived.

En 1653 Rafael de Mikoleta escribe lo que puede considerarse como el primer intento de una gramática vasca “*Modo breve de aprender la lengua vizcayna*”, en cuyo interior se halla “*Modo de la vizcaina poesía y sus versos*” con dos poemas a modo de ejemplo, y luego, “*Modo breve de saber declinar los nombres vascongados*”, “*Diccionario breve de los vocablos*” y “*Diálogos*”. En razón de su aporte al euskera el Ayuntamiento de Bilbao convoca desde hace doce años el concurso “*Rafael Mikoleta*” de relatos o cuentos para escolares.

## PISTAS DOCUMENTALES SOBRE RAFAEL DE MIKOLETA

Rafael de Mikoleta Zamudio, natural de Bilbao, hijo legítimo de Martín y María Otxoa, y nieto por línea paterna de Martín y Marina de Bolibar, fue bautizado en la iglesia de San Antón el 19 de Noviembre de 1611, donde primiciaron y diezmaron los susodichos sus abuelos, y fallece en 1671<sup>1</sup>. Debido a la escasez de datos biográficos que se tienen sobre nuestro personaje, señalamos antes de abordar el corpus de la querrela unos apuntes extraídos de la lectura directa de la documentación existente en el Archivo Capitular de la Catedral de Santo Domingo de la Calzada<sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> La mayor parte de las ocasiones en que aparece su nombre se encuentra como “*Nicoleta*”, excepto en su rúbrica que siempre es “*Micoleta*”. J.E. Delmás dice que su 2º apellido es Bolivar, pero éste corresponde a la abuela paterna ya que la madre es “*Camudio*” como consta en la partida de bautismo: “*En diez y nueve de noviembre de mill y seiscientos y onze en San Antón/ el bachiller Martín de Arrieta baptizó a un niño que se le puso/por nombre Rafael, hijo legítimo de Martín de Micoleta y de Mari Ochoa/ de Camudio. Fueron padrinos Jacobo de Ugaz y doña Mari Fernández de Angulo. D. Martín de Luxarra*”. Libro de Bautizos 1600-1628 de San Antón del Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. En tal fecha sólo se registraban estos datos, no se incluían fecha de nacimiento, abuelos y su naturaleza, como tampoco las órdenes sagradas recibidas. Agradezco la amabilidad de la Directora del AHEB, Anabella Barroso.

<sup>2</sup> Tras muchas búsquedas me consta que Mikoleta no aparece en la documentación beneficiar del Archivo de Calahorra. Los datos de este artículo se basan en los fondos originales del ARCHIVO CAPITULAR SANTO DOMINGO DE LA CALZADA, Sección Pueblos, Legajos 78/02, 80/07-08, 80/12-14, 81/01-02 y 81/14. En adelante ACSDC. Descripción detallada en RUIZ CAPELLÁN, Alberto *Aportación documental a la historia de Bilbao, siglo XVII. Fondos del Archivo Capitular y Catedral de Santo Domingo de la Calzada*, vol. IV, VI y VII. En adelante ARC. Entre papeles sueltos y olvidados del citado archivo hallé en 1992 “Versos al Nacimiento del Señor. Guernica y Diciembre de 1801” en euskera, publicados por Labayru “*Litterae Vasconicae*” nº 6, 1993.

*El licenciado Mikoleta aparece por vez primera en 1643/02/08*, ya como licenciado y clérigo, presbítero con seguridad, figurando por testigo en la posesión del beneficio medio a favor de Juan Bautista de Taborga, estando presentes los capitulares Pedro de Villarreal Arizeta, Domingo de Lekue, Maestro Pedro de Ugaz Arilza, Miguel de Irabien, Maestro Juan Otxoa de Arriola, Domingo de Zornoza y el Prior Diego de Usunsolo le dio posesión “*tomándole de la mano y metiendo en la dicha sacristía y altar mayor; y reço en un missal y tocó una canpanilla y le dieron una obla-da, y con unas llaves çerró y abrió las puertas*”, ante el notario apostólico Bartolomé de Arbolantxa<sup>3</sup>.

Cuando en 1647/08/08 se anuncia por edicto o carta de justicia de Luis Benito de Oliver, Provisor y Vicario General de Calahorra-La Calzada, la vacante de un cuarto de beneficio por ascensión a medio que hizo Domingo del Puerto, para que opositen los hijos naturales y patrimoniales de las iglesias parroquiales unidas de Bilbao, vuelve a encontrarse a Rafael de Mikoleta como testigo de que tal edicto, una vez publicado durante el ofertorio de la misa conventual, fue fijado en las puertas de la iglesia de Santiago para público conocimiento ante el notario Martín de Beidea Markina<sup>4</sup>.

### Mikoleta opositor a beneficiado

En 1648/07/03 Mikoleta<sup>5</sup> *oposita a un cuarto de beneficio*, vaco por ascensión a medio que hizo Ignacio de Orueta como cuarto más antiguo, pues Juan Bautista de Taborga asciende a entero a causa del fallecimiento de Juan de la Prada. Oposita junto con José de Mendieta Lekue, Antonio de Goiri, Pedro Martínez de Bustinza quienes han hecho sus diligencias probando su naturaleza y legitimando sus personas, y son llamados a realizar los exámenes sinodales en que son aprobados “*ad curam animarum*”<sup>6</sup>, mientras que los opositores Antonio Fernández del

<sup>3</sup> Se trata del traslado de posesión de medio beneficio que hizo Taborga en 1643, inserto en este expediente en que dicho Taborga asciende a beneficio entero. ACSDC. Leg. 80/08 ó ARC. o.c. vol. VI, pg.68.

<sup>4</sup> Se trata de la provisión de un cuarto beneficio al que opositan Pedro de Lezama y Zarate, Antonio de Goiri, Pedro Martínez de Bustinza y Felipe de Valle, todos menos éste ultimo prueban su naturaleza y son aprobados, y en la presentación hecha por el Cabildo Goiri y Lezama reciben seis votos cada uno, con lo que el desempate le cabe por vía de gracia al Obispo Juan Piñero Osorio, pero dicha gratificación la ejercerá el Provisor Pedro de Gabiria en Pedro de Lezama, pues como consta en este expediente la sede ha quedado vacante por fallecimiento del citado Prelado. ACSDC. Leg. 80/07 ó ARC. o.c., vol. VI, pgs. 61-66.

<sup>5</sup> Rafael de Mikoleta otorga su poder al procurador Francisco de Benito dado en Santo Domingo de la Calzada, lo que manifiesta su presencia en la ciudad riojana. Presenta como testigos en su información a Martín de Etxabe, Pedro de Artetxe, Agustín de Amezola, Diego de Larrinaga, Onofre Bernabé de Meaza y Juan de Barrera, todos manifiestan el conocimiento de sus padres y abuelos paternos, aunque en las preguntas y respuestas del interrogatorio existen confusiones de hacer pasar por abuelos a los que son padres y al revés, es lo que posiblemente motivó que Delmás dijera que el segundo apellido de Mikoleta es “Bolívar” ACSDC. Leg. 80/12. ARC. o.c., vol. VI, pgs.78-86.

<sup>6</sup> Se inserta aquí el juramento “*de moribus*” hecho por los opositores aprobados con su rúbrica y la relación del tribunal de examinadores compuesto por el propio obispo, Juan Joaniz de Etxalar, Juan de Salcedo Ordóñez, José de Torres, Francisco Merino Villasquel y Fray Juan de Tosantos.



Campo, Pedro de Alday y Lucas de Jauregi no lo consiguen. Así consta en el auto del Provisor y vicario General, Arcediano de Iriarte y dignidad de la iglesia de Pamplona, Luis Joaniz de Etxalar, dado en Santo Domingo de la Calzada ante Juan Sánchez de Cos, 1648/10/12, siendo obispo Juan Joaniz de Etxalar. Rafael de Mikoleta a través de su procurador apela del auto por cuanto los examinadores sinodales han dado por hábiles a los otros tres opositores “*igualándose con la mía, no siendo suficientes para ello*”.

El Cabildo<sup>7</sup> de Bilbao es notificado y convocado por el prior, Miguel de Ugarte, ante el escribano Martín de Eizaga, para presentar según es constumbre por votación secreta a uno de los cuatro aprobados. El secretario reparte las papeletas y votos con los nombres de los pretendientes y a Antonio de Ugaz Arilza se le dio otro voto como poder habiente del licenciado Martín de Uribe Arrieta, y en forma secreta introdujeron su voto en el cántaro para este efecto “*y habiendo primero conferido y acordado a una petición presentada por el licenciado Aroldo para que no se usase del dicho poder por las rrazones que en ella rrefiere, para que, donde bien visto les pareçiere a las partes, conste del uso del dicho poder, metió el dicho Antonio de Ugaz la cédula que se le dio en nombre del dicho poder hauiente en caxa aparte*”. Proceden al escrutinio el Prior y los dos beneficiados primeros, como más antiguos, con un resultado de nueve votos a favor de José de Mendieta Lekue en la caja donde votaron todos y un voto más en la caja que se votó por poder, mientras otros dos votos fueron a favor de Antonio de Goiri, “*lo que por mayoridad de botos le hubieron por beneficiado al dicho Joseph de Mendieta*”, confirmando la presentación el Provisor Luis Joaniz de Etxalar que hizo colación y canónica institución con la imposición de un bonete estando presente el propio Mendieta, dado en Santo Domingo 1648/10/15 ante Juan Sánchez de Cos.<sup>8</sup>

Si en la oposición anterior Rafael de Mikoleta no llegó a conseguir el cuarto beneficio, lo intenta de nuevo por las mismas fechas, como lo hacen el resto de los opositores señalados antes, al quedar vacante otro cuarto por ascensión a medio de Sebastián de Lezama Villarreal porque el poseedor del tal medio, Esteban de Aroldo, asciende a entero a causa de la muerte de Domingo de Bernagoitia. En este caso no precisan los aprobados de nuevo examen y se procede por mandato a la presentación por parte del cabildo, que realiza la votación con el resultado de seis votos para Antonio de Goiri y otros seis para Pedro Martínez de Bustinza, “*y del licenciado Goiri los çinco legítimos y el sexto del poder abiente que se alló en*

<sup>7</sup> El Cabildo está compuesto por el Prior, Miguel de Ugarte, y los beneficiados Pedro de Villarreal Arizeta, decano, Pedro de Legaso, Antonio de Ugaz Arilza, Martín de Iturriaga, Domingo de Lekue, Domingo de Zornoza, Baltasar de Landaeta, Miguel de Irabien, Juan Bautista de Etxabarrí y Esteban de Aroldo.

<sup>8</sup> Esta provisión de beneficio a favor de Mendieta fue apelada por Antonio de Goiri ante Roma, y para que no siguiera en su propósito le prometió Mendieta dádivas y ganar la próxima oposición utilizando maquinaciones con los examinadores. Todo ello se recoge en un largo pleito de simonía de este archivo. ACSDC. Leg. 81/01-02. ARC., o.c., vol.VII, pgs. 1-214.



*caxa diferente, habiéndole metido Martín de Iturriaga, en nombre de Martín Uribe Arrieta, con que se dio por empatado el dicho beneficio y remitieron su presentación al señor obispo*” a cuyo resultado Esteban de Aroldo contradujo por el voto de poder, lo cual el obispo, a quien compete la gracia de desempatar, tuvo en cuenta y presentó a Pedro de Bustinza por los seis votos sin poder habiente, mandando se le dé colación y canónica institución que recibió en la forma acostumbrada en Santo Domingo de la Calzada 1649/10/15. Con lo que de nuevo Mikoleta tampoco logra entrar en la tabla de beneficiados, y aunque más tarde ya consta como tal, sin embargo no hay expediente que avale cuándo lo hizo<sup>9</sup>.

### **Mikoleta, testigo en el pleito de simonía y otro**

Antes de acometer el incidente de la querrela criminal, señalo las apariciones de Mikoleta en el resto de la documentación de este archivo.

Hay un pleito de simonía en los legajos 81/01 y 81/02 durante 1653 y 1654, ya citado en nota, en el que al parecer José de Mendieta y el vicario del Cabildo, Domingo de Zornoza Billela<sup>10</sup>, entregan dineros a los examinadores sinodales para que suspendieran al opositor Ignacio de Arbolantxa, quien contaba con la mayoría de votos del cabildo de Bilbao, y de este modo poder presentar al opositor Antonio de Goiri sin dificultades, remediando así que no siguiese con la apelación interpuesta ante Roma cuando opusió en 1648 con José de Mendieta, quien le prometió dineros y dádivas.

Rafael de Mikoleta aparece en este pleito como testigo de la publicación de excomunión en las puertas de la iglesia de San Antón, 1653/08/10 fulminada contra el mercader y administrador general del ganado de pata hendida que pasa de Castilla a las provincias exentas, Juan Ventura de Angulo, como cómplice de la simonía. De nuevo en 1654/02/17 Mikoleta aparece en la información de testigos donde consta como presbítero y **beneficiado** en la respuesta a las preguntas gene-

---

<sup>9</sup> ACSDC. Leg. 80/13 ó ARC. o.c., vol. VI, pgs. 87-92. Sin embargo en ACSDC. Legajo 81/02 ó ARC. o.c., vol. VII, pg. 175, se recoge un traslado pedido en el pleito de simonía en que acuden a opositar a cuarto beneficio por ascenso de Lucas de Oinkina y han de presentarse a examen José García del Campo, Ignacio de Arbolantxa, Lope de la Puente Urtusaustegi, Domingo de Legina, Andrés de Urazandi, **Rafael de Mikoleta**, Antonio de Goiri y Pedro de Etxabe Amurrio, declarando y dándoles por hábiles y suficientes “ad curam animarum” en 1650/02/07. Posiblemente esta oposición la ganara nuestro Licenciado Rafael de Mikoleta.

<sup>10</sup> Tal vicario se excusa de ir a declarar a Logroño por acusación de simonía, exhibiendo certificación médica, porque ya tiene 60 años, está enfermo con vahídos de cabeza, dolor continuo “de hixada y mal de horina”, estando a riesgo su vida si fuera compelido personalmente, siendo como es “*persona muy pesada y gruesa y ser tiempo de tantos calores*”, 1654/08/25. Ya en mayo de este año había presentado otra certificación del médico Gabriel de Elizondo para eludir comparecer, donde se afirma que el vicario padecía de piedra al riñón, almorranas y una destilación de pecho que le impide respirar. ACSDC. Leg. 81/02 ó ARC. o.c., vol. VII, pgs. 157 y 174. Al final tendrá que acudir e ingresar en prisión, y lo contradictorio con la certificación médica es que varios testigos manifiestan haberle visto por las fiestas de San Mateo en los encierros de toros de Logroño.



rales de la ley, lo cual quiere decir que, a falta del propio expediente que lo testifique, ya forma parte del Cabildo, y debió ser incluido entre 1650 y 1654<sup>11</sup> y lo hace jurando como testigo en la probanza presentada por Antonio de Goiri confesando que éste no está implicado en la simonía, y que Ignacio de Arbolantxa no es idóneo por cuanto es un estudiante muy corto, y esto lo sabe “*por haberle pasado este testigo casos de conciencia y gramática algunos meses acudiendo a su casa junto con Andrés de Ugaz y otros, en cuyo tiempo conoció la cortedad de su natural, así en la gramática como en lo demás*”. Además, al tiempo de la provisión del beneficio que se pleitea por presunta simonía en que se suspendió a Arbolantxa, el propio Mikoleta, para más enterarse de la verdad de lo ocurrido, escribió al rector de la Compañía de Jesús en Logroño, Padre Luis Díaz de Morentin, por ser uno de los examinadores sinodales, quien le respondió, según palabras del propio Mikoleta, cómo no había sido posible aprobarle porque era incapaz y no había respondido ni palabra en lo que se le preguntó<sup>12</sup>. Las mismas respuestas ofrece cuando es presentado como testigo de la parte del mercader Juan Ventura de Angulo, donde repite la propia opinión que tenía de Arbolantxa y aduce de nuevo la carta que le escribió el examinador jesuita P. Morentin, esgrimiendo que ha visto otra carta parecida de dicho rector en manos de Ignacio de Orueta.

En 1655 existe un pleito incoado ante el vicario de Bilbao, entre el Cabildo y el Convento de San Francisco de Bilbao a causa del enterramiento del francés, Tomás de Garreo, en la iglesia de los Santos Juanes. El Provisor y Vicario General, Diego Ruiz de San Vicente, manda inhibirse de la causa al vicario de Bilbao, por ser parte interesada, y advocándosela da comisión para recibir los testimonios a Antonio de Gana y Mujica, vicario de Uribe, quien, una vez recibida la información, remite el proceso a la audiencia episcopal y ésta dicta sentencia declarando pertenecer al Convento de San Francisco la sepultura y entierro con los sufragios, y que, en pasando tiempo suficiente para evitar el mal hedor, se proceda a la exhumación del cadáver de Tomás de Garreo.<sup>13</sup>

En este proceso se exhibe una carta de poder otorgada en 1655/02/27 por el cabildo a los procuradores Sebastián de Gamiz Olabarrieta, Juan Bautista de Zuazo y Diego Moreo de Pedroso “in solidum” y con cláusula de sustitución, ante el escribano Juan Martínez de Jarabeitia, siendo los otorgantes todos los beneficiados enteros, medios y cuartos, a saber: Ignacio de Orueta, Prior, Pedro de Lega-

<sup>11</sup> Según se ha indicado ya en nota, Rafael de Mikoleta opusculó en 1650 según el testimonio que Jacinto Hurtado Tabión de Rekalde da a favor de Arbolantxa, en que todos los opositores salen aprobados y que con seguridad lo ganaría Mikoleta. ACSDC. Leg. 81/01 ó ARC. o.c. vol. VII, pg. 21, ó ACSDC. legajo 81/02 ó vol. VII, pg. 176.

<sup>12</sup> Mikoleta, sin dar detalles de fechas en la respuesta a la octava pregunta del interrogatorio, alude a la oposición en que se presentó con Arbolantxa y otros, se refiere a la de 1650, y testifica que le contaron cómo a Arbolantxa los examinadores le preguntaron si tenía en Bilbao juego de votos por parte del Cabildo, y como éste le respondió que no, optaron los examinadores por aprobarle “ad honorem”.

<sup>13</sup> ACSDC. Leg. 81/04 ó ARC. vol. VII, pgs. 218-239.

so, Miguel de Ugarte, Juan Bautista de Taborga Etxabarri, Baltasar de Landaeta, Esteban de Aroldo, Domingo del Puerto, Sebastián de Lezama, Domingo del Barco, Tomás de Ibaizabal, Pedro de Iturriaga Urrutia, José del Campo, **Rafael de Mikoleta**, Pedro de Etxabe Amurrio y Domingo de Legina. Por el puesto que ocupa en la lista a Mikoleta le corresponde ser el beneficiado cuarto más antiguo. Ya no existen en este archivo calceatense más documentos posteriores que nos hablen de nuestro afamado Licenciado<sup>14</sup>.

Cuando Mikoleta otorga nueva carta de poder a los procuradores de la audiencia del Corregimiento del Señorío de Bizkaia en la querrela criminal que abordamos luego, aparece como uno de los testigos un tal Bartolomé de Mikoleta, pensamos que dada la escasez de este apellido sean deudos. Es pena que no se recoja información de parentesco en un pleito de 1647 que litiga dicho Bartolomé, casado con Juliana de Urko, contra el alcalde ordinario de Bilbao, Mateo de Taborga, sobre una sepultura que tienen los Mikoletas en Nuestra Señora de Begoña, en que se recusa a Juan de Urizar como interesado procurador de Mikoleta a causa de la parentela entre ellos<sup>15</sup>. Téngase en cuenta, como se verá a continuación, que Juan de Urizar es el esposo de Isabel de Goiri, mujer contra quien Mikoleta puso la querrela criminal.

## QUERRELA CRIMINAL

Fascinante y desconocida es la causa criminal interpuesta por Rafael de Mikoleta contra Isabel de Goiri, mujer del escribano y procurador Juan de Urizar, por cuanto aquélla insultó y golpeó al susodicho clérigo en la calle de La Tendería de Bilbao en 1652/02/06<sup>16</sup>. El expediente donde se recoge la querrela se halla en el archivo capitular calceatense como causa cursada ante el tribunal eclesiástico. Su conservación material es buena pero claramente se encuentra incompleto (tan sólo se conservan 34 folios), habiendo desaparecido su segunda mitad, de modo

---

<sup>14</sup> DELMAS, Juan Eustaquio (no Ernesto), *Biografía universal de claros varones de Vizcaya*, La Gran Enciclopedia Vasca, vol. IV, Bilbao 1976, págs. 137-138, afirma que **Mikoleta llegó a ser fiscal mayor y menor y prior del cabildo**, para lo cual se precisa el título de beneficiado entero, extremo que no consta en los archivos de La Calzada y de Calahorra. Este documentadísimo y prolijo investigador advierte que “*estos datos he sacado de entre la documentación que existe en el Archivo de la Catedral de Santo Domingo de la Calzada, rico arsenal imprescindible para la historia eclesiástica del Señorío de Vizcaya*”, lo cual indica que tuvo la suerte de conocer expedientes que hoy no existen y gozó de una excelente catalogación realizada en 1756 por el “traductor de letras antiguas y compositor de archivos”, Gregorio Leal, que perduraba a finales del XIX a pesar de los desafueros producidos durante la invasión francesa.

<sup>15</sup> El parentesco posible del licenciado con el citado Bartolomé como propietario de la sepultura de la saga Mikoletas podrían ofrecernos más pistas sobre sus ascendientes en el libro o registro de finados en Begoña, y más interesante sería saber exactamente el grado de parentela con el procurador Juan de Urizar como marido de Isabel de Goiri contra quien precisamente Mikoleta pone la presente querrela criminal. ARCHIVO CATEDRAL CALAHORRA, Civil I, leg. 148/12. En adelante ACCA.

<sup>16</sup> ACSDC. Leg. 80/14. La causa se halla descrita con detalle en ARC. o.c., vol. VI, pgs. 93-104. Delmas, J.E., o.c., cita de pasada este pleito lo que indica que lo leyó.

que queda constancia de lo actuado por parte de Mikoleta en este tribunal y los traslados insertados de lo seguido ante el Corregidor, mientras que de la parte de Isabel de Goiri tan sólo hay una carta de poder, testimonio de las diligencias y de cómo se halla presa, y tres peticiones de su procurador. Por supuesto, también falta la sentencia.

### Ante el Tribunal del Corregidor

Los datos utilizados del Tribunal del Corregidor no pertenecen al proceso original sino a los traslados que de él manda insertar aquí el juez eclesiástico, Domingo de Zornoza Billela, a la sazón vicario de Bilbao, comisionado como tal por el Provisor y Vicario General de Calahorra y La Calzada. Dicho juez y vicario recibe la información de testigos de la parte de Mikoleta, los cuales se ratifican en lo manifestado ante el Corregidor, de *“cuyas deposiciones y dichos manda se le entregue un tanto signado y en pública forma”*. Por esto sabemos que el pleito se inicia el mismo día de autos, 2 de Febrero, ante el Corregimiento y luego, día 11, se incoa en el tribunal eclesiástico. Contra lo que parece lógico, existe más documentación trasladada de lo actuado en el tribunal del Corregidor que en el de la propia competencia eclesiástica, pues la de ésta, como queda dicho, se halla incompleta, habiendo desaparecido autos, sentencia final y lo referente a la parte demandada como su declaración o confesión o información de testigos, lo que nos brindaría valiosos datos para saber los motivos que inducen a Isabel de Goiri a insultar y pegar a un ordenado *“in sacris”*.

Todos los testigos que aparecen en uno u otro proceso son de la parte de Mikoleta y declaran lógicamente a su favor. Pero habrá que leer entre líneas e indagar los móviles del conflicto. Está claro que Isabel de Goiri insultó y pegó repetidamente al licenciado Mikoleta en la calle Tendería de Bilbao, según todos los testimonios. El delito se agrava en razón de la condición sacerdotal del querellante incurriendo la acusada en excomunión. En la declaración del propio Mikoleta ante el Corregidor se deja entrever que la pendencia y malentendimiento entre ambos no es ocasional sino que viene de atrás, como se comprueba cuando afirma que *“de muchos días a esta parte me ha probocado a ruido y pendencia todas las beçes que pasava por la calle de La Tendería de esta billa, con raçones descompuestas y aççiones que açía”*.

¿Qué es lo que enfurecía a Isabel de Goiri para arremeter contra el cura las veces que pasaba frente a su casa? ¿Es una reacción en despecho por sentirse rechazada a proposiciones que ella hiciera, al estilo del prototipo bíblico de la mujer de Putifar? Resulta raro por cuanto su condición de esposa de escribano la coloca en situación social de no manifestarse tan clara y públicamente en esa línea. Si así fuera los testigos lo declararían pues todos son de la parte contraria.

¿Cabría pensar en una mala jugada pasada o que las insinuaciones las provocara el propio Mikoleta y las rechazara Isabel? En los dichos de los testigos tampoco consta, y aunque así fuera no lo dirían por serlo de la parte, y cualquiera se atrevía a insinuarlo y meterse con el clero. La sospecha de algo obscuro está latente al estudiar esta causa por cuanto algo escondido se percibe en ciertos detalles manifestados por los testigos de la parte de Mikoleta, y sobre todo se barrunta la duda y sospecha al comprobar en el expediente la desaparición fortuita o voluntaria de la casi totalidad de documentos y pruebas pertenecientes a la parte de Isabel de Goiri, como se verá en el desarrollo de esta exposición.

Lo cierto es que, al contar sólo con la probanza de la parte del clérigo Mikoleta, todos los testimonios<sup>17</sup> coinciden en los insultos que Isabel le profirió y en los golpes que propinó con la mano y una rueca repetidamente. Sin embargo, algunos afirman contradictoriamente que ambos se enzarzaron a golpes y que Mikoleta, dicen, le dio empujones, “*para apartarla*”; y que éste luego “*se marchó calle abajo*”, y entonces Juan Martínez de Isasi dio voces al licenciado para que se apartase pues Isabel volvía a la carga con la rueca y llegó a golpearle en la cabeza “*de manera que le abolló el sombrero, con lo qual se pusieron a asir el uno al otro*”. Es manifiesto que los dos se pegan, pero ese marchar *calle abajo* de Mikoleta ¿Significa que éste deseaba desembarazarse de Isabel huyendo de los improperios como si fueran verdades, o bien que se encaminaba *bajando* a la iglesia de San Antón o al Corregimiento para denunciarla? Pudiéndose haber terminado las disputas y peleas al marcharse Mikoleta, ella, sin embargo, persiste y corre hasta alcanzarlo de nuevo en medio de una gran concurrencia y curiosidad de vecinos, algunos de los cuales ayudaron a separar a los contendientes. La insistencia de Isabel se entiende desde la indefensión que posiblemente siente como mujer ante la prepotencia y altanería de alguien que goza de gran inmunidad a causa de la estima social y los privilegios del estado clerical.

Los insultos o palabras de injuria que todos oyeron y declaran, constitutivas de agravante, “*traidor, amançebado, hijo de clérigo, irregular, bellaco, desbergonçado, infame*”, ¿Proceden sólo de la rabia e ira o denuncian un hecho no confesado claramente? ¿Qué quiere decir la testigo María Martínez de Zearruza Beitia cuando afirma que oyó decir a Isabel al principio del conflicto “*sean testigos a qué me ha benido a mi puerta el traidor irregular*”? Isabel de Goiri tiene razón al menos al llamarle “*hijo de clérigo*” y por tanto “*irregular*”, pues ser hijo de clérigo supone una irregularidad canó-

---

<sup>17</sup> Los testigos ante el Corregidor son: Pedro de Angulo de 33 años, Antonio de Orueta de 26 años, Lorenza de Rosillos de 40, María Sáenz de Atxa de 20, María Martínez de Zearruza Beitia de 60 y viuda de Juan de Asteiza. Todos son vecinos y comerciantes en La Tendería. Mariana de Gamboa de 24 años, María García de Gorozibai de 44 y mujer de Domingo de Acurio, Marina de Asteiza, doncella de 18 años e hija de Juan y M<sup>a</sup> Minez. de Zearruza Beitia, todas ellas se hallaban en la tienda de esta última, ubicada frente a la casa de Isabel de Goiri, y presenciaron lo acontecido. Finalmente Juan Martínez de Isasi de 55 años y Agueda de Artetxe, criada de María Otxoa de Bolívar, prima de Rafael de Mikoleta.

nica para ser ordenado. Y lo cierto es que este extremo está confirmado, pues Martín, el padre de Rafael de Mikoleta fue beneficiado y para ello se requería el estado clerical. El propio abuelo de nuestro licenciado, también llamado Martín, así lo confirma en 1633/08/03<sup>18</sup> al hacer de testigo, ante el receptor Juan de Valencia, en el pleito que trataba el cabildo con la Tercera Orden de San Francisco sobre el modo de hacer los entierros, cuando en la repregunta segunda dice que su hijo Martín, o sea el padre de Rafael, es *“beneficiado, licenciado y difunto”*<sup>19</sup> de quien oyó que Margarita de Trauco fue enterrada con el rostro descubierto en contra de la costumbre guardada por el cabildo y por las razones que el texto de la nota a pie recoge. Queda por contrastar si cuando en 1611 tuvo Martín por hijo a Rafael aquel era beneficiado, y luego abandonó el estado clerical abrazando el matrimonio.

La testigo citada, María Martínez de Cearruza, no sólo confirma que ambos se pegan en dos ocasiones sino que algunas personas intervienen para separarlos, así ante la casa de Isabel *“salió esta testigo y las demás y se metieron de por medio y los apartaron”*, y cuando ésta corre por la calle en busca del clérigo y vuelven a empujarse pero *“con la gente que llegó los apartaron y recoxieron a la dicha Ysavella a su casa, la qual públicamente de nuevo le llamó que hera un traidor, yrregular, nieto de dos clérigos”*<sup>20</sup>.

Varios testigos relatan la preciosa escena de un niño, apenas cinco años, hijo del escribano Juan Martínez de Jarabeitia<sup>21</sup>, que jugando en la calle y al momento que pasaba el licenciado Mikoleta gritó en *“bascuence”*<sup>22</sup>, posiblemente insti-

<sup>18</sup> ACSDC. Leg. 78/02, pg. 452. ARC. o.c. vol. IV, pgs. 69-70. Aquí Martín de Mikoleta, abuelo, afirma tener 70 años, mientras que Rafael tendría veintidós. La partida de matrimonio de Martín y María Otxoa de Zamudio y su defunción serían referencias cronológicas ilustrativas, pero no las he hallado en AHEV. Habrá que conformarse con la legitimidad afirmada en el bautismo de Rafael y concluir que Martín, padre, fue clérigo y tuvo que abandonar en algún momento el estado eclesiástico para contraer matrimonio. El asunto debió ser muy sonado por cuanto no sólo el citado abuelo señala en 1633 la condición clerical del ya fallecido progenitor de Rafael de Mikoleta sino que la propia Isabel de Goiri se lo recuerda en 1652 llamándole “hijo de clérigo”, después de cuarenta años del nacimiento de Rafael.

<sup>19</sup> *“Oyó decir al licenciado Martín de Micoleta, hixo de este testigo, ya difunto, veneficiado que fue de las dichas parrochiales, y al licenciado Prada, ansimesmo veneficiado, que por parte del marido de la dicha doña Margarita de Trauco (Sebastián de Oleaga) se abía pedido licencia al cabildo de las dichas parrochiales para que llevase el rostro descubierto la susodicha, y que el cabildo lo concedió por ser su marido fiscal de la Contaduría Mayor de quantas de su magestad”*. Ibidem.

<sup>20</sup> Que el padre de Rafael fuese clérigo es irrefutable por cuanto lo confirma su propio abuelo, pero ¿a qué ascendientes se hacen referencia al afirmar ahora que es *nieto de dos clérigos*?

<sup>21</sup> Juan Martínez de Jarabeitia es el escribano ante quien, sus vecinos de Calle Tendería, Juan de Urizar y su esposa Isabel de Goiri otorgan poder al procurador Diego Moreo de Pedroso para proceder en el tribunal del obispado.

<sup>22</sup> Aunque se afirma que la escena se desarrolló en “bascuence”, sin embargo, el traslado se recoge en romance. Hasta el momento no tengo determinado si la justicia del Corregimiento admitía intérpretes cuando el testigo no sabía romance, mientras sí está comprobado en varios expedientes eclesiásticos de este archivo riojano de la Calzada que en los pleitos que seguía este tribunal el juez instructor o notario receptor manda poner intérprete siempre que el procurador lo solicitara. Así ocurre en el pleito de promesa de matrimonio entre Catalina de Olarte Orozco, hija natural del Capitán Orozco, con Juan de Espinosa, en que el notario receptor, Francisco Cano Gil, en 1653/02/11 hace nombramiento de intérprete *“por quanto para hazer la pronauca de pedimento de Catalina de Olarte y Orozco, la susodicha quiere presenttar algunos testigos que no son romansistas, y por quanto la lengua vizcaína no la entiendo, yo el dicho rector para los poder examinar, desde luego nombraua y nombré por tal yntérprete para examinar los testigos bascongados al licenciado don Joseph del Campo, clérigo beneficiado de las iglesias de esta villa”*. ACSDC. Leg. 80/17 ó ARC. o.c., vol. VI, págs. 153-155.

gado por las mujeres que estaban a la puerta de las tiendas, “*Mariana (de Asteiza) deme un poco de amuco (euskera, estopa) para Isauel que se le va la pipa y para ponerse el tapón*”, y en esto, divertidas las mujeres de la ocurrencia del niño, Mikoleta, que llegaba por la calle abajo, le preguntó “*quién le auía dicho lo que así decía de amuco*”, y el niño respondió que Isabel (de Goiri), con lo que el licenciado se dirige a la señora con expresiones que señalan una muy mala relación “*que qué quería siempre a los clérigos y que qué le quería a él y que qué le auía echo para perseguirle tanto*”. Y en esto se levantó la dicha Isabel de Goiri “*contra él con mucha cólera, diciendo: bien que amuco, traidor, amançeuado, yrregular; queriéndole asir de la cara con las manos, y él cubriendo el rostro con el manto y un brazo, con la otra la empujó para que no llegasse a él*”, e Isabel arremetió a golpes con el clérigo<sup>23</sup>.

Aunque no tengamos antecedentes escritos de las relaciones de los dos contendientes sin embargo en la escena relatada puede observarse que las mujeres seguramente habían visto venir de lejos a Mikoleta y, sabedoras de que algo pasaba entre Isabel y el licenciado, incitaron al niño a gritar una frase, que se nos antoja de chanza y doble sentido, para que la oyeran uno y otra, pues justamente es la que provoca la primera pelea y la retahila de insultos. Parece que la palabra euskérica de *amuco* se emplea ajustándose a su correlativo castellano de “estopa” ya que se precisa para asegurar el cierre de una “pipa” o poner un “tapón”. Resulta impensable deducir que la trifulca se genera del significado material de la frase, más bien tiene un alcance cuyo doble sentido se nos escapa, pues enfurece tanto al cura cuando pregunta al niño sobre quién le ha dicho eso de “*amuco*” como a Isabel que se dirige al cura recriminándole “*bien que amuco, traidor, amançeuado...*”.

Hecha la información de testigos, Rafael de Mikoleta solicita a través de su procurador, Tomás de Orrantia<sup>24</sup>, que Isabel de Goiri sea presa en la cárcel pública y la embarguen los bienes. Correspondientemente el Corregidor del Señorío de Bizkaia y Caballero de la Orden de Santiago, Juan de Torres Armendariz, mandó por auto en 1652/02/08, ante Domingo de Retes, que la dicha Isabel fuera puesta en la cárcel de la audiencia hasta que otra cosa se provea, despachándose mandamientos de prisión “*y así bien se le registren y embarguen todos sus vienes y se pongan en depósito en tercera persona*”.

<sup>23</sup> Xabier ALTZIBAR en su obra *Bizkaierazko Idazle Klasikoak*, Bilbao, 1992, págs. 53-54 trata de Rafael de Mikoleta en su vertiente de escritor y menciona el incidente de éste con Isabel de Goiri en el que aparece el vocablo “amuko”. En la nota a pie de página 69 de este apartado cita una documentación existente en Bizkaia sobre el particular. Dice así: *Vilbao. 1652. Criminal. Del licenciado Rafael de Nicoleta, clérigo presbítero Benefiçiaado de las yglessias de esta villa de Bilbao contra Ysabel de Goiri muger de Juan de Vriçar procurador. Juez el Sr. Corregidor. Escmo. Domingo de Retes*. Archivo del Corregimiento. Leg. 1028, nº 11. Archivo provincial de la Diputación Foral de Bizkaia.

<sup>24</sup> Mikoleta otorga carta de poder a los procuradores de la audiencia del Corregimiento del Señorío de Bizkaia, Tomás de Orrantia, Domingo de Olarra y Juan Pérez de Urazandi en 1652/02/08 ante Domingo de Retes, siendo testigos Domingo de Muñuzuri, Domingo del Campo y Bartolomé de Mikoleta. Este último pensamos que, por la escasez del apellido, sea deudo del licenciado. ACCA. Bilbao, Civil I, leg. 148/12.


El ejecutor de tales mandamientos será el preboste Juan Bautista de Zezeiaga quien ante Domingo de Retes se presencia en casa de Isabel de Goiri y Juan de Urizar el mismo día del auto y anotó los enseres existentes<sup>25</sup>. El preboste manda a Juan de Urizar le dé depositario de los bienes para sacarlos y ponerlos en tercera persona, pero contestó que los tales bienes embargados eran suyos propios y no de su mujer “y porque no anden sacándose de su casa con protesta de verificar que son suyos” se constituía como depositario, como en efecto se constituyó, obligándose con su persona y bienes, siendo testigos de este “*secreto*” o registro Juan de Sertutxa, Domingo del Campo y Simón de Larra.

El misterio llega a la hora de hacer cumplir el preboste el mandamiento de prisión, quien preguntando a Juan de Urizar por su mujer Isabel “*dixo que no estaba ni sabía en donde estava y aunque el dicho preuoste ynquirió y miró la dicha casa no pareció ni pudo ser auída*”, y esto lo hizo por tres veces “y la buscó en la villa sin ser hallada ni hauía persona que le dijera dónde estava” pero la vecindad comentaba que andaba ausente por la pendencia con Rafael de Mikoleta, quien en vista de no ser hallada pidió fuera reclamada por edictos y pregones y así lo consintió el Corregidor mandando que en el plazo de nueve días se presentase en la cárcel “*so las penas dispuestas por las leyes y los fueros*”. El pregonero, Pedro Rodríguez, lo publicó en voz alta ante la casa de la susodicha, plazas y lugares acostumbrados, hasta que el día 16 de Febrero, un día antes de cumplirse el plazo, Francisco de Maribi Allende da testimonio de cómo se entregó presa en poder de Pedro de Garamendi, sotoalcalde de la cárcel por ausencia de Pablo de Ugarte, su alcalde. Juan de Urizar presenta dicho testimonio y solicita se tome confesión a su mujer, pero el Corregidor no acepta y manda tan sólo dar traslado a la otra parte. Es chocante que el Corregidor como juez no escuche a Isabel su confesión y se limite al mínimo legal de notificarlo a Rafael de Mikoleta.

Ante la negativa de tomar declaración a la acusada, Juan de Urizar pide de nuevo al Corregidor que le dé certificación de cómo su mujer Isabel de Goiri se halla presa y así poder hacer diligencias ante el Provisor del obispado para que sea absuelta de la excomunión. El Corregidor da por presentada la petición y provee que se le dé el citado testimonio. Hasta aquí la documentación del proceso seguido ante el vicario de Bilbao y la inferida del Corregidor.

---

<sup>25</sup> Según el traslado del embargo que se hace en este expediente el inventario de bienes consiste en: seis sillas de espaldar, seis taburetes, todos de baqueta de Moscovia, colorados con clavazón dorado, una mesa crecida con su tirador y sobremesa de lana de colores, un escaparate de cuatro puertas con un Cristo y Cruz con su peana que estaba encima, seis láminas pequeñas, un espejo mediano dorado, seis retablonos viejos y antiguos colgados en la sala. Otra mesa pequeña en un aposento, en otro una “*cuja*” con su cama de cosneo y cabezal de pluma, y colcha de lana, una manta colorada y “*sus regelos*” de cotolín barreada con franjas de hilo, una arca grande de nogal con su ropón chamalote dentro y una cama de anascote colorado, andado. Una almohadilla de lana, otra cuja vieja en el otro aposento de la sala, otro cofre viejo y vacío, una herrada, una caldera de cobre, ocho platos y cuatro escudillas de tierra, tres platos pequeños de estaño, dos sartenes de hierro de freír, dos “*escaueos*” y un banco viejo.



Apelación de Rafael de Mikoleta sobre un cuarto de beneficio. 16-X-1648.



### Ante el Tribunal del Obispado

Ha quedado indicado cómo siendo competente este tribunal en la causa que se sigue, sin embargo, la documentación es menor que la ofrecida del Corregidor, la cual se traslada a este expediente como testimonio y prueba de lo que se ha proveer definitivamente. El legajo 80/14, bien por abandono del tiempo, bien por voluntad de hacerlo desaparecer, se halla incompleto. Faltan al menos peticiones, declaración o confesión, probanza con testimonios de los testigos de la parte de Isabel, autos... como es palpable a la vista del expediente y se demuestra en que el Tribunal del obispado mandara notario receptor; también se hallan desaparecidas las posibles apelaciones interpuestas a instancias superiores de las que se hace mención y la sentencia final.

Es lógico que Rafael de Mikoleta presentara la acusación contra Isabel de Goiri no sólo ante el Corregidor sino sobre todo ante el Obispado. Tanto si los hechos coinciden con su versión como si Isabel de Goiri tuviera la razón, de una u otra manera tenía que defender su persona. En uno como en otro caso buscaría el amparo de la justicia con su visión de los hechos y la defensa de su “honor”, utilizando un buen ataque so capa de su condición “in sacris” y acudiendo a las dos audiencias. En toda indagación histórica cuando los hechos se muestran oscuros y la documentación es parcial, como en este caso, la actitud de búsqueda ha de ser desapasionada con el fin lograr conclusiones, hipótesis o dudas siempre razonadas no caprichosas .

Por orden de aparición vamos a referirnos al contenido de los escasos documentos pertinentes a la competencia jurídica del Tribunal eclesiástico. El primero es una petición con acusación criminal que presenta el fiscal general del obispado, Miguel de Espinosa, en la que narra lo ocurrido<sup>26</sup>. “*La acusada, dice, ha cometido un gravísimo y atroz delicto de sacrilegio y está incurso en la çensura del canon si quis suadente diabolo y otras penas*”, por lo que pide se dé comisión para recibir información y se le declare excomulgada. Existe un auto, con sello de cera, en que el Provisor y Vicario General, doctor Azuela Velasco, siendo obispo Juan de Joaniz Etxalar, da comisión en forma con “*facultad de ligar y absolver*” al vicario de Bilbao para que reciba información de los testigos que la parte fiscal presentare y resultando culpable se publique por pública excomulgada a Isabel de Goiri “*y se la ponga en tablilla*”, dado en Logroño 1652/02/11. Adviértase que el seguimiento de la causa por el tribunal eclesiástico se produce después que se incoara el día seis de febrero ante el Corregidor.

---

<sup>26</sup> Lógicamente la acusación fiscal ha de presentarse a instancias de una previa denuncia del querellante, la cual no consta en este expediente, a no ser que se tome como tal la misma que presenta ante el Corregidor mandada insertar por el vicario y que por cierto está hecha con su testimonio.

El vicario de Bilbao, a la sazón Domingo de Zornoza Billela<sup>27</sup>, acepta ser juez comisionado, ante Pedro de Abendano el día quince, quienes reciben al día siguiente la probanza de los testigos siguientes de la parte de Mikoleta: Lorenza de Rosillos, Pedro de Angulo, María Sáenz de Atxa, María García de Gorozibai y Mariana de Gamboa, las cuales se ratifican en lo mismo que manifestaron ante el tribunal del Corregidor y no añaden ninguna novedad. Recibida la información el dicho vicario, como juez comisionado, juzga culpable a la acusada y manda a los curas que la publiquen por pública excomulgada, y así lo hace el teniente cura de San Antón, Juan Bautista de Taborga Etxabarri, durante el ofertorio de la misa mayor el día diecisiete. Es aquí donde se insertan, por auto del vicario, los traslados de la causa ante el Corregidor.

A continuación se muestra carta de poder otorgada por Juan de Urizar y su mujer Isabel de Goiri al procurador Diego Moreo de Pedroso ante Juan Martínez de Jarabeitia, dada en Bilbao 1652/02/26. Dicho procurador solicita<sup>28</sup>, ya a primeros de Marzo, la absolución de censuras para su parte pues no es justo que padezca en el alma, cuerpo y hacienda, y por cuanto, según se afirma, Rafael de Mikoleta “*perdió el respeto a esta parte, tratándola mal de obra y de palabra y diciendo que ella puso manos violentas contra su persona*”, el cual dio acusación criminal contra ella ante el Corregidor, quien la tiene presa y embargados sus bienes, y no contento con ello, avisó al fiscal de este obispado para que por el sacrilegio hiciese causa contra ella y ha sido censurada por el vicario de la villa. En esta petición se recoge el detalle que esta parte de Isabel también presentó querrela criminal contra Mikoleta ante el Provisor “*pues el receptor está haciendo averiguación de ella*”, sin embargo tal querrela no se halla en el expediente, lo cual nos deja sin conocer la visión de los hechos que ofrece Isabel de Goiri y sigue la duda si la pérdida documental es fortuita o voluntaria.

Ya se ha aludido al final de la actuación ante Corregidor cómo Juan de Urizar pide testimonio de los pasos dados en esa audiencia, se exhibe en este lugar, para hacer diligencias ante el Provisor. El propio notario, Domingo de Retes, da testimonio de cómo se pidió la confesión de Isabel de Goiri ante dicho tribunal, cosa que se negó mandando dar traslado de ello. Es sintomático que el Corregidor no accediera a la confesión de la inculpada y se limitara a notificarlo a la otra parte por la orden de traslado.

---

<sup>27</sup> El vicario Domingo de Zornoza es de quien se hace referencia en la nota al pie nº 10 sobre su inculpación en un pleito de simonía y su estado de salud. ACSDC. Leg. 81/02 ó ARC. o.c., vol.VII, pgs. 157 y 174. A causa de su fallecimiento en 1662 queda vaco un beneficio entero del que toma posesión Pedro de Zárata y Lezama. ACCA., Bilbao, Beneficial I, legajo 143/23.

<sup>28</sup> El procurador Diego Moreo de Pedroso en dos peticiones inicia la “D” de su nombre dibujando dos pájaros o palomas perfectamente y sin levantar la pluma, única ocasión que aparece este tipo de dibujos y resulta extraño su inclusión en una documentación judicial.

El fiscal del obispado, según es su deber, responde a la petición agravando los hechos “*no teniendo perdón del ofendido ni habiéndoselo pedido, y obtenido todavía queda ofendida la Iglesia y el estado eclesiástico, y quando se le hubiere de dar la absolución abía de ser pública*”, añadiendo que delito tan grave es privativo de su Santidad. Si se le diera absolución fenecería el pleito y no puede concedérsela si antes no comparece personalmente y hace su confesión. A lo cual el procurador Pedroso vuelve a solicitar la absolución pues Mikoleta “*trata de turbar a esta parte su justicia por tantos caminos*”, de lo que el provisor manda dar traslado al fiscal, que no responde, y se hace acusación de rebeldía al silencio fiscal pidiendo de nuevo la absolución “*pues mi parte está padeziendo en la prisión, y es persona principal y fue injuriada del dicho Nicoleta*”, de lo contrario se afirma en la apelaciones interpuestas y protesta el auxilio real de la fuerza.

### ¿Quién es culpable?

Finalmente hallamos una nueva petición en 1652/03/08 del procurador, Diego Moreo de Pedroso, en la que se afirman hechos que confirman las dudas expresadas en la versión documentada y sesgada. Porque golpes e injurias dio y profirió Mikoleta, porque se asegura, aunque no aparece por ningún sitio, que Isabel de Goiri presentó querrella ante el Provisor, porque lo actuado ante el vicario de Bilbao no puede considerarse justo por ser necesariamente partidista, porque no aparece la confesión de Isabel ni las declaraciones de sus testigos, ni los autos de inhibición del vicario y comisión a otro juez, ni las apelaciones interpuestas a otras superioridades. Por si fuera poco la mala suerte se cierne con la encausada pues habiendo comisionado el Provisor a un notario receptor del tribunal, Juan de Amatria, para recoger la información, se puso enfermo en el viaje y resultaba preciso nombrar a otro juez instructor o receptor, pero los autos respectivos no se hallan en el expediente.

Veamos finalmente el texto de la citada petición donde claramente asoman suficientes indicios de sospecha, y con su lectura cada cual contraste los datos expuestos y juzgue si la culpabilidad en lo ocurrido entre Rafael de Mikoleta e Isabel de Goiri está de parte de la acusada o del acusador .

*“Digo que el Lizenziado Rafael de Micoleta, Beneficiado en aquellas yglesias, trató ásperamente con **palabras injuriosas** a mi parte, y no contento con ello **la dio muchos golpes**, de que tengo dada **querella** ante Vuestra merçed, y las **pruebas se cometieron a Juan de Amatria, rezetor de este tribunal**<sup>29</sup>, quien partió a*

<sup>29</sup> El hecho de que se nombrara un notario receptor, juez instructor actual, supone que previamente el Provisor invalida la información recibida por el juez comisionado, que en este caso es el vicario de Bilbao, Domingo de Zornoza, inhibiéndole de seguir la causa, a través de un auto que atiende las razones de parcialidad del vicario expuestas por la parte de Isabel de Goiri, de lo cual tampoco se encuentra documento alguno en este expediente, aunque queda suficientemente justificado en el texto.

*hazerlas, y en el camino le a sobrevenido unas calenturas, con que se a buuelto a esta çidad. Y el dicho Lizençiado Rafael de Micoleta por turbar a mi parte para que no siga su justiçia, querelló de ella ante el Corregidor del Señorío de Vizcaia, quien la tiene presa y embargados sus vienes. Y no contento con esto dio avisso al fiscal general de este obispado por dezir auía puesto manos violentas en él, de que dio acusaçión, y la verifiçación se cometió al Vicario de la dicha villa, su conbenefiçiado íntimo y parçial amigo de la parte contraria, y a su devoçión a justificado a él y la acusan de excomulgada y puesto en tablilla a mi parte, con que por todos caminos padeze su alma, persona y azienda, y se alla [sin la] paz de remedio, y de todo ello e presentado testimonio y e pedido y suplicado a Vuestra merçed se sirua de mandarla absoluer de qualquiera zensura en que hesté incurra asta que mi parte aga su prouanza, y no se aze”. Por todo lo qual el procurador pide “que luego y [sin dilación] alguna **parta reçetor del tribunal a la berifiçación de la querella de mi parte**, por donde constará que si alguna acçión hizo fue [provocada?] gravísimamente, primero **de obra y de palabra**, y que en el ínterim se le dé absoluzión pues no es justo que padezca por tantos caminos, y que en casso que el rreçetor que fuere se aya de acompañar<sup>30</sup> con algún eclesiástico no sea con ninguno de la dicha villa porque todos son **íntimos amigos de la parte contraria** y enemigos de la mía, y como a tales **recusso**. Y juro en forma esta recusación en ánimo de mi parte de no azerla de malitia, y de la tázita o expresa denegación, afirmándome en las apelaciones ynterpuestas, de nuevo, ablando deuidamente, apello y pido testimonio.”*

Es evidente que la data 1652/03/08 de la petición transcrita corresponde al último documento dentro de este expediente de querella criminal, lo cual manifiesta la desaparición del resto y nos deja sin conocer lo actuado posteriormente bien en el Tribunal Eclesiástico diocesano o en otra instancia en caso que se admitiera apelación.

*Santo Domingo de la Calzada 2000/07/22*

---

<sup>30</sup> En la probanza de testigos a petición y consentimiento de las partes puede el juez optar por acompañarse de personas, generalmente letradas, para asegurar mejor la imparcialidad.

# BITORIANO GANDIAGA ETA BILBO

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*

#### LABURPENA

Hemengo idatzi hau Bitoriano Gandiaga olerkariari egin jakon omendaldiaren barruan irakurri eban autoreak. Egun horretan *Idatz & Mintz* 33-34 zenbakia aurkeztu zan eta idazle horren olerki-separata bategaz batera. Ekitaldi hau 2002.eko martiaren 13an izan zan, Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusien aretoan.

#### RESUMEN

Este texto fue leído por el autor en el homenaje que el Instituto Labayru realizó al poeta vasco Bitoriano Gandiaga. En el acto se presentó el número 33-34 de la revista literaria *Idatz & Mintz* y una separata que recoge poemas suyos. La sesión académica tuvo lugar el día 13 de marzo de 2002 en el salón de actos que las Juntas Generales de Bizkaia tienen en Bilbao.

#### RÉSUMÉ

Ce texte a été lu par l'auteur lors de l'hommage que l'Institut Labayru a rendu au poète basque Bitoriano Gandiaga. Au cours de la cérémonie, le numéro 33-34 de la revue littéraire *Idatz & Mintz* a été présenté ainsi qu'un tiré à part contenant certaines de ses poésies. La séance académique s'est tenue le 13 mars 2002 dans la salle des cérémonies des *Juntas Generales de Bizkaia* à Bilbao.

#### SUMMARY

The article was read by the author at the tribute paid by the Instituto Labayru to Basque poet Bitoriano Gandiaga. Number 33-34 of the literary magazine *Idatz & Mintz* was presented at the same event, together with an offprint including his poems. The academic meeting took place on 13 March 2002 in the Meeting Room of the *Juntas Generales de Bizkaia* (General Assembly of Biscay) in Bilbao.

## Gandiagaren geografia

Oraintsurengo *Pérgola* aldizkarian, José Fernández de la Sota idazleak inoskun datorren barikuan, hilak 15, hemendik paraje, Bidebarrietako Liburutegian zabalduko dan “Blas de Otero, geografia e historia” erakusketa bidaia edo txango literario bat dala: “Un viaje, o mejor un paseo o una corta excursión por la vasta geografía oteriana, desde la ría bilbaina al mar de China, desde Moscú a La Habana, desde la Barcelona de Carlos Barral y Jaime Gil de Biedma a la Zamora de Claudio Rodríguez o el León de *Espadaña...*”<sup>1</sup>. Erakusketak, beraz, orain gagozan kale honexetan jaio zan poetaren atlas pertsonalean zehar bidaiatzeko gonbitea luzatu gura leuskigu. Geografia pertsonal eta literario aberatsak, zinez, Oterorenak. Baina itxi daigun, momentuz, poeta bilbotarra, geroago bueltatuko gara-eta harengana, eta lotu gakiozan gaur omendu gura dogun poetari, Bitoriano Gandiagari.

Mendatako poetaren atlas pertsonal, literario eta espiritualak leku biri lotuta agertzen da gehienbat: Orbelauni eta Arantzazuri. Lehenengoa gizonaren jaiotetxea, bigarrena idazle eta frantziskotarraren kabia, otoitz- eta ameslekua. Madrilerara be joan jakun uda batez, baina, izatez, basetxe duin batera eta auzune menditsu batera mugatzen da ia-ia poetaren aberastasunen mundua. Hori baino ez, baina hori guztia! Izan be, txikitasun horreen inguruan mundu poetiko oso bat eregi eban Gandiagak; apaltasun eder horreetatik gehiegi urrundu barik, gizakia- ren nahi, irrika, joran, kezka, pena, eta atsekabeen barri emon euskun; eta elorriaren ganeko Ama Birjinari begira bere fedearen testigantza itxi. Zer gehiago behar eban munduko edertasun guztiak fraile apalaren gelatxuko leihoan ikusten zituanak?: “Beti arritu nau prailleen gelako ikuskizunak: oge trakets bat, mai ximple bat, jantzi-kutxa mengel bat, eskolarako ta semoitarako liburu batzuek, eta orma zuriak. Eta orma gorrietan, argira, leio bat. Eta zer edertasuna! Zer zorame-

---

<sup>1</sup> FERNÁNDEZ DE LA SOTA, José: “Blas de Otero, geografia e historia”, *Pérgola*, 116, 2002-Martxoa, 4. or.

na angoa! Zer geiagoren bear-eza! Zer praillearen atsegiña! Zertarako ezer geiagogo? Ta ez nabil txantxetan. Ez naiz parrez ari. Zorionaren aurrean bai nago”<sup>2</sup>.

*Elorri* amaitu barritan, era honetan egiten eutsan berba Gandiagak Pello M. Zabaletari: “Edonun bizi izan banintz, ango paraje aiek kantatu bear izango nitun. Neri asko gustatzen zaizkit Bilbao-ko Nerbioi errekan dabiltzan gabarra eta ontziak, ango ura... Emen Arantzazu-n nagoalako kantatu dut Arantzazu”<sup>3</sup>.

Harrezkero, dirudienez, ez da teologia ikastaro berezirik antolatu Bilbon, ostantzean, Madrili buruz egin eban antzera, Lauaxetak aitaturiko Nerbioi-ertzak eta ola-zaratak, edota metro barria olerki bihurtzeko aukera izango eukean Mendatako poetak. Lantegi horri heldu izan baleutso, seguru egon, Bilboren arimak orain beste ikutu bat eukiko leuke, humanoagoa, euskaldunagoa, samurragoa.

Esan bakoa da Bilboren ganean eurrez idatzi izan dana, Fernández de la Sotaren *Bilbao. Literatura y Literatos*<sup>4</sup> liburuan ikusten dogunez; edota Jon Kortazarrek uriaren zaspigarren mendeurrenaren kariatz atondutako “Escribir en Bilbao/Bilbaon euskaraz idatzi” izeneko erakusketan ikusi eitekeanez<sup>5</sup>. Tamalez, Nerbioiko gabarrek-eta, Bilboko errioko ontziek-eta ez dabe Gandiagaren abots poetikoaren fereka sentitzeko egokierarik izan.

## Udabarri batez Bilbon

Bilbora batu gaitu Gandiagak gaurkoan, eta Bilbo honetara etorri zan bera 1998ko maiatzaren 16an Mendebalde Kultur Alkartek egiten eutsan omenaldian parte hartzera. Eta honaxe bertora etorri jakun, eta mahai honexetan jesarri zan, alboan Adolfo Arejita, Xabier Amuriza eta berbetan daukazuen hauxe lagun ginduzala. Orduko berbaldian<sup>6</sup>, txikitasunaren maitaletzat jo genduan Orbelaungo poeta, gauza apalen miresletzat. Izan be, badirudi poetarentzat edertasunaren neurrigabetasuna gauza txikien bitartez adiazorik ulergarriago begitantzen jakula, hobeto atzeman geinkeala. Frailearen gelako ikuskizunaz harritzen zanak, bere lehenengo liburua zegaz konparatuko, eta iruntz tantatxu batez erkatu eban, bertan dagerkiguzan bizikizun, joran, pena eta poz guztiak urezko partikula ñimiño horretan sartuko bailiran:

<sup>2</sup> GANDIAGA, Bitoriano: “eta illargiaren jabe”, *Arantzazu*, 1966, XLV,100-101. orr.

<sup>3</sup> ZABALETA, Pello M.: “*Elorri* (Egillearekin izketan)”, *Jakin*, 16, 1964, 69-72. orr.

<sup>4</sup> FERNÁNDEZ DE LA SOTA, José: *Bilbao. Literatura y Literatos*, Ed. Laga, Bilbao, 2000. Ikus, era berean, ATUSO, Bernardo: “José Fernández de la Sota, escritor”, *Pérgola*, 101, 2000/Nov., 5. or.; eta DE PRADA, Juan Manuel: “Putrefacta, y sin embargo se mueve”, *Pérgola*, 107, 2001-Mayo, 10. or.

<sup>5</sup> KORTAZAR, Jon: “Dos exposiciones sobre literatura”, *Pérgola*, 102, 2000-Dic., 12. or.

<sup>6</sup> SARRIUGARTE, Iñaki: “Txikitasunaren maitalea: Bitoriano Gandiaga” in *Euskalkien lekua literaturan*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo, 1999, 189-199. orr.





Bitoriano Gandiagari eginiko omenaldia. 2002-III-13.

BEGIAN jaio zan.  
Nire eskuak ez eutsan  
ikutu sekulan.  
Iruntz-tanto bat zan  
okaran baltzean.  
Begian jaio zan.<sup>7</sup>

Txikitasunarekiko amodioaz eta jokeraz ganera, bizkaieraz eta idazletzaz be jardun genduan orain lau urte areto honetan, elorri apalen lagun haundia alboan genduala. Gero, Mendebalde Alkarteko kideakaz bazkaldu-eta, Xabier Amurizagaz<sup>8</sup> joan jakun barrero Arantzazuko bere kabira haizea entzutera, zerua irakurtzera eta bihotzetik harako poemak idaztera.

<sup>7</sup> *Elorri*, 2. argit., 263. or.

<sup>8</sup> Igaz Etxanoko bertsolariak joan-etorri honen kronika samur-samurra argitaratu eban: AMURIZA, Xabier: "Bitoriano-gaz egun bat" in *Bitoriano Gandiaga eta Mendata*, Mendatako Udala, Bilbo, 2001, 107-110. orr.

Bilbotik kanpora joian poeta, kalearte zaratatsutik mendira, bertako talaiatik, distantziak emoten dauan hurrekotasunetik gauzak zehatzago ikustera, beti be: “Bazterretik gauza asko ikusten ditut, sosegu handiz, eta beharbada bazterretik gehiago eta hobeto segitzen dut gizakiaren mugimendua munduan zehar; gizaki hori pertsona denez, bere problemak barrukoak dituenez eta gizarteko elementu denez, hobeto ikusten dut. Batek pixka bat distantzia hartzen badu bere burua ikusteko, eta, bere buruaren ispilutik besteak ikusteko, uste dut oso gertu bizi dela besteengandik”<sup>9</sup>.

Edozelan be, laster be laster bueltatu zan Bilbora Arantzazun “txirimiak” idazteari, kristau bizitzari eta fedea emoten eutsan dimentsio traszendentalari emona bizi zan poeta. Udabarri berean, bagilaren 2an jatorku barrero Gandiaga Bizkaiko uri nagusira, oraingoan Arenalera. Bertan, poetaren ibilbide literarioa saritu guran, Bilboko Liburu Azokak “Urrezko Luma” eskeiniko deutso. Gorazarre berbetan J.M<sup>a</sup> Lekuonak gerora ospetsu be ospetsu egin diran hainbat esaldi eta goraipamen jalgi zituan. Izan be, harako esaldi ha: “Euskal poetak izan daitezke onak, oso onak, edo Gandiaga”, ordukoa dozue. Baina Lekuonak gauza gehiago esan euskun; kasurako, Gandiaga dogula XX. mendeko bigarren erdialdeko euskal poeta nagusia, baita aitortza hauxe egin be: “Asko ikasi dut bere lanengandik, bai estiloa era batera lantzen eta baita Bizkaiko senari dagokionez ere. Azala batua izan arren, azpiegitura bizkaitar-bizkaitarra du”<sup>10</sup>.

Gandiagak, bere aldetik, eskertsu eta apal, aitortu eban Arantzazun edota Orbelaunen erosoago sentitzen zala Bilboko kale artean baino. Poetak, berari eginitiko omenaldia, berarentzat ez eze, Bizkaientzat be bazala esan euskun, eta Bizkaiak bere euskalkia indartu beharra daukala batua sendoago izan daiten. “Barruan dauzkat Lauaxeta, Orixe eta Lizardi. Haien liburuentzako sagraiora daukat” aitortzean be, argi itxi eban poeta meatarrak zeintzu iturritatik edan dauan bere poesiak. Mattin komikilariak zoragarri marraztu euskun hori guztia omenaldiaren biharamuneko *Egunkaria*-n, Lauaxeta-Orixe-Lizardi idazleak hiru tintontzi modura irudikatuaz eta Gandiaga, bere “Urrezko Luma” jaso barria eskuan daua, paper zurian hitza zizelkatzeko prest eta irribarretsu. Udabarri gogoangarria, beraz, 1998koa Gandiagarentzat Bilbo honetan.

Handik urte bi pasatxura, 2000. urteko udagoiengan, Gandiaga Arenala zapaldu beharrean aurkitu zan barrero, beste poeta batzukaz batera Poesiaren Astean parte hartu behar eban-eta. Orain esango deusuedana udagoien horretako telefono dei zirrargarri baten kronika da. Urriaren 10ean, astelehena, arratsaldean etxera bueltatu eta telefonoaren argi gorria piztuta ikusi genduan. Mezu bat

<sup>9</sup> AGIRRE, Gorane: “Mendebaldeko euskara, batuaren euskarri”, *Egunkaria*, 1998-05-17, 16. or.

<sup>10</sup> J.A.Z.: “Gandiagarekin Bizkaia harro izan bedi”, *Deia*, 1998-06-03, 61. or.

egoan. Alarmaren egun horretako gorritasun gorriaz ohartzeko, botoia sakatu eta ahots kraskatu bat entzun genduan. Bitoriano Gandiagarena zan. Bagenkian gaxorik egoana, baina beragaz izandako egotaldietan hobeto sentitzen zala, aurrera joiala, eta holakoak entzuten geuntsazan beti. Arratsalde horretako mezuak kontrakoa adiazoten euskun. Txarrera jo ebalá bere gaixotasunak eta operatu beharra eukanez, handik lasterrera ingresatu egingo ebela inoskun; Gasteizko Santia-go ospitalean, txarto gogoratzen ez banaz.

Edozelan be, kezkatxu bat eukan gizonak. Lehenago aitatu dogun poesia jaialdi horretarako izena emonda eukanez, antolatzaileekikoa argitu eta konpondu gura izan eban, bere ezin joana adiazoaz. Eta ea Bilboko Udaleko arduradunakaz jarri neintekean harremanetan hori esateko, bera ospitaleratzearen pentsudan egoan-eta. Iñaki López de Agiletaz gestinoa eginda, berehala deitu neutsan ospitalean ingresatzeko zorian egoan poetari. Ardura kitatuta, lasaitu ederra hartu eban gizonak. Horrenbestez, ebakuntza egin eta gerorako, osatze bidean egongo zanerako geratu ginan. Eta irribarretsu aurkitu genduan urte bereko Gabon eguneko arratsaldean, Gurutzetako ospitalera bisitan joan gintxakonean. Hortik aurrerakoa, tamalez, badakizue: zezeilaren 21ean heriotz kanpaiak Arantzazun, elorri xumeak lutuz eta Urbiako ardien arranek negar zotinka.

### **Gandiaga eta bilbotar poeta bi: Aresti, Otero**

*Gandiaga eta Bilbo* esan dogu gorago. *Gandiaga eta bilbotar poetak* dinogu orain. Izan be, Gandiagak lehen aitaturiko poesia jaialdian parte hartu izan baleu, Arenaletik Barroeta Aldamar kaleraino helduko zan Orbelaungo semearen poesiaren durundioa, Gabriel Aresti poeta haundiaren jaiotetxeraino, hain zuzen be. Apur bat gazteagoa zan Aresti Gandiaga baino. Bitzuek, baina, Euskal Herriaren maitaleak eta idazle ezpala ekarrienak, sinesmenaren inguruko aldea gorabehera.

Aldeak alde, ikusi zelan agertzen diran bateratsu, alkarregaz, 60ko hamarkadako zenbait aitamen literariotan (Angel Zelaietaren *Gabriel Aresti*<sup>11</sup> liburutik hartzen ditugu aitamenak). Lehenengoa Mitxelenarena da: “Gazteak joka omen datoz (Aresti, Gandiaga, t. a.), eta izkuntzaren inguru ditugun ezpai biziak, auxe adierazten dute: euskera bizi dala, ta gazteak artzen ba-dute, biziko dala geroagotan ere”<sup>12</sup>. Carlos Santamariaren aipu honetan be, eskuz esku dakuskuz Aresti eta Gandiaga: “Noiz adieraziko diegu poesia gauza serioa ta benetakoa dala eta gure Gandiaga, Aresti ta amaika orrelakoak, lan ederra ta baliotsua egiten dutela?”<sup>13</sup>.

<sup>11</sup> ZELAIETA, Angel: *Gabriel Aresti* (liburuki bi), Kriselu, Donostia, 1976.

<sup>12</sup> MITXELENA, Koldo: “Espeleunca ’ko billera Donostian”, *Zeruko Argia*, 1964-11-01, 8. or.

Gogoratu, era berean, Antonio Arruek 1963an Bilbon emoniko “Cuatro poetas vascos actuales” (Iratzeder, Mirande, Gandiaga eta Aresti) izeneko berbaldi gogoangarria<sup>14</sup>.

Edozelan be, garaitsu horretan Gabriel Arestik zalantzan jartzen eban meatarren poesiak geroan izan eikean etorkizuna: “Bitoriano Gandiaga eta Antonio Bilbao-Monasterio. Orain txit sarizatuak dira, baina hemendik hogoï urtera, ez dakit nik zertan geratuko den hoi en poetatza, baldin eta eskola berrietara aldatzen ez badira”<sup>15</sup>. Arestik aitatzen eban eskola barri horretara *Hiru gizon bakarka* (1974) liburuagaz lerratu zan Gandiaga, Barroeta Aldamar kaleko bilbotar poeta mundutik joan baino urtebete lehenago, hain zuzen be. Arestiren zalantza, halan eta guzti be, ebatzizat emon geinkealakoa dogu, Gandiagaren lehenengo poesia ren inguruko zenbait eretxiri lotzen bagaiakez, behintzat: “Estoy seguro —dinosku Felipe Juaristik— de que *Elorri/El Espino* no morirá, aunque algunos libros de su época queden sepultados por un manto de olvido”<sup>16</sup>.

Hogeï urte barik, berrogeï betetzen dira aurt en *Elorri*-k argia ikusi ebala eta Felipe Juaristigaz batera esan geinke Gandiagaren lehenengo poesia, denbora joanago eta umotuago, aberatsago eta eredugarriago begitantzen jakula. Garai haretan kritikak argi azpimarratu zituan Gandiagaren orduko poesiaren balioak, baina desgaraian jai o zan antza, une desegokian: “Esan zidaten —dinotso Gandiagak Joxe Azurmendi— ordurako poesiaren beste kontzeptu bat zegoela erabat. Arras bestelako poesia bat sorturik zela ja. Gizonari begira eta gizarte-arazoari begira”<sup>17</sup>. Eta poeta lirikoak poesia molde barriari ekin eutsan, baita poesia horretako euskal aitzindaria zan Arestiri maitasunez eta amultsuki kantatu be. “G. Arestiren aitormenetan”<sup>18</sup> izeneko poem an suaren metafora erabiltzen dau Gandiagak Aresti eta Arestik ekarrena irudikatzeko:

“Nire aitaren etxea  
defendituko dut”, esan zuen  
bat bateko suak.

Urez heldu zitzaizkionak  
indartu egin zuten;  
adarrez eraso ziotenek  
haserretu.

<sup>13</sup> SANTAMARIA, Carlos: “Laño artean”, *Zeruko Argia*, 1965-01-03, 3. or.

<sup>14</sup> ARRUE, Antonio: “Cuatro poetas vascos actuales”, *Euskera*, 1963-64, 179-198. orr.

<sup>15</sup> ARESTI, Gabriel: “Gaurko euskal poesia”, *Zeruko Argia*, 1965-01-24.

<sup>16</sup> JUARISTI, Felipe: “Este pueblo que no es de piedra”, *Zurgai*, 1996/Jul., 4-13. orr.

<sup>17</sup> GANDIAGA, Bitoriano: *Hiru gizon bakarka*, 2. argit., Elkar, Donostia, 1991, 190. or.

<sup>18</sup> GANDIAGA, Bitoriano: “G. Arestiren aitormenetan” in *Agiriak. Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 1978, 98-101. orr.

Alferrik ginen urruti  
ilinti zaharrak gordetzen.

Errausle ta sortzaile zetorren,  
bihurri ta martzal;

baliorik eta  
etorbiderik zuena  
harri ta herriren  
begitan jarriki.

Aresti sua zan Gandiagarentzat, eraso ezkeru indartu egiten zan sua: errauslea, sortzailea, bihurria eta martzala; “haizeak / bere baitariko zeragion su / azkarra zen” Bilboko poeta. Eta Gandiagak aitortu egiten dau bat-bateko argi bero horrek orduko joera poetikoak astindu egin zituela: “Bat baterako argi beroak / jo ginduen ta itzul arazi”. Su poetiko horrek aitaren etxeko hainbat gauza zaharkitu erre beharko zituan bai, baina aitaren etxeak zutik jarraituko eban eta bide barriak eta jardun-poza zabaldu:

Erreturan  
belar berria erne da,  
garia, bideak,  
ihardun-poza.

“Nire aitaren etxeak  
iraunen du  
zutik”, darantzuio  
“HARRIZKO HERRI HAU”  
beteko erantzunak.

Gatozen, baina, Barroeta Aldamar kaletik edo, gurago badozue, Meliren Basurtutik Hurtado de Amezagara. Erreparatu deiogun kale honetako 28. zenbakiari eta Bladi Oteroren jaiotetxearen ondo-ondoan gagozala konturatuko gara. Baina zer daukie komunean Orbelaungo baserritarrak eta Bilboko kaletarrak, baserri xume bateko semeak eta familia oneko ondorengoak, euskaldunak eta erdaldunak? Amaia Iturbiderentzat lau alderdi gitxienez: “Izan ere, Blas de Otero eta Gandiaga lau puntuotan bat datoz: biek gizona dute helburu, biek egunez idazten dute, biek miresten dute Lizardi eta biak ahozkoaren eta idatziaren arteko lokeraren beharra hartuta daude”<sup>19</sup>.

Sabina de la Cruz Oteroren alargunak eta Blas de Otero Fundazioaren presidentek oraintsuko alkarrizketa baten<sup>20</sup>, Otero poetaren eta Otero gizonaren

<sup>19</sup> ITURBIDE, Amaia: *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza*, Erein, Donostia, 2000, 22. or.

<sup>20</sup> J.F.S.: “Blas clamaría hoy por la paz y la palabra”, *Pérgola*, 116, 2002-Marzo, 5. or.

inguruan eginiko adierazpenetan Gandiagaz bat datozen zenbait ezaugarri aitatzen ditu. Alde batetik, Oterorentzat poesian erritmoak dauan garrantzia azpimarratzen eban poetaren alargunak: “A menudo se cree que es cuestión de oído, pero Blas pensaba que era algo más: la capacidad de encontrar el lugar de cada palabra en el verso, para que quede unida por el balanceo rítmico con inesperados y múltiples significados. Si el ritmo gobierna el universo, el poeta posee la llave del universo”.

Bestetik, klasikoaz ganera, Oterok herri poesiari emoten eutsan garrantzia nabarmentzen dau Sabina de la Cruzek: “Le impresionaba la capacidad de sugerir que posee la poesía popular, por la condensación de su lenguaje. Pocas palabras, breves descripciones y una gran intensidad lírica”. Eta hirugarrenik, pakearen inguruko kezka etenbako: “¿Cómo no iba a estar obsesionado por la paz?” dinosku, “¡...si fue un hombre cercado por las guerras!”. Baina Gandiagaren kasuan legez, pake intimoa be garrantzitsu be garrantzitsua zan Hurtado de Amezagako poetarentzat: “en sus poemas se habla también de otra paz, más íntima e intransferible: la paz de la casa vivida en libertad. Y aún otra, la de sentirse conforme con uno mismo”. Gandiaga eta haren poesia ezagutzen dauana berehala ohartuko zan Sabina de la Cruzek esandakoetan zeinen present dagoan meatarren poetika pertsonala. Esanguratsua da, era berean, Gandiagak *Uda batez Madrilen* liburuaren atariko modura Blas de Oteroren aipu bat ipintzea<sup>21</sup>.

Gandiagak dinoskunez, bere poesia soziala egiteko ez eban izan bere barrura begiratzea beste lanik; ingurura, gurasoen egoerara begiak luzatzea baino besterik: “Proletarioek badute beren klase-borroka, beren sindikatuak, beren eskubi-deen eta errebindikazioen kontzientzia. Gandiagaren barruan, nik, haurtzaroko artasoroetaraino itzulita aitarekin eta amarekin, euskalduna klase sozial galdu bezala deskubritu nuen barnean. Neure barnean neukan. (...) *Elorri-n* nire arima bezala, *Hiru gizon bakarka-n* nire herria ipini nuen”<sup>22</sup>.

Gandiagarentzat, beraz, euskaldungoa minoria dogu gitxiengo sufritu horren barruan, eta larriagoa dana, minoria ahaztua eta ignoratua sarri askotan. Eta salatu egiten dau: “Gu ez gaituzte inoiz, sozialistek ere ez, eta poeta sozialek ere ez, ez gaituzte hartu inoiz aintzat. Ez dute gure problemarik aipatu ere sekula egin”<sup>23</sup>. Eta zuzen-zuzen esango deutso Oterori, *Hiru gizon bakarka-n* beren-beregi opetsitako olerki baten:

<sup>21</sup> “Hitz egiten den bezala / idatzi behar ez bada, / hitz egiten ez den bezala / idaztea ere / egokia ez da” (Blas de Otero).

<sup>22</sup> *Hiru gizon bakarka*, 2. argit., 203-204. orr.

<sup>23</sup> *Ibidem*, 199, or.

*Bladi Otero-ri*

Gure egia  
ez dute ikusten  
edo ez dute nahi  
egiarik ikusi.

Gure egia  
geure herria da  
Herri bezala bizi nahi  
dugun egarria.

Zenbatak  
ez du zer-ikusirik.  
Eskubidean  
arkitzen garenok  
daukagu bakarrik  
arrazoia eskutik.

Herritasuna  
saldu dutenek  
edo saltzeko gertu  
daudenek,  
sal dezatela.

Baina  
nahi ez dugunok  
gaitezela  
gure eskubidean  
errespetatuak.

Meatarrak hizkuntza eskeintzen deutso bilbotarrari, ia-ia ezer idatzi ez dauan Herri horren kondairatzat: “Lehenik maite baduzu, / lehenarekin oraina / nahi baduzu lotu, / hor duzu hizkuntza, / hor duzu Kondaira / ta Kondaira-giltza”. Badago, beraz, herri bat Bascongadas barruan, bere kondaira propioa hizkuntzan idatzita daukana. Eta horra begiratzeko eskatzen deutso Oterori, laguntza eskatu-ko baileutsan. Baliteke olerkian, Gabriel Arestik Oterori *Zeruko Argia* aldizkarian egindako alkarrizketaren oihartzuna egotea. Ikusi daigun zer erantzun eutsan Oterok Arestiren “Euskaldun sentitzen haiz?” itaunari: “Gure hizkuntzaren eza- gutza galdu badut ere (eta hau duk inoiz gertatu zaidan desgraziarik haundiena) errotik sentitzen nauk euskaldun. (...) Nire poetatasun guztia haurtzaroan min- tzatu nintzen eta nire arbasoak hainbeste gizalditan mintzatu ziren euskerari zor zioat. Bai, euskaldun sentitzen nauk espirituz eta arrazaz”<sup>24</sup>.

---

<sup>24</sup> ARESTI, Gabriel: “Blas De Oterorekin eskuz esku”, *Zeruko Argia*, 151, 1966-01-16, 12. or.

Orain hobeto ulertzen dogu Gandiagak Oterori eskeinitako olerkian hizkuntzari eginiko aitamena; orain hobeto ulertzen dogu Gandiagak *Kondaira* berbeari ipini eutsan maiuskularen zergaitia, idatzita egon ez arren bai baitauka minoria horrek historia bat, hizkuntzan idatzia hatan be:

Hizkuntza osatzen duten hitzak,  
gizonak sortutakoak,  
gizonaren era ta neurrikoak,  
gizonaren barruko egintzaren  
emaitzak.  
Egin zutena idatzi eta  
hil ziren herri haundiak.  
Euskaldunek ez zuten idatzi  
egin zutenik, baina  
hitza ziguten utzi,  
hitz bizia,  
egite guztia  
beregan duen hitza.<sup>25</sup>

### Alkartasuna eta lana gizakiaren alde

*Hiru gizon bakarka* liburuan, txakolinaren ospakuntza egin, eta hiru gizonen jardun bakarzalearen barri emon eta gero, poetak berak hartzen dau hitza: “Horregatik, hiru demonialu horiek hortxe utzi mutu, eta hurrengo zatian neuk hartzen dut hitza, *Alegiak eta beste*, neure kabuz iharduteko. Hor, ikusten duzu, — diotso Joxe Azurmendiri— Euskal herriko problematxoak dira. Zertan galtzen dugun denbora. (...) Exenplutxoak dira, zer pasatzen den gure artean. Alegoriak”<sup>26</sup>.

Jose Luis Ascunceek Oteroren olerkigintza aztertzen dauanean<sup>27</sup> beren-beregi azpimarratuko dau alegoriaren erabileraren garrantzia: “Alegoriak definitzen du Blas de Oteroren poesigintza. Adierazi alegorikoen ikuspegitik, Blas de Oteroren poesigintza karakterizatzen eta, aldi berean, poesia soziala definitzen duen zentzu-esparru bat eskain daiteke”. Funtsean —dino Ascunceek— poesia mota honetan gizasemeak, alkartasunaren erdian, eta lanaren indarraz, aberri eta gizaki barri bat taxutu behar ditu: “Gizateriaren historia, beraz, heldutasun etiko eta gainditze progresibozko bide neketsu eta luze gisa aurkezten da eta orainaldi historikotik

<sup>25</sup> *Hiru gizon bakarka*, 2. argit., 104. or.

<sup>26</sup> *Ibidem*, 204. or.

<sup>27</sup> Euskeraz badago artikulu interesgarri bat autorearen zenbait lanetan oinarritzen dana: ASCUNCE, José Angel: “Etika eta estetika Blas de Oteroren poesigintzan”. *Jakin*, 68, 1992, 53-81. orr. Ikusi, era berean, ikerle beraren *Cómo leer a Blas de Otero*, Júcar, Madrid, 1990.



(sorburuen mitematik) etorkizun suprahistorikoraino (burutzearen mitemaraino) doa. Bide neketsu eta luze hau ibiltzeko gizasemeak maitasun solidarioaren eta gainditze-lan/borroka-ren beharrezko eta ezinbesteko laguntza du (berrikuntzaren mitema)”<sup>28</sup>.

Heriotza eta kaosetik, antiparadisutik eta mundu zaharretik, prozesu gainditzaille baten bitartez eta maitasunari eta lanari esker, gizakia bizitzara, betetasunera, paradisura, mundu barrira pasatuko da gizakume barri bihurturik. Hauxe litzateke, Ascunceren eretxiz, giza erredentzioaren alegoria Oteroren poesian.

Kasuon be, Gandiaga eta Otero poesiakide eta gogaide ditugu<sup>29</sup>. Goazen *Hiru gizon bakarka*-ko “Hamaseiharrieta” kapitulura eta ikusi daigun Oteizari eskainitako lehenengo olerkian zer dinoskun Gandiagak:

*Oteizari*

Begiek dakustenetik  
bihotzak nahi lukeenera  
zubi zahartu hau luzarazteko  
nahi-izatea gutxi da.

Gaztainadiak bezala  
gaitzak jo digun herria  
urritzen doa,  
gaztainadiak  
bezala hiltzen utzia.<sup>30</sup>

Zer ikusten dau poetak bere aurrean? Gatzak jotako herri bat. Eta santutegiko aurrekaldean? Ama atsekabetu bat zutik, zerraldo datzan semearen ondoan. Baina egoera hori gainditzeko nahi izatea ez dala nahikoa dinosku. Hurrengo olerkian argitxu bat dakusalakoa dauka, baina ezin dau ziurtatu ames hutsa danentz:

Gaztainadi zen basoko  
pinadiaren artetik  
ikusten dudan ziargi haura  
ziargi denik ez dakit.

Baina amets dagit

<sup>28</sup> “Etika eta estetika Blas de Oteroren poesigintzan”, 79. or.

<sup>29</sup> SARRIUGARTE, Iñaki: “*Hiru gizon bakarka*: Hamaseiharrieta”, Doktoradutzako ikastaroak (“La poesía social española: estética y poética”, José Luis Ascunce Arrieta), Deustuko Unibertsitatea, 1994-95 ikasturtea.

<sup>30</sup> *Hiru gizon bakarka*, 2. argit., 143. or.

ziargi dela,  
etsita egonagatik.<sup>31</sup>

Poetak zalantzan jartzen dauan argi hori etorkizunezko argia izan daiten, begiek ikusten dabenetik bihotzak ikusi gura leukean egoera horretara joango litzatekean zubia eregi beharra dago. Prozesu solidario gainditzailak eroango dau gizakia zorion eta argi beteko paradisu barri horretara. Eta poeta, Oteiza eskultorearen laguntzaz begietatik bihotzera, hau da, errealitatetik gurarira doan zubia egiten hasten da. Eta lanari lotuko jakoz bitzuak, sutsu eta gogotsu lotu be.

Batetik, poetak daragoio:

Tailer batean nengoan,  
Oteitza baten ondoan.  
Hitzak apalki entzun nizkion  
ta asmo bat hartu beroan:

Agintzen dizut, egia,  
idazten dudan guztia  
tailer honetara jasoko dizut.  
Gaurtik hemen dut saskia.<sup>32</sup>

Eta bestetik, eskultoreak, artistak:

Tiriki, tauki, tauki,  
mailuaren hotsa.  
Tiriki, tauki, tauki,  
mailuaren hotsa.  
Mailua penazkoa,  
harria gau beltza.  
Ai, oi, ai,  
harria gau beltza.

Tiriki, tauki, tauki,  
mailuaren hotsa.  
Tiriki, tauki, tauki,  
mailuaren hotsa.  
Etsipen kolpe bat da  
ukaldi bakoitza.  
Ai, oi, ai,  
ukaldi bakoitza.<sup>33</sup>

---

<sup>31</sup> Ibidem, 144. or.

<sup>32</sup> Ibidem, 145. or.

<sup>33</sup> Ibidem, 147. or.

Bihotzak gura dauana, beraz, lan biri esker bihurtu ahal izango da errealitate: bateko, poetak ez dau aurrerantzean olerkirik paperontzira bota eta alperrik galduko, dan-danak jaso eta eskultoreari eroango deutsoz tailerrera; besteko, eskultoreak harria ez ezik, Arantzazuko eta Euskal Herriko isiltasuna be kolpatuko du mailukadaka, orduko euskaldunen kontzientziak lozorrotik itzartuazoteko. Errendentzio bidea, hasita dago:

Batean labe ondoan,  
bestean andamioan,  
ibili dira bertsuok,  
zikindu dira eskuok.  
Hautsa genuen baranoan.<sup>34</sup>

Hemendik aurrera, Gandiagak Oteizaren obrari, kanpoko hamasei harriei erreparatuko deutse eta plano bi ikusiko ditu bertan: bata negatiboa, Euskal Herriaren egoera adierazten dauana; eta, bestea, itxaropentsua eta positiboa, argiaren betea iragartzen deuskuna:

Oinazearen kantu ilun bat dio  
irudi bakoitzak, etsipen bat bezala;  
hondamendi baten  
nahigabea darie hormatik behera  
lurretik desagertuz doan  
Herri baten hutsunea bezalakoa  
edo haren etorkizuneko argirik ezaren  
beltzura zaie urratzen,  
horma guztia itzalduz.<sup>35</sup>

Baina, gaingidituko dan errealitate baltz horren adierazle artistikoa baino ez da santutegiko frisoan eta horma biluzian dakuskuna. “Euskaraz bakarrik / aditu ditekeen hitz / gurutziltzatua” jarri eban Oteizak santutegiko frontisean, eta ulergatxa izan leitekean arren, itxaropen beteko harri-hitz zizelkatua dogu Oteizarena. Honan Gandiagaren interpretazioa:

Sinistu egidazu: Hor duzu gertatu dena  
eta gertatuko denaren ezaugarria.  
Ez dago letra bat alferrik: Amak  
zutik behar zuen, Semeak zerraldo,  
apostoluak halaxe

<sup>34</sup> Ibidem, 159. or.

<sup>35</sup> Ibidem, 153. or.

eta halaxe hutsuneak eta halakoxe.  
 Profezia hau historia bait da  
 eta historia hau profezia.  
 Denak daude zerurantz oraindik bizi direnak  
 biziak itxaropena  
 behar bait du bizitzeko.<sup>36</sup>

Poetarentzat, Oteizak hitz bihurtu dau harria eta profezia bat idatzi Arantzazuko horman, bizidun guztiak (Ama Birjina eta frisoko hamalau apostoluak) gora begira jarri ditu-eta. Zertarako? Gandiagak erantzuten deusku: zutik bizitzen ikasi daigun, itxaropenetik sortzen dalako bizitza; eta ahaztu ez dakigun bizitzan irmoki sinesten dogunean, heriotza gainditu egin geinkeala.

Prozesu gainditzailleak, ezinbestean, berpiztea dakar, udabarria eta betetasuna. Ikusi daigun zer dagoan hormaren atzean:

Baina jadanik aski duzu berpiztearen sinismen lekukotasun hau  
 eta igaro zaitez jadanik horma honen atez  
 edo horma hau den atez,  
 eta ikus berpiztea egia dela,  
 ikus barruan nola gaztetu den Ama,  
 hila nola den berriro Haur bat,  
 eta nola berriro dena hasten den, berrien berriz berriro,  
 udaberri bat bezala.<sup>37</sup>

Horra hor egia bihurturik, poeta sozialak gizaki zapaldu, baztertu edota zaharkituarentzat irrikatzen zituan betetasun osoa, gaztetasun barria eta berpizte itxaropentsua. Hor daukagu Ama gaztetuta, hor Semea berpiztuta. Hortxe daukagu gaztainadia barriturik eta pinadiaren artetik poetak ikusten eban argitxu ha euskaldunon etorkizunezko eguzki argitsu bihurturik.

\* \* \*

Biziko balira, Oterok gaur egun 86 urte izango leukez, Gandiagak 74 eta Arestetik 69. Poesia gizakiaren duintasunaren alde erabili eben hirutzuek. Zoritxarrez, ez dagoz gure artean. Baina datorren astean Bidebarrietako liburutegian Oteroren obra aztertzeke antolatu dan nazioarteko kongresua hasten danean, Aresti eta Gandiagaren presentzia be somatuko dogu bertan. Eta egun horreetan euria egi ten badau, orduan ituxuren eta itoginen musikak Bilbo eta Arantzazu are estuago lotuko ditu:

<sup>36</sup> Ibidem, 157. or.

<sup>37</sup> Ibidem, 158. or.

“Llueve en Bilbao y llueve, llueve, llueve / livianamente, emborronando el aire, / las oscuras fachadas y las débiles / lomas de Archanda, mansamente llueve”<sup>38</sup>, inoan Oterok.

“...T´euria. / T´ozkirri ta argia / itogin-zarata / saltari ta alaia, / klaustroko patio / barru ta gordean, / arra t´erdi luze / edo krabeliña / zuri bat jagia. / T´euria”<sup>39</sup>, inoskun Gandiagak.

Eskerrik asko.

---

<sup>38</sup> OTERO, Blas: *Que trata de España*, Visor, Madrid, 1977, 25. or.

<sup>39</sup> *Elorri*, 2. argit., 79. or.



NEKE ETIKATIK EDERTASUN ETIKARA  
IGAROTZEN JAKIN ZUEN BASERRITAR  
OLERKARIA

*Sebastián García Trujillo*

#### LABURPENA

Testu hau aurreko artikuluan aitatu dogun Bitoriano Gandiagaren omenaldiaren barruan egin zan bigarren berbaldiarena da, Bilbon 2002.eko martiaren 13an irakurri zana.

#### RESUMEN

Este texto recoge la segunda intervención en el acto de homenaje al escritor Bitoriano Gandiaga mencionado en el artículo anterior que tuvo lugar en Bilbao el 13 de marzo de 2002.

#### RÉSUMÉ

Ce texte contient la seconde intervention réalisée lors de la cérémonie d'hommage à l'écrivain Bitoriano Gandiaga cité à l'article précédent, qui s'est déroulée à Bilbao le 13 mars 2002.

#### SUMMARY

Also included here is the second contribution to the Instituto Labayru's tribute to Gandiaga held, as noted above, in Bilbao on 13 March 2002.



Bitoriano Gandiaga *ezohiko* gizakia izan omen zen. “Bitxia” dio hartaz guztiz ondo ezagutu zuen Dionisio Arrutik. Ezohiko izate horrek lurra eta euskal ondarearekin lotura estu eta mamitsu bezain maitatua izatean zeukan oinarria. Horren irmoki eutsi zion mendatar honek Orbelaungo baserrian edoskitako euskal lurrari lotuta ezen Arantzazuko ikasleek *basati* goitizenez deitu ohi zioten.<sup>1</sup>

Euskal lurrari, lehenik eta nagusikien:

“Hemen gertatu zait jaiotzea, hemen ditut nire sustraiak, inguru honi esker bizi naiz...”<sup>2</sup>,

eta hemendixe abiatu mundu osoko herri zein jende guztiei ere bai (Bilboko Salbetik gora mendi aldeko zein Madrilgo Tetuan auzo aldameneko txaboletan bizi ziren etorkinei<sup>3</sup>, esateko):

Aurreratu idazu zure zerbeit  
zuetaz ari ahal nadin<sup>4</sup>.

(Euskal) Lurrari estu lotuta egote hori *ekite askotan* nabarmendu zitzaion Bitorianori: *lurrari* izan zitzaion bezainbatean, gauza *konkretuei* ekinago zien espekulazio zein teoriei baino:

“Erderaz bai, baiña euskaraz ez zait sortzen *ideiarik...*”<sup>5</sup>.

eta *lotura* izan zitzaion aldetik: egite guztiekiko *zintzotazunean*:

“Zintzotasuna izan dut bizitzan gorenkien aipatzen entzun izan dudana bertutea. Eta zintzotasun horren desglosea lana zen, denbora alperrik ez galtzea zen, zerbeit probetxuzkotan etengabe aritzea zen”<sup>6</sup>

---

<sup>1</sup> ZABALA, P., “Txepetxa triku”, *Euskaldun Egunkaria*, 97.03.12.

<sup>2</sup> *Euskaldun Egunkaria*, 97.02.02.

<sup>3</sup> *Uda batez Madrilén*, 169-177. or.

<sup>4</sup> *Uda batez Madrilén*, 176. or.

<sup>5</sup> *Denbora galdu alde*, 43. or.

<sup>6</sup> *Denbora galdu alde*, 10. or.

Lurra eguneroko lantzeari leiala izan zitzaion Bitoriano, euskal baserritarren antzerakoa, hotzetan zein berotan, udan zein neguan. Non gaude, oraingo honetan, Euskal Herria landuketan ari garen euskaldunak: Hamaseiharrietako neguko nekaldian ala Artasoko Salmuetako maiatz-pazkoan?

Euskal lurrarekiko zintzotasun eta konkretatze erronka honetan *lehentasun bi* nagusitu zitzaizkion Bitorianori (Jainkoaz landa, noski, edota Jainkoaren lehentasunaren ondorioz, agian): izakien artean *gizakia* zuen aurren (batez ere, baju eta baztertuak<sup>7</sup>):

“Gauzak, Jauna, pozik dagoz,  
baiña gizonak<sup>8</sup> min dira.  
Nire arima tristeki dago  
izadira begira.”<sup>9</sup>

eta arduren artean: *euskal kulturarena* (hizkuntza batez ere, baita historia aurreko oroitarrak, euskal ohiturak ere bai: baserriak, landak, basoak, bideak..., literatura, artea...):

“euskara salbatuz, euskara baino zerbait gehiago ere salbatuko genuelako ustetan”<sup>10</sup>.

Pello Zabalak azpimarratzen digun Bitorianoren “lurrarekiko, jatorriarekiko, fedearrekiko eta euskararekiko erabateko leialtasun hau”<sup>11</sup> *sakondu, zabaldu eta argitzen* joan zitzaion, urterik urtera, Artasoko errekatxoek egiten duten bezala:

“Menditik behera korrika  
eta ibarra zehar gainezka”

hasieran..., harik eta itsasora iritsi arte; inoiz ere, aitzitik, Elgeako mendiak ahaztu gabe:

“Baina hibaia hibai bada,  
itsasoz ere hibai dioa.”<sup>12</sup>

Euskal lurrari fideltasun ezohiko hori zela bide, aukeratu zituen Bitorianok bizitzako eginbeharrak. Gazte denboran, erreten markatuari *estuegi* segitzeari ekin zion: seminarioko klaseak: “Eskolako programak kurtsoa bukatu baino askoz lehenago sar eraziko dizkiezu mutikoei. Letra txikian datorrena ere. Eta horrela ihar-

---

<sup>7</sup> *Hiru gizon bakarka*, lehen argitaldia, 56. or. : “Baina ni bajuekin”.

<sup>8</sup> Edo *gizakiak*, Arantzazuko fraideek mezatan aldatu duten bezala.

<sup>9</sup> *Elorri*, lehen argitaldia, 165. or.

<sup>10</sup> GANDIAGA, B., “Nere obraz”, *Hegats*, 209. or.

<sup>11</sup> ZABALA, P., *Gara*, 01.02.22, 41. or.

<sup>12</sup> *Hiru gizon bakarka*, 172. or.

dungo duzu estu eta estugarri”<sup>13</sup>. Eskolako lanez gain, apaizarenak: “Ez zen gozoa izaten larunbateko loa: konfesioak eta hitzaldia ziren larrigarrienak, hitzaldia batez ere”<sup>14</sup>. Eta, horietaz aparte, Arantzazun eta Araotzen baserritarren elkarte bat sortzeko nekeak ere bai (azkenean alperrikako suertatu zitzaizkionak): “Ni ihardun naiz Arantzazun ez dakit zenbat urte baserritarrak biltzen, Araotzen hiru urte berriro... eta inbidiaz eta tristuraz erre egiten naiz... Eta orduan joan egiten naiz ohera, neure problemekin egotera, nahiago dut pena handiagorik ez eramán”<sup>15</sup>.

Eginbehar *larregi* zeregin guztietara ailegatzen hezitako gazte sasoiko<sup>16</sup> harenztat ere bai, denbora galtzen ikasia ez omen zena:

“Txikitan jarri zuten lanean.  
Orduz gero ez du egin  
lan eta lan besterik.”<sup>17</sup>

Eta, halako batean, Bitoriano lehertu egin zen... urduritasun eta haserraldiak, hasieran; bihotzekoa, gero; eta depresioa, geroago.

Ez zen, haatik, putzuan geldituko mendiko haizeek alegiak kontatzen zizkion ibiltari, kolore ñabarduraz ohartzeko goizeko ordu txiki-txikietan zelatan egon ohi zen olerkari, eta euskal ohiturak bildu eta antzinako oroitarriak aurkitzeko sudur berezia zeukan biltzaile hura.

Depresio putzutik irtetzeko ez zuen Bitorianok denbora galtzen ikasi behar izan (baserritarrak noiz oporretan?), gizaki eta euskal kulturaren aldeko ekintzetan areagotu eta sakondu baizik. Eta sakontze-zabaltze honetan... *poza eta edertasunarekin* topo egin zuen Asisko Frantziskorekin bidekide ezohiko zintzo hark:

“Bizitzaren segurantza  
Heltzen datorren ageria nabari du  
Lurretik gora jasotzen ari den  
Poztasun goralariak.”<sup>18</sup>

Ordutik aurrera edertasuna dastatzea eta barreiatzea izango du Bitorianok bizitzaren ardatza, baita ‘ohikoak’ garen beste gizaki guztioi edertasuna dastatzen erakustea ere, dela literaturaren bitartez, dela, batez ere, eguneroko bizitzako egitekoeen bitartez (erromesak abegi onez hartzen, bideak konpontzen, arbolak

<sup>13</sup> *Denbora galdu alde*, 8. or.

<sup>14</sup> *Denbora galdu alde*, 29. or.

<sup>15</sup> AZURMENDI, J., “Epilogo”, in *Hiru gizon bakarka*, Elkar, Donostia, 1991, 193. or.

<sup>16</sup> *Denbora galdu alde*, 31. or.: “orduan bai sasoia”.

<sup>17</sup> *Denbora galdu alde*, 122. or.

<sup>18</sup> *Hiru gizon bakarka*, 179. or.

[4000 milatik gora] sartzen), pertsona guztien mesederako, baita euskal kulturaren faborerako ere:

“Querido Jorge, tú sabes que he amado este mundo y he anhelado verlo cada vez más humano y más dispuesto para el gozo y disfrute de la gente toda del universo... Lo he amado en sus montes, dólmenes, menhires y demás construcciones... He amado los alrededores del santuario plantando muchísimos árboles, limpiando senderos, tratando de tenerlo agradable. He amado el convento, tan rico en experiencias tranquilas, de cuadros y motivos que siempre ayudan a mantener el alma en regiones habitadas por la belleza... He amado a la gente que acude a este santuario... Amo el arte que se ha realizado en Arantzazu, el espacio religioso abierto alrededor del santuario, el friso de tantísima unción, las entradas bajas al interior, acogedor y emocionante”<sup>19</sup>.

Mundua guztientzat ederragotze hau ez zitzaion Bitorianori helburu ezta egin-behar makala suertatu:

“Bere kezka nagusietako bat, bakoitza estimatzea eta pertsonari lehentasuna ematea zen. Zenbat lan eta enpeño pertsona den bezala onhartzearen alde, guztiei harrera ona egitearen alde, eta iñor derri-gortzearen kontra. ‘Dena pertsonaren serbitzura jarri behar da’, esaten zuen, bai Santutegia eta bai inguruak, txukun eta atsegin, mendiak eta sakonak ondo zainduz”<sup>20</sup>.

Ederragotze bide horretan, ozohiko xendratik eraman nahi gaitu Bitorianok Artasoko Salmuetan utzi digun irakasgairik ederrenean; intentsitate handiko eta mugarik gabeko zein mistika bidetatik, hain zuzen. Zer da maitasun mistikoa ez bada, Jainkoari gorespen ematea, munduan, gizaki guztiengako edertasunak iraungo duelako, olerkaria hil ondorean ere bai:

“Hilgo naz,  
ta edertasunak  
jarraituko dau lurrean.  
Aleluia.”

Zer da Euskal Herria eta gizaki guztienganako maitasun mistikoa ez bada, hementxe geratu nahi izatea (harri eta lur), hil eta gerokoan ere, behin betiko, edertasun opari bezala:

<sup>19</sup> *Gara*, 01.02.22, 60. or.

<sup>20</sup> ZURIARRAIN, J. T., “Bitoriano Gandiagaren hiletak”, *Arantzazu*, abril 2001 apirila, 20-21. or.

“Hilgo naz,  
eta hezurak  
harri dirake lurrean.  
Aleluia.”<sup>21</sup>

Urbiako goroldio eta pago zein elorri arteko harrien (abereki edota gizaki hezurren irudi-irudikoak) edertasuna ezagutzen duena soil-soilik ohar daiteke bertso hauek dakartzaten txundigarritasunaz eta Bitoriano Gandiagaren euskal herriko gizakien arduraz eta maitasunaz.

Eta bide honetan zeinen hunkigarri suertatu zitzaigun Bitorianori berari entzutea, bere heriotza elizkizunean, (grabagailuaren bitartez, noski) bizitza sineste hura:

“Sinisten dut bizitza,  
hari zor natzaio,  
hari eskerrak naiz;  
arretaz dut zainduko,  
ospatuko dut maiz.  
  
Sinisten dut bizitza  
betirako dohain  
alai ta galanta;  
badut zertan gozatu,  
bai-eta zer kanta.”

Mistika bidea esan dugu, baina lurrari itsatsia, Urbiako lainoen pare-parekoa. Adibide esanguratsu bat. Nonbait lan egin bazuen Bitorianok Arantzazuko seminarioan izan zen. Hortxe izan zen irakasle bere bizitzako urterik umotuen eta luzeenetan. Bera izan zen seminario zaharraren deseraikuntza eta Seminario berriaren eraikuntzaren testigurik zuzenatarikoa eta, bere neurrian, esku-langile itsaropentsua ere bai... eta berari tokatu zitzaion, seminarioa hutsik geratu zenean, gaueko zaindaria izatea... Seminario hura, eraikia izan zen helburuen arabera, hutsegite galanta suertatu zitzaion Arantzazuko fraideei. Bitoriano Gandiagaren bizitzaren neke zatirik handiena alperrik galduta. Gaur egunean ia ez da bokaziorik sortzen, eta sortzen diren apurrak ez dira horrelako seminarioetan biltzen. Dena dela, urte asko hutsik pasatu eta gero, frantzizkotarren Arantzazuko seminarioan kultura zentro bat eratuko dute, ondo hornituta, moderno, eder eta irekia. Leku zoragarrian. Gizarte edertasunerako oportunitate berria, alde askotatik berdingabea... Bitorianok eraikuntza horretan hainbeste izerdi bota ondoren ikusiko ez duena. Baina Bitoriano besteentzako edertasunaren alde lan egiten en-

<sup>21</sup> *Hiru gizon bakarka*, 178. or.

tsaiatua zen<sup>22</sup>, baita ez ikustearena onartua ere, eta Kultura zentruaren gaineko erabakia ezagutu ondoren, honako hau bota zuen, bere heriotzako tristuraren erdi-erdian:

“Pozik noa Seminarioaren inguruan Topagune eta atsedan leku egoki bat egingo den itxaropenarekin”<sup>23</sup>

Artasoko Salmuetan bezala, fuertegoa izan zitzaion Bitorianori besteen poze-rako ekintza, bere heriotzaren tristura baino:

“Hil ondoren  
poza dedila lurrean  
opa ahal izatearen  
atsegina daukat.”<sup>24</sup>

Bitoriano Gandiaga horren sakon ezagutu zuen Joxe Azurmendik autortzen digun bezala: Bitoriano Gandiagaren olerkiak ederrak badira, are txundigarriagoa zaigu Bitorianoren bizitza bera, olerkietan kontatu diguna modu paregabe-koan. Olerkiok irakurtzea gustagarriagoa izango zaigu egunetik egunera.

---

<sup>22</sup> ZIRIARRAIN, J.T., “Bitoriano Gandiagaren hiletak”, o. a., 21. or.: “Nik, pixka bat ensaiatu. Ensaiaitu, hori bai; bizitzan ensaiatzea oso inportantea da. A, ensaiatu gabe harrapatu banindun egoera honek! Orduan, erruki!. Nik, horixe bakarrik egin det: ensaiatzen saiatu eta nere kurtxoa zoezer lantzen ahalengindu ere bai, agian. Beste askorik ez”.

<sup>23</sup> *Ibidem*, 20. or.

<sup>24</sup> *Hiru gizon bakarka*, 173. or.

## Irudien argibidea

Aldizkaria honetan erreproduzitutako irudi, liburu, aldizkari eta egunkari guztiak Labayru Ikastegiak Derion daukan Euskal Bibliotekaren ondaretik dagoz hartuta.

Azalekoa: Bilboko ikuspegia. Juan Mañé y Flaquer. *El Oasis. Viaje al País de los Fueros III*, Barcelona, 1880, 55 or. Pannemakerren irudia.

Baionako katedrala: M. F. Morel. *Bayonne, vues historiques et descriptives*, Bayonne, 1836, 113 or. Hélène Feilleten litografia.

Larresoroko apaizgaitegia: *Gure Herria*, Baiona, 1928, 19 or.

1712ko autu judiziala: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa, Korrejimendu saila. 1822/008 dokumentua.

Burtzeña: *Revista Pintoresca de las Provincias Bascongadas, por varios literatos de las mismas*. Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaina, 1986, 34 or. (1846.ean Adolfo Péan y Compañía argitaratzaileek eginiko liburuaren berrinpresioa).

Euskararen eremuko mugak: Beñat Oyharçabal. “Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)” in *Iker-6. Luis Villasanteri omenaldia*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 360 or.

Lutxana: *Bizkaiko begiragarria/Lo admirable de Vizcaya*. Bilbao, 1934, 17 or.

“Orixe”. *Barne-Muinetan*. Itxaropena, Zarautz, 1934.

“Orixe”ren argazkia: Nicolás Ormaechea “Orixe”. *Compendio del Poema Vasco “Euskaldunak”*. Icharopena, Zarauz, 1950, III or.

Hazparne: Iñaki Linazasororen argazkia.

Meñaka: José Ignacio García Muñozen argazkia. Labayru Ikastegiko Argazki Arkibua.

Reproducción de los manuscritos: Carta de poder otorgada por Mikoleta; petición de Diego Moreo de Pedroso y apelación de Mikoleta, aportados por el autor. Proceden del Archivo Capitular Santo Domingo de la Calzada (ACSDC), Sección Pueblos, Legajos 80/13-14.

*Idatz & Mintz* 33-34 aldizkariaren aurkezpena. José Ignacio García Muñozen argazkia. Labayru Ikastegiko Argazki Arkibua.

